

---

# Hizkuntzak eta alderdi politikoak:

## diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan

---

**JONE GOIRIGOLZARRI GARAIZAR**



**2016ko Euskal Gizartearen Egoera Sariaren irabazlea**

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

---

# Hizkuntzak eta alderdi politikoak:

## diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan

---

JONE GOIRIGOLZARRI GARAIZAR

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan  
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitaraldia:** 1.a, 2017ko ekaina

**Ale kopurua:** 215 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Lehendakaritza

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Maketazioa:** EkipoPO

**Inprimaketa:** Lozano Impresores

**ISBN:** 978-84-457-3414-8

**Lege-gordailua:** VI 13-2017

*Pakori*

*Amari*



# AURKIBIDEA

• Aurkibide Orokorra	7
• Irudien eta grafikoaren aurkibidea	11
• Taulen aurkibidea	13

## AURKIBIDE OROKORRA

---

<b>I. SARRERA</b>	19
1.1. Atariko hitzak: hizkuntzaz eta botereaz	19
1.2. Ikergaia eta helburuak	20
1.3. Ikerketa subjektuak eta ikerketa dokumentuak	22
1.4. Lanaren egituraz	22
<b>2. ABIAPUNTU TEORIKOA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAREN IZAERAZ</b>	25
<b>2.1. Hizkuntza politikak</b>	25
2.1.1. Hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazioa definitzen	25
2.1.2. Hizkuntza politikaren eragileak	27
2.1.3. Hizkuntza politikaren helburuak	29
2.1.4. Hizkuntza politikak hizkuntza eskubideen talaiatik	33
2.1.5. Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenak	39
2.1.6. Hizkuntza normalizazioa	48
2.1.7. Laburbilduz	53
<b>2.2. Hizkuntza ideologiak</b>	54
2.2.1. Hizkuntza politika hizkuntza ideologiaren eraginpean	54
2.2.2. Ideologiaren zerizatea	56
2.2.3. Hizkuntza ideologia definitzen	60
2.2.4. Hizkuntza ideologia motak	62
2.2.5. Laburbilduz	96

<b>3. METODOLOGIAREN DISEINUA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN EDUKI AZTERKETAZ</b>	99
<b>3.1. Azterketa subjektuen aukeraketa</b>	99
<b>3.2. Azterketa dokumentuen aukeraketa, bilketa eta prestaketa</b>	106
3.2.1. Hauteskunde programak azterketa dokumentu moduan aukeratzea	106
3.2.2. Hauteskunde programen azterketa corpora	107
3.2.3. Datu baseen prestaketa	109
<b>3.3. Eduki azterketaren diseinua: aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazio eredia</b>	109
3.3.1. Aurrekariak: Manifesto Project eta Regional Manifestos Project	110
3.3.2. Kodetzailea: ordenagailua eta pertsona	111
3.3.3. Kodifikazio-unitatea: esaldi-muina	113
3.3.4. Operazionalizazio prozesua	114
3.3.5. Kodifikazioa burutzeko oinarritzko irizpideak	126
3.3.6. Eduki azterketaren balio eta fidagarritasuna	130
3.3.7. Kodifikazioa eta datu basea	131
<b>3.4. Laburbilduz</b>	132
<b>4. DATUEN ANALISIA: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN ERRETRATATZEA</b>	135
<b>4.1. Euzko Alderdi Jeltzalea</b>	135
4.1.1. Hizkuntzen presentzia	135
4.1.2. Eduki mota	136
4.1.3. Hizkuntza jokoa	137
4.1.4. Alorrak	139
4.1.5. Aplikazio esparrua	140
4.1.6. Azken helburuak	142
4.1.7. Hizkuntza politika proposamenak	147
4.1.8. Balio euskarriak	161
4.1.9. Estatusa eta alkarketak	168
4.1.10. Laburbilduz	174
<b>4.2. Ezker Abertzalea</b>	175
4.2.1. Hizkuntzen presentzia	175
4.2.2. Eduki mota	175
4.2.3. Hizkuntza jokoa	176
4.2.4. Alorra	178
4.2.5. Aplikazio esparrua	179

4. 2. 6. Azken helburuak	181
4. 2. 7. Hizkuntza politika proposamenak	184
4. 2. 8. Balio euskarriak	200
4. 2. 9. Estatusa eta alkarketak	209
4. 2. 10. Laburbilduz	217
<b>4. 3. Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra</b>	217
4. 3. 1. Hizkuntzen presentzia	217
4. 3. 2. Eduki mota	218
4. 3. 3. Hizkuntza jokia	219
4. 3. 4. Alorrak	220
4. 3. 5. Aplikazio esparrua	221
4. 3. 6. Azken helburuak	222
4. 3. 7. Hizkuntza politika proposamenak	227
4. 3. 8. Balio euskarriak	242
4. 3. 9. Estatusa eta alkarketak	250
4. 3. 10. Laburbilduz	257
<b>4. 4. Partido Popular</b>	258
4. 4. 1. Hizkuntzen presentzia	258
4. 4. 2. Eduki mota	259
4. 4. 3. Hizkuntza jokia	259
4. 4. 4. Alorra	260
4. 4. 5. Aplikazio esparrua	262
4. 4. 6. Azken helburuak	262
4. 4. 7. Hizkuntza politika proposamenak	265
4. 4. 8. Balio euskarriak	277
4. 4. 9. Estatusa eta alkarketak	286
4. 4. 10. Laburbilduz	291
<b>4. 5. Ezker Anitza</b>	292
4. 5. 1. Hizkuntzen presentzia	292
4. 5. 2. Eduki mota	292
4. 5. 3. Hizkuntza jokia	293
4. 5. 4. Alorra	294
4. 5. 5. Aplikazio esparrua	296
4. 5. 6. Azken helburuak	297
4. 5. 7. Hizkuntza politika proposamenak	301
4. 5. 8. Balio euskarriak	317
4. 5. 9. Estatusa eta alkarketak	325
4. 5. 10. Laburbilduz	330



<b>5. ONDORIOAK: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA EREDUAK ETA EUREN LEKU-HARTZE IDEOLOGIKOAK</b>	333
5.1. Ofizialtasun erregimena eta euskara: ezikusitik lehenespenera	334
5.2. Euskararen normalizazioa: normalizazioaren bidean edo bidetik kanpo	345
5.3. Hizkuntza bizikidetzaren ereduak: komunitate linguistiko bereiztuen alkarbizitza baketsutik euren bat egitera	352
5.4. Etorkinei zuzendutako hizkuntza politikak: “gure” desbardinak eta eurenak uztartuz	357
5.5. Atzerriko hizkuntzei zuzendutako hizkuntza politikak: ikasgaitik presentzia orokortura	359
5.6. Hizkuntza eskubideen ulermena eta euskal hiztunen eskubideak hizkuntza gitxitu moduan: euskara hizkuntza baztertutik euskara hizkuntza baztertzailera	361
5.7. Euskara, gaztelania eta frantsesaren estatusa: euskararen estatus bereziaren baieztapena ala ukapena	367
5.8. Kanpora begirako hizkuntza ideologiak: paradigma ekonomizista eta ekologista bateratuz	369
5.9. Nazio-estatu eta hizkuntza gitxituen eskubideen ideologiak euskarari zuzendutako hizkuntza politiketan: nazio-estatu proiektu desbardinetan erpineratutako hizkuntza eskubide eta hizkuntza politikak	372
5.10. Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren arteko loturaren zer-nolakoak: alkar azaltzen dagozan bi errealitate	376
5.11. Itxiera: azken gogoeta teorikoa EAEn alderdi politikoen leku-hartze linguistikoak	380
<b>6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	383
6.1. Aipatutako bibliografia	383
6.2. Azterketa corpusa: Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programak	398
6.2.1. Euzko Alderdi Jeltzalea	398
6.2.2. Ezker Abertzalea	398
6.2.3. Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra	399
6.2.4. Partido Popular	399
6.2.5. Ezker Anitza	400
6.3. Dokumentazio zuzena	401
6.4. Helbide elektronikoak	402
<b>7. ERANSKINA: KODIFIKAZIO LIBURUA</b>	405

## IRUDIEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

<b>2. ABIAPUNTU TEORIKOA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAREN IZAERAZ</b>	25
2.1. Irudia. Hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazioa	26
2.2. Irudia. Banakakoaren eta lurraldetasunaren eskubide erregimenen egokitasuna hizkuntza komunitateen kontzentrazio mailaren arabera	36
2.3. Irudia. Hizkuntza komunitateen lurralde banaketa desbardinak	37
2.4. Irudia. Hizkuntza ofiziala eta komunikazio motak Pool eta Branchadell-en arabera	39
2.5. Irudia. Gizarte mailan euskarari zuzendutako diskurtsoak	76
2.6. Irudia. Hizkuntzen mundu mailako sistema linguistikoaren eredu grabitazionala	91
<b>3. METODOLOGIAREN DISEINUA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN EDUKI AZTERKETAZ</b>	99
3.1. Irudia. Hizkuntza politikaren operazionalizazioa: kodifikazio aldagai anitz eta aldiberekoa	118
3.2. Irudia. Datu basea	131
<b>4. DATUEN ANALISIA: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN ERRETRATATZEA</b>	135
4.1. Grafikoa. Diskurtso linguistikoa EAJren hauteskunde programetan. 1980-2012	136
4.2. Grafikoa. EAJren diskurtso linguistikoaren eduki mota hauteskunde programaka. 1980-2012	137
4.3. Grafikoa. EAJren hizkuntza politikaren azken helburuak politika arloka	145
4.4. Grafikoa. Diskurtso linguistikoa Ezker Abertzalearen hauteskunde programetan. 1990-2001, 2012	175
4.5. Grafikoa. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoaren eduki mota hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	176
4.6. Grafikoa. Ezker Abertzalearen hizkuntza politikaren azken helburuak politika arloka	183
4.7. Grafikoa. Diskurtso linguistikoa PSE-EEren hauteskunde programetan. 1980-2012	218

4.8.	Grafikoa. PSE-EEren diskurtso linguistikoaren eduki mota hauteskunde programaka. 1980-2012	218
4.9.	Grafikoa. PSE-EEren hizkuntza politikaren azken helburuak politika arloka	224
4.10.	Grafikoa. Diskurtso linguistikoa PPren hauteskunde programetan. 1984-2012	258
4.11.	Grafikoa. PPren diskurtso linguistikoaren eduki mota hauteskunde programaka. 1984-2012	259
4.12.	Grafikoa. Diskurtso linguistikoa Ezker Anitzaren hauteskunde programetan. 1986-2012	292
4.13.	Grafikoa. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoaren eduki mota hauteskunde programaka. 1986-2012	293
4.14.	Grafikoa. Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren azken helburuak politika arloka	299
<b>5.</b>	<b>ONDORIOAK: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA EREDUAK ETA EUREN LEKU-HARTZE IDEOLOGIKOAK</b>	<b>333</b>
5.1.	Irudia. Euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasun maila herri administrazioan alderdi politikoen arabera	339
5.2.	Irudia. Euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasun maila hezkuntza sisteman eta komunikabide publikoetan alderdi politikoen arabera	344
5.3.	Irudia. Euskararentzako normalizazio mailak alderdi politikoen hizkuntza politketan	350
5.4.	Irudia. Etorkizunerako desiratutako errealitate linguistikoa alderdi politikoen ikuspegian	356
5.5.	Irudia. Etorkinei zuzendutako hizkuntza politiken erregimena alderdi politikoka	358
5.6.	Irudia. Atzerriko hizkuntzei eta ingelesari zuzendutako hizkuntza politiken trinkotasun eta barreiadura maila erlatiboa alderdi politikoka	361
5.7.	Irudia. Nazioarteari begira alderdi politikoen baitan nagusitutako leku-hartze ideologikoa: paradigma ekonomizista vs. ekologista	361
<b>7</b>	<b>ERANSKINA: KODIFIKAZIO LIBURUA</b>	<b>405</b>
7.1.	Irudia: datu basea excelen	409
7.2.	Irudia: datu basea kodetuta	411

## TAULEN AURKIBIDEA

<b>2. ABIAPUNTU TEORIKOA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAREN IZAERAZ</b>	25
2.1. Taula. Hizkuntza politikaren eragileak	28
2.2. Taula. Hizkuntza politikaren helburu eta bide desbardinak	30
2.3. Taula. Hizkuntza ofizial motak Cooper-en arabera	40
2.4. Taula. Ofizialtasun erregimenak hizkuntza ofizial kopuruaren eta ofizial ez diren hizkuntzekiko hartutako jarreraren arabera	42
2.5. Taula. Zerbitzuen antolaketa zerbitzuetako sarrera erregimenaren arabera	46
2.6. Taula. Hertsaduraren araberako politika publiko motak	47
2.7. Taula. Hizkuntza ideologia osogarria vs. hizkuntza ideologia instrumentala	71
2.8. Taula. Hizkuntza gitxituen eskubideen aitorten eta aldeko eta kontrako jarreraren continuuma	80
2.9. Taula. Euskararen normalizazioarekiko diskurtsoak: legitimatzailea eta onarpenezkoa	88
2.10. Taula. Bi hizkuntza politika paradigma	93
2.11. Taula. Ingelesaren eta beste hizkuntzen etiketatzea	94
<b>3. METODOLOGIAREN DISEINUA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN EDUKI AZTERKETAZ</b>	99
3.1. Taula. Erkidegoko hauteskunde deialdi bakoitzean alderdi ala koalizio bakoitzak Eusko Legebiltzarrean lortutako jesarleku kopurua	100
3.2. Taula. Aztergai diren alderdi politikoek bizitako eraldaketak Eusko Legebiltzarreko legegintzaldika	104
3.3. Taula. Aztergai izango diren EAEko alderdi politikoak alderdi sistemako bi gatazka dimentsio nagusietan lekututa	105
3.4. Taula. Dokumentazio corpusa: aztergai diren bost alderdi politikoaren hauteskunde programa autonomikoen kopurua eta lortutako zenbatekoa	108
3.5. Taula. Hauteskunde programa testu zati baten banaketa adibidea esaldi-muinetan	114
3.6. Taula. Operazionalizazio prozesua	115

3.7. Taula. Lehenengo operazionalizazio prozesuaren hurbilketa mota	117
3.8. Taula. Hizkuntza politika aldagai teorikoaren operazionalizazioa ikerketa aldagaietan	119
3.9. Taula. Hizkuntza ideologia aldagai teorikoaren operazionalizazioa ikerketa aldagaietan	120
3.10. Taula. Atributuzko aldagaiak	121
3.11. Taula. Bigarren operazionalizazio prozesuaren hurbilketa mota	122
3.12. Taula. Ikerketa aldagaien kode zerrendak	124
3.13. Taula. Aztergai diren alderdi politikoek diskurtso linguistikoari bideratutako esaldi-muin kopurua hauteskunde programaka. 1980-2012	132
<b>4. DATUEN ANALISIA: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN ERRETRATATZEA</b>	135
4.1. Taula. EAJren diskurtso linguistikoaren hizkuntzak hauteskunde programaka. 1980-2012	138
4.2. Taula. EAJren diskurtso linguistikoaren politika alor orokorrak hauteskunde programaka. 1980-2012	140
4.3. Taula. EAJren diskurtso linguistikoaren aplikazio esparruak hauteskunde programaka. 1980-2012	141
4.4. Taula. Hizkuntza politikaren azken helburuen presentzia EAJren diskurtso linguistikoan. 1980-2012	142
4.5. Taula. EAJren hizkuntza politikaren azken helburuak hauteskunde programaka. 1980-2012	143
4.6. Taula. EAJren hizkuntza politikaren azken helburuen politika alorrak	144
4.7. Taula. EAJren hizkuntza politika ekimenen inguruko datu zentralak hauteskunde programaka. 1980-2012	148
4.8. Taula. EAJk hizkuntza desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimenak hauteskunde programaka. 1980-2012	149
4.9. Taula. EAJk euskarari bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	150
4.10. Taula. EAJk euskara eta gaztelaniari aldi berean bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	159
4.11. Taula. EAJren diskurtso linguistikoan balio euskarriak bildu dabezan hizkuntzak	162
4.12. Taula. EAJren diskurtso linguistikoan euskara eta euskara eta gaztelaniari atxikitako balio euskarriak balio-taldeka	163

4.13. Taula. EAJren diskurtso linguistikoan estatus eta alkarketak bildu dabean hizkuntzak	169
4.14. Taula. EAJren diskurtso linguistikoan hizkuntzei atxikitako estatus eta alkarketak hizkuntzaka	171
4.15. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoaren hizkuntzak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	177
4.16. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoaren politika alor orokorrak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	178
4.17. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoaren aplikazio esparruak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	179
4.18. Taula. Hizkuntza politikaren azken helburuen presentzia Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoan. 1990-2001, 2012	181
4.19. Taula. Ezker Abertzalearen hizkuntza politikaren azken helburuen politika alorrak	181
4.20. Taula. Ezker Abertzalearen hizkuntza politikaren azken helburuak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	182
4.21. Taula. Ezker Abertzalearen hizkuntza politika ekimenen inguruko datu zentralak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	185
4.22. Taula. Ezker Abertzaleak hizkuntza desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimenak hauteskunde programaka. 1990-2001, 2012	186
4.23. Taula. Ezker Abertzaleak euskarari bideratutako hizkuntza politika ekimenen ehunekoak arloka	188
4.24. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoan balio euskarriak bildu dabean hizkuntzak	201
4.25. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoan euskarari atxikitako balio euskarriak balio-taldeka	202
4.26. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoan estatus eta alkarketak bildu dabean hizkuntzak	209
4.27. Taula. Ezker Abertzalearen diskurtso linguistikoan hizkuntzei atxikitako estatus eta alkarketak hizkuntzaka	210
4.28. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoaren hizkuntzak hauteskunde programaka. 1980-2012	219
4.29. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoaren politika alor orokorrak hauteskunde programaka. 1980-2012	220
4.30. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoaren aplikazio esparruak hauteskunde programaka. 1980-2012	221

4.31. Taula. Hizkuntza politikaren azken helburuen presentzia PSE-EEren diskurtso linguistikoan. 1980-2012	222
4.32. Taula. PSE-EEren hizkuntza politikaren azken helburuak hauteskunde programaka. 1980-2012	222
4.33. Taula. PSE-EEren hizkuntza politikaren azken helburuen politika alorrak	223
4.34. Taula. PSE-EEren hizkuntza politika ekimenen inguruko datu zentralak hauteskunde programaka. 1980-2012	227
4.35. Taula. PSE-EEk hizkuntza desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimenak hauteskunde programaka. 1980-2012	228
4.36. Taula. PSE-EEk ingelesari bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	230
4.37. Taula. PSE-EEk euskara eta gaztelaniari aldi berean bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	232
4.38. Taula. PSE-EEk euskarari bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	237
4.39. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoan balio euskarriak bildu dabean hizkuntzak	243
4.40. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoan hizkuntzei orokorrean, euskara, euskara eta gaztelania eta euskara, gaztelania eta ingelesari atxikitako balio euskarriak balio taldeka	244
4.41. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoan estatus eta alkarketak bildu dabean hizkuntzak	251
4.42. Taula. PSE-EEren diskurtso linguistikoan hizkuntzei atxikitako estatus eta alkarketak hizkuntzaka	252
4.43. Taula. PPren diskurtso linguistikoaren hizkuntzak hauteskunde programaka. 1984-2012	260
4.44. Taula. PPren diskurtso linguistikoaren politika alor orokorrak hauteskunde programaka. 1984-2012	261
4.45. Taula. PPren diskurtso linguistikoaren aplikazio esparruak hauteskunde programaka. 1984-2012	262
4.46. Taula. Hizkuntza politikaren azken helburuen presentzia PPren diskurtso linguistikoan. 1984-2012	263
4.47. Taula. PPren hizkuntza politikaren azken helburuak hauteskunde programaka. 1984-2012	263
4.48. Taula. PPren hizkuntza politikaren azken helburuen politika alorrak	264
4.49. Taula. PPren hizkuntza politika ekimenen inguruko datu zentralak hauteskunde programaka. 1984-2012	265

4.50. Taula. PPK hizkuntza desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimenak hauteskunde programaka. 1984-2012	266
4.51. Taula. PPK euskara eta gaztelaniari aldi berean bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	268
4.52. Taula. PPK euskarari bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	273
4.53. Taula. PPren diskurtso linguistikoan balio euskarriak bildu dabean hizkuntzak	278
4.54. Taula. PPren diskurtso linguistikoan hizkuntzei orokorrean, euskara eta euskara eta gaztelaniari atxikitako balio euskarriak balio-taldeka	279
4.55. Taula. PPren diskurtso linguistikoan estatus eta alkarketak bildu dabean hizkuntzak	287
4.56. Taula. PPren diskurtso linguistikoan hizkuntzei atxikitako estatus eta alkarketak hizkuntzaka	288
4.57. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoaren hizkuntzak hauteskunde programaka. 1986-2012	294
4.58. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoaren politika alor orokorrak hauteskunde programaka. 1986-2012	295
4.59. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoaren aplikazio esparruak hauteskunde programaka. 1986-2012	296
4.60. Taula. Hizkuntza politikaren azken helburuen presentzia Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoan. 1986-2012	297
4.61. Taula. Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren azken helburuak hauteskunde programaka. 1986-2012	297
4.62. Taula. Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren azken helburuen politika alorrak	298
4.63. Taula. Ezker Anitzaren hizkuntza politika ekimenen inguruko datu zentralak hauteskunde programaka. 1986-2012	301
4.64. Taula. Ezker Anitzak hizkuntza desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimenak hauteskunde programaka. 1986-2012	302
4.65. Taula. Ezker Anitzak Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzei bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	305
4.66. Taula. Ezker Anitzak euskara eta gaztelaniari aldi berean bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	307
4.67. Taula. Ezker Anitzak euskarari bideratutako hizkuntza politika ekimenak arloka	309
4.68. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoan balio euskarriak bildu dabean hizkuntzak	317



4.69. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoan euskara, euskara eta gaztelania eta Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzei atxikitako balio euskarriak balio-taldeka	320
4.70. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoan estatus eta alkarketak bildu dabean hizkuntzak	326
4.71. Taula. Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoan hizkuntzei atxikitako estatus eta alkarketak hizkuntzaka	327
<b>5. ONDORIOAK: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA EREDUAK ETA EUREN LEKU-HARTZE IDEOLOGIKOAK</b>	333
5.1. Taula. EAEko errealitate linguistikoaren egoeraren diagnostia: azpimarratutako errealitatea eta bere norabidea	355
5.2. Taula. Hizkuntza eskubide aldarriak eta euskararen eskubideak hizkuntza gitxitu moduan alderdi politikoan baitan	366
5.3. Taula. Alderdi politikoek euskarari atxikitako estatusaren izaera	368

# I. SARRERA

## I. I. ATARIKO HITZAK: HIZKUNTZAZ ETA BOTEREAZ

---

Hizkuntzak gizartekideen mintzoak bizi dauz. Halaber, estatuek maila linguistikoan hartzen dabezan erabakiek hizkuntzen gizarte erabilera baldintzatu daikie. Estatuek esparru publikoan erabiliko diren hizkuntzak hautatu ohi dabez -herri administrazioan, hezkuntza sisteman, komunikabide publikoetan, etab.- eta epe ertain luzean esparru pribatuko gizarte zibil antolatuaeren eta herritarren jokabide eta ideologia linguistikoetan be eragin daikie.

Euskal Herria banatuta daben Frantziar eta Espainiar Estatuek euren barne-aniztasun linguistikoari modu desbardinean erantzuten deutse, bai lurraldeko hizkuntzen aitortenari bai erabakimen politikorako botere-gunei dagokionean. Ipar Euskal Herrian lurraldeko hizkuntzen estatusaren gaineko hautapena Estatu Zentralari dagokio eta Frantziar Konstituzioaren 1992ko erreforman ebatzia da frantsesa dala Errepublikako hizkuntza, babes legala dauan bakarra. Horrela, Frantziar Estatuko gainontzeko hizkuntzak, euskara barne, tolerantziaren esparrura zedarritzen dira. Hego Euskal Herrian bi erkidegoena da euskararen gaineko eskuduntza, 1978ko Espainiar Konstituzioak gaztelania ez beste estatuko hizkuntzei autonomia erkidegoetan koofizialtasun aitortza eskaini eutsenetik, lekuan lekuko autonomia estatutuei jarraituz. Hala bada, euskarari atxikitako estatusa desbardina da Nafarroako Foru Erkidegoan (hemendik aurrera NFE) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera EAE). NFEan euskara erkidegoko zonalde linguistiko euskaldunean bakarrik da ofiziala; EAEan, barriz, euskarak gaztelaniagaz partekatzen dau koofizialtasuna erkidego osoan.

Hizkuntza bateri ofizialtasun estatusa eskaintzeak mintzaira horretako hiltunei eskubide linguistiko batzuk aitortzea dakar arlo publikoan. Lan honetan aztergai izango dogun EAEan, euskararen gizarte egoera gitxituak bere ofizialtasuna zuzenean egikaritzea guztiz zailtzen dau. Horregaitik, 1980 hamarkadan, erkidegoko botere publikoek euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko euskararen normalizazioa, bere ezagutza eta gizarte erabilera handitzeko prozesua abiatzeko hautua egin eben, 10/1982 Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarriko Legea hitzartuz.

Ordutik, euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetza linguistikoaren auzia bizi-bizirik dago EAEko eztabaida eta jardun politikoan; alderdi politikoaren arteko jarrera eta ikuspegi politiko-ideologiko desbardinak agerian itziz. Eztabaida-gune zentralak bi dira: batetik, hizkuntzok gizarte mailan izan beharreko tokia eta, bestetik, berau egikaritzeko modua. Azken aldiaren gainera, historikoki lurraldeotan berba egin diren mintzairoz aparte, herrialdeen arteko hartu-emonak ugaritu ahala, atzerriko hizkuntzek eurak be goranzko presentzia bereganatu dabe politikoen saio eta mintzoan; bereziki ingelesarenak, bere *lingua franca* estatusak bultzatuta, baina baita etorkin komunitateek eurekaz ekarritako aniztasun linguistikoak be.

Plangintza linguistikoa zehaztu edota bertan eragiteko ahalmena daben alderdi politikoen leku-hartze linguistikoa ezagutzeak berebiziko interesa dauka egungo eta etorkizuneko alkarbizitza linguistikoaren nondik norakoak ezagutu eta, ahal dan neurrian, aurreikusteko. Ikerketa lan honetan leku-hartze horreen gainean galdetu gura da; itaun zentralak honakoak izanik: zelako hizkuntza politikak hobesten dabez EAeko alderdi politikoeak?, zeintzuk ikuspuntu ideologiko agertzen dabez hizkuntzen aurrean?, zelako lotura dago hobesten dabezan hizkuntza politika eta agertzen dabezan hizkuntza ideologiaren artean?

Ikerketaren abiapuntua ezagun dogula, hurrengo lerroetan bere markotzea burutuko da, ikergeraia definituz eta azterlanaren helburuak zehaztuz. Gero, liburuaren kapituluz kapituluko aurkezpena burutuko da.

## 1. 2. IKERGAIA ETA HELBURUAK

---

Atarian esan dan moduan, ikerketa lan honen oinarria euskal alderdi politikoen leku-hartze linguistikoen gaineko interesa da. Agente politikoen leku-hartze linguistikoa ezagutzeko, hizkuntzen gaineko alderdien proposamen politikoa eta hizkuntzen inguruko ideia-sistemak zehaztea komeni da. Izan be, alderdi politikoen leku-hartze linguistikoa modu integral eta osoagoan ezagutu ahal izateko funtsezkoa da biei erreparatzea.

Lan honetan ikuspegi global hori landu gura da eta, hortaz, bi aldeak izango dira aztergai: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia. Hizkuntza politikak lurralde bateko hizkuntza bizikidetzaren antolatze bideratzen diren mintzairen gaineko ekimen politikoa dira; hizkuntza ideologia, berriz, hizkuntzen inguruko sinismen, ideia, jarrera eta balioak. Horrela, ikerketaren **lehenengo helburu orokorra** zera izango da: EAeko alderdi politikoei proposagai dabezan hizkuntza politika ekimenak eta alderdiek hizkuntzen gainean dabezan sinismen, ideia, balio eta jarrerak aztertzea; bertatik, alderdi politikoei hobesten dabezan hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ereduak identifikatzeko.

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ereduak identifikatzerakoan, lurraldean historikoki hitz egin diren mintzairei ezeze, atzerriko eta etorkinen hizkuntzei be jarriko jake arreta.

Zehazki, hizkuntza politika ereduak identifikatzerakoan, eta lurraldeko hizkuntza ofizialak aintzat hartuta, EAeko alderdi politikoei euskara eta gaztelaniarentzako zelako ofizialtasun eredu eta euskararentzako zelako normalizazioa lehenesten daben aztertuko da. Izan be, hizkuntza bat maila desbardinetan izan daiteke ofiziala eta normalizatua. Horregaitik, EAeko alderdi politikoei euskara eta gaztelaniarentzako proposatzen daben ofizialtasun maila zenbatekoa dan ezagutu nahi da, bi mintzairen artean ofizialtasun simetrikoa ala asimetrikoa hobesten daben argituz. Eta aldi berean, euskararen normalizazio soziolinguistikoa zenbateraino eta zein baldintzetan lortu gura daben aztertu gura da. Halaber,

hizkuntzen gaineko EAEko alderdi politikoon bizikidetzaren eredu ideala be identifikatu nahi da, etorkizunari begira desiratzen daben gizarte errealtate linguistikoa ezagutzeko, betiere, euskarak eta gaztelaniak eraikitako elebitasuna oinarri hartuta.

Bestalde, globalizazioaren testuinguruan, azken hamarkadetako nazioartekotzearen hazkundeak eta EAE kanpo-emigrazio jasotzaile bilakatzeak erronka linguistikoko barriak ekarri dabez. Lan honetan, EAEko alderdi politikoen erronka barri horreei erantzuteko neurriak daben ezagutu nahi da eta, izatekotan, euren zer-nolakoa aztertu. Esaterako, etorkinek eurek dakarren aniztasun linguistikoa zein modutan erantzun gura deuse alderdi politikoen: tolerantzia hutsez, etorkinek lurraldeko hizkuntzak ez ezagutzeagaitik jasan daikiezan traba linguistikoa gainditzen lagunduz edo euren ama hizkuntzak mantendu dagiezan neurriak hartuz?

Bestalde, hizkuntza ideologia ereduak aintzat hartuta, batetik, EAEko alderdi politikoen hizkuntza gitxituen eskubideei eskaintzen deuten tratamendua ikertuko da, alegia, eskubideok ulertu eta argudiatzeko dabezan moduak. Bestetik, historikoki lurraldean berba egin diren mintzaireri eskaintzen deuten estatusa (identitarioa, instrumentala, integratzailea, kulturala, etab.) identifikatuko da, euskara eta gaztelaniaren artean estatus bereizketarik egiten daben ezagutuz. Azkenik, EAEko alderdi politikoen nazioarteari begira desiratzen daben errealtate linguistikoa jarriko da arreta, elebakartasunaren aldeko *lingua franca* baten difusio paradigmaren eta eleaniztasun orekatuaren aldeko hizkuntzen ekologia paradigmaren kontinuum-ean zein lekutze hartzen daben aztertuz.

Aldi berean, ikerketa lan honetan, EAEko alderdi politikoen hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren artean jarraipenik dagoen be aztertu gura da. Hau da, hizkuntza politika eredu baten alde egiteak hizkuntza ideologia ikuspegi bat hobestea dakarren ezagutzea; eta alderantziz, hizkuntza ideologia eredu bat agertzeak hizkuntza politika zehatz bat lehenestea dakarren jakitea. Hortaz, ikerketaren **bigarren helburu orokorra** EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia planteamenduen arteko lotura eta bere zer-nolakoa aztertzea izango da.

Lotura hori jorratzerakoan, testuinguru mendealdarrean maila politikoan, praktikoki zein teorikoki, eragin zentrala izan daben bi ideologia linguistikotan jarriko da arreta, alegia, nazio-estatuaren ideologian eta hizkuntza gitxituen eskubideen gaineko ideologian. Horrela, bi ideologia horreek EAEko alderdi politikoetan presente dagozan ezagutuko da eta, egotekotan, hizkuntza politika ulertzeko zenbateko eta zer-nolako azalpen indarra daben ikertuko da.

Komeni da argitzea, ikerketa honetan alderdi politikoen ikuspegi konparatiboa aintzat hartuta jardungo dala; eta aldi berean, hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak bere horretan izango direla aztergai. Hau da, helburua ez da hizkuntzen gaineko politika eta ideologiak alderdien estrategia politiko eta unibertso ideologiko zabalagoen baitan kokatzea eta kokatze hori aztertzea. Egitez, leku-hartze linguistikoa subjektibitate politiko-ideologiko orokorren baitan aztertzea beste ikerketa objektu bat litzateke.

### I. 3. IKERKETA SUBJEKTUAK ETA IKERKETA DOKUMENTUAK

---

1980az geroztik EAEko alderdi-sisteman alderdi politiko ugari hartu dabe. Alderdi guzti horreen arteko lan konparatibo oso eta sistematikoa egitea konplexuegia litzateke, eta horregaitik, ikerketa lan honetarako aukeraketa bat egin da zenbait irizpide aintzat hartuta: batetik, alderdiok 80ko hamarkadaz geroztik EAEko alderdi-sistemaren parte izatea eta Eusko Legebiltzarrean ordezkari izatea; eta bestetik, ikerketarako sailkatutako alderdi politiko guztien artean EAEko zatiketa ideologikoaren bi ardatz nagusietan kokatze guztiak biltzea. Alegia, abertzaletasunaren ardatzean, euskal abertzaletasunaren eta espainiar abertzaletasunaren ordezkari moduan hartu daitezkeen alderdi politikoak biltzea; eta ezker-eskuin ardatzean, ideologia ezkeriarra eta eskuindarra daben alderdiak batzea. Horrela, azterketa honetarako aukeratu diran bost alderdi politikoak EAJ, Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP eta Ezker Anitza izan dira.

Bestalde, alderdi politikoaren hizkuntza politiken eta hizkuntza ideologiaren ikerketa bateratura hurbiltzeko bideak anitzak izan daitezke. Lan honetan alderdi politikoaren hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak diskurtso mailan landu dira, 1980ko lehen hauteskunde deialdiaz geroztik alderdi politikoek Eusko Legebiltzarrerako aurkeztutako programen eduki azterketa burutuz. Guztira hamar legegintzalditako (1980-2012) hauteskunde programa.

Azterketa dokumentu moduan Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programak aukeratzeko arrazoiak hainbat izan dira. Batetik, hauteskunde programen politika ekimenak gaiaren inguruko ikuspegi ideologikoagaz bateratzen dabezala. Bigarren, politika alor desbardinaren gaineko alderdiaren planteamendu orokor eta orohartzailea agertzen dabela. Hirugarren, Eusko Legebiltzarrerako programak izanik, EAERako ikuspuntu globala eskaintzen dabela. Laugarren, hauteskunde programak gobernu programak dirala eta, beraz, alderdia gobernura heltzekotan indarrean jartzen saiatuko dala. Eta bosgarren, hauteskundeak aldi-aldi ospatzen direnez, alderdien posizio linguistikoak ikuspegi diakroniko batetik lantzea posible egiten dabela.

### I. 4. LANAREN EGITURAZ

---

Liburua lau kapitulu handiz osatua dago. Lehenengo kapituluak, *Abiapuntu teorikoa: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren izaeraz* deiturikoa, ikerketa objektura hurbiltzeko teorikoa burutuko da ikerketaren ardatzetako bakoitzari, hizkuntza politikari eta hizkuntza ideologiari, azpi-kapitulu bat eskainita. Azpi-kapituluen egitura parekoa izango da. Lehenengo zatian, hizkuntza politika edo hizkuntza ideologia definitzeko eta euren munarriak ezartzeko ahalegina egingo da, eta hizkuntza ideologiaren atalean hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko eragintzaren inguruko zenbait giltzarri

aurkeztuko dira. Bigarren zatian, EAEko errealitatea ulertzeko aitagarrienak diren hizkuntza politika erregimenak eta hizkuntza ideologia ereduak izango dira azterga: ofizialtasun hizkuntza erregimena eta hizkuntza normalizazioa. Hizkuntza ideologiaren kasuan, barriz, EAEn presente egotea aurreikusten diren hiru gai zentralen inguruko leku-hartzeak aztertuko dira: nazio eta estatu eraikuntzaren gaineko ideologia linguistikoak, hizkuntza gitxituen eskubideen ingurukoak eta *lingua franca* eta mundu mailako joera linguistikoen aurrekoak. Lehenengo biak lurralde barrura begirako hizkuntza ideologia moduan sailkatuko dira eta hirugarrena lurralde kanpora begirako hizkuntza ideologia gisa.

Bigarren kapituluan, *Metodologiaren diseinua: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren eduki azterketaz* deiturikoan, EAEko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak aztertzeko eraiki dan metodologia deskribatuko da. Lehenengo, alderdi politikoak eta azterketa dokumentuak aukeratzeko prozedura azalduko da; eta azterketa dokumentuen bilketa eta prestaketa prozesuaren nondik norakoak be esplikatuko dira. Gero, ikerketarako diseinatutako eduki azterketa deskribatzeari ekingo jako; hasi bere oinarri diren *Manifestos Project* eta *Regional Manifestos Project*-en inguruan zenbait zertzelada eskaintzetik eta ikerketarako apropos eraikitako aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazio-ereduaren diseinua sakontasunean esplikatuz arte. Diseinatutako eduki azterketaren baliozkotasuna eta fidagarritasuna bermatzeko hartutako neurrien azalpena be emongo da.

Hirugarren kapituluan, *Datuen analisisa: EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren erretratutzea* izenekoan, eduki azterketaren baitan eraiki diren ikerketa aldagaiak ardatz hartuta, EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren azterketa burutuko da. Azterketa alderdi politikoka bideratuko da. Hau da, aztergai dan alderdi politiko bakoitzaren analisisa azpi-kapitulu banatuetan burutuko da.

Azken kapituluan, *Ondorioak: EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika ereduak eta euren leku-hartze ideologikoak* deiturikoan, EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika ereduak eta ereduok laguntzen doazen leku-hartze ideologikoak aurkeztuko dira. Kapitulu honetan, alderdi politikoak modu bateratuan landuko dira eta azpi-kapituluak hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia gaika eraikiko dira. Gaiak honakoak izango dira: 1) hizkuntza politikari zuzendutako gaiak: ofizialtasun erregimena, euskararen normalizazioa, hizkuntza bizikidetzaren ereduak, etorkinentzako hizkuntza politikak eta atzerriko hizkuntzentzako politikak; 2) hizkuntza ideologiari zuzendutako gaiak: hizkuntza eskubideen gaineko ideologiak, lurralde baitako hizkuntzei atxikitako estatusak, nazioartera begirako hizkuntza ideologiak; 3) hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren loturaren azterketara zuzendutako gaiak: nazio-estatu ideologiak eta hizkuntza gitxituen eskubideen gaineko ideologiak euskarari zuzendutako hizkuntza politikan, eta azkenik, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren arteko lotura.

Lan honetan, irakurleak hizkuntza politika aztertzeko bestelako modu bat aurkituko dau, eduki zein metodologia mailan. Egitez, lan honek hizkuntza politikaren ikerketa ikuspegi tradizionalari bigarren dimentsio bat gaineratu gura izan deutso; hizkuntza politiken gaineko

azterketetan sari modu inplizituan ala zeharka landu ohi dan ideologiarena. Halaber, hizkuntza politika inguratzen dauan ideologia talaia linguistikotik aztertu gura izan da. Gainera, hizkuntza politikari eta hizkuntza ideologiari zentralitate berbera atxiki jako, bata eta bestea errealitate berberaren bi dimentsio moduan tratatuz. Ikuspegi hau irakurlearen interesekoa izango dalakoan, irakurraldi probetxugarria opa deusuet.

## 2. ABIAPUNTU TEORIKOA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAREN IZAERAZ

Ikerketa lan honeri hasiera emoten deuteson kapitulu teoriko honetan, ikerketaren gidarlerro diren hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia izango dira langai; lehenengo, modu zabal batean euren zerizatea hizpide hartuta eta, bigarren, azterketaren lurralde testuinguruan gehiago zentratuz, alegia, EAEn indarrean dagozan hizkuntza politika erregimenen eta lurraldean zeresana izan daikien ikuspegi ideologikoen gainean zenbait klabe teoriko eskainiz. Era berean, hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren artean nagusitu daiteken eragintza be landuko da modu laburrean.

### 2. 1. HIZKUNTZA POLITIKAK

---

Zer da hizkuntza politika?, zeintzuk helburu bilatu daitezke hizkuntza politikaren bitartez?, zelako hizkuntza politika erregimenak existitzen dira?, nortzuk dira hizkuntza politikak bideratzen dabezan agenteak? Galdera horreexek izango dira, besteak beste, hizkuntza politikari zuzendutako azpi-kapitulu hau gidatuko dabenak.

#### 2. 1. 1. Hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazioa definitzen

---

Hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazio terminoak eta kontzeptuak zalantza sortzaile dira. Izan ere, kontzeptu berberari erreferentzia egiteko termino desbardinak erabili izan diren era berean, termino bardinaren azpian kontzeptu diferenteek hartu dabe aterpe. Esaterako, Moustaoui-k (2007) Herrero Valeiroren hitzak bere eginez argitzen deuskun moduan, eskola anglosaxoian hizkuntza planifikazioaren baliokide izan dira hizkuntza garapena (*language developement*), hizkuntza ingeniariaritz (*language engineering*), hizkuntza erregulazioa (*linguistic regulation*) edota hizkuntza zuzendaritza (*language management*). Maila zabalago batean, hizkuntza planifikazioaren baliokide dira *aménagement linguistique* dalakoa, Quebec-eko eta Frantziako soziolinguistikaren erabilia, zein *hizkuntza normalizazioa*, soziolinguistika katalanean zein euskaldunean erabilia. Hala ere, aipatutako terminoetan erabiliena hizkuntza planifikazioa dala esan daiteke.



Hizkuntza politika hizkuntza planifikazio jokoari dagokionean, linguista batzuek bi terminook trukagarri moduan erabili izan dabez, kontzeptu baliokide gisa. Barriz, beste askok bien arteko bereizketa kontzeptual garbia egin dabe, hizkuntza politikari adiera zabalagoa atxikiz. Horrela, hizkuntza politika litzateke hizkuntza planifikatzaileen ekintza zehatzen azpian dagozan helburu linguistiko, politiko eta sozial (implizitu eta esplizitu) orokorrak (Cooper, 1989) eta hizkuntza planifikazioa, barriz, hizkuntza politika bat aurrera eroteko beharrezkoak diren neurrien bilaketa eta egikaritzea (Calvet, 1999). Ildo horretan, Adil Moustauoui-k hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazioaren artean bereizketa garbia burutzen dau. Hizkuntza politika da *un conjunto de declaración de intenciones, decisiones e ideas conscientes realizadas en el ámbito de las relaciones de la lengua o lenguas con la vida social y cuyos objetivos serían producir cambios en la situación y los comportamientos lingüísticos de una sociedad o de un grupo social determinado* (Moustauoui, 2007: 72). Hizkuntza planifikazioa, ordea, *uno de los aspectos de la política lingüística que consiste en la puesta en práctica de dichas decisiones a través de distintos procesos de regulación* (Moustauoui, 2007: 72). Hala, Herrero Valeioren (Herrero-Valeiro in Moustauoui, 2007; 72) arabera, hizkuntza politikak funtzio sinbolikoa betetzen dauan bitartean, hizkuntza planifikazioak funtzio guttiz praktikoa dau, hain zuzen ere, sinbolikoki hizkuntza politikak irudikatutakoa egikaritzea. Dana dala, sarritan hizkuntza politika eta hizkuntza planifikazioa alkarregaz lantzen dira, bereizketarik egin barik. Horren adibide dira ingelesezko LPLP (Language Policy and Language Planning) eta LPP (Language Policy Planning) akronimoak eurak.

## 2.1. IRUDIA. HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA PLANIFIKAZIOA



*Iturria: norberak egina.*

Hortaz, hizkuntza politikak proposatutako azken helburu makropolitikoak lortze aldera, hizkuntza planifikazioa abiarazten da. Hizkuntza planifikazioak fase desbardinak hartzen dauz beregain. Fishman-ek eta bestek (Fishman, Das Gupta, Jernudd & Rubin, 1971) faseak inplementaziora arte luzatzen dabez, hain zuzen, formulazioa, kodifikazioa, elaborazioa eta inplementazioa bereiztuz. Beste autore askok (Collerette & Delisle, 1988; Calvet, 1997; Boix-Fuster & Vila, 1998) faseok haratago daroetz, inplementazioaz gainera, beronen ebaluaketa eta geroko hausnarketa ere planifikazioaren parte bilakatuz. Azken horreek hizkuntza planifikazioan bereizten dabezan faseak honakoak dira:

1. Arazoaren identifikazioa.
2. Arazoaren definizioa.
3. Jarraibidearen formulazioa.
4. Gauzatzea.
5. Jardueraren ebaluaketa.
6. Politika atzera planteatzea.

Collerette eta Delisle-k (1988) dinoen moduan, ebaluaketa diagnosi barri bat litzateke, egoeraren irudi barri bat eskaintzen dauan neurrian. Egoeraren dignosi barri horretatik abiatuz burutuko litzateke planifikazio fase barria, hizkuntza politikak ezarritako azken helburuak lortu arte luzatuko litzatekena, teorian behinik behin. Hortaz, Labrie-k (1996) dinoan moduan, hizkuntza politika prozesu moduan ulertu beharra dago, eta ez egite soil moduan.

Bestalde, hizkuntza plangintzaren aplikazioan Markok (1999: 34-35), Kaufman-en ikuspegi sistemikoa aintzat hartuta, lau maila desbardin bereizten dauz: mega, meso, makro eta mikro mailak.

- Mega plangintza maila hizkuntza komunitatearen hedapen sozio-geografikoa bere osotasunean hartuz garatzen dan hizkuntza plangintza da.
- Meso plangintza maila hizkuntzaren jardun-esparru funtzional jakinetan edota berezko izaera daben esparru geografikoetan (herri, eskualde, etab.) garatzen dan hizkuntza plangintza da.
- Makro plangintza maila hizkuntzaren jardun-esparru funtzional desbardin baitako organizazio bakoitzean (administrazio, irakaskuntza, zerbitzu-gune, enpresa, elkarte, etab.) garatzen dan hizkuntza plangintza da.
- Mikro plangintza maila erakunde mailako plangintzetan, nagusiki taldeetan edota norbanakoetan eragiteko, garatzen dan azpi-plangintza da.

### 2.1.2. Hizkuntza politikaren eragileak

---

Hizkuntza politika, modu zabalean ulertuta, eragile desbardinek bideratu daikie. Boix-Fuster eta Vilak (1998) hizkuntza politika aktoreak hiru taldetan bereizten dabez: botere publikoak (botere legegilea, botere betearazlea eta botere judiziala), gizarte zibila (botere ekonomikoa, botere mediatikoa, sindikatuak, elkarteak, GKEak, etab.) eta biztanleria.

Calvet-ek (1999) *in vivo* eta *in vitro* burututako hizkuntza politiken artean burutzen dau bereizketa. Hizkuntza politika *in vivo* edo *in situ* da, hain zuzen ere, komunitate linguistiko baten parte dan biztanleriak komunikazio beharriaz erantzuteko euren gizarte praktikaren bidez burutzen dabena; adibidez, lurraldeko komunitate linguistiko nagusiaren mintzaira ikastea. Hizkuntza politika *in vitroa*, ordea, esku-hartze kontziente eta planifikatuaren bidez burututakoa da, hizkuntzen forma ala funtzioetan eraldaketa bat bultzatzeko asmoz. Orokorrean, politika *in vitroa* burutzen dauana hizkuntza politika instituzionala izaten da eta *in vivo* politika, barriz, instituzionalizatu gabeko gizarte dinamikak burutzen dabe.

Hizkuntza politika instituzionalaren barnean instituzio politikoek eta gizarte zibil antolatuak gauzatutako politika bereizi daiteke. Instituzio politikoek esparru publikotik jarduten dabe eta gizarte zibil antolatuak, ordea, esparru pribatutik. Hala ere, erakunde politikoek esparru publikotik jardun arren, bere egitekoa esparru pribatura ere zabaltzen dabe sarritan, gizarte zibil antolatura zein herritarren bizitza pribatura<sup>1</sup>. Beraz, esparru jakin bateko eragile linguistikoek bideratutako ekintzek eremu horretatik harago doazen barrutietan eragin daikie.

## 2.1. TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN ERAGILEAK

Hizkuntza politika eragile motak	Hizkuntza politika eragileen ezaugarriak	
Botere publikoak	Eragile publikoa	Eragile instituzionala
Gizarte zibila	Eragile pribatua	
Biztanleria		Eragile ez instituzionala

*Iturria:* norberak egina.

Eragin maila aintzat hartuta, Boix-Fuster eta Vila-k (1998) goitik-beherako hizkuntza politika ikuspegia eta behetik-gorakoa bereizten dabez. Goitik-beherako ikuspegiaren defendatzaileen ustetan, hizkuntza politikaren bitartez bideratutako eraldaketa soziolinguistikoa, funtsean, estatu organoetan abiatzen da. Estatu organoek burututako xedapen legegile eta betearazleek komunikazio instituzionalizatu ofizialetan eragiten dabe lehenengo – harreman juridiko-administratiboetan, araututako hezkuntzan, komunikabide publikoetan –, komunikazio instituzionalizatu ez ofizialetan gero – bizitza publikoko harreman ekonomikoetan, komunikabide pribatuetan, elkartegintzan – eta harreman interpersonal ez formaletan, azkenik. Barriz, behetik-gorako ikuspegiaren aldekoek gizarte zibil antolatuaren egitekoa zentralizat jotzen dabe, onarpen, erresistentzia edota ordezeko neurriak sortzeko

<sup>1</sup>Hizkuntza politika mota hori Branchadell-ek (2005) hizkuntza politika esku-hartzaile moduan definitu izan dau.

dauan indarragaitik. Euren iritziz, gizarte zibilak biztanleriaren ideologia eta jokabide linguistikoa eragiteko ahalmena dauka<sup>2</sup>.

Bestalde, esparru publikotik bideratutako hizkuntza politikak gobernu maila desbardinatetik bideratuak izan daitezke. Pueyo eta Turull-ek (2003) hizkuntza politika bideratzen dan gobernu mailaren arabera hizkuntza politiken sailkapen bat burutzen dabe honakoak bereiztuz: hizkuntza politika supraestatala ala internazionala, hizkuntza politika estatala, hizkuntza politika infraestatala ala autonomiko-eskualdekoa eta hizkuntza politika parapublikoa.

### 2. 1. 3. Hizkuntza politikaren helburuak

Munduko herrialde gehienak eleanitzak izanik, hizkuntzen arteko bizikidetzaren ereduak erabakitzekeo beharra nahitaez suertatzen da. Hau da, lurraldean mintzo diren hizkuntzetako bakoitzak gizartean beteko dauzan funtzioak erabakitzea, betiere, hizkuntzen arteko etenbako elkarrengaitik aintzat hartuta. Schiffman-en (1996) terminologiari jarraituz, hauxe hizkuntza politika instituzional esplizituz, implizituz, zein politikon ausentziaz burutu daitezke.

Schiffman-en ustetan, *whether or not there are explicit language policies, there will always be implicit policies, that is, there are cultural assumptions about language, about correctness, about the "best" way to talk or write, and even if there is no explicit policy, these assumptions will constitute the implicit policy* (Schiffman, 1996: 148). Izan ere, Boukous-ek (Boukous in Moustou, 2007: 75) dinoan moduan, *la présence d'un corps cohérent d'options et d'orientations linguistiques constitue une politique linguistique au même titre que l'absence de choix clairement énoncés représente une politique linguistique en soi, une politique linguistique au défaut*. Schiffman-en terminologiari jarraiki, beraz, hizkuntza politika esplizitua, agerikoa (*overt*), *de jure*-koa izango da, hizkuntza politika implizitua, ezkutua (*covert*), barriz, *de facto*-koa. Aldi berean, esan daitezke, hizkuntza politiken ageriko ala ezkutuko izaera hizkuntza politiken helburuetara be hedagarria izan daitezkeela. Hau da, badirela hizkuntza politikaren helburuen artean helburu esplizituak, baina baita implizituak be.

Brian Weinstein editore dan *Language Policy and Language Development* (1990) liburuan lurralde desbardinatetako hizkuntza politikak deskribatzen jakuz. Beraren arabera, hizkuntza politikak hiru xede desbardin izan daitezke: *status quo* mantentzea, estatua eta/edo gizartea erreformatzea eta estatua eta/edo gizartea eraldatzea. Hortaz, hizkuntza politikek dagoeneko badan egoeraren mantenua bultzatu ala aldaketa bilatu daitezke. Era berean, aldaketa xede daben hizkuntza politikek maila desbardinatetako eraldaketa bultzatu daitezke: erreformatzailea ala iraultzailea.

<sup>2</sup>Boix-Fuster eta Vila-ren (1998) esanetan, hizkuntza politiken behetik-gorako posizioa ordezkapen linguistikoa bizi daben komunitateetan abiatu ohi da; sarritan hausnarketa akademikoa eta ekintza zibiko-politikoa alkartuz.

Kaplan eta Baldauf-ek hizkuntza plangintza ezkorren inguruan hitz egiten dabe; hain zuzen, *certain types of language planning [that] are intended not to increase the number of linguistic options, but rather to restrict severely the number of such options* (Kaplan & Baldauf, 1997: 230). Hizkuntza plangintza ezkorren aurkakoa hizkuntza plangintza baikorra izendatu ahal izango litzateke eta bere xedea hizkuntza aukerak handitzea litzateke.

Hizkuntza politikaren helburua aldaketa danean, berau maila desbardinetan burutu daiteke; esaterako: hizkuntza komunitate baten jarrera linguistikoan (Swann, Lillis & Mesthrie, 2004), jokabide linguistikoan (Siguan, 2001), zein hizkuntza ideologian (Spolsky & Shohamy, 2000).

Ildo beretik, Kloss-ek (1969) corpus plangintza (*corpus planning*) eta status plangintzaren (*status planning*) artean burutu eban bereizketa hizkuntza plangintzaren bi alderdi moduan bereiziz. Corpus plangintza hizkuntzaren egiturari dagokiozan neurriak hartzean datza hiru maila desbardinetan: hizkuntzaren grafian, lexikoan eta forma dialektalean; status plangintzak, barriz, hizkuntzaren erabilera eta funtzio atxikipenari erantzuten deutso. Hau da, *decisions about desirable or required functional allocation of languages and decisions about which named language is acceptable or should be used for which domain or function*<sup>3</sup> (Spolsky & Shohamy, 2000: 10).

Hizkuntza politikak mintzaira baten heriotza bultzatetik beraren nagusigoa bermatzera joan daitezke. Beheko taulan (2.2. taula) hizkuntza politiken babes mailaren arabera bost helburu desbardindu daitezke:

## 2.2.TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN HELBURUAK ETA HELBURUOK LORTZEKO BIDE DESBARDINAK

Helburua	Bidea
Hizkuntzaren heriotza bultzatzea	Asimilazio ezkorra
Hizkuntza hiltzen iztea	Asimilazio baikorra
Babes bako aldi bereko existentzia onartzea	Babes bako tolerantzia
Zenbait hizkuntza funtzioaren alde bateko babesa bermatzea	Sustapen ahulera zuzendutako aniztasuna
Hizkuntza ofizial izendatzea	Sustapen indartsua*

\*Gradazio honen barnean mintzaira bateri eskainitako babes maila nagusia ofizialtasun estatusa dan arren, esan beharra dago, testuinguru eleanitzaren ezaugarriek eta politiken helburu dan hizkuntzaren bizi-ındarrak eragin handia dauala ofizialtasun estatus horren egikaritzean. Izan ere, ofizialtzat jotzen dan hizkuntza gitxitua bada eta lurraldean nagusigoa bigarren hizkuntza ofizial batek badauka, izan daiteke esku-hartzea ofizialtasun erregimenak eskatutako baino handiagoa izatea.

*Iturria:* norberak egina. Oinarria (Cobarrubias, 1983).

<sup>3</sup>Aipatzekoa da, sarritan hizkuntzaren estatusa langai danean hizkuntzaren barne egitura jotzat emoten dala. Halaber, posible da corpus plangintza eta estatus plangintza aldi berean burutzea; esaterako, hizkuntzaren normalizazio prozesuak abian dagozan testuinguruetan.

Esan beharra dago, hizkuntza politikak zerizana testuinguru eleanizetan bereganatzen dauala. Izan ere, testuingurua elebakarra danean aldaketarako aukerarik egon ez dago. Hala ere, aipatzekoa da munduaren luze zabalean eleaniztasuna dala egoera ohikoena, nahiz eta eleaniztasun horrek forma desbardinak hartzen dauzan<sup>4</sup>. Elebitasuna aztertzerakoan lau elebitasun mota desbardindu daitezke: elebitasun osoa, pasiboa, diglosikoa eta faltsua. Elebitasun osoa deritzogu, pertsona guztiak bi hizkuntzetan, maila eta arlo guztietan, eta harreman orotan, inongo diferentziarik barik baliatzeari. Elebitasun pasiboa da, talde batek nagusiki hizkuntza bat eta beste talde batek beste bat erabiltzen dabenean, baina talde bakoitza gai danean bestearen hizkuntza ahoz eta idatziz ulertzeko. Elebitasun diglosikoa nagusi izango da gizarte batean bizi dan jendetza guztia gai danean hizkuntza bat arlo eta maila guztietan baliatzeko eta, era berean, diglosia egoeran, herrikide batzuk bigarren hizkuntza bat maila batzuetan ulertzen dabenean, beste batzuk gai direnean bigarren hizkuntza hori maila eta arlo batzuetan erabiltzeko eta beste batzuk bigarren hizkuntza maila eta arlo guztietan aktiboki darabilenean. Bestalde, elebitasun faltsua deritzogu gizartearen parte batek hizkuntza bakarra darabilenean, bestea pasiboki be ulertu barik, eta aldi berean, gizartearen beste parte batek bigarren hizkuntza hori bakarrik darabilenean aurrenekoa ulertu barik (Euskararen Aholku Batzordea, 1983: 17-18). Dana dala, esan beharra dago, elebitasun osoan bizi dan gizarterik ez dagoela. Hau da, kontzeptua izan badan arren, gizartearen benetakotasunean berau erabat gauzatzea ezinezkoa gertatzen dala.

Testuinguru eleanitz horreetan hizkuntza politikaren helburua, Calvet-en aburuz (2002), bikoitza izan daiteke: batetik, bizikidetzaren egoeran dagozan hizkuntzen arteko harremana antolatzea eta, bestetik, mintzairaren arteko norgehiagokan hizkuntzetako baten sustapena bultzatzea. Ildo horretan eta hizkuntza politikaren helburuei buruz hausnartzerakoan, Morenok (2008: 114-115) bi elebitasun mota desbardintzen dauz hizkuntza nagusi eta gitxitu bat dagozan testuinguruetarako: elebitasun gehigarria eta elebitasun ordezkatzaila. Lehenengoak mintzaira nagusiaren eta gitxituaren bizikidetzaren bermatzen dauan bitartean; bigarrenak, luzera, mintzaira gitxitua nagusiagaitik ordezkaturia izatea dakar. Halanda be, bilinguismo gehigarriaren barruan hizkuntzen arteko bizikidetzaren oso desbardina izan daiteke. Hori kontuan izanda, Mackey-k (1975: 74-75) hiru elebitasun mota desbardintzen dauz: elebitasun abertzalea, elebitasun tradizionala eta elebitasun federala. Elebitasun abertzalea Morenok aipatutako elebitasun ordezkatzailaren ildoan doa. Elebitasun abertzaleak bi hizkuntzak onartzen dauzan arren, epe luzera helburua hizkuntza nazionala hizkuntza ofizial bakartzat

<sup>4</sup>Herrialde baten elebakartasuna ala eleaniztasuna aztertzerakoan komenigarria da bereizketa bat burutzea. Herrialde batzuk eleaniztak dira berezko hizkuntza bat baino gehiago dabelako. Berezko hizkuntza deritzogu *al idioma de la comunidad históricamente establecida en este espacio* (art. 1.1. Declaración Universal de Derechos Lingüísticos, 1998). Hortaz, lurralde bateko eleaniztasuna berezko hizkuntza diferenteez eraikia bada, lurralde horretan hizkuntza komunitate desbardinak lekutuko dira, alegia, *sociedades humanas que, asentadas históricamente en un espacio territorial determinado, reconocido o no, se autoidentifican como pueblo y han desarrollado una lengua común como medio de comunicación natural y de cohesión cultural entre sus miembros*. Oostera, posible da hizkuntza aniztasuna berezko hizkuntza eta etorkinen hizkuntzen konbinaketaren ondorioa izatea. Etorkinak talde bat osatzen badabe, orduan, talde linguistikoko baten aurrean gengokez. Talde linguistikoa da *una colectividad humana que comparte una misma lengua y que está asentada en el espacio territorial de otra comunidad lingüística, pero sin una historicidad equivalente* (art. 1.5. Declaración Universal de Derechos Lingüísticos, 1998).

ezartzea da. Bilinguismo gehigarriaren barruan Mackey-k elebitasun tradizionala eta elebitasun federala desbardintzen dauz. Lehenengoak hizkuntza gitxiengotua onartu arren, ez dau beste hizkuntzekiko bardintasun egoera baterantz zuzentzen; bigarrenak, ordea, bi hizkuntzak ofizialki bardin onartzen dauz eta bere azken helburua bi mintzaierek gizar-tean egoera bardina lortzea da. Mackey-k aurkeztutako mailaketa horretan elebitasun federala litzateke hiztunen hizkuntza eskubideak asetuko leukezan bakarra. Horrela, helburu dan elebitasun motaren arabera bi hizkuntza politika desbardindu daitezke: hizkuntza politika eleanitza eta hizkuntza politika asimilatzailea. Lehenengoak elebitasun gehigarriaren alde egiten dauan bitartean, bigarrenak elebitasun ordezkatzailea dau helburu.

Goian aipatutakoak hizkuntza politikaren azken helburuak dira. Pueyo eta Turull-ek (2003), baina, hizkuntza politikaren aplikazio prozesuan epe luzeko azken helburuak ezeze epe laburreko eta ertaineko helburuak ere badirela azpimarratzen dabe, hain zuzen ere, azken helburuak lortzeko bidean ezarri beharreko erdibideko helburu zehatzak.

Bestalde, hizkuntza politikek herrialde barneko hizkuntzen arteko bizikidetzat antolatzeaz gainera, nazioartekotzea helmuga moduan ezarrita, atzerriko hizkuntzei dagokiezan politikak be bideratu daikiez. Atzerriko hizkuntzentzako politika estu lotuta dago hizkuntzaren eskuratze politiketaz. Horrela, Cooper-ek hizkuntza eskuratzearen planifikazioa *organized efforts to promote the learning of a language* moduan definitu izan dau (Cooper, 1989: 157) eta Payne-k atzerriko hizkuntzentzako planifikazio *the policy, planning, organisation and facilitation of foreign and/or second language learning* (Payne, 2007: 237). Hizkuntzaren eskuratze politika edota atzerriko hizkuntzentzako politika corpus eta estatus plangintzari gaineratutako hirugarren hizkuntza planifikazio edo politika adar moduan hartu izan da (Cooper, 1989; Lambert, 2005). Politika adar hau hezkuntza sistemari estu batuta dago. Lambert-ek dinoan moduan, *foreign language policy normally relates only to the educational system* (Lambert, 2005: 32). Besteak beste, atzerriko hizkuntzek curriculumean zenbateko tartea bereganatuko daben, zein atzerriko hizkuntza irakatsiko diren eta zein lehen-tasun ordenean, zelako ikasketa metodologia jarraituko dan, etab. dira politika horren bidez planifikatu beharrekoak.

Aipatzekoa da, gaur egungo globalizazio testuinguruan atzerriko hizkuntzentzako politikek presentzia nabarmena bereganatu dabela mendebaldeko herrialdeetan, behinik behin. Era berean da azpimarragarria herrialde gehientsuenetan ingelesa dala hezkuntzan gehien aukeratzen dan mintzaira (Bergentoft, 1994), hain zuzen, bere *lingua franca* estatusak bultzatuta<sup>5</sup>.

<sup>5</sup>Etor-kizun-ean inge-lesak mantendu-ko dau-n nagusi-go ere-du-aren ingu-ruan haus-nartzerako-an, bi leku-hartze des-bardintzen dira. Batzuen aburuz (esaterako, Crystal, 2003) inge-lesak, lingua franca global moduan, hedatzen jarraituko dau etorkizun-ean; izan ere, inge-lesaren agin-pidea dago-eneko ez da botere politiko-agaz harremantzen, bere funtzionaltasun-agaz baino. Beste batzuek, oster-a (esaterako, Graddol, 1998, 2006), inge-lesaren erabateko lidergo globala kolokan jartzen dabe, munduko hizkuntza nagusien piramidean beste hizkuntza batzuk be gailendu-ko direlako, besteak beste, txin-er-a. Etor-kizun-eko testuinguru barri horretan inge-lesak mintzaira guztietan lehenengo-a izaten jarraituko dau, baina beste mintzaira batzuek-agaz lidergo-a partekatuz.

## 2. 1. 4. Hizkuntza politikak hizkuntza eskubideen talaiatik

Hizkuntza eskubideak definitzea ez da egiteko erraza; egitez, Toscano-Méndez-en hitzak gureru ekarriz, *the concept of language rights has proved elusive and there is no agreement about its meaning and scope*<sup>6</sup> (Toscano-Méndez, 2012: 111), Mälksöo-ren gogoeta akorduan hartuz, kontzeptua lehenengo garapen fase batean dagoela baieztatzen dau. Horren adierazgarri dira, hain zuzen, hizkuntza eskubideen izenpean nagusitzen diren eskubide mota anitzak; esaterako, hasi epai justua izateko norbanakoaren mintzairan jarduteko eskubideagaz, eta nork bere ama hizkuntzan ikasteko eskubidera arte. Aldi berean, hizkuntza eskubideak kontzeptu dinamikoa dala be kontuan izan beharra dago, pertsonen euren askatasuna murrizten dagoenaren inguruko pertzepzioagaz batera aldatzen dalako, eta nazioarteko komunitateak justizia ezari aurre egiteko dauan beharrari egokitzen jakolako (Phillipson, Rannut & Skutnabb-Kangas, 1994). Halaber, kapitulu honen xedea ez da hizkuntza eskubideen mugak zehaztea, hizkuntza eskubideen talaiatik desbardinzen diren hizkuntza politika erregimen desbardinak aztertzea baino, ikuspegi arauemailea oinarri hartuta.

Hizkuntza politika diziplinaren ikuspegi arauemailea barriki jorratzen hasi da literatura zientifikoa (Kymlicka & Patten, 2003) eta hizkuntza eskubideen gaiak indar handia hartu dau bere baitan (Lewis, 2013b). Izan be, Kymlicka eta Patten-en hitzetan, *the creation of legal rights or entitlements is one of the central ways in which language policy decisions get shaped and implemented in practice* (Kymlicka & Patten, 2003: 26). Are gehiago, *it is an obvious way for governments committed to the recognition of language minorities to bind their own officials and agencies to comply, and to make it difficult for future governments to reverse course in the future* (Kymlicka & Patten, 2003: 26).

Hizkuntza eskubideak irizpide desbardinaren arabera sailkatu daitezke. Kymlicka eta Patten-ek *Language Rights and Political Theory* (2003) erreferentziatzeko liburuan hizkuntza politika-eskubideak lau irizpideren arabera sailkatzen dabez: banakakoaren vs. taldearen eskubideak, hizkuntzen tolerantziara vs. babesera zuzendutako eskubideak, arau-egokitzapen vs. ofizialtasun eskubide erregimenak, banakakoaren vs. lurraldetasunaren eskubide erregimenak. Hemen ofizialtasun erregimenaz haratago doan bostgarren hizkuntza politika-eskubide erregimen bat gehituko da, hain zuzen, esku-hartze erregimena. Arabere, banakakoaren eta taldearen eskubideak *Hizkuntza ideologiak* azpi-kapituluko *Hizkuntza ideologia motak* atalean izango dira hizpide, zehazki, *Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian* azpi-atlean<sup>7</sup>.

<sup>6</sup>Kasaresen (2004) esanetan, hizkuntza eskubide kontzeptuaren zehaztapena eskubideok aplikatzen diren lurraldearen botere mailaren arabera da; eta hizkuntza eskubideen egoera hizkuntza komunitateak bereganatzen dauan estatus politikoaren arabera.

<sup>7</sup>Banakakoaren vs. taldearen hizkuntza eskubideak hizkuntza ideologiaren atalean jorratuko dira, eskubideei izaera indibiduala edo kolektiboa atxikitzea, hizkuntza politika neurri zehatzez haratago, erabat hautu ideologikoa dalako.



### 2. 1. 4. 1. Tolerantziara vs. babesera zuzendutako eskubideak

Hizkuntza tolerantziara eta hizkuntza babesera zuzendutako eskubideen arteko bereizketa Heinz Kloss-ek (1971, 1977) proposatu eban 70 hamarkadan. Orduetik oso erabilia izan da sailkapena, bai helburu deskriptiboz bai kritikoz. Tolerantzia erregimenak estatuak gizarte zibilaren hizkuntza aukeraketa errespetatzea dauka helburutzat, aukeraketa horretan esku hartu barik. Horrela, hiztunek askatasun osoa izango dabe euren etxe, elkarte eta gizarte zibileko erakunde desbardinetan euren aukerako hizkuntza erabiltzeko. Barriz, hizkuntza babes erregimenean, estatuak hizkuntza bat ala batzuen babesera zuzendutako neurriak hartuko dauz, erakunde publikoetan behinik-behin. Modu honetan, hiztunek epaitegi, herri administrazio, hezkuntza sistema publikoan, etab. estatuak babestutako mintzaira ala mintzairak erabili ahal izango dauz. Hortara, tolerantzia erregimenak hizkuntzaren babesa arlo pribatuan dau xede, babes erregimenak, barriz, arlo publikoan. Eskubide motei dagokionean, lehenengo kasuan estatuak askatasun linguistiko ezkorra errespetatzea izango leuke xede; bigarrean, barriz, estatuak hizkuntza eskubide ezkorrak bermatzera mugatu orde, hizkuntza eskubide baikorrak (*positive accommodation*) be bideratuko dauz<sup>8</sup> <sup>9</sup>. Era berean, aipatzekoa da babes erregimenaren kontrara, tolerantzia erregimenak ez daukala printzipioz hizkuntza araudi espezifikorik eskatzen; izan be, Leslie Green-en hitzak aipatuz, *these rights will be protected by ordinary guarantees of freedom of expression, freedom of association and various provisions for non-discrimination and equality* (Green, 1987: 661).

### 2. 1. 4. 2. Arau-egokitzapen vs. ofizialtasun eskubide erregimenak

Kymlicka eta Patten-en (2003) aburuz, tolerantzia eskubidea gainditzen daben politika-eskubide erregimenen baitan bereizketa barri bat egitea komeni da: arau-egokitzapen erregimenak<sup>10</sup> eta ofizialtasun eskubide erregimenak.

Arau-egokitzapen erregimenetan komunikazio publikorako hizkuntza nagusi bat ezartzen da eta hizkuntza nagusi horretan mintzatzeko arazoak dabezan pertsonentzako egokitzapen

<sup>8</sup>Eskubide negatiboa da zu ez beste pertsona ala talde baten ekintzaren agindura ez jartzeko eskubidea; eta eskubide positiboa zu ez beste persona ala talde baten agindura jartzeko eskubidea. Lehenengoak ekintza eza ahalbidetu edo behartzen dau; eta bigarrenak, ordea, ekintza bat ahalbidetu edo behartzen dau.

<sup>9</sup>Rubio-Marínek (2003) tolerantzia vs. babes eskubide-erregimenak lanabes analitiko gisa ez direla erabilgarriak uste dau. Batetik, errealitatean tolerantzia erregimen hutsa egingarria ez dalako. Hau da, estatuak, nahitaez, bere egitekoa burutzeko hizkuntzaren bat aukeratu beharko dau eta, era horretan, hizkuntza neutralitateari huts egingo deutso. Bestetik, sailkapena aintzat hartuta, babes eskubide-erregimenaren egitekoa hizkuntza bat babestea eta bultzatzea da, baina errealitatean babesa burutzeko bideak eta mailak oso anitzak izaten dira, mintzairaren benetako babesa zalantzan jarri ahal izateraino.

<sup>10</sup>Leslie Green-ek (1987) arau-egokitzapen erregimena Kloss-en hizkuntza tolerantzia erregimenaren baitan egokitzen dau eta ez tolerantzia erregimenaz harago doan erregimen moduan.

berezia burutzen da. Hizkuntza eskubideon hellburua komunikazioa erraztu eta traba linguistikoak gainditzea da, *avoid linguistic obstacles that may curtail the enjoyment of rights, freedoms, and opportunities that rest on the possibility of comprehensible linguistic interactions* (Rubio-Marín, 2003: 68). Hau da, hizkuntza nagusiaren ezagutza mugatuak pertsona ala talde jakinetan eragin daikezan aukera desbardintasunak ekiditzea. Horrela, besteak beste, arau-egokitzapen erregimenaren baitan hizkuntza nagusia ikasteko eskubidea aitortuko da eta estatuak horretarako bideak jarri beharko dauz, adibidez, mintzaira nagusia ikasteko kurtsoak. Era berean, egokitzapen erregimenaren baitan, hizkuntza nagusian mintzatzeko trebezia falta hori aintzat hartuta, zenbaitetan mintzaira nagusiaren ezagutza falta daben pertsona edota taldeei euren ama hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortuko jake; esaterako, epaitegietan. Egokitzapen erregimenari zedarriak ezartzerakoan erabaki beharrekoa ama hizkuntza erabiltzeko eskubidea zenbateraino zabalduko dan erabakitzea litzateke.

Bestalde, ofizialtasun eskubide erregimenetan<sup>11</sup> hizkuntza jakin batzuei ofizial estatusa atxikitzen jake eta ofizialtasun horretan oinarrituta mintzaira horreetako hiztunei eskubide batzuk eskaintzen jakez arlo publikoan<sup>12</sup>. Hortara, ofizialtasun eskubide erregimenetan hizkuntza eskubideen gozarena ez da gizarteko hizkuntza nagusi edo ohikoaren ezagutza mugatuan oinarritzen. Hau da, ofizial izendatutako hizkuntza gitxitu bateko hiztuna libre da mintzaira gitxituan ofizialtasunari dagokiozan bere eskubideak erabiltzeko, nahiz eta hizkuntza nagusia ezagutu.

Interesgarria da hizkuntza eskubide erregimenok zein kolektibori atxiki ohi jakezan galdegitea. Gehiengoan, ofizialtasun eskubide erregimenak gitxiengo nazionaleri zuzenduak egoten dira; barriz, gitxiengo etorkinei arau-egokitzapen erregimenaren baitako eskubideak bakarrik aitortu ohi jakez.

### 2. 1. 4. 3. Banakakoaren vs. lurraldetasunaren eskubide erregimenak

Hizkuntza politika bi printzipio idealetan oinarrituta egon daiteke: herritarra abiaburu hartzen dauan banakakoaren printzipioan ala lurraldetasun printzipioan. Lehenengoak, pertsonari, herrialdeko edozein puntutan egonda be, bere hizkuntza erabiltzeko eta beronetan zerbitzuak jasoteko eskubidea eskaintzen deutso: *citizens should enjoy the same set of language rights no matter where they are in the country* (Patten, 2003: 297). Bigarrenak, ordea, pertsonari bere hizkuntza erabiltzeko eta beronetan zerbitzuak jasotzeko eskubidea lurraldearen zonaldearen arabera eskainiko deutso: *language rights should vary from region*

<sup>11</sup>Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenak hurrengo atalean landuko dira modu sakonean.


<sup>12</sup>Aipatu beharra dago hizkuntza ofizial erregimenak nagusi diren herrialdeetan ofizialtasunik bereganatzen ez daben hizkuntzak be izaten direla askotan eta mintzairon kasuan, ofizialtasunaren faltan, arau-egokitzapen neurriak hartu ohi direla.

to region according to local conditions (Patten, 2003: 297). Hortaz, *this division picks out one particular feature of regimes: whether they regulate language use by territory, requiring people to adapt to the language of the place, or regulate in accordance with the linguistic preferences of speakers, wherever they reside* (Réaume, 2003: 271).

Aipatzekoa da banakako eta lurraldetasun printzipioak orokorrean hizkuntza ofizialtasun eskubideen testuinguruan eztabaidatu ohi direla, hau da, ofizialtasun erregimenari dagokiozan eskubideak ia banakakoaren printzipioaren arabera edota lurraldetasunaren printzipioaren arabera eskainiko diren<sup>13</sup>.

Patten-ek (2003) banakako ala lurraldetasun printzipioen egokitasunaren inguruan hausnarketa burutzen dau. Testuinguru linguistikoaren arabera elebitasun mota bat ala beste gailendu daiteke. Esaterako, hizkuntza komunitateak lurraldean modu homogeneousan banatuta badagoz eskualde elebakarrak osatuz, lurraldetasun printzipioa egokia litzateke; ostera, hizkuntza komunitate desbardinak lurraldearen luze zabalean sakabanaturik badagoz, banakakoaren printzipioa indarrean jartzea egokiagoa litzateke, betiere hiztun kopuruak bideragarri egiten badau (ikus 2.2. irudia).

## 2.2. IRUDIA. BANAKAKOAREN ETA LURRALDE TASUNAREN ESKUBIDE ERREGIMENEN EGOKITASUNA HIZKUNTZA KOMUNITATEEN KONTZENTRAZIO MAILAREN ARABERA




Iturria: norberak moldatua (Patten, 2003).

<sup>13</sup>Kymlicka eta Patten-en (2003) ustez, banakakoaren eta lurraldetasunaren printzipiok ofizialtasun erregimenei lotuta aztertu izan ohi diren arren, planteamendua nabarmen orokorra izanik arau-egokitzapen ikuspegiari atxikita be aztertzea posiblea litzateke.

Halaber, errealitatean holako egoera garbirik ez da emoten orokorrean. Kontzentrazio ez perfektoa edota barruti elebidunak ohikoagoak izaten dira. Bi kasuetan lurraldetasun printzipioa ezarriko balitz, kontzentrazio ez perfektoaren kasuan bi eskualde elebaker ezarriko litzateke eta eskualdeotako bakoitzean hizkuntza gitxitu egoeran legokezan biztanleak bi aukera izango leukiez: bata, arlo publikoan eskualdeko hizkuntza nagusira egokitzea eta, bestea, euren hizkuntza nagusi dan eskualdera aldatzea; barruti elebidunen kasuan, ostera, herrialdearen luze zabalean elebakartasun instituzionala ezarriko litzateke lurraldeko hizkuntza nagusian eta barruti elebidunetan, barriz, elebitasun instituzionala. Hortara, hizkuntza gitxituko hiztunek barruti elebidunetan euren mintzairan jarduteko aukera bermatua izango leukie esparru publikoan, baina ez ostera herrialdearen gainontzeko zonaldeetan, non hizkuntza nagusira egokitu beharko litzatekezan edota barruti elebidunera aldatu. Hortara, bi egoerotan lurraldetasun printzipioaren ezarpenak hizkuntza gitxituan jarduteko aukerak itzel mugatuko leukiez mintzaira gitxituko hiztunei.

### 2.3. IRUDIA. HIZKUNTZA KOMUNITATEEN LURRALDE BANAKETA DESBARDINAK



Iturria: norberak moldatua (Patten, 2003).

Halaber, lurralde jakin batean bilduta dagoen hizkuntza gitxituen ikuspegitik, lurraldetasun printzipioaren baitan barruti elebidunek abantaila handiak ekarri daikioz hizkuntza gitxituari. Izan be, Pattenek dinoan moduan, lurraldetasun printzipioa *may be appropriate (in) cases in which territoriality is necessary to prevent people from being cut off from an adequate context of choice because of a deterioration in their language community* (Patten, 2003: 318)<sup>14</sup>.

<sup>14</sup>Hizkuntzaren balio komunikatibotik, barriz, banakakoaren printzipioa egokiagozat jotzen dau Patten-ek: *Absent the satisfaction of one of the conditions (identity), the interests in public access, social mobility, and democratic deliberation are all satisfied under the personality principle, or could be made to be satisfied through a programme of second-language education in the majority language* (Patten, 2003: 318).

Hizkuntza eskubideen errespetuaren ikuspegitik, bi printzipioak, banakakoarena eta lurraldekoarena, muturrera eroateak eskubide urraketak ekarri daikez: lurraldetasunaren printzipioa muturrera eroateak lur zatiaren mugak modu zurrunean zedarrituta limiteetatik kanpo sakabanatuta legokezan hizkuntza komunitateko herrikideen hizkuntza eskubideak zaurtuko leukez; banakakoaren printzipioa muturreratzeak, bere aldetik, herritarren mugikortasuna erraztuko leuken modu berean jarriko leuke kolokan aurretik aipatutako lurraldeko hizkuntza komunitate txikien egonkortasuna. Hori horrela, aipatu beharrekoa da, errealitatean banakakoaren eskubide erregimen eta lurraldetasun eskubide erregimen garbia aurkitzea ez dala erraza: *most regimes of bilingualism include at least some language rights that remain invariant across the territory of the state and at least some that vary from region to region according to local conditions* (Patten, 2009: 297).

#### 2. 1. 4. 4. Esku-hartze erregimena

Aurretik aipatu dan moduan, esku-hartze erregimena ofizialtasun erregimenaz haratago doan bostgarren hizkuntza politika-eskubide erregimen moduan jo daiteke, erregulazio linguistikoa sektore publikotik sektore pribatura luzatzea helburu dauana. Hortaz, esku-hartze erregimena da sektore pribatuan hizkuntza baten ala batzuen erabilera arautzeko hartutako neurri multzoa. Halaber, ofizialtasun eta esku-hartze politiken arteko bereizketa burutzea ez da beti egiteko erraza; izan be, batetik, hizkuntza baten babeserako politikak tolerantzia, arau-egokitzapen, ofizialtasun eta esku-hartzearen lerroan *continuum* batean kokatzen dira eta, bestetik, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa zehatza burutzea be konplexua gertatzen da sarritan (Mateos, 2000).

Tradizioz, publikoari estatua eta arlo politikoa atxiki izan jakoz; eta pribatuari, barriz, arlo ekonomikoa eta gizarte zibila. Halaber, gizarte industrializatu aurreratuetan publikotasunaren esanahia lausotu egin da. Hau da, estatuaren eta gizarte zibilaren<sup>15</sup> arteko mugak moteldu ahala, publikotasunak adiera desbardinak egin dauz bere<sup>16</sup> (Pérez Díaz, 1986). Batzuek aurreko banaketa tradizionalari eutsi deusie: arlo publikoa estatuari lotuz eta pribatua gizarteari orokorrean; beste batzuek, barriz, arlo publikoaren esparrua zabaldu egin dabe, bere baitan estatua ezeze gizarte zibila be kokatuz, eta esparru pribatuari “pribatasun indibidualaren”

<sup>15</sup>Txoli Mateosen hitzetan, *gizarte zibila estatuak arautzen ez duen gizarte harremanez osatutako eremu bat da* (Mateos, 2000: 14). Ginerrek, barriz, definizio osoago bat eskaintzen dau: *la sociedad civil puede definirse como aquella esfera históricamente constituida de derechos individuales, libertades y asociaciones voluntarias, cuya autonomía y competición mutua en la percepción de sus intereses e intenciones privados quedan garantizadas por una institución pública, llamada estado, la cual se abstiene de intervenir políticamente en la vida interna de dicho ámbito de actividades humanas* (Giner, 1987: 56).

<sup>16</sup>Esanguratsua da aipatzea Mateosen publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko bereizketa kontzeptuari oinarri ideologikoa atxikitzen deusola. Bere hitzetan, *publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko harreman kontzeptualak oinarri ideologikoetan sustaturik daude teorikoetan baino, zeren eta euren abiapuntua gizaki eta gizartearen izaerari buruzko premisa multzo bat da* (Mateos, 2000: 14).


alorra bakarrik itziz<sup>17</sup>. Bigarren ulerkeraren honen baitan publikotasunaren mugarrira komunitate interesaren bukaeran kokatzen da. Hau da, interes publikoa daben zerbitzuak, nahiz eta entitate pribatu batek eskainiak izan, zerbitzu publiko moduan hartuko dira<sup>18</sup>.

Aipatzekoa da, Patten-en iritziz (2001) hizkuntza politikaren inguruko eztabaida sektore pribatuko esku-hartzean zentratzen dala nagusiki, beronen legitimitatean ala legitimitate ezan eta legitimitatearen mugetan. Ildo horretan, Milian i Massana-k (2000) etorkizun laburrean izaera publiko bako zenbait harremanetan esku-hartze publikoaren legitimitate ala legitimitate ezaren auzia hizkuntza eskubideen gaineko eztabaidaren zentroan kokatuko dala baieztatzen dau. Horren arrazoietakoa bat esku-hartze erregimena hertsaduragaz lotu izan dala da, hau da, gizarte politika hertsatzaileekaz. Hauxe hurrengo atalean landuko da, *Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenak* atalean.

### 2. 1. 5. Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenak<sup>19</sup>

Ofizialtasun hizkuntza politika erregimena zehazten hasi aurretik, komenigarria da hizkuntza ofiziala zertan datzan azaltzea. “Hizkuntza ofizial” terminoa ohikotasunez erabilia dan arren, Branchadell-ek (2005, 75) dinoan moduan *no ha esat objecte de gaires definicions serioses*. Hala ere, berau edukiz betetzeko ahaleginak ugariak izan dira, nagusiki ofiziala danaren eta ez danaren artean bereiziz. Egiteko horretan, Pool-ek (1990) hizkuntza ofiziala definitzeko komunikazio egintzaren nor izatea dau kontuan. Komunikazio egintza guztiek igortzaile eta jasotzaile bat izan ohi dabe eta bai igortzailea eta bai jasotzailea botere publiko bat, pertsona bat edota publiko orokorra izan daitezke (ikus 2.4. irudia).

#### 2.4. IRUDIA. HIZKUNTZA OFIZIALA ETA KOMUNIKAZIO MOTAK POOL ETA BRANCHADELL-EN ARABERA



*turria*: norberak moldatua (Pool, 1990 eta Branchadell, 2005).

<sup>17</sup>Mateosek (2000) bi leku-hartzeok ideologia ezkertiarren baitan identifikatu izan dauz, publikotasunaren kontzeptu gogorra moduan identifikatuz lehena eta publikotasunaren kontzeptu biguna moduan bigarena.

<sup>18</sup>Esan beharra dago, publiko eta pribatuaren artean bereizketa burutzean sortzen dan desadostasuna zerbitzu publikoen mugak ezartzerakoan be nagusitzen dala.

<sup>19</sup>Aipatzekoa da, Mayk (2001) eskainitako datuen arabera, egun munduan hitz egiten diren hizkuntzen %1,5ek bakarrik daua estatuen aitopen ofiziala.

Pool-en (1990) arabera, igortzailea botere publiko bat edota pertsona bat danean, hartzailea edozein izanda be, hizkuntzaren ofizializazioa emon daiteke gobernuak baldintza linguistikoak ezarriz gero. Barriz, Branchadell-en ustez (2005: 76), Pool-en komunikazio ofizialaren eskematik sortutako sei komunikazio klaseetatik erregimen ofizialari lau dagokioz: 1. igortzailea eta jasotzailea botere publiko bat direnean, 2. igortzailea botere publiko bat eta jasotzailea pertsona bat danean, 3. igortzailea botere publiko bat eta jasotzailea publiko orokorra danean, 4. igortzailea pertsona bat eta jasotzailea botere publiko bat danean. Horrela, Branchadell-en aburuz, Pool-ek ofizialtasunaren baitan kokatutako beste bi komunikazio motak, pertsona biren artean emondakoa eta pertsona bat eta publiko orokorraren artean izandakoa, erregimen esku-hartzailean kokatu beharra dagoz<sup>20</sup>.

Stewart-ek (1968), bestalde, ofizialtasuna hizkuntza funtzioekaz lotu eban, esanez, hizkuntza ofizialak *function as a legally appropriate language for all politically and culturally representative purposes on a nationwide basis*. Stewart-en hitzetan *in many cases, the official function of a language is specified constitutionally* eta horixe da, izatez, Cooper-ek (1989), Stewart erreferentzia hartuta, hizkuntza ofizial estatutariotzat jotakoa. Egitez, Cooper-ek hiru ofizialtasun mota bereizi ebazan gobernu mailan hizkuntzari emondako eginkizunaren arabera: hizkuntza ofizial estatutarioa, gobernuak hizkuntza ofizial izendatzen dauanean, laneko hizkuntza ofiziala, gobernuak hizkuntza bere eguneroko eginkizunetarako darabilenean, eta hizkuntza ofizial sinbolikoa, gobernuak hizkuntza eginkizun sinbolikoetarako darabilenean.

### 2.3.TAULA. HIZKUNTZA OFIZIAL MOTAK COOPER-EN ARABERA

Hizkuntza ofizial motak
1. Hizkuntza ofizial estatutarioa.
2. Laneko hizkuntza ofiziala.
3. Hizkuntza ofizial sinbolikoa.

*Iturria: norberak egina.*

Horrela, izan daiteke hizkuntza batek hiru ofizialtasun motak beregain hartzea, edota hirutik bat ala bi bakarrik bereganatzea. Adibide gisa, Cooper-ek herrialde desbardinak erreferentzia hartuta bertako hizkuntzen ofizialtasun mota aztertu eban, besteak beste Israelekoa. Israelen hebreerak hiru ofizialtasun motak bereganatzen dauz, arabierak, barriz, estatutarioa eta lanekoa (sinbolikoa ez), eta ingelesak lanekoa bakarrik. Herrialde

<sup>20</sup>Pool-en komunikazio tipologia osatze aldera, Branchadell-ek botere publikoak komunikazio igortzaile ala jasotzaile direnean bigarren azpi-bereizketa bikoitz bat egitea komenigarria dala deritzo: batetik, botere publikoaren gobernu maila (estatala ala azpi-estatala) eta, bestetik, botere publikoaren kokapena (gobernu zentralean ala unitate azpi-estatalean).

batean hizkuntzek ofizialtasun mota desbardinak bereganatu daikiezan era berean, posible da hizkuntza batek ofizialtasun funtziook gradu desbardinean bereganatzea. Esaterako, Irlandan gaelikoa hiru ofizialtasun moten jabe izan eta ingelesak ofizialtasun sinbolikoa falta arren, laneko hizkuntza ofizial nagusia ingelesa da, gaelikoaren gainetik. Honen jakitun da Branchadell (2005: 78), zeinek honakoa dinoan: *en el sentit legal i en el sentit simbòlic “llengua oficial” és segurament una variable nominal (una llengua és oficial o no ho és), però en el sentit funcional és evidentment una variable contínua.*

Fasold-en (1984:72) ustez, barriz, hizkuntza bat ofizialtzat jotzeko funtsezkoa dau ofizial moduan jokatzea. Zentzu horretan honakoa dino: *we won't regard a language as official simply because there is a national law or section of a constitution that says it is. Rather, a language will be judged official only if it actually operates as an official language in the country.* Ildo berean, Milian i Massana-k ere honakoa dino: *dar a una lengua el carácter de oficial significa adoptarla como vehículo de comunicación, en sus diversos niveles (intracomunicación, intercomunicación y extracomunicación), de los poderes públicos, y reconocerla, análogamente, como vehículo de relación de los ciudadanos hacia dichos poderes públicos* (Milian i Massana, 1984: 131).

Espainiako Estatuko Konstituzio Auzitegiak be 82/1986 Sententzian (ekainaren 26koan) hizkuntza ofiziala definitu ebanean Milian i Massana-ren ikuspegiaren ildo beretik jo eban: *es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos*<sup>21</sup>.

Hizkuntza bat ofizialtzat jotzeko eginkizun honeetako bat edo beste betetzea funtsezkoa dala deritzo Fasold-ek:

- Funtzionarioek euren eginkizun ofizialetako ahozko hizkuntza moduan erabiltzea.
- Gobernu agentzien arteko idatzizko komunikazio hizkuntza izatea.
- Gobernuaren erregistroak gordetzen diren hizkuntza izatea.
- Lege eta araudien jatorrizko hizkuntza izatea.
- Formularioak, esaterako zerga formularioak, hizkuntza horretan argitaratuak izatea.

Horrela, zenbat eta eginkizun gehiago bete orduan eta ofizialagoa izango da hizkuntza bat. Izatez, *it is possible for a language to be official to one degree or another* (Fasold, 1984: 72).

McRae-ren (1975: 42-46) iritziz, gizarte elebidunetan elebitasun instituzional motaren

<sup>21</sup>Konstituzio Auzitegiaren 84/1986 Epaiak ekainaren 26koak adierazten dauan moduan eta Segurak gogoratzen deuskun lez, *el deure de coneixement d'una llengua oficial diferent del castellà no ve imposat per la Constitució* eta, hortaz, *no és inherent a l'oficialitat* (Segura, 2011: 93).



baten aldeko apustua egiten danean zenbait aukera gehigarri egin beharra dagoz, elebitasun instituzional erregimen desbardinei bide emonez. Batetik, ia hizkuntza nagusiari eta gitxituari maila bereko estatusa eta eskubideak aitortuko jakezan ala ez. Bestetik, ia elebitasuna erabilera publikoko esparru guztietan ezarriko dan edota esparru jakin batzuetara bakarrik mugatuko dan (esaterako, hezkuntzara eta epaitegietara). Azkenik, eta sistema federaletan zentratuz, ia elebitasuna gobernu maila desbardinetan izango dan aplikagarria edota bakarren batean bakarrik.

Aurretik aipatu dan moduan, gizarte linguistikoki eleanizetan botere publikoek politika desbardinak bereganatu daikiez lurraldeko hizkuntza bizikidetzara antolatzeko. Esmen-en (1992) lanean oinarrituz, Branchadell-ek tipologia bat dau proposagai. Tipologia horretan bi aldagai hartzen dira kontuan: batetik, ofizialtza jotzen dan hizkuntza kopurua -bakarra (elebakartasun ofiziala) ala bat baino gehiago (eleaniztasun ofiziala) izatea- bestetik, ofizialak ez diren gainontzeko hizkuntzekaz hartzen dan jarrera -asimilatzailea ala onarpenezkoa. Bi aldagai horreek alkatuz lau aukera desbardineko tipologia nabari da: elebakartasun asimilatzailea, elebakartasun pluralista, eleaniztasun asimilatzailea eta eleaniztasun pluralista. Tipologietako bakoitzaren zerizatea beheko taulan ( ikusi 2.4. taula) dago laburbilduta.

#### 2.4.TAULA. OFIZIALTASUN ERREGIMENAK HIZKUNTZA OFIZIAL KOPURUAREN ETA OFIZIAL EZ DIREN HIZKUNTZEKIKO HARTUTAKO JARRERAREN ARABERA

	Asimilatzailea	Pluralista
<b>Elebakartasun ofiziala</b>	<b>1. Elebakartasun asimilatzailea</b>	<b>2. Elebakartasun pluralista</b>
	Botere publikoek hizkuntza ofizial bakarra aukeratzen dabe eta gainontzeko guztiak desagertarazteko xedea dabe.	Botere publikoek hizkuntza ofizial bakarra aukeratzen dabe eta gainontzeko guztien existentzia onartzen dabe.
<b>Eleaniztasun ofiziala</b>	<b>3. Eleaniztasun asimilatzailea</b>	<b>4. Eleaniztasun pluralista</b>
	Botere publikoek "n" hizkuntza ofizial aukeratzen dabez eta gainontzeko guztiak desagertarazteko xedea dabe.	Botere publikoek "n" hizkuntza ofizial aukeratzen dabez eta gainontzeko guztien existentzia onartzen dabe.*

\*Branchadell-en iritziz, la creença convencional diu que le unilingüisme assimilacionista i le multilingüisme pluraliste són les úniques que es realitzen; aquesta creença es podria resumir amb els enunciats "l'unilingüisme oficial sempre és assimilacionista" i "el pluralisme implica necessàriament el multilingüisme oficial". Ara bé, aquesta creença convencional no és correcta. L'unilingüisme oficial sovint és assimilacionista, però no ho és necessàriament (le unilingüisme pluralista és possible). Des de la perspectiva del pluralisme podem arribar a la mateixa conclusió: el pluralisme va associat sovint amb el multilingüisme, però no l'implica necessàriament (le unilingüisme pluralista). (...) Reconèixer n llengües oficials no vol dir necessàriament tolerar totes les llengües que hi ha. (...) Gainera, al nostra parer, les n llengües oficials d'un règim de multilingüisme poder no ser totes les llengües parladas a la comunitat, i sobretot el reconeixement de cadascuna de les n llengües oficials pot diferir en el grau (Branchadell, 2005: 72-73).

Iturria: norberak moldatua (Branchadell, 2005: 72).

Aurretik aipatutakoaren ildora, garrantzitsua da azpimarratzea hizkuntzei ofizialtasun estatusa atxikitzeak ez daukala esan gura hizkuntza ofizial guztiek egoera sozio-juridiko bardina bereganatzen dabenik. Egitez, ofizialtasun erregimen desbardinak ezarri daitezke. Pool-ek (1990) ofizialtasun erregimena zehazterakoan hiru aldagai funtsezko moduan jotzen dauz: lurraldean ofizial moduan jotzen diren hizkuntza kopurua, ofizialtasunaren lurralde irismena eta hizkuntzari atxikitako ofizialtasun maila. Hiru aldagai horreei Branchadell-ek (2005) esku-hartze erregimena gehitzen deutso, hain zuzen, sektore pribatuan burututako erregulazio linguistikoa.

Estatu federal eleanitzek euren hizkuntzei ofizialtasuna eskaintzerako orduan aukera desbardinak izaten dabez. Aukerok lautan laburbildu daitezke:

1. Elebakartasuna zentruan eta elebakartasuna eskualdean. Bai Estatuan bai eskualdean hizkuntza bakarra jotzen da ofizialtzat eta, hortaz, hizkuntzaren ofizialtasun maila gehiengoa da. Hauxe da, hain zuzen ere, Estatu espainiarreko eskualde homogeneoen kasua.
2. Elebakartasuna zentruan eta eleanitzasuna (n hizkuntza) eskualdean. Estatuak hizkuntza ofizial bakarra dau eta eskualdean, ostera, n hizkuntza dira ofizialak. Eskualdean n hizkuntza ofizial izan arren, posible da bakoitzak ofizialtasun maila desbardina bereganatzea. Branchadell-ek (2005: 85) aditzera emoten dauan lez, ezagutzen diren kasu enpiriko guztietan estatuaren hizkuntza ofiziala eskualdeko n hizkuntzetako bat da. Estatu espainiarreko eskualde heterogeneoetako egoera hauxe da. Sorianok (1999: 118) koofizialtasun desbardin (*cooficialidad desigual*) moduan definitu dau eredu hau.
3. Eleanitzasuna (n hizkuntza) zentruan eta elebakartasuna eskualdean. Estatuak n hizkuntza hartzen dauz ofizialtzat, barriz, eskualdean hizkuntza bakarra da ofiziala. Hemen ere, eta Branchadell-eri jarraiki (2005: 85), eskualdeko hizkuntza bakarra Estatuko hizkuntza ofizialetako bat da. Sorianok (1999: 118) koofizialtasun banatu (*cooficialidad separada*) moduan izendatu dau honako aukera.
4. Eleanitzasuna (n hizkuntza) zentruan eta eleanitzasuna (n hizkuntza) eskualdean. Bai Estatuak bai eskualdeak n hizkuntza ofizial dabez. Kasu enpirikoek aditzera emoten daben lez, eskualdeko n hizkuntza ofizialak Estatuko n hizkuntzen azpi-talde bat dira (Branchadell, 2005: 86). Kasuotan izan daiteke hizkuntza baten ofizialtasun maila desbardina izatea estatuan eta eskualdean. Sorianoren (Soriano, 1999: 118) terminologian koofizialtasun osoa (*cooficialidad plena*) litzateke hauxe.

Estatu Espainiarerako desiragarria litzateken ofizialtasun erregimenaren gainean Jaime Vernet eta Antoni Milian i Massana-k proposamen desbardinak agertzen dabez. Vernet-ek (1994) Estatuko hizkuntza historikoen (gaztelania, katalana, euskara, galiziera) homologazioa dau proposagai, hau da, estatuko lurralde guztian hizkuntzetako bakoitzaren tratamendu juridiko bertsua: estatus eta aukera bardintasuna. Bere hitzetan: *ha de permeabilizarse las fronteras autonómicas potenciando la extraterritorialidad de las lenguas no castellanas. (...)*

*Se trata de ir creando las condiciones propias para la homologación de todas las lenguas oficiales, de forma que en el futuro se pueda generalizar en todo el Estado la oficialidad ahora reducida a unas comunidades autónomas* (Vernet, 1994: 139). Hau da, erabateko koofizialtasuna dau proposagai.

Milian i Massana-k (1984) lurralde ereduaren aldeko apustua egiten dau, gaztelania ez beste berezko hizkuntzak dabezan erkidegoetan bertako berezko hizkuntzari esklusibo izaera emenez; betiere komunitateko hizkuntza ofiziala berba egiten ez dauan gitxiengoaren hizkuntza eskubideak bermatuz. Hortaz, Milian i Massana-k koofizialtasun banatuaren aldeko hautua burutzen dau.

Sorianok (1999) Vernet eta Milian i Massanaren proposamenak ez dauz egokitzen jotzen. Izan be, autorearen iritziz Espainiar Estatuak ez dauz ereduok aurrera eramateko baldintza zentralak betetzen. Vernet-en erabateko eredu koofiziala ezartzeko Estatuak bi baldintza bete beharko leukez: lehenengoa, sakabanaketa linguistikoa Estatu Espainiarreko lurralde osoan zehar emotea eta, bigarrena, hizkuntza bakoitzak Estatuko lurralde guztietan hitzun kopuru esanguratsua izatea. Milian i Massana-ren proposamenari dagokionean, koofizialtasun banatua ezartzeko komunitate bakoitzean elebakarren kopurua handia izatea oinarritzkoa litzateke.

Estatuek egitura federala ala antzekoa dabenean eta hizkuntza eskumenak gobernu maila desbardinetan banatzen direnean, interesgarria da ofizialtasun erregimen kongruentearen eta ofizialtasun erregimen inkongruentearen artean egiten dan bereizketa, Lijphart-en federalismo kongruente eta inkongruentean oinarritzen dana. Lijphart-en (1991: 194) hitzetan, *las federaciones congruentes están compuestas de unidades territoriales que tienen un carácter social y cultural parecido en cada una de ellas y en el conjunto de la federación*. Barriz, *las federaciones incongruentes se componen de unidades que tienen una composición social y cultural que es distinta de una a otra y del país en su conjunto*. Hizkuntza ofizialtasun erregimen kongruentearen kasuan, estatuak eta unitate azpi-estatalak hizkuntza ofizial berberak partekatzen dabez eta ofizialtasun maila berbera atxikitzen deutse. Horixe da Estatu espainiarreko eskualde homogeneoen kasua. Hizkuntza ofizialtasun erregimen inkongruentean estatuak eta unitate azpi-estatalek ez dabe hizkuntza ofizial kopuru berbera partekatzen edota ez deutse hizkuntzetako bakoitzari ofizialtasun maila berbera atxikitzen. Egoera hauxe da Euskal Autonomia Erkidegoarena. Estatuaren eta unitate azpi-estatalaren artean inkongruentzia egoteak ez dau esan gura euren artean desadostasunik dagoenik. Desadostasuna egon dagoen kasuetan, hau da, gobernu maila desbardinek helburu desbardinetako hizkuntza politikak burutzen dabezanean *competing language policies*-en aurrean gengokez.

Autore askorentzat ofizialtasun erregimena aztertzerakoan burutu beharreko oinarritzko bereizketa analitikoa hizkuntza politikak eta hizkuntza eskubideak atalean landutako lurraldetasun printzipioa eta pertsonalitate printzipioaren arteko bereizketa da. Lurraldetasun

eta pertsonalitate printzipioen arteko banaketa erabilgarria da herritarrei eskainitako hizkuntza eskubideen ikuspuntutik. McRae-k (1975) dinoan moduan, lurraldetasun printzipioak lurraldeko herritar guztiei hizkuntza eskubide berberak atxikiko deutsiez, barriz, pertsonalitate printzipioak hizkuntza eskubideak pertsonaren ezaugarri pertsonalen arabera eskainiko dauz.

Lurraldetasun printzipioa eta pertsonalitate printzipioa modu zurrunean ulertu izan dira sarri. McRae-k (1975) zein Branchadell-ek (2005) ulerkerak itzi hori zalantzan jartzen dabe. Branchadell-en hitzetan *sota el principi de personalitat, l'exercici de la llibertat d'elecció és mediatitzat per una circumstància prèvia, que és el reconeixement de l'oficialitat de les llengües*. Horrela, *des d'aquest punt de vista, la interpretació que es fa habitualment dels principis de territorialitat i personalitat els fa prescindibles en la descripció dels règims lingüístics dels estats* (2005: 92). Giltzarria, hortaz, erregimen linguistikotik motan datza. McRae-k (1975) be lurraldetasun eta pertsonalitate printzipioak praktikara eroaterakoan hizkuntza politikaren beste zenbait dimentsio kontuan hartu beharra azpimarratzen dau; hain zuzen, hizkuntzen arteko bardintasun linguistikoa edota estatus bereizketa -nagusi vs. gitxitu- lehenesten dan, hizkuntza erregimen batek erregulatzen dauzan alor eta funtzio kopurua, zein erabakimen politikoaren zentralizazio maila. Ildo horretan, Branchadell-ek lurraldetasun eta pertsonalitate printzipioen aplikazioaren konplexutasuna azpimarratzen dau. *D'una banda, pel nivell de jurisdicció: pot ser que el principi que s'aplica a escala federal no coincideixi amb el que s'aplica en una o més unitats subestatal (és a dir, pot ser que hi hagi règims lingüístics incongruents)*. *De l'altra, per l'àmbit d'ús: pot ser que en alguns àmbits d'ús s'apliqui un principi i en un altre àmbit d'ús de la mateixa jurisdicció s'apliqui un altre principi*. Hortaz, funtsezkoa dirudi bereizketa garbia egitea *entre l'oficialitat de les llengües, el sistema de drets a que l'oficialitat dóna lloc i els arranjaments institucionals corresponents a aquests drets* (2005: 93).

Hizkuntza ofizial bi dagozan komunitate politikoetan hizkuntza gitxituen babesa bermatzeko bi sistema desbardintzen dauz Pizzoruso-k (1975)<sup>22</sup>: elebitasun osoa eta banaketa linguistikoa. Lehenengo kasuan herritar guztiek bi hizkuntza ezagutzeko bidea aukeratzen da, hezkuntzari dagokionez bi hizkuntzak darabilzan eredu bakarra existitzen da eta administrazioan herritarrei harrera emoteko langileria elebiduna ezartzen da eta herriari zuzentzerakoan hizkuntza bat zein beste erabiltzen da. Bigarren kasuan, ostera, ez da emontzat hartzen herritarrek elebidunak izango direnik; horrela, hizkuntza talde bakoitzarentzako eredu berezia ezartzen da hezkuntzan eta administrazioak banakako herritarrei bere ama hizkuntzan berba egiten deutse eta herritar guztiei zuzendutakoan testu elebidunak darabilz. Branchadell-en aburuz banaketa linguistikoa nagusi dan kasuetan bigarren bereizketa bat burutu beharra dago, hain zuzen be, zehaztu beharra dago ia herritarrek beharrezkoa daben euren hizkuntza taldeari zuzendutako zerbitzuak aukeratzea ala, ostera, askatasuna daben

<sup>22</sup>Gai hau Milian i Massana-k (1992) be landua da. Konsultatu *Drets lingüístics i dret fonamental a l'educació: Un estudi comparat: Itàlia, Bèlgica, Suïssa, el Canadà y Espanya* liburua.

hizkuntza bat ala beste aukeratzeko. Azken hau estu lotuta dago aukera askatasunagaz. Aukeraketa askatasunaren ildo jarraituz, interesgarria da ikustea aukeraketa askatasuna bai elebitasun osoaren bai banaketa linguistikoaren kasuan bermatu daitekela zein ez (ikusi 2.5. taula).

## 2.5. TAULA. ZERBITZUEN ANTOLAKETA ZERBITZUETAKO SARRERA ERREGIMENAREN ARABERA

	Aukeraketa askatasuna	Aukeraketa askatasun eza
<b>Banaketa linguistikoa</b>	Zerbitzuak elebakarrak dira eta herritarrek zerbitzu bat edo beste aukeratzeko askatasuna dau. (Hezkuntzaren alorrean horixe litzateke EAeko hezkuntza ereduen kasua. A, B eta C ereduak aukeran egonik herritarrak beroneetako bat aukeratzeko askatasuna dau.)	Zerbitzu elebakar independenteak dagoz, baina herritarrek ezin daikie nahiago daben zerbitzua aukeratu (Esaterako, Quebecen herritar frantsesak eta ingelesak (al floglots) euren seme alabak eskola frantsesera eta ingelesera bialdu behar dabez, hurrenez hurren.)
<b>Elebitasun/eleaniztasun osoa</b>	Zerbitzu bakarra existitzen da "n" hizkuntzatan eta herritarrek zerbitzuaren hizkuntza aukeratu daikie. (Esaterako, Cataluniako hezkuntza sisteman katalana hizkuntza nagusia da eta gaztelania bigarren mailakoa. Herritarrek ez dabe eskubiderik seme-alabak euren aukerako hizkuntza ofizialean hezteko, baina bai nominalki lehen irakaskuntzako hizkuntza aukeratzeko, jakinik irakaskuntza hori ezin daitekela zentro eta gela banatuetan emon.)	Zerbitzu bakarra existitzen da "n" hizkuntzatan, baina herritarrek ezin daikie aukeratu zerbitzu horren hizkuntza. (Adibidez, Cataluniako hezkuntza sisteman katalana hizkuntza nagusia da eta gaztelania bigarren mailakoa. Lehen irakaskuntzaz harago herritarrek ez dabe eskubiderik seme-alabak euren aukerako hizkuntza ofizialean hezteko.)

*Iturria:* norberak moldatua (Branchadell, 2005: 94).

Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenaren baitan eta zerbitzuen aukera askatasun gaiari estu lotuta, bideratzen diren hizkuntza ekimenen hertsadura maila aintzat hartzea be zentrala da. Lowi eta Salisbury jarraituz, Thoenig eta Mény-k (1992) tipologia bat proposatzen dabe politika publikoen hertsadura parametroa oinarri hartuta. Hizkuntza politiken hertsadura aztertzerakoan bi aspektu izan behar dira kontuan: batetik, hertsadura zeharka ala modu zuzenean burutzen dan; bestetik, hertsadura subjektuaren jokabidean ala ingurua presionatuz burutzen dan. Hertsaduraren bi aldagai kontuan izanda lau motatako politika publikoak bereiztu daitezke: araubidezko politika, politika distributiboa, politika berbanatzailea eta politika osagarria (ikusi 2.6. taula).

## 2.6. TAULA. HERTSADURAREN ARABERAKO POLITIKA PUBLIKO MOTAK

		Hertsadura publikoa burutzen da...	
		Subjektuaren jokabidean zuzenean	Subjektuaren jokabidearen inguruan
Hertsadura publikoa da...	Zeharkakoa, urrunekoa	Politika distributiboa	Politika osagarria
	Zuzena, berehalakoa	Araubidezko politika	Politika berbanatzailea

*Iturria: norberak moldatua (Thoenig & Mény, 1992: 99).*

Araubidezko politiketan menpekoen jokabideari eragiten deuten arau autoritarioak egiten dira. Estatuak betebeharrak edo debekua ezartzen dau eta banakakoaren askatasuna mugatzen da. Politika distributiboetan botere publikoek espresuki hautatutako kasu jakinei baimen bat eskaintzen deute, dala baldintza jakin batzuk betetzen dauzalako dala estatuak eskaintako aldebakarreko mesedea dalako. Politika berbanatzaileek abantaila batzuetara sarrera izateko irizpideak ezartzen dabez, baina abantailok ez dagoz espresuki hautatutako kasu jakinei zuzenduak, subjektu edota kasu motei baino. Politika osagarriek boterearen gaineko arauak definitzen dabez, banakakoari modu ahulean eta zeharka eragingo deutenak. Hertsadura mailarik altuena araubidezko politikei dagokie. Beronen bidez botere publikoek jokabide batzuk behartu ala debekatuko deutesiez subjektuei. Hertsadura maila baxuena, barriz, politika osagarriak burutzen dabe.

Politika publikoen hertsadura parametroa aztertzerakoan hertsadura maila neurtzea be garrantzitsua da, betebeharrak (bai, ez) - debekua (bai, ez) jokoak aztertuz. Era horretan, aukera desbardinak begitaratzen dira: a. erabilera beharrezkoa danean (betebeharrak bai, debekua ez): hizkuntza bat erabiltzea betebeharrak da, baina beste hizkuntza batzuen erabilera ez da debekatzen; b. erabilera eskusiboa (betebeharrak bai, debekua bai): hizkuntza bat erabiltzea betebeharrak da eta gainontzekoen erabilera debekatuta dago; c. betebeharrak ez, baina debekua bai: ez da hizkuntza baten erabilera beharrezkotzat jotzen, baina hizkuntzaren baten erabilera bai debekatzen da; d. betebeharrak eta debekurik eza: betebeharrak eta debekua ez dagoenean hertsadurarik bako esku-hartzearen aurrean gengokez.

Bi sailkapen mota horreek aztertuta, agerian gelditzen da badirela hertsadura burutzen ez daben hizkuntza politikak be. Politika ez hertsatzaileak sustapena darabile esku-hartze tresna moduan hertsaduraren ordez. Carrascok (1990) sustapena burutzeko modu desbardinak aditzera emoten dauz: ohorezkoa, psikologikoa, juridikoa eta ekonomikoa. Sustapen ekonomikoaren barruan azpibanaketa burutu daiteke abantaila ekonomiko errealean eta abantaila finantzieroen artean. Azken honen barruan bigarren azpibanaketa bat burutu daiteke zeharkako baliabideen (salbuespenak, hobariak, zerga-arintze fiskalak, aduana-babesa) eta baliabide zuzenen artean (kreditu publikoa, beka, sari ekonomikoak eta, batez ere, diru-laguntzak).

Branchadell-ek hertsadurazko hizkuntza politiken barruan hizkuntza baten erabilera beharrezkoa -beste hizkuntza batzuen erabilera eraberekoagaz lagun dana- eta hizkuntza baten erabilera eksklusiboa- beste batzuen erabereko erabilera debekatzen dauana- bereizteaz gainera, erabilera beharrezkoaren baitan lehentasunezko erabilera ezartzen dabena politikak be bereizten dauz.

Ikuspuntu juridiko batetik, hizkuntza politikak hertsaduraren erabileraren arabera bereizterakoan, garrantzitsua da ezagutzea ia zigorra ezartzen dan beharrezkotasunaren aurrean kale egiten danean ala ez. Izan ere, *el juristes han observat que una obligació no es converteix en un veritable deure jurídic si no es preveuen sancions pel seu incompliment. En el cas de les mesures coercitives, doncs, es podria fer una distinció ulterior entre les mesures que preveuen sancions i les mesures que no en preveuen* (Branchadell, 2005: 98).

Orain artekoak laburbilduz eta Branchadell-en (2005) hitzak gogoratu, hizkuntza ofizialtasun erregimena honako elementuen konbinaketaren fruitu izango da: ofizial izendatutako hizkuntza kopurua, hiztunen lurralde banaketa, ofizialtasun maila eta ofizialtasunari atxikitako hizkuntza eskubideen sistema.

## 2. 1. 6. Hizkuntza normalizazioa

---

Hizkuntza normalizazio kontzeptua Lluís V. Aracil-ek erabili eban lehenengoz eta kontzeptuaren zabaltzea Francesc Vallverdú-ren eskutik etorri zan. Branchadell-en (2003) aburuz normalizazio linguistikoa da, zalantza barik, soziolinguistika katalanaren ekarpen nagusienetakoa hizkuntza politika disziplinen ondare kontzeptualera. Kontzeptuaren beraren esanahia eta egokitasuna luze eztabaidatua izan da autore askoren eskutik<sup>23</sup> ulertu behar; bada komunitatean eragina izan eta komunitateari ekarpena egingo deutson helburu multzo moduan baino.

Hizkuntza normalizazioa, modu zabalean adierazita, desabantaila edo gitxitu posizioan dagoen mintzaira ala hizkuntza aldaera baten egoera soziolinguistikoa hobetzeko bideratzen dan prozesua da. Vernet eta bestek horrela definitzen dabe: hizkuntza normalizazioa da *un conjunt de mesures, aplicables en diversos moments temporals, tendents a la potenciació d'una determinada llengua que es considera discriminada i/o necessitada d'especial protecció* (Vernet, Pons, Pou, Solé & Pla, 2003: 124). Baina kontuan izan beharra dago, hizkuntza erabilera handitzeko betekizun moduan, hizkuntza ezagutza handitzea be beharrezkoa izaten dala sarritan. Horrela, Bertile-k (2008), Diegoren definizioa bere eginda, hizkuntza normalizazio prozesua modu honetan definitzen dau: *mesures qui doivent être*

<sup>23</sup>Eztabaidaren barri izateko kontsultatu Lamuela-ren (1994) *Estandardització i establiment de les llengües*.

*adoptées pour la généralisation de l'usage et de la connaissance d'une langue qui se trouve dans une situation de diglossie* (Bertile, 2008: 282). Era berean, hizkuntza normalizazioak mintzairaren forma bera ere egokitu daike. Hortara, Boix-Fuster eta Strubell-entzat *in generic terms, this notion refers to a sociocultural process through which a language or a dialect is subject to orthographic, lexical and grammatical regulations (the idea of standardising or normalising a language), and at the same time, it widens its scope of linguistic use to areas where other variants of the language or other languages were previously dominant* (Boix-Fuster & Strubell, 2011: 58).

Vernet eta Pons-entzat hizkuntza normalizazioa ez datza bakarrik mintzairaren egoera soziala konpontzean. Joera aldaketa bat be badakar. Horrela, Vernet eta besteren ustez (Vernet, Pons, Pou, Solé & Pla, 2003), normalizazio prozesua ez datza lekuko hizkuntza baten egoera zuzendu eta berarentzako erabilera sozial eta ofizial batzuk berreskuratzean bakarrik, normalizazioak hizkuntza baten erabilera normalerako kaltegarria dan joera iraultzean eta lortutako aurrerapenak babestean datza.

Hizkuntzaren normalizazio prozesuan desabantaila egoeran dagoen mintzaira sustatzeko neurri legislatibo, politiko zein administratiboak etapaka hartu beharra dagoz (Vernet, Pons, Pou, Solé & Pla, 2003). Sarritan normalizazio prozesuaren lehenengo pausu moduan hizkuntzari estatus barri bat atxikitzen jako eta behin estatus barria ezarritakoan berau bideragarri egiteko planifikazio gehigarria burutzen da. Esaterako, lehenengo unean hizkuntzari ofizial estatusa atxikitzea eta gero ofizialtasun horren egingarritasunerako neurriak hartzea.

Pueyo eta Turull-ek (2003) hizkuntza politiken aplikazio prozesuan epe laburreko, ertaineko eta luzeko helburuak desbardintzen dabez. Ildo horretatik, Boix-Fuster eta Vila-k (1998) hizkuntza normalizazio prozesuan ere helburuak intentsitatearen arabera hiru mailatakoak izan daitezkezala baieztatzen dabe: gitxiengoak, ertainak eta gehienezkoak. Era berean, helburuok izaera bikoitza izan daikie: batetik, helburu politiko-juridikoak eta, bestetik, helburu soziolinguistikoak. Helburuen mailaketa eta izaera kontuan izanik, normalizazio prozesuan guztira sei helburu bereizten dira:

Helburu politiko-juridikoak:

- Gitxiengoak: legalki normalizazioaren objektu dan hizkuntza esparru guztietan erabiltzeko aukera izatea, horrela erabakitzen daben herritarren artean.
- Ertainak: gitxiengo helburu politiko-juridikoa gehi normalizazioaren objektu dan hizkuntza instituzio guztietan lan hizkuntza izatea.
- Gehienezkoak: normalizazioaren objektu dan hizkuntza lurraldeko hizkuntza ofizial bakar moduan ezartzea.



Helburu soziolinguistikoak:

- Gitxiengoak: normalizazioaren objektu dan hizkuntza erabilera esparru guztietan presente egotea.
- Ertainak: gitxiengo helburu soziolinguistikoa gehi normalizazioaren objektu dan hizkuntza ezagutzen ez daben herritarrek berau ikasi eta erabiltzea.
- Gehienezkoak: normalizazioaren objektu dan hizkuntzara berau ezagutzen ez daben herritarrak asimilatzea eta, horrela, hizkuntza erabilera esparruetako hizkuntza bakar bihurtzea.

Hizkuntza normalizazio prozesuaren intentsitatearen araberako helburu hirukoitza beste autore batzuk ere landua izan da. Branchadell-ek (1996), Siguan-en proposamena aintzat hartuta, bi hizkuntza bizikidetzan dagozan lurraldeetan hizkuntza politikak hiru helburu bete daikiezala baieztatzen dau. Hiru helburuok normalizazio maila desbardinei lotuta doaz. Lehenengoa, bi hizkuntzen arteko koofizialtasun osoa litzateke. Katalanaren normalizazioa adibidetzat hartuta, koofizialtasun osoaren ikuspegian, *la normalització lingüística és el procés que ha de concluir d'una situació de doble oficialitat formal a una situació de doble oficialitat real, en la qual els ciutadans estiguin en condicions d'exercitar tots els seus drets i de complir totes les seves obligacions, a tot arreu i sense cap inconvenient, en català* (Puig eta Branchadell in Branchadell, 1996: 17). Branchadell-ek normalizazio hau “normalitat mínima” moduan definitzen dau.

Bigarren helburua izan daiteke *l'assoliment d'una cooficialitat plena més la preeminència d'una de les llengües, que es considera propia* (Branchadell, 1996: 18). Bigarren helburu hori aintzat hartuta normalizazioa horrelaxe definitu ahal izango litzateke: *la normalització lingüística és el procés que ha de conduir d'una situació de doble oficialitat formal a una situació de doble oficialitat real, en la qual el ciutadans estiguin en condicions d'exercitar tots els seus drets i de complir totes les seves obligacions, a tot arreu i sense cap inconvenient, en català, i a més el català sigui la llengua pròpia de totes les institucions* (Puig eta Branchadell in Branchadell, 1996: 18). Bigarren xede hau helburu dauan normalizazioari “normalitat feble” deituko deutso Branchadell-ek. Azpimarratzekoa da bigarren normalizazio mota honek ez dauala aldaketarik eragiten herritarrengan; bi kasuetan herritarrei katalanez bizitzeko aukera zabaltzen jake, dagokiezan eskubideak eta betebeharrak betez. *Normalitat mínima* eta *normalitat feble*-ren arteko diferentzia, beraz, instituzio mailakoa litzateke.

Normalizazioaren hirugarren helburua normalizazio bidean dagoen hizkuntza biztanleriaren gehiengoaren lehen hizkuntza izatea da eta, hortaz, edozein berezko gizarte ekimenen hizkuntza gogokoa. Honen arabera, *la normalització lingüística és el procés que ha de conduir a una situació en la qual el català sigui la primera llengua de la majoria de la població i per tant la llengua espontàniament preferida en qualsevol activitat social* (Puig eta Branchadell in Branchadell, 1996: 19). Hirugarren normalizazio mota honeri

Branchadell-ek “normalitat fort” deituko deutso. Aurreko normalizazio ereduak ez bezala, hirugarren normalizazio mota honek bai eragiten dauz aldaketak biztanleriaren hizkuntza erabileran, egitez, *si abans la normalitat era una situació en la qual els ciutadans podien viure en català, ara la normalitat és una situació en la qual tots els ciutadans viuen en català*. Bestela esanda, *la diferència essencial entre l'objectiu feble i el for és que el feble permet que hi hagi ciutadans que no visquin en català, mentre que el for dóna per fet que no hi ha ciutadans d'aquesta mena, almenys no com a grup socialment significatiu* (Branchadell, 1996: 19-20). Normalizazio indartsu honen azken emaitza, beraz, elebakartasun orokortua da. Normalizazioa indartsu hauxe da, hain zuzen ere, Boix-Fuster eta Vilak helburu politiko-linguistiko eta soziolinguistikoan gehieneko helburu moduan definitutakoa.

Funtsezkoa dirudi katalanaren normalizazio ahulak eta sendoak katalanean eragina izateaz gainera, gaztelanian, ordura arteko hizkuntza nagusian, be badaula azpimarratzea. Branchadell-en hitzetan *la normalitat (feble o forta) del català pressuposa la anormalitat del castellà*. Horrela, *a propòsit del castellà, podríem definir els termes “desnormalització feble” (desaparició del castellà de les institucions) i “desnormalització forta” (substitució lingüística del castellà)* (Branchadell, 1996: 20)<sup>24</sup>. Hortara, hizkuntza gitxitu baten normalizazio prozesua tentsio eta gatazka sortzailea izan daitekela baieztatzea zilegi da; are gehiago normalizazioa gorengo mailara eroan gura bada. Dana dala, hizkuntzen arteko parekotasuna bera be problematikoa izan daiteke. McRae-ren hitzetan, *where two language groups tend to differ as to which of the two models [linguistic minority model edo linguistic equality model] is the appropriate one, the possibilities of generating tension and conflict are high* (McRae, 1975: 43).

Diglosia egoeran dagoen hizkuntza baten normalizazio prozesua bideratzerakoan, izan xedea normalizazio maila gehiengoa dala edo gitxiengoa dala, hizkuntza plangintza

<sup>24</sup>Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 Epaia, ekainaren 28koak, katalana hizkuntza preferente moduan ezartzea Konstituzioaren kontra joatea zala adierazi eban: *la definición del catalán como “la lengua propia de Cataluña” no puede suponer un desequilibrio del régimen constitucional de la cooficialidad de ambas lenguas en perjuicio del castellano. Si con la expresión “lengua propia” quiere significarse (...) que el catalán es lengua peculiar o privativa de Cataluña, por contraste con el castellano..., la dicción del art. 6.1. EAC es inobjetable. Si de ello, por el contrario, pretende deducirse que únicamente el catalán es lengua de uso normal y preferente del poder público, siquiera sea sólo del poder público autonómico, se estaría contradiciendo una de las características constitucionalmente definidoras de la oficialidad lingüística (ser medio normal de comunicación entre los ciudadanos y los poderes públicos y los poderes públicos entre sí). [...] El concepto de “preferencia”, por su propio tenor, trasciende la mera descripción de una realidad lingüística e implica la primacía de una lengua sobre otra en el territorio de la Comunidad Autónoma, imponiendo, en definitiva, la prescripción de un uso prioritario de una de ellas, en este caso, del catalán sobre el castellano, en perjuicio del equilibrio inexcusable entre dos lenguas igualmente oficiales y que en ningún caso pueden tener un trato privilegiado. La definición del catalán como lengua propia de Cataluña no puede justificar la imposición estatutaria del uso preferente de aquella lengua, en detrimento del castellano..., por las Administraciones Públicas y los medios de comunicación públicos de Cataluña, sin perjuicio, claro está, de la procedencia de que el legislador puede adoptar, en su caso, las adecuadas y proporcionadas medidas de política lingüística tendentes a corregir, de existir, situaciones históricas de desequilibrio de una de las lenguas oficiales [...]*. Hortaz, katalanaren lehentasunezko erabilera bakarrik izango da justifikagarria bere normalizazio prozesuari begira. Izan ere, hizkuntzetako bateri lehentasuna emotea mintzaren arteko orekaren kontra doa.

neurri eginkorrek bideratu beharra dagoz gizarte alor desbardinetan. Egitez, hizkuntza baten biziraupena ziurtatzeko botere publikoetatik eskaini beharreko hizkuntza zerbitzu garrantzitsuenak zeintzuk diren hausnartzerakoan adostasuna handia dala dirudi; behinik-behin, herrialde desbardinetan gaur egun indarrean dagozan mintzaira gitxituen aldeko hizkuntza politiketan jorratzen diren esparruen bat etortzea kontuan hartzen badogu. Hezkuntza eta komunikabideak dira zerbitzuetan funtsezkoenak. Behin bi maila horreek ziurtatuta, lehentasunak aldakorragoak bihurtzen dira lurraldearen egoera sozial eta ekonomikoaren arabera. Horregaitik, hizkuntza politika baten aplikazioa zehazterakoan, oinarritzakoa da legegileek ondo ezagutzea gizarteko hizkuntzetako bakoitzaren egoera zelakoa dan: hizkuntzetako bakoitzak betetzen dauzan funtzioak, baina baita mintzairerako bakoitzaren gizarte estatusa, hitzunen banaketa, dentsitatea, hizkuntzarekiko jarrera, etab. Izan be, ezagutza guzti hori barik hizkuntza politiken eragingarritasuna itzel murriztu daiteke.

Ildo horretan, Isidor Marik (1992) katalanaren normalizazioa lortzeko oinarriak proposatu ebazan. Oinarriok euskarari ere badira aplikagarriak eta honakoak dira:

1. Gizarte eraldaketa nagusiak barne hartuko dauzan gehiengoaren proiektu bat.
2. Printzipio juridiko unibertsalki onargarria: bardintasunezko eleaniztasuna.
3. Normalizazio prozesuaren norabide bateratua, globala eta sistematikoa.
4. Aldeko hizkuntza kontzientzia.
5. Hizkuntza estandarizaturia erabilera espezializatu guztietarako egokia.
6. Hizkuntzaren ezagutzaren hedapen orokortua.
7. Sektorekako ikuspegia eta lehentasunen arabera.
8. Hizkuntza katalandun lurralde guztien arteko koordinazio goraldia.
9. Esparru estatalean estatus bardintasuna.
10. European eta mundu osoan onartua izango dan hizkuntza komunitatea.

Hizkuntza normalizazioa bideratzerakoan ekintza positiboaren<sup>25</sup> printzipioa funtsezkoa gertatzen dala azpimarratu beharra dago. Izan ere, Ariztondok dinoan moduan *gizarte egoera desbardinetan dauden hizkuntzei ezin zaie hizkuntza politika bera aplikatu, desbardintasun hori areagotu nahi ez bada behintzat. Hizkuntza politikak hizkuntza ahulena bultzatzeko bideari ekin behar dio, gure kasuan euskara bultzatzeko bideari, euskara, gaztelaniarekin parekatzen joan dadin eguneroko erabileran* (Aristondo, 1996: 33-34). Halaber, hizkuntza gitxitu baten normalizazio prozesua abiatzea tentsio eta gatazka sortzaile izan daiteken neurri

<sup>25</sup>Ekintza positiboa deritzogu historikoki baztertuta egon diren taldeen desbardintasunak ezabatzeko, hau da, dabezan desabantailak gainditzeko bideratzen diren neurriek. Aipatu beharra dago neurrian izaera aldibaterakoa izaten dala, hain zuzen, taldeen arteko desbardintasunak gainditu artean bideratuko dira.

berean, normalizazioa bideratzeko modua bera be problematikoa izan daiteke; besteak beste, ekintza positiboaren zilegitasuna bera zalantzan jarritz. Ildo horretan, McRae-k be honakoa baieztatzen dau: (*language*) *domains vary in significance and in potential for conflict* (McRae, 1975: 44).

### 2. 1. 7. Laburbilduz

---

Hizkuntza politikari zuzendutako azpi-kapitulu honetan, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintzaren arteko bereizketa burutu da. Hizkuntza politika mintzairen eta gizarte bizitzaren arteko harremanaren aurrean agertutako asmo, ideia eta erabaki multzoa da, gizarte edo gizarte talde baten egoera eta jokabide linguistikoan eragiteko helburua dauana. Barriz, hizkuntza plangintza hizkuntza politikaren alderdi bat da, erregulazio prozesu desbardinaren bidez hizkuntza politikan hartutako erabakiak bideratzea xede dauana.

Hizkuntza politikaren eragileen baitan, botere publikoak, gizarte zibila eta biztanleria bereiztu doguz. Eragileok hizkuntza politika modu kontziente eta planifikatuan zein eguneroko komunikazio beharrianez erantzuteko gizarte praktika ez planifikatuaren bidez burutu daikiela planteatu da. Hizkuntza politikaren helburuei dagokionean azaldu da, politikok *status quo* mantentzea, erreformatzea ala eraldatzea izan daikiela xede, hiztunen hizkuntza aukerak handituz zein txikituz. Izan be, hizkuntza politika mintzaira baten heriotza bultzatuz bere ofizialtasuna lortzera joan daiteke. Era berean agertu da, hizkuntza politikek herrialde barneko bizikidetzeta linguistikoan antolatzeaz gainera, nazioartekotzea be izan daikela xede. Horrela, lurraldeko berezko hizkuntzak, etorkinen ama hizkuntzak, zein atzerriko hizkuntzak politika linguistikoaren objektu izan daitekez. Bestalde, testuinguru demokratikoetan lekututa, hizkuntza politika erregimen desbardinak identifikatu dira. Eskainitako eskubide linguistiko mailaren arabera – gitxiengo eskubide mailatik gehiengora- continuum batean kokatu daitekez: tolerantzia erregimenak, arau egokitzapen erregimenak, ofizialtasun erregimenak eta, azkenik, esku-hartze erregimenak.

Ofizialtasun hizkuntza politika erregimenari tarte handiagoa eskaini deusagu. Bertan, ofizialtasun hizkuntza politika erregimena adiera bakarrakoa ez dala emon da aditzera; ikuspegi funtzionaletik begiratuta aldagai jarraia dala. Hau da, hizkuntza bat maila desbardinetan izan daiteke ofiziala; besteak beste, ofizialtasunak beregain hartzen dauzan funtzio, arlo eta lurralde irismenaren arabera. Bestalde, hizkuntza politika erregimen ofizialaren baitan eztabaida gai zentral dan aukera askatasuna hizpide hartuta, erregimen honetan aukera askatasuna maila eta modu desbardinetan bermatu daitekela emon da aditzera: banaketa linguistikoaren sistema edota elebitasun osoa ezarriz; banaketa linguistikoan emoten dan kasuetan nork bere hizkuntza komunitatean eskaintzen diren zerbitzuak aukeratzera behartuz ala aukeraketa libre itziz. Aukera askatasuna hizkuntza politiken hertsadura mailagaz be alkarlotu da, sustapen eta beharrezkotasun politikak bereiztuz.

Hizkuntza politika azpi-kapitulua hizkuntza normalizazioaren lanketaz amaitu dogu. Hizkuntza normalizazioa desabantaila edo gitxitu posizioan dagoen mintzaira ala hizkuntza aldaera baten egoera soziolinguistikoa hobetzeko bideratzen dan prozesu moduan definitu da. Ofizialtasun erregimenagaz gertatu dan moduan, normalizazio prozesuan be normalizazio maila desbardinak dagozala aditzera emon da. Ikuspegi soziolinguistikoa aintzat hartuta, gitxiengo normalizazioa litzateke hizkuntza erabilera esparru guztietan presente egitea; normalizazio ertaina normalizazioaren objektu dan hizkuntza ezagutzen ez daben herritarrek berau ikasi eta erabiltzea; eta normalizazio gehienzkoa normalizazioaren objektu dan hizkuntza erabilera esparruko hizkuntza bakar bihurtzea, gainontzeko hizkuntzak alboratuta.

## 2. 2. HIZKUNTZA IDEOLOGIAK

---

Badago loturarik lurralde batean bideratzen dan hizkuntza politikaren eta lurralde horretan hizkuntzen inguruan nagusitzen diren ideia, sinismen, jarrera, etabarren artean; alegia, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren artean? Eta egotekotan, zernolakoa izan ohi da lotura hori? Zelan definitu daiteke hizkuntza ideologia? Zelako hizkuntza ideologiak dira nagusi mendebaldeko herrialdeetan? Lurralde barrura eta lurralde kanpora, nazioartera, begirako hizkuntza ideologiak bardinak ete dira? Hizkuntza ideologiei zuzendutako azpi-kapitulu honetan horreexek izango dira, besteak beste, lanerako galderak.

### 2. 2. 1. Hizkuntza politika hizkuntza ideologiaren eraginpean

---

Hizkuntzaren gaineko neurriak betidanik hartu izan dira gizarte mailan; halaber, hizkuntza politika diziplina moduan 1950eko hamarkadan hasi zan aztertzen (Ricento, 2006). Ricento-k *An introduction to Language Policy: Theory and Method* (2006b) liburuan diziplinaren ibilbidea dau aztergai eta hiru aldi bereizten dauz bertan. Garaiotako bakoitzean ikergaiak aldatuz joan diren neurri berean, ikergaiari begiratzeko moduak be asko aldatu dira. Lehenengo fasean hizkuntza politikaren egikaritzea eta azterketa bera neutrala zaneko sinismena egoan. Gaur egun, barriz, bai politika esparru bai diziplina gisa, hizkuntza politika neutraltasunetik urrun dagoela onartzen da gehiengoan, alegia, hizkuntza ideologia desbardinek eragindua dagoela. Hizkuntza estrategia hizpide hartuta, Williams-ek honakoa adierazten dau: *ideas and ideologies are at the heart of language strategy, no matter how professional or technocratic the policy agenda itself may be framed* (Williams, 2013: 229). Ildo berean, Shohamy-k (2006) hizkuntza politika hizkuntza ideologia eta hizkuntza praktikaren bitartean kokatzen dauz. Ricento-k (2006), bere aldetik, gizarte egitura eta gizarte prozezuei, linguistikoei barne, ideologietatik berezita begiratzeta ezinezkotzat jotzen dau.

Halaber, hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko lotura argitara emoten daben aipamenak amaiezinak diren arren, bien arteko lotura eta bere zer-nolakotasuna ikergai daben lanak ez dira horren ugariak; nahiz eta azken aldian ugarituz joan diren (Ricento, 2000b, 2006; Shohamy, 2006; Spolsky & Shohamy, 2000).

Horren adibide argia dogu Tomas Ricento argitaratzailea dan *Ideology, Politics and Language Policies. Focus on English* (2000b) liburua. Honen helburu nagusienetakoa ideologiek hizkuntza politikak zelan tankeratzen dabezan aztertzea da. Sarrera kapituluan Ricentok hizkuntza politikaren zerizatearen inguruan eta hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko harremanaren inguruan hainbat ideia esanguratsu eskaintzen dauz, liburuan aztergai diren kasu azterketetan oinarrituz. Hausnarketok horrela laburbildu daitezke:

- Hizkuntza politika hizkuntza erabileraren testuinguru konplexuan bakarrik ulertu daiteke.
- Hizkuntza politikak sozialki lekututa dagoz beti eta garapen etengabeen.
- Ideologiek erabaki politikoei forma emoten deutse; hori horrela, formalki prestatutako hizkuntza politikek ez dabez beti, arabere sarritan, bere helburuak lortzen, izan honeek askatzaileak izan zapaltzaileak.
- Ez dago buruz-buruko baliokidetasunik ideologiaren eta politiken artean:
  - Hizkuntza politika jakin batek interes politiko desbardinei erantzun leikie era berean.
  - Nazio-estatu baten baitan hizkuntza politika jakin bat talde desbardinenezako oso helburu desbardinak lortzeko erabili daiteke.
  - Hizkuntza politika desbardinek ideologia sostengarri berbera partekatu daikie; zein hizkuntza politika bardintsuek ideologia kontrajarriak izan sostengarri. Izan be, ideologiak hizkuntza politikei forma emoten deutesen arren, ez dabez xedatzen. Eta alderantziz, ezin daiteke politika jakin batetik ideologia aurreikusi. Egitez, politikak gertagarriagoak dira, egoera materialen aldaketetara egokigarriagoak; oster, ideologiak egonkorragoak dira.
- Hizkuntza ideologiak beste ideologia batzuetara lotuta dagoz, eta azken horreek be hizkuntza politikaren garapenean eragin daikie, baita hizkuntza politika behartu be.
- Ideologia ez da beti gizarte talde nagusien boterea legitimatzeko erabiltzen. Izan be, ideologiko jo daitekezan sinismen corpus guztiak ez dagoz botere politiko nagusi batez lotuta (Ricento, 2000b: 1-8).

## 2. 2. 2. Ideologiaren zerizatea

Ideologiak etimologikoki ideia, irudi mental, sistema ala hitzaldi arrazionala esan gura dau. Van Dijk-ek ideologia *representaciones socialmente compartidas de un tipo general y abstracto* direla dino (Van Dijk, 2006: 164); giza taldeen sinismen multzoa, ezagutzazkoa eta ebaluaziozkoa<sup>26</sup> (Van Dijk, 2006: 61). Definizio hori aintzat hartuta, beraz, ideologiak ez dira iritzi sistema hutsak ezta jakintza sistema garbiak ere, bien arteko konbinaketa baino.

Ideologiak osatuta dagozan sinismen sistemek proposizioz osotutako eraikuntza teoriko nabarmen egonkorak eraten dabez. Proposiziook hierarkia desbardinatukoak izaten dira, orokorrakoak, abstraktoagoak, zein murriztagoak, eta euren arteko lotura koerlaziozkoa zein kausalitatezkoa izan daiteke. Ideologiek osotasun joera dabe. Giner eta Lamo de Espinosaren *Diccionario de Sociología*-n ideologiari dagokion atalean esaten dan lez, *[las ideologías] plantean un sentido global o de totalidad (incluso pretenden cierta universalidad y no evitan el esquematismo) para una esfera amplia de experiencia colectiva* (Giner & Lamo de Espinosa, 1998: 267). Ideologiak sinismen sistema konplexuak izan daitekezan arren, esan beharra dago oinarritzko printzipio batzuen alkarketa soilak be eratu daikela ideologia bat (Van Dijk, 2006).

Ideologiaren eduki diren sinismen multzoek izaera soziala dabe. Hau da, ideologiak taldeen jabegoa dira, ez banakakoena. Egitez, talde batek partekatu bako sinismen multzoa ez litzateke ideologia. Pertsonak ideologiaren jabe eta ideologietan parte-hartzaile dira, baina beti talde bateko kide moduan. Horrek ez dau esan gura, giza talde bateko partaide guztiek ideologia bardin-bardina izango dabenik edota gizartekide guztiek bizitzako esparru guztietarako ideologia garatua izango dabenik. Ideologia bateko kide bakoitzak, sinismen sistemaren oinarritzko printzipioak barneratu eta gainontzekoan ideologiaren bertsio pertsonala eratuko dau. Ideologia bateko partaide ez direnek, barriz, gizarte mailan aukerakor diren sinismenak eureganatuko dabez, ideologia batera gehiago ala gitxiago hurbilduz, ideologia desbardinaren elementuak bateratuz, etab.; betiere, euren iritzi eta gizarte praktikak legitimatzeko interesgarri deritzen eran.

Ideologietako parte hartzaileei buruz jardunda, azpimarratu beharra dago ideologiek jarraitzaileak, leialak zein aldakorak, izateaz gainera ideologoak be badabazala; hau da, ideologia egonkortzeko eta moldatzeko ardura hartuko daben lider ala intelektualak, ideologia bera modu zehatzagoan eta agerikoagoan partekatuko dabenak<sup>27</sup>.

<sup>26</sup>Van Dijkentzat sinismena pentsatua izan daiteken edozer gauza da.

<sup>27</sup>Halanda be, onartu beharra dago ideologiaren zabaltze prozesua norabide bikoitzekoa izaten dala: batetik, liderrek herrira bideratutakoa (goitik-behera) eta, bestetik, herriak liderrei bideratutakoa (behetik-gora). Gainera, esan beharra dago gizarteko iritziak zabaltzen ez dauzan ideologia nekez zabalduko dala gizarte mailan.

Baina sinismen sistema guztiak dira ideologia? Van Dijk-en (2006) aburuz, sinismen sistema bat ideologikoa dala baieztatzeko sistema horretako sinismenak ezin izango dira kultura bateko sinismen orokorrak izan, hau da, kulturako partaide guztiak onartuak izan ordez, kultura bateko azpitalde bateri bakarrik egokituko jakoz. Izatez, sinismen sistemok kultura bateko partaide guztiak bereganatuko balebez, euren izaera ideologikoa galduko leukie. *Una vez que ingresan las creencias sociales en el conjunto de las creencias culturales generales, por definición ya no son más ideológicas para esa cultura, sino simplemente conocimiento u opiniones básicos compartidos por todos, que se dan por sentados y son incontestables* (Van Dijk, 2006: 62). Era berean, esan beharra dago, kultura batentzako ezagutza ala iritzi alkarbanatua dana, beste kultura batentzako ideologikoa izan daitekela.

Ideologiek errealitatea antzemateko tresnak emoten deutsoz pertsonari; bizi dauan errealitateari esanahia ezartzeko baliabideak eta baita berau eraldatzekoak be. Horrela, Van Dijk-ek (2006) ideologia mundua interpretatzeko eta munduan jokatzeko lanabesa dala baieztatzen dau. Hortan datza, egitez, neurri batean behintzat, bere garrantzia eta indarra. *La importancia de la ideología y del discurso en la percepción y definición de la realidad, así como su capacidad para modificarla* (Erize, 2001: 680).

Ideologiaren osagarri diren sinismenek ezagutzazko izaeraz gainera iritiziko izaera daben arren, behin ideologia barneratutakoan bere parte direnek sinismen guztiak arrazionalizatu edota naturalizatzeko prozesua bideratzen dabe. *A naturalizing move that drains the conceptual of its historical content, making it seem universally and/or timelessly true* (Woolard, Schieffelin, 1994: 58). Gainera, ideologiei dimentsio arauemailea jarrie. Hau da, ideologiek onaren eta txarraren artean, egokiaren eta desagokiaren artean bereizketa egitera bultzatzen dabez bere jarraitzaileak, zelan jokatu beharko leukien adieraziz. *Los contenidos de las ideologías de grupo son propios de lo que para cada grupo es el orden moral y social preferido. (...) la mayoría de los grupos implica habitualmente que los grupos desarrollan una ideología que ellos ven como éticamente buena o defendible* (Van Dijk, 2006: 99). Schiffman-ek, Flaitz-en hitzak gogora ekarriz, honakoa dino: *[ideology] is seen to include a set of beliefs concerning how things are, how they should be, and how to relate both to each other and to behavior* (Schiffman, 1996: 80). Imaginatzekoa da, hortaz, ideologia bateko eta besteko jarraitzaileen artean maiz-maiz gizarte gatazkak sortzea eta, era berean, ideologiaren egonkortasun maila handia izatea. Hala eta guztiz ere, ideologia desbardinaren jabe diren taldeen arteko gizarte gatazka ez da beti agerikoa izaten eta ideologiaren egonkortasun nabarmenaren barnean aldaketarako bidea be egon badago. Gizartezko egoeretan sorturik, eguneroko alkarreraginaren bidez eta denboraren joanean zabaldu, egonkortu zein aldatzen dira ideologiak partaideen interesen eta gizarteak ezarritako behar barrien arabera. *Las ideologías se forman y cambian en función de contextos sociales, si bien tales cambios habitualmente son lentos* (Van Dijk, 2006: 79). *Las ideologías son adquiridas, confirmadas y modificadas por los actores sociales como miembros de grupos, y como una función de los objetivos e intereses de ellos* (Van Dijk, 2006: 181). *[Ideologies] tend to alter over time in response to events and changing conditions* (Roberge, 1990: 146).



Ideologiak kulturazio prozesuaren bidez barneratzen dira, kontzientzia maila handiagoz ala txikiagoz, rol aktiboa hartuz (ideologo izanik) ala gizarte testuinguruko eraginak barneratuz. Ideologiaren kulturazio bidezko barneratzea Roberge-k proposatutako ideologiaren definizioan ageri da: *[ideology] set of articulations that derive from system of beliefs and symbols embedded in popular consciousness, reinforced by civil ritual, and codified in the social order* (Roberge, 1990: 135).

Gizarte mailan ideologia asko bereizten dira, izan ere, ideologiak gizarteko esparru jakinei erantzuten deuten sinismen sistemak dira. Esaterako, ideologia ekologistak naturaren zaintzari erantzuten deute, ideologia linguistikoek hizkuntzan inguruko sinismenen arduraren hartzen dabe, etab. Hortaz, pertsonak ideologia bat baino gehiago bereganatu daikie. *Los actores sociales individuales pueden ser miembros de varios grupos sociales, cada uno de los cuales puede tener su propia ideología* (Van Dijk, 2006: 192). Horrela, pertsona sinismen sistema anitzen parte izanik, suertatu daiteke eremu konkreturen batean bere sinismen sistema desbardinak bata besteagaz kontraesanean egotea, edota gai ala gai esparruaren arabera sinismen sistemaren baitako ideia batzuk edo bestek gorenago azalpen ahalmena bereganatzea, gaiaren grabitate zentro ideologiko bilakatzea. Aldi berean, orokortze maila desbardinatutako ideologiak badirela kontuan hartzea komenigarria litzateke; hau da, oinarritzako printzipio orokor batzuek osatutako ideologia-makro orobiltzaileak eta esparru jakinei lotutako ideologia-mikroak.

Halanda be, ideologiak ez dira orokorrean barruti itxiak izaten. Hau da, esparru batean ideologia jakin bat nabarmentzerakoan, beste esparru batean be ideologiaren osagai diren sinismen abstraktu dezente bertsuak izango dira. Esaterako, barruti desbardinetan nagusitzen dan ideologia kontserbadorea. Edota adibidea eskuartean dogun arlora ekarrita, Beacco proposatutako ideologia politikoen eta hizkuntza ideologiaren artean ezartzen dan lotura. Bere hitzetan, *les principales idéologies linguistiques s'insèrent dans des idéologies politiques plus larges* (Beacco, 2001). Egitez, esparru desbardinaren arteko alkarlotura ideologikoak pertsonen edota taldeen sistema kognitiboei eta euren lotutako ekintzei nolabaiteko osotasun koherente bat emoten deute.

Ideologiak harreman estuan dagoz bai gizarte balioekaz baita jarrerakaz be. Van Dijk-en hitzak geurera ekarriz, *las ideologías generalmente organizan actitudes que a su vez controlan aquellas prácticas sociales del grupo y sus miembros que de alguna manera son pertinentes a los intereses o identidades de los grupos* (Van Dijk, 2006: 99). Jarrera da *gizabanakoak une zehatz batean jokaera bat izateko dauan gertutasuna edo egoera psikologikoa* (Albort in Larrañaga, 1996: 12), *objektu nahiz egoera baten alde edo aurka jokatzeoko prestaera* (Azjen in Larrañaga, 1996: 12)<sup>28</sup>

<sup>28</sup>Jarrerak eta jokaerak alkarrerri estu lotuta dagozan arren, ez dira gauza bera. Larrañagaren hitzetan, *jarrerak gertaera edo objektu batekiko iritzi orokorrak jasotzen dituzte, baina ez digute ekintza zehatz bat aurreratzen, nahiz eta orokorrean jokaerarekin lotura izan* (Larrañaga, 1996: 12-13).

Gizarte balioek be funtsezko zeregina dabe ideologietan. Rockeach-en hitzetan *values are guides and determinants of social attitudes and ideologies and of social behavior* (Rockeach, 1973: 25). Balioa *is an enduring belief that a specific mode of conduct or end-state of existence is personally or socially preferable to an opposite or converse mode of conduct or end-state of existence* (Rockeach, 1973: 5) eta balio sistema *an enduring organization of beliefs concerning preferable modes of conducts or end-states of existence along a continuum of relative importance* (Rockeach, 1973: 5). Van Dijk-en ideologien definiziora jotzen badogu ohartuko gara gizarte balioak sinismen sistemaren alderdi ebaluatzaileari egiten deusela erreferentzia.

Taldeek ezeze banakakoek be gizarte balioak bereganatzen dabezan arren, aipatu beharra dago gizarte balioek oinarri kultural zabala dabela. Van Dijk-ek dinoan moduan, *conjuntamente con el conocimiento cultural compartido, son parte del territorio común cultural. Cualesquiera que sean las diferencias ideológicas entre grupos, poca gente en la misma cultura tiene sistemas de valores muy diferentes: la verdad, la igualdad, la felicidad, etc., parecen ser generalmente si no universalmente, compartidos como criterios de acción y al menos como objetivos ideales por los que luchar*<sup>29</sup> (Van Dijk, 2006: 101). Are gehiago, behin oinarritzko balio bat gizartean orokortua eta onartua danean ez da posible balioa aise errefusatzea. Egite horrek ez leuke gizartean legitimaziorik bereganatuko, izan ere, Smolicz-ek (1981) dinoan lez, kultura baten biziraupena bermatzeko oinarritzkoa da kulturen funtsezkotzat jotzen diren balioak transmititzea eta mantentzea. Balio horreei *core values* (bihotz balioak) izena emoten deutse Smolicz-ek.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago gizarte batean partekatzen diren balioak bardintsuak diren arren, pertsona zein gizarte talde bakoitzak bere erara egokituko dauala bere balio sistema antolatuan, sistemako gainontzeko balioekiko dauan lehentasunaren arabera kokalekuan ezarriz. Era berean, aipatzekoa da balio zehatz baten edukia eta muga sistemako gainontzeko balioekaz dauan harremanaren arabera izango dala. Horregaitik, litekeena da kultura bateko gizarte balio funtsezko batek eduki ideologiko oso desbardinak bereganatzea.

- Ideologien antzera, balioak eta balio sistemak denboran zehar dira egonkorak. Hortaz, balio lehentasunetan aldaketarik emotekotan kulturen, gizartean edota bizitza pertsonalean gertakizun eraldatzaile sakonak bizi direlako izango da. *Radical transformations of belief systems –and a consequent fundamental changes in values. May occur following fundamental dislocations in the knowledge system. The invention of new paradigms, and wholesale discarding of the old, operates as a source of revolutionary change in world views as well as in the value systems of individuals* (Hutcheon, 1972: 13).

<sup>29</sup>Kultura bateko azpitaldeen eta azpikulturen barnean nagusitzen diren balioak bertsuak diren arren, kultura batetik bestera desbardintasunak handiagoak egiten dira. Litekeena da kultura batean balio nagusi moduan ezarrita dagoena, beste kultura batean existitu be ez egitea edota bere garrantzia nabarmen jeitea.

Orain arte esandako guztiak aintzat hartuta eta Maio, Olson, Bernard eta Luke-n ideia orriotara ekarriz, ideologia, gizarte balio eta gizarte jarreraren arteko desbardintasuna abstrakzio mailan datzala baieztatu daiteke. *Ideologies, values, and attitudes differ in levels of abstraction* (Maio, Olson, Bernard & Luke, 2006: 284). Jarrerak dira hiruretan abstrakzio maila txikiena dabenak. Balioak egoera zehatzen gaintik kokatzen diren sinismen edo printzipio desiragarriak dira; bizitzako esparru guztietara aplikagarriak direnak eta balio sistemaren egituraren arabera eduki desbardinez jantzi daitekezanak. Ideologiak, bere aldetik, gizarte balio desbardinek sostengatutako eta gizarte jarreretan gorpuztutako sinismen sistemak dira, zabalagoak ala konketuagoak izan daitekezenak beregain hartzen daben esparruaren arabera.

### 2. 2. 3. Hizkuntza ideologia definitzen

Hizkuntza ideologia anitz aztertua izan dan eta dan zientzia esparrua dogu. Gainera, hizkuntza ideologiei buruz diharduen bibliografia aztertuz gero, hizkuntza ideologia zientzia esparru desbardinetatik ikertua izan dala ohartuko gara: linguistikatik, soziolinguistikatik, zientzia politikoetatik, etab. Esparru anitzasun horrek gaia ikuspuntu diferenteetatik aztertua izatea ekarri dau, ikergai diren subjektuak be ugarituz. Soziolinguistikaren alorrean, adibidez, sakon aztertu da hizkuntza ideologiek mintzairaren barne egokitasun linguistikoaren inguruko sinismenetan zein mintzaira desbardinek izan beharreko lekutze sozialaren ingurukoetan daben eragina<sup>30</sup>. Bigarren alderdi hori da, hain zuzen be, ikerketa honen interesekoa eta ikerketa lan honetan luze landuko dana.

Hizkuntza ideologia anitz ikertutako zientzia esparrua dan arren, bere teorizazio maila ez da handia. Asko dira hizkuntza ideologia aztergai hartuta lurralde eta garai desbardinetako mintzairaren inguruko ideiak, sinismenak, diskurtsoak ikertu dabezanak (Moreno, 2000, 2008, 2014; Phillipson, 1997, 2006, 2009; Ricento, 2000b; Wright, 2004; etb.), ez ostera hizkuntza ideologia kontzeptua definitu eta zehazteko zein hizkuntza ideologia tipologiak identifikatzeko lana hartu dabenak. Hortaz, aditu askok hizkuntza ideologia definitu barik

<sup>30</sup>Garrantzitsua da azpimarratzea sozilinguistikaren hizkuntza ideologiek mintzairaren barne egokitasun linguistikoan eta euren lekutze sozialean daben gizarte eragina aztertzen daben adituak eurak be ideologia baten jabe direla, hau da, gaiaren inguruan sinismen sistema garatu bat dabe, bai ezagutzazkoa bai iritzizkoa. *Linguistics itself has been shaped by various ideologies* (Swann, Lillis, Mesthrie, 2004: 171). *Linguistic enquiry is inherently ideological; and the claims of scientific objectivity and autonomy themselves only function as component parts of the linguistic ideology dominant today* (Joseph & Taylor, 1990: sarrera orrialdea). Soziolinguistikaren alorrean horren adibide garbia dana, adibidez, linguistika kritikaren eskola zein ekolinguismoa. Ricento-k teoriko moduan be horixe onartu izan dau: *epistemologies in the social sciences are not exempt from the ideological formations extant in any system of social signs. Ideologies are part and parcel of academic theories and constructs just as much as they are attributes of the "objects" which academics (including critical scholars) routinely scrutinize in their research* (Ricento, 2006: 46).

erabili izan dabe euren ikerketetan. Hizkuntza ideologiak, baina, ez dau adiera bakarra, izan ere, kontzeptua edukiz betetzerako orduan ikuspuntu desbardinak gailentzen dira. Woolard-ek (1992) ikuspuntu nagusiak lautan laburbildu dauz. Autore batzuek hizkuntza ideologia sinismen eta ideiekaz harremantzen dabe. Beste batzuek, ostera, hizkuntza ideologia lekutze sozial jakin batek bete-beteko egiatzat jotzen dauzan interesekaz lotzen dabe. Hirugarren batzuek, hizkuntza, ideologia faltsokeriagaz, mistifikazioagaz batzen dabe eta, laugarren batzuek, barriz, gizarte botereagaz eta, bere legitimazioagaz. Ideologia kontzeptuaren zehaztasun faltak eta abstrakzio maila altuak, Harold Schiffman ideologia kontzeptua baztertu eta *linguistic culture* (kultura linguistikoa ala hizkuntza kultura) bereganatzera eroan dau. Hizkuntza kultura deritzo, *set of behaviors, assumptions, cultural forms, prejudices, folk belief systems, attitudes, stereotypes, ways of thinking about language, and a religio-historical circumstances associated with a particular language* (Schiffman, 1996: 5). Schiffmanen ustetan, hiztunek mintzairen inguruan dabezan ideia, balio, sinismen, jarrera, aurreiritzi, mito, etab. guztiak partaide diren kulturatik jasotzen dabez. Schiffmanek hizkuntzekaz zerikusia dauan kulturaren esparru osoa kultura linguistiko kontzeptuaren barnean egokitzen dau.

Era berean, hizkuntzalari batzuek hizkuntza ideologia (*linguistic ideology*) kontzeptua hizkuntza folk (*linguistic folk*) kontzeptuarengaitik bereizten dabe; hizkuntza ideologia mintzairen inguruan linguistek dabezan ulermen jasoei erreferentzia egiteko erabiliz eta hizkuntza folka mintzairen inguruko herri mailako sinismenak izendatzeko baliatuz.

Ideologia eta hizkuntza ideologia kontzeptuek beregain hartzen dabezan mugak aintzat hartuta be, ikerketa lan honetan Woolard-ek aipatutako ideologiaren lehenengo adiera hartu da oinarri: hizkuntza ideologia mintzairen inguruko ideia ala sinismen multzo moduan ulertzen dauana, hain zuzen be. *A set of shared attitudes and beliefs about language, underpinned by certain social or cultural values* (Swann, Lillis, Meshrie, 2004: 171), direla sinismenok herritarrenak, direla hizkuntzalarienak edota doktorego tesian aztergai diren alderdi politikoena.

Gainera, Van Dijk-en ideologia kontzeptua bera ikerketa honetarako erreferentzia moduan hartuta, ideologiaren osagai diren sinismenak ezagutzazkoak (alderdi objektiboa<sup>31</sup>) zein ebaluaziozkoak (alderdi subjektiboa) izango dira. Ildo horretatik, José del Valle (2007) ideologiaren dimentsio moduan jotzen dauz irudikapen soziolinguistikoak, arauak, jarrerak, estereotipoak zein iritziak. Hortaz, hizkuntzen inguruko ideia sistema zabalak.

Ideologiak gizarte balio eta jarrerakaz lotura daben era berean, hizkuntza ideologiak be, mintzairi dagokiezan ideologia motak izanik, badabe lotura balio eta jarrerakaz. Beacock,

<sup>31</sup>Objektiboa erabiltzen da gizarte batean egiazkotzat jotzen diren irizpideekaz bat datorrela adierazteko. *Estos criterios (de verdad) establecen que las creencias (para nosotros) son válidas, correctas, certificadas, sostenidas de una manera general, o que reúnen los estándares de verdad socialmente compartidos* (Van Dijk, 2006: 35).

adibidez, hizkuntza ideologiak balio sistemak direla baieztatzen dau. *Les principales idéologies linguistiques en tant que systèmes de valeurs*<sup>32</sup> (Beacco, 2001).

Hizkuntza ideologia hiztunen ekintzak eta portaerak ulertzeko tresna baliogarri be bada. Hizkuntza ideologiak erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakinetan adierazten dira; hiztunaren lengoaia erabilera, diskurtso edota portaera egingarriak be baldintzatuz. Auñamendi Eusko Entziklopedian hizkuntza ideologiei erreferentzia egiterakoan esaten dan moduan, azken finean, hizkuntza ideologia *hizkuntza-irudikapenen, hizkuntza-jarrerren, hizkuntza-motibazioen eta hizkuntza-portaeren hiperonimo moduan ulertu* daiteke (Auñamendi Euskal Entziklopedia). Era berean, esan beharra dago baina, *linguistic ideology is not a predictable, automatic reflex of the social experience of multilingualism in which it is rooted; it makes its own contribution as an interpretative filter in the relationship of language and society. (...) It can be rationalized in various ways, depending on how speakers conceptualize the links of language, cognition, and social life* (Woolard & Schieffelin, 1994: 62). José del Valle (del Valle, 2007) hizkuntza ideologiek funtzio naturalizatzailea dabela baieztatzen dau; sen onean eutsitako hizkuntzaz kanpoko ordenari eragin normalizatzailea eskaintzen deusona. Horretaz gainera, hizkuntza ideologiaren ezaugarri azpimarragarri dira del Valleren aburuz izaera testuinguratzailea (*contextualidad*), hau da, orden kultural, politiko eta gizartezko jakin bategaz lotura izatea, eta instituzionalizatzailea (*institucionalidad*), botere eta autoritate forma zehatzen alde praktika instituzionaletan antolatutako produkzioa eta erreprodukzioa.

#### 2. 2. 4. Hizkuntza ideologia motak

Hizkuntza ideologiaren unibertsoa zabala da oso, eta ideologia linguistikoaren deskribapen orobiltzaile eta zehatza burutzeak luze eroango leuke. Horregaitik, ikerketa lan honetan testuinguru mendebaldraren maila praktikoan edota teorikoan gailendu diren zenbait ikuspuntu ideologiko izango dira langai, hiru gai zentralen gainean antolatuta: nazio eta estatu eraikuntzaren ideologiak, hizkuntza gitxituen eskubideen inguruko ideologiak, eta *lingua franca* eta mundu mailako joera linguistikoaren gaineko ideologiak. Lehenengo biak (lurralde) barrura begirako hizkuntza ideologia moduan sailkatu dira eta hirugarrena (lurralde) kanpora begirako hizkuntza ideologia gisa.

<sup>32</sup>Sarritan esaten da azterketa bat egiterakoan oinarritzak dala beronen aztergaiak izango direnak definitzea. Egiteko horretan murgiltzerakoan baina ageriko egiten da maila teorikoan kontzeptu bakarraren inguruan emoten diren definizioak asko direla euskarri dabezan paradigma teorikoaren, aztergaiaren, eta abarren arabera. Gainera, maiz, kontzeptu desbardinaren inguruan emondako definizioak aztertzerakoan batzuk eta besteak gainjarri egiten dira, euren arteko desbardintasunak difuminatuz eta baita nahastuz be. Ideologiaren kasuan be halaxe gertatzen da. Ideologiaren zerizatea definitu eta esplikatzeko orduan, sinismenak, jarrerak eta balioak beti agertzen dira azalpenaren punturen batean. Arazoa zera da, euren arteko harremana zehazterako orduan autore batzuen eta besteen artean desbardintasun nabarmenak agertzen direla. Ikerketa honetan ideologia, jarrera eta balioak harremantzeko modua aurreko atalean (2.2.2. Ideologiaren zerizatea) emon da aditzera.

Hiru gai zentralek bideratutako hizkuntza ideologiaren barne aniztasuna handia da eta, hortaz, ereduotako bakoitza mintzagai danean, ideologiaz berba egin ordez, egokiagoa da ideologiez berba egitea. Barne aniztasuna hizpide hartuta, azpimarragarria da ideologia mota bakoitzean eleaniztasunaren alde agertzen diren ideologiak, ideologia eleanitz moduan izendatu daitekezanak, eta eleaniztasunaren kontra agertzen direnak, elebakartasun ideologiak deiturikoak, identifikatu daitekezala. Aldi berean, ideologia mota bakoitza gai desbardin baten inguruan gorpuztuta dagoanez, departamendu iragazgaitzak ez direla aipatu beharra dago, euren artean lotura guneak dagozala eta elkar eragiteak ere nabarmenak direla.

Bestalde, argitu beharra dago, ikerketa lan honetan hizkuntza ideologia moduan jo direnetako zenbait ez direla hizkuntza ideologia soilak; hau da, euren helmena hizkuntzen alorretik haratago doa, makro-ideologia izaera bereganatuz. Hori horrela izanda be, zilegi da hizkuntza ideologia izendapena atxikitzea, eurak be mintzairen inguruko sinismen sistema osoak agertzen dabezelako.

Era berean, interesgarria da aipatzea, aztergai dan ideologietako bakoitza bata bestea-rengandik oso desbardina eta batzuetan kontrajarria izan daiteken arren, garai eta lurralde komunean gertatzen direla. Hori Petrovic eta Kuntz-ek azaldutako markotze kognitibo zabal bat partekatzeari esker gertatu daiteke. Euren hitzetan, *the notion of framing lays claim to an organizational structure that privileges particular interpretations of reality over others. Though framing, individual and cultural perceptions are oriented towards select interpretations –or frames- which, in turn, prevent alternative ways of knowing* (Petrovic & Kuntz, 2013: 129). Petrovic eta Kuntz-ek liberalismo politikoa jotzen dabe mendebaldeko herrialdeetako eztabaida politikoa markotze kognitibo zentraletako bat. Honek marko-makro (*macro frame*) moduan jokatzin dau eta beren izenean interpretazio eta agenda politikoa erabat desbardinak defendatzen dira sarri. Halaber, lurralde batean hizkuntza ideologia anitzak bizikide izan daitekezan arren, sarri, aniztasun horren barruan, batzuk ideologia nagusi eta legitimaziodunak izango dira, beste batzuk, barriz, hizkuntza ideologia alternatibo ala legitimaziobakoak. Egitez, ideologia baten nagusigoa ala bazterreko izaera beratu egikaritzen daben pertsona ala taldeen gizarte boterearen araberkoa izango da, neurri handi batean (Ricento, 2000a).

Amaitzeko, hizkuntza ideologia moten deskribapena burutzerakoan bi alderdi izango dira kontuan; batetik, hizkuntza gaitan adituek gizarte errealitatearen azterketa burutzerakoan gizartearen bertan identifikatutako leku-hartze ideologikoak (adituak kanpo begirale) eta, bestetik, adituek eurak agertzen dabezan ikuspegi teorikoak, horreek be hizkuntza ideologia desbardinaren adierazle baitira (adituak ideologia eraikitzaile). Egitez, ezin geinke ahaztu teorikoen lanak neutraltasunetik urrun kokatzen direla (Ricento, 2000a) eta teorikoez agertzen dabezan ikuspuntuak herritarrengan zein eragile politikoengan gorpuzten direla sarri, modu argi ala lausoagoan<sup>33</sup>.

<sup>33</sup>Zentzu honetan oso argigarria da Costak Llei 1/1998 de Política Lingüística-ren erabakitze publikoan erabilitako argudioen ildora adierazitakoa: *I shall show that these arguments are not fundamentally divergent from those used by academic scholars dealing with national and cultural pluralism in Western democratic societies* (Costa, 2003: 414).

## 2. 2. 4. 1. Barrura begirako hizkuntza ideologiak

### 2. 2. 4. 1. 1. Hizkuntza nazio eta estatu eraikuntzan

#### Nazio eta estatu eraikuntzaz zenbait atariko-ohar

Maila akademikoan, sarri askotan, estatu eta nazio terminoak ia trukagarri moduan erabili izan dira, lurralde batek estatu izaera bereganatzerakoan nazio-estatu izaera bereganatuko baleu moduan. Blommaert-ek (2006) baina, errealitatean nazio-estatu baliokidetzarik emoten ez dala azpimarratzen dau. *Empirically, there are a good number of states where a true nationalist project does not exist, or where, in fact the “nation” is organized around coercion rather than around ideological consent and where, consequently, a term such as “statism” would be more appropriate* (Blommaert, 2006: 239). Aldi berean, nazioak ez dauka estatuaren beharrik existitzeko; egon badira estatu bako nazioak be. Halaber, maiz, estatu bako nazioek eurak barnean hartzen dauzan estatua zalantzan jartzen dabe, ez deutse legitimaziorik eskaintzen eta, are gehiago, eskualde mailan estatu egituraketak eraiki daikiez, baita estatu barri batean egituratu be. Blommaert-en aburuz, une horretan proiektu nazionalista proiektu estatista (*statism*) bilakatuko litzateke. Hori horrela, *it is advisable to separate “nation” and “state”, and consider the “nation-state” as one specific combination of the two, the existence of which needs to be empirically established, not posited a priori* (Blommaert, 2006: 239). Blommaert-en ikuspegiari jarraiki, ikerketa honetan be nazioa eta estatua, nazio-eraikuntza eta estatu-eraikuntza bereiztu egingo dira.

Estatua da gizarte bat erregulatze bidean, arauak ezartzeko autoritate eta boterea dauan erakunde multzoa, lurraldearekiko barne eta kanpo subiranotasuna dauana. Bestalde, nazioak bi adiera izan daitezke: kulturala eta politikoa. Nazio kulturala kontzeptu sozio-ideologikoa da eta ezaugarri kultural komunak partekatzen dauzan giza komunitate moduan definitu daiteke. Nazio-politikoak esparru juridiko-politikoari erantzuten deutso; hau da, nazioa subjektu politikoa da, estatu baten subiranotasuna beregain hartuko dauana edota estatua izan barik horrelaxe autodefinituko dana. Halaber, nazioaren bi adierak bateratu egin daitezke. Modu horretan, nazioa da ezaugarri kultural batzuk partekatzen dauzan giza komunitatea eta bere burua subjektu politiko moduan definitzen dauana. Ikuspegi horren arabera, nazioa elementu objektiboz eta subjektiboz osatua dagoela esan daiteke. Ezaugarri objektiboak dira, besteak beste, lurralde, erlijio, arraza, hizkuntza, etab. komuna; ezaugarri subjektiboa, barriz, nazio sentimendua, nazio identitate kolektiboa.

Ezaugarri objektiboak aintzat hartuta, nazioa kontzeptu dinamikoa dala baieztatu beharra dago, testuinguru espazial eta historiko jakinei lotua baitago (Zabalo & Mateos, 2005). Ildo horretan, nazio identitatearen osagarri jo daitezkean elementu objektiboak aldakorak dira, euren zentralitatean, behinik behin<sup>34</sup>. Berez, nazionalismoaren alde politikoari lehentasuna

<sup>34</sup> Euskal nazioa definitzerakoan aldaketa hori nabarmena da. XIX. mendean euskal nazioa arraza komunak eraikia

eskaintzen jakonean, nazioaren inguruko diskurtsoan benetan garrantzitsua nazionalismoaren helburuak justifikatzeko erabilgarria izatea eta herritarrarengana heltzea da. Nazionalismoaren arrakasta, hortaz, nazioaren inguruko diskurtso koherente eta eraginkorra eraikitzean datza. Are gehiago, Connor-en hitzetan, *el factor esencial para determinar la existencia de una nación no son las características tangibles de un grupo, sino la imagen que éste se forma de sí mismo* (Connor, 1998: 45).

Aurrekoak kontuan izanda eta modu laburrean adieraziz, nazio eraikuntza deritzogu nazio identitate bat eraiki eta egituratzeko prozesuari; estatu eraikuntza, barriz, subiranotasun politikoa bereganatutakoan estatuaren azpiegitura eta erakundeak sortzeko prozesuari. Esan beharra dago baina, sarritan bi prozesuek nazio-estatu eraikuntza bikoitzaren baitan bat egiten dabela. Ikuspuntu enpiriko eta analitikoak kontuan izanda, nazio-estatu eraikuntzan hiru prozesu desbardin baina alkarlotuk hartzen dabe parte, hain zuzen, identitate eraikuntzak, gizarte integrazioak eta estatu aparatuaren eraikuntzak (Hippler, 2002).

Identitate eraikuntza prozesuari dagokionean, Hippler-en ustez nazio eraikuntzak *requires some form of ideology that legitimizes and justifies a “national” self-interpretation of the respective community* (Hippler, 2002). Ideologia integratzaile, bateratzaile (*integrating, unifying ideology*) bat beharrezkoa da, *strong enough to convince the members of the subgroups that they have also something in common, which is meaningful and important, and distinguishes them from other groups* (Hippler, 2002). Hau da, herritarrek identitate bateratu bat bereganatzea funtsezkoa izango da. Bateraketa bideragarri egingo daben elementuak desbardinak izan daitezke, nazioaren elementu osagarri jo daitezkezan hizkuntza, lurraldea, etab., zein nazio kulturalagaz zuzenean lotu bako hiritartasuna. Ideologia bateratzailearen arrakasta ala arrakasta ezak xedatuko dau estatuaren legitimazioa<sup>35</sup>.

Identitate eta ideologia komunaz gainera, nazio eraikuntzak irizpide praktikoak be beharrezko dauz, hau da, gizartearen saretzea, integrazioa burutzea; besteak beste, komunikazio eta alkartruke ekonomikoak indartuz, azpiegituren bateratzea burutuz, etab. Horrela, *the several existing networks of communication and intercourse, both intellectual and material, have to be integrated into a common network, to overcome regional, ethnic or other forms of isolation and self-centeredness* (Hippler, 2002). Urrutia eta besteren (Urrutia, Iñarritu, Nikolas, 2012) ustetan, gizartearen saretzea lurraldetasuna azalerazteko eta bere mugak zehazteko tresna baliogarria be bada<sup>36</sup>.

---

egoala sinisten zan; XX. mendearen erdialdetik aurrera, ostera, hizkuntza bilakatu da euskal nazioaren ezaugarri zentrala. Euskara da euskaldun egiten gaituena espidea da horren adierazpide fina.

<sup>35</sup> Guibernau-k (1996) legitimitate aldagaia aintzat hartuta, estatu legitimoak eta ez legitimoak bereizten dauz. Estatu legitimoan estatuak nazioagaz bat egingo dau; estatu ez legitimoan, barriz, estatu baten baitan nazio desbardinak edo beste nazio batzuen atalak bilduko dira.

<sup>36</sup> Urrutiak eta bestek (Urrutia, Iñarritu, Nikolas, 2012) adierazten daben moduan, gizartearen saretzeak, gizarte kohesioa indartzeak kontzientzia garatzea be badakar, hortaz, baieztatu daiteke identitate eraikuntzan sakontzea be ahalbidetu daikela.



Amaitzeko, prozesuaren hirugarren atal moduan estatuaren eraikuntza daukagu, *aginte-erakuntza* (Zubiaga, 2012) prozesu politikoa eta teknikoa dana era berean. Izan be, estatua eraikitzeak lurraldea entitate politiko subirano moduan ezartzea dakar; baina baita estatuaren erakundetzea eta antolaketa burutzea be; besteak beste, zerga-bilketa sistema, sistema legala, indarraren monopolioa burutzeko erakundeak, funtzionamendu administratiboa burutzeko langileria publikoa, etab.; eta guzti hori lurraldearen luze zabalean.

Hipplerrek proposagai dauan nazio-estatuaren eraikuntza prozesu hirukoitza da, hain zuzen, Zubiagak (2012) nazio-erakuntza, herri-erakuntza eta estatu-erakuntza hirukote moduan aurkeztutakoa. Nazio eraikuntza (*nation building*) litzateke nazio-sentimenduaren eta beronekin lotutako eduki identitarioaren errotzea jendartearen; herri-erakuntza edo herrigintza (*demos building*) gizarte demokratikoaren antolatze-prozesua<sup>37</sup> eta estatu eraikuntza (*state building*) lurraldean aginte politikokoaren sendotzea eta hedatzea<sup>38</sup>.

Demokrazia liberaletan, baitan nazio-estatu eraikuntza prozesu hirukoitzaren baitan, batasun eta identitate nazionala eraikitzerako orduan bi ikuspegi nagusitu izan dira, aurretik aipatutako nazioaren bi adierkez estu lotuta dagozenak. Hain zuzen, nazionalismo<sup>39</sup> etniko-kulturala eta nazionalismo zibiko-politiko<sup>40</sup>. Nazionalismo etniko-kulturala herritarrek arbasoengandik jasotako ezaugarri etnikoetan oinarritzen da: hizkuntza, erlijio, ohitura eta tradizio partekatuan; nazionalismo zibiko-politiko, ostera, praktika eta balio politiko partekatuetan (Ignatieff, 1993).

Nazionalismo etniko-kulturala, modu zurrun eta esentzialistan ulertuta, kanpora begira baztertzaila eta barrura begira mugatzailea izan daiteke; nazio kidetza iragan partekatua eta kultura komuna dabenei bakarrik egongo dalako zabalik; eta kultura partekatua aldagaitza eta itxia izango dalako, barne aniztasunari tarte txikia eskainiz. Ikuspegi hori aintzat hartuta, nazionalismo etniko-kulturala ez liberal moduan, hau da, demokrazia liberal batean tarterik izango ez leuken nazionalismo moduan jo izan da sarritan; bereziki nazionalismo

<sup>37</sup>Aurretik aipatutako moduan, gure adieran, nazio-erakuntza nazio identitatea eraikitzean ezeze berau egituratzean be badatza. Hortaz, Zubiagaren sailkapenean nazio-erakuntza eta herri-erakuntzaren batuketa da guk nazio-erakuntza moduan ulertuko doguna.

<sup>38</sup>Estatu bako nazioek estatu-erakuntza ezin daikie burutu horretarako subiranotasun aitortzarik ez dabelako. Horrela, estatua eraikitzekotan lurraldearen independentzia prozesua abian jarri beharko litzateke. Halaber, estatupeko aginte mailetan estatu aparatuen antzekotasunak dauzan egituraketa burutu daiteke eskualde mailan eskumen bilketa handia dan kasuetan.

<sup>39</sup>Nazionalismo deritzogu *nazio-erakuntza helburu dauan ideologiari* (Zubiaga, 2012: 115).

<sup>40</sup>Martínez de Lunak (1998) *gemeinschaft* eta *gessellschaft* ideologia moduan laburbildu dauz. Bi ideologion atzean gizartearen ulerkeria desbardinak ostentzen dira. Lehenengoak, nazionalismo etniko-kulturalen inspiratuak, *gessellschaft* gizartearen sinisten dau, *compuesta por individuos ligados por la convicción de que están ancestralmente relacionados* (Martínez de Luna, 1998: 144). Bigarrenak, nazionalismo zibiko-politikoan oinarrituak, barriz, *gemeinschaft* gizartearen sinisten dau, *compuesta por individuos ligados por la convicción de que sus intereses se verán mejor protegidos y promovidos formando parte como miembros de esa sociedad* (Martínez de Luna, 1998: 145).

zibiko-politikoaren jarraitzaileen artean. Halanda be, nazionalismo etniko-kulturala balio demokratikoekiko adikorra be izan daiteke eta da testuinguru demokratikoetan<sup>41</sup>. Kymlicka-k nazionalismo liberalaren eta ez-liberalaren arteko desbardintasanak modu honetan laburbiltzen dauz (Kymlicka, 2001: 39-41):

- Nazionalismo liberalak ez deutse nazio identitate bera partekatzen ez dabenei berau modu hertsatzailean inposatuko. Nahiz eta erakunde publikoek izaera nazional jakin baten ziguila izan; nazio talde horren parte ez diren herritarrak euren identitate nazionala maitatu eta adierazteko debekurik ez dabe izango. Barriz, nazionalismo ez-liberalak nazio identitate komuna bultzatzeko neurri zapaltzaileak ezarri ahal izango dauz.
- Nazionalismo ez liberalak nazio identitate nagusia zalantzan jarri daiken adierazpen edota mobilizazio politikorik ez dau onartuko; nazionalismo liberalak, barriz, nazio adierazpen desbardinei tartea baimenduko deutse ekintza politikoetan.
- Nazionalismo liberalak nazio komunitatearen definizio zabalago bat izan ohi dau. Talde nazionalaren parte izatea ez dago arraza, etnia, zein erlijio jakin batek mugatua; edonor bilakatu daiteke nazioaren parte hala gura izatekotan. Nazionalismo ez liberalean, oster, nazio nagusiaren parte bilakatzeko bidea sarratuta dabe ez nazionalak; baina baita euren identitate nazionala adieraztea be.
- Inklusibotasun nahiak bultzatuta, neurri handi batean, nazio liberalek nazio nortasunaren ikuspegi lausoago bat agertzen dabe, hain zuzen, oinarri etnokultural desbardinetako pertsonak nazioaren kide oso bilakatzeko aukera izan dagien. Kymlicka-k gizarte-kultura (*societal culture*) komunaz berba egiten dau: *centered on a shared language which is used in a wide range of societal institutions, rather than on common religious beliefs, family customs, or personal lifestyles* (Kymlicka, 2001: 25). Nazionalismo ez liberalean, barriz, integrazio kulturala askoz be sakonagoa izan ohi da, hizkuntza komunaz eta erakunde publikoek gainera erlijio, errito, bizitza estiloa be partekatuz.
- Nazionalismo liberala ez da batukaria, eta estatu barneko gitxiengo nazionalen erakunde propioak desegiteko nahirik be ez dau agertzen. Nazio-estatu homogeneoaren orde, gitxiengo nazionalak onartu eta espazio publikoa eurekin partekatzeko prest agertu daiteke; estatuaren izaera nazio-anitza legitimatuz.

Hala ere, nazionalismo liberal eta ez liberalaren arteko bereizketa trinkorik burutzea ez da posible, bereizketa neurri kontua baita. *We cannot (...) divide real-world nationalist movements into two categories: "liberal" and "illiberal". Rather, nationalist movements will turn out to be more liberal on some scales, and less liberal on others* (Kymlicka, 2001: 41).

<sup>41</sup>Nazioa definitzerakoan adierazi dan moduan, nazioaren ezaugarri objektiboen ezarpenak ez dau behin betiko izaerarik; nazio kulturala errealitate dinamikoa da, nazionalismoaren interes eta beharrezan araber, egokitzu doana. Era berean, nazioaren iragan komuna baieztatzeak ez dau esan gura herritar bat nazioaren partaide izateko iragan horren ondorengo izan behar danik. Nazio kulturalaren partaidetzak izaera malgua dauka gehiengoan.

Nazionalismo zibiko-politikoak ez dau iragan eta kultura komunik behar identitate nazionala eraikitzeke; printzipio liberaletan oinarritutako balio politikoei atxikimendua adieraztea eta alkarregaz mantentzeko borondatea agertzea baitira identitate nazional honen gakoak. Horrela, nazioaren parte bilakatzeko nahikoa da balio politikook partekatzea eta nazioaren parte izateko nahia adieraztea, maila teorikoan behinik behin. Era berean, nazionalismo zibiko-politikoaren ikuspegian, estatuaren egitekoa banakakoaren eskubideak babestea da, ez kultura nazional jakin bat babestea (Schlereth, 1977). Aipatzekoa da nazionalismo zibiko-politikoak tradizio liberalean lekutze naturala dauala, hain zuzen, liberalismo klasiko bardinzalearen baitan.

Antolaketa politiko moduan estatuak sortu ziranetik, ohikoena estatu barneko nazio aniztasuna izan da. Demokrazia liberaletan aniztasun hori kudeatzeko hiru irtenbide proposatu izan dira: gizartearen izaera plurala desagertaraztea edo nabarmen murriztea asimilazioaren bidez; irtenbide kontsoziazionala, bereizketa anitza erregimen egonkor bat eraikitzeke oinarri moduan hartzea; eta banatzea, estatu atal homogeneotan zatitzea (Lijphart, 1977). Lehenengo neurriak aniztasuna murriztea dau helburu; bigarrenak eta hirugarrenak, barriz, aniztasunari tartea iztea. Ildo berean, Requejok (2010) nazio anitzeko demokrazietan aniztasunari tartea izteko emon izan diren erantzun klasikoak hirutan laburbiltzen dauz: federalismoa zentzu zabalean, direla federazioak, estatu alkartuak, konfederazioak zein estatu erregionalak; neurri kontsozionalak, gehiengo eta gitxiengo nazionalen arteko adostasuna bilatzea helburu dabenak; eta sezesioa.

Historikoki asimilazioa izan da modu esplizitu ala inplizituan gehien erabili izan dan irtenbidea; sarri askotan estatuaren eraikuntza nahitik abiatutako estatu eta nazioaren eraikuntza paralelo moduan burutu izan dana. May-ren ustez homogeneotasun kultural eta linguistikoa *is the “ideal” model to which most nation-states, and nationalist movements, still aspire –albeit in the face of a far more complex and contested multi-ethnic and multilingual reality* (May, 2012: 7).

Egitez, autore askok aditzera emoten daben lez, nazionalismo zibiko-politikoak berak kultura komuna nazioaren oinarritzat jo ez arren, *historically, virtually all liberal democracies have, at one point or another, attempted to diffuse a single societal culture throughout all its territory* (Kymlicka, 2001: 28); nahitaez hizkuntza jakin batean ala batzuetan bideratuko dana. Gainera, nazionalismo zibikoaren estatu neutraitasun “onberak” gitxiengo nazionalen berezitasunak ez dauz kontuan hartzen; eta modu horretan, *by ignoring all differences that arise within the political community, it favours in the long run a homogeneity within the state. So in that sense, it also promotes, albeit in an indirect way, the political model of the nation-state* (Seymour, 1999: 5). Hortara, pentsa daiteke, nazio-etniko kulturealean nazioak estatuari aurrea hartzen deutsola; eta nazio zibiko-politikoan, barriz, herritarrek euren buruari estatu eskaintzen deutsela eta estatuak nazioa sortzen dauala (Seymour, 1999), nazio zibikoa ezeze kulturala be bihurtu daitekena, *societal culture* ikuspegian, behinik behin.

Era berean, interesgarria da oso nazio aniztasuna nagusi dan estatuaren gehiengoaren eta gitxiengoaren nazionalismo moten inguruan May-k burutzen dauan hausnarketa. Horrelaxe dino: *the ethnic interests of the majority group are legitimated and naturalised as civic ones which, in turn, are equated directly with modernity. Concomitantly, the legitimate claims of minorities for similar recognition and inclusion in the public or civic realm are ignored, discounted and/or suppressed on the basis that they are merely "ethnic"* (May, 2001: 53).

Ildo berean, Michael Billig-en nazionalismo hutsalaren (*banal nationalism*) ideia be oso argigarria izan daiteke. Billig-en ustez, nazionalismoa periferian kokatzeko joera handia dago. *Those in established nations [states] -at the centre of things - are led to see nationalism as the property of others, no of "us"* (Billig, 1995: 5). Edozelan be, joera horren kontrara, estatu batek babestutako nazio egonkorak be badira nazionalistak. Baina kasutan, nazionalismo zeinuak eguneroko bizitzan barreatuta dagoz eta zumaezinak dira. Argigarria da Billig-ek nazionalismo hutsala azaltzeko darabilen irudia. *the metonymic image of banal nationalism is not a flag which is being consciously waved with fervent passion; it is the flag hanging unnoticed on the public building* (Billig, 1995: 8).

Gaur egun ere nazio-estatuaren ideologiak indar handia izaten jarraitzen dauan arren, onartu beharra dago aniztasun etniko zein linguistikoa nazio eta estatu-erakuntzarako baliabide moduan erabiltzen be hasia dala. *Multilingual language policies, which recognize ethnic and linguistic pluralism as resources for nation-building, are increasingly in evidence. (...) transforming homogenizing and assimilationist policy discourse into discourses about diversity and emancipation* (Hornberger, 2002: 29-30). Tradizio liberalaren baitan liberalismo kulturala dogu aniztasunarekiko zabaltze horren defendatzaile argia. Liberalismo kulturalak estatu barneko gitxiengo nazionalak, historikoki lurralde horretan lekututa egon direnak, estatuaren aldetik babestuak eta bultzatuak izateko nahia agertzen dau<sup>42</sup>; esaterako, euren burua gobernatzeko eskumenak eskainiz. Horrela, liberalismo kulturalak gitxiengo nazionalen nazio-erakuntza zilegitzen dau estatuaren mugen barnean.

Behin modu orokorrean nazio eta estatuaren zerizatearen eta nazio eta estatu-erakuntza estrategien inguruan hainbat argitzapen eskaini eta ostean, hizkuntzek nazio eta estatu erakuntzan bete daben eginkizunaren gainean jardungo dogu, hau da, nazio eta estatu erakuntzan hizkuntzek bereganatu dabezan rol eta balio desbardinak izango dira aztergai, nazionalismo etniko-kulturala eta zibiko-politiko ardatz izanda eta ikuspuntu diakronikoa be kontuan hartuta.

<sup>42</sup>Liberalismo kulturalaren pentsalari nagusienetakoa dan Kymlicka-k gitxiengo nazionalen eta etorkin taldeen artean bereizketa argia burutzen dau, XX. mendean zehar nazio aniztasuna onartu eta babesteko hautua egin daben demokrazia liberaletan ohikotasun handiz jazo izan danagaz bat eginez. Herrialdeotan gitxiengo nazionalen euren nazio-erakuntza burutzeko zentralak diren eskumenak eskaini izan jakezan bitartean, etorkin taldeen kasuan euren integrazioa espero izan da, egiteko horretarako baliabideak eskainiz. Kymlicka bereizketa horren alde agertzen da modu honetan argudiatuz: batetik, etorkin taldeek ez dabe euren gizarte-kultura (*societal culture*) bideratzeko aukera errealik; bestetik, etorkin taldeentzako eta gitxiengo nazionalentzako desiragarri danak ez dau gehiengoan bat egiten; etorkin gehienen nahia harrera-herrialdean ahalik eta egokien integratzea baita, nahiz eta bizitza pribatuaren euren nazioaren adierazgarri diren adierazpen kulturalak mantendu.

## Hizkuntzaren rola nazio eta estatu eraikuntzan

Hizkuntzak nazio eta estatu eraikuntzan, dala nazio eredu etniko-kulturala eraikitzerakoan dala eredu zibiko-politiko egiterakoan, oinarritzko elementu izan dira. Halaber, nazio mota batean eta bestean mintzaireri eskainitako balioa, atxikitako funtzioa erabat desbardina da.

Aurreko atalean aipatu dogun moduan, nazio etniko-kulturalaren oinarrian herritarrek arbasoengandik jasotako eta kultura batean gorpuztutako ezaugarri etnikoak dagoz; eta ezaugarriok dira, hain zuzen, naziokideei identitate partekatua eskaintzen deutesnak. Ezaugarriotako bat, sarritan nagusia, hizkuntza izan ohi da. Horrela, ikuspegi honen baitan hizkuntza identitate nazionalaren zeinu eta berau indartzeko bidea da. Hortik, hain zuzen, hizkuntza nazional terminoa, *lurralde jakin batean bizi diren pertsonen berezko nortasunaren ezaugarri* dan hizkuntza moduan definitua (Zarraga, Coyos, Hernández, Joly, Larrea, 2010: 160). Halaber, hizkuntza identitate nazionalaren parte izateaz gainera, identitate pertsonalaren atal be bada. De Schutterrek hizkuntzaren ikuspegi osagarri (*constitutive view*) moduan definitu dau horixe. Bere hitzetan, *the constitutive view says that language constitutes who I am, that my language and my identity are inextricably intertwined, that I cannot have concepts or views for which I do not have language, and that language allows me to express or articulate things that I could not have without having language* (De Schutter, 2007: 8).

Nazio zibiko-politikoan herritarren lotunea ez da kultura eta iragan partekatua; printzipio liberaletan oinarritutako balio politikoekiko atxikimendua eta alkarregaz mantentzeko borondatea baino. Ikuspegi honen baitan eta nazio zibiko-politiko eraikitze bidean, hizkuntzak balio izanarazlea baino instrumentala bereganatzen dau; hain zuzen, hizkuntzaz haratago doazan helburuak egikartzeko lanabesa da hizkuntza eta bere tresna izaera dauan balio komunikatiboan oinarritzen da. Azken batean, *language is essentially an arbitrary tool of communication* (De Schutter, 2007: 9). Ikuspegi pertsonaletik begiratuta be, hizkuntza pertsonaren nor izatearen kanpotik dago; hitzartutako lanabesa baita (De Schutter, 2007).

Nazio eta estatu eraikuntzaz jardunda, hizkuntzei atxikitako hirugarren balio zentrala azpimarratzea be garrantzitsua da; hau da, hizkuntzen balio integratzailea. Hizkuntzak herritarra komunitate baten barnean edota kanpoan kokatzeko ahalmena dauka; muga markatzailea da (Tabouret-Keller, 1985). Zentzu horretan, mintzaira nazio etniko-kultural zein zibiko-politiko batean integratzeko, bere parte bihurtzeko, oinarritzko elementu bilakatu daiteke<sup>43</sup>. Ezagun izan da hori nazio eta estatu eraikuntzan elebakartasuna ezartzerakoan. Patten-ek dinoan moduan, sarritan (*state monolingualism will push speakers of less widely spoken languages to acquire the common language and (eventually) to affirm a common identity associated with the language and other symbols of the political community*) (Patten, 2009: 105). Egitez, nazio etniko-kulturalean eta zibiko-politikoan hizkuntzari atxikitako

<sup>43</sup>Hizkuntzen inguruko jarrerak aztertzerakoan, euskal tradizioan jarrera integratzailea balio izanarazleagaz lotu izan da (Amorrortu eta beste, 2009; Larrañaga, 1996; Martí eta beste, 2005; Martínez de Luna, 1996). Azterketa honetan baina, balio integratzailea balio izanarazleagaz eta instrumentalagaz, biekaz lotzen da; azken batean, komunitate baten parte bilakatzeko motibazio kulturala zein politiko hutsa izan daitekela.

balioa erabat desbardina dan arren, historikoki bi ikusbideen egikaritzeak<sup>44</sup> jomuga berbera izan dau gehienetan; hain zuzen, nazio-estatuaren elebakartasuna, esparru publikoan, behinik behin.

## 2.7.TAULA. HIZKUNTZA IDEOLOGIA OSOGARRIA VS. HIZKUNTZA IDEOLOGIA INSTRUMENTALA

	Hizkuntza ideologia osagarria	Hizkuntza ideologia instrumentala
<b>Izantza linguistikoaren azpiko ikuspegia (ontologia linguistikoa)</b>	Hizkuntza nire izatearen berezkoa da (hizkuntzaren bidez gorpuztutako subjektua)	Hizkuntza nire izatearen kanpokoa da (hizkuntza lanabes edo ohitura bat da banakakoarentzat)
<b>Ondorio normatiboa (hizkuntza politika)</b>	Hizkuntzaren identitate interesa emontzat egoteko eran antolatzea hizkuntza	Identitatea ez beste helburu batzuk lortzeko eran antolatzea hizkuntza: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Komunikazioa, erabakitze demokratikoa</li> <li>2. Eraginkortasuna</li> <li>3. Aukera bardintasuna</li> <li>4. Gizarte mugikortasuna</li> <li>5. Gizarte kohesioa eta solidaritatea</li> </ol>

Iturria: norberak moldatua (De Schutter, 2007:11).

Elebakartasunaren ezarpenak, sarri, hizkuntza komunaren legitimazioa (*legitimation*) eta erakundetzea (*institutionalisation*) ekarri ohi dau (Nelde, Strubell & Williams, 1996). Legitimazioa deritzogu (*to*) *the formal recognition accorded to the language by the nation-state –usually via “official” language status* (May, 2012: 6); eta erakundetzea, barriz, (*to*) *the process by which the language comes to be accepted, or “taken for granted” in a wide range of social, cultural and linguistic domains or contexts, both formal and informal* (May, 2012: 6). Hizkuntza nagusiaren legitimazio eta erakundetzeak lurraldean berba egiten diren mintzairaren arteko hierarkizazioa ekarri izan dau; hizkuntza nagusiari berezko nagusitasuna atxikiz eta gainontzeko mintzairak beheko posizio batean kokatuz. Ildo horretan, aro modernoaren loraldian hizkuntza nagusiak modernitateagaz eta txikiak iraganagaz be lotu izan dira, azken horreen desagarpena modernitatea lortzeko ordaindu beharreko prezio moduan be joaz. Ikuspegi horrek hizkuntza-darwinismo planteamendua dau oinarri, hain zuzen, hizkuntzek Darwin-en eboluzio-teorien arabera bilakaera dabela pentsatzen dauen

<sup>44</sup>Onartu beharra dago maila teorikoan nazio etniko-kulturalaren eta politiko-zibikoaren artean, eta euren eraikuntza prozesuen artean bereizketa argia burutzea badagoen arren, errealitatean bereizketa ez dala horren argia izaten. Horregaitik, nazio etniko kulturala eta zibiko-politiko konzeptu teoriko moduan landua izango da, eta ez errealitatearen deskripzio moduan.

hizkuntza-ideologia (Auñamendi Hiztegi Entziklopedikoa, 2010). Moreno Cabreraren hitzetan, *el nacionalismo lingüístico se basa en la idea fundamental de que la variedad lingüística privilegiada portadora de la unidad nacional es superior intrínsecamente, por sus propiedades características internas, a las demás y, por tanto, está destinada a arrinconar y eliminar a las demás variedades lingüísticas que, en un proceso descrito desde un evidente darwinismo social lingüístico, no están en condiciones de competir con ellas por ser menos aptas*<sup>45</sup> (Moreno, 2008: 76).

Botereguneetatik burututako hizkuntzon arteko gizarte hierarkizazio eta estatus banaketa horrek hizkuntza txikien komunitateetan eragin handia izan dau historikoki, ideologia diglosikoa, mintzairen arteko deskardintasun hierarkikoan sinistea, bai mintzairen erabilera eta funtzioei dagokionean baita hizkuntzetako bakoitzari eskainitako estatus soziopolitikoari dagokionean, zein ordezkapenaren ideologia, mintzairaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren etetea orokortaraziz (Martí eta beste, 2005)<sup>46</sup>.

Nazio etniko-kulturalean eta zibiko-politikoan elebakartasunaren beharra aldarrikatzeko erabilitako argudioak desbardinak izan ohi dira oso. Nazio etniko-kulturalean elebakartasuna hizkuntza bat - kultura bat - lurralde bat gizarte antolaketa eredu idealaren ezarpen gisa aldarrikatua eta bideratua izan da nagusiki; Blommaert-ek hauxe idealizazio monogloto moduan izendatu izan dau. Bere hitzetan, *the state often appears as the guardian of the monoglot idealization of the link “language-people-country”, and thus offers (and often imposes by coercion) particular ascriptive ethnolinguistic identities for its citizens* (Blommaert, 2006: 244).

Bestalde, nazionalismo zibiko-politikoaren baitan hizkuntza bakarraren ezarpenak ez dau xedetzat proiektu kultural baten indartzea eta babesa. Halere, *a civic nationalist state may support a common language to the degree that this language is instrumental to achieving other justified purposes* (Stilz, 2009: 258). Nagusiki, herritarren arteko komunikazio arrakastatsua –hauxe baita mintzairen lehenbiziko funtzioa eta behinena–; baina baita, eta aurrekoagaz lotuta, herritarrentzako aukera ekonomikoak (Barry, 2001; Laitin & Reich, 2003; Pogge, 2003), herritarren parte hartze demokratikoa (Barry, 2001; Van Parijs, 2011; Weinstock, 2003), gizarte kohesioa (Mill, 1991; Van Parijs, 2000), zein arrazionalizazio ekonomikoa (ikus Patten, 2009)<sup>47</sup>.

<sup>45</sup>Hizkuntza darwinismoak mintzairen dimensio sozial, politiko eta kulturalak ahaztu edo ostentzen dauz, nagusitasun ekonomiko edo politikoa oinarri daben jardunak legitimatuz. Bide horretan, hizkuntzen barne-ezaugarriak (*corpusa*) eta kanpo-ezaugarriak (*statusa*) nahasten dauz, inposizio eta inperialismoaren emaitzak diren egoerak (*statusa*) barne-ezaugarrien (*corpusa*) ondorio moduan joaz.

<sup>46</sup>Hizkuntza nagusiak modernitateagaz eta txikiak iraganagaz erlazionatzeko joera gaur egun be badago, baina askoz be izaera implizituagoagaz. Izan ere, azken hamarkadetan hizkuntza gitxituen aldeko diskurtsoa hasiz joan da, neurri handi batean hizkuntza gitxituen eskubideen aldarrikapen moduan.

<sup>47</sup>Argudiook hizkuntza gitxituen eskubideak zalantzan jartzeko erabiltzen dira sarri.

Hizkuntza komuna partekatzeak herritar guztiei lana bilatzeko aukera bardintasuna bermatzea dakar. Oстера, nazio-estatuko hizkuntza nagusiaren ezezagutzak kalte handiak eragin daitezke gitxiengo linguistikoetan, euren lan esparrua itzel murrizten dalako, bai maila kuantitatiboan baita kualitatiboan be –lanposturik onenak hizkuntza nagusian izaten dira eskuragarri. Horrek, hizkuntza komunitateon mugikortasun ekonomikoa eta soziala itzel mugatzen dauz; ghetifikazio prozesuak emoteko arriskua be agerian itziz<sup>48</sup>.

Bestalde, hizkuntza komunik ez izateak demokrazioari berari be kaltea ekarriko lekioko. Izan be, gehiegizko hizkuntza aniztasunak demokraziaren praktika informalaren loratzea asko mugatuko leuke. *If citizens cannot understand one another, or if they seek to deliberate with co-linguists only, then democratic politics is likely to be compromised* (Patten, 2009: 105)<sup>49</sup>. Hortara, estatuaren elebakartasuna eztabaida demokratikoa bultzatzeko lanabes eraginkorra da.

Hizkuntza aniztasunak gizarte kohesioa be kaltetu daiteke. Azken batean, hizkuntzaren bateratze indarra handia da oso. Mintzairek hizkuntza bereko hiztunen artean solidaritate loturak ezartzeko ahalmena dabe; baina aldi berean, aurretik aipatu dan moduan, hiztun komunitatearen muga markatzailea be bada. Horrela, *the worry is that an excess of linguistic diversity may fragment citizens into identity groups that do not share the affective bonds of common citizenship and see cooperation with one another solely as an instrument of mutual advantage* (Patten, 2009: 106). Nabarmendu beharra dago, nazionalismo etniko-kulturaletik hizkuntzen indar solidarioa be asko azpimarratu izan dala. Egitez, Benedict Anderson-ek *Imagined Communities* liburu eragingarrian horrelaxe definitzen dau hizkuntza. Hizkuntza da: *its capacity for generating imagined communities, building in effect particular solidarities* (Anderson, 1991: 133).

Era berean, hizkuntza aniztasuna kostu ekonomikoa be bada estatuarentzat: itzulpenak edota aldebereko interpretazioak dakarren kostua, langileria publiko eleanitzaren beharra, zerbitzuen bikoizketak, etab. Beraz, estatua hizkuntza bakarrean jardutea eraginkorragoa litzateke; eta, modu horretan, *freed from these costs, public institutions (could) devote more resources and energy to the core purposes for which they were created* (Patten, 2009: 105).

Sarritan hizkuntzaren ikuspegi izanarazlea hizkuntza gitxituei atxikitzeo ohitura dago eta instrumentala, barriz, hizkuntza nagusiei. Modu horretan, nazio txikiak nazionalismo etniko-kulturalagaz eta nazio-estatu handiak nazionalismo zibiko-politikoagaz erlazionatzeko joera

<sup>48</sup>Argumentazio honek ez dau kontuan hartzen askotan gitxiengo linguistikoetako partaideen artean elebitasun pertsonala oso altua izan ohi dala.

<sup>49</sup>*The Justification of Minority Language Rights* (2009) artikuluan Alan Patten-ek estatuaren elebakartasunaren aldeko argudioak aurkezten dauz. Garrantzitsua da adieraztea hurrengo lerroetan erabiliko doguzan aipuak ez dabela zertan autorearen ikuspuntuagaz bat egin. Izan ere, aurkeztu dazuan ideiak argi islatzen dauzalako erabili dira aipuak, ez autorearen ikuspuntuaren erakusgarri direlako.



be agerian gelditzen da. Halaber, May-k agertzen dauan moduan, *all language(s) embody and accomplish both identity and instrumental functions for those who speak them* (May, 2005: 334)<sup>50</sup>. Egitez, nazio eraikuntzan diharduen eta estatu eraikuntza xede daben hizkuntza komunitate gitxituek ideologia instrumentalari estu lotuta dagozan arrazoitzeak be bere egin daikiez. Horren adibide argia da, esaterako, oraintsu ikuspegi instrumentalagaz estu lotuta dagoen ikuspuntu ekonomizistaren agerpena hizkuntza gitxituen indarberritze estrategiaren baitan.

Aurretik aipatu dan lez, ideologia intrumentaletik eta estatuari dagokionean, hizkuntza aniztasuna kostu moduan identifikatua izan da. Barriz, ikuspuntu ekonomiko zabalagotik hizkuntza aniztasuna irabazia be izan daiteke. Duchêne eta Heller-ek dinoen moduan, *older nationalist ideologies which invest language with the value as a source of pride get bound up with newer neoliberal ideologies which invest language with value as a source of profit* (Duchêne & Heller, 2011). Egitez, kapitalismo berantiarren ezaugarri dan ekonomia globalizatuaren baitan, *language is involved in two major: as a source of symbolic added value, and as a mode of management of global networks. As this first, it is tied to the commodification of national identities, in the form of the marketing of authenticity; in this terrain, the trope of “profit” appropriates the trope of “pride”* (Duchêne & Heller, 2011: 10). Diskurtso neoliberal horren agerpenak, baina, ez dau nazio-estatuaren eraikuntzagaz lotutako hizkuntzen diskurtso politikoa eta kulturala alboratu. Berez, Heller eta Duchêne-n hitzetan bi diskurtsoak alkarrerri kateatuta dagoz modu konplexu batean<sup>51</sup>.

Nazio eta estatuaren eraikuntza elebakartasunagaz estu lotuta egon izan da eta dago egun ere. May-ren ustez, eta dagoeneko aditzera emon dan moduan, homogeneotasuna, kulturala eta linguistikoa, *is the “ideal” model to which most nation-states, and nationalist movements, still aspire –albeit in the face of a far more complex and contested multi-ethnic and multilingual reality* (May, 2012: 7)<sup>52</sup>. XX. mendeko azken hamarkadetan, nazio-estatuaren

<sup>50</sup>Izan ere, hizkuntza partikularren –bereziki hizkuntza nagusi eta gitxituen– arteko desbardintasuna ez dago betetzen dabezan funtzioetan, funtzioetako bakoitza betetzen daben neurrian baino. Neurri hori ez dago hizkuntzen ezaugarri linguistikoek baldintzatua; egoera sozial eta politikoen menpekkoa da.

<sup>51</sup>Duchêne eta Heller argitaratzaileak diren *Language in Late Capitalism. Pride and Profit* (2011) liburuan ikergai diren hamar kasu etnografikoetako batean Jacqueline Urlak euskararen normalizazio prozesuaren baitako hizkuntza planifikazioan enpresen lehiakortasuna handitzea helburu dauan *Total Quality Management* (TQM) metodoaren barreiadura dau aztergai, diskurtsoan behinik behin. Autorearen aburuz enpresa kapitalistaren balioak euskararen normalizazio prozesuan zabaldu dira: eraginkortasuna, lehiakortasuna, produktibitatea, barrikuntza, etab. Halaber, Urlaren ustez, euskararen kasua Foucault-ek diskurtsoen balioaniztasun taktiko moduan izendatuaren adibidea da. Hau da, *rather than a fateful co-optation of activists unwittingly falling into the flip of neoliberal ideologies, in this case, the move toward Total Quality language revival is better thought of as a strategic –though not uncomplicated– response to particulate political and practical challenges* (Urla, 2011: 85-86).

<sup>52</sup>Hornberg-ek (2002) argi adierazten dauan moduan, egun, estatuaren homogeneotasun linguistikoa bi norabidetatik dago auzitan: nazioarte mailan, *lingua franca* izaera bereganatua dauan ingeleserengaitik, eta maila lokal eta estatalean, desagertze arriskuan dagozan hizkuntzengaitik, direla indigenen, etorkinen zein gitxiengo etnikoen

ideal homogeneous zalantzan jarri dabe estatu barruko gitxiengo kultural eta linguistikoek, euren hizkuntzen aitortpen legala eta eskubideen errespetua eskatuz<sup>53</sup>. Aldarrikapenok nazio aldarripen moduan identifikatu izan dabez Kymlicka eta Patten-ek. Euren hitzetan, *debates over the status of a regional language are also debates over nationhood* (Kymlicka & Patten, 2003: 4). Izan ere, *for the minority language group, recognition of its language is seen as a symbol of recognition of its nationhood* (Kymlicka & Patten, 2003: 4). Horrela, *for the minority group, official multilingualism is desired in part because it is a symbol of, and a step towards, acceptance that it is a multination state, a partnership of two or more nations within a single state*<sup>54</sup> (Kymlicka & Patten, 2003: 4). Eta, era berean, *this is precisely what members of the dominant group typically wish to avoid* (Kymlicka & Patten, 2003: 4). Azken batean, *majority support for official monolingualism, as much as minority demands for bilingualism, is typically manifestations of nationalist projects*<sup>55</sup> (Kymlicka & Patten, 2003: 4).

Jausorok (1996) aditzera emoten deuskun lez, euskal gizartean be hizkuntzarekiko nahietan gorpuztutako norantza biko joko nazionala presente dago; zehazki, euskararen normalizazioarekiko nagusitzen diren diskurtsoetan. Jausorok continuum bat sortzen daben hiru diskurtso nagusi bereizten dauz: euskararekiko diskurtso ezkorra, ardurabakotasun diskurtsoa – eta honen baitan jarrera itxia eta irekia- eta baieztapen diskurtsoa – eta barruan jarrera lasaia eta aktiboa. Jausororen arabera, diskurtso baikorra euskal nazionalismoagaz lotutako gizarte taldeetan egiten da ageriko; ostera, diskurtso ardurabakoa eta ezkorra euskal nazionalismotik kanpora kokatzen diren ideologietan<sup>56</sup>.

---

hizkuntzak.


<sup>53</sup>Elebakartasunaren ideal homogeneous modu orokortuan partekatua dala eta elebakartasunaren apurketa emon danetan gitxiengo linguistikoen presioagaitik bakarrik izan dala baieztatzea ez da zilegi; izan ere, azken hamarkadetan estatu eleaniztasunarekiko hautu gogobetekoak gero eta ohikoagoak dira, besteak beste, aurretik aurkeztutako liberalismo kulturalaren zaleen artean.

<sup>54</sup>Estatua eraikitzea jomuga daben hizkuntza partekatudun estatu bako nazioentzat posible da eleaniztasunaren aitortpena osoki atsegingarria ez izatea. Izan ere, baliteke euren nahia estatu askoren ideal elebakarra izatea, euren berezko hizkuntzan funtsatuta, jakina. Martínez de Lunaren aburuz, estatu-nazioaren eskema euskarari be atxiki jako, besteak beste, euskara euskal nazioaren hizkuntza bakar moduan joaz.

<sup>55</sup>Kymlicka eta Patten-en ustetan, estatuko gehiengo kultural eta linguistikoek gitxiengo kultural eta linguistikoek arau eta egokitzapen hizkuntza erregimen bat aitortzeak edota hizkuntzaren ofizialtasuna aitortzeak estatuaren aldetik hautu bat suposatzen dau; hain zuzen, beren burua nazio-estatu tolerante moduan auto-definitzea edota estatu nazio-anitz moduan aitortzea.

<sup>56</sup>“2.2.4.1.2 Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian” atalean Jausororen ildo berean doan azterketa baten barri emongo da (Hernández, Olaso & Martínez de Luna, 2006). Hain zuzen, euskararen normalizazioaren legitimazioa eta onarpena bereizten dauzana. Legitimazio eta onarpen jarrerotan nazio atxikimendu eta hizkuntza eskubideekiko jarrera desbardinak begitaratuko dira.

## 2.5. IRUDIA. GIZARTE MAILAN EUSKARARI ZUZENDUTAKO DISKURTSOAK



*Iturria: norberak moldatua (Jausoro, 1996: 201).*

Modu laburrean bada be, interesgarria da Jausorok aurkeztu dauzan diskurtsoetako bakoitzaren ideia nagusiak aurkeztea. Baieztapen diskurtsoko jarrera aktiboa motibazio sinbolikoez lotuta dago. Euskara, ez ostera gaztelania edo frantsesa, Euskal Herriko nazio hizkuntza moduan jotzen dau; eta hori dala eta, bere normalizazioa bideratzeko plana premiazko ikusten dau. Baieztapen diskurtsoko jarrera lasaia euskal komunitate tradizionalarengandik hurbil kokatzen da euskara ama hizkuntza daualako, lurraldean mintzo dan hizkuntza dalako, etab. Hortaz, jarrera hau hizkuntzarekiko sentimendu loturan oinarritzen da, eta euskara ezagutzeko arrazoiak —integrazioa, pragmatiko-instrumentala edota leialtasuna— banakakoarenak dira. Ardurabakotasun diskurtsoren baitako jarrera irekiak ikuspuntu formala bereganatzen dau. Hau da, euskara hizkuntza ofiziala da beste hizkuntza batez batera, eta gizartean, lan arloan zein arlo kulturean integartzeko tresna. Ardurabakotasun diskurtsoren jarrera itxiak euskarari folklore eta kultura balioak atxikitzen deutsoz, baina ez dau inola be euskara gaztelaniaren aurretik kokatzen. Era berean, euskara hitz egitea edota ikastea guztiz borondatezkoa izan behar dala aldarrikatzen dau, askatasunean oinarritutako banakakoaren aukera. Amaitzeko, diskurtso ezkorrak euskararen beharrik ez dagoela baieztatzen dau. Euskara hizkuntza gitxitua dan neurrian, modernitatearen paradigmaren kanpoaldean kokatzen da. Hori horrela, ez dago euskararen normalizazio prozesurako beharrik. Balio pragmatikoa beste edozein balioaren gainetik kokatzen da diskurtso ezkorrean. Hortaz, baieztapen diskurtsoren jarrera aktiboan edota lasaian, zein arduragabekotasun diskurtsoren jarrera irekian euskararen beharrik aldarrikatzen da; ardurabakotasun diskurtsoren jarrera itxian zein diskurtso ezkorrean, barriz, normalizazio prozesuak dakarren betebehar-inposaketa<sup>57</sup>.

Amaitzeko, interesgarria da aipatzea, azken hamarkadetan nazio etniko-kulturean errotutako estatu eraikuntza eleaniztasunari zabaldu izan dan era berean, nazio zibiko-politikoaren iritzikoen artean be izan dala aniztasunaren aldeko proposamenik. Horren

<sup>57</sup>Jausororen azterketan triangulazio interesgarri bat ageri da; hain zuzen, euskararen normalizaziori begira nagusitzen diren posizioak, posizio horreen atzean ageri diren ideologia nazionalistak, eta posizioon argumentazioan nagusitzen diren euskararekiko identifikazio nazionalak eta hizkuntza eskubideak defendatzeko modu bereiztuak. Jausororen lana aintzat hartuta, euskal testuinguruan, hizkuntza politika, nazioaren ulkereta eta hizkuntza eskubideen kontzeptualizazioa alkarrerri lotuta dagozala pentsatu daiteke.

adibide argia dogu Anna Stiliz-en *least cost model*-a (2009). Bere ustetan, *a civic nation should not publicly privilege or endorse a national culture (including its language) if it is to treat citizens who belong to other nations with equal respect* (Stiliz, 2009: 260). Estatu barneko nazio desbardinei errespetu berbera agertzeko helburuaz, Stiliz, hizkuntza komunagaz batera, estatuaren aldetik hizkuntza gitxituak sustatzearen alde agertzen da, maila lokala oinarri hartuta eta, betiere, eskaera nahikoa egotekotan eta kostu ekonomikoa lar handia ez izatekotan<sup>58</sup>.

## 2. 2. 4. 1. 2. Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian

Mayk (2003, 2005) aditzera emoten deuskun moduan, 70 hamarkadaz geroztik, hizkuntza eskubideen alorra paradigma akademiko moduan indartu egin da; besteak beste, soziolinguistika, hizkuntzaren soziologia zein hizkuntza politika eta planifikazio diziplinetan; eta nagusiki hiru mogimendu teorikoren eskutik: hizkuntzen ekologia, giza eskubide linguistikoak eta diskurtso akademiko arauemailea. *Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian* atalean, eskubideon gainean nagusitzen diren leku-hartze desbardinak izango dira hizpide. Bereziki, hizkuntza gitxituen eskubideekiko nagusitzen diren aldeko eta kontrako jarrera hartzeak, eta jarrera hartze horreen atzean ostentzen diren argudio desbardinak. Hori hizkuntza ekologia, giza eskubide linguistiko eta diskurtso akademiko arauemaile<sup>59</sup> ikuspuntu teorikoek eskaintzen dabezan arrazoiak erabiliz eta diskurtso akademiko arauemailean zimendutako argudio ildo jarraituz burutuko da.

Aurre-ohar moduan, aipatzekoa da gitxiengoaren hizkuntza eskubideen aurreko jarrera hartzeetan eskubideen edukiez gainera gitxiengoaren nor izatea be eztabaida gai garrantzitsua dala. Zenbaiten ustez, hizkuntza eskubideen jasotzaile izateko historikoki lurralde batean ezarritako gitxiengo nazionala izatea funtsezkoa da (jarrera honen defendatzaile nagusietakoa Kymlicka erreferentziazko teorikoa da (Kymlicka, 1995)). Beste batzuen ustez, barriz, eskubideen jasotzaile bihurtzeko irizpide nagusia hiztun komunitatearen neurria, bere kontzentrazio maila, etab. dira, izan komunitatea nazionala zein ez (Carens, 2000; Rubio-Marín, 2003). Orrialdeotan ez da bi irizpideen artean argudio bereizketarik egingo; halaber, aipatu beharra dago, modu zeharkakoan argumentazioaren zentroan gitxiengo nazionalak kokatu direla.

Bigarren aurre-ohar moduan, interesa dauka adierazteak, hizkuntza gitxituen eskubideen inguruko eztabaidak nazio eta estatu eraikuntza ideologiagaz lotura estua daukala. Dagoeneko

<sup>58</sup>Interesgarria da aipatzea, Stiliz-ek ez daukala hizkuntza moten artean bereizketarik burutzen. Neurria bideragarri egiten dauan eskaera kopuru nahikoa badago, izan estatuko gitxiengo nazonal bat izan etorkin talde bat, biek pareko eskubidea izango dabe euren hizkuntzek botere publikoen aldetik babesa jasotzeko.

<sup>59</sup>Ikuspuntu teoriko arauemailea eta bere argumentazio lerroa tradizio liberalaren baitan kokatu beharra dago; nahiz eta liberalismo zabal batean: liberalismo klasiko bardinzalea, demokratikoa, nazionalista zein libertarioa hartzen dauz bere baitan.

aditzera emon dan moduan, sarritan hizkuntza eskubideen aldeko edota kontrako jarrera nazio eta estatu eraikuntza proiektu baten edo bestearen jarraitzaile izateak baldintzatua egoten da. Era berean, maiz, batean eta bestean erabiltzen diren argudio motak be bat egiten dabe. Dana dala, hizkuntza gitxituen eskubideen alorra nazio eta estatu eraikuntza parametroetatik haratago doala esan beharra dago; horixe da, hain zuzen, hizkuntza ekologiaren kasua, zeinek estatu-nazioaren eredia gainditzeko nahia agertzen dauan, nortasun-dikotomiatik kanpo kokatuz eta mintzaira aniztasuna gizadi osoarentzako dala baliotsua aldarrikatuz.

Hizkuntza gitxituen eskubideen alde edo kontra lekutzeak ekintza ala ekintza eza dakar beragaz. Hain zuzen, eskubideei izaera positiboa ala negatiboa atxikitzea. Eskubide positiboak dira *the rights to the maintenance and development of language*<sup>60</sup> (Van der Stoal in Skutnabb-Kangas, 2006: 283). Eskubide negatiboak, barriz, *the rights to non-discrimination in the enjoyment of human rights* (Van der Stoal in Skutnabb-Kangas, 2006: 283). Hortaz, hizkuntza eskubide positiboek mintzaira gitxituen babesia eta sustapena burutzeko politikak aldarrikatzen dabezan bitartean; hizkuntza eskubide negatiboek hizkuntza arrazoiekaitik baztertua ez izatea bakarrik aldarrikatzen dabe.

Hizkuntza eskubide positiboen alde agertzen direnek zera baieztatzen dabe: neurri positibo ezean mintzaira gitxituen hiztunek asimilazio prozesua -kulturala eta linguistiko- biziko dabela, hain zuzen, *[the] disappearance of distinctive features, that is, objectively the loss of specific elements of material and non-material culture and subjectively the loss of the feeling of belonging to a particular ethnic group and simultaneously, objectively, adoption of traits belonging to another culture, which replace those of the former culture, accompanied by the subjective feeling of belonging to the second culture* (Skutnabb-Kangas, 2006: 282). Edozelan be, hizkuntza eskubide positiboen kontra agertzen direnek, hau da, hizkuntza eskubide negatiboak baino defendatzen ez dabezanek, asimilazioa ez dabe arazo moduan bizi; batzuentzat afera neutroa da (Kukathas, 2003) eta beste batzuentzat, ostera, baliogarri dan xedea hizkuntzaz haratago dagozan dimentsioetan bardintasuna lortzeko (Barry, 2001; Pogge, 2003; Weinstock, 2003). Gainera, “muturreko” ikuspuntu horren baitan, kultura eta hizkuntza aniztasunari aurre egiteko modua neutralitatea eta bereizketarik eza dira.

Hizkuntza gitxituen eskubideen aldeko eta kontrako jarrerak continuum batean dagoz eta, beste behin, mintzaireri atxikitzen jakezan balioek zeresan handia dabe jarrerok continuuamean kokatzerako orduan. Schutter-en hitzak aipatuz, *any theory that stipulates the way in which language and linguistic diversity ought to be regulated in a just way, has to be based, to some extent, on the way in which we understand language and membership in a linguistic community* (De Schutter, 2007: 8). Egitez, hizkuntzei balio identitarioa edota instrumentala atxikitzen jakon, zein berezko balioa (*intrinsic value*) egiten jakon ezagutzeak,


<sup>60</sup>Definizio osoak holaxe dino: *the rights to the maintenance and development of identity through the freedom to practise or use those special and unique aspects of their minority life –typically culture, religion, and language.*

hizkuntza eskubide positibo edo negatiboak babestea, balioen subjektutzat nor jotzen dan, eskubidei zelako izaera atxikitzen jaken, eskubideoi mugak ezartzekotan non kokatzen diren, etab. baldintzatuko dau, aldagai desbardinon artean lerrokatze nabarmen argiak eratuz (ikus 2.8. taula).

Musschenga-k (1998) O'Neill-en berezko balioaren adiera desbardinaren sailkapena oinarri hartuta eta lehenengoari atxikiz, modu honetan definitzen dau berezko balioa: *intrinsic value is used as a synonym for non-instrumental value. And object has intrinsic value insofar as it is an end in itself. Intrinsic goods are goods that other goods are good for the sake of. The intrinsic value of non-human entities implies that they have value apart from any instrumental usefulness for human purposes. Their total value exceeds their instrumental value.* (Musschenga, 1998: 2012). Beraz, ikuspuntu honen arabera, mintzairak bere horretan dira baliotsuak, hitzunek atxikitzen deutesen balioa alde batera itxita. Ikuspegi hauxe hizkuntzen ekologiagaz bat dator. Azken honek mintzaira aniztasuna gizadi osoarentzako dala baliotsua uste dau. Izan be, hizkuntzak kultura eroale eta sortzaile dira; kultura jakinen historia, tradizio, arte, ideia, eta abarren biltokia (Crystal, 2000). Gainera, hizkuntza bakoitzak munduaren ikuskera partikularra eskaintzen dau, mundua enkoardatu eta kontzeptualizatzeko modu bereizgarri bat (Réaume, 2000).

Hizkuntzen identitate balioari dagokionean, azpimarratu beharra dago bien arteko lotura ulertzeko modua ez dala laua. Mintzaira banakako eta talde identitatearen ezaugarri dala sinisten dabenen artean, bada batasun horrer izaera erabagigarria arabere ezinbestekoa esleitzen deutesonik (Musschenga, 1998): hau da, hizkuntzak hitzunaren nor izatea definitzen eta determinatzen dauala baieztatzen dauanik. Halaber, loturari garrantzia zentrala atxiki arren, izaera zabalagoa, anitzagoa eskaintzen deutesenak be ugari dira (Kymlicka, 1995; May, 2012; Réaume, 2000); estatikotasunetik eta zurruntasunetik urrunduz. Aldi berean, hizkuntzaren eta identitate indibidual eta kolektiboaren arteko loturari zentralitatea kentzen deutesenak be badagoz (Barry, 2001; Edwards, 1994; Pogge, 2003; Weinstock, 2003); hizkuntza, gehien jota, hitzunaren identitatean, dala norbanakoan dala sozialean, faktore ahagarri bat baino ez dala adierazten dabena, zein lotura modu argian baztertzen dabena. Ikuspegi honetakoak dira, hain zuzen, hizkuntzen balio instrumentala lehenesten dabena.

## 2.8. TAULA. HIZKUNTZA GITXITUEN ESKUBIDEEN AITORPEN ETA ALDEKO ETA KONTRAKO JARREREN CONTINUUMA



*Iturria: norberak egina.*

Dagoeneko *Hizkuntza nazio eta estatu eraikuntza* atalean aztertu dan moduan, hizkuntzari balio instrumentala atxikitzeak bere izaera komunikatiboa eta komunikazio ahalmen

horrek beragaz dakarzan gainontzeko ongiak gailentzea dakar<sup>61</sup>. Halaber, mintzairen izaera komunikatiboa modu orokorrean da onartua eta, hortaz, ikuspuntu honen berezitasuna zera litzateke: hizkuntzei balio instrumentala soilik atxikitzea, edota balio instrumentalagaz haratago identitarioa be egitea, baina beti lehenengoa hobestuz.

Ikuspegi instrumentalaren baitan dago aukera arrazionalaren ikuspegi indibidualista. Honen arabera, taldeak banakakoaren jarrerez eraikiak dagoz eta aldaketa etengabea da, banakakoek euren baldintzetan izandako aldaketei erantzun deusie eta. Harreman sozialak be merkatu harreman mota bat dira, non banakakoek euren lerrokatze etnikoa aukeraketa arrazionalak burutuz bereganatu daikiezan irabazi sozial eta materialen arabera burutuko daben (May, 2005).

Hizkuntza eta identitatea lotura zalantzan jartzen dauan beste teoria bat hibridazioaren teoria da. Honek hizkuntza identitateak pluralak, konplexuak eta ahalgarriak direla azpimarratzen dau; eta, hizkuntzaren eta kulturaren izaera eraikitzailea defendatuz, errotze linguistikoaren kontra agertzen da. Ildo berean, hizkuntza eta identitatearen arteko lotura ezartzerakoan, De Schutter-ek (2007) aztergai dauan hibridazioaren ideia be oso interesgarria da. Bere esanetan, askotan gizartea mintzairen arteko muga zehatz, hiztun elebakar eta identitate linguistiko komuna daben hizkuntza komunitate garbidun errealtate moduan irudikatzen joera dago; baina egiatan, *the cultural world we inhabit is imbued with multiculturalism, multilingualism, and linguistic opacity. It is always characterized by vague boundaries, grey zones, minorities within minorities, bi-and multilingualism, and so on* (De Schutter, 2007: 15). Testuinguru kultura eta hizkuntza anitz eta konplexuek, besteak beste, elebidun “kultura-bikoitzak” (*bicultural bilinguals*) sortzen dabez, *who do not consider themselves to be rooted predominantly in one group or another* (De Schutter, 2007: 15). Hortaz, hizkuntza eta identitatearen artean lotura ezartzerakoan, hizkuntza identitate partekatuak egon badagozela kontuan hartzea be zentrala bilakatzen da.

Hizkuntzek bereganatu daikiezan hiru balio nagusien nondik-norakoak azalduta eta hizkuntza eskubide positibo eta negatiboak barriro ahotan hartuz, orokorrean, eskubide positiboaren alde agertuko direnak mintzaireri balio intrinsiko eta identitarioa eskainiko deusie gehiengoan. Barriz, hizkuntzei balio nagusiki instrumentala atxikitzen deusienek eskubide negatiboaren aldeko hautua egingo dabe gehiengoan<sup>62</sup>.

<sup>61</sup>Ikusi “Hizkuntzaren rola nazio eta estatu eraikuntzan” atala.

<sup>62</sup>Zentzu horretan argigarria da oso hizkuntza politikari buruzko kapituluaren “Hizkuntza politikak hizkuntza eskubideen talaiatik” azpi-atalean konparagai izan diren arau-egokitzapen eta ofizialtasun eskubide erregimenen ildora, Ruth Rubio-Marín-ek proposatutako terminologia alternatiboa: eskubide instrumental vs. ez-instrumentalak. Lehenengoak, instrumentalak, arau-egokitzapen erregimenari alkarlotzen deusoz eta bigarrenak, ez-instrumentalak, barriz, ofizialtasun erregimenari. Zentzu berean, Kymlicka eta Patten-ek ofizialtasun eskubide erregimenaren inguruan esandakoa interesgarria da. Euren aburuz, erregimen hori ez da pertsonen arteko komunikazioa erraztera mugatzen; hau da, helburu instrumentalaz harago doa. *There is a further “non-instrumental” or “intrinsic” goal or value that is being defended in the establishment of such a regime. This goal is often connected with a recognition of speakers of a language as constituting a distinct nation or people* (Kymlicka & Patten, 2003: 28). Hortaz,



Hizkuntzari balio intrinsikoa, identitarioa edota instrumentala lotzerakoan hizkuntza eskubideen subjektu-objektu zentral moduan entitate desbardina kokatzen dala be adierazi beharra dago. Hizkuntzari nagusiki balio intrinsikoa eransterakoan, zentroan hizkuntza bera ezartzen da eta hizkuntza komunitateak, bere osotasunean, mintzairaren zerbitzura jokatzeko beharra agertzen da. Ostera, hizkuntzari balio identitarioa atxikitzerakoan, erdigunean hiztuna ipintzen da. Halaber, hizkuntza eta identitate loturari esleitzen jakon erabakigarritasun maila handia danetan, mintzairari balio intrinsikoa atxikitzean gertatzen dan moduan eta beste behin, hizkuntza komunitatea bere osotasunean bihurtu daiteke eskubideen subjektu. Egitez, hizkuntzaren balio intrinsikoa eta identitarioa desbardinak diren arren, mintzairari nagusiki balio intrinsikoa atxikitzen jakonetan, gehiengoan, identitarioa be egiten jako, azken honeri izaera esentzialista samarra atxikiz gainera. Bestalde, nabarmendutakoa hizkuntzaren balio instrumentala danean eta hizkuntza gitxituen eskubideak minimora edo ezerezera murriztuak direnean, eskubideen subjektua hiztun eta hiztun komunitatetik kanpo kokatzen da, hain zuzen, herritar neutroan; eta hizkuntza komunitateko kideak eurak be herritar neutro bilakatzen dira, euren kultura eta hizkuntza alde batera itziz. Klasifikazio hauxe talde eta banakako eskubide sailkapan ohikoagoaz estu lotuta dago.

Banakako hizkuntza eskubideak dira banakakoak erabiltzen dauzanak eta banakakoaren interesa babestea helburu dabenak. Banakako eskubideak norbanakoak modu independentean gozatu ahal izan beharko dauz. Izan be, banakako eskubide batek bermatutako ongi eta aukeren gozamina ezin daiteke izan besteen lankidetzarekiko menpeko. Bestalde, talde eskubidea da talde batek talde izanagaitik dauan eskubidea: *a right that is held by a group as a group, rather than by its members individually* (Lewis, 2013b: 92). Lewis-ek, Peter Jones-en hitzak berarenak eginez, honakoa baieztatzen dau: *a right is a group right only if it is a right held by a group rather than by its members severally. If rights are held by individuals separately, their shared rights do not add up to a group right even though their rights relate to a characteristic which marks them off, sociologically, as a group. A right is a group right only if it is a right held by a group qua group* (Lewis, 2013b: 92).

Dana dala eta era berean, talde eskubideak bi ikuspegitatik begitaratu daitezke: ikuspegi korporatibotik (*corporate conception*) eta ikuspegi kolektibotik (*collective conception*). Ikuspegi korporatiboan onartutzat emoten da talde bateri eskubide bat esleitzeak taldea berezko eskubidedun izate moral moduan ulertzea dakarrela. Horrela, taldeak egongune moral bat izan behar dau, bere taldekideen egongunera mugatu ezin daitekera. Ikuspegi korporatiboaren kontrara, ikuspegi kolektiboaren baitan talde eskubideak ez deutso taldeari talde moduan eta bere kideengandik berezita estatus morala atxikitzen. Ikuspegi kolektiboaren arabera, talde eskubidearen leku-hartze morala bermatzen dauana taldekidea da, baina alkartuta. Izan

---

ofizialtasun erregimenak, neurri batean behintzat, mintzairaren dimentsio kulturala azpimarratzen dau; eta xedetzat norbanakoaren identitate linguistikoa eta kulturala babestea dakar. Eta pentsatzekoa da, Green-ek (1987) agertzen dauan moduan, hizkuntza ofizialtasun erregimenaren ezarpenak hizkuntza komunitate baten identitatea eta kultura babesteko nahia agertu daiken neurri berean agertu daikela arau-egokitzapen erregimenak hizkuntza komunitate bat lurraldeko hizkuntza nagusiaren baitan integratzeko xedea.

be, banakakoek ez dabez eskubideok eurek euretara jasoko. Horrela, baieztatu daiteke talde eskubideak ez direla taldeko kideek banaka edukitzen dabezan eskubide batuketa hutsa.

Hortara, laburbilduz, sailkapen honen baitan hiru hizkuntza eskubide kategoria bereiztu daitekez: banakakoaren eskubideak, talde eskubide kolektiboak eta talde eskubide korporatiboak. Banakakoaren eskubideak pertsonari esleitzen jakoz, parte dan taldea kontuan hartu barik; barriz, talde eskubide kolektiboak, banakakoaren eskubide kolektibo moduan izendatu daitekezenak, pertsona babesten dabe talde kultural jakin bateko kide dan heinean<sup>63</sup> (Ninyoles, 1975). Talde eskubide korporatiboek, bere hiztunen gainetik, taldea bera babesten dabe.

Banakakoaren eskubideak modu orokortuan dira onetsiak; talde eskubideak, barriz, eztabaidatuak dira, are indar handiagoz eskubideen ikuspegi korporatiboak. Egítez, talde eskubideen ikuspegi korporatiboak arazo ontologiko eta moralak sortzen dauzala baieztatzen da sarritan. Lewis-en (2013b) ustetan, horren arrazoiak bi dira. Lehenengoa, ikuspegi kolektiboak, korporatiboaren kontrara, ez dau taldea, bere kideak alde batera itxita, osotasun moral moduan hartzera behartzen. Honen kontrara, taldekideak eta euren beharizan edota interes komunak zentralizat jotzen dira. Bigarrena, eta aurrekoaren ondorio modura, neurri handi batean, taldeak ez dau bere taldekideen kontra doan eskubiderik bereganatzen edota taldekideak betebeharrak esanguratsupean kokatzen. Taldekideak eurak dira eskubideen jasotzaileak eta, beraz, alkarregaz, eskubidea erabiliko daben ala ez erabakiko dabenak.

Banakakoaren eskubideen eta talde eskubide kolektiboen aitorpenak be badakarz betebeharrak. Halaber, banakakoaren eskubideen kasuan, eskubideok horren dira oinarrizkoak norbanakoaren ongizaterako beste pertsonak aintzat hartu barik bereganatu daitezkeza. Denise Réaume-ren hitzetan, *for an individual to claim a right it must be the case that her well-being is sufficient reason to hold others under certain duties. It must be for her sake that the duty is imposed in the sense that only the good to her be considered* (Réaume, 1994: 120). Talde eskubide kolektiboen kasuan, barriz, oinarrizkotasun hori ez da guztiengandik antzemana, ezta justifikagarria, hain zuzen eta besteak beste, talde eskubideek gainontzeko herritarrengan sortu daikiezan betebeharrakaitik. Pentsatzekoa danez, azken ikuspuntu horretakoak dira hizkuntzari nagusiki balio instrumentala atxikitzen deutesenak. Honeek hizkuntza eskubideen jasotzaile bakar moduan norbanakoa jotzen dabe. Hizkuntzari balio identitarioa atxikitzen deutesenek, ordea, banakakoaren talde eskubideak be defendatuko dabez; eta baliteke identitate linguistikoaren ikuspegi esentzialista eta hizkuntzaren balio

<sup>63</sup>Ildo honetan, interesgarria da Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, giza eskubide linguistikoaren ikuspuntu teorikoaren baitan kokatu daitekenak, eskubide indibidual eta kolektiboak uztartzeko beharizanaren inguruan dinoana: *La Declaración considera inseparables e interdependientes las dimensiones colectiva e individual de los derechos lingüísticos, ya que la lengua se constituye colectivamente en el seno de una comunidad y es también en el seno de esta comunidad que las personas usan la lengua individualmente. De esta manera, el ejercicio de los derechos lingüísticos individuales sólo puede ser efectivo si se respetan los derechos colectivos de todas las comunidades (lingüísticas) y todos los grupos lingüísticos* (Declaración Universal de Derechos Lingüísticos, 1998:12). Horrela, Adierazpen Unibertsalak hizkuntza eskubideen arrakasta talde eskubideen eta banakakoaren eskubideen artean oreka mantentzerakoan lortuko dala aldarrikatzen dau

intrinsikoa modu zurrunean ulertzen dabenek talde eskubide korporatiboa be neurri batean behintzat defendatzea.

Hizkuntza eskubideen izaera mintzagai hartuta, interesa dauka giza eskubide linguistikoen ikuspegi teorikoak gai honen inguruan dauan ikuspuntua aipatzeak. Giza eskubide linguistikoen ikuspegi teorikoak oinarritzko hizkuntza eskubideak<sup>64</sup> giza eskubide moduan aldarrikatzen dauz<sup>65</sup>. Gaur egun, giza eskubideen kartan eta doktrinan hizkuntzak modu zuzen ala zeharkakoan dira aipatuak, hizkuntza dala eta bereizketarik ez jasateko eskubidea aitortzen danean, zein adierazpen askatasuna eta defentsa eskubidea egiten danean (Kasares, 2004). Halaber, eskubideok izaera indibiduala eta negatiboa dabe eta euren kopurua mugatua da. Honen aurrean, giza eskubide linguistikoen ikuspegi teorikoak giza eskubide linguistikoa zabaltzeko<sup>66</sup> deia egiten dau; eta eskubideoi izaera indibidualaz gainera kolektiboa be eskaintzeko eta, era berean, izaera positiboa atxikitzeko beharra aldarrikatzen dau.

Bestalde, hizkuntza gitxituen eskubideak aldarrikatzerakoan ezartzen diren helburuen eta helburu horreek lortzeko identifikatzen diren aukera eta mugen inguruan jarduteak be badau interesik. De Schutter-en (2007) arabera, testuinguru eleanitzetan justizia linguistikoaren ikuspuntutik helburuak lautan laburbildu daitezke:

1. Hizkuntza guztientzako arrakasta bardina bermatzea.
2. Hizkuntza guztientzako babes bardina bideratzea per-capita proportzionaltasunaren alderantzizkoa ezarri (hizkuntza txikiak lehenestuko dira).
3. Hizkuntza guztientzako babes bardina bideratzea per-capita proportzionaltasuna ezarri (hizkuntza nagusiek babes gehiago bereganatuko dabe).
4. Hizkuntza ez beste irizpide batzuk (esaterako sozio-ekonomikoak) kontuan izanda burutzea bardinketa.

<sup>64</sup>Hizkuntza eskubideen baitan bi maila berezi beharra dagoz: oinarritzko hizkuntza eskubideak, hau da, giza eskubide linguistikoa, edonon edonori babestu beharrekoak; eta hizkuntza eskubide arruntak, eremu geografiko jakin batean hizkuntza zehatz bateko hiztunei aitortu beharrekoak (Iriondo in Kasares, 2004: 22).

<sup>65</sup>Modu horretan, giza eskubide linguistikoa liriteke *those (and only those) LRs [language rights] that, first, are necessary to fulfill people's basic needs and for them to live a dignified life, and, second, that therefore are so basic, so fundamental, that no state (or individual or group) is supposed to violate them* (Skutnabb-Kangas, 2006: 273).

<sup>66</sup>Skutnabb-Kangas eta Phillipson-ek (2008) adierazten daben moduan, 1980ko hamarkada hasieratik ahalegin handia egin da hizkuntza eskubideen artean giza hizkuntza eskubideak zeintzuk diren zehazte aldera, besteak beste, izaera bortxaezina dabelako estatuaren aldetik, eta gainera euren balioa unibertsala dalako. Halaber, *it is far from clear what should and what should not be considered LHRs (language human right)* (Skutnabb-Kangas, 2006: 274). Esaterako, Skutnabb-Kangas eta Phillipson-ek (2008) giza eskubide linguistiko zentral moduan ondorengoak jotzen dabez: 1) Hizkuntza (gitxituaren) identifikazio baikorra bere hiztunen aldetik eta honen onarpena gainontzekoaren aldetik. 2) Hizkuntza (gitxituaren) ikaskuntza hezkuntza formalean, ikasgai moduan ezeze ikasketa hizkuntza moduan bere bai. 3) Hezkuntza elebidun gehigarria, estatuko hizkuntza nagusia edota komunitate nagusiarena ikastea be oinarritzkoa dalako. 4) Zerbitzu publikoak, epaitegiatar sarrera barne, hizkuntza gitxituan edota, gitxienez, banakakoak ulertzen dauan hizkuntza batean.

Lau helburuon ondorioa hizkuntza gitxituentzako eskubide maila desbardina da; hasi gorengo aitortzatik eta txikiengora arte.

Ildo berean, Patten-ek (2009) eskubideon alde egiterakoan bi posizio argi nabarmentzen dauz: “azken egoerarako argudio” (*end state argument*) moduan izendatutakoa eta “argudio bidezkoa” (*fairness argument*) moduan egindakoa. Bere hitzetan, *according to the end-state argument, the mere fact that a particular linguistic community is currently failing to flourish and/or is expected, at some time in the future, to disappear is sufficient to justify a set of protective language rights* (Patten, 2009: 116). Sarritan, azken egoerarako argudioak iraganeko bidegabekerietan bilatzen dau bere aldarrikapenaren legitimazioa<sup>67</sup> eta etorkizunera begira hizkuntza komunitatearen biziraupena ziurtatua izatea eskatzen dau. Aipatzekoa da ikuspuntu hau sentsibilitate nazionalistagaz estu lotuta ageri dala sarritan. Argudio honen kritikak bi norantzatan joan ohi dira: batetik, hizkuntzaren biziraupena danaren gainetik ziurtatu nahiak mintzaira hitzunen aurretik kokatzea ekarri daikela eta, bestetik, hizkuntza komunitateari begirako barne betebeharez gainera kanpo betebeharrak be gehiegizkoak exijitu daitezala.

Patten-ek bidezko argudio moduan izendatutako bigarren leku-hartzeak hizkuntza eskubideen eskaera hitzunen egungo nahian oinarritzen dau, hau da, ikuspuntu honen defendatzaile dan Réaume-k dinoan moduan, *it is not because their language is “in their blood” that a group’s linguistic heritage deserves recognition, but because the group chooses to maintain its allegiance to that heritage* (Réaume, 2003: 291). Era berean, bigarren ikuspuntu honek historikoki bizitako bidegabekeriei begiratu orde, hizkuntza komunitateak egun bizi dauzan desabantaila eta diskriminazio egoerak hartzen dauz bere eskaeren legitimazio bide; eta etorkizunari begira hizkuntzaren biziraupena erreklamatu beharrean, gaur egunerako seguritatea aldarrikatzen dau. Horrela, *the fairness right is violated when the government prohibits the use of a particular minority language in certain contexts or when it fails to make it possible for speakers of that language to use their language when accessing, or participating, in public institutions* (Patten, 2009: 121-122).

Hizkuntza gitxituen eskubideen defentsa burutzerakoan, Kymlicka-ren “aukera testuinguruaren” (*context of choice*) argudioa, ikusmira instrumentalduna be oso interesgarria da. Kymlicka-k partaidetza kulturala eta linguistikoa norbanakoaren askatasuna edota autonomia bermatzeko oinarritzko elementu moduan jotzen dauz. Bere hitzetan, *one’s culture determines the boundaries of the imaginable, so that if the options available in one’s culture diminish, so too does one’s autonomy* (Kymlicka, 1995: 47). Horregaitik, norbanakoaren gizarte kultura babestea funtsezkoa da; eta berau babestuta legoke herritar batek egunerokoan bere hizkuntzan jarduteko aukera baleuko<sup>68</sup>.

<sup>67</sup>May-ren (2003, 2005) ustez, hizkuntza gitxituen eskubideen aurka agertzen direnak kontrako joera hartu ohi dabe; hain zuzen, iraganaren sanitizazioa burutzea eta orainaldira mugatutako ikuspegi izatea.

<sup>68</sup>Gogoratu beharra dago, Kymlicka-k gitxiengo nazionalen gizarte kulturaren babesa bakarrik dauala defendagai, ez gitxiengo etorkinena.

Kymlicka-ren arrazoitzean Patten-ek (2009) muga garrantzitsu bat identifikatzen dau, xedea mintzaira gitxituetako hiztunen hizkuntza eskubideak babestea bada, behinik behin. Hain zuzen, arrazoi desbardinak medio (hiztun kopuru murrizta, lurralde banaketa, estatus sozioekonomiko mugatua, etab.) gizarte kulturaren jabetzarik ez daben hizkuntza komunitate txikien kasua. Patten-en esanetan, egoerotan *the autonomy-based concern for protecting contexts of choice does not recommend minority language rights, since there is no adequate context of choice present to protect. If anything, in these cases, the context-of-choice argument suggests that more should be done to encourage minority language speakers to learn the majority language: it is in the majority language, rather than in their own minority language, that they will find the range of options and opportunities needed to support their autonomy* (Patten, 2009: 114). Begibistakoa danez, Patten-en arrazoitzeak be tresna izaera argia dauka.

Banakakoaren autonomia goraipatzen dauan beste argudio lerro batek, Kymlicka-ren kontrara eta Patten-ek aipatutako azken ideiari lotuta, banakakoaren autonomia hizkuntza nagusiaren ezagutzan oinarritzen dau. Gainera, banakakoaren autonomia horrerik ezin ezarri dakioke mugarik, ez estatuaren aldetik ezta gurasoen aldeti be. Horrela, Laitin eta Reich-en hitzak aipatuz, *we should want to empower states to constrain parents from limiting their children's language repertoires. We should demand that parents provide linguistic repertoires to their children that allow them a meaningful range of choices as adults, for which speaking a language that allows a broad range of mobility and vocational opportunities is a sine qua non* (Laitin & Reich, 2003: 98). Brian Barry (2001) be ildo bardinean doa, baina oraindino be muturreragoko lekutzea bereganatuz. Bere ustez, hizkuntza gitxituen ikasketa bera aukera galera da, beste mintzaira erabilgarriago batzuk ikasteko denbora murrizten daualako. Begibistakoa danez, ikuspuntu hauze hizkuntza gitxituen eskubideen kontra agertzen da; hizkuntzen balio komunikatzaileak eskaini daikezan bestelako irabazi batzuk lehenetsiz.

Hizkuntza gitxituen eskubideak inguru eleanitzetan dira testuinguratuak eta eztabaidatuak; eta, hortaz, gehienetan, eskubideon hedapena argudiatzerakoan beste hizkuntzetan izan daikien eragina be kontuan hartzen da. Era berean, testuinguru eleanitzetan hiztunak eurak be asko eleanitzak izaten dira, hiztun komunitate desbardinatetako kide oso; eta hortaz, banakakoen hibridotasun linguistikoa aintzat hartuta jarduteko deia be egin izan da. Horren ildora, De Schutter-ek zera dino: *a just theory of language planning will thus try to avoid basing itself on certain forms of linguistic identity, in order to provide ample room for linguistic diversity, with due respect for instances of linguistic hybridity* (De Schutter, 2007: 16). De Schutter-en ustez, egoera gero eta ohikoagoi modu justu batean erantzuteko modua hiztunen autonomia linguistikoa legitimatuko dauan eskubideak bideratzea izango da.

Bestalde, hizkuntza gitxituen eskubideen aplikazioan hizkuntza komunitateen artean sortu daitekezan eraginei dagokionean, Susan Wright-ek dinoana zentrala da: *the right to use one's own language is not simply the right to speak it when and where one wants but also the right to be understood and to understand, and that is a constraint on interlocutors and affects their*

*rights in turn* (Wright, 2004: 184). Hizkuntza gitxituen eskubideak aldarrikatzen direnean, *monolingual majority language speakers are being asked to accommodate to the ongoing presence of a minority language and to recognize its status as an additional language of the state – a process of mutual accommodation* (May, 2005: 336). Halaber, hizkuntza gitxituen eskubideekaz kritiko direnek ez dabe begionez ikusten alkarrenganako egokitzapena eta horrek hizkuntza nagusiaren mintzairadunei dakartzezan betebeharrak, bidegabeak direla uste baitabe. Barriz, hizkuntza gitxituen eskubideen aldekoek bata bestearrenganako egokitzapenaren alde agertzen dira. Esaterako, hizkuntza ekologiaren paradigma hizkuntza guztiei leku zehatza eskaintzearen alde agertzen da oreka zail eta hauskor baten baitan; eta mintzairaren arteko alkarbizitza bultzatzearen alde, hizkuntzen arteko harreman gatazkatsuak eta baztertzailak gaindituz (Martínez de Luna, 2012)<sup>69</sup>. Giza hizkuntza eskubideen paradigmak be hizkuntza gitxituen eskubideen alde egiten dau, asimilazioaren orde, integrazioa bilatuz, hau da, *the formation of a series of common features in the ethnically heterogeneous group* (Skutnabb-Kangas, 2006: 282)<sup>70 71</sup>.

Hizkuntza gitxituen eskubideen eztabaidagaia gure testuingurura ekarriz, Hernández, Olaso eta Martínez de Luna Euskal Herrian euskararen inguruan nagusitzen diren lekuhartzeen inguruan burututako azterketa bereziki interesgarria da. Hiru autoreen esanetan, gizartean, eta honek bultzatuta alderdi politikoetan, euskararen inguruko diskurtsoan adostasuna dago oinarritzko ikusmiran, hain zuzen: *to see the relationship between the Basque language and society from the viewpoint of language planning and normalisation* (Hernández, Olaso, Martínez de Luna, 2006: 107). Halaber, normalizazioa abiapuntu moduan jotzen dan arren, oinarritzko gizarte adostasunaren baitan bi jarrera argi bereiztu daitezke, Bourdieu-ren (1985) sailkapena euren eginda: onarpena (*acceptation*) eta legitimazioa (*legitimacy*). Legitimazioa dauana *is considered as something natural, something that has always existed*; onartua dana, oster, *has not always existed, it is changeable* (Hernández, Olaso, Martínez de Luna, 2006: 107). Era berean, *legitimacy needs to have its own symbolic space in order to function; acceptation, in contrast, is a more superficial social mechanism* (Hernández, Olaso, Martínez de Luna, 2006: 107). Autoreon ustez, onarpen eta legitimazio

<sup>69</sup>Xede hori lortzeko, hizkuntza ekologiak errealitate linguistikoa ekosistema baten moduan begitaratzen dau, Hornberger-en hitzetan, hiru alderdi kontuan izanda: lehenengoa, hizkuntzak beste hizkuntza batzuekz batera bizi eta garatzen direla ekosistema batean (hizkuntza eboluzioa); bigarena, ingurune soziopolitiko, ekonomiko eta kulturalagaz elkarrengaiten dabela (hizkuntza ingurunea) eta, hirugarrena, desagertzeko arriskuan egon daitezkezala ekosistemako gainontzeko hizkuntzekiko babes ingurune desegokia eskaintzen bajake (hizkuntza desagertpena) (2002). Hiru puntuok aintzat hartuta eta eleaniztasuna eta hizkuntzen kontserbazioa jomuga izanda, egoera zailagoan dagozan mintzaireri kontrako baldintzak orekatzen lagunduko deuten neurri bereziak hartzea defendagai izango dau.

<sup>70</sup>Asimilazioak beste talde batera aldatzea ekarri eta, beraz, izaera kenkaria dauan bitartean; integrazioak, talde partaidetza inklusiboa eta gehigarria bultzatzen dau.

<sup>71</sup>Aipatzekoa da, giza hizkuntza eskubideen ikuspuntua lurraldeko hizkuntza nagusiaren ikasketaren alde agertzen dala, betiere hizkuntza gitxiaren ikasketa be bermatzen dan neurrian.

diskurtsook hizkuntza plangintzaren barruan be nagusitu dira<sup>72</sup>. Beheko taulan diskurtso baten eta bestearen printzipio eta helburu nagusiak ageri dira laburbilduta.

## 2.9. TAULA. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREKIKO DISKURTSOAK: LEGITIMATZAILEA ETA ONARPENEZKOA

Diskurtso Legitimatzailea	Onarpenezko diskurtsoa
	Gorengo printzipioa: autonomia eta banakakoaren askatasuna [Ideologia pragmatikoa].
Hizkuntza eskubideak banakakoarenak eta taldearenak dira.  Euskararen berreskuratzea komunitatearen eskubide moduan jotzen da.	Hizkuntza eskubideak banakakoarenak bakarrik dira.  Euskararen berreskuratzea banakakoak hizkuntza aukeratzeko dauan eskubidearen ikuspuntutik justifikatu beharra dago.
Euskararen egoera diglosikoa da.	Euskararen egoera diglosikoa edota euskararen bazterketa ez da diskurtsoan ageri.
Euskararen egoera diglosikoa gainditzeko nahia agertzen da; euskarak funtzio guztiak (publikoak zein pribatuak) bereganatzea bardintasun egoera eleanitzera heltzeko.	Euskara eta gaztelania egoera beretsuan dagoz eta "elebitasuna" (erreala, integratzailea, kooperatiboa, etab.) da helburua.
Euskararen normalizazioa lortzeko euskararentzako ekintza positiboko neurriak hartzea funtsezkoa da.	Euskarak gehiegizko laguntza jaso dau eta koste-eraginkortasun azterketa sakona beharrezkoa da. Euskararentzako ekintza positiboen kontra agertzen da. Euskararen beharrezkotasunaren kontra agertzen da herri administrazioan.
	Hizkuntza eskubide desbardinak eskaintzen dira egoera soziolinguistikoaren (lurraldetasun printzipioaren eta zonifikazioaren justifikazioa) eta hiltzun motaren arabera (euskara etxean jasotakoak eta euskaldun barriak).

\*Elebitasun erreala, integratzailea, kooperatiboa, etab. dira xedetat daberen elebitasun mota deskribatzeko erabilitako zenbait hitz. Halaber, hitzonen definizioa argirik ez dabe eskaintzen.

*Iturria:* norberak egina. Oinarria (Hérmendez, Olaso & Martínez de Luna, 2006).

<sup>72</sup>Interes berezia dauka jakiteak autoreon azterketen emaitzen arabera, diskurtso legitimatzailea euskal nazionalismoagaz lotutako alderdietan (Batasuna, EAJ, EA, Aralar) eta euskal nazionalismotik kanpora kokatzen dan EBn nagusitzen dala; eta, barriz, onarpen diskurtsoa espainiar nazionalismoagaz lotutako alderdietan (PP, UPN, UA, PSN, PSE). Era berean, Martínez de Lunak eta Jausorok beste idatzi baten be aurrez aurreko bi leku-hartzeon izateaz zera dinoe: bi muturreko mundu ezberdin eta kontrajarrien izatea baieztatzen da. Haietako lehena, bere amankomuneko nortasun etniko-politkoa eta unibertso simbolikoa Espainoltasunaren inguruan osatzen delarik. Beste muturrean, aldiz, euskara eta bere aldeko balioak dira nagusi, amankomuneko nortasuna eta unibertso simbolikoa Euskal Herri/Euskadi kontzeptuetan oinarritzen diren bitartean (Martínez de Luna & Jausoro, 1998: 89-90).

## 2. 2. 4. 2. Kanpora begirako hizkuntza ideologiak

### 2. 2. 4. 2. 1. Mundu mailako egoera soziolinguistikoaren deskribapen laburra

*Ethnologue. Languages of the World* ikerketa lan zabalaren arabera, egun 7106 ahozko hizkuntza bizi dagoz munduan (Lewis, 2009). Hizkuntzalaritza aplikatuko beste iturri askok 6000ren bueltan kokatzen dabe kopurua<sup>73</sup>. Nabarmendu beharrekoa da baina, hizkuntzon artean euren gizarte egoerak oso desbardinak direla. Esaterako, mintzainen bizi-indarrari dagokionean, Ethnologue-k honako datuak eskaintzen dauz: 7106 hizkuntza bizietatik 560 erakundetuta dagoz, 1563 garapen bidean, 2549 indartsu, 1519 arazoekaz eta 915 hilzorian. Mintzainen bizi-indarra euren hitzun kopuruagaz estu lotuta dago. Zentzu horretan, aipagarria da hizkuntzon %94 munduko biztanleriaren %6k bakarrik berba egiten dauala. Egitez, aurreikuspen ezkorrenek XXI. mendearen amaierarako gaur egungo hizkuntzen %90-95 inguru desagertzeko arrisku bizian ala dagoeneko desagertuta egongo direla agertzen dabe (Krauss, Maffi & Yamamoto, 2004); aukera baikorrenek, barriz, egungo hizkuntzen erdiaren desagertzea aurreikusten dabe mende amaierarako (Wurm, 2001). Mundu mailako aniztasun linguistikoaren aurreikuspen horreek gaur egungo globalizazio prozesu sakonak baldintzatuak dagoz.

Steger-ek hizkuntzen globalizazio prozesua modu honetan definitzen dau: *the globalization of languages can be viewed as a process by which some languages are increasingly used in international communication while others lose their prominence and even disappear for lack of speakers* (Steger, 2009: 80). Nazioarteko komunikazioan ingelesa, txinera eta gaztelania dira gero eta gehiago hitz egiten diren hizkuntzak (Garrido, 2010). Halaber, ingelesa da alde handiz *lingua franca*<sup>74</sup> funtzioa betetzen dauana. Garridoren hitzetan, *la globalización se caracteriza por la hegemonía de la lengua inglesa* (Garrido, 2010: 71). Egitez, ingelesak munduko bost kontinenteetan dau presentzia lehenengo hizkuntza ala bigarren hizkuntza<sup>75</sup> moduan; baina, Kachru-ren (1985) hitzun tipologia erabiliz, ingelesaren berezitasuna, bere barne zirkuluaren (ingelesa jatorrizko hizkuntza) eta kanpo zirkuluaren (ingelesa bigarren hizkuntza) indarrak aparte, egun bere hedapen zirkuluak (ingelesa atzerriko hizkuntza) bizi dauan hazkundera da. Crystal-ek (2010) eskaintako datuen arabera, ingelesaren barne zirkuluan 400 milioi pertsona inguru dagoz, kanpo zirkuluan 600 milioi inguru eta hedapen zirkuluan, ingelesa erraztasunez hitz egiten daben pertsonak bakarrik zenbatuz, beste 600

<sup>73</sup>Kopuru zehatza ezagutzea ezinezko bilakatzen da; besteak beste, mintzainen klasifikazio sistematizaturik guztiz burutu barik dagoelako, zein hizkuntza eta dialektoaren arteko muga finak bien artean bereizketa argia egitea itzel zailtzen daualako, aditu batzuen eta besteen artean desadostasunak sortuz.

<sup>74</sup>*Lingua franca* deritzogu to any form a language serving as a means of communication between speakers of different languages (Swann, Lillis & Mesthrie, 2004: 184).

<sup>75</sup>Ingelesa bigarren hizkuntza moduan jaso dabe Ingalaterraren kolonia izandako herrialde askok, ingelesa herrialdeko hizkuntza ofizial izendatu eta ostean. Egitez, ingelesak bost kontinenteetan barreiatutako 60 herrialde baino gehiagotan dau bigarren hizkuntza estatusa (Hohenthal, 1998).




milioi. Horrela, zenbateko guztiok batuz eta ingelesa atzerriko hizkuntza moduan maila desbardinetan darabilen pertsonak kontuan izanda, munduan bi bilioi inguru dira ingeles hiztunak.

Ingelesaren nazioarteko hizkuntza estatusa XX. mendeko 70 hamarkadaz geroztik joan da bereziki indarra hartzen eta, egun, ingelesaren lidergoa ukazina da teknologia eta negozio munduan, zein mundu akademikoan edota herri kultura globalizatuan. Estatus altuko eta zabalkunde handiko esparruotan erabilia izateak ingelesaren lekua sendotzea dakar etengabe, bere ezagutza egunean egunean baliogarriagoa bilakatuz. Horrela, *[English] has become one of the most powerful means of inclusion into or exclusion from further education, employment or influential social positions* (May, 2012: 217).

Ingelesaren balio handitze jarraituak gainontzeko hizkuntzekiko bere distantzia areagotzea ekarri dau. Zentzu horretan, benetan interegarria da Stig Hjarvard-ek (2004) burutzen dauan hausnarketa. Bere hitzetan, *as English has moved toward paramountly, the status of the other principal languages has changed. Even though they are spoken by more people today than ever before, they have been demoted, degraded in relation to English. Today, French, Spanish, Arabic, German, Russian, etc., more or less have the status of regional languages, national languages that can be used beyond their national frontiers. But, they are losing their currency as the language of international communication, formal and informal: both in political and commercial contexts and in intercultural exchanges, as bridges between people who cross cultural frontiers or who like to enrich their lives with media products from abroad* (Hjarvard, 2004: 76).

Calvet-ek (2002) proposatutako sistema linguistiko globalaren eredu grabitazionalak gaur egun mintzaira desbardinek daben lekutze hierarkikoa modu argian agertzen dau. Autoreak munduko hizkuntzak hierarkikoki antolatutako lau talde desbardinetan bereizten dauz: hizkuntza hiperzentrala, ingelesa; beraren inguruan grabitazten hamar bat hizkuntza superzentral: frantsesa, gaztelania, arabiera, txinera, india, etab.; euren inguruan hizkuntza zentralak, 100 edo 200 hizkuntza inguru, eta, azkenik, hizkuntza zentralen inguruan hizkuntza periferikoak, 4000 edo 5000 inguru. Calvet-en arabera, mailetako bakoitzean hizkuntzen arteko harremanak ezartzerako orduan, sistemaren oinarria diren bi joera nabarmentzen dira: elebitasun horizontala eta elebitasun bertikala. Lehenengoak maila berean dagoen hizkuntza baten ezagutza lortzea dakar; bigarrenak, ostera, goragoko mailan dagoen hizkuntza bat eskuratzea. Calvet-en aburuz, gaur egun, joera nagusia hizkuntza hiperzentralaren jatorrizko hiztun danak elebakar izateko hautua egitea da; hizkuntza superzentralaren jabe danak hizkuntza hiperzentrala ala beste hizkuntza superzentral bat bereganatzea; eta hizkuntza zentral ala hizkuntza periferikoen jabe direnak elebitasun bertikal baten aldeko aukera egitea, dala hizkuntza hiperzentrala dala hizkuntza superzentrala ikasiz eta, hainbatetan, euren lehen hizkuntza baztertuz. Agerikoa danez, Calvet-ek aztergai dauzan joera horreek hizkuntza nagusien indartzea dakarre, ingelesarena batik bat, eta gitxituenen ahultzea.

## 2.6. IRUDIA. HIZKUNTZEN MUNDU MAILAKO SISTEMA LINGUISTIKOAREN EREDU GRABITAZIONALA



*Iturria: norberak egina. Oinarria (Calvet, 2002).*

### 2. 2. 4. 2. 2. Lingua franca eta egungo mundu mailako joera linguistikoen aurrean leku-hartze ideologiko desbardinak

Aurreko atalean labur labur deskribatutako egoera soziolinguistiko mundialaren - hizkuntza aniztasun galeraren eta ingelesaren nagusigoaren - aurrean kokatze desbardinak nagusitzen dira; baita etorkizunari begira aurreikusi eta lehenesten diren errealitate soziolinguistiko gertagarrien aurrean be. Azpimarratzekoa da eztabaida gaion artean lotura estua dagoela, badala interdependentziarik euren artean, eta ondorioz, arlo batean agertutako leku-hartzeak beste arloetakoa be baldintzatu zein zehaztuko dau gehiengoan.

Hizkuntza aniztasun galeraren zergaitia hizpide hartuta, eta jarrera hartzeak ugariak eta nahaspilatsuak direla onartuz baina konplexutasun hori muturrera sinplifikatuz, bi ikuspegi nagusi bereiztu daitezke, Skutnabb-Kangas-ek (2008) hizkuntza heriotza (*language death*) eta hizkuntza hilketa (*language murder*) paradigma moduan izendatu dauzanak. Hizkuntza heriotza paradigmak mintzairak, bizitza zikloari jarraiki, modu naturalean desagertzen direla

baieztatzen dau; eta hiztunak direla euren lehen hizkuntza borondatez izten dabenak, “euren buruz beste egiten dabenak” arrazoï instrumentalak medio eta euren hobeharerrako<sup>76</sup>. Hizkuntza hilketa paradigmaren ustez, ordea, hezkuntza sistema, komunikabideak, etab. eta euren atzean ostentzen diren sistema sozial, ekonomiko, teknomilitar eta politikoak dira kultura eta hizkuntza genozidioa bideratzen dabilzan agente zuzenak. Horrela, hizkuntza hilketaren paradigmak hizkuntzen desagertzea arazo moduan bizi dau, hizkuntza heriotza paradigmak, barriz, ez<sup>77</sup>.

Ingelesaren nagusigoa azaltzerakoan ere antzeko leku-hartzeak antzematen dira. Badira ingelesaren *lingua franca* eta hizkuntza global<sup>78</sup> balioa modu baikor eta despolitizatuan begitaratzen dabenak eta ingelesa hizkuntza neutro, askatasunean aukeratu eta guztiontzako onuragarri moduan ulertzen dabenak; baina baita ingelesaren nagusigoaren atzean mintzaira eta mintzairaz haragoko botere harreman bat identifikatzen dabenak. Ildo honetan Crystal-en hitzok argigarriak dira: *there is the closest of links between language dominance and cultural power [...]. Without a strong power-base, whether political, military or economic, no language can make progress as an international medium of communication* (Crystal, 2003: 7). Phillipson haratago doa, ingelesaren gailentasunaren atzean hizkuntza inperialismoa ostentzen dala baieztatuz. Phillipsonen hitzetan, *linguistic imperialism presupposes an overarching structure of asymmetrical, unequal exchange, where language dominance dovetails with economic, political and other types of dominance. It entails unequal resource allocation and communicative rights between people defined in terms of their competence in specific languages, with unequal benefits as a result, in a system that legitimates and naturalizes such exploitation* (Phillipson, 2009: 2).

Hizkuntza aniztasunaren galera eta ingelesaren nagusigoa teorizatzeko modu desbardinok mintzaira desbardineï atxikitzen jakezan balioak eta, besteak beste, nazioarte mailarako lehenesten diren errealitate soziolinguistiko gertagarriak aurreratzen dabez. Phillipson eta Skutnabb-Kangas-ek bi paradigma argi bereizten dabez: ingelesaren zabalkundearen paradigma eta hizkuntza ekologiaren paradigma. Euren hitzetan, *the diffusion of English paradigm characterized by a monolingual view of modernization and internationalization and the ecology-of-language paradigm which involves building on linguistic diversity worldwide, promoting multilingualism and foreign language learning, and granting linguistic human rights to speakers of all languages* (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996: 429). Aipatu beharra dago, autoreok bi paradigmak eta euren ezaugarriak continuum bateko mutur moduan identifikatzen dabezala, “tipo ideal” moduan; baina errealitatean aurkako bikotasun zurrunik ez da emoten. *The characteristics listed are not binary oppositions, in*

<sup>76</sup>Planteamendu hau aukera arrazionalaren teoria indibidualaren baitan kokatu daiteke.

<sup>77</sup>Ildo horretan, interesgarria da ikuspegi normatibo eta moral batetik Michael Blake-k (2003) agertutakoa. Bere esanetan, hizkuntzen desagertzea bakarrik izango da arazo heriotza dominazio edota diskriminazioaren fruitu danean, hau da, zilegiak ez diren arrazoiekatik gertatzen danean.

<sup>78</sup>Hizkuntza globala modu honetan definitu daiteke: *a universal second language in those countries in which it is not already the native or primary tongue* (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1997: 36).

*which the presence of one excludes a corresponding feature in the other, but rather a bundle of features and tendencies that are manifest in the structures and processes supporting either the diffusion and domination of English or the ecology of language* (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996: 436).

Aipatu beharra dago ingelesaren zabalkundearen eta hizkuntzen ekologiaren paradigmak hizkuntzaz haratago doazan bi kokatzeren isla be badirela; globalizazio prozesuaren eta errealitatearen aurrean bi mundu-ikuskerara desbardinena. Yukio Tsuda-k (1994) ingelesaren zabalkundearen paradigma honako ezaugarriekaz lotzen dau: kapitalismoa, zientzia eta teknologia, modernizazioa, elebakartasuna, globalizazio ideologikoa eta nazioartekotzea, transnacionalizazioa, amerikanizazioa eta mundu-kulturaren homogeneizazioa, eta inperialismo linguistikoa, kulturala eta komunikabideena (ikus 2.10. taula).

## 2.10.TAULA. BI HIZKUNTZA POLITIKA PARADIGMA<sup>79</sup>

Ingelesaren zabalkundearen paradigma	Hizkuntzen ekologiaren paradigma
Ingelesaren inperialismo linguistikoa	Eleaniztasuna eta giza hizkuntza eskubideak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kapitalismoa</li> <li>• Zientzia eta teknologia</li> <li>• Modernizazioa</li> <li>• Elebakartasuna</li> <li>• Globalizazio ideologikoa eta nazioartekotzea</li> <li>• Transnacionalizazioa</li> <li>• Amerikanizazioa eta mundu-kulturaren homogeneizazioa</li> <li>• Inperialismo linguistikoa, kulturala eta komunikabideena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza eskubideen ikuspegia</li> <li>• Komunikazio bardintasuna</li> <li>• Eleaniztasuna</li> <li>• Hizkuntza eta kulturen mantenua</li> <li>• Nazio subirautzaren babesa</li> <li>• Atzerriko hizkuntzaren ikasketaren sustapena</li> </ul>

*Iturria:* norberak moldatua (Tsuda in Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996: 8).

May-k (2012: 211) ingelesaren zabalkundearen alde modu erabatekoan egiteko, bai nazioarte mailan *lingua franca* moduan, baita ingelesak bigarren hizkuntza estatusa dauan estatuetan munduko hizkuntza moduan, erabili ohi diren arrazoiak modu honetan laburbiltzen deuskuz:

- Ingelesa bere balio instrumentalagaitik da goraipatua eta gainontzeko hizkuntza guztiak baino gorago sailkatzen da gizarte mugikortasuna eta gizarte garapena lortze bidean.

<sup>79</sup>Bi paradigmak hizkuntza politikaren inspiratzaile moduan planteatuta dagozan arren, ikerketa honen ikuspuntutik, hizkuntza ideologia trataera ere emon ahal jakie, ezaugarriok hizkuntza jarrera eta balio desbardinena isla be badirelako.

- Ingelesa ikasteak banakakoaren aukera ekonomiko eta sozialak handituko dauz, batez ere ingelesa nagusi dan herrialdeetan edota ingelesak menperatutako mundu globalizatuan.
- Beste hizkuntza (gitxitu) batzuk mantentzea garrantzitsua izan daiteke eskaintzen daben kultura jarraikortasuna dala eta; baina era berean, mantentze horrek banakako mugikortasuna mugatu daike, eta egoera latzenetan, “ghettifikazioa” gertatu daiteke.
- Aurrekoagaz lotuta, hizkuntza gitxituetako hiztunak “zentsudunak” badira, ingelesa hautatuz mugikortasun eta modernitatearekiko aukera egingo dabe.
- Erabakia edozein izanda be, ingelesaren aldeko aukera eta/edo beste hizkuntza baten aldekoa egitea kontrako zein esklusibo moduan identifikatzen da.

Begibistakoa danez, leku-hartze ekonomizista honek ingelesa eta gainontzeko hizkuntzen artean banaketa hierarkiko argia burutzen dau: ingelesaren balioa gorapatuz eta gorengo lekuan kokatuz, eta gainontzeko mintzairak beheagoko lekuan ezarriz. Ildo horretan, interesgarria da oso Phillipson-ek (1992) harreman hierarkiko horren erakusgarri moduan proposatutako ingelesaren eta gainontzeko hizkuntzen etiketatzea. Hau da, ikuspuntu honetatik zeintzuk etiketa ala balio eskaintzen jakoz ingelesari eta zeintzuk gainontzeko hizkuntzei? Ingelesari munduko hizkuntza, nazioarteko hizkuntza, komunikazio zabalerako hizkuntza, hizkuntza laguntzailea, hizkuntza osagarria, lotura hizkuntza, munduari begirako lehioa dan hizkuntza eta hizkuntza neutral etiketak-balioak atxikitzen jakoz; gainontzeko hizkuntzei, barriz, zedarritutako hizkuntza, nazio barneko hizkuntza, komunikazio urriagorako hizkuntza, alferrikako hizkuntza, hizkuntza osagabea, hizkuntza mugatzailea, hizkuntza itxia eta soslaitutako hizkuntza.

## 2.1 I. TAULA. INGELESAREN ETA BESTE HIZKUNTZEN ETIKETATZEA

Ingelesa laudatzea	Beste hizkuntzen balioa gitxitzea
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Munduko hizkuntza</li> <li>• Nazioarteko hizkuntza</li> <li>• Komunikazio zabalerako hizkuntza</li> <li>• Hizkuntza laguntzailea</li> <li>• Hizkuntza osagarria</li> <li>• Lotura hizkuntza</li> <li>• Munduari begirako lehioa</li> <li>• Hizkuntza neutrala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zedarritutako hizkuntza</li> <li>• Nazio barneko hizkuntza</li> <li>• Komunikazio urriagorako hizkuntza</li> <li>• Alferrikako hizkuntza</li> <li>• Hizkuntza osagabea</li> <li>• Hizkuntza mugatzailea</li> <li>• Hizkuntza itxia</li> <li>• Soslaitutako hizkuntza</li> </ul>

*Iturria:* norberak egina. Oinarria (Phillipson, 1992).

Nazioarterako ingelesaren aldeko apustua ikuspegi kosmopolita batetik be egiten da sarri. Daniele Archibugi da kosmopolitanismoaren teoriko ezagunenetakoa. Bere ikuspuntutik, aniztasun linguistikoa sistema demokratikoaren baitako bardintasunerako eta bertan parte hartzeko muga bat da; demokrazia egikaritu daiten gainditu beharreko traba eta eragozpena. Hizkuntza kosmopolitek komunitate global barri baten agertzea imaginatzen dabe, zeinari esker nazio-estatuari lotutako ideologia mugatzaileak gaindituko diren. Archibugiaren ustez, komunitate global hori lortzeko faltan dagoena hizkuntza komuna (*the common language*) da, mundu guztiak bigarren zein hirugarren hizkuntza moduan berba egingo dauana. Bere iritziz, hizkuntza komunak bata besteagaz eta komunitate (global) zabalagoagaz lan egiteko banakako eta komunitateen konpromisoa erakutsi eta handitzen dau. Horrela, *cosmopolitanism seeks to apply democratic procedures, implementing public policies designed to remove linguistic barriers* (Archibugi, 2005: 544). Eta egiteko hori ingelesari dagokio, komunikazio globalerako *lingua franca* gisa<sup>80</sup>.

Aipatu beharrekoa da baina, Archibugi ez dala hizkuntza aniztasunaren kontra agertzen. Bere lekuan diglosia egoera dau proposagai, non hiztun elebidun eta eleanitzek euren hizkuntzak erabiltzen jarraituko daben testuinguru lokalean (estatus baxukoetan) eta ingelesa jarduera zabalagoetan, besteak beste, globalizazio prozesuagaz lotutakoetan (estatus altukoetan)<sup>81</sup>. Ildo berean, De Swann-ek (2001) be hizkuntza batzuen eta besteen arteko egokitzea aldarrikatzen dau, arloen arteko banaketa sendoa eta oreka egonkorra proposatuz. Hori lortzekotan, hizkuntza superzentrala ez litzateke gainontzeko mintzarentzat mehatxu zuzena izango<sup>82</sup>.

Bestalde, hizkuntza ekologiaren paradigmat<sup>83</sup> bestelako errealitate global bat irudikatzen dau. Esan daiteke hizkuntza ekologiak ikuspegi altermundialistagaz bat egiten dauala; Steger-en terminologia erabiliz, justizia globalismoagaz (*justice globalism*); hain zuzen, *the building of a truly democratic and egalitarian global order that protects universal human rights without destroying the cultural diversity that is the lifeblood of human evolution* (Steger, 2009: 99). Ildo berean, Yukio Tsuda-k (1994) hizkuntza ekologia globalari honako ezaugarriak atxikitzen deutsoz: giza eskubideen ikuspegia, hizkuntza desbardinaren arteko komunikazio bardintasuna, eleaniztasuna, hizkuntza eta kulturaren mantenua eta nazio subirautzaren babesa.

<sup>80</sup>Aipatzekoa da, Sonntag-ek (2009) aditzera emoten dauan moduan, bere burua kosmopolita moduan dauan banakakoak ingeles globala ezagutzeari balio instrumentala ezeze intrinsikoa be eskaintzen deutsola; halaber, azpimarratutakoa hizkuntza horrek komunikazio globalerako dauan balioa da.

<sup>81</sup>Pennycook-ek (1994) prozesu hori *linguistic curtailment* moduan deskribatu izan dau; hizkuntza lehiakideak (estatus baxuko) alor jakinetara mugatzea, hain zuzen.

<sup>82</sup>Hori horrela, aipatu beharra dago bai Archibugi-k bai De Swann-ek epe luzeagora begira ingelesa *lingua franca* global moduan ezartzeak gainontzeko hizkuntzetan eragin ezkorra izan ahalko leukela bai onartzen dabela.

<sup>83</sup>Hizkuntza ekologiak mintzaira eta mintzaira aniztasunaren aurrean dauan ikuspuntua, hizkuntzei atxikitzen deutsozan balioak zein hizkuntza aniztasuna kudeatzeko proposagai dauan modua, "2.2.4.1.2. Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian" atalean azaldu da zehatz.

Tsuda-k aipagai dauzan lehenengo lau ezaugarriak alkarrerri estu lotuta doaz. Hasteko, komunikazio bardintasunak suposatzen dau *that participants in communication should be in a position of equality, irrespective of mother tongue, gender, or other distinctions* (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996: 443); esaterako, hizkuntza komunitate desbardinetako hiztunen artean elkarrekintza emoten danean, zeinu hizkuntza erabiltzaileekaz, informaziora sarreran, adierazpen askatasunean, etab. Horrela, hizkuntzen arteko harreman hierarkikoaren lekuan parekotasuna aldarrikatzen da.

Bestalde, giza eskubideen ikuspegia egoera kaskarrean dagozan hizkuntzei zuzendua dago nagusiki; izan ere, honakoa bilatzen dau: *rectifying some linguistic wrongs and granting to less favored languages some of the support that is the rule for dominant languages* (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996: 442); modu horretan hizkuntza eta kultura lokalen mantenua sustatzeko. Izan ere, hizkuntza ekologiak mintzaira nagusiek eta, bereziki, ingelesak hizkuntza txikiei eragiten deuten kaltea nabarmentzen dabe. Brenzinger-ek (1997), esaterako, ingelesa hizkuntza ordezkatzaille moduan definitu izan dau (*replacing language*) eta Skutnabb-Kangasek (2008) hizkuntza nagusiak hizkuntza hiltzaille moduan (*killer languages*).

Horren aurrez aurre, hizkuntza ekologiak eleaniztasunaren aldeko hautu argia burutzen dau, eleaniztasun indibiduala ezeze erakundeetakoa (Europar Batasuna, Nazio Batuen Erakundea, etab.) be aldarrikatuz. Horrela, hizkuntzen ekologiak ikuspegi kenkariaren (*subtractive*) lekuan gehigarriaren (*additive*) alde egiten dau; ingelesa alboratu barik, beste atzerriko hizkuntza batzuen ikaskuntza be sustatzea aldarrikatuz hiztunen artean.

## 2. 2. 5. Laburbilduz

---

Hizkuntza ideologiei zuzendutako azpi-kapitulu honetan, hizkuntza politiken izaera neutrala zalantzan jarri da, ekimen politikoak hizkuntza ideologiaz eraginduak dagozala argudiatuz.

Hizkuntza ideologia ideologiaren esparru zabalagoan kokatuta, azken horren izaera hartu da hizpide. Horrela, ideologia giza taldeen ezagutzazko zein ebaluaziozko sinismen multzo moduan definitu da eta gizarte balio desbardinetan sostengatua eta gizarte jarreretan gorpuztua dagoela planteatu da. Halaber, ideologia errealitate konplexu eta anitza dala baieztatu da. Izan be, pertsona eta gizarte agenteen kokapen ideologikoak hierarkia, orokortze eta azalpen maila desbardinetako sinismen sistemaz osotuak dagoz; eta gai esparruaren arabera grabitate zentro ideologikoa aldatuz joan daiteke. Hizkuntza ideologia, bere aldetik, mintzairaren inguruko ideia, balio eta sinismen multzo moduan definitu da.

Atal zentrala hizkuntza ideologia motak aztertzeraz bideratu da: hizkuntza ideologiaren unibertsoa zabala dala jakitun, ikerketa lan honetan testuinguru mendebaldarreko demokrazia

liberaletan maila praktikoan edota teorikoan gailendu diren ikuspuntu ideologiko nagusiak bakarrik izan dira langai. Ikuspuntu ideologikook hiru gai zentralen inguruan antolatu dira: nazio eta estatu eraikuntzaren ideologiak, hizkuntza gitxituen eskubideen inguruko ideologiak eta *lingua franca* eta mundu mailako joera linguistikoen gaineko ideologiak.

Nazio eta estatu eraikuntzaren ideologiaren baitan, nazio-eredu tipo idealtzat jo izan diren etniko-kultural eta zibiko-politikoan hizkuntzei atxikitzen jakezan funtzioak eta balioak izan dira aztergai, ikuspuntu diakronikoa eta gitxiengo eta gehiengo nazionalen ikuspegia aintzat hartuta. Atal honetan, historikoki, nazio eta estatu eraikuntzan elebakartasunaren aldeko hautua egin izan dala azaldu da, baina nazio-ereduaren arabera elebakartasunaren beharra modu desbardinean argudiatuz. Horrela, nazio etniko-kulturean hizkuntza naziokideei identitate partekatua eskaintzen deutesen aldagai zentral moduan jo izan da; hau da, hizkuntza identitate nazionalaren zeinu eta berau indartzeko bidea. Nazio zibiko-politikoan, barriz, hizkuntzari balio instrumentala atxiki izan jako, hain zuzen, hizkuntzaz haratago doazan helburuak egikaritzeko lanabes moduan jo da. Elebakartasunaren aldeko hautuak ekarritako ondorio ideologikoak be izan dira hizpide; besteak beste, darwinismo linguistikoa, ideologia diglosikoa, ideologia monoglota, etab. Azken hamarkadetan nazio eta estatu eraikuntza estrategia eleanitzek, maila teorikoan behinik behin, agerpena izan dabela be azaldu da.

Hizkuntza gitxituen eskubideen inguruko ideologietan, eskubideon gainean nagusitzen diren leku-hartze desbardinak izan dira aztergai; bereziki, hizkuntza gitxituen eskubideekiko nagusitzen diren aldeko eta kontrako jarrera hartzeak, eta jarrera hartze horreen atzean ostentzen diren argudio desbardinak. Atal honetan argudiatu da hizkuntzei berezko balioa, identitarioa edota instrumentala atxikitzeak honakoak baldintzatuko dauzala: hizkuntza eskubide positibo ala negatiboan aldeko hautua egitea, eskubideen subjektua definitzea (hizkuntzak, hiztunak edo herritar neutroak), eskubideei izaera kolektiboa ala banakakoa atxikitzea (kolektiboa, banakakoa kolektiboan edo banakakoa), eskubideoi mugak ezartzekotan non kokatzen diren erabakitzea (mugarik eza, barne muga -hiztun komunitatearen nahia-, barne eta kanpo muga neurritzak edo kanpo muga -hiztun komunitateetik kanpoko herritarak). Horrela, aldagai desbardinon artean lerrotatze nabarmen argiak identifikatu dira.

Amaitzeko, *lingua franca* eta mundu mailako joera linguistikoen gaineko ideologietan, nagusitu dan aniztasun linguistikoaren galeraren eta hizkuntza gutxi batzuk, ingelesak bereziki, nazioarte mailan bizi daben nagusitzearen aurrean gailendu diren leku-hartzeak eta baita etorkizunari begira lehenesten diren errealitate soziolinguistikoko desbardinak izan dira aztergai. Gai bakoitzaren aurrean bi leku-hartze muturreko identifikatu dira, ingelesaren difusio paradigma eta hizkuntzen ekologia paradigma moduan laburbildu daitezkeanak. Lehenengoak nazioarte mailan elebakartasuna (ingelese *lingua franca*) dau defendagai bere balio instrumentala medio. Bigarrenak, ostera, argumentazio ekologikoetan oinarrituz, hizkuntza aniztasunari gorengo balioa atxikitzen deutso eta nazioartean berau bultzatzeko hautua egiten dau.





### 3. METODOLOGIAREN DISEINUA: HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN EDUKI AZTERKETAZ

Kapitulu honen egitekoa, EAEko alderdi politikoaren hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ikertzeko eraiki dan metodologia aurkeztea da. Hala, lehenengo, azterketarako aukeratu diren alderdi politikoak eta dokumentuak aurkeztuko dira eta, gero, dokumentuen analisirako diseinatu dan eduki azterketa azalduko da. Izan ere, ikerketa honetarako eraiki dan kodifikazio prozedura eta sistema azaltzeak badauka interesik diskurtso linguistiko politiko-ideologikoak xehetasunez eta fidagarritasunez analizatzeko harraminta eraginkorra baita. Hortaz, orriotan aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazio ereduak sakon eta zehatz azalduko da.

#### 3. 1. AZTERKETA SUBJEKTUEN AUKERAKETA

---

Alderdi politikoa modu honetan definitu daiteke: *toda asociación voluntaria perdurable en el tiempo, dotada de un programa de gobierno de la sociedad en su conjunto, que canaliza determinados intereses sectoriales y que aspira a ejercer el poder político o a participar en él, mediante su presentación reiterada a los procesos electorales* (Cotarelo, 1985: 14). Bestalde, alderdi-sistema deritzogu, sistema politiko baten baitan nagusitzen diren alderdien egituratze eta harremantzeari. Sartori-ren (1992) ustez, alderdi politiko bat alderdi-sistemaren parte izateko prozesu politikoan eragiteko gai izan behar da; dala gobernua bereganatuz, betoa jartzeko ahalmena izanez, edota koalizioak sortzeko gaitasuna beregain hartuz. Irizpide hori kontuan izanda, zentzuzkoa da EAEko sistema politikoaren definitzerakoan zedarriz moduan Eusko Legebiltzarrean ordezkariak lortu daberen alderdiak kontuan hartzea. Hurrengo taulan Eusko Legebiltzarreko hamar hauteskunde deialditan (1980-2012) ordezkariak lortu daberen alderdiak eta alderdi koalizioak ageri dira, lortutako jesarleku kopurua barne.

### 3.1.TAULA. EAE-KO HAUTESKUNDE DEIALDI BAKOITZEAN ALDERDI ALA KOALIZIO BAKOITZAK EUSKO LEGBILTZARREAN LORTUTAKO JESARLEKU KOPURUA\*

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012
<b>EAJ-PNV</b>	25	32	17	22	22	21	26a	22a	30	27
<b>HB, EH, EHAk, EHBildu</b>	11	11	13	13	11	14	7	9	-	21
<b>PSE, PSE-EE</b>	9	19	19	16	12	14	13	18	25	16
<b>AP, PP</b>	2	7	2	6	11	16	18	15	13	10
<b>EPK, EB-IU, Ezker Anitza</b>	1		o.e.	o.e.	6	2	3	3	1	o.e.
<b>EA</b>			13	9	8	6	7a	7a	1	b
<b>Aralar</b>								1	4	b
<b>UPyD</b>									1	1
<b>UA</b>				3	5	2	1	o.e.		
<b>EE</b>	6	6	9	6						
<b>CDS</b>			2	o.e.						
<b>UCD</b>	6									

\* Taulan ageri diren zenbakiak alderdiek Eusko Legebiltzarreko hauteskunde deialdi bakoitzean lortutako jesarleku kopuruari egiten deutse erreferentzia.

- o.e. Ordezkaritza ez.
- a. Koalizioa: Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ) eta Eusko Alkartasuna (EA).
- b. EHBildun koalizioan Ezker Abertzalea, EA, Alternatiba eta Aralar

*Iturria:* norberak egina.

Alderdi-sistemaren zatiketa eta distantzia ideologikoa oinarri dauzan Sartori-ren (1992) alderdi sistema tipologia jarraituz, sistema demokratikoaren ezarpenaz geroztik, EAEn aniztasun polarizatua nagusitu izan dala esan daiteke. Izan ere, EAEko sistema politikoak aniztasun polarizatu moduan jotzeko Sartori-k definitzen dauzan zortzi ezaugarriak betetzen dauz:

1. Hauteskundeetan garrantzi handia dauan sistemaren kontrako alderdi politiko bat dago.
2. Aurkaritza aldebikoen existentzia baieztatu daiteke, izan be, ideologikoki antagonikoak diren alderdien arteko elkartasuna pentsaezina da.

3. Alderdi sistema multipolarra eta triangulu itxurako elkarreragiteduna da nagusi. Bi muturrak erdigune metrikoa kritikatu ohi dabe eta ez dabe modu zentripetuan borrokatzeko nahirik agertzen erdigunea beteta baitago. Horrela, muturretako botoemaileak finkatzeko, joera zentrifugoak indartzen dabez.
4. Inork ez dau zalantzan jartzen polarizazio altua eta alderdi sistemako muturreko alderdien arteko distantzia ideologikoa.
5. Bultzada zentrifugoak zentripetuekiko gailentzen dira gehiengoan; nahiz eta noiz edo noiz emon izan dan bultzada zentripeturik, alderdi sistema erdigune metrikoaren mesederako eta, era berean, sistemaren apurketa ekiditzea lortuz.
6. Sortzetiko egitura ideologikoen ondorioz, alderdi politikoaren artean desakordio politiko orokorrez gainera, oinarritzko printzipio eta auzietan be desadostasuna nagusitzen da.
7. Alderdi politikoek ezin beteko dabezan gehiegizko agintzak burutzen dabez sarri.
8. Muturreko aurkaritza “ez-arduratsua” erdigunean dagoen alderdiaren posizio zentrala betiketzen dau. Muturreko alderdiak boteretik kanpo gelditzen dira eta, modu horretan, aurkaritza “ez-arduratsua” jarraitu daikie. Gainontzeko alderdiak txandakatzeko periferikoan kokatzen dira, erdiguneko alderdiagaz koalizioan joateko aukera izanik. Halaber, gobernu erdiguneko alderdiagaz identifikatu ohi da, eta horrek aurkaritza “ez-arduratsua” burutzeko tartea eskaintzen deutse alderdioi.

EAEko alderdi sistemaren bi muturrak Ezker Abertzaleak eta Partido Popularrak betetzen dauzala esan daiteke eta zentro metrikoa, barriz, gobernuburu dan Euzko Alderdi Jeltzaleak. Tradizioz sistema-contrako alderdia Ezker Abertzalea izan da; halaber, azken urteotan alderdiak estrategia politikoa aldatu dau eta sistemaren baitan jokatzen hasi da.

Baina zeintzuk dira EAEko alderdi sistemaren zatiketa ideologikoa definitzen daben ardatzak? Batetik, abertzaletasuna eta, bestetik, ezker-eskuin ideologikoa.

- I. Abertzaletasun ardatza. Abertzaletasunaren ardatzaren bi muturrek izendapen desbardin asko jaso izan dabez: euskalduntasunaren muturrari nazionalista soilik, euskal nazionalista, independentista, etab. deitu izan jako, eta espainartasunaren muturrari espainiar nazionalista, konstituzionalista, autonomista, estatalista, zentralista, etab. Izenak izen, ardatz honen oinarrian identitate nazionala dago. Hain zuzen, identitate nazional edo aberri desbardinaren aldarrikapena: euskal aberria vs. espainiar aberria.

Asier Blasek (2011) ardatz honen ezaugarri bereizgarri moduan autodeterminazio eskubidea ezartzen dau, hau da, alderdi politikoek autodeterminazio eskubideraren onarpena ala gaitzespena burutzen daben. Horrela, mutur batean legokez euskal estatu independentea sortzeko erabakimena euskaldunei dagokiela defendatzen dabenak, eta beste muturrean erabakimena Espainiar Estatu osoarena dala defendatzen dabenak.

- II. Ezker - eskuin ardatza. Ezkerra eta eskuina terminoak oso erabiliak dira maila akademikoan ezeze maila sozialean ere bai. Erabilera orokortu horrek esanahi aniztasunari bidea zabaltzen deutso eta bere operazionalizazioa zaildu. De la Peñak (2001), Bobbio-ri jarraiki, bien arteko desbardintasun nagusia batzuek eta besteek bardintasun terminoari eskaintzen deutesen esanahian datzala baieztatzen dau. Hain zuzen, *la primera de ellas [la izquierda] sostiene que es más lo que une a las personas que lo que les separa y, en consecuencia, estima que la igualdad es un valor a conseguir en mayor o menor grado, mientras que la segunda [la derecha] interpreta como característica intrínseca de los pueblos y los seres humanos entre sí, por lo que no la considera –desde un punto de vista ético- como un valor que pueda orientar la acción política* (De la Peña, 2001: 26)<sup>84</sup>.

EAEko alderdi politiko guztiak bi ardatz inguruan sailkatu daitezke, eta hortaz, baita ikerketa honetan aztergai hartu diran alderdi politikoak be. Egitez, ikerketarako alderdi politikoak aukeratzeko jarraitutako irizpideak alderdi politikoen espektrorik politikorik-ideologikoa eta denboran zeharreko ikuspegia izan dira. Alegia, ikergai diren alderdi politikoei EAEko sistema politikoaren zatiketa ideologikorekin bi ardatzetan aukerakor diren kokatze guztiak islatzea eta 80 hamarkadaz geroztik EAEko alderdi sistemaren parte izatea. Horrela, ikerketa honetarako aztergai hartu diren alderdi politikoak honakoak izan dira: Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ), Ezker Abertzalea, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE), Partido Popularra (PP) eta Ezker Anitza.

Bost alderdi politiko horreek bi ardatz ideologikotan kokatu aurretik, bakoitzaren aurkezpen labur laburra egitea komeni da, sistema demokratikorekin ezarpen garaitik alderdi politikok bizi izan dabezan birmoldaketak (banaketak, bateratzeak, autodesegiteak, bersortzeak, etab.) be aintzat hartuta.

#### I. Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco (EAJ - PNV):

Euzko Alderdi Jeltzalea 1895ean gerra karlisten ostean sortu eban Sabino Aranak Euzkadirekin independentzia lortzeko asmoz. Alderdiaren izaera kontserbadorea eta katolikoa izan zan sorrera garaian. Egun, EAJk bere burua alderdi euskaldun, demokratiko, ez-konfesional eta humanista moduan definitzen dau, garapenari eta gizakiarentzako onuragarri izan daitezkean mogimendu guztien alde agertzen dana. Aipatu beharra dago, EAJk 1986an banaketa bat bizi ebala alderdiaren sektore batek alderdia itzi eta Euzko Alkartasuna sortu ebanean. Banaketaren motibatzailea EAEko lurralde antolaketaren eztabaida izan zan, Lurralde Historikoen Legean gauzatu zana.

<sup>84</sup>Balio materialisten eta postmaterialisten artean bereizketa proposatu eban Inglehart (1977, 1997) teorikorekin lanak aditzera emon dau, ezkerra eta eskuinaren arteko bereizketa norabide bardinzalean gizarte aldaketaren aurrean erakusten daben jarreraren oinarritzen bada be, luzera ezker-eskuin ardatzak gainontzeko gizarte gai zentralak be bereganatzen dauzela. Horrela, Blasak balio postmaterialista sozio-kulturalak EAEko alderdi politiko ezkertiarretan integratuz joan direla aditzera emon dau; besteak beste, askatasun sexuala, ingurugiroaren defentsa, etab. (Blas, 2011: 432-433).

EAJ IX. legegintzaldian salbu (2009- 2012) EAeko gobernuburu izan da, bakarka zein koalizioan.

## II. Ezker Abertzalea:

Lehen alderdi ezkertiar eta independentista 1930ean sortutako Eusko Abertzale Ekintza – Acción Nacionalista Vasca (EAE –ANV) izan zan. Halaber, gerra zibilaren ostean ETAK, eta bere inguruan antolatutako mogimendu politiko eta sozialek (Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimendua - ENAM), bereganatu eben kokatze ezkertiarren lidergoa. 1977an Francoren heriotzaren testuinguruan ENAMek Altsasuko Mahaia antolatu eban eta hortik sortu zan Herri Batasuna (HB) hauteskunde koalizioa. Geroztik, Ezker Abertzaleak izendapen desbardinak bereganatu izan dauz: Euskal Herritarrok, Euskal Herrietako Alderdi Komunista, Batasuna eta egungo Sortu dira nagusiak. Izendapen eraldaketok alderdi politiko barrien sorrera baino, alderdiaren estrategia politikoaren edota legez kanporatzeen erantzuna dira gehiago. Gaur egun Sortu EHBildu koalizio politiko ezkertiar eta abertzalearen baitan kokatuta dago, Eusko Alkartasuna (EAJren zatiketarik sortua 1986an), Aralar (Euskal Herritarroken banatze baten ondorioz sortua 2001ean) eta Alternatibagaz (Ezker Batua-Berdeaken zatiketarik sortua 2009an) batera.

## III. Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra (PSE-EE):

Partido Socialista Obrero Español-a (PSOE) 1879an sortu zan industriako langileak ideologia marxistaren inguruan batzeko asmoz. Partido Socialista de Euskadi (PSE), barriz, 1977an sortu zan federazio sozialista euskaldun moduan<sup>85</sup>. 1993an PSE Euskadiko Ezkerragaz (EE) fusionatu zan PSE-EE alderdi federatu barria sortuz. Egungo PSE-EE ideologia sozialdemokrataren baitan kokatu daiteke. Aipatzekoa da PSE-EEK lautan partekatu izan dauala EAeko gobernua EAJgaz eta azken honen gidaritzan (III, IV eta V, XI.en legegintzaldietan); eta beste behin bera izan dala gobernuburu (IX. legegintzaldian)

## IV. Partido Popular (PP):

Partido Popularra Alianza Popularraren (AP) ondorengoa da. AP zenbait alderdi politiko nazionalista espainolen eta kontserbadoreen federazio moduan sortu zan 1976an frankismoko sektore eskuindarrenak batzeko helburuagaz. Aipatu beharrekoa da, AP euskal autonomiaren kontrakoa zala. 1989an bere irudi oso eskuindar eta nazionalista espainola aldatzeko Partido Popular (PP) alderdian birsortu zan, zentro-eskuindar irudia indartuz eta euskal autonomia onartuz.

<sup>85</sup>Aipatzekoa da, lehenengo unean PSEren baitan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako talde-probintzialak batzen zirala eta autodeterminazio eskubidearen alde agertu zirala. 1982an baina Nafarroako talde-probintziala banatu egin zan Partido Socialista de Navarra sortuz. Une horretatik aurrera, PSEk bere leku-hartze politikoa aldatu egin eban, lau lurraldeen bateraketa autonomikoaren kontra kokatuz.

## V. Ezker Anitza:

Ezker Anitza garaiko Izquierda Unida - Ezker Batuaren (IU-EB) oinordekoa da. 2011an sortu zan EB-Berdeak alderdian bereizten ziran bi sektoreen artean gertatutako banaketatik. Ezker Anitza da Espainiar Estatuko Iuren EAEko erreferentzia, hau da, Iuren EAEko homologoa. IU 1986an sortu zan hauteskunde koalizio moduan eta 1989an mogimendu politiko-sozial izatera pasatu zan. 2004az goerotik alderdi autonomo moduan jokatu dau. Ezker Anitza alderdi euskalzale, ezkertiar, errepublikano, ekologista eta feminista moduan definitzen dau bere burua, eta Espainiar Estatuarekiko atxikidura-askearen alde agertzen da (beraz, autodeterminazio eskubidea defendatzen dau). Bederatzi legegintzalditan zehar modu egonkorrean Eusko Legebiltzarrean ordezkari izan eta ostean, 2012ko hauteskundeetan ordezkari hori galdu eban alderdiak.

### 3.2.TAULA.AZTERGAI DIREN ALDERDI POLITIKOEN BIZITAKO ERALDAKETAK EUSKO LEGEBILTZARREKO LEGEGINTZALDIKA

Alderdi politikoak		Alderdi politikoaren eraldaketak	
		Legegintzaldiak	Izena
1.	Euzko Alderdi Jeltzalea	I – X	EAJ: Euzko Alderdi Jeltzalea
2.	Ezker Abertzalea	I – V VI – VII VIII X	HB: Herri Batasuna EH: Euskal Herritarrok EHAK: Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista EHBildu
3.	Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra	I – IV V – X	PSE-PSOE: Partido Socialista de Euskadi PSE-EE: Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra
4.	Partido Popular	I – III IV – X	AP: Alianza Popular PP: Partido Popular
5.	Ezker Anitza	I III - IX X	EPK: Euskadiko Partidu Komunista EB: Ezker Batua - Berdeak Ezker Anitza

*Iturria: norberak egina.*

Esandako guztiak aintzat hartuta, ikerketa lan honetan aztergai diran bost alderdi politikoak modu honetan sailkatu daitezke sistema-politikoaren polarizazioa dakarren bi ardatz ideologikoetan:

### 3.3. TAULA. AZTERGAI IZANGO DIREN EAEKO ALDERDI POLITIKOAK ALDERDI SISTEMAKO BI GATAZKA DIMENTSION NAGUSIETAN LEKUTUTA

		Dimentsio sozioekonomikoa	
		Ezkerreko sentsibilizazioa	Eskumako sentsibilizazioa
Dimentsio nazionalista	Autodeterminazio eskubidearen aldeko sentsibilizazioa	Ezker Abertzalea, Ezker Anitza	EAJ
	Autodeterminazio eskubidearen kontrako sentsibilizazioa	PSE, PSE-EE	AP/PP

*Iturria:* norberak moldatua (Blas, 2011: 436).

Dana dala, lekutze ideologikooi begira zenbait argitzapen egitea komeni da. Batetik, dimentsio nazionalistaren baitan autodeterminazio eskubidearen gaineko leku-hartzearen ordez identitate nazionala kontuan hartu izan bagendu, Ezker Anitza PSE-EEren kuadrantean kokatuko litzateke. Izan be, Ezker Anitzaren erreferentzia identitarioa Espainiar Estatu da, nahiz eta aniztasunari tarte handia izten deutson. Bestetik, dimentsio sozioekonomikoari dagokionean, badira alderdiak euren burua zentro-eskuindartzat jotzen ez dabena. Horixe da EAJren kasua. Blasen (2011) ustez, EAJ gainontzeko alderdi abertzaleak baino posizio eskuindarragoan egoteak daroa zentro-eskuinera. Egitez, 2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde deialdian aurkeztutako hauteskunde programaren proposamen politikoak aztertuta, 1etik 10erako eskalan - 1 ezker muturra izanik eta 10 eskuin muturra- EAJk 5,9 bereganatu dau (Gómez & Cabeza, 2014). Hortaz, datuon arabera, zentro-eskuina da EAJren kokaleku ideologikoa<sup>86</sup>.

<sup>86</sup>CISen 2012ko Barometroko datuak kontuan hartuta, herritarrek alderdia 1etik 10erako eskalan - 1 ezker muturra izanik eta 10 eskuin muturra- EAJ 5,67an kokatu dabe; EHBildu 1,74an; Ezker Anitza 2,89an; PSE-EE 4,6n eta PP 8,85ean (CIS, 2012).



## 3. 2. AZTERKETA DOKUMENTUEN AUKERAKETA, BILKETA ETA PRESTAKETA

---

Metodologia kapituluaren bigarren atal honen helburua azterketa dokumentuen, hau da, hauteskunde programen aukeraketa, bilketa eta prestaketaren barri emotea da.

### 3. 2. 1. Hauteskunde programak azterketa dokumentu moduan aukeratzea

---

Hauteskunde programa gobernu programa bat da, alderdia gobernoburu izateko hautatua bada indarrean jartzen saiatuko dana.

Alonso eta besteren arabera, hauteskunde programen azterketak berebiziko interesa dauka alderdi politiko eta gobernuen asmo politikoen ikuspuntu bakarra eskaintzen dabelako (Alonso, Volkens & Gómez, 2012). Are gehiago, *Manifesto Project* ikerketa taldearen aburuz, alderdi politikoen lehenasun politikoak aztertzeko modu aproposena hauteskunde programen eduki azterketa burutzea da; lehenasunak modu honetan ulertuta: *las opiniones, positivas o negativas, que mantienen los partidos sobre objetivos, tareas, posicionamientos y temas del debate político en torno a intereses y conflictos materiales e ideológicos* (Alonso, Volkens & Gómez, 2012: 48). Hortaz, hauteskunde programak alderdi politikoen ideologia politikoaren – hizkuntza ideologia barne- adierazle be badirela baieztatu daiteke.

Era berean, esan beharra dago, hauteskunde programa dala alderdi politiko osoaren izenean autoritatez egindako politika aitorten bakarra; hau da, hauteskunde programak alderdiaren lehenasunen inguruko adierazpen ofizialak dira, alderdi osoa, eta ez alderdiaren zati bat edota alderdiko banakakoak, ordezkatzeko dauzana (Volkens, 2002). Egitez, hauteskunde programak alderdiko elite batzordeak idatziak izaten dira edota alderdiaren kongresuan legalki berretziak.

Gainera, Alonso eta besteren hitzak ahotara ekarri, hauteskunde programetatik lortutako datuak *representan el universo de casos y no una muestra* (Alonso, Volkens & Gómez, 2012: 49). Hau da, autoreon aburuz hauteskunde programetan *los datos recogidos pertenecen a una población, no a una muestra, de documentos oficiales y únicos que representan las preferencias del partido en unas elecciones concretas* (Alonso, Volkens & Gómez, 2012: 50). Hortara, hauteskunde programak legegintzaldirako alderdien gobernu programa global moduan ulertu daitezke, politika mailan lantzen diren gai desbardinak bilduko dauzana; besteak beste, hizkuntza politika.

Halaber, aitortu beharra dago badirala hauteskunde programekiko tentuzko jarrera hartzen daben akademikoak be. Hauteskunde programak boto-emaleen babesaren lortzeko norgehiagoka testuinguruan idatziak direnez, alderdiak iritzia dauan gai-eremu guztia besarkatzeko

arriskua identifikatzen da; gaiok alderdiaren eguneroko diskurtsoan lehenetsunezko izan zein ez (Leonisio, 2013). Ildo berean, kritikoen ustetan, boto-emaileek ez dabez hauteskunde programak irakurtzen eta, horregaitik, alderdien helburua boto-emaileak erakartzeko promesa zerrenda hutsala egitea baino ez da, izaera loteslea eukitzeko zehaztasun nahikorik ez dauana (Hofferbert, Klingemann & Volkens, 1995). Halanda be, zilegi da pentsatzea, boto bilaketan alderdi politikoek hauteskunde programetan euren irizirik baretu, gorde, etab. daikiezan arren, norgehiagoka testuingurua bera alderdi politikoen leku-hartzeak identifikatzeko onuragarria izan daitekela; posizio desbardinak indarra daben gaietan behinik behin. Aldi berean, hauteskunde programen azterketa kuantitatiboek aditzera emon dabe dokumentuok promesa lausoz gainera promesa zehatz dezente ere biltzen dabezala. Holan be, zenbait lan akademikok (Bara, 2005; Ralling, 1987) ezagutarazi dabe, batzbestez, alderdi politikoek hauteskunde programetan aurkezten dabezen promesa zehatzen %70 bete egiten dabezala.

Hauteskunde programen azterketak eskaintako beste abantaila garrantzitsu bat zera da: hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politiko guztiek hauteskunde programa idatzi ohi dabenez, sistema politiko bereko zein desbardinako alderdien arteko konparaketak egiteko material erkagarri ezin hobea eskaintzen dabela. Gainera, hauteskunde programak aldian-aldian argitaratzen direnez, denboran zeharreko azterketa diakronikoak burutzeko aukera eskaintzen dabe, alderdien lekutze politikoen garapena ezagutzera ahalbidetuz (Volkens, 2002).

Bestalde, hauteskunde programen aukeraketari dagokionean, alderdi politikoek gobernu programak hauteskunde maila guztietan aurkeztu ohi dabez -hauteskunde estataletan, autonomikoetan, foraletan zein udalekoetan-. Ikerketa lan honetan EAEko ikuspegi orokor eta osoa jaso nahi da. Horrela, azterketa dokumentu moduan hauteskunde programa autonomikoak aukeratu dira. Ikuspegi diakronikoa aintzat hartzeko, 1980ko lehen legebintzaldiaz geroztik eta 2012ko hauteskunde deialdira arte ospatu diren Eusko Legebiltzarreko hauteskunde deialdi guztietako programak hautatu dira. Hamar guztira.

### 3.2.2. Hauteskunde programen azterketa corpusa

---

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programak honako artxibategi, liburutegi eta egoitzetan aurkitu dira:

- Eusko Legebiltzarreko Liburutegia (Vitoria-Gasteiz).
- Beneditarren Artxibategia (Lazkao)
- Euskal Biblioteka (Labayru ikastegia) (Derio).
- Sancho el Sabio Fundazioa (Vitoria-Gasteiz).

- Sabino Arana Fundazioa (Bilbao).
- EAJren egoitza, Sabin Etxea (Bilbao).
- PSE-EEren egoitza (Bilbao)<sup>87</sup>.

Ikerketarako dokumentu corpora 45 hauteskunde programek osatzen dabe. EAJ, PSE-EE eta PPren kasuan Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programen unibertsoa 10 hauteskunde programakoa da. Ezker Anitzaren kasuan 9 dira hauteskunde programak -1980, 1986-2012- eta Ezker Abertzalearenean 6<sup>88</sup> – 1990-2005, 2012.

Hauteskunde programen bilketa prozesua arrakastatsua izan dala baieztatu beharra dago. Izan be, dokumentu corpusaren %91 batzea lortu da; guztira 41 hauteskunde programa. EAJ eta PSE-EEren kasuan hauteskunde programa guztiak lortu dira. PP eta Ezker Abertzalearen kasuan bakarrak huts egin dau eta Ezker Anitzarenean binak (3.4. taula).

### 3.4. TAULA. DOKUMENTAZIO CORPUSA: AZTERGAI DIREN BOST ALDERDI POLITIKOEN HAUTESKUNDE PROGRAMA AUTONOMIKOEN KOPURUA ETA LORTUTAKOEN ZENBATEKOA

	Corpus osoa	Lortutakoak
Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacioanalista Vasco (EAJ-PNV)	10	10
Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE, PSE-EE)	10	10
Alianza Popular (AP), Partido Popular (PP)	10	9
Herri Batasuna (HB), Euskal Herritarrok (EH), Euskal Herriko Alderdi Komunista (EHAK), EHBildu	6	5
Ezker Batua – Berdeak, Ezker Anitza	9	7
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>41</b>

*Iturria: norberak egina.*

<sup>87</sup>Hauteskunde programen eskaera aztergai diren bost alderdi politikoen egoitzetan burutu zan, baina EAJ eta PSE-EE izan ziren gure eskaerari erantzun eutsien bakarrak.

<sup>88</sup>Ezker Abertzalearen kasuan, aipatu beharrekoa da, 70 hamarkada amaieraz geroztik euskal alderdi-sistemaren parte izan dan arren, bere hauteskunde deialdietako parte hartzeak berezitasunak bildu dauzala. Ezker Abertzaleak ez eban 1988ra arte hauteskundeetara programarik aurkeztu (De la Peña, 2001). 2009an, barriz, ezin izan zan hauteskundeetara aurkeztu Auzitegi Gorenak legez kanporatu ebalako. Ondorioz, beste alderdi politikoez alderatuz hauteskunde programa gitxiago izan dira aztergai.

Argitu beharra dogu, alderdi politiko gehienek 1980ko hamarkadaz geroztik hauteskunde programak elebitan egin dabezan arren, azterketarako gaztelaniazko bertsioa erabiltzea erabaki dala; izan be, euskaraz ez dira gaztelaniaz beste hauteskunde programa lortu eta konparagarritasunari begira egokiagozat jo da dokumento guztiak hizkuntza bakarrean aztertzea<sup>89</sup>.

### 3. 2. 3. Datu baseen prestaketa

---

Gaur egunean, eduki azterketak ordenagailuaren laguntzaz burutzen dira. Eskuz burututako ikerketetan be ordenagailua funtsezkoa da, are eta funtsezkoagoa azterketa corpus handiak erabiltzerakoan edota azterketa kuantitatiboa burutu gura danean. Aztergai diren azkenengo bi legegintzaldietako (2009, 2012) programak salbu, gainontzeko corpus guztia papel formatoan bildu da eta, ondorioz, hauteskunde programen digitalizazio prozesu osoa burutu behar izan da<sup>90</sup>.

Azterketa corpora hizkuntzei buruz diharduen hauteskunde programen atalek osatzen dabe. Hizkuntzei buruz diharduen testu zatien bilaketa burutzeko hauteskunde programa bakoitza, osorik eta dokumentu indibidualetan, ATLAS.ti eduki azterketa kualitatiborako softwarean gorde da eta hizkuntzen gaineko hitz-gakoen zerrenda burutu da. Gero, ATLAS.ti programaren bilaketa aplikazioan hitz-gakoak banan-banan sartuz, hizkuntzei buruz diharduen testu zatiak sailkatu dira. Hauteskunde programa bakoitzeko dokumentu bat sortu da eta programa guztiekaz eduki azterketan ikergai izango dan azterketa corpora osatu da.

## 3. 3. EDUKI AZTERKETAREN DISEINUA: ALDAGAI ANITZEKO ETA ALDIBEREKO KODIFIKAZIO EREDUA

---

Alderdi politikoen diskurtsoak aztertzeko eduki azterketa teknika erabili da, hain zuzen, *[una] técnica de investigación para formular inferencias válidas y reproducibles a partir de ciertos textos (u otro material con significado) en los contextos de su uso* (Krippendorf, 2004: 18). Azpimarratu beharra dago, eduki azterketa ez dala metodologia homogenea. Egitez, oso gitxitan erabiltzen da modu bardintsuan. Horren kontrara, ikerketa bakoitzak bere eduki

---

<sup>89</sup>Konparagarritasunaren alde, hauteskunde programak gaztelaniaz aztertzea erabaki da eta, zehaztasunaren alde, azterketa atalean alderdi politikoen berbaz-berbazkoa hizpide izan danetan aipua gaztelaniaz mantentzea.

<sup>90</sup>Irudiak testu arrunt bilakatzeko OCR (*Optical Character Recognition*) prozesua jarraitu da, testu azterketarako ABBY FineReader softwarea erabilia.

azterketa propioa eraiki ohi dauala baieztatu daiteke; bere ikerketa objektu eta helburuetara egokituz<sup>91</sup>. Orrialdeotan deskribatuko dan eduki azterketa be ikerketa proiektu honetarako apropos eraikitakoa da. Labur esanda, diseinatutako eduki azterketa eskuz burututakoa da, izaera kuantitatiboa dau eta aldagai anitzeko eta albidereko kodifikazio eredia jarraitzen dau.

Hurrengo orrialdeetan hainbat gai landuko dira. Lehenengo, ikerketarako diseinatutako eduki azterketak oinarri eta aurrekari dauan *Manifesto Project* eta *Regional Manifestos Project* ikerketa proiektuen eta eurretan erabiltzen dan eduki azterketaren barri emongo da, proiektuotan erabilitako eduki azterketa ikerketa objektura zein neurritan dan aplikagarria azalduz. Kodifikazioa eskuz burutzea eta kodifikazio-unitate moduan esaldi-muina erabiltzea dira, besteak beste, eduki azterketa mota horretatik hartutako elementuak. Horrela, kapituluaren bigarren atalean, eskuzko kodifikazioa zertan datzan azalduko da eta, hirugarrenean, kodifikazio unitate dan esaldi-muinaren nondik norakoak esplikatuko dira. Laugarren atalean, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren operazionalizazio prozesu bikoitza azalduko da: aldagai teorikoetatik ikerketa aldagaietara eta ikerketa aldagaietatik kategoria eta kodeetara. Bostgarren atalean, kodifikazioa burutzeko oinarritzko zenbait irizpide eskainiko dira. Seigarren atalean, diseinatutako eduki azterketaren balio eta fidagarritasuna bermatzeko hartuko diren neurriak azalduko dira. Eta amaitzeko, zazpigarrenean, kodifikazio prozesua eta kodifikazioaren bidez eraikitako datu basea izango dira hizpide.

### 3.3.1. Aurrekariak: Manifesto Project eta Regional Manifestos Project

---

Ikerketa honetan eduki azterketa burutzeko erabili dan metodologia *Manifesto Project*-ek (70 hamarkadaz goerotik) eta *Regional Manifestos Project*-ek (2010az goerotik) diseinatutakoan funtsatua dago. Bi proiektu horreen helburua alderdi politikoan lehenetsun eta proposamen politikoak aztertzea da, alderdien hauteskunde programak ikerketa dokumento moduan hartuta.

*Manifesto Project*-ek Estatu mailako hauteskunde programak aztertzea dau helburu eta *Regional Manifestos Project*-ek, barriz, eskualdetako hauteskunde programak. Biek ikuspuntu konparagarria dabe xede, hau da, eraikitako metodologia herrialde desbardinatako alderdien manifestoak erkatzeko prestatua dago.

Proiektuotan baliatutako metodologia kuantitatiboa da, hau da, helburua hauteskunde programetan alderdiek adierazten dabezan proposamen politikoak sailkatu eta kontabilizatzea da. Horretarako, hauteskunde programa osoa esaldi-muin izeneko azterketa unitateetan banatu, eta politika publiko eta lehenetsun politikoak modu zehatzean biltzen dauzan

---

<sup>91</sup>Horrek ez dau esan gura eduki azterketa mota desbardinak bereiztu ezin daitekezanik. Egitez, badira eduki azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak, eskuz burututako eduki azterketak zein ordenagailuz egindakoak, etab.

klasifikazio eskema bat erabiliz kode bat atxikitzen jako. Behin hauteskunde programa guztia eskuz kodetuta, lehenetasun edo proposamen politiko bakoitzak zenbateko presentzia dauan aztertu daiteke, hau da, alderdi bakoitzak gai desbardinei eskaintzen deuten garrantzia neurtu daiteke ehunekoak erabiliz (*saliency score*).

*Regional Manifestos Project*-ek jatorrizko *Manifesto Project*-en metodologia egokitu dau. Bere azterketa esparrua eskualdetako hauteskundeak izanik eta eurretan eskumenen aferak dauan zentralitatea aintzat hartuta, proiektu barriak alderdiek administrazio maila desbardinaren artean eskumenen banaketa zelan burutu nahi dauan aztertzeko bigarren klasifikazio eskema bat eraiki dau. Modu horretan, *Regional Manifestos Project*-ek lehenetasun politikoak eta eskumen banaketen zer-nolakotasuna kuantifikatu eta erkatzen dauz, sistema politiko bereko alderdien artean, zein herrialde desbardinetakoen artean; modu sinkronikoan zein diakronikoan.

Jatorrizko *Manifesto Project*-en metodologia azterketaren helburuetara oso ondo egokitzen da, bai erabilitako azterketa unitateekaitik (esaldi-muina), bai baliatutako kodifikazio ereduagaitik (aurretiaz eraikitako kategoria-sistemaren bidez burututako eskuzko kodifikazioa). Halanda be, azterketa hau asmo handikoa da, proposamen politikoez gainera ideologia be aztergai dalako, eta aztergai bereiztu gainera. Era berean, ikerketaren asmoa politika publikoak modu orokorrean aztertzea baino, gai konkretu bat -hizkuntzen gai-modu sakonean egitea da. Bi puntuok kontuan izanda, lan honen iker-asmoetara egokitu dan metodologia diseinatu behar izan da, betiere *Manifesto Project*-aren metodologia oinarri hartuta. Hurrengo ataletan, eraikuntza horren nondik-norakoak azalduko dira modu zehatzean.

### 3.3.2. Kodetzailea: ordenagailua eta pertsona

---

Kodifikazioa prozesatu bako datuak edukiaren ezaugarri zehatzen deskribapena ahalbidetuko daben unitateetan eraldatzea eta modu sistematikoan biltzea da (Holsti, 1969). Kodifikazioa eskuz zein ordenagailuaren bidez burutu daiteke (edo bien arteko konbinazioaren bidez). Kodifikazio prozesuon arteko desbardintasun nagusia kodifikazio-sistemaren eraikuntzan eta aplikazio moduan datza.

Ordenagailuek, euren kabuz, aurrez definituriko kodeketa sistema bat aplikatu daikie testu batean eta kodeen agerpen maila modu kuantitatiboan landu (hitzen maiztasunak eta hitzen arteko hurbiltasun espazialak aztertuz, adibidez). Kodifikazio prozesu guztia ordenagailuaren bidez burutzen danean (*computer-aided text analysis, CATA*), ordenagailua bera izaten da, ikerlariaren gainbegiratzeagaz, kodifikazio-sistema eraiki eta dokumentuari kode zerrenda esleitzen deutzona. Halanda be, beti egongo da kodifikatzaile bat (edo talde bat) kode sistemaren eraikuntzan inplikaturik, prozesuaren faseren batean ez bada bestean. Aipatzekoa

da, gainera, ordenagailuek euren kabuz burututako eduki azterketa kuantitatiboa bakarrik izan daitekela.

Pertsonak burututako kodifikazioan, barriz, ikerlariak berak eraikitzen dau kodifikazio-sistema eta berak esleitzen deutso kodifikazio-unitate bakoitzari dagokion kodea (nahiz eta aurrez diseinatutako kodeketa sistema bat modu hertsian aplikatu daiken, kode sistemari aldaketak egin barik, ordenagailu batek egingo leuken moduan).

Gaur egun, hala ere, gehienetan eduki azterketa burutzerakoan eskuzko eta ordenagailuzko kodifikazioak konbinatu egiten dira. Esaterako, posible da kodifikazio-sistema eskuz eraikitzea eta behin eraikitakoan ordenagailuak berak aplikatzea berau dokumentu desbardinei, edota kodifikazio guztia eskuzkoa izan arren, ordenagailuan bertan burutzea azterketa.

Testuaren kodeketa pertsona batek edo ordenagailu batek egiteak abantailak eta desabantailak daukaz. Egitez, baten abantailak bestearen desabantaila izan ohi dira, eta alderantziz. Jokoa eduki azterketak bete beharreko baliozkotasun eta fidagarritasun ezaugarrietan datza. Baliozkotasunak kodifikazio-sistemaren baitan eraikitako aldagaiak ikerlariak neurtu gura dauana neurtzeko gai izatea esan gura dau. Hau da, aldagaien eta aldagaiak ordeztzen dauan kontzeptu abstraktuaren artean baliozkotasuna egotea, ordezkagarriak izatea (Krippendorf, 2004). Gure kasuan, hain zuzen be, kodifikazio-sisteman sortutako aldagaiak alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren ordezkagarri izatea. Bestalde, eduki azterketa fidagarria danean kodifikatzaile desbardinek dokumentu berbera kodifikatzerakoan emaitza bardinak ala antzekoak lortuko dabez behin eta berrero<sup>92</sup>. Pertsonak burututako kodifikazioaren indargunea eskaintzen dauan baliozkotasunean datza (Bara, Weale, Biquelet, 2007), neurri handi batean; ordenagailuarena, barriz, bere fidagarritasunean.

Pertsonak, ordenagailuek edota bien artean egindako kodifikazioen artean aukeratzea azterketa kontzeptuen eta dokumentuen testuinguruaren konplexutasunean datza Alonso eta besteren aburuz (Alonso, Volkens & Gómez, 2012: 22). Ikerketa lan honen konplexutasun maila handia da, azterketa kontzeptuen barne izaera askotarikoa, bi kontzeptuen izaera konpartitu eta sarritan uztartua, eta azterketa dokumentuen gardentasun mugatua dala eta. Horregaitik, bai kodifikazio-sistema eraikitzerakoan, zein kodifikazio-unitateak bereizterakoan eta kodifikazio-sistema kodifikazio-unitatei esleitzerakoan, ordenagailu bidezko autokodifikazioa baino aproposagotzat jo da kodetzaileak eskuz burututakoa, baliozkotasunari dagokionean ezeze fidagarritasunari dagokionean bere bai. Kodetzaileak burututako kodifikazioaren egokitasuna, baliozkotasunari eta fidagarritasunari dagokionean, hurrengo ataletan kodifikazio eredia azaldu ahala esplikatu da sakontasunez.

<sup>92</sup>Eduki azterketaren teorizazioan erreferentziazkoa dan Krippendorffek (2004) baliozkotasuna eta fidagarritasun mota desbardinak bereizten dauz. Guk aldagaien baliozkotasuna eta prozeduraren errepikagarritasuna, hau da, fidagarritasuna izan doguz hizpide.

### 3.3.3. Kodifikazio-unitatea: esaldi-muina

---

Dagoeneko aipatu dan lez, hauteskunde programen eduki azterketa burutzeko erabili dan kodifikazio-unitatea edo erregistro-unitatea esaldi-muina da. Erregistro unitatea da *la mínima porción del contenido, de cada unidad de muestreo*<sup>93</sup>, *que el investigador aísla y separa* (De la Peña, 2001: 106). Esaldi-muina, barriz, argumentu independente bat biltzen dauan hitz-kate moduan definitua izan da. Bere gehienezko luzeera esaldia dan arren, sarritan esaldi baten azpian esaldi-muin desbardinak bereizten dira.

Werner, Lacewell eta Volkens-ek (2011) esaldi-muinak bereizteko oinarritzat argumentazioa hartzen danean, beroneek banatzeko giltza horrela azaltzen dabe: helburua ez da esaldiaren atal edota banakako hitzei aplikagarriak izan dakiozan kategoría edota azpi-kategoría guztiak atxikitzea. Helburua esaldiaren argumentu orokorra identifikatzea da. Hortaz, bakarrik banatuko dira esaldi-muinetan barriak diren argumento bakarrak.

Ikerketa honetan, helburua, esaldien argumentazio orokorrak identifikatu eta esaldi-muinetan bereiztea baino, alderdiaren diskurtsoak euren hizkuntza politikaz eta ideologiaz eskaintzen deuskun informazio guztia ahalik eta modurik oso eta zehatzenean biltzea da. Horregaitik, azterketa honetarako, Werner eta Volkens-en esaldi-muinak bereizteko irizpidea zabalegia da; izan be, esaldi baten argumentu orokorrak hizkuntza politika proposamen bat biltzeaz gainera, sarritan proposamenaren zergaitia, justifikazioa, etab. be beregain hartzen dauz. Guretzako, ekimena eta zergaitia, justifikazioa, etab. alkarregandik bereizi beharreko informazioak dira; ekimena hizkuntza politika proposamena dalako, eta zergaitia edota justifikazioa beronen inguruan biltzen dan adierazpen ideologikoa. Hortaz, ikerketa honetan esaldi-muinak banatzeko jarraitu beharreko lehenengo irizpide nagusia hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia esaldi-muin bereiztuetan banatzea izan da.

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren arteko bereizketa egitea oso jarduera labankorra da, neurri handi batean bi errealitateak alkarrerri uztartuta dagozalako, eta proposamen politikoak eurak be ideologiaz kutsatuta dagozalako<sup>94</sup>. Horretaz jakitun eta, era berean, gure ikerketaren izateak bien arteko bereizketa argia eskatzen dauala kontuan hartuta, banaketa egiteko honako irizpidea jarraitu da: esaldi batean bildutako ekimen proposamen bakoitzak edota hizkuntza politikagaz lortu gura dan helburuei eskeinitako adierazpide bakoitzak hizkuntza politika izaeradun esaldi-muin bat osatuko dau; eta, aldi berean, ekimentzat jotzen ez dan esaldiaren atalean, hizkuntza ideologia trataera jasoko dauan horretan, berezko funtsa daben argumentazio oso eta partzial guztiek esaldi-muin askeak osatuko dabez. Holan be, Werner, Lacewell eta Volkens-ek (2011) adierazten dabenaren kontrara, ikerketa honetan, esaldi zati batek entitate propioa badau, hau da, hitz-kate bereizgarria bada, eta kategoría edota azpi-kategoría aplikagarriak badauz, esaldi-muin aske

<sup>93</sup>Ikerketa honetan *unidad de muestreo* edo laginketa unitateak hauteskunde programak dira.

<sup>94</sup>Ikusi “2.2.1. Hizkuntza politika hizkuntza ideologiaren eraginpean” atala.



moduan identifikatuko da beti. EAJren hauteskunde programa atal bat adibidetzat hartuta, esaldi-muinak modu honetan bereiztuko litzatekez:

### 3.5.TAULA. HAUTESKUNDE PROGRAMA TESTU ZATI BATEN BANAKETA ADIBIDEA ESALDI-MUINETAN

Hauteskunde programa testu zatia
Realizar una adecuada pedagogía social a favor de considerar la promoción y garantía progresiva del uso del euskera como factor de convivencia y cohesión social, y a favor de una efectiva igualdad de oportunidades de uso lingüístico, incrementando el prestigio social del euskera. Todo ello con el objetivo de avanzar con el mayor consenso social posible hacia un bilingüismo social cada vez más armonioso, equilibrado e igualitario (EAJ, 2012).
Hauteskunde programa testu zatiaren banaketa esaldi-muinetan
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Realizar una adecuada pedagogía social</li> <li>2. a favor de considerar la promoción y garantía progresiva del uso del euskera</li> <li>3. como factor de convivencia</li> <li>4. y cohesión social,</li> <li>5. y a favor de una efectiva igualdad de oportunidades de uso lingüístico,</li> <li>6. incrementando el prestigio social del euskera.</li> <li>7. Todo ello con el objetivo de avanzar con el mayor consenso social posible</li> <li>8. hacia un bilingüismo social</li> <li>9. cada vez más armonioso, equilibrado e igualitario.</li> </ol>

*Iturria: norberak egina.*


#### 3.3.4. Operazionalizazio prozesua

Operazionalizazioa azterketa kontzeptuak edota aldagaiak azterketa unitateak sailkatzeko kategoria kontzeptual multzo batean eraldatzeko prozesua da (Alonso, Volkens & Gómez, 2012). Operazionalizazio prozesua abiarazteko, Berg-en ustez, bereziki inportantea da lanean zehar definizio eta “irudi mental” bera mantentzeko definizio operazionalizatzaileak erabiltzea (Berg, 2000: 26). Definizio horreek kontzeptu baten ikerketarako esangura zehaztu eta beronen existentzia neurtzeko irizpideak eskaintzen dabez.

Gure esparrura ekarrita, hauteskunde programen eduki azterketaren bidez hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia dira ikertu nahi diren bi errealitateak. Hizkuntza politika

dira *deliberate and future-oriented activities aimed at influencing or modifying the language behaviour of a speech community or society* (Swann, Lillis & Mesthrie, 2004: 173). Hizkuntza ideologia, barriz, *set of shared attitudes and beliefs about language, underpinned by certain social and cultural values* (Swann, Lillis & Mesthrie, 2004: 174). Beraz, definizio honeei jarraituz, hizkuntza politikak ekimen politikoak dira eta hizkuntza ideologiak hizkuntzen inguruko jarrera, sinismen eta balioak. Bi definiziook hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren izatasunera hurbiltzen gaitue. Halanda be, euren ulermen sakonagoa lortzeko informazio lagungarriak beharrezkoak dira. Hortara, ikerketa lan honetan, aztergai diren bi azterketa kontzeptuok modu zabalean landu gura dira, ekintza eta balioak barnean hartuz eta, era berean, gaindituz; hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren ikuspegi ahalik eta osoena begitaratzeko. Horrek, kodifikazio-sistema aldagai anitza eta aldiberekoa eskatzen dau. Aldibereko kodifikazioa deritzogu (*to the application of two or more different codes to a single qualitative datum, or the overlapped occurrence of two or more codes applied to sequential units of qualitative data* (Saldaña, 2009: 62). Helburua esaldi-muin bakoitzak hizkuntza politikaz edota hizkuntza ideologiak eskaintzen dauan informazio guztia edo ia aintzat hartuko dauan kodifikazio-sistema eraikitzea da. Baina egiteko horrek azterketa-kontzeptuen operazionalizazio bikoitza eskatzen dau: lehenengo, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia azterketa kontzeptu edo aldagai teoriko konplexuak euren ordezkagarri izango diren ikerketa aldagai simple eta osagarrietan eraldatzea; bigarrena, ikerketa aldagai sinpleok kategoria edo kode zerrendetan eraldatzea.

### 3.6. TAULA. OPERAZIONALIZAZIO PROZESUA



Iturria: norberak egina.

Azterketa-kontzeptuak edo aldagai teorikoak ikerketa aldagai bihurtzeko prozesuak eta ikerketa aldagaiok, era berean, kategoria zerrenda bilakatzeak berebiziko garrantzia dau, eduki azterketaren balioa bere egokitasunean oinarrituko dalako, hein handi batean.

#### 3.3.4.1. Lehenengo operazionalizazio prozesua: aldagai teorikoetatik ikerketa aldagaietara

Hurrengo lerroetan operazionalizazio prozesuaren lehenengo fasearen nondik-norakoak azalduko dira, hau da, aztergaira egokitutako ikerketa aldagaien diseinua zelan burutu dan esplikatu da.

Azterketarako eraikitako ikerketa aldagai anitzeko kodifikazio-sistemaren nondik-norakoak *eduki mota* izeneko aldagaiaren bidez azaltzen hasia aproposa da, esaldi-muinen banaketa irizpideen eta aldagai anitzeko kodifikazio-sistemaren artean zubi lana burutzen daualako. *Eduki mota* aldagaiaren egitekoa esaldi-muina hizkuntza politika ala hizkuntza ideologia moduan sailkatzea da. Hizkuntza politika moduan sailkatu dira hizkuntza politika proposamenak eta hizkuntza politikagaz lortu gura diren azken helburuei eskainitako adierazpenak. Bestelako informazioa biltzen daben esaldi-muina guztiak hizkuntza ideologia moduan sailkatu dira. Behin hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia sailkapenaren oinarria zehaztuta, bi aldagai teorikoen lehenengo operazionalizazio prozesua azalduko da. Hasteko, aipatzekoa da, aldagai teoriko bakoitzak tratamendu desbardindua jaso dauala: deduktiboagoa hizkuntza politikak eta induktiboagoa hizkuntza ideologiak.

Eduki azterketaren hurbilketa deduktiboa aurretiaz eraikitako teoria edo eredu batean oinarritzen da ikerketa aldagaiak sortzeko (Burns & Grove, 2005). Barriz, hurbilketa induktiboan ikerlariak azterketa-testuetan oinarrituta eraikitzen dau eredia. Bigarren prozesu honetan ikerlariaren interpretazioa funtsezkoa da (Dey, 1993).

Hizkuntza politikari dagokionean, alde aurretik, hizkuntza politikaren hezurduraren oinarriak definitzen dauzan gitxieneko azterketa-tresna bat eraiki da. Azterketa-tresna eraikitzeko, zenbait teorikok (Branchadell, 1997, 2003, 2005; Boix-Fuster, 2003, 2011; Boix-Fuster & Vila, 1998; Mackey, 1968, 1975; Siguan, 1996, 2001; MacRae, 1970, 1975, 1994; Cooper, 1989; eta beste) planteatutako ideiak izan dira zimendu. Horrela, *theory driven* deituriko azterketa prozesua erabili da (Ponterotto & Grieger, 1999; Proctor & Capaldi, 2006): testuaren kodeketa aurretiaz definituriko ikerketa aldagaien arabera burutuz. Hori horrela, azterketa tresna aztergai diren hauteskunde programek eskainitako informaziora (eta informazio faltara) egokitu behar izan da.

Hizkuntza ideologiari dagokionean, ez dago planteatu daiteken aurre-hezurdura teoriko edo eredu hain aplikagarriarik. Hizkuntza ideologia kontzeptua eta bere baitako edukia operazionalizatzea zaila da; izan be, hizkuntzen gaineko sinismen, jarrera eta balioak dira operazionalizatu beharrekoak; zinez oso izaera abstraktuko edukiak. Horregaitik, bere operazionalizazio prozesua, bai ikerketa aldagaiena (lehenengo operazionalizazio prozesua) bai barne kodeena (bigarren operazionalizazio prozesua) induktiboa izan da batez be, azterketa dokumentuek eskainitako edukien interpretaziotik eraikia. Berez, aldagai teorikoa zenbat eta zabalago eta abstraktuagoak izan komenigarria da euren operazionalizazioa azterketa testuetatik ahalik eta hurbilen mantentzea; aldagai teorikoei esanahia testuan bertan hartzen dabelako. Hortaz, hizkuntza ideologiaren lehenengo operazionalizazioa, begirada induktibo batetatik, *data driven* (Proctor & Capaldi, 2006) edo behetik gorako lojika jarraituz, aurretik definitutako ikerketa aldagaiak ordez, hauteskunde programen azterketatik abiatutako *a posteriorizko* ikerketa aldagaien eraikuntza eta kategorizazio prozesua burutu da. Halaber, hizkuntza ideologiaren lehenengo operazionalizazio prozesua hizkuntza politikarako sortutako azterketa-tresnan be zimendatu da, neurri handi batean.

## 3.7. TAULA. LEHENENGO OPERAZIONALIZAZIO PROZESUAREN HURBILKETA MOTA

Aldagai teorikoa	Hurbilketa mota
Hizkuntza politika	Deduktiboa, nagusiki
Hizkuntza ideologia	Induktiboa, nagusiki

*Iturria: norberak egina.*

## 3.3.4.1.1. Hizkuntza politika aztertzeko ikerketa aldagaiak

Aurretik aipatu dan moduan, hizkuntza politikak mintzairan alorrean burututako ekintza, ekimen moduan definitu daitezke. Esaterako, sentsibilizazio kanpainak, hizkuntza eskolak, hizkuntza legedia, itzulpenak, etab. Baina ekintzak bere kabuz ezer gitxi erakusten dabe alderdi politikoen hizkuntza politikaz. Egitez, ekimenen inguruan informazio gehigarria jasotzea funtsezkoa da. Besteak beste, ekimena zein hizkuntzarentzako dan, zein alorretan ezarri gura dan, nori eskainia dagoen, etab. Era horretako itaunak dira, hain zuzen be, ekimena kontestualizatu eta esanahiez betetzen dabenak. Era berean, hizkuntza politika ingurune jakin batean burutzen da beti eta, honenbestez, testuinguru horretan esanguratsuak diren alderdiak identifikatu beharra be funtsezko bilakatzen da. Beraz, hizkuntza politikaren lehen operazionalizazio fasean, egiteko nagusia EAeko testuinguruan alderdi politikoeke proposatutako hizkuntza politika ekimenen ildora nabarmendu beharreko alderdiak identifikatzea eta azterketa aldagai bilakatzea izan da.

Horrela, hizkuntza politikaren baitan ikerketa aldagai zentrala, hizkuntza politikaren zerizateari modu zuzenean erantzuten deutsona, *hizkuntza politika proposamena* da. Izenak berak esaten dauan moduan, aldagai honen helburua alderdieke proposagai dabezan hizkuntza politika proposamenak, hau da, ekimen zehatzak biltzea da. Alderdien hizkuntza politika tipifikatzeko, ekimenok zein mintzairari zuzenduak dagozan (*hizkuntza*), zein politika esparrutarako (*alorra*), zein eremu geografikorako (*aplikazio esparrua*) eta zein kolektiborentzako (*onuradunak*) ezagutzea be interesgarria da oso. Onartu beharra dago hizkuntza politika proposamenen ikerketa aldagai lagungarriok, hau da, ikerketa aldagai zentralaren edukia osatzea xede dabenok, ez dabela hizkuntza politikaren osotasuna bere egiten eta informazio osagarri gehiago biltzea be posible litzatekela; halanda be, aldagaiok azterketa helburuak betetzeko nahikoa direla esan daiteke<sup>95</sup>.

<sup>95</sup>Hizkuntza politikaren operazionalizazioa borobiltzeko, hizkuntza politika ekimenak esparru publikora ala pribatura zuzenduak dagozan eta eurak bideratzeko arduradun moduan jotzen diren agenteak zeintzuk diren ezagutzea be interesgarria litzateke. Halaber, hauteskunde programetan ez da datuok modu sistematikoan biltzeko informazio nahikorik eskaintzen eta, horregaitik, bi ikerketa-aldagaiok kodifikazioan barnatzea ezinezkoa izan da.

### 3.1. IRUDIA. HIZKUNTZA POLITIKAREN OPERAZIONALIZAZIOA: KODIFIKAZIO ALDAGAI ANITZ ETA ALDIBEREKO\*



\*\* Hizkuntza politika moduan identifikatutako esaldi-muin batek biltzen dauan informazioa.

*Iturria:* norberak egina.

Hizkuntza politika proposamen zehatzez gainera bada hizkuntza politikaz jarduterakoan izaera abstraktuagoa bereganatzen dauan informazio zutoina, hau be ikerketa aldagai zentral moduan identifikatua: alderdi politikoez hizkuntza politikaren bidez lortu gura daben *azken helburua* edota hizkuntza bizikidetzatza ideala irudikatzerakoan desiatzen daben jomuga. Ikerketa aldagai honen barnean azken helburu orokorrez gainera azken helburu partzialak be gordetzea erabaki da, hau da, alderdi politikoez gizarteko alor jakinetarako bilatzen dabezan azken xedeak.

Ondoko taulan (3.8. taula) hizkuntza politika moduan definitutako esaldi-muin batek erantzun beharreko galderak ageri dira; oinarritzko galderotako bakoitza hizkuntza politikaren azterketarako eraikitako aldagai zentral edo lagungarriei erantzuna da.

### 3. 8. TAULA. HIZKUNTZA POLITIKA ALDAGAI TEORIKOAREN OPERAZIONALIZAZIOA IKERKETA ALDAGAIETAN

Aldagaiaren izaera	Aldagaiaren izena	Oinarritzko galdera
Zentrala	Hizkuntza politika ekimena	Zein da esaldi-muinak hizpide dauan hizkuntza politika proposamenaren ekimen zehatza?
Zentrala	Azken helburua	Zein da/dira alderdiak hizkuntza politikaren bidez lortu nahi dauan/dauzan azken helburua/k?
Lagungarria	Hizkuntza	Zein hizkuntzari dago zuzendua esaldi-muinak hizpide dauan politika proposamena?
Lagungarria	Alorra	Zein alorretara dago zuzendua esaldi-muinak hizpide dauan hizkuntza politika proposamena?
Lagungarria	Aplikazio esparrua	Zein da esaldi-muinak hizpide dauan hizkuntza politika proposamenaren aplikazio barruti geografikoa?
Lagungarria	Onuraduna	Nori zuzendua dago esaldi-muinak hizpide dauan hizkuntza politika proposamena?

*Iturria: norberak egina.*

#### 3. 3. 4. 1. 2. Hizkuntza ideologia aztertzeke ikerketa aldagaiak

Hizkuntza ideologiaren lehen operazionalizazio prozesua azaltzen hasteko, esaldi-muinak hizkuntza politika edo hizkuntza ideologia moduan bereizteko erabilitako irizpidea gogora ekartzea komeni da. Hizkuntza politika moduan jotzen dira *hizkuntza politika proposamenak* eta hizkuntza politikagaz lortu gura diren *azken helburuak*; hizkuntza ideologiatzat, barriz, hori ez beste informazio guztia. Agerikoa danez, hizkuntza ideologiaren barnean aniztasun handiko edukiak batzen dira. Esaterako, hizkuntza politika ekimen baten justifikazioa, politika ekimen bat bideratzeko modua, hizkuntza batekiko alderdiaren lotura, hizkuntza bizikidetzaren inguruko leku-hartzea, etab. Atal honen hasiera aldera, hizkuntza ideologia mintzairen inguruko jarrera eta sinismen partekatu multzoa, zenbait balio sozial eta kulturaletan babestu moduan definitu da (Swann, Lillis & Mesthrie, 2004). Definizio hori hizkuntza ideologiaren azterketa bideratzeko abiapuntu egokia da. Egitez, hizkuntzekiko jarrera, sinismen eta balioak dira hizkuntza ideologiaren funtsa, eta hizkuntza ideologiaren aldagai zentral moduan egokitu beharrekoak.

Horrela, hizkuntza ideologiaren baitan bi ikerketa aldagai zentral eraiki dira, *estatusa eta alkarketak* eta *balio euskarriak* izenekoak. *Estatusa eta alkarketak* ikerketa aldagaiaren bidez alderdi politikoei hizkuntzei zein estatus atxikitzen deuten eta alderdiek hizpide dabezan hizkuntzak zein errealitateguz erlazionatzen daben aztertu gura da. Esaterako, mintzaira bat nazioarteko hizkuntza, edota hizkuntza gitxitu moduan definitzea, edota kulturagaz, nazioartekotzeagaz, identitateagaz, alderdikeriagaz, etab. harremantzea. Bestalde, *balio euskarriak* ikerketa aldagaiaren bidez, alderdi politikoei hizkuntzen inguruko euren

diskurtso ideologikoan eta proposagai dabezan hizkuntza politiketan zeintzuk balio euskarri hartzen dabezan oinarri identifikatu gura da. Adibidez, askatasuna, akordioa, egingarritasuna, progresibitatea, etab. Hizkuntza ideologiaren bi aldagai zentralok izaera oso irekia dabe, hizkuntza ideologia kontzeptuaren zabalerak berak horixe eskatzen daualako. Irekiera horren ekarpena da bi ikerketa aldagaiok bere baitan biltzen daben eduki aniztasuna, beti be, alderdi politikoek plazaratutako ideietan oinarrituta.

Hizkuntza politikagaz gertatzen dan era berean, hizkuntza ideologiaren oinarri moduan jo daitekezan ikerketa aldagaiok be informazio gehigarria behar izaten dabe sarri osotasunean interpretatuak izateko. Egitez, hizkuntza politika aztertzeke eraikitako ikerketa aldagai lagungarriak hizkuntza ideologiaren azterketarako be badira askotan erabilgarriak, batez be, hizkuntza politika proposamenak bideratzeko modua langai danean. Horregaitik, alkarketez eta balio euskarriez gainera adierazpen ideologiko bat zein hizkuntzari zuzendua dagoen, zein alorretan kokatzen dan, euskarri dauan esparru geografikoa eta onuradun jakin bateri bideratua dagoen be aditzera emongo da.

Beheko taulan (ikusi 3.9. taula) hizkuntza ideologia edo adierazpen ideologiko moduan definitutako esaldi-muin batek erantzun daikezan galderak agertzen dira, hau da, hizkuntza ideologiaren azterketarako eraikitako ikerketa aldagai zentral edota lagungarriak.

### 3.9. TAULA. HIZKUNTZA IDEOLOGIA ALDAGAI TEORIKOAREN OPERAZIONALIZAZIOA IKERKETA ALDAGAIETAN

Aldagaiaren izaera	Aldagaiaren izena	Oinarrizko galdera
Zentrala	Estatua eta alkarketak	Hizkuntzari/ei zein estatus atxikitzen jako/jake edota zein ideiekin, errealitatekin lotzen da/dira?
Zentrala	Balio euskarriak	Hizkuntza/k ala hizkuntza politika hizpide danean/diranean zein gizarte balio aipatzen da/dira?
Lagungarria	Hizkuntza	Zein hizkuntzari dago zuzendua esaldi-muinak hizpide dauan adierazpen ideologikoa?
Lagungarria	Alorra	Zein alorretara dago zuzendua esaldi-muinak hizpide dauan adierazpen ideologikoa?
Lagungarria	Aplikazio esparrua	Zein da esaldi-muinak hizpide dauan adierazpen ideologikoaren aplikazio barruti geografikoa?
Lagungarria	Onuraduna	Nori zuzendua dago esaldi-muinak hizpide dauan adierazpen ideologikoa?

*Iturria: norberak egina.*

### 3.3.4.1.3. Atributuzko aldagaiak

Hizkuntza politikari eta hizkuntza ideologiari erantzuten deuten ikerketa aldagaiez gainera, hauteskunde programak eta euren egile diren alderdi politikoak identifikatzeko atributuzko zenbait aldagai be sortu dira. Saldañak (2009: 55) atributuzko kodifikazioa datu-talde baten inguruko oinarrizko informazio deskribatzaile moduan definitzen dau, esaterako, landa-lana burututako lekua eta eguna, parte hartzaileen ezaugarriak edota datu demografikoak, etab. Ikerketa honetan, esaldi-muin bakoitza identifikatzeko bi oinarrizko atributuzko aldagai erabili dira: *alderdi politikoa* eta *hauteskunde urtea*. Hau da, esaldi-muin bakoitza zein alderdi politikok esana dan eta zein hauteskunde deialdiri dagokion gorde da.

Horretaz gainera, atributuzko aldagai gisa beste bi informazio biltzea be interesgarritzat jo da, alderdiak aurkeztutako hizkuntza politikan eta aditzera emondako hizkuntza ideologian zeresana euki daikielako. Batetik, alderdi politikoa hauteskunde deialdira bakarka edota koalizioan aurkeztu dan. Informazio hori garrantzitsua izan daiteke alderdi bat hauteskundeetara bera berataraz ordez *koalizioan* aurkezten danean, politika programa koalizioaren parte diren alderdien artean hitzartua egoten dalako eta, hortaz, aztergai dan alderdiaren oso-osoko nahiak eta pentsaerak, neurri batean behintzat, antzaldatuta agertu daitekezelako. Bestetik, alderdi politikoaren hauteskunde *ordezkaritza esparrua* zein dan, alderdi politikoaren jomugetan zeresana izan daikelako.

#### 3.10.TAULA. ATRIBUTUZKO ALDAGAIAK

Aldagaiaren izaera	Aldagaiaren izena	Oinarrizko galdera
Atributuzkoa	Alderdi politikoa	Nork esana da esaldi-muina?
	Hauteskunde urtea	Noiz esana da esaldi-muina?
	Koalizioa	Esaldi-muinaren egile dan alderdi politikoa bakarka ala koalizioan aurkeztu da hauteskundeetara?
	Hauteskunde ordezkaritza esparrua	Esaldi-muinaren egile dan alderdi politikoaren hauteskunde ordezkaritza esparrua zein da?

*Iturria:* norberak egina.



### 3.3.4.2. Bigarren operazionalizazio prozesua: ikerketa aldagaietatik kategoria edo kodeetara

Behin lehenengo operazionalizazio prozesua burututa eta azterketa aldagaiak definituta, aldagaiok edukiz bete behar dira, hau da, aldagaion barneko kategoria zerrenda sortu behar da. Egiteko horri bigarren operazionalizazio prozesua deitu jako.

Berelsonen hitzetan, eduki azterketaren arrakasta edo porrota bere kategoria edo kodeetan datza (1952). Izan be, ikerketa aldagaiak bere egiten dauzan esanahi azpimarragarri guztiak biltzeko gai izan behar dau, horretarako beharrezkoak diren kategoria edo kode guztiak batuz (Alonso, Volkens & Gómez, 2012). Lan honetan ikerketa aldagaien barneko kode-kategorien definizioa, neurri handi batean, joan-etorriko prozesua izan da; Mayring-ek (2000) *feedback loops* moduan izendatua, hau da, testua interpretatuz kode-kategoriak azterketa prozesuan zehar sortu edota berrikusi dira.

Hori horrela, hizkuntza politikaren aldagai zentral eta eskusiboen kasuan, behin-behineko kode-zerrendak diseinatzeko abiapuntu moduan, gaiaren gaineko planteamendu teorikoak eta EAEko hizkuntza legedia<sup>96</sup> hartu dira. Eta gero, hauteskunde programen irakurketa eta lanketaren bidez, kode-zerrendak egokitu dira, behin-betiko lerroak lortu arte. Hortaz, beste behin, hizkuntza politikari zuzenean lotutako aldagaietan, hurbilketa deduktiboa izan da nagusi, nahiz eta hurbilketa induktiboagaz konbinaketan. Gainontzeko ikerketa aldagaien kasuan, hurbilketa induktiboagoa izan da, nahiz eta kasu batzuetan teoriar oinarritutako kodeak be planteatu diren.

#### 3.1.1.TAULA. BIGARREN OPERAZIONALIZAZIO PROZESUAREN HURBILKETA MOTA

	Ikerketa aldagai zentralak	Hurbilketa mota
<b>Hizkuntza politika</b>	Hizkuntza politika proposamenak Azken helburuak	Deduktiboa, nagusiki
<b>Hizkuntza ideologia</b>	Estatua eta alkarketak Balio euskarriak	Induktiboa, nagusiki

*Iturria: norberak egina.*

<sup>96</sup>Ikerketa honetan alderdi politikoan hizkuntza politikak aztertzerakoan hizkuntza desbardinei zuzendutako politikak azterketa gai diren aren; oinarri moduan hartu dan legedia euskararena izan da, bera dalako EAEko hizkuntza legediaren gehiengo biltzen dauana.

Eduki azterketako kategoriek hiru ezaugarri bete behar dabez: esanguratsuak (*relevant*), zehatzak (*exhaustive*) eta alkar baztertzailak (*mutually exclusive*) izatea (Bucy & Holbert, 2013: 271). Kategoriak esanguratsuak ikerketa galderarekiko izan beharko dabe; zehatzak azterketa dokumentuetako informazio garrantzitsu guztia bildu beharko dabelako eta alkar-baztertzailak edukiak kategoriatan bakarrean izan beharko direlako kodegarri. Aipatzekoa da kategoriatan eta kategoriatan zehatza izatea zehatza bermatzeko oinarritzko irizpide moduan, aldagaien barne-aniztasun gertagarri guztia baino, hauteskunde programek eskaintako edukia hartu dala irizpide nagusitzat. Bestalde, kategorien izatea alkar-baztertzailari be ardua berezia eskaini jako. Hori horrela, esan beharra dago, kategoriatan batzuen kasuan alkar bazterketa hori ez dala kategorien edukian oinarritu, kodeen zehaztasun mailan baino. Esaterako, alorrak ikerketa aldagaiaren baitan *herri administrazioa* kategoriatan zabalaz gainera *epaitegiak*, *osasuna*, *ertzaintza*, etab. be bereiztu dira. Kodifikazioa burutzerakoan kode zehatzak lehenetsi dira eta kode zabalak zehaztasun handiagoko kodeak erabili ezin izan direnean baliatu dira; betiere, kategoriaren esanahiari fidel mantenduta<sup>97</sup>.

Hurrengo taulan, azterketa-tresnaren parte diren aldagaien kode-zerrendak biltzen dira. Kode bakoitzaren esanahia eta berau aplikatzeko irizpideak kodifikazio liburuan ageri dira (ikusi eranskina).

<sup>97</sup>Gai hau modu sakonagoan lantzeko, ikusi “3.3.5.1. Informazioa maximizatzea” azpi-atala.

## 3.1.2. TAULA. IKERKETA ALDAGAIEN KODE ZERRENDAK

Edukí mota	Hizkuntza politika		Hizkuntza ideologia*	
Azken helburuak	Hizkuntza politika proposamenak	Estatua eta alkarketak	Balio euskarriak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza politika proposamena</li> <li>• Adierazpen ideologikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezagutza, euskalduntzea</li> <li>• Hizkuntza babestu, bultzatu</li> <li>• Corpus plangintza</li> <li>• Ikasketa, alfabetatzea</li> <li>• Legedia mantendu</li> <li>• Legedia aldatu</li> <li>• Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea</li> <li>• Hizkuntza eskubideak</li> <li>• Bateratze linguistikoaren eredu: euskara hizkuntza nagusia</li> <li>• Bateratze linguistikoaren eredu: marko bieleduna ala hirueleduna</li> <li>• Aukeraketa banatuaren eredu</li> <li>• Hizkuntza didaktika</li> <li>• Ikerketa</li> <li>• Hizkuntza eskakizunak: baldintza</li> <li>• Hizkuntza eskakizunak: meritu</li> <li>• Anreta-harreman hizkuntza funtzioa</li> <li>• Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa</li> <li>• Komunikazio hizkuntza funtzioa</li> <li>• Laneko hizkuntza funtzioa</li> <li>• Itzulketak, bikoizketa</li> <li>• Sorkuntza, ekoizpena eta eskaintza kulturala</li> <li>• Baliabideak: giza baliabideak, baliabide teknikoak, baliabide materialak, etab.</li> <li>• Hizkuntza paisaia</li> <li>• Planifikazioa: soziolinguistikoa, normalizazio planak</li> <li>• Ebaluaketak, erreformak</li> <li>• Transmisioa</li> <li>• Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa</li> <li>• Finantzaketa, diru laguntzak eta hitzarmenak</li> <li>• Tituluak eta akreditazioak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatusa</li> <li>– Hizkuntza gixxitua</li> <li>– Nazioarteko hizkuntza</li> <li>– Hizkuntza ofiziala</li> <li>– Bertoko hizkuntza</li> <li>– Hizkuntza nazionala</li> <li>– Ama hizkuntza</li> <li>• Alkarketak</li> <li>– Aberastasuna</li> <li>– Ondarea</li> <li>– Modernitate</li> <li>– Gatazka</li> <li>– Identitatea</li> <li>– Kultura</li> <li>– Kulturartekotasuna</li> <li>– Integrazioa</li> <li>– Errefus sentimendua</li> <li>– Komunitatearen eraikuntza</li> <li>– Alderdikeria</li> <li>– Komunikazio tresna</li> <li>– Lehiakortasun tresna</li> <li>– Nazioartekotzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza eskubideak</li> <li>– Askatasuna</li> <li>– Bardintasuna</li> <li>– Inposaketarik eza</li> <li>– Bazterketarik eza</li> <li>• Erritmo</li> <li>– Moderazioa</li> <li>– Progresbitatea</li> <li>– Egungarritasuna</li> <li>– Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea</li> <li>• Agente parte hartzaileak eta alkarlana</li> <li>– Adostasuna</li> <li>– Akordioa</li> <li>– Alkarlana</li> <li>• Ekimena balio bitartekariak</li> <li>– Ekintza positiboa</li> <li>– Eraginkortasuna</li> <li>– Maltatasuna</li> <li>– Kalitatea</li> <li>• Herriaren nahia</li> <li>– Konpromisoa</li> <li>– Barandata</li> <li>– Erakargarritasuna</li> <li>• Botere politikoa</li> <li>– Subiranotasuna</li> <li>– Subsidiaritatea</li> <li>• Bizikidetzaren linguistikoa</li> <li>– Kohesioa</li> <li>– Alkarbizitza</li> <li>– Errespetua, tolerantzia</li> <li>– Aniztasuna</li> <li>– Irekiera</li> <li>– Inklusibitatea</li> </ul>	

\*Hizkuntza ideologiari zuzendutako ikerketa aldagaien baitako kodeak antolatua agertzeko biltzen daberen edukiaren araberako taldebetan sailkatu dira. Dana dala, sailkapen horrek ez dau inongo eragirik izan kodifikazio prozesuan.

Atributuzko aldagaiak				Aldagai lagungarriak			
Alderdi politikoa	Koalizioa	Hauteskunde urtea	Hauteskunde ordezarritza esparrria	Hizkuntza	Alorra	Apikazio esparrua	Onuradunak
<ul style="list-style-type: none"> <li>EAJ</li> <li>Ezker Abertzalea</li> <li>PSE-EE</li> <li>PP</li> <li>Ezker Anitza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Koalizioa EZ</li> <li>Koalizioa BAI</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1980</li> <li>1984</li> <li>1986</li> <li>1990</li> <li>1994</li> <li>1998</li> <li>2001</li> <li>2005</li> <li>2009</li> <li>2012</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEn bakarrik</li> <li>Euskal Herria</li> <li>Espainiar Estatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntzak orokorrean</li> <li>Euskara</li> <li>Gaztelania</li> <li>Frantsesa</li> <li>Ingelesa</li> <li>Euskara eta gaztelania</li> <li>Euskara eta ingelesa</li> <li>Euskara eta frantsesa</li> <li>Euskara, gaztelania eta ingelesa</li> <li>Euskara, gaztelania eta frantsesa</li> <li>Gaztelania eta frantsesa</li> <li>Atzerriko hizkuntzak</li> <li>Etorrinen ala gtxiengo etnikoen hizkuntzak</li> <li>Estatuko, eskualdeko hizkuntzak</li> <li>Eleaniztasuna</li> <li>Hizkuntza gixituak</li> <li>Bereko hizkuntza</li> <li>Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelania/ frantsesa</li> <li>Beste</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orokorrean</li> <li>Herri administrazioa</li> <li>– Epategiak</li> <li>– Ertzaintza</li> <li>– Ogasuna</li> <li>– Udal eta foru administrazioa</li> <li>– Hizkuntza politika sailburuordetza</li> <li>– Estatu administrazioa</li> <li>– Arduradun politikoak</li> <li>– Nazioarteko erakundeak</li> <li>– Irakaskuntza</li> <li>– Eskola</li> <li>– Lambide heziketa zentroak</li> <li>– Hizkuntza eskolak, euskaltogak</li> <li>– Helduentzako eskolak</li> <li>– Komunikabideak</li> <li>– EITB</li> <li>– Prentsa idatzia</li> <li>– Irratia</li> <li>– Telebista</li> <li>– Teknologia berrak</li> <li>– Lan mundua</li> <li>– Kulturagintza</li> <li>– Literatura eta liburugintza</li> <li>– Antzerkia</li> <li>– Musika eta kantagintza</li> <li>– Euskararen normalizazio-erakundeak</li> <li>– Zinea</li> <li>– Gizarte bitzta</li> <li>– Aisia</li> <li>– Kiroia</li> <li>– Familia</li> <li>– Eskolaz kanpoko jarduerak</li> <li>– Esparru juridikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lokala</li> <li>Eremu estrategikoak</li> <li>Euskal Autonomia Erkidegoa</li> <li>Euskal Herria</li> <li>Espainiar Estatu edo Espainiar Estatu</li> <li>autonomia erkidegoak</li> <li>Europar Batasuna</li> <li>Nazioartea orokorrean</li> <li>Diaspora</li> <li>Iparralde</li> <li>Nafarroako foru erkidegoa</li> <li>Estatu Frantsesa</li> <li>Hego euskal herria</li> <li>Nafarroako zonalde euskalduna</li> <li>Nafarroako zonalde mixtoa</li> <li>Nafarroako zonalde erdaliduna</li> <li>Nafarroa eta Iparralde</li> <li>Euskal Herri infinitua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herriarrik, gizartea orokorrean</li> <li>Gaztelaniadunen hizkuntza komunitatea</li> <li>Euskaldunen hizkuntza komunitatea</li> <li>Hizkuntza komunitateak</li> <li>Langileria</li> <li>Irakasleak eta ikerlariak</li> <li>Hizkuntza ikasleak</li> <li>Urneak eta gazteak</li> <li>Familiak, gurasoak</li> <li>Etorrinen ala gtxiengo etnikoak</li> <li>Kontsumitzaileak</li> <li>Ordezkar</li> <li>politikoak</li> <li>Kulturagileak</li> <li>Euskalgintza</li> <li>Erakundeak</li> <li>Herri administrazioa</li> <li>Diaspora</li> </ul>

### 3.3.5. Kodifikazioa burutzeko oinarrizko irizpideak

---

Ikerketa lan honetarako diseinatutako eduki azterketa ulertzeko, aldagai teorikoen operazionalizazio prozesuaz gainera, badira beste zenbait aspektu kodifikazioaren arrakasta bermatzeko kontuan hartu beharrekoak. Aspektuok kodifikazioa burutzeko oinarrizko irizpide moduan definitu dira eta honakoak dira: informazioaren maximizatzea, kategori eta edukien bateragarritasunaren lanketa, testuinguruaren funtsezkotasuna eta esaldi-muinen kodeketaren barne eta kanpo koherentzia.

#### 3.3.5.1. Informazioaren maximizatzea

Ikerketa honen xedea alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia modu sakon eta zehatzean aztertzea da. Horretarako, kodifikazioa, kategorien eraikuntza eta erabilera funtsezkoak dira. Egitez, helburua hauteskunde programek eskainitako informazioa maximizatzea izanik, kategorien zehaztasuna oinarrizkoa da. Kategorien zehaztasunaz gainera, euren erabilera be zehaztasunera bideratu beharra dago. Hau da, kategorien artean orokortasun eta zehaztasun maila desbardinetako kategoriak izanik, ahal dan guztietan kode zehatzen aldeko apustua egingo da. Are gehiago, esaldi-muin batek hizkuntza politikari atxikitako edukia eta adierazpen ideologikoari egina, biak biltzen badauz, aukera dagoen guztietan, bi informazioak kodetuko dira. Hau da, nahiz eta informazio zentrala politikoa ala ideologikoa izan, eta hortaz, eduki mota aldagaian hizkuntza politika ala adierazpen ideologiko moduan kategorizatuta egon, esaldi-muinaren barne-koherentziari<sup>98</sup> kalterik egiten ez deutson bitartean, kodifikazioan bi informazioak bilduko dira. Zentzu berean, hauteskunde programetan alderdi politikoez “apropos” igorritako informazio zentrez gainera, bigarren mailako informazioak be kodifikatuko dira, hizkuntza politika proposamenen, hizkuntzei atxikitako alkarketen eta balio euskarrien inguruan datu gehigarriak eskaintzen dabezan neurrian.

Era berean, aipatzekoa da kategoria-sistemaren zurruntasunak berak informazioaren maximizatzeari mugak ezartzen deutozala. Izan be, nahiz eta eraikitako kategoria-zerrendak nabarmen zehatzak izan, ez dauz alderdi politikoez hizpide dabezan aukeraketa guztiak ehuneko ehunean biltzen, kode zabalen aldeko hautua nahitaezko bihurtuz batzuetan.

#### 3.3.5.2. Kategoria eta edukien bateragarritasunaren lanketa

Hauteskunde programak alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia aztertzeko lanabes aproposa diren arren, ez dagoz ikerlariaren azterketa helburuetara

---

<sup>98</sup>Esaldi-muinaren barne-koherentzia zertan datzan ezagutzeko, kontsultatu 3.3.5.4. *Esaldi-muinen kodeketaren barne eta kanpo koherentzia* atala.

egokituta; are gitxiago ikerketarako eraikitako aldagai-sistema konplexu eta aldeberekoari zuzenean erantzuteko. Horregaitik, ikertzaileak estrategia desbardinak bilatu behar dauz esaldi-muinean oinarritutako aldagai anitzeko eta aldebereko kodifikazioaren eta hauteskunde programen edukiaren artean bateragarritasuna lantzeko, besteak beste, gure kodeketari erantzuten ez deitson edukia alboratzea, informazioa maximizatzeko esaldi-muina gainditzen dauan testuingurua aintzat hartzea, edota esaldien formulazioa bigarren plano batean itzita edukien sakoneko mezua identifikatzea eta horixe kodifikatzea<sup>99</sup>.

Kodifikazio sisteman hiru dira hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren oinarriko edukiei erantzuten deuten aldagaiak eta, era berean, hauteskunde programen eduki zentrala be biltzen dabena: *hizkuntza politika proposamenak, estatusa eta alkarketak eta balio euskarriak*. Askotan kategoriek esaldi-muinen edukia modu zuzenean laburbiltzen dabe, hau da, bien arteko baliokidetasuna erabatekoa izaten da eta, beraz, kategoriak artezean izaten dira aplikagarriak testura. Adibidez, *el sistema educativo debe contribuir a la plena integración y actuar como un elemento vertebrador* (Ezker Anitaza, 1998) esaldi-muinak kohesioaren aldarrikapena burutzen dau modu argian; hortara, balio euskarri aldagaiaren baitan kohesioa kodea bereganatuko dau. Baina beste hainbatetan, edukia kodifikagarri bihurtzeko esaldi-muinen edukien eta kodifikazioaren arteko bateragarritasuna landu behar izaten da. Esaterako, kontra-balio baten kritika burutuz balio baten aldarria egiten danean. Kasu horreetan kodetzaileak adierazpidearen atzean dagoen balio euskarria identifikatu beharko dau eta esaldi-muina balio horren arabera kodifikatu. Esaterako. Alderdi politikoek salatutako askatasun eza askatasun aldarrikapen moduan kodetuz, desadostasunaren begiratzeara adostasunerako dei bilakatuz, etab.

Hauteskunde programek alderdi politikoen gobernu programa aurkeztea dabe xede. Egiteko horretarako, politika proposamen zerrenda bat iradokitzen dabe eta adierazpen ideologikoen bidez berau justifikatu. Halaber, alderdi politikoen hauteskunde programek euren proposamenak eta ideak modu zuzenean aditzera emoteaz gainera, gainontzeko alderdi politikoen ikuspegia, zein aurreko gobernuaren lana, egoeraren deskribapena, etab. kritikatu eta aditzera emonaz be, modu zeharkakoan, euren leku-hartzea adierazten dabe. Kasu horreetan ere, kodifikatzailearen lana kritika, deskribapen eta zeharkakotasunen atzean ostontzen diren zeharkako proposamenak eta ikuspuntu ideologikoak identifikatzea izango da, zuzenekoak balira moduan kodifikatu. Adibidez, demaguzan ondorengo bi esaldiak: *el actual sistema educativo imperante en Euskadi, además, está lejos de contar con los recursos suficientes para hacer frente a su labor educadora. Las aulas masificadas en la Universidad,*

<sup>99</sup> Egiteko horren konplexutasun maila nabarmen handia da eta, horregaitik, ikerketaren baliozkotasuna bermatzeko, kodifikatzaileak eskuz burututako kodifikazioaren egokitasuna barriro be berresten da. Alonso eta besteren hitzetan, (Alonso, Volkens, Gómez: 2012: 22). Ildo berean, Krippendorff-ek (2004) be azpimarratzen dau ordenagailuek ez dakiela nortzuk diren bere erabiltzaileak, ikerlariarentzako prozesatutako karaktere-kateen esanahia zein dan edota testua lan-gai eta uler-gai dan pertsonen testuinguru kultural aldakorren aurrean be ez direla sentikorrak. Egitez, berba edo adierazpide gitxigaz irudikatzen diren kontzeptuak ordenagailu bidez modu zehatzean identifikatu daitezke; barriz, berba zehatzen bidez antzeman ezin daitezkean kontzeptu konplexuak aztertzen diren ordenagailuak zailtasunak izaten dauz

*la falta de docentes en euskera o la pésima dotación de los centros de enseñanzas medias son buena prueba de ello* (Ezker Batua, 2001). Gure ikergaia hizkuntzak izanik, bi esaldietatik bigarreneko atal bat bakarrik joko dogu kodifikagarri, hain zuzen be, esaldi-muin bakarrean bilduta joango dan: *la falta de docentes en euskera*. Bi esaldiak irakurrita argi gelditzen da Ezker Batuak unibertsitateetan dagozan baliabide eskasak dauzala kritikagai, eta modu zeharkakoan baliabideen handiagotzearen beharra somatzen dauala. Moldaketa hori onartuta, *la falta de docentes en euskera esaldi-muina hizkuntza politika ekimenaren baitan eta baliabideak: giza baliabideak, baliabide teknikoak, baliabide materialak, etab.* kategoria erabiliz kodifikatuko da<sup>100</sup>.

Ikerketa kategorien eta hauteskunde edukien bateragarritasuna bilatzeko burututako egokitzapen prozesuak alderdi politikoen diskurtsoa neurri batean itxuraldatu egiten dauala esan daiteke, lehenengo irakurketa batean ikustezin diren edukiak argitara emonaz, kritikak proposamen bilakatur, etab. Egia da, kodifikazio estrategia honek edukien tankera neurri handi batean baztertu egiten dauala, baina ezin geinke ahaztu azterketa honen xedea alderdi politikoen leku-hartzeak identifikatzea dala, batzuen eta besteen arteko desbardintasanak be identifikatur. Zentzu horretan, leku-hartzea zein formula erabiliz burutzen dan, alegia, proposamen zuzen moduan, edota kritika legez, zein egoeraren deskribapena burutuz, etab. ez da horren garrantzitsua. Gainera, kodifikazio estrategia honek alderdi politikoez eskainitako informazioa maximizatu egiten dau, modu zuzenean eskainitako informazioaz gainera modu zeharkakoan egindakoa be bigitaratur.

### 3.3.5.3. Testuinguruaren funtsezkotasuna

Kodifikazio-unitate diren esaldi-muinak kodetzerakoan euren testuingurua, hau da, esaldi-muinaren bueltan biltzen dan testua, funtsezko elementua da kodifikazioa egokitasunez burutzeko (Berelson, 1952). Izan be, testuinguru unitateak *are units of textual matter that set limits on the information to be considered in the description of recording units* (Krippendorf, 2004: 101).

Testuinguru unitateen zentraltasuna ikerketa honetara ekarriz, esaldi-muinek hizkuntza politika edo hizkuntza ideologiari dagokiozen argumentuak biltzen dabezan arren, sarritan, argumentua ondo ulertzeko inguruko testua irakurtzea be nahitaezkoa izaten da. Ezin ahaztu geinke esaldi-muin baten gehienezko luzeera esaldia dala eta askotan esaldi baten barnean esaldi-muin desbardinak biltzen direla, informazioa erabat zatikatuz. Horrela, sarritan gertatuko da, galdegai garrantzitsuak aurreko zein atzeko esaldi-muinari atxikita gelditzea; esaterako, nor, non, norentzako, etab. galdegaiak. Are gehiago, askotan, esaldi-muinetik kanpora gelditzen diren informazioak datu-kodifikagarriak izaten dira: hizkuntza,

<sup>100</sup>Adibide honek edukiaren bateragarritasun prozesua zelan burutzen dan aditzera emoteaz gainera, hurrengo atalean (3.3.5.3. *Testuinguruaren funtsezkotasuna*) landuko dan esaldi-muinaren testuingurua aintzakotzat hartzearen oinarrikotasuna be aditzera emoten dau. Izan be, esaldi-muinaren edukia ulergarri izateko berau barnean hartzen dauan esaldia ezeze aurreko esaldia be aintzat hartu behar izan da, hau da, esaldi-muinaren testuinguru hurbila.

aplikazio esparrua, onuraduna, etab. Sarritan, esaldi-muinaren kodifikazio osoa burutzeko kontuan hartu beharreko testu zatia, bera barnean hartzen dauan esaldia izango da. Halaber, beste askotan esaldia bera gainditzea ezinbestekoa izango da kodifikaziorako beharrezkoa dan informazioa biltzeko. Esaterako, baliteke alderdi politiko batek paragrafo bateko esaldi bakarrean aipatzea zein hizkuntzaz diharduen eta behin aipatuta informazio hori emontzat jotzea gainontzeko esaldi guztietan.

Halanda be, esaldi-muin guztiak ez dira beti kategoria-sistemaren baitako aldagai guztien arabera kodetuak izango, esaldi-muinaren edukira aplikagarriak ez direlako edota informazioa faltan dagoelako. Egitez, kodeketa esaldi-muinak edo esaldi-muinaren inguruko testuak eskaintzen deuskun informazio esplizituaren arabera izango da gehiengoan. Era berean, baina, baliteke zenbait informazio kodetzeko testuinguru maila zabalenera jo behar izatea, hain zuzen be, dokumentua eraikia izan dan gizarte testuingurura. Zenbaitetan alderdi politikoez hainbat informazio ezagutzat jotzen dabe eta, hortaz, euren adierazpena ez dabe esplizititzen. Hizkuntzaren kasuan egoera hori ohikoa izaten da. Adibidez, “gure hizkuntzak” esatea euskara eta gaztelania aipatu ordez, etab. Kasu horreetan kodetzaileak bere testuinguru sozialaren ezagutza erabiltzea funtsezkoa izango da kodifikazioa egokitasunez burutzeko, hau da, informazio inplizitu ezaguna esplizitatzeko.

Egitez, azterketa dokumentuak aukeratzekoan garrantzitsua da benetan beroneek zein testuingurutan eta zein testuingurutarako sortuak izan diren jakitea, izan ere, Alonso eta bestek (Alonso, Volkens & Gómez, 2012: 18) dinoen moduan, *el contexto del texto afecta al contenido del texto*. Horrela, ikerketa honetako dokumentuei erreparatuz, garrantzitsua da aintzat hartzea alderdi politikoez plazaratzen dabezan hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak hauteskunde testuinguru batean burutuak dagozala, hau da, norgehiagoka politikoa gori-gorian dagoen egoera batean.

### 3.3.5.4. Esaldi-muinen kodeketaren barne eta kanpo koherentzia

Hauteskunde programek informazio anitza, konplexua, gainjarria eta korapilatsua darabile, eta informazio hori kodifikazioaren bidez sinplifikatzea ez da beti egiteko erraza izaten. Kodifikazioaren nahia alderdi politikoen diskurtsoa islatzea da aldagai batzuk oinarri hartuta. Hori horrela, hauteskunde programa baten kodifikazioak bere diskurtsoa laburbiltzeko gai izan beharko dau; hau da, kanpo koherentea. Bestalde, kodifikazioak barne-koherentea be izan beharko dau, alegia, koherentzia unitate moduan hauteskunde programa ordez esaldi-muina hartuta, bere kodifikazioak esaldi-muinaren eduki zentrala laburbildu beharko dau. Hori lortzeko, kasuan-kasu, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren oinarritzko edukari erantzuten deutson aldagaia (*hizkuntza politika proposamenak, estatusa eta alkarketak* eta *balio euskarriak*) esaldi-muinaren zentro bilakatuz, gainontzeko aldagaiak berarekiko koherenteak izan beharko dabe; zenbaitetan esaldi-muinean hizpide diren zenbait eduki alboratuz. Esaterako, posible da esaldi-muin batean gaztelania eta euskara aipatzea, baina



politika proposamena euskarari bakarrik zuzentzea. Kasu horretan hizkuntza aldagaiaren baitan euskara kodea hobetsiko da, gaztelania baztertuz.

### 3.3.6. Eduki azterketaren balio eta fidagarritasuna

Eduki azterketa bat ontzat jotzeko oinarrizko bi baldintza bete behar dauz nahitaez: baliozkotasuna eta fidagarritasuna. Aurretik aipatu dan moduan, baliozkotasuna deritzogu kodifikazio-sistemaren baitan eraikitako aldagaiek ikerlariak neurtu gura dauana neurtzeko gai izateari, eta fidagarritasuna kodifikatzaile desbardinek dokumentu berbera kodifikatzerakoan behin eta berrito emaitza bardinak ala antzekoak lortzeari. Eduki azterketaren baliozkotasuna eta fidagarritasuna bermatzeko, gizarte-zientzien eta eduki azterketaren metodologian adituak diren hainbat ikerlariren aholkularitza jaso da eduki azterketaren diseinu prozesu osoan. Era berean, bi kodeketa-berrikusleren laguntza jarraitua be izan da, bai hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia aldagai teorikoen operazionalizazio prozesua burutzeko (baliozkotasuna segurtatzeko), bai diseinatutako kodifikazio-sistema hauteskunde programen kodeketan proban jartzerako (fidagarritasuna ziurtatzeko). Beraz, kodifikazio prozesuaren fase desbardinetan aldizkako batzarrak burutu dira.

Eduki azterketaren fidagarritasuna bermatzeko, kodifikazio gida bat eraiki da (begiratu eranskina), kodifikazio-liburua deritzoguna. Izan be, eskuzko kodifikazioa fidagarria izateko funtsezkoak dira, batetik, kodifikatzailearen trebetasuna, intuizioa eta esperientzia eta, bestetik, kategorien eta kodifikazio arauen argitasuna (Holsti, 1969: 135). Kodifikazio-liburuaren egitekoa bigarren horixe izan da: kodetzaileei kodifikazio-sistema hauteskunde programetara era beretsuan aplikatzeko jarraibideak eskaintzea. Bertan, kodifikazioaren nondik-norako orokorrak, esaldi-muinen banaketa irizpideak, aldagai eta kategorien banakako deskribapenak, kodeen arteko lehenetasun irizpideak eta aldagaien arteko konbinaketa aurrez-azarriak bildu dira.

Kodifikazio-liburuaren baliogarrtasuna neurtzeko, kodeketa-berrikusleek pretest eran hauteskunde programa zati desbardinak kodetu dabez kodifikazio-liburua erabiliz. Pretestetan sortutako zalantzak, desadostasunak, etab. kodifikazio-liburua osatzeko, zuzentzeko, etab. erabili dira. Guztira 4 pretest saio burutu dira. Kodifikazio-liburua saiorik saio egokitzuz joan da. Bilera bakoitzean adostutako egokitzapenak gidan barneratu dira. Azken saioan kode-liburuaren behin-betiko egitura hitzartu da.

Hori horrela izanik ere, kodifikazio-liburuak beti izten dau zabalik interpretazio desbardinatarako tartea. Horregaitik, etorkizunean kodetzaile barriek ikerketa honetarako eraikitako kodifikazio-sistema erabiliko balebe, kodifikazio-liburua ezagutzeaz gainera prestakuntza saioak egitea gomendagarria litzateke. Horretarako, *Manifesto Project* eta *Regional Manifesto Project*-en esperientzia baliatu ahal izango litzateke<sup>101</sup>.

<sup>101</sup>Proiektuotako kodetzaile bihurtzeko, prestaketa jaso beharra dago eta, prestakuntza osteko ikasketa aldi baten ondoren, fidagarritasun testa gaintu. Proba honetan kanpoko-kodetzaileen egitekoa testu-eredu bat kodifikatzea da.

Fidagarritasuna kodifikazio prozesuan ezeze kodifikazioaren bidez sortutako datuen erabileran be zentrala da. Kasu honetan fidagarritasuna ordenagailuaren erabilerak ziurtatu dau, hau da, kodifikazioaren bidez eraikitako datu basearen ordenagailu bidezko ustiaketa estadistikoak.

### 3.3.7. Kodifikazioa eta datu basea

Kodifikazio eredu diseinatu eta kodifikazio-liburua eraikitakoan, kodifikazio prozesuari hasiera emon jako. Kodifikazio prozesua bi fasetan burutu da. Lehenengoan, hizkuntzei buruz diharduen hauteskunde programen atalak, hau da, azterketa dokumentuak, esaldi-muinetan banatu dira. Bigarreanean, esaldi-muinak kodifikatu dira banan-banan. Alegia, esaldi-muin bakoitzaren aldagai antzeko eta aldibereko kodifikazio prozesua abiatu da, esaldi-muinaren edukiaren arabera aplikagarriak jakozan ikerketa-aldagaiko kode bat jasoz. Bigarren fase hau Excelen burutu da eta bere bitartez ikerketa datu basea eraiki da (ikusi 3.2. irudia). EAEko alderdi politikoaren hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren analisia (ikusi 4. kapitulua) datu basearen ustiaketa estadistikoak burutuz bideratu da, Excelen baitako XLStat programa informatikoa erabiliz<sup>102</sup>.

3.2. IRUDIA. DATU BASEA

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
1	N	QF	A.P	U	K	H.O.E.	H	AL	E.M	A.H.	H.P	LOTURAK	BALIOAK	A.E	ON
2	1	PROPUGHAMOS UNA EUSKADI COMPROMETDA CON EL EUSKERA	1	2012	1	2	2	10	2				10	3	1
3	2	PROPUGHAMOS UNA EUSKADI COMPROMETDA CON (...) LA CONVIVENCIA LINGÜISTICA.	1	2012	1	2	6	80	2				3	3	1
4	3	EAJ-PNV va a situar la política lingüística en la centralidad de la actuación del gobierno.	1	2012	1	2	1	28	1		2			3	12
5	4	Siendo la convivencia lingüística uno de los pilares de la propia convivencia social en Euskadi,	1	2012	1	2	6	80	2				3	3	1
6	5	vamos a promover un bilingüismo	1	2012	1	2	6	80	1	1	1			3	1
7	6	lo más igualitario y equilibrado posible,	1	2012	1	2	6	80	2		9		2	3	1
8	7	que garantice de manera efectiva la igualdad de oportunidades	1	2012	1	2	8	10	1		9		2	3	1
9	8	y la libertad lingüística de los ciudadanos.	1	2012	1	2	6	80	1		9		1	3	1
10	9	Atendiendo a la actual situación social de las dos lenguas oficiales,	1	2012	1	2	6	80	2				18	3	1
11	10	desarrollaremos una política lingüística proactiva y efectiva,	1	2012	1	2	2	10	2				17	3	1
12	11	que nos acerque a la plena normalidad del euskera.	1	2012	1	2	2	10	1	3	2			3	1
13	12	Por ello, recuperando el lugar central que corresponde a la política lingüística en la agenda política,	1	2012	1	2	1	28	2				10	3	12
14	13	impulsaremos en la totalidad de los departamentos y áreas del gobierno un uso de las dos lenguas oficiales	1	2012	1	2	6	20	1		21			3	16
15	14	que coadyuve a la sostenibilidad de nuestra pluralidad lingüística.	1	2012	1	2	6	20	1		2			3	16
16	15	Por tanto, la política lingüística será una de las líneas de actuación transversales de nuestra acción de gobierno.	1	2012	1	2	1	10	2				10	3	12

Iturria: norberak egina.

Gero, emaitzak test-estandarraz erkatzen dira bien artean dagoen adostasuna maila neurtuz. Zenbat eta adostasun handiagoa, orduan eta fidagarritasun handiagoa.

<sup>102</sup>Aipatzekoa da, behin datu basea eraikitakoan bere ustiapena ordenagailuz burutu dala eta horrek eduki azterketatik lortutako datuen esplotazioari fidagarritasun handia eskaini deitso.

Hurrengo taulan ikerketa honetan Eusko Legebiltzarrerako hamar hauteskunde deialdietan aztergai diren bost alderdi politikoek (EAJ, Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP eta Ezker Aniza) hizkuntzei zuzendutako esaldi-muin kopurua laburbiltzen da hauteskunde deialdiz deialdi.

### 3.13. TAULA. AZTERGAI DIREN ALDERDI POLITIKOEN DISKURTSO LINGUISTIKORI BIDERATUTAKO ESALDI-MUIN KOPURUA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Guztira
<b>EAJ</b>	21	28	154	189	141	50	107	72	114	328	1204
<b>Ezker Abertzalea</b>	-	-	-	151	189	415	218	-	-	522	1495
<b>PSE-EE</b>	67	76	67	42	140	74	236	441	374	248	1765
<b>PP</b>	-	66	40	46	110	102	120	153	143	65	845
<b>Ezker Anitza</b>	-	-	27	40	67	190	241	249	231	14	1059

*Iturria: norberak egina.*

## 3.4. LABURBILDUZ

Kapitulu honetan, EAeko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak ikertzeko erabili den metodologia aurkeztu dogu. Hasteko, ikerketa subjektuen aurkezpena burutu da, alderdi politiko eta azterketa dokumentuen aukeraketa irizpideak zehaztu dira, hauteskunde programen bilketa eta prestaketa prozesua azaldu da eta dokumentuon analisia burutzeko diseinatu den eduki azterketaren nondik-norakoak esplikatuta dira.

Azterketa subjektuen eta dokumentuen aukeraketaren eta geroko dokumentuon prestaketa eta bilketaren ganean, honakok laburbildu daitezke. Lehenengo, azterketa dokumentu moduan Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programak aukeratu dira; dokumentuok ikerketa subjektu diren alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren erakusle baitira. Bigarren, azterketa subjektuak aukeratzekoan, EAeko espektro politikoa bere aniztasunean biltzea eta ikuspuntu diakronikoa (1980-2012) lantzeko aukera eskaintzea baloratu dira. Modu horretan, EAJ, Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP eta Ezker Anitza izan dira aukeraketarako alderdiak. Hirugarren, hauteskunde programen digitalizazio prozesua bideratu da. Behin digitalizazioa burututa, hauteskunde programa osoetatik mintzairen gaineko hizpidea sailkatu eta azterketa dokumentuak sortu dira.

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren azterketarako eraikitako eduki azterketaren diseinua *Manifesto Project* eta *Regional Manifesto Project*-en oinarritu da; baina ikerketa

objektura egokitzeko beharrak, bide bereiztu eta propioa garatzea exigitu dau. Azterketaren erronka nagusienetakoa mintzairi buruz diharduen hauteskunde programen edukia hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren artean modu zorrotzean banatzea izan da. Kodifikazio-unitate moduan esaldi-muina aukeratzeak egiteko hori ahalbidetu dau. Bestalde, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia azterketa kontzeptu edo aldagai teorikoak aztergarri bihurtzeko operazionalizazio prozesu bikoitza burutu da: aldagai teorikoak ikerketa aldagai bihurtuz lehenengo operazioanalizazio prozesuan, eta ikerketa aldagaiak kategoriatu edo kode bilakatuz bigarren operazionalizazio prozesuan. Era berean, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia modu osoan aztertzeko, beharrezkotzat jo da azterketa kontzeptuok ikerketa aldagai anitzetan operazionalizatzea (lehenengo operazionalizazioa). Ikerketa aldagaiotako batzuk, hizkuntza politikaren edo hizkuntza ideologiaren definitzaile izanda, aldagai zentral eta eskusibo moduan jo dira; eta beste batzuk, helburutzat aldagai zentral eta eskusiboek eskaintako informazioa osatzea izanik, aldagai laguntzaile moduan hartu dira. Aipatzekoa da, hizkuntza politikaren operazionalizazio prozesua nagusiki deduktiboa izan dala eta hizkuntza ideologiarena, barriz, induktiboa.

Diseinatutako eduki azterketaren fidagarritasuna bermatzeko kodifikazio gida bat sortu da eta bere balioa eta errepikagarritasuna ziurtatzeko kodeketa-berrikusleen laguntza jaso da.

Amaitzeko, hauteskunde programen kodifikazioa burutu da bi fasetan: lehenengoan, azterketa corpusa esaldi-muinetan banatu da eta, bigarrean, esaldi-muinen aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazioa burutu da. Kodifikazioaren bidez datu base bat eraiki da. Datu basearen ustiaketa estadistikoa Excel-en bideratu da, XLStat programa informatikoa erabiliz.



## 4. DATUEN ANALISIA: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIEN ERRETRATATZEA

Kapitulu honetan, aztergai diren EAEko bost alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren analisia burutuko da, alderdi politiko bakoitzari azpi-kapitulu bat zuzenduz eta ikerketa honetarako beren-beregi diseinatutako ikerketa aldagaiak ardatz hartuta. Horrela, aztergai diran alderdi politikoei Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programetan hizkuntzen gaiari zenbateko tarte eskeintzen deutesen jakingo da; eta aldi berean, diskurtso linguistikoaren zernolako azalpenak emango dira. Alegia, alderdi politikoen hizpidea hizkuntza politika ekimenek ala adierazpen ideologikoei zuzenduago dagoen, diskurtsoaren muina zeintzuk hizkuntzek osatzen dabean, zein laneko esparru garatzen dabean, hizkuntza politikaren zein adierazpen ideologikoen aplikazio edota erreferentzia lurraldea zein dan, hizkuntza politikaren bidez zeintzuk azken helburu lortu gura dabean, zernolako politika ekimenak proposatzen dabean -zein hizkuntzentzako eta zeintzuk baliotan oinarrituta-, eta azkenik, diskurtsoan mintzagai dabean hizkuntzak zein errealitatez lotzen dabean eta zein estatus atxikitzen deutesen.

Analisian datu kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuko dira. Hau da, batetik, aldagai barneko kodeen agerpen maila aztertuko da eta, bestetik, edukiak modu sakonagoan eta adibide zehatzekaz lantzeko, hauteskunde programetako aipu zuzenak erabiliko dira. Azpi-kapitulu bakoitzaren amaieran, kasuan kasu landutako alderdiaren datu esanguratsuenen laburpena burutuko da<sup>103</sup>.

### 4. 1. EUZKO ALDERDI JELTZALEA

---

#### 4. 1. 1. Hizkuntzen presentzia


---

Alderdi politikoei euren hauteskunde programetan gai ezberdin asko jorratu ohi dabean, eta hortaz, interesgarria da azalpena hizkuntzen gaiak alderdi politikoen hauteskunde programa osoan zein tarte bereganatzen dauan jakitea. Hamar legegintzalditako batzuetan bestekoa aintzat

<sup>103</sup>Alderdi politikoen deskribapena burutzeko jarraituko dan aurkezpen ordena honakoa izango da: EAJ, Ezker Abertzalea, PSE-EE, PP eta Ezker Anitza. Segida hau aukeratzearen arrazoia 2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde deialdian alderdiotako bakoitzak lortutako ordezkartza maila izan da.

hartuta, EAJk hauteskunde programen %4,9 bideratu deuto hizkuntzen gaiari; nahiz eta hauteskunde deialdiaren arabera gorabeherak izan diren (ikusi 4.1. grafikoa).

#### 4.1. GRAFIKOA. DISKURTSO LINGUISTIKOA EAJ-REN HAUTESKUNDE PROGRAMETAN. 1980-2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA)\*




\* Ehunekoak lortzeko hauteskunde programa bakoitzaren hitz-kopuru osoa eta hizkuntzei buruz diharduen esaldimuen hitz-kopurua hartu dira kontuan.

*Iturria:* norberak egina.

#### 4.1.2. Eduki mota

EAJren diskurtso linguistikoa hizkuntza politika neurriak proposatzera oso bideratua egon da; izan ere, hizkuntza politika ekimenek adierazpen ideologikoen tarte bikoitza bereganatu dabe, %66,2 eta %33,8, hurrenez hurren. Gainera, hizkuntza politika ekimenen nagusigoa egonkor mantendu da hauteskunde programa guztietan, nahiz eta programa batzuetan gailentzea nabarmenagoa izan dan (4.2. grafikoa).

#### 4.2. GRAFIKOA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN EDUKI MOTA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak eginda.

#### 4.1.3. Hizkuntza jokoa

Hizkuntzak hizpide hartuta, aipatzekoa da EAJren hauteskunde programetako hizkuntzen jarduna euskarari zuzendua dagoela gehiago nagusian; hain zuzen, hamar hauteskunde programen batazbestekoa aintzat hartuta, hizkuntzen gaineko hizpidearen %91,2, %75,98 modu eskusiboan eta %15,22 beste hizkuntza batzuek batera, bereziki gaztelaniagaz (%12,97) (ikusi 4.1. taula).

Dana dala, urtean urteko hizpideak begiratuta eta lehenengo urteetako hauteskunde programak erreferentziatzen harturik, euskararen eskusibotasunak behar bada bat izan dauka baiezta daiteke. Egitez, 1980ko hauteskunde programan euskararen eskusibotasuna erabatekoa izan da (%100); 2012ko hauteskunde programan, ostera, %68,81koa (ikusi 4.1. taula). Aipatzekoa da, gehienetan, euskarak banaka galdutako espazioa euskara-gaztelania hizkuntza bikoteak bereganatu dauka.



4.1. TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN HIZKUNTZAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)\*

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbestekoa
Hizkuntzak orokorrean	0	3,57	5,19	0	0,71	12	2,80	0	0,88	4,89	2,99
Euskara	100	92,86	78,57	94,18	78,01	58	50,47	84,72	78,07	68,81	75,98
Gaztelania	0	0	0,65	0	0	0	0	0	0	0	0,08
Ingelesa	0	0	0	0	0	0	0	2,78	6,14	1,22	1,08
Euskara & Gaztelania	0	3,57	14,29	4,76	19,15	10	23,36	5,56	7,89	16,51	12,97
Euskara & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,61	0,17
Euskara & Frantsesa	0	0	0	0	0	0	0	0	0,88	0	0,08
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	1,87	2,78	1,75	3,67	1,50
Euskara & Gaztelania & Frantsesa	0	0	0	0	0	0	4,67	0	0,88	0	0,50
Gaztelania & Frantsesa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,31	0,08
Atzerriko hizkuntzak	0	0	1,30	0,53	0,71	0	2,80	0	0	0,61	0,75
Etorkinen hizkuntzak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,61	0,17
Eleaniztasuna	0	0	0	0,53	0,71	14	12,15	4,17	3,51	2,14	2,99
Hizkuntza gitxituak	0	0	0	0	0,71	0	1,87	0	0	0,61	0,42
Berezko hizkuntza	0	0	0	0	0	6	0	0	0	0	0,25
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	21	28	154	189	141	50	107	72	114	328	1204

\*Espazioa aurrezte aldera kapitulu honetako tauletan alderdi politikoek hizpide izan dabezan kodeak soilik zehaztuko dira.

*Iturria:* norberak egina.

EAJren diskurtso linguistikoan langai izan diren hizkuntzak aipatzean, frantsesari tarte berezia eskaintzea komeni da. Frantsesa zazpi esaldi-muinetan bakarrik izan da hizpide, baina esaldi-muinon indar sinbolikoa handia da; izan ere, aipamenotan transmititutako ideia nagusia euskaldunon hizkuntzak euskara, gaztelania eta frantsesa direla izan da. *La sociedad vasca es plurilingüe, ya que el castellano y el francés son también nuestras lenguas* (EAJ, 2009).

Bestalde, EAJren hauteskunde programetan atzerriko hizkuntzak, modu orokorrean, 1986an izan dira lehenengoz hizpide; ingelesa, barriz, 2001ean. Halaber, 2001eko ingelesaren lehenengo agerraldiaz geroztik bere presentzia etenbakoa izan da eta, esan daiteke gainera, orduz geroztik nazioarteko hizkuntzen hizpideaz ingelesa jabetu dala (ikusi 4.1. taula). Ildo berean, 1998ko hauteskunde deialditik aurrera, hizkuntza aniztasunak EAJren diskurtsoan indar esanguratsua hartu dau, euskara eta euskara eta gaztelaniaren atzetik hirugarren indar bilakatuta.

EAJk bestelako hizkuntza ala hizkuntza kategoria batzuk be aipatu izan dauz bere diskurtsoan (hizkuntza gitxituak orokorrean, etorkinen hizkuntzat, etab.), baina horreen presentzia murrizta eta puntuala izan da oso.

#### 4. 1. 4. Alorrak

---

EAJk politika alor diferenteak landu dauz bere diskurtsoan, nahiz eta neurri desbardinean. Hezkuntza da EAJren hauteskunde programetan presentzia handiena bildu dauan alorra; hain zuzen, hizpidearen %24,67. Hezkuntzaren baitan eskola nagusitu da; nahiz eta unibertsitate eta ikerketa-zentroek eta hizkuntza eskolek be presentzia aipagarria bereganatu daben. Hezkuntza alorraren atzetik gizarte bizitza (%18,19), hizkuntza politikaren esparru orokorra (%16,86), herri administrazioa (%13,87) eta kulturagintza (%13,29) kokatu dira. Herri administrazioaren baitan epaitegiek presentzia esanguratsu eta egonkorra bereganatu dabe; ostera, herri administrazioiko bestelako azpi-alorrak be langai izan diran arren (osasun sistema, hizkuntza politika sailburuordetza, administrazio lokala, ertzaintza), euren indarra askoz murriztagoa izan da. Bestalde, komunikabideak erdibideko posizioan kokatu dira, hizpidearen %5,81 bilduta. Aipatzekoa da, alderdiaren komunikabideen gaineko jardunaren erdia inguru EiTbK batu dauala. Azkenik, alorrik ahulenak esparru juridikoa, lan mundua eta teknologia barriak izan dira; hurrenez hurren, %2,57, %2,49 eta %2,24 bere eginez (ikusi 4.2. taula).

4.2. TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN POLITIKA  
ALOR OROKORRAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen bataz- bestekoa
<b>Herri administrazioa</b>	9,52	17,86	24,68	13,23	7,80	6,00	11,21	22,22	9,65	13,41	13,87
<b>Irakaskuntza</b>	14,29	32,14	32,47	34,39	28,37	20,00	29,91	19,44	19,30	15,85	24,67
<b>Komunikabideak</b>	23,81	3,57	7,14	15,87	4,96	2,00	0	1,39	1,75	3,66	5,81
<b>Teknologia barriak</b>	0	0	0	0	0	6	3,74	2,78	4,39	3,96	2,24
<b>Lan mundua</b>	4,76	0	0,65	0,53	1,42	0	4,67	1,39	5,26	3,96	2,49
<b>Kulturgintza</b>	28,57	17,86	9,74	7,94	18,44	24,00	8,41	18,06	21,93	10,37	13,29
<b>Gizarte bizitza</b>	9,52	7,14	11,69	9,52	17,02	34,00	19,63	4,17	23,68	26,52	18,19
<b>Esparru juridikoa</b>	0	7,14	5,84	3,17	0	0	0,93	4,17	2,63	2,13	2,57
<b>Orokorrean</b>	9,52	14,29	7,79	15,34	21,99	8,00	21,50	26,39	11,40	20,12	16,86
<b>Guztira %</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>N =</b>	21	28	154	189	141	50	107	72	114	328	1204

*Iturria: norberak egina.*

Datuak hauteskunde urteka aztertuta, gorabeherak handiak direla baieztatu daiteke hizkuntza politika alor guztietan. Baina gorabeherak-gorabehera, zenbait alor hauteskunde deialdi guztietan izan dira hizpide; zehazki, herri administrazioa, hezkuntza, kultura, gizartea eta hizkuntza politikaren arlo orokorra. Teknologia barrien kasuan, 1998ko hauteskunde programan lehenengoz hizpide izan ziranetik, presentzia egonkorra izan da (4.2. taula).

#### 4. 1. 5. Aplikazio esparrua

Hamar hauteskunde programetako batazbesteko datuak aintzat hartuz gero, EAJk bere diskurtsoaren gehiengo nagusia, %83,21, EAEra bideratu dau (ikus 4.3. taula). Bigarren

posizioan Euskal Herria kokatu da, nahiz eta askoz neurri motelagoan (%7,23) eta hirugarrena nazioartea izan da, nahiz eta EAE eta Euskal Herritik distantzia nabarmenera (%3,74). Bestelako esparru geografikoak be izan dira EAJren diskurtso linguistikoaren xede (eremu estrategikoa, Europar Batasuna, diaspora, etab.), barriz, euren presentzia bazterrekoa izan da oso.

4.3.TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN APLIKAZIO  
ESPARRUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabes- tekoa
<b>Lokala</b>	0	0	0,65	1,06	1,42	0	0	0	0,88	0,30	0,58
<b>Eremu estrategikoak</b>	4,76	0	0	3,70	0	0	0	0	1,75	0,91	1,08
<b>EAE</b>	85,71	85,71	90,26	87,83	93,62	52	80,37	78,87	73,68	82,32	83,21
<b>Euskal Herria</b>	0	0	6,49	3,17	1,42	18	14,95	12,68	4,39	9,15	7,23
<b>Europar Batasuna</b>	0	0	0	0	2,13	0	0	1,41	1,75	0,30	0,58
<b>Nazioartea</b>	0	0	1,30	1,06	0	18	3,74	4,23	7,02	5,18	3,74
<b>Diaspora</b>	0	0	0	1,06	0	2	0,93	0	0,88	0,30	0,50
<b>Iparraldea</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,30	0,08
<b>NFE</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,30	0,08
<b>Estatu Frantsesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,30	0,08
<b>Nafarroa &amp; Iparraldea</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,61	0,17
<b>Euskal Herria indefinitua</b>	9,52	14,29	1,30	2,12	1,42	10	0	2,82	9,65	0	2,66
<b>Guztira %</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
<b>N =</b>	<b>21</b>	<b>28</b>	<b>154</b>	<b>189</b>	<b>141</b>	<b>50</b>	<b>107</b>	<b>72</b>	<b>114</b>	<b>328</b>	<b>1204</b>

Iturria: norberak egina.

#### 4. 1. 6. Azken helburuak

EAJk hizkuntza politikaren bidez lortu gura dauan azken helburua edota hizkuntza bizikidetzatza ideala irudikatzerakoan desiatzen dauan jomuga zein dan aztertzea interesgarria da oso; baita hizkuntzei buruz jarduterakoan azken helburu hori irudikatzeari zenbateko tartea eskaintzen deuson.

EAJk bere hizkuntzen inguruko hizpidearen %12,87 bideratu dau hizkuntza politikaren azken helburuak definitzera (ikus 4.4. taula). Halaber, datuak hauteskunde deialdiz deialdi aztertuta, desbardintasun garrantzitsuak somatzen dira. 1980ko aurreneko hauteskunde deialdian EAJk ez eutsen hizkuntza politikaren bidez lortu gura ebazan azken helburuei erreferentziarik egin; eta 1984ko programan helburuok hizpidearen %3,57 baino ez eben bereganatu. Geroztik, ehunekoak nabarmen igo dira, nahiz eta hauteskunde deialdiaren arabera gora beherak esanguratsuak diran.

4.4. TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN PRESENTZIA  
EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN. 1980-2012 (%-AK HAUTESKUNDE  
PROGRAMAKA. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbes- tekoa
<b>Azken helburuen ehunekoa</b>	0	3,57	9,09	16,93	24,11	20	13,08	15,28	10,53	8,23	12,87
<b>N =</b>	21	28	154	189	141	50	107	72	114	328	1204

*Iturria:* norberak egina.

Azken helburuen artean, euskararen normalizazioa da EAJren diskurtsoan gehiengo handiena bereganatu dauana (%65,81). Atzetik dator elebitasuna azken helburuen %21,94gaz eta eleaniztasuna %10,32gaz (ikus 4.5. taula). Lehentasunezko hizkuntza moduan euskera ezartzeak hiru aipamen besterik ez dauz lortu hamar hauteskunde deialditan.

## 4.5. TAULA. EAJ-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbestekoa
<b>Elebitasuna</b>	0	0	50	6,25	26,47	10	28,57	0	33,33	25,93	21,94
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	0	2,94	40	21,43	27,27	0	18,52	10,32
<b>Normalizazioa</b>	0	100	50	87,50	67,65	50	50	72,73	66,67	55,56	65,81
<b>Lehentasunezko hizkuntza</b>	0	0	0	6,25	2,94	0	0	0	0	0	1,94
<b>Guztira %</b>	0	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>N =</b>	0	1	14	32	34	10	14	11	12	27	155

*Iturria: norberak egina.*

Normalizazioaren nagusitasuna hauteskunde programa guztietan izan da konstantea, nahiz eta gehiago hori elebitasun eta eleaniztasunagaz partekatu dauan maila handiagoan ala txikiagoan (ikusi 4.5. taula). Hala, 1994. urtera arte elebitasuna izan da normalizazioagaz espazioa partekatu dauana; 1994az geroztik, barriz, elebitasunak eta eleaniztasunak biak partekatu dabe, hauteskunde deialdiaren arabera bat edo beste nagusituz. Euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzeak hiru aipamen besterik ez dauz lortu hamar hauteskunde deialditan.

EAJk azken helburuak politika alor guztietara zuzendu dauz. Irakaskuntza esparrua izan da azken helburu gehien bildu dauzana (%20), baina atzetik gertu kokatu dira gizarte bizitza (%17,74), hizkuntza politikaren esparru orokorra (%16,13), herri administrazioa (%16,13) eta komunikabideak (%10,32). Kulturgintzara, lan mundura, esparru juridikora eta teknologia barrietara bideratutako azken helburuak, barriz, askoz be aipamen gitxiago bildu dabez (ikusi 4.6. taula).


4.6. TAULA. EAJ-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN POLITIKA ALORRAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
<b>Orokorrean</b>		16,13
<b>Herri administrazioa</b>		16,13
<b>Irakaskuntza</b>		20
<b>Komunikabideak</b>		10,32
<b>Teknologia barriak</b>		1,29
<b>Lan mundua</b>		3,23
<b>Kulturgintza</b>		3,87
<b>Gizarte bizitza</b>		17,74
<b>Esparru juridikoa</b>		1,29
<b>Guztira</b>	%	<b>100</b>
	N=	<b>155</b>

*Iturria: norberak egina.*

Esparru bakoitzean nagusitu dan azken helburua aztertuz gero, gizarte bizitzan eta irakaskuntzan salbu, gainontzeko alor guztietan euskararen normalizazioa izan da gailendu dan azken helburua. Eta egitez, herri administrazioan, esparru juridikoan, lan munduan eta teknologia barrietan horixe izan da aipatutako azken xede bakarra (4.3. grafikoa). Komunikabideetan eta kulturgintzan be euskararen normalizazioa izan da indar handiena bereganatu dauan azken helburua, %87,5 eta %66,67 bilduta, hurrenez hurren; halaber, eremuotan elebitasuna nagusitzea be hartu dau xedetzat EAJk. Bestalde, gizarte bizitzan elebitasunak euskararen normalizazioari aurrea hartu deutso aipamenen %46,51 batuta; eta eleaniztasuna be ezarri dau alderdiak noiz edo noiz helburu. Irakaskuntzan, barriz, euskararen normalizazioak, elebitasunak eta eleaniztasunak antzeko presentzia bereganatu dabe.

### 4.3. GRAFIKOA. EAJ-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK POLITIKA ARLOKA (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak egina.

Azken helburu orokorren datuak modu kuantitatiboan aztertzeak besteko interesa dauka ehuneko horreen atzean ostentzen diren edukiak aztertzeak. Euskararen normalizazioa, elebitasuna, eleaniztasuna eta euskera lehentasunezko hizkuntza segida honetan aztertuz gero, hurrengoak aipatu daitezke:

EAJk euskararen normalizazioaren aldeko leku-hartze argia bereganatzen dau: *independientemente de que la política lingüística se plasme en ritmos y procesos diferentes, lo sustancial es que se avance de modo progresivo, en el camino de la normalización* (EAJ, 1994). Alderdiaren hitzak kontuan izanda, euskara hizkuntza normalizatu izango da egunerokoan komunikazio tresna ohiko bilakatzen danean. Horretarako, mintzaira normalizatu bateri dagokiozan funtzio desbardinak bereganatu beharko daz eta bere erabilera gizarteko esparru guztietan berreskuratu ala ezarri beharko da. Beraz, azken xedea eta erronka honakoa da: *la consecución de una normalización real que garantice una presencia dinámica del euskera en el entramado de toda la vida social como instrumento operativo* (EAJ, 1990); *su normalización, la extensión generalizada del conocimiento, el paso del conocimiento al uso y la ocupación de espacios y funciones dependientes hasta el momento de otras lenguas* (EAJ, 1994). EAJk normalizazioa erreala (*real*), benetakoa (*efectivo*) eta erabatekoa (*plena*) izatea gura dau. Hortara, 2005eko aipamena hona ekarriz: *planteamos la normalización del euskera en el trabajo, en la educación, la administración, los medios de comunicación, la*



*familia, el deporte y el ocio* (EAJ, 2005). Eta lanean, hezkuntzan, herri administrazioan, komunikabideetan, familian, kirolean zein aisian normalizazio prozesua bideratzeko normalizazio neurriak (programak, planak, esaterako) dauz proposagai alderdiak.

Aurretik aipatu dan moduan euskararen normalizazioa herri administrazioan izan dau aipatuena EAJk. Zentzu horretan, interesgarria da alderdiak herri administrazioaren baitan euskararen normalizazioari erreferentzia egiten deutesanean darabilzan aditz moten gainbegirada egitea; izan be, maila orokorrean euskararen normalizazio erreala, benetakoa eta erabatekoa aipatzen dauzan arren, herri administrazioan normalizazio erabatekoa baino normalizazio prozesuan aurrera egiteko nahia mahaigaineratzen dau: *procurar la normalización* (1984), *profundizar en el proceso de normalización* (1990, 1994), *medidas tendentes a la progresiva normalización* (1990), *esfuerzo de normalización* (1990, 1994), *incentivar aplicación de planes* (1998), *implantar medidas* (2005), *impulsar la normalización* (2012).

Hezkuntzan eta komunikabideetan normalizazioaren aipamenak horren ugariak izan ez diren arren, aipatzekoa da EAJk hezkuntza euskararen normalizaziorako alor zentral moduan agertu dauala (1990, 1994), baita komunikabideak be (1986, 1990): *importancia decisiva que tienen los medios de comunicación de cara a la normalización del uso del euskera, y todas sus consecuencias* (EAJ, 1990). Aldi berean, azpimarragarria da euskararen normalizazioa EAEn lortzeko nahiaz haratago, euskal lurralde osoan ezartzeko gogoia be adierazi dauala EAJk 2012an.

Bestalde, elebitasuna azken xede moduan gizartean izan dau nagusiki hizpide EAJk. Alderdiak behin eta barriro egin dauan aldarrikapena egoera elebidun erreal eta zinezkorako bidea egitea eta egoera hori eskuratzea izan da: *alcanzar una situación de bilingüismo real y efectivo* (EAJ, 1986). Elebitasuna parekidea, orekatua izateko nahia be adierazi dau EAJk sarri: *un bilingüismo social cada vez más armonioso equilibrado e igualitario* (EAJ, 2012), *la paridad social de ambas lenguas* (EAJ, 2012). Aipatu beharrekoa da, EAJk 1986az geroztik elebitasuna azken helburu moduan ezarri arren, helburu hori aurkezteko moduan formulazio aldaketa esanguratsua gertatu dala: 2001era arte elebitasuna helmugan kokatu da, 2009tik aurrera, barriz, prozesuan. Horren adierazgarri honako bi aipuak: *para alcanzar una situación de bilingüismo real* (1986, 1990, 2001) edo *hacia un bilingüismo real/social* (2009, 2012). Ildo honetan, interes berezia dauka 2012ko hauteskunde programan EAJk egindako proposamen barria, hain zuzen, elebitasun pasiboa sustatu eta prestigiatzearena: *promover y prestigiar el bilingüismo pasivo* (EAJ, 2012).

Hezkuntza alorrean unibertsitatea izan da elebitasuna xede moduan ezarrita aipamen gehien jaso dauzana, hain zuzen, unibertsitate elebiduna lortzea. Halaber, aipatu beharra dago, aldarrikapen hau 1990 eta 1998ko hauteskunde deialdien artean burutu dauala alderdiak.

Bestalde, komunikabideetan euskara eta gaztelaniaren parekatze progresiboa 1986an izan da aipatua eta politika kulturalen elebitasuna 1994an.

Eleaniztasuna hezkuntza alorrean lortu beharreko azken xede moduan planteatu dau gehiengoan EAJk. Hain zuzen, ikasleen eleaniztasuna bermatzea da bilatutakoa, modu horretan, gizarte eleanitzean be sakontzeko: *para avanzar de este modo en el objetivo de conseguir una sociedad vasca cada vez más multicultural, más multilingüe* (EAJ, 2001). Izan ere, alderdiak gizarte eleaniztasunerako bidea jorratu gura dau, beti be elebitasunetik abiatuta: *avanzar decididamente hacia el plurilingüismo desde un bilingüismo efectivo y real* (EAJ, 2012).

Euskara lehenetazko hizkuntza moduan ezartzea 1990 eta 1994ko hauteskunde deialdietan proposatu da bakarrik; zehazki, euskararen normalizazio bidean, komunitate euskaldunaren baitan euskara funtzio guztietan lehenengo hizkuntza moduan ezartzea proposatuz: *Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco considera que caminar hacia la normalización del euskera requiere, en lo referente a la comunidad euskaldun, priorizar la identificación y potenciación del euskera como primera lengua en todas sus funciones, posibilitando a los euskaldunes su práctica cotidiana* (EAJ, 1994); eta herri euskaldunetan euskararen erabileraren nagusigoa lortzea proposatuz: *con el objetivo de incrementar la presencia y el uso del euskera en los municipios, en especial el de los mayoritariamente vascófonos, y conseguir el predominio de la práctica del euskera en todos los ámbitos sociales* (EAJ, 1990).

#### 4. 1. 7. Hizkuntza politika proposamenak

---

Atal honen bidez, EAJk mintzaira desbardinei bideratutako hizkuntza politika ekimen zehatzak aztertuko dira. Aurretik aipatu dogun moduan, EAJren hizkuntzen inguruko diskurtsoa hizkuntza politikei adierazpen ideologikoei baino zuzenduago dago; zehazki, batzbesteko datuak aintzat hartuta, hizpidearen %33,8 gehiago dira politika ekimenak adierazpen ideologikoak baino (ikusi 4.7. taula). Hori horrela izanik be, hauteskunde deialdi batetik bestera ekimen moten aniztasuna nabarmen aldatu da. 2012ko hauteskunde programa da dibertsitate handiena erakutsi dauana eta 1980koa txikiena agertu dauana. Aipatzekoa da ekimen-moten aniztasuna hauteskunde bakoitzean hizkuntzei eskainitako esaldi-muin kopuruagaz batera doala. Hau da, zenbat eta tarte handiagoa eskaini hizkuntzei -esaldi-muin gehiago- orduan eta ekimen-mota desbardin gehiago izango dira landuak. Era berean, nabarmentzekoa da, EAJk hizkuntza politika ekimenak aldagaiaren baitan bereizitutako ekimen-mota danak (guztira 29 kategoria) izan dauzala proposagai hauteskunde programa batean edo bestean.

4.7. TAULA. EAJ-REN HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN INGURUKO  
DATU ZENTRALAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA.  
1980-2012

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbes- tekoa ala guztira
<b>Hizkuntzen gaiari hauteskunde programetan eskainitako ehunekoa</b>	3,6	2	6,6	8,5	5,8	2,9	4,8	4,1	4,8	5,9	4,9
<b>Hizkuntza politika eduki motara zuzendutako esaldi-muin kopurua</b>	15	18	109	141	88	30	61	49	72	214	797
<b>Hizkuntzen diskurtsoan hizkuntza politika eduki motak bildutako ehunekoa</b>	71,43	64,29	70,78	74,60	62,41	60	57,01	68,06	63,16	65,24	66,20
<b>Hizkuntza politika ekimen mota kopurua</b>	8	10	19	23	19	10	18	16	20	25	29

*Iturria: norberak egina.*

EAJk hizkuntza politika ekimenak hizkuntza desbardinei zuzendu deituz 1980az geroztik. Hori horrela, euskarak eta euskara-gaztelania hizkuntza jokoak salbu, gainontzeko hizkuntza eta hizkuntza kategoriek oso ekimen gitxi eta puntualak bereganatu dabez (ikus 4.8. taula). Horrela, aurkezpen honetan euskarari zuzendutako proposamen politikoetan, euskara-gaztelaniari egindakoetan eta, ikerketa helburuak aintzat hartuta interesekoak direnez, nazioarteko hizkuntzetan – ingelesa barne- eta etorkinen hizkuntzetan jarriko da arreta.

4.8. TAULA. EAJ-K HIZKUNTZA DESBARDINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batatzes- ptekoa
Hizkuntzak	0	0	7,34	0	1,14	6,67	4,92	0	0	2,34	2,38
Euskara	100	94,44	76,15	92,20	78,41	60	59,02	87,76	75	71,50	77,54
Ingelesa	0	0	0	0	0	0	0	2,04	8,33	1,40	1,25
Euskara & Gaztelania	0	5,56	15,60	6,38	17,05	10	24,59	4,08	11,11	15,42	12,92
Euskara & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,93	0,25
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	3,28	4,08	2,78	3,74	1,76
Gaztelania & Frantsesa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,47	0,13
Atzerriko hizkuntzak	0	0	0,92	0,71	1,14	0	1,64	0	1,39	0,47	0,75
Etorkinen & Gixiengo etnikoen hizkuntzak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,47	0,13
Eleaniztasuna	0	0	0	0,71	1,14	20	3,28	2,04	1,39	2,34	2,13
Hizkuntza gixituak	0	0	0	0	1,14	0	3,28	0	0	0,93	0,63
Berezko hizkuntzak	0	0	0	0	0	3,33	0	0	0	0	0,13
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	15	18	109	141	88	30	61	49	72	214	797

Iturria: norberak egina.

### Euskarari zuzendutako proposamen politikoak

Aurretik aipatu dogun moduan, EAJren hizkuntza politika euskarari zuzendua dago gehiengo nagusian. Egitez, euskarak berak beratara hizkuntza politika ekimenen %77,54 bereganatu dau, 26 ekimen mota desbardinetan egituratuta (ikus 4.9. taula). Euskararentzako ekimen kopuru handiena bildu dauan alorra irakaskuntza izan da. Halaber, herri administrazioak, hizkuntza politikaren arlo orokorrak, gizarte bizitzak eta, neurri txikiagoan, komunikabideek eta kultur gintzak be hainbat ekimen batu dabez. Ostera, teknologia barriei, lan munduari eta esparru juridikoari itzitako tartea murriztagoa izan da.

4.9. TAULA. EAJ-K EUSKARARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA  
EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orokor	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Tek. barri	Lan	Kul.	Giz.	Jurid.	Batazbes- tekoa
Komunikazio hizkuntza funtzioa	10,64	8,41	5,11	35,19	60,87	9,52	0	50	0	17,56
H. Babestu, bultzatu	46,81	7,48	2,92	9,26	4,35	4,76	27,78	6,82	5	14,21
Baliabideak: tekniko, gisa, material	3,19	2,80	8,76	11,11	26,09	4,76	16,67	2,27	0	7,02
Ezagutza, euskalduntzea	6,38	13,08	11,68	0	0	9,52	0	3,41	0	6,86
Plangintza soziolinguistikoa	12,77	14,02	3,65	0	0	19,05	0	0	0	6,02
Ikasketa, alfabetatzea	0	3,74	20,44	1,85	0	0	0	0	0	5,52
Sorkuntza, ekoizpen, eskaintza kulturala	0	0	0	14,81	0	9,52	18,52	5,68	0	4,18
Corpus plangintza	1,06	1,87	0	7,41	8,70	0	27,78	0	0	4,01
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	0	9,35	8,03	5,56	0	0	0	0	0	4,01
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	11,70	0,93	1,46	1,85	0	0	3,70	6,82	0	3,85
Transmisioa	0	0	0	0	0	0	0	23,86	0	3,51
Finantzaketa, diru laguntzak, hitzarmenak	0	2,80	7,30	3,70	0	0	0	0	0	2,51
Ebaluaketa, erreforma	1,06	2,80	6,57	0	0	4,76	0	0	0	2,34
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	8,76	0	0	4,76	0	0	0	2,17
Legedia: mantendu	1,06	0,93	0	0	0	0	0	0	50	2,01
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	11,21	0	0	0	0	0	0	0	2,01
Hizkuntza eskubideak	1,06	6,54	0,73	1,85	0	0	0	0	0	1,67
Ikerketa	0	0	7,30	0	0	0	0	0	0	1,67
Ofizialtasuna, estatus juridikoa	0	0	0	0	0	0	0	0	40	1,34
Hizkuntza didaktika	0	0	5,84	0	0	0	0	0	0	1,34
Laneko hizkuntza funtzioa	1,06	6,54	0	0	0	0	0	0	0	1,34
Itzulketa, bikoizketa	0	2,80	0	1,85	0	0	5,56	0	0	1,17
Tituluak akreditazioak	0	0,93	0,73	0	0	23,81	0	0	0	1,17
Legedia: aldatu	0	1,87	0	5,56	0	0	0	0	5	1
Hizkuntza paisaia	3,19	0	0	0	0	9,52	0	1,14	0	1
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0	1,87	0,73	0	0	0	0	0	0	0,50
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	94	107	137	54	23	21	54	88	20	598

Iturria: norberak egina.

**Irakaskuntzaren** baitan eskola izan da euskararentzako politika ekimen gehien bildu dauzan esparrua. Hori horrela, aipatzekoa da ekimen gehienak 1998 eta aurreko hauteskunde urteetakoak direla. Hau da, 1998az geroztik, euskarari modu indibidualean zuzendutako proposamen politikoak oso urriak izan dira eskola esparruan.

EAJk eskolari euskara komunikazio hizkuntza moduan normalizatzeko balioa aitortu izan deutso (1994). Horretarako, baina, hezkuntza sistemaren euskalduntze beharra aldarrikatu dau EAJk, irakasleak izanik beronen giltzarri. Horrela, 1994ko hauteskunde programara arte irakasleen euskalduntzera bideratu izan dau ahalegina alderdiak, irakasleen birziklatze planen baitan euskalduntzea lehentasunezko helburu moduan joaz (1990) eta euskalduntze prozesu trinkoak bideratuz (1990). Hala, EAJk irakasleen euskalduntze prozesuaren une zentraletan irakasleek euskara ikastea gizartearen aldetik exijitu daiteken eskaera moduan jo izan dau: *el esfuerzo de reciclaje individual que la sociedad puede exigir a los docentes* (EAJ, 1990), eta horrela, EAJk irakasleei hizkuntza eskakizunak ezartzeko hautua egin dau. *A todas las plazas docentes, sean públicas o privadas, se les deberá adjudicar un perfil lingüístico* (EAJ, 1990). Halaber, EAJk adinagaitik edota beste arrazoi batzuek aitik ezin euskaldundu daitekezan irakasleak kontuan izan dauz eta eurak ez baztertzeko konpromisoa be hartu dau. *La Administración debe catalogar a este colectivo, con el fin de darle seguridades en su trabajo docente o en otros trabajos alternativos* (EAJ, 1990). Irakasleen euskalduntze prozesura zuzendutako ekimenez gainera, bestelako ekimenak be proposatu izan dauz EAJk, danak euskararen ikasketara eta bere hobekuntzara modu zuzen ala zeharkakoan bideratuak: D eta B eredu zabalkundea (1990), euskarazko materialen produkzioa (1984, 1986), irakaskuntza metodologiaren (1994) eta sistema didaktikoen hobekuntza (1984), Iraleren egokitzapena eta berdefinizioa (2005), euskararen erabilera handitzea (2012), etab. Aipatzekoa da EAJk ume etorkinak euskara ikasteko agertu dauan nahia be: *potenciar el conocimiento del euskera por los inmigrantes, mediante su aprendizaje en el sistema educativo* (EAJ, 2005).

Unibertsitatera begirako euskara ekimenak be ugariak izan dira eta, eskolan ez bezala, bere presentzia egonkor eta indartsu mantendu da 1984az geroztik. EAJk unibertsitatearen euskalduntze progresiboa ezarri dau xedetzat. 1986ko alderdiaren hitzak aipatuz, *la progresiva euskaldunización de la universidad vasca es premisa imprescindible para que nuestro idioma llegue a su mayoría de edad y logre su perfecta adecuación a la cultura superior contemporánea* (EAJ, 1986). Hau da, EAJk euskarak unibertsitatean ikasketa funtzioa bereganatzea gura dau eta horretarako euskalduntze planak (1990, 1994, 1998) eta euren finantzaketa (1994) proposatu izan dauz. Aipatzekoa da, unibertsitate mailan hizkuntza eskakizunak bi hauteskunde deialditan bakarrik izan dauzala mintzagai EAJk, 1990ean eta 1994an. Bere hitzetan, *al igual que en la enseñanza no universitaria, a cada plaza docente de la Universidad debe asignarse un perfil lingüístico distinto del perfil cero* (EAJ, 1990). Azpimarragarria da euskararen presentzia nazioarteko esparru unibertsitariora zabaltzeko nahia be agertu dauala EAJk 2012an: *promover en el ámbito académico internacional la enseñanza, el estudio y el uso del euskera, a través de los programas de lectorado* (EAJ, 2012). Era berean, unibertsitate mailan burutu beharreko euskararen inguruko ikerketa soziolinguistikoak behin baino gehiagotan izan dauz hizpide alderdiak (1990, 1994, 2012).

Euskaltegi eta hizkuntza eskolen presentzia be handia izan da, eskolaren erdia inguru eta unibertsitatearen parekoa. Helburua: *impulsar el conocimiento del euskera para seguir aumentando el número de hablantes en euskera* (EAJ, 2012). Bertan, euskaltegiatzako baliabide eskaintzek, diruzkoak barne, bereganatu dabe presentzia nabarmena azken bi hauteskunde deialdietan (2009, 2012); eta 1986an eta 1994an, barriz, euskaltegi eta hizkuntza sarearen funtzionamenduaren ebaluaketa beharrak. Aipatzekoa da etorkinen euskalduntzea be izan dauala helburu EAJk (2005, 2009): *promover cursos iniciales (Aisa) para inmigrantes, así como su continuidad con cursos de aprendizaje general* (EAJ, 2009). Etorkinak mintzagai hartuta, interesgarria da azpimarratzea **etorkinen hizkuntzak** behin bakarrik izan dauzala hizpide alderdiak, 2012ko hauteskunde programan, euskara edo gaztelania ezagutzen ez daben heldu barriei lehen tramiteak euren hizkuntzan burutzeko interkomunikazio eta itzulpen mekanismoak bultzatzeko konpromisoa hartuz. Euskararen irakaskuntzara bueltatuz, atzerriko euskal kolektibitateetan euskararen eskaintza handitzea be proposatu dau 2009an alderdiak; alegia, *ampliar la oferta de euskera en las colectividades vascas* (EAJ, 2009).

**Herri administrazioari** dagokionean, aipatzekoa da bere baitan justizia administrazioa izan dala ekimen gehien bildu dauzan esparrua, herri administrazio orokorrak baino are ekimen gehiago. Hizkuntza politika sailburuordetzak, zein osasun sistemak be ehuneko esanguratsuak bildu dabez, ez ostera gainontzeko azpi-alorrek.

EAJk herri administrazioan euskararen normalizazioa lortzeko nahia hauteskunde deialdi ugaritan (1986, 1994, 2009, 2012) agertu dau. Horrela, herri administrazio orokorra, lokala, ertzaintza, osasun sistema eta epaitegiak euskalduntzeko (%13,08) eta bere erabilera indartzeko (%8,41) nahia behin baino gehiagotan agertu dau (ikusí 4.9. taula). Era berean, euskara arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzeari be aditasuna eskaini deutso alderdiak (%11,21), herritarren eskubidea baita. Horrela dino: *siempre defenderemos y trataremos de que sea efectivo el derecho de todo ciudadano vasco a relacionarse en euskera, oralmente o por escrito, con la Administración* (EAJ, 1986); Euskadin lekutua dagoen herri administrazio guztian. Halaber, arreta-harreman hizkuntzaz gainera, euskara administrazioan lan hizkuntza izatea proposatu dau (%6,54), 2012ko hauteskunde programan hori bideragarri egiteko neurriak hartzea planteatuz: *establecer canales para que los trabajadores públicos con capacidad para desarrollar su trabajo en euskera puedan ir adoptando de manera progresiva el idioma en su tarea diaria* (EAJ, 2012).

Hizkuntza eskakizunek be izan dabe tartea herri administrazioaren baitan (%11,22) (ikusí 4.9. taula) bi denbora tartetan bilduta: 1984-1990 eta 2005-2009. EAJk hizkuntza eskakizunen ezarpena eta egikaritzeko nahia hizpide izan dauz. Halanda be, hizkuntza eskakizunen exigentzia mailaren eta konplimendu beharrezkotasunaren inguruko adierazpen zehatz eta argigarririk ez dau burutu sarri. 1990eko hauteskunde programan, behin perfilak ezarrita, eurak egikaritzeko neurriak hartuko zirala baieztatu eban, baina zehaztopen gehiagorik emon barik. Esan beharra dago, hizkuntza eskakizunen alorrean justizia administrazioak protagonismo berezia jaso dauala, 2012an euskara ezagutzari lotutako gaia zehazteko Botere

Judizialaren Lege Organikoa aldatzea proposatzera arte. Bestalde, hizkuntza eskakizunei lotuta, euskararen ikaskuntza neurriak be aipatu dauz EAJk (1990, 1994, 2005, 2009). Izan ere, *la formación requerida de los Perfiles Lingüísticos ha de ser una parte consustancial de la actividad formativa que posibilite un funcionamiento bilingüe capaz de atender en el idioma demandado por sus interlocutores* (EAJ, 1990). Ildo horretan, 2005ean alderdiak langileria publikoa euskararekiko sentsibilizatu nahia agertu dau. Era berean, aipatzekoa da, arreta euskaraz jasoteko herritarren eskubidea sarri aldarrikatu dauan arren, 2005ean eta osasun esparruan lekututa, EAJk herritarren hizkuntza eskubideak langileriarren hizkuntza eskubideekaz orekatu beharra agertu ebala: *garantizando el ejercicio de los derechos lingüísticos de todos los ciudadanos vascos y su equilibrio con los derechos de los profesionales sanitarios* (EAJ, 2005).

Herri administrazioaren baitan, normalizazio planek presentzia handia (%14,02) (ikusi 4.9. taula) bereganatu dabe 1986ko hauteskunde programaz geroztik eta herri administrazioiko esparru desbardineterako: Osakidetza, Ertzaintza, justizia administrazioa, zein herri administrazio orokorra. Urteak pasatu ahala planen barriztapena baten baino gehiagotan planteatu izan dau alderdiak; azkena 2012an herri administrazio orokorrerako: *aprobación de un Plan de Normalización Lingüística de la Administración* (EAJ, 2012).

Hizkuntza politika sailburuordetza kodearen baitan Sailburuordetza bera eta Euskararen Aholku Batzordea izan dira hizpide. Lehenengoari dagokionean, EAJk Sailburuordetzarekiko apustu argia burutu izan dau, beraren bideragarritasunerako finantzaketa sendoa burutzeko konpromisoa hartuz. Bere hitzetan, *para que la política lingüística sea una acción conjuntada y estructurada, se dotará a la Secretaría General de Política Lingüística de los medios humanos legales y presupuestarios necesarios para afrontar eficazmente la acción de gobierno en torno a la planificación, coordinación y control* (EAJ, 1990). 90 hamarkada hasiera bueltan, Euskararen Aholku Batzordearen aldeko apustua be burutu eban alderdiak, bere eginkizuna burutzeko baliabideak eskaintzea proposatuz.

Bestalde, EAJk euskararen corpus planifikazioa eta euskarazko hizkuntza juridikoa bateratzea (1986) be izan dauz hizpide, baita legediaren itzulpena euskarara (2005, 2009), edota herri administrazioan aitortuak izango diren euskara ezagutza agiriak ezartzea (2012).

Euskararen **hizkuntza politika orokorrari** zuzendutako ekimenen erdia inguru (%46,81), berau babestu eta sustatzera zuzendua dago (ikusi 4.9. taula); hau da, euskararen indartzea ekarriko dauan politika baten aldeko EAJren apustura. Izan be, euskara normalizatuko bada, beharrezkoa izango da *una política decidida de defensa y promoción del euskera* (EAJ, 1990). Esan beharra dago, gainera, EAJk euskararen babes eta sustapenarekiko konpromisoa ez dauala EAera mugatu; Euskal Herri osora zabaltzeko beharrezana be aldarrikatu dau behin eta barrero (1986, 1990, 2001, 2005, 2012), eta 2012an nazioarte mailan euskara bultzatzeko nahia be agertu dau: *promoción internacional del euskera* (EAJ, 2012). Nazioartean euskara babesteko nahia Europako hizkuntza gitxitu guztiak babesteko nahiagaz bat egiten dau. Egitez, EAJk Europa mailan hizkuntza gitxituen alde burutzen diren ekimen eta erakundeei



jarraipena egin eta euretan parte hartzeko konpromisoa hartu dau (2001, 1994), eta aldi berean, Estatu Frantsesari *Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta* sinatzea ere eskatu deutso (2012).

EAJk euskararen ezagutza handitu gura dau eta euskararentzako espazio barriak irabazi: *la ocupación de espacios y funciones dependientes hasta el momento de otras lenguas* (EAJ, 1990). Alderdi politikoaren hitzetan, egiteko hori hizkuntza politikari dagokio eta planifikazio linguistikoa da horretarako bide garrantzitsua. Egitez, planifikazioa EAJk bere hauteskunde programetan oso presente izan dauan hizkuntza politika neurria izan da (%12,77) (ikusi 4.9. taula); euskararen sustapen eta erabilera planen eraikuntza, garapena eta eguneratzea.

EAJk herritarren euskararekiko sentsibilizazio beharra sarritan aipatu dau (%11,7) (ikusi 4.9. taula), hori bideratzeko neurriak hartzea proposatuz. *Trabajar de manera continuada la sensibilización social para prestigiar y valorizar el aprendizaje y uso del euskera* (EAJ, 2012); *promover la atractividad de los mundos del euskera y fortalecer su prestigio e imagen social* (EAJ, 2012). Aipatzekoa da sentsibilizazioaren aldeko hautua 2012ko hauteskunde programan egin dauala nagusiki alderdiak; eta bigarren maila batean 1990ekoan.

Beste ekimen batzuk be aipatu izan dauz EAJk euskararen hizkuntza politika orokorrerako, baina oso presentzia bazterrekoagaz; besteak beste, paisaia linguistikoan euskararen presentzia bermatzea, bereziki zonalde euskaldunetan, hiriburuetan eta biztanleria dentsitate handiko guneetan, erakunde publikoetatik euskararen corpus plangintzarako neurriak bideratzea, etab.

**Gizarte alorrean** euskararen erabilera sustatzeak bereganatu dau ekimenen erdia (%50) (ikusi 4.9. taula). 1980an dagoeneko agertu eban moduan, helburua xera da: *la recuperación del euskera como medio habitual de expresión de nuestro pueblo* (EAJ, 1980), *normalizar el euskera como un instrumento de comunicación en la vida cotidiana de todos los vascos* (EAJ, 1998). Horrek gizarteko alor desbardinetan (aisialdian, kiroletan) hizkuntzaren erabilera aukerak indartzea eskatzen dau, herritarren artean eta, are indartsuago, gazteen artean eta zonalde euskaldunetan. Izatez, alderdiak interes berezia jarri dau gazteen euskara erabilera aukerak handitzeko, euren aisialdian batez ere: *promoción del euskera en las actividades que las instituciones ofertan a la juventud* (EAJ, 2001); eta herri euskaldunetan euskararen erabilera esparruetan berau errotzeko eta hizkuntza nagusi izateko: *promover que el euskera sea la primera lengua funcional en aquellos ámbitos geográficos en los que la población bilingüe se claramente mayoritaria* (EAJ, 2012). Izan ere, komunitate euskaldunetan euskara ez babesteak eta sustatzeak gaztelania indartzea ekarriko leuke: *tendría como resultado, en el mejor de los casos, una sociedad con el euskera como segunda lengua y, en el peor, una completa marginación del euskera* (EAJ, 1990). Hori horrela, EAJ bi hizkuntza komunitateen betiketzearen kontra agertzen da; bere orde euskararen ezagutza orokortzea dau amets. Horrela, gizarte mailan euskara herritarren lehen hizkuntza, hizkuntza naturala izateko neurriak bideratzea be proposatu dau (2012). Egunokotasunean euskararentzako erabilera esparruak bermatzearen garrantzia modu honetan adierazi dau EAJk: *Euzko Alderdi*

*Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco considera que deben asegurarse los ámbitos de utilización tradicionales, ya que la cotidianeidad representa la garantía más segura para la supervivencia del euskera* (EAJ, 1994). Horixe da EAJk xede dauan euskararen erabateko suspertzerako bidea.

Egunerokotasunean euskararen erabilera eta erabilera esparruak babesteko neurriez gainera, hizkuntzaren transmisioak be indar handia bereganatu dau gizarte bizitzarako EAJren diskurtsoan; ekimenen %23,86, hain zuzen (ikus 4.9. taula). EAJrentzako belaunaldien arteko euskararen transmisioa funtsezkoa da; izan ere, *la supervivencia de las lenguas minorizadas está intimamente relacionada con su espacio natural, es decir, con la transmisión familiar* (EAJ, 1994). Horregaitik, *carecería de sentido dirigir la normalización lingüística hacia nuevos ámbitos, si al mismo tiempo, o incluso antes, no se reforzara debidamente dicho mecanismo natural de transmisión lingüística familiar* (EAJ, 1994). EAJren ustetan familia transmisioaren garrantzia zentrala da ikuspegi desbardinatetik: lehenengoa, *la familia es el medio de transmisión lingüística intergeneracional más importante, sencillo, económico y efectivo*; bigarrena; *la lengua familiar es la lengua de los sentimientos y del mundo simbólico interiorizado por cada uno de nosotros*; hirugarrena, *los hablantes que más conocen y utilizan una lengua minorizada son aquellos que lo han aprendido en el entorno familiar* (EAJ, 1994). Horregaitik guztiagaitik, EAJk funtsezkotzat jo dau euskara lehen hizkuntza moduan mantentzeko oinarrizko diren mekanismoak identifikatzea, baita sustatzea be (1986, 1990). Ildo horretan, alderdiak sentsibilizazio ekimenak burutzea proposatu dau, jatorrizko bikote euskaldunetan ezeze bikote euskaldunbarrietan zein bikote mixtoetan (2009, 2012).

Transmisioan eragiteko sentsibilizazio kanpainez gainera, euskarekiko jarrera baikorretan eragitekoak be proposatu dauz EAJk, nagusiki 2012ko hauteskunde programan: *favorecer permanentemente el ambiente en favor del uso del euskera y su aceptación social* (EAJ, 2012); *conseguir que el euskera sea considerada una lengua atractiva y útil en las relaciones juveniles* (EAJ, 2012); etab.

Gizarte mailan euskararen sustapena bultzatzeko baliabideen eskaintza be planteatu dau alderdiak, ekimen desbardinaren antolaketan ezeze dagoeneko martxan dagozaneen sostenguan (1986, 1990, 2009, 2012): *el Gobierno Vasco promoverá y apoyará cuantas acciones positivas de carácter ciudadano han surgido y surjan en el futuro* (EAJ, 1990). 1990ean, hizkuntza paisaia euskalduntzera ekimen bat bideratu eban alderdiak.

**Komunikabideak** hizpide hartuta, euskal kulturaren eta euskararen biziraupenerako daben garrantzia azpimarratu izan dau: *los medios de comunicación social propios (...), tan esenciales hoy en día en toda sociedad moderna, y de especial trascendencia para la conservación de la cultura vasca y de nuestra lengua: el euskera* (EAJ, 1990).

Lehenengo hauteskunde deialdietan komunikabideetan euskara bultzatzeko EAJren hainbat adierazpen askonahikoak izan ziran. Honako esaldiak dira horren adierazle: *utilización masiva [del euskera] en los Medios de comunicación social* (EAJ, 1980),

*promoveremos el empleo preferente del euskera en los medios de comunicación de la Comunidad Autónoma, a fin de garantizar la equiparación de ambas lenguas* (EAJ, 1986). Barriz, urteak pasa ahala baieztapenak neurtuagoak egin dira; helburua komunikabideetan euskararen presentzia indartuz joatea dala adieraziz (1998, 2005, 2012), bai komunikabide idatzietan baita ikus-entzunezkoetan be: *promover medidas en favor de una mayor presencia del euskera en los medios de comunicación escritos, audiovisuales y virtuales* (EAJ, 2012). 80 hamarkadan, besteak beste, euskarazko komunikabide publikoen sorkuntza izan eban hizpide EAJk: *creación de una TV Vasca, cuya programación esté presidida por un riguroso criterio cultural vasco, con su correspondiente Centro Emisor y de Programas con personal propio con conocimiento de la cultura e idioma vascos* (EAJ, 1980). Hori horrela, EAEko komunikabide publikoetan euskarari tarte eskaintzeaz gainera, Estatu mailakoetan be bere presentzia bermatzeko nahia agertu izan dau alderdiak, Euskararen Legeak horrela ezartzen dauala agertuz: *la obligatoriedad y la necesidad que los medios de comunicación del Estado en la Comunidad Autónoma Vasca tienen para con el uso del euskera, conforme a lo establecido por la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, el Gobierno Vasco reclamará del Estado la incorporación del euskera a dichos medios* (EAJ, 1990, 1994).

Komunikabide publikoek haratago be euskararen presentzia indartzeko beharra agertu dau alderdiak, ekimen desbardin bultzatzaile edo laguntzaile moduan kokatuz Eusko Jaurlaritzaren jarduna. Esaterako, euskarazko egunkari baten sorkuntza bultzatzea (1990), irati eta telebista lokalentzako emisio baimenak eskaintzerakoan eta euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza irizpideak ezartzea (2009, 2012), gazteei zuzendutako produkzioak sustatzea (2012), zein euskal zinema bultzatzeko plan bat bideratzea (2009) eta bikoizketen etorkizuna bermatzea (2009, 2012). Euskarazko komunikabideei laguntzeko baliabideen eskaintza (1990, 1994, 2009, 2012) eta euren finantzaketa be (1980, 1990) izan dauz aipagai alderdiak. Era berean, azpimarratzekoa da 1986 eta 1990eko hauteskunde deialdietan euskaraz bideratutako irati saioak euskara darabilen lurralde guztietan hartua izateko proposamena egin eba EAJk.

Oso modu bazterrekoan bada be sentsibilizazio neurriak, zehazki, euskarazko komunikabideen kontsumoa bultzatzeko neurriak (2012); euskal publizitatean sorkuntza bultzatzea (2012); edota komunikabideetan euskararen kalitatea babestea, horrek dakarren normatibizazio prozesua aintzat hartuta (1990, 1994), be proposatu dauz alderdiak.

**Kulturaren** arloan proposamen gehientsuen bildu dauzan politika ekimena euskararen eta euskal kulturaren babesa izan da, hain zuzen, ekimenen %27,78 (ikusi 4.9. taula). Azpimarratzekoa da, kulturaren baitan euskararen babesa euskal kulturaren babesagaz batera aldarrikatu dala. Egitez, alderdiaren nahia honakoa da: *preservar y renovar su propia especificidad cultural y lingüística* (EAJ, 1990). Izan ere, alderdiak bere sorrera garaitik euskal identitate zeinuak defendatzeagaz eta garatzeagaz konprometituta dagoela agertu izan dau: *Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco está comprometido desde su nacimiento con la defensa y desarrollo de los signos de identidad* (EAJ, 1998); tradizioa, hizkuntza, kultura, etab.

Kultura eskaintzaren baitan, EAJk euskaraz egiten dan produkzio kulturala eta bere kontsumoa bultzatzeko eta anizteko nahia agertu dau; euskara komunikazio eta sorkuntza kulturalako hizkuntza bilakatzeari zentralitatea eskainiz (%18,52) (ikusi 4.9. taula). Esparru kulturalaren baitan, euskararen corpus plangintzak be presentzia indartsua bereganatu dau (%27,78). Corpus plangintzara bideratutako ekintzak 1980 eta 1994 hauteskunde deialdi bitartean proposatu izan dauz alderdiak, 2012ko ekimen bakar bat kenduta non proposatutakoa, *desarrollar, completar y renovar el corpus del euskera* dan (EAJ, 2012).

Euskararekiko eta euskal kulturarekiko, bere sorkuntza eta eskaintzarekiko konpromisoa agertzeaz gainera, euskaraz burutzen diren ekintza kulturalak babesteko baliabideak be proposatu izan dauz EAJk (%16,67) (ikusi 4.9. taula): *se establecerán las oportunas vías de apoyo a las actividades que, al amparo de ese acuerdo marco, desarrollen diversos entes* (EAJ, 1986). Baliabideetako bat 2005 eta 2009ko hauteskunde programetan agertutako Arte eta Industria Kulturalen Euskal Institutuaren sorkuntza izan da, *como órgano impulsor de la industria cultural, de las artes visuales y escénicas, así como del euskera* (EAJ, 2005); beste bat, euskararen eguneratzea eta modernizazioa burutzeko, Euskaltzaindia eta egiteko horretaz arduratzen diren bestelako erakundeak babestea (2005).

Aipatu beharra dago, kultura alorrean EAera bideratutako ekimenez gainera euskal diasporara zein nazioartera egindakoa be izan dauzala EAJk proposagai. Horrela, alderdiak *impulsará la promoción de la cultura vasca y del euskera en las colectividades vascas en el exterior, prestando especial atención a la dotación de infraestructuras telemáticas* (EAJ, 1998). Aipatzekoa da 2001ean eta 2005ean EAJk nazioarte mailako izendun Institutu bat eraikitzeo nahia agertu izan dauzala, hain zuzen, *para promocionar el euskera y la cultura vasca, informar acerca de la realidad de nuestro país y estrechar lazos con las colectividades de habla vasca en todo el mundo* (EAJ, 2001); eta 2009an, Etxepare Euskal Institutua eraikita, bera erabilera izan dauzala hizpide: *impulsar el “Instituto Vasco Etxepare Euskal institutua” en su misión de extender el interés por la cultura y la lengua vascas a través de la promoción, difusión y proyección del euskera y la cultura vasca* (EAJ, 2012).

**Teknologia barriei** dagokionean, alorra 1998an izan eban EAJk lehenengoz hizpide eta ordutik modu jarraituan izan da politika ekimenen jasotzaile. Helburu nagusia teknologia barrietan euskararen erabilera indartzea izan da (%60,87) (ikusi 4.9. taula). *La promoción del uso del euskera en la utilización de las nuevas tecnologías de la información* (EAJ, 1998), neurri desbardinak erabiliz: interneten bere presentzia handitzea, baliabide teknikoak eta aplikazioak sortzea, esaterako, itzultzaile automatikoak, softwarea euskaraz, etab.

**Lan munduan** be egin deutso tarte EAJk euskarari. Alderdiaren hitzetan, *la euskaldunización del sistema educativo, por sí sola, es insuficiente para la normalización lingüística, ya que debe tener continuidad en el mundo laboral al que se irán incorporando los jóvenes, mediante la adecuada adaptación lingüística* (EAJ, 1994). Hortara, lan munduan euskara normalizatzea be garrantzitsua da. Azken helburu horren peskizan neurri desbardinak proposatu dauz alderdiak. Normalizazio planak izan dira neurrietako bat (%19,05) (ikusi

4.9. taula); hain zuzen, *impulsar los planes de euskera de las empresas y organizaciones públicas y privadas* (EAJ, 2001); *incentivar la implantación del euskera en el ámbito socioeconómico mediante la elaboración de planes de normalización lingüística específicos y sectoriales* (EAJ, 2005). Aipatzekoa da, 2001ean lehen plana proposagai izan ebanetik hauteskunde deialdi guztietan izan daua lan munduan plan bat bideratzeko. Normalizazio planez gainera, euskararen ezagutza aditzera emoten daben egiaztagiriek be baten baino gehiagotan izan dauz proposagai EAJk (%23,81); baldintzak betetzen dabezana enpresetan egiaztagiriak eskaintzea zein egiaztagiria daben enpresen kopurua hastea. Irakaskuntza eta lan munduaren arteko zubilana burutzeko plan bat be izan dau proposagai EAJk 2012ko hauteskunde programan; zehazki: *construir puentes entre el mundo educativo y el mundo laboral, al objeto de garantizar la presencia del euskera en los programas de prácticas y formación* (EAJ, 2012). Bestalde, produktuen etiketatzea euskaraz burutzea hauteskunde deialdi batean izan eban mintzagai alderdiak, 2001ean, hain zuzen.

**Esparru juridikoaren** baitako ekimenak bi inizatiba moten bueltan zentratu dira: euskararen legediaren mantentze eta garapenean (%50), eta euskararen estatus juridiko eta ofizialtasunaren aldarrikapenean (%40) (ikusi 4.9. taula). Lehenengoari dagokionean, azpimarratu beharrekoa da EAJk legedia mantendu vs. legedia aldatu kode jokoan lehenengoaren alde egin daua, hau da, indarrean dagoen legedia mantendu eta garatzearen alde. Izan be, EAJk euskararen garapena bultzatzeko EAEko egungo marko juridikoa egokitzen jotzen dau. Horren adierazle honako esaldia: *El marco jurídico normativo del euskera en la CAV, si bien requiere aún de desarrollo en ciertos aspectos, constituye, en la actualidad, el mejor referente para intensificar las medidas de promoción del uso del euskera* (EAJ 2001). Dana dala, aipatu beharrekoa da legedia mantendu kodea 1986tik 2001era bitarteko hauteskunde programetan izan daua alderdiak hizpide.

Barriz, euskararen ofizialtasun eta estatus juridikoaren handitzeari erantzuten deutson kodea, 1986ko hauteskunde programako esaldi-muin batean salbu, 2005etik aurrera izan da aipatua, dala Europar Batasunean beronen ofizialtasuna eskatzeko - *euskera como lengua oficial europea* (EAJ, 2012)- edota maila internazionalen onarpen handiagoa eskatzeko - *potenciar el reconocimiento internacional del euskera* (EAJ, 2012)-, zein Iparralde eta Nafarroan bere ofizialtasuna aldarrikatzeko - *seguiremos trabajando para lograr la plena oficialización y la promoción real del euskera tanto en Navarra como en Iparralde* (EAJ, 2012).

## Euskara eta gaztelaniari zuzendutako proposamen politikoak

EAJk bere hizkuntza politika ekimenen %12,92 euskara eta gaztelania hizkuntza jokoari zuzendu deutso (ikusi 4.8. taula). Ekimenok politika alor orokor guztietan izan dabe tartea; dana dala, irakaskuntza eta herri administrazio alorrak izan dira mintzagaiaren gehiengoa bereganatu dabenak.

4.10. TAULA. EAJ-K EUSKARA ETA GAZTELANIARI ALDI BEREAN BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Tek. barri	Lan	Kul.	Giz.	Jurid.	Batazbestekoa
Hizkuntza eskubideak	80	35	2,86	0	0	80	0	70	75	32,97
Komunikazio hizkuntza funtzioa	0	15	14,29	100	100	0	0	20	0	16,48
Ezagutza, euskalduntze	0	0	28,57	0	0	0	0	10	0	12,09
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	35	0	0	0	0	0	0	0	7,69
Ikasketa. Ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	14,29	0	0	0	0	0	0	5,49
Planifikazio soziolinguistikoa	10	5	2,86	0	0	0	0	0	0	3,30
Baliabide tekniko, giza, material	0	0	5,71	0	0	0	50	0	0	3,30
H. babestu, bultzatu	10	10	0	0	0	0	0	0	0	3,30
Ebaluaketa, erreforma	0	0	5,71	0	0	0	0	0	0	2,20
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	0	0	5,71	0	0	0	0	0	0	2,20
Aukera banatuaren eredua	0	0	5,71	0	0	0	0	0	0	2,20
Legedia: aldatu	0	0	2,86	0	0	0	0	0	25	2,20
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmen	0	0	0	0	0	20	0	0	0	1,10
Sorkuntza, ekoizpen, eskaintza kulturala	0	0	0	0	0	0	50	0	0	1,10
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0	0	2,86	0	0	0	0	0	0	1,10
Hizkuntza didaktika	0	0	2,86	0	0	0	0	0	0	1,10
Ikasketa, alfabetatze	0	0	5,71	0	0	0	0	0	0	2,20
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	10	20	35	4	1	5	2	10	4	91

Iturria: norberak egina.

Ekimenok politika arloka aztertuta, **herri administrazioaren** baitan, hizkuntza eskubideen bermakuntzaren aldeko aldarriak eta euskara eta gaztelania arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzeak bereganatu dabe gehiengo handia; batean eta bestean hizpidearen %35 batuta (ikus 4.10. taula). Herritarrei idatziz zein ahoz administrazioagaz euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea aitortu deutse EAJk modu errepikakorrean 2012ko hauteskunde programan: *garantía de que los ciudadanos y ciudadanas puedan relacionarse con la Administración en el idioma oficial (euskara o castellano) de su elección* (PSE-EE, 2012). Aipatzekoa da erabakimen hori bi hizkuntzen ofizialtasunean oinarritu dauela alderdiak eta herri administrazioan pluraltasun linguistikoa babestu nahiaz (2012).

Bestalde, **irakaskuntza** alorrean ikasle zein irakasleen artean bi hizkuntzen ezagutza bermatzea izan da modu argian gailendu dan proposamena (%28,57) (ikus 4.10. taula). Ikasleei zuzenduta, horrela dino alderdiak: *garantizar (...) que todos los alumnos y alumnas adquieran la competencia lingüística suficiente en las dos lenguas oficiales, al finalizar el periodo de enseñanza obligatoria* (EAJ, 2001). Halaber, modu bazterrekoan beste hainbat ekimen be proposatu izan dauz EAJk euskara eta gaztelaniarentzako irakaskuntza alorrean: unibertsitate mailan bi hizkuntzen erabilera indartzea (1990, 1994), hezkuntza ereduak ebaluatzea (1986) zein hobetzea (1986) eta egokitzea (2001, 2005), barrikuntza pedagogikoa burutzea (1994), irakasleen elebitasuna bermatzea (1990, 2001) eta salbuespen egoerak be aintzat hartzea (1990), hezkuntza elebiduna indartzea (1986, 1994), edota eskola materialak eskaintzea (2001).

**Komunikabideetan eta teknologia barrietan** euskara eta gaztelania biak komunikazio hizkuntza izatea hartu dau helburutzat EAJk. EiTBn bi hizkuntzak parekatzeaz jardun dau (1986, 2012) eta komunikabideetan, orokorrean, *[de] la equiparación progresiva en el uso de ambas lenguas oficiales* (EAJ, 1986). Bestalde, lan munduan, esparru juridikoan eta gizarte mailan hizkuntza eskubideak errespetatzea izan da alderdiaren ardura. **Lan munduan**, barriz, erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak sustatzea aldarrikatu dau: *fomentar e impulsar los derechos lingüísticos de los ciudadanos, usuarios y consumidores* (EAJ, 2012). Eskubide hori bideratzeko enpresa eta saltokietan diru laguntzak eskaintzea proposatu dau alderdiak 2009an.

**Esparru juridikoan**, euskara eta gaztelaniaren izaera ofiziala gogoratu dau, izaera ofizial hori bihurtuz hizkuntza eskubideen justifikagarri. Aldi berean, aipatzekoa da 2009ko hauteskunde programan hizkuntza eskubideei lotuta egindako eskumen eskaera: *planteamos un nuevo marco de relación política en el que se garantiza la exclusividad a las instituciones vascas para fijar las políticas de los derechos y deberes de los ciudadanos y ciudadanas vascas respecto al uso de las lenguas oficiales* (EAJ, 2009). **Gizarte bizitzan** herritarren askatasun eta bardintasun linguistikoa aldarrikatu dauz alderdiak (2001, 2012). EAJren hitzetan, *queremos que la igualdad de oportunidades sea la piedra angular de la convivencia lingüística, con el objeto de que los ciudadanos y ciudadanas puedan hacer uso de su opción lingüística de la manera más real, efectiva e igualitaria posible* (EAJ, 2012). Hau da, bi hizkuntzak eguneroko komunikazio tresna bilakatu daitezela gizartean.

## Nazioarteko hizkuntzei zuzendutako politika proposamenak

Nazioarteko hizkuntzei dagokionean, atzerriko hizkuntzak, orokorrean, 5 politika ekimenetan izan dira hizpide; ingelesa, barriz, bera-berataro 10 ekimenetan eta euskara eta euskara eta gaztelaniagaz batera 17tan. Atzerriko hizkuntzen kasuan, ekimenak hezkuntza alorrera zuzendu dauz EAJk, bi ekimen mota proposatuz: atzerriko hizkuntzen ikasketa bultzatzea (1986, 1990, 2012) eta, pausu bat harago joanda, eskolan (1994) eta unibertsitatean (2001) ikasketa hizkuntza moduan ezartzea. Helburuok ingelesaren kasuan be errepikatu dira. Gainera, ingelesaren ikasketa fasea gaindituta, euskara eta gaztelaniagaz batera, gazteengan beronen ezagutza orokortzea be hartu dau xede EAJk (2012). Izan ere, alderdiak ikasle gazteen zein herritarren gaitasun eleanitza bultzatu eta eskuratu nahi dau. Azken helburu hori lortzeko, eskoletan hizkuntza didaktikara zuzendutako ekimenak (2012), baliabideen eskaintza (2012), hezkuntza sistemaren funtzionamenduaren ebaluaketa eta erreforma, besteak beste, hezkuntza ereduena (2001, 2009, 2012), eta sistemaren planifikazio beharra (2012) begitaratu dauz alderdiak.

Hezkuntza ereduena ildora, aipatzekoa da EAJk ez daukala ingelesa hezkuntza ereduena baitan kokatu. Hau da, EAJk hezkuntza eredu baten aldeko apustu argia egin barik – noiz edo noiz hizpide eta jarraibide bai izan dauzan arren- izten deutse tartea euskara, gaztelania eta ingelesari hezkuntza sisteman.

Halaber, hezkuntza alorraz haratago, ingelesaren inguruko ekimenak beste politika alor batzuetan be proposatu dauz EAJk. Besteak beste, ingelesa, euskara eta gaztelaniagaz batera eskolaz kanpoko jardueratan komunikazio hizkuntza moduan ezartzea (2012); edota komunikabideen alorrean ume eta gaztetxoentzako euskara-ingelesa azpituludun zinema bultzatzea (2012). Bestalde, aisia eta turismoari lotuta be ingelesaren erabilera normalizatzea izan dau proposagai alderdiak (2012).

Aipatzekoa da EAJk bere hizkuntza politika proposamen gehien gehienek EAEra bideratu dauzala; hain zuzen, batzbesteko datuak aintzat hartuta, proposamen guztien %89,07. Esan beharra dago gainera, EAEn nagusigoa egonkor mantendu dala hamar hauteskunde deialdietan.

### 4. 1. 8. Balio euskarriak

---

EAJk bere hizkuntzen inguruko diskurtso ideologikoa eta proposatutako hizkuntza politika hainbat balio euskarritan oinarritu dauz. Balio euskarriok hizkuntza desbardinei zuzendu deutsoz alderdiak. Dana dala, euskara eta euskara-gaztelania hizkuntza jokoa izan dira balio euskarri gehien bildu dabezanak, %67,43 eta %23,78, hurrenez hurren. (ikusi 4.11. taula).



#### 4.1.1. TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN BALIO EUSKARRIAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		3,58
Euskara		67,43
Euskara & Gaztelania		23,78
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		1,30
Euskara & Gaztelania & Frantsesa		0,65
Atzerriko hizkuntzak		0,33
Eleaniztasuna		2,61
Hizkuntza gitxituak		0,33
Guztira	%	100
	N =	307

Iturria: norberak egina.

EAJk bere hizkuntza politika zein balio euskarritan oinarritu dauan aztertzerakoan komeni da gogoratzea balio euskarriak balio-talde ezberdinetan antolatu direla, edukiak haintzat hartuta. Balio-taldeak honakoak dira: hizkuntza eskubideak, erritmoa, agente parte-hartzaileak eta alkarlana, ekimenen balio bitartekariak, herritarren nahia, botere politikoa, eta azkenik, bizikidetzeta linguistikoa.

#### Euskararentzako balio euskarriak

EAJk euskara bera berataraz hizpide izan dauanetan, agente parte-hartzaileei eta alkarlanari zuzendutako balio taldea (%28,02) eta herritarren nahiari erantzuten deusona (%27,54) gailendu dira. Hurrengo balio talde landuena balio bitartekariena izan da (%14,98); eta atzetik, hizkuntza politikaren erritmoari erantzuten deusona (%11,11) eta bizikidetzeta linguistikoari egiten deusona (%10,63) kokatu dira. Hizkuntza eskubideei lotutako balioek (%4,86) eta botere politikoari egiten deusonek (%4,3), barriz, ehuneko oso txikiak bereganatu dabez (ikusi 4.12. taula).

Agente parte hartzaileak eta alkarlana taldearen baitan alkarlan-balioak bereganatu dau ia hizpide osoa (%25,12). Are gehiago, balio guztietan aipatuena bera izan da (ikusi 4.12. taula). Alkarlana hauteskunde deialdiz deialdi izan da aipatua eta esparru juridikoan ez beste alor guztietan bultzatua. Izan be, EAJk agente eta esparru desbardinaren arteko alkarlanari garrantzia handia eskaini deuto; dala herri administrazioi departamentuen baitan, zein departamentu desbardinaren artean edota administrazio maila desbardinaren artean —Espainiar Estatuak, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta Udalerriak—. Era berean, euskararen hizkuntza politika egokitasunez bideratzeko, aholkulari eta gaian adituak diren laguntza behin baino gehiagotan izan dau proposagai, hausnarketa eta topaketa espazioak sortzeko nahia be agertuz (1986, 1990, 2012). Herri administrazioaz haratago dagozan erakunde eta agente euskara bultzatzaileekaz lanean jardutea be bilatu dau alderdiak (1986, 1990, 1994), esaterako Euskaltzaindiagaz: *colaboración y establecimiento de acuerdos con aquellas entidades de reconocida solvencia que trabajan a favor del euskera* (EAJ, 1994); baita euskara bultzatzea helburu izan ez arren gizarte mailan giltzarri diren aktoreekaz

(2012); hau da, *con los principales actores sociales (asociaciones de empresarios, sindicatos, medios de comunicación, partidos políticos, asociaciones y demás)* (EAJ, 2012), edota *con los ámbitos familiar, escolar y comunitario* (EAJ, 2012).

4.12.TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN EUSKARA ETA EUSKARA ETA GAZTELANIARI ATXIKITAKO BALIO EUSKARRIAK BALIO-TALDEKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		Euskara	Euskara & Gaztelania
<b>Hizkuntza eskubideak</b>	Askatasuna	1,93	19,18
	Bardintasuna	0	10,96
	Inposaketarik eza	0,48	0
	Bazterketarik eza	1,45	1,37
	Guztira I	3,86	31,51
<b>Erritmoa</b>	Moderazioa	0	0
	Progresibitatea	6,76	8,22
	Egingarritasuna	1,93	0
	Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea	2,42	8,22
	Guztira II	11,11	16,44
<b>Agente part- hartzaileak eta alkarlana</b>	Adostasuna	2,42	1,37
	Akordioa	0,48	0
	Alkarlana	25,12	2,74
	Guztira III	28,02	4,11
<b>Ekimenen balio bitartekariak</b>	Ekintza positiboa	4,35	0
	Eraginkortasuna	4,83	1,37
	Malgutasuna	2,42	1,37
	Kalitatea	3,38	5,48
	Guztira IV	14,98	8,22
<b>Herritarren nahia</b>	Konpromisoa	17,87	4,11
	Borondatea	7,73	8,22
	Erakargarritasuna	1,93	0
	Guztira V	27,54	12,33
<b>Botere politikoa</b>	Subiranotasuna	2,90	1,37
	Subsidiaritatea	0,97	0
	Guztira VI	4,30	1,37
<b>Bizikidetzeta linguistikoa</b>	Kohesioa	1,93	1,37
	Alkarbizitza	2,90	13,70
	Errespetua, tolerantzia	0,48	1,37
	Aniztasuna	1,93	6,85
	Irekiera	1,93	0
	Inklusibitatea	1,45	2,74
	Guztira VII	10,63	26,03
<b>GUZTIRA</b>	<b>%</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
	<b>N =</b>	<b>207</b>	<b>73</b>

EAE ez beste lurralde euskaldunekaz alkarlanean izatea hauteskunde deialdiz deialdi bilatu dau EAJk: *impulsar proyectos que estructuran la cooperación transfronteriza en áreas prioritarias como el euskera* (EAJ, 2005); *establecer un marco de actuación entre el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra y la Oficina Pública de la Lengua Vasca en Iparalde para la defensa, promoción y asistencia mutua del euskera* (EAJ, 2012). Aipatzekoa da, EAJk harremanok erakundetzeko nahia agertu dauala; betiere lurraldeetako bakoitzaren eskumenak eta erakundeak errespetatuz: *colaborar, desde el respeto a los respectivos ámbitos territoriales y competenciales, con las instituciones del resto de los territorios del euskera (Navarra e Iparalde)* (EAJ, 2012).

Nazioarte mailan be bilatu dau alkarlana EAJk, Europar Batasunean hizkuntza gitxituak babestea helburu daben erakundeetan alkarlanean jarduteko agente aktibo moduan (1994), zein atzerriko euskal komunitatearen baitan, euskararen eta euskal kulturaren alde burutzen diren ekimenetan (1986).

Agente parte hartzaileak eta alkarlana balio taldearen baitan adostasunak be batu dau presentzia, nahiz eta gehiengo 2012ko hauteskunde deialdian. Bertan, helburua honakoa izan da: *impulsar y fortalecer un consenso social y político lo más amplio posible en torno al euskera* (EAJ, 2012).

Herritarren nahiari erantzuten deutesen balioen artean konpromisoa nagusitu da modu argian (%17,87); nahiz eta borondateak be bereganatu dauan ehuneko esanguratsua (%7,37) (ikusi 4.12. taula). Garrantzitsua da aipatzea, alkarlanaren ostean, konpromisoa izan dala euskara eta euskarari zuzendutako hizkuntza politika mintzagai hartuta bigarren balio aipatuena. EAJren ustetan, euskal gizarteak euskaragaz konpromisoa erakutsi izan dau eta erakusten dau egun ere: *la sociedad vasca está mostrando permanentemente su voluntad y adhesión hacia el euskera* (EAJ, 2012). Konpromiso hori, gainera, funtsezkoa da alderdiaren ustetan. *El euskera necesita de la respuesta positiva de todos/as, como de actitudes comprometidas con su recuperación* (EAJ, 1990). Gizarte zibila da euskarari begira erantzun baikorra eskaini behar dauana, taldean zein banaka. Alderdiak banakakoen konpromiso beharra be behin baino gehiagotan izan dau hizpide; besteak beste, erdaldunen konpromiso indibiduala: *en lo referente a la comunidad erdaldun, requiere intensificar el compromiso individual* (EAJ, 1994). Halaber, gizarte zibilaz gainera botere publikoen, botere publikoetako karguen eta sektore desbardinen konpromisoa eta kontzientziazioa be funtsezkoak dira. Aldi berean, aipatzekoa da EAJk euskararekiko konpromisoa desbardintasun ideologikoen gainetik lortu gura dauala. *El euskera (...) debe ser asumido e impulsado sin ningún exclusivismo ni afán monopolizador por todos y cada uno de los vascos* (EAJ, 1990).

Borondateari dagokionean, EAJk euskararentzako hizkuntza politika herritarren borondatera egokituta bideratzea izan dau xede modu errepikakorrean, batez ere, hezkuntza alorrean, eskolan zein unibertsitatean. Horrela, hezkuntza zentroek eta irakasleak herritarren euskara eskaerara egokitzen joan beharko dabe modu etengabea. Era berean, azpimarratzekoa da euskararen normalizazio bidean herritarren borondatea funtsezkotzat jo

dauala alderdiak: *la verdadera normalización social del euskera vendrá de la mano de la asunción libre y voluntaria del euskera por parte de la mayoría de los ciudadanos vascos* (EAJ, 1994). Prozesu honetan euskara hizkuntza erakargarri moduan sentitzea giltzarria da eta, horregaitik, helburua zera litzateke: *conseguir que el euskera sea considerada una lengua atractiva y útil en las relaciones juveniles* (EAJ, 2012); baita gizarte osoarentzako be, *independientemente del grado de conocimiento que se tenga de él* (EAJ, 1998).

Hizkuntza politikaren balio bitartekarien artean ez da balio bat be modu erabakigarrian gailendu, danak batu dabez ehuneko antzekoak (4.12. taula). EAJk euskararentzako hizkuntza politika eraginkorra eraiki gura dau. *Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco se compromete a desarrollar un esfuerzo por coordinar y optimizar los recursos destinados al fomento del euskera* (EAJ, 1994). Euskara hizkuntza ahulena izanda, EAJk bere alde ekintza positiboa defendatu dau. 1998an euskararekiko burututako ekintza positiboak lehen fruituak eskaini dauzala be agertu eban eta, beraz, bide berean jarraitzeko nahia adierazi dau: *las instituciones vascas han venido desarrollando a lo largo de los últimos años una serie de acciones positivas a favor de la normalización del uso del euskera que, poco a poco, van dando sus frutos y que por tanto deberán seguir llevándose a cabo* (EAJ, 1998). Halaber, onartu beharra dago ekintza positiboaren aldeko aipamen esplizitu askorik ez dauala burutu alderdiak aztergai diren 10 hauteskunde programetan.

Kalitatea (%3,38) eta malgutasuna (%2,42) (ikusi 4.12. taula) hezkuntza alorrean izan dauz hizpide gehiengoan EAJk. Kalitateari dagokionean, hezkuntza eredu, irakasleen, materialen zein irakaskuntza moduen hobekuntza izan dauz hizpide alderdiak. Malgutasuna euskara irakasterakoan ahal dan neurrian ikasleengana egokitzea eta irakasleen egoera profesional desbardinak aintzat hartuta jardutea proposatuz bideratu da. Era berean, hizkuntza politika bera malgutasunez bideratu beharra agertu dau behin EAJk: *para Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco, la política lingüística debe aplicarse de modo flexible, conforme a las peculiaridades de las diferentes situaciones* (EAJ, 1994).

Hizkuntza politikaren erritmoari erantzuten deutesen balioen artean, progresibitatea gailendu da (%6,76) (4.12. taula). Gainera, euskara eta bere hizkuntza politika hizpide izan direnetan, progresibitatea EAJren hirugarren balio aipatuena izan dala aipatu beharra dago. Alderdiak euskarari zuzendutako hizkuntza politikek izaera progresiboa izan behar dabela sarritan aipatu dau. *Independientemente de que la política lingüística se plasme en ritmos y procesos diferentes, lo sustancial es que se avance de modo progresivo en el camino de la normalización del euskera* (EAJ, 1994). Halaber, aipatu beharra dago progresibitatearen aldeko adierazpenak 1986tik 1994era bitartean burutu ebazala alderdiak. Aldi berean, azpimarratzekoa da progresibitatea epe zehatzetan gorpuztu dan esparru bakarra irakaskuntza alorra izan dala; hain zuzen, irakasleen euskalduntzea eskatzerakoan. Euskararen hizkuntza politika euskal gizartearen errealitatera eta beronen aldaketara egokitzeko beharra be agertu dau noiz edo noiz EAJk (1990, 2012); eta bideratutako ekimenak egingarriak izatea bere bai; esaterako, irakaslearen euskalduntzea aukera errealetara egokitzea (1990), edota herri administrazioan euskara lan hizkuntza moduan ezartzea baldintzak egokiak direnean (1994).

Bizikidetza linguistikoaren baitan balio guztiak izan dira mintzagai euskarari bera berataraz zuzendutako diskurtsoan, baina noizik noizeko moduan bakarrik (ikusi 4.12. taula). Azpimarratzeakoa da EAJk euskara alkarbizitzaren oinarrian kokatu dauala: *el euskera es la base sobre la que construir la convivencia* (EAJ, 2009), *factor de convivencia y cohesión social* (EAJ, 2012), baita biztanleria etorkinarentzako be. Bide horretan, euskararen ezagutzaren zabalkundea laguntzako dala uste dau alderdiak: *la extensión a todos los ciudadanos de la lengua y cultura propia [es] medio fundamental que conduzca a la pacificación e integración mayor de los vascos* (EAJ, 1986).

Era berean, euskara aniztasunagaz alkarlotzeko nahia eta beharra be agertu dauz EAJk: *vincular en el discurso político el euskera con la diversidad* (EAJ, 2012). Euskarak gai izan behar dau *de servir para la articulación de una identidad integradora de todos los sentimientos de pertenencia existentes en la sociedad vasca* (EAJ, 2009). Horrela, euskararen sustraitutako euskal identitatearen eraikuntza *debe constituirse como un proceso abierto y continuado en el tiempo*. Izan be, *en un entorno global, dicho proceso nos obliga a articular una identidad nacional vasca permeable y dinámica, con una clara vocación de proyección interna e internacional* (EAJ, 2009).

Bestalde, euskara eta hizkuntza eskubideei zuzendutako adierazpenak oso gitxi baina anitzak izan dira. Batetik, EAJk euskal hiztunen hizkuntza aukeraketa askatasuna bermatzeko nahia agertu dau: *hacer efectivo el derecho de la población vasca a ser atendida en euskera* (EAJ, 2012). Bestetik, langileria publikoak eta irakasleek euskararen ezagutza ezagaitik bazterketarik ez jasatea aldarrikatu dau eta euskararen normalizazio prozesua neurri inposatzaile barik burutzea: *Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco está convencido de que cualquier proyecto político normalizador para este País debe incluir un proyecto claro, rico y atractivo para el euskera, alejado de toda medida impositiva* (EAJ, 1994).

Botere politikoagaz lotutako adierazpenen artean subiranotasunari egindako erreferentziak dira aipagarriak. Subiranotasuna hizpide izan dauanetan, EAJk autogobernu indartsua izan dau hizpide; euskal herriaren eskubide historikoan oinarrituta, autogobernua dalako euskal komunitatea eraikitze bidea (1984, 1998, 2005, 2012).

## Euskara eta gaztelaniarentzako balio euskarriak

Euskara eta gaztelaniari indar handienaz atxiki jakozan bi balio taldeak hizkuntza eskubideak (%31,51) eta bizikidetza linguistikoa (%26,03) izan dira; nahiz eta hizkuntza politikaren erritmoari lotutako balio-taldeak (%16,44) eta herritarren nahia aintzat hartzen dauanak (%12,33) be bereganatu daben aipatzeko moduko presentzia (ikusi 4.12. taula).

Euskara eta gaztelania mintzagai hartuta, hizkuntza eskubideen baitan askatasuna izan da diferentzia handiz indar handiena bereganatu dauan balioa (%19,18). Bardintasuna bigarren

lekuan gelditu da (%10,96). Bestela, bazterketarik ezak presentzia marjinala bildu dau (%1,37) eta inposaketarik eza ez dau hizpide izan alderdiak (ikusi 4.12. taula). Dana dala, hizkuntza askatasunak presentzia handia bildu arren, aipamen gehienak 2012ko hauteskunde programari dagokiozala esan beharra dago.

EAJren ustetan, hizkuntza askatasunak eraginkorrak izan behar dau eta ez eslogan hutsak. Horrela, helburua zera da: *que los ciudadanos y ciudadanas puedan hacer uso de su opción lingüística de la manera más real, efectiva e igualitaria posible* (EAJ, 2012). Horrela, herri administrazioaren baitan hizkuntza askatasuna bermatu beharra dago euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak baitira. Ildo horretan, EAJk, justizia administrazioa hizpide hartuta, aukera linguistikora egokitu beharrekoa herri administrazioa dala gogoratzen dau: *es a la Administración de Justicia a quien corresponde adecuarse a la opción lingüística de cada persona, y no al revés* (EAJ, 2012). Bestalde, herritarrak kontsumitzaile bihurtuta be badira hizkuntza eskubideen jasotzaile EAJren diskurtsoan. Zentzu horretan, alderdiak esparru horretan legedia garatzeko nahia agertu izan dau: *desarrollar la normativa que garantice los derechos lingüísticos de las personas consumidoras en el espacio público, tanto en el ámbito público como en el privado* (EAJ, 2012).

Aukera bardintasuna be bermatu gura dau euskara eta gaztelania hiztunen artean alderdiak. Izan ere, EAJ *[está] a favor de una efectiva igualdad de oportunidades de uso lingüístico* (EAJ, 2012). Egitez, alderdiak aukera bardintasuna kokatu dau bizikidetzat linguistikoaren oinarrian: *queremos que la igualdad de oportunidades sea la piedra angular de la convivencia lingüística* (EAJ, 2012); eta hizkuntza bazterketa jarrera guztiak gaitzestu dauz.

Bestalde, bizikidetzat linguistikoari erantzuten deutesen balioen artean alkarbizitza nabarmendu da modu argian (%13,7) eta bigarren lekuan kokatu da aniztasuna (%6,85) (ikusi 4.12. taula). Hizkuntza eskubideekaz lotutako askatasun eta bardintasun balioekaz gertatu dan moduan, EAJk alkarbizitza be 2012ko hauteskunde programan izan dau hizpide gehiengoan. Bertan, alderdiak hizkuntzen alkarbizitza gizarte alkarbizitzarako oinarri moduan jo dau behin baino gehiagotan: *las lenguas constituyen una base fundamental en la construcción de nuestra convivencia social* (EAJ, 2012). Esan beharra dago, gainera, EAJk alkarbizitza bere horretan be helburutzat jo daua: *la convivencia es, en definitiva, nuestro objetivo. Pero no una convivencia cualquiera. Deseamos construir una convivencia lo más armoniosa posible* (EAJ, 2012).

Aldi berean, euskara eta gaztelaniak beragaz dakarren aniztasuna begionez ikusten dau alderdiak. Are gehiago, aniztasun horretan oinarritutako Euskal Herria eraiki gura dau, *sin perder la riqueza representada por la pluralidad de lenguas* (EAJ, 1994); batzuk eta besteak proiektu komunean bat eginez, bi hizkuntzak errespetatuz eta barnean hartuz, *avanzando así (...) hacia una herencia común plural* (EAJ, 1994) eta integratua.

Hizkuntza politikaren erritmoari erantzuten deutesen balioen artean progresibitatea (%8,22) eta errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzea (%8,22) izan dauz hizpide (ikusi 4.12. taula).

Progresibitatea hiru testuinguru desbardinetan izan dau mintzagai EAJk: komunikabideetan, bi hizkuntza ofizialen erabileraren bardintze progresiboa proposatuz (1986); herri administrazioan, modu progresiboan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea bermatuz joatea planteatuz (1986); eta eskolan, progresiboki irakasle guztien elebitasuna lortzeko nahia agertuz (1990, 1994). Bestalde, errealitate soziolinguistikoa aintzat izatea EAJren hizkuntza politikaren jarduteko modu orokorra izan dala baieztatu daiteke: *la Coalición EAJ/EA apuesta por una política lingüística adecuada a la realidad sociolingüística* (2001).

Herritarren nahiaren baitako balioen artean borondatea izan da gailendutakoa (%8,22); halaber, konpromisoak be bereganatu dau presentzia (%4,11) (ikusi 4.12. taula). EAJk euskara eta gaztelaniari zuzendutako hizkuntza politika neurriak herritarren borondatea aintzat hartuta burutzeko nahia agertu dau: *de acuerdo con la sociedad y atendiendo a la voluntad de la ciudadanía* (EAJ, 2012); *flexible en sus ritmos a la voluntad mayoritaria de la sociedad* (EAJ, 2001). Hezkuntza alorrean, eskolan zein unibertsitatean, ikasleen hizkuntza eskaerara egokitu beharra be agertu dau behin baino gehiagotan (1986, 1994, 2001). Konpromisoari dagokionean, EAJk hizkuntza ofizialekiko herri administrazioaren eta unibertsitateen inplikazio beharra agertu dau; eta herritarrek dagoeneko erakutsi dabena goraiatu.

#### 4. 1. 9. Estatusa eta alkarketak

---

Hauteskunde programetan hizpide izan dauzan hizkuntzak errealitate desbardinekaz alkarlotu dauz alderdiak, eta estatus ezbardinak atxiki. Aipatzekoa da loturen hiru laurenak modu eskusiboan euskarak (%76,8) bildu dauzala. Dana dala, eleaniztasunari (%6,08), euskara-gaztelania bikoteari (%5,52) zein euskara-gaztelania-frantsesa hirukoteari (%2,21), hizkuntzei maila orokorrean (%2,21), ingelesari eta atzerriko hizkuntzei (%1,66), berezko hizkuntzei (%1,1) zein gaztelania eta etorkinen ala gitxiengo etnikoen hizkuntzei (%0,55) be atxiki deutsez loturak errealitate anitzekaz (ikusi 4.13. taula).

## 4.13. TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN ESTATUS ETA ALKARKETAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		3,87
Euskara		76,80
Gaztelania		0,55
Ingelesa		1,66
Euskara & Gaztelania		5,52
Euskara & Gaztelania & Frantsesa		2,21
Atzerriko hizkuntzak		1,66
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,55
Eleaniztasuna		6,08
Berezko hizkuntza		1,10
Guztira	%	100
	N =	181

Iturria: norberak egina.

**Hizkuntzak orokorrean** mintzagai izan dauzanetan, EAJk komunikazio tresna funtzioa atxikitzeaz gainera (1998), hizkuntzak identitate adierazle (1998, 2001, 2012), kulturaren zeinu eta kulturartekotasunerako bide (1998, 2012) direla aldarrikatu dau. Eta ildo berean eta **berezko hizkuntzak** apagai hartuta, hizkuntzok etorkizunean bete beharreko zereginaren gainean hausnartu dau; esanez, unibertsaltasunerako bidea norberaren identitatean oinarrituta burutu behar dala, norbanakoaren identitatetik gainontzeko kulturetara zabalduz: *acercarse a lo universal desde la identidad propia de cada uno y llevar a cabo un mestizaje cultural fructífero y creativo* (EAJ, 1998).

Bestalde, **atzerriko hizkuntzak**, **ingelesa**, nazioarteko hizkuntza nagusi moduan definitua izan dana, eta **eleaniztasuna** lehiakortasunagaz lotu dauz alderdiak (1986, 2001, 2005). EAJren ustetan hizkuntzok ezagutzeak aukerak zabaltzen deusiez egungo gazteei: *es preciso reconocer, que las personas jóvenes tienen también unas oportunidades mayores que en otras épocas: (...) mayor posibilidad de comunicación intercultural y lingüística* (EAJ, 2001). Alderdiarentzat formakuntza, eta bere baitan eleaniztasuna eta ingelesa ezagutzea, egungo ume eta gazteen etorkizunaren oinarrietako bat da. Izatez, EAJk eleaniztasuna eta modernitatea alkarrerri estu lotuta kokatu dauz. Bere ustetan, *estamos (...) inmersos en un contexto multilingüístico que va asociado al más amplio proceso de la globalización y la modernidad* (EAJ, 2009). Eleaniztasuna nazioarteari zabaltzeko bide moduan jo dau alderdiak (2012); lehiakortasunaren ikuspuntutik ezeze kulturartekotasunetik bere bai.



Horrela, alderdiak eleaniztasunean garatutako kultura sendo bat eraiki gura dau (2005), kulturartekotasunari zabalik egongo dana (2012). Izan be, alderdiaren iritziz, egungo globalizazio interkultural eleanitza aukera zabalzailea da (2001).

Bestalde, **euskara eta gaztelania** hizkuntza jokoari alkarketa ugari atxiki deutsoz EAJk, nahiz eta gehiengoan aipamen bakarra ala bina bakarrik eskaini. Alderdiak euskara eta gaztelania biak EAEko hizkuntza ofizialak direla baieztatu dau (1986, 2005) eta elebitasuna euskal kulturaren eta identitatearen (1998) parte aberatsa (1994, 2001). Horrela, alderdiak euskarak eta gaztelaniak sortutako aniztasun linguistikoan oinarrituta eraiki gura dau Euskal Herria: *creemos en la pluralidad de la sociedad vasca y queremos construir Euskal herria en la pluralidad* (EAJ, 2012). Ildo berean, **euskara, gaztelania eta frantsesa** alkarregaz hizpide izan dauzanetan, EAJk euskal lurretako bertako hizkuntza izaera atxiki deutse (2001, 2009). Alderdiaren hitzetan, *la sociedad vasca es plurilingüe, ya que el castellano y el francés son también nuestras lenguas* (EAJ, 2009). Hirueletasun horren baitan baina, euskara gaztelania eta frantsesarekiko gitxiengo egoeran dagoela azpimarratu dau: *el euskera no ésta en plano de igualdad con las otras dos lenguas* (EAJ, 2001). Alegia, gaintitu beharreko diglosia egoera da euskararena.

EAEko bi hizkuntza ofizialetara bueltatuz, EAJ elebitasun errearen alde kokatu da eta 2001eko hauteskunde programan euskara eta gaztelaniaren inguruan nagusitzen dan alderdikeriagaz kritiko agertu da: *para alcanzar una situación de bilingüismo real, lo que nos diferencia claramente de las actitudes extremas, tanto de quienes dicen apostar por el bilingüismo sin proponer medida alguna que lo haga efectivo y rechazan toda medida de acción positiva a favor del euskera, como de quienes reclaman la plena normalidad del euskera sin tener en cuenta nuestra realidad sociolingüística y rechazando el bilingüismo* (EAJ, 2001).

Bestalde, etorkinen integrazioa hezkuntza sistemaren bidez euskara eta gaztelania ikasiz erraztu daitekela be aipatu dau alderdiak. **Etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak** hizpide hartuta, kulturarkotasunerako deia egin dau alderdiak 2012ko hauteskunde programan: *establecer medios para el intercambio cultural y de conocimiento mediante el reforzamiento de las bases y tendencias favorables a la aproximación a la cultura e idioma ajenos* (EAJ, 2012).

## 4.14. TAULA. EAJ-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI ATXIKITAKO ESTATUS ETA ALKARKETAK HIZKUNTZAKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Hizk.	Eusk.	Gazt.	Ingl.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Gazt. & Fran.	Atzerriko H	Etorkinen & gitxiengo etnikoen H	Eleaniz.	Berezko H
H. Gitxitu	0	7,91	0	0	10	50	0	0	0	0
Nazioarteko H.	0	0	100	66,67	0	0	0	0	0	0
H. Ofiziala	0	0,72	0	0	20	0	0	0	0	0
Bertoko H.	0	10,79	0	0	0	50	0	0	0	0
H. Nazionala	0	1,44	0	0	0	0	0	0	0	0
Aberastasuna	0	0	0	0	10	0	0	0	9,09	0
Ondarea	0	10,07	0	0	0	0	0	0	0	0
Modernitatea	0	3,60	0	0	0	0	0	0	27,27	50
Gatazka	0	1,44	0	0	0	0	0	0	0	0
Identitatea	42,86	20,14	0	0	10	0	0	0	0	0
Kultura	14,29	11,51	0	0	20	0	0	0	9,09	0
Kulturartekotasuna	28,57	0	0	0	0	0	0	100	9,09	50
Integrazioa	0	1,44	0	0	10	0	0	0	0	0
Komunitatearen eraikuntza	0	15,83	0	0	10	0	0	0	0	0
Alderdikeria	0	4,32	0	0	10	0	0	0	0	0
Komunikazio tresna	14,29	1,44	0	0	0	0	0	0	0	0
Lehiakortasun tresna	0	0,72	0	33,33	0	0	100	0	36,36	0
Nazioartekotzea	0	8,63	0	0	0	0	0	0	9,09	0
Guztira % N =	100 7	100 139	100 1	100 3	100 10	100 4	100 3	100 1	100 11	100 2

Iturria: norberak egina.

**Eskara** izan da EAJren mintzoan alkarketa gehien bildu dauzan hizkuntza (%76,8) (ikusi 4.14. taula). EAJk euskara eta identitatearen artean ezarri dau lotura indartsuena, alkarketen %20,14 batuta (ikusi 4.14. taula). Esan beharra dago, gainera, 1980 eta 2001eko hauteskunde programetan salbu, gainontzeko programa guztietan ezarri dauala lotura euskara eta identitatearen artean alderdiak, gehiengoan hauteskunde programa bakoitzeko aipamen bat baino gehiago jasoz. EAJren hitzetan, *el elemento esencial de nuestras raíces es el euskera* (EAJ, 1984), *la expresión lingüística de nuestra identidad como pueblo* (EAJ, 1984). *Por razones de lengua, cultura y costumbres y relaciones económico-sociales los territorios de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi y Zuberoa forman parte de una realidad compartida reconocida como Pueblo Vasco a lo largo de la historia* (EAJ, 2012). Hori horrela, euskara Euskal Herriaren ondare komun be bada alderdiaren ustetan (%10,07), *nuestro gran patrimonio cultural* (EAJ, 2005), *cimiento y base de todo el ser cultural vasco* (EAJ, 1980), *uno de los signos fundamentales de la Cultura Vasca* (EAJ, 1986)<sup>104</sup>. Baina euskararen ondare kultural izaera Euskal Herriaz haratago doa; izan be, euskara gizadiaren ondare be bada alderdiarentzako (2012).

EAJk euskara Euskal Herriagaz errotuta identifikatzen dau eta, horrela, euskaldunen berezko hizkuntza moduan be sarri askotan definitu dau (%10,79) (ikusi 4.14. taula): *el euskera, lengua propia del Pueblo Vasco* (EAJ, 2009). Gainera, euskarak bakartasun izaera be badau alderdiarentzat; izan be, *es la única lengua hablada en el conjunto de Euskadi y una lengua utilizada únicamente en nuestro país* (EAJ, 2001). EAJk euskarari berezko hizkuntza izaera sarri askotan atxiki deutson arren, izaera nazionala birritan baino ez deutso atxiki (%1,44); biak 80 hamarkadako hauteskunde programa berean, hain zuzen, 1984koan. Bertan, euskara *nuestra lengua nacional* (EAJ, 1984) moduan da definitua.

Interesa dauka aipatzeak, EAJk euskara eta identitatearen arteko lotura modu egonkor samarrean ezarri dauan arren, azken hauteskunde programetan harremana inguruko testuingurua barnean hartuz burutu dauala sarri. Esaterako, esanez euskara gainontzeko hizkuntza guztien moduan dala identitate faktorea: *como todas las lenguas, el euskera es, a un tiempo, factor de identidad* (EAJ, 2012); edota euskara testuinguru eleanitzean dala identitate euskaldunaren adierazlea: *el euskera como instrumento de comunicación de la identidad vasca en un contexto Plurilingüe* (EAJ, 2009); baita testuinguru kultural unibertsalean be: *[euskara] constituye el elemento más distintivo y sobresaliente de la identidad vasca en el concierto cultural mundial* (EAJ, 2009). Halaber, euskara identitate hizkuntza izateaz gainera, komunikazio hizkuntza, komunikazio tresna eta bide moduan be jo dau alderdiak (1990, 2012).

<sup>104</sup>Aipatzekoa da, euskara eta euskal kulturaren arteko lotura horren dala estua, euskarari zuzendutako politika alorra politika kulturalaren atal moduan jo izan dauala EAJk. Bere hitzetan, *Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco entiende la Cultura como un fenómeno de comprensión global que abarca, además de los dominios tradicionales de la Cultura, como son la recuperación de la memoria cultural, su difusión y la recreación de la misma a través de las políticas de apoyo de la creación cultural, otros fenómenos como (...) el proceso de normalización lingüística que está llevando a cabo nuestra sociedad* (EAJ, 1994).

Euskarari atxikitako bigarren lotura indartsuena komunitatearen eraikuntza izan da (%15,83) (ikusio 4.14. taula). Komunitatearen eraikuntza euskal identitatearen indartzetik ulertu dau gehiengoan EAJk. 1980ko lehen hauteskunde deialdian salbamendu nazionalerako beharra identifikatu eban: *Euzkadi necesita con carácter de urgencia un plan de salvación nacional* (EAJ, 1980). Egiteko horretan, euskara, herriaren identitatearen erdigune dana, elementu funtsezkoa da. Horren erakusgarri da hezkuntza sisteman hizkuntzari eskaini gura deutson lekua: *creemos que la conservación y potenciación de nuestra cultura pasa por una educación en la que el euskera, núcleo de nuestra identidad como pueblo, debe constituir un ingrediente esencial de nuestra educación* (EAJ, 1986). Alderdiaren ustetan, *la conciencia de identidad es motor clave para el desarrollo de una comunidad* (EAJ, 2009); horrela, *para responder al riesgo de uniformización cultural debemos trabajar en la construcción de la identidad vasca; betiere, desde lo que nos une, desde el respeto a la diferencia y desde nuestro patrimonio y memoria colectiva* (EAJ, 2009). Egiteko horretan, testuinguru globalizatuan mulgilduta egotea aintzat hartu beharra dago; izan be, *nos obliga a articular una identidad nacional vasca permeable y dinámica, con una clara vocación de proyección interna e internacional* (EAJ, 2009).

Komunitatearen eraikuntza erakundeetatik bideratzea be izan dau noiz edo noiz hizpide EAJk. Egitez, alderdiak autogobernu sistema bat gura dau, *que permita el desarrollo de una comunidad vasca* (EAJ, 2012). Ildo horretan, azken hauteskunde deialdian Euskal Herriari begira marko juridiko konfederal bat izan dau proposagai: *un marco jurídico confederal que parta del reconocimiento y respeto a lo que se acuerde en cada uno de los tres ámbitos de decisión* (EAJ, 2012). Halaber, proiektu politikoa edozein izanda be, *debe incluir un proyecto claro para su lengua* (EAJ, 1986).

Bestalde, euskararen gitxitu egoera be izan dau hizpide EAJk (%7,91) (ikusi 4.14. taula). Gitxitu egoera deskribatzerakoan 80 hamarkadan iraganean jarri izan dau begirada alderdiak, historikoki euskarak bizitzako zokoratze eta arretarik ezan; gerora, ostera, euskararen gitxitu egoera orainaldian lekutu dau: *el euskera está todavía lejos de una situación de plena normalidad, lejos de vivir en igualdad social con el castellano* (EAJ, 2012).

Euskara modernitateagaz, etorkizunagaz lotzeko nahia be 80 hamarkadatik erakutsi dau EAJk (%3,6) (ikusio 4.14. taula). 2012ko hauteskunde programan argi azaldutako moduan, xedea honakoa da: *desarrollar acciones encaminadas a relacionar el euskera con valores positivos y con la modernidad* (EAJ, 2012). Modernitateari eta etorkizunari begira, euskararen eta euskal kulturaren nazioartekotzea be oso presente izan dauz EAJk 2001az geroztik (%8,63). Euskara eta euskal kultura barrura begira zabaltzeaz gainera kanpora begira zabaltzeko nahia agertu dau alderdiak. *Nuestro compromiso es proyectar la identidad y la cultura vasca en el mundo* (EAJ, 2009), *promocionar, difundir y proyectar el euskera y la cultura vasca en el exterior* (EAJ, 2005). Egiteko horregaz lotuta dago euskarak merkatu globalean dauan ahultasunari modu eraginkor batean erantzuteko adierazitako nahia: *EAJ-PNV cree que el impulso de la cultura creada en euskera requiere de un esfuerzo especial para hacer frente eficazmente a la debilidad que sufre [el euskera] en el mercado global* (EAJ, 2012).

Aipatzekoa da, 2012ko hauteskunde programan euskara etorkinentzako euskal gizartean integratzeko bide moduan be jo dauala EAJk: *recurso de socialización de la población inmigrante* (EAJ, 2012).

Halaber, EAJk euskara gatazka (%1,44) eta alderdikeriagaz (%4,32) be lotu dauz (ikusi 4.14. taula), baina modu bazterrekoan. Alderdiak euskararen inguruan nagusitzen diren norgehiagokak gaudituz beharra agertu dau: *superar ficticios enfrentamientos* (EAJ, 1998); euskara desbardintasun ideologikoen gainetik kokatu beharra, *sin ningún exclusivismo ni afán monopolizador por todos y cada uno de los vascos* (EAJ, 1994). Horrela, EAJk honakoa proposatu dau: *impulsar una acción permanente para dejar el euskera a salvo de cualquier utilización partidista o identificación exclusiva o excluyente* (EAJ, 2009).

Amaitzeko, aipatzekoa da **gatzelaniak** bera beratara aipamen bakarria bildu dauala. 1986ko hauteskunde programako aipamen horretan, EAJk nazioarteko hizkuntza estatusa atxiki deutso alderdiari: *[castellano] uno de los idiomas más potentes del mundo* (EAJ, 1986).

#### 4. I. 10. Laburbilduz

---

Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programetako EAJren hizkuntzen inguruko diskurtsoa oso politika ekimen zalea da. Diskurtsoa EAera zuzendua dago, batik bat, eta euskara da hizkuntza nagusia, gehiengoan bakarka eta noizean behin gatzelaniagaz batera. EAJren azken helburu errepikatuen euskararen normalizazioa izan da, nahiz eta elebitasunari be tarte esanguratsua eskaini deutson. Azpimarratzekoa da, alderdiak euskararen normalizazioa politika alor guztietan izan dauala hizpide. Gainera, EAJk hizkuntza politika ekimen gehienak euskarari zuzendu deutsoz. Neurrioren xedea euskararen babeseta eta erabilera indartzea izan da eta hori lortzeko alderdiak neurri zuzen eta zeharkakoak proposatu dauz hauteskunde deialdiz deialdi; besteak beste honakoak proposatuz: euskararen ikasketa eta herritarren euskalduntzea, plangintza soziolinguistikoa, hizkuntza eskakizunak, baliabideen eskaintza, e.a. Gainera, sustapen ekimenok politika alor guztietarako proposatu dauz alderdiak, nahiz eta hezkuntza eta herri administrazioa izan diren gailendutako esparruak. Euskararen hizkuntza politika bideratzerakoan, agente desbardinaren arteko alkarlanari, herritarren konpromisoari eta progresibitateari eskaini deutso garrantzia EAJk. Barriz, euskara eta gatzelaniari bideratutako ekimenen xede nagusiak euskaldun eta gatzelaniadunen hizkuntza eskubideak bermatzea eta bien ezagutza, erabilera eta arreta-harreman funtzioa garatzea izan dira. Atzerriko hizkuntzen eta 2001etik aurrera ingelesaren ikasketara zuzendutako politikak be izan dauz proposagai EAJk. Era berean, etorkin heldubarrientzako euren ama hizkuntzan abegi zerbitzuen eskaintza eta euskara ikasteko ekimenak aurkeztu dauz.

Mintzaireri atxikitako loturen baitan, euskarak bera beratara batutako bertako hizkuntza izaera, euskaldunen identitate zeinu eta ondare kultural estatusa azpimarratu beharra dagoz.


Aldi berean da nabarmentzekoa EAJk eleaniztasunari atxiki deitsozan nazioartekotze, lehiakortasun, modernitate, kulturartekotasun eta aberastasun balioak.

## 4. 2. EZKER ABERTZALEA

### 4. 2. 1. Hizkuntzen presentzia

Ezker Abertzaleak aztergai diran hauteskunde programen %18,8 zuzendu deitso batazbestean hizkuntzen gaiari. Dana dala, ehunekoak hauteskunde programaka aztertuz gero, batetik bestera diferentziak nabarmenak direla esan beharra dago (ikusi 4.4. grafikoa).

4.4. GRAFIKOA. DISKURTSO LINGUISTIKOA EZKER ABERTZALEAREN HAUTESKUNDE PROGRAMETAN. 1990-2001, 2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA)\*




\* Ehunekoak lortzeko hauteskunde programa bakoitzaren hitz-kopuru osoa eta hizkuntzei buruz diharduen esaldimuen hitz-kopurua hartu dira kontuan.

ITURRIA: norberak egina.

### 4. 2. 2. Eduki mota

Hauteskunde deialdiaren arabera, Ezker Abertzalearen hizkuntzen gaineko mintzoa proposamen politikoei ala adierazpen ideologikoei bideratuago egon da (ikusi 4.5. grafikoa).

#### 4.5. GRAFIKOA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN EDUKI MOTA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012 (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak egina.

### 4.2.3. Hizkuntza jokoak

Ezker Abertzalearen hauteskunde programetako diskurtso linguistikoan hizpide diren mintzairak aztergai hartuta, alderdiaren hizkuntzen jarduna, nagusiki, euskarari zuzendua dagoela baieztatu daiteke. Egitez, batazbesteko datuak kontuan hartuz gero, esaldi-muinen %80,87 da euskarak bera berataratu dauana eta %92,24 euskarak beste hizkuntza batzuek bilduta jaso dauana (ikus 4.15. taula). Euskara-gaztelania hizkuntza jokoak, barriz, mintzagaiaren %6,29 baino ez dau egin bere. Egitez, gaztelania beregain hartzen daben hizkuntza konbinaketa guztiak aintzat hartuta, Ezker Abertzaleak mintzaira honeri itzitako batazbesteko tarte %13,24koa izan da. Azpimarratzekoa da, era berean, alderdiaren hauteskunde programetan frantsesak izan dauan presentzia, bera berataratu baino, beste hizkuntza batzuek konbinaketan; dala gaztelaniagaz, gaztelania eta Espaniar edota Frantziar Estatuetako eskualdeko hizkuntzekaz, zein euskaragaz. Orotara, frantsesak mintzagaiaren %15 bildu dau. Halaber, aipatzekoa da, presentziarik handiena diferentzia handiz 1998 eta 2001eko hauteskunde programetan izan dauala; baita gaztelaniak be 1998ko hauteskunde programan. Horren zergaitia 1998 eta 2001eko hauteskunde programetan alderdiak euskararen egoera gitxituaren diagnosi sakona burutu dauala da; eta diagnosa egiterakoan euskararen egoera gitxituaren arduradun moduan gaztelania eta frantsesaren nagusigoa kokatu dauzala, hizkuntzok behin eta berriz aipatuz.

4.15. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN  
HIZKUNTZAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Hizkuntzak orokorrean</b>	0,66	1,06	0,48	0	3,45	1,54
<b>Euskara</b>	86,09	87,83	65,78	85,32	86,97	80,87
<b>Gaztelania</b>	5,96	1,06	4,82	0,46	0,38	2,27
<b>Frantsesa</b>	0	0	1,45	0,46	0,19	0,54
<b>Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	3,31	6,35	11,33	5,96	3,26	6,29
<b>Euskara &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0
<b>Euskara &amp; Frantsesa</b>	0	0	0,24	0,92	0	0,20
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0,77	0,27
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Frantsesa</b>	0	0	3,13	1,38	0,96	1,40
<b>Gaztelania &amp; Frantsesa</b>	1,32	1,06	0	3,67	0,19	0,87
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0,38	0,13
<b>Etorrikinen hizkuntzak</b>	0	0	0	0	1,34	0,47
<b>Estatuko hizkuntzak</b>	0	0,53	0,48	0	0	0,20
<b>Eleaniztasuna</b>	2,65	2,12	0,72	1,83	1,34	1,47
<b>Hizkuntza gitxituak</b>	0	0	0	0	0,38	0,13
<b>Berezko hizkuntza</b>	0	0	0,48	0	0	0,13
<b>Estatuko eskualdeko hizkuntzak &amp; Gaztelania, Frantsesa*</b>	0	0	11,08	0	0,38	3,21
<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
	<b>N =</b>	<b>151</b>	<b>189</b>	<b>415</b>	<b>218</b>	<b>522</b>
						<b>1495</b>

\*Ezker Abertzalearen kasuan Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelania edo frantsesa kodeak presentzia nabarmena bereganatu dabe, bai Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelaniari dagokionean, baita Frantziar Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta frantsesari dagokionean be. Hori dala eta, Espainiar eta Frantziar Estatuak banaketa irizpide moduan hartuta, interesgarria iruditu jaku kodea bitan banatzea azterketa zehatzagoak burutu ahal izateko.

*Iturria:* norberak egina.



Orotara, esan daiteke Ezker Abertzalearen hauteskunde programetan euskara, gaztelania eta frantsesa izan dirala mintzaira nagusi hauteskunde urterik urtera. Hori horrela izanik be, 2012ko hauteskunde programan beste hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa batzuk be izan dauz hizpide, tartean ingelesa, atzerriko hizkuntzak edota etorkinen hizkuntzak (ikus 4.15. taula).

#### 4.2.4. Alorra

Ezker Abertzaleak hizkuntzen inguruko diskurtsoa alor desbardinetera zuzendu dau. Hizpidearen ehuneko handiena hezkuntza alorrari bideratu deutso; hain zuzen, batzbestekoaren %24,88. Deigarria da bigarren esparru nagusia ehunekoari dagokionean juridikoa izan dala, mintzagaiaren %20 batuta. Hirugarrena, barriz, hizkuntza politikaren arlo orokorra izan da %13,51gaz eta gizarte bizitza laugarrena %11,77 bereganatuz. Herri administrazioak be ehuneko esanguratsua batu dau, %11,1, hain zuzen. Arlo kulturalak eta komunikabideek %9,77 eta %5,82 batu dabe, hurrenez hurren. Eta azkenik, lan mundua eta teknologia barrien alorra be hartu dau langai Ezker Abertzaleak, nahiz eta askoz modu murrizagoan (ikus 4.16. taula).

4.16.TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN POLITIKA ALOR OROKORRAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa	
<b>Herri administrazioa</b>	17,22	18,52	14,22	2,29	7,85	11,10	
<b>Irakaskuntza</b>	33,77	23,28	24,82	29,82	20,88	24,88	
<b>Komunikabideak</b>	4,64	14,81	4,10	0,92	6,32	5,82	
<b>Teknologia barriak</b>	0	0	0	0	1,53	0,54	
<b>Lan mundua</b>	2,65	4,23	0	0	5,17	2,61	
<b>Kulturgintza</b>	13,91	8,47	0,72	10,09	16,09	9,77	
<b>Gizarte bizitza</b>	11,26	13,23	5,30	20,18	13,03	11,77	
<b>Esparru juridikoa</b>	7,28	11,64	39,52	32,11	6,13	20	
<b>Orokorrean</b>	9,27	5,82	11,33	4,59	22,99	13,51	
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	
	N =	151	189	415	218	522	1495

*Iturria: norberak egina.*

Hauteskunde deialdi batetik bestera Ezker Abertzaleak langai izan dauzan alor eta azpi-alor kopurua itzel aldatu da. Interesgarria da aipatzea alorren baitan aniztasun txikiena erakutsi daben hauteskunde programak izan direla orokorrean adierazpen ideologikoei espazio handiena eskaini deutesenak, 1998 eta 2001ekoak zehazki, eta aniztasun handiena agertu dabenak, barriz, ekimen politikoei egin deutesela tarte handiagoa, 1994 eta 2012ko hauteskunde programak, hain zuzen. Dana dala, orokorrean kode orokorrak azpi-alor zehatzen aurretik kokatu direla esan beharra dago hezkuntza esparruan salbu, non eskola eta unibertsitate eta ikerketa zentroak irakaskuntza kode zabalaren aurretik kokatu diren.

#### 4.2.5. Aplikazio esparrua

Ezker Abertzalearen politika ekimen eta adierazpen ideologikoen aplikazio esparrua aztergai hartuta, hausnarketa gehigarri bat egitea garrantzitsua da. Ezker Abertzalearen hauteskunde programak aztertuta alderdiaren erreferentzia esparrua Euskal Herria dala argi eta garbi ageri da. Alde batetik, sarritan Euskal Herria bera dalako adierazpen ideologiko zein politika proposamenen aplikazio esparrua. Are gehiago, Euskal Herriaz osterantzean, berau osatzen daben eskualdeetako bakoitzera zuzendutako adierazpenak be ugari dira alderdiaren hauteskunde programetan. Era berean, Espainiar Estatuaz gainera, Frantziar Estatu be badarabil alderdiak diskurtsoan, biei tratamendu berbera emonez: Euskal Herria beregain hartuta daben Estatuak dira biak. Hori horrela, orain arte aipatutako aplikazio esparru guztiak orotara hartuta, batzabestean, hizpidearen %94,04gaino bere egin dabela ikusiko da (ikus 4.17. taula).

4.17. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN APLIKAZIO ESPARRUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzabestekoa
Lokala	0	0,53	0,49	2,75	0,19	0,60
Eremu estrategikoak	1,99	0,53	1,71	5,05	3,05	2,54
EAE	47,02	44,97	31,95	19,27	64,57	44,28
Euskal Herria	30,46	46,03	29,27	54,13	23,62	33,11
Espainiar Estatu	0	1,06	8,78	4,13	0,57	3,61
Europar Batasuna	0	0	0,73	1,38	0,38	0,54
Nazioartea	1,99	3,17	0	0	3,81	1,94
Diaspora	0	0	0	0	0,95	0,33
Iparraldea	0	0,53	4,15	1,38	0	1,40
NFE	0	0	10,73	1,83	0	3,21
Estatu Frantsesa	0	0	4,39	5,05	0,19	2,01
Hego Euskal Herria	14,57	1,06	0,73	2,29	0,38	2,27
Nafarroako zonalde euskalduna	0	0	2,44	0	0	0,67
Nafarroako zonalde mixtoa	0	0	2,93	0	0	0,80
Nafarroako zonalde erdalduna	0	0	1,46	0,46	0	0,47
Nafarroa eta Iparraldea	0	0	0	0,46	0	0,07
Euskal Herri indefinitua	3,97	2,12	1,46	1,83	2,29	2,14
Guztira	%	100	100	100	100	100
	N =	151	189	415	218	522
		1495				

Iturria: norberak egina.

Euskal Herriaren erreferentzia esparruaren baitan kokatzen dan aplikazio esparru bakoitzaren presentzia zenbatekoa dan zehaztasunez aztertzerakoan, zailtasunak agertzen direla onartu beharra dago. Kopuruak justutasun nahiko garbiaz mugatu daitezke EAE ez beste Euskal herriko Eskualdeak eta Espainiar Estatu edo Frantziar Estatu aplikazio esparru direnean. Barriz, EAE eta Euskal Herriaren kasuan ehunekoak ezin daitezke horren argitasun handiagaz zehaztu. Horren arrazoia alderdiaren adierazpenen garbitasun falta da. Aitortu beharra dago argitasun falta hori gainontzeko alderdi politikoetan be ageriko egin dala; sarritan informazioa ez esplizitatzearen ondorioz. Halaber, Ezker Abertzalearen kasuan egoera bestelakoa da.

Aurretik aipatu dogun moduan, Ezker Abertzalearen erreferentzia esparrua Euskal Herria da, hizkuntzen alorrean zein bere leku-hartze politiko orokorrean be; eta horrek alderdiaren adierazpen ideologikoetan ezeze politika ekimenetan be eragiten dau. Izan be, hauteskundeak EAerako diren arren eta, hortaz, jokoan dagoen gobernuaren eskumen eremua autonomia erkidegoa dan arren, alderdiak bere eskumenen gainetik dagozan politika proposamenak egiten dauz sarri, bereziki Euskal Herrirako ekimenak. Baina era berean, kontuan izan behar da, sarritan, alderdiak darabilen hizkuntzak, terminologiak, eta proposatutako ekimenen aplikazio esparruak ez dabela bat egiten. Esaterako, hainbatetan alderdiak *Euskal Herria* edota *nazionala* terminoak erabili daikez Euskal Herri osoan aplikatuko ez diren politika ekimenetarako. Horrek guztiak kodifikazioa nabarmen konplexutu dau. Hori horrela eta kodifikaziorako zailtasunak zailtasun, *Euskal Herria indefinitua* kodea ahalik eta gitxien erabiltzeko hautua egin da, bere gehiegizko erabilerak informazio galera garrantzitsua ekarriko ebala iritzita. Hortaz, hurrengo tauletan ageri diren ehunekoaren errore-marjina gainontzekoetan baino zertxobait handiagoa izatea posible da.

Gauzak horrela, Ezker Abertzalearen politika ekimen eta adierazpen ideologikoen aplikazio esparru nagusia EAE da. Batzbesteko datuak aintzat hartuta, aipameneren %44,28 zuzendu deutso Ezker Abertzaleak autonomia erkidegoari (ikus 4.17. taula). Bestalde, Euskal Herriak hizpidearen %33,11 bereganatu dau. Bi lurralde horreek dira, hortaz, aplikazio eremu indartsuenak alderdiaren hizkuntzen inguruko diskurtsoan, hauteskunde deialdiaren arabera bata ala bestea gailenduz. Hauteskunde programa bakoitzean bi aplikazio esparruon gehiketarik lortutako ehunekoak oso desbardinak dira; halaber, bi aplikazio esparruoz gainera Euskal Herria erreferentziatzen dabenean gainontzeko eskualdeak be kontuan hartzen badoguz ehunekoak parekatu egiten dira, %60 inguruan kokatuz. Hori horrela, interesgarria da erakustea, 2012ko hauteskundera arte Euskal Herriak –dala berak bere osotasunean dala zonaldeka– aipameneren erdiak inguru bereganatu dauzala eta, ostera, 2012ko hauteskunde programan ehuneko hori itzel jeitsi dala; zehazki, aipameneren %26,29ra<sup>105</sup>. Era berean, aipatzekoa da EAE erreferentzia esparru moduan agertu dabenean edukiak politika ekimen zaleagoak izan direla (%69,18); eta ostera, Euskal Herria hartu dabenean ideologikoagoak.

<sup>105</sup>Datu hori esanguratsua da oso alderdiaren estrategia aldaketa baten erakusgarri izan daitekelako.

#### 4.2.6. Azken helburuak

Atal honetan, Ezker Abertzaleak hizkuntza politikaren bidez lortu gura dauan azken helburua edota hizkuntza bizikidetzaren ideala irudikatzerakoan desiatzen dauan jomuga zein dan aztertu gura da. Lehenengo eta behin, Ezker Abertzaleak bere hizkuntza politikaren azken helburuak proposatzeari tarte nabarmena eskaini deusola baieztatu beharra dago; zehazki, batzbesteko datuak aintzat hartuta, hizkuntzen inguruko diskurtsoaren %12,58 (ikusi 4.18. taula).

4.18.TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN PRESENTZIA  
EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN. 1990-2001, 2012  
(%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Azken helburuen ehunekoa</b>	16,56	5,85	11,08	11,01	15,71	12,58
N=	151	189	415	218	522	1495

*Iturria:* norberak egina.

Esanguratsua da Ezker Abertzaleak hizkuntza politikaren bidez lortu beharreko azken helburuak maila orokorrean planteatu dauzala gehiengoan. Egitez, azken helburu moduan kodetutako aipameneren %29,1 gizartera bideratu dauz eta %28,04 hizkuntza politikaren esparru orokorrera (ikusi 4.19. taula).

4.19.TAULA. EZKER ABERTZALEAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN POLITIKA ALORRAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	%
<b>Orokorrean</b>	28,04
<b>Herri administrazioa</b>	6,88
<b>Irakaskuntza</b>	15,34
<b>Komunikabideak</b>	3,7
<b>Teknologia barriak</b>	0
<b>Lan mundua</b>	3,7
<b>Kulturgintza</b>	4,23
<b>Gizarte bizitza</b>	29,1
<b>Esparru juridikoa</b>	8,99
<b>Guztira</b>	
	%
	N =
	100
	189

*Iturria:* norberak egina.

Azken helburuen artean Ezker Abertzaleak gehien aipatu dauana euskararen normalizazioa izan da, politika alor guztietan gainera, batzbesteko aipameneren %65,43 bere eginez (ikusi 4.20. taula). Halaber, euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzeak be tarte garrantzitsua bildu dau, hain zuzen, %25,53. Azpimarratzekoa da, 1990 eta 1994ko hauteskunde programetan euskara lehentasunezko hizkuntza moduan bultzatzea izan dala azken helburu aipatuena, nahiz eta bi urte horreetako nagusigoaren ostean euskara lehenesteko proposamenak beherakada nabarmena jaso dauan, 2012ko hauteskunde programan barriro be goranzko joera berreskuratzera arte.


4.20.TAULA. EZKER ABERTZALEAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Elebitasuna</b>		0	9,09	0	4,17	0	1,06
<b>Eleaniztasuna</b>		0	18,18	26,09	0	1,20	7,94
<b>Normalizazioa</b>		40	27,27	60,87	91,67	73,49	65,61
<b>Lehentasunezko hizkuntza</b>		60	45,45	13,04	4,17	25,30	25,40
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100
	N =	25	11	46	24	83	189

*Iturria:* norberak egina.

Elebitasuna azken xede moduan gizarte bizitzan aipatu dau soilik Ezker Abertzaleak, baina bi alditan bakarrik. Euskarak, gaztelaniak eta frantsesak eraikitako eleaniztasunak tarte handiagoa bereganatu dau, baina era berean bazterrekoa esparru juridikoan salbu, non euskararen normalizazioa aldarrikatzeaz gainera euskara, gaztelania eta frantsesarentzako estatus juridiko berbera aldarrikatu dauan.

#### 4.6. GRAFIKOA. EZKER ABERTZALEAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK POLITIKA ARLOKA (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak egina.

Azken helburuei erreferentzia egiten deuten aipua ikuspuntu kualitatibo batetik aztertuz gero, honakoak aipatu daitezke. Ezker Abertzalea euskararen normalizazioaren alde agertzen da bai EAEn baita Euskal Herrian be. Helburua zera litzateke: *crear las condiciones para que los euskaldunes puedan vivir socialmente en euskara* (Ezker Abertzalea, 1990); *recuperar la plena utilización del euskara en la sociedad* (Ezker Abertzalea, 1998). Horrela, euskararen normalizazioa sustatzeko aldarri asko burutu dauz Ezker Abertzaleak. Aldarri horreen baitan interes berezia dauka euskararen benetako eta normalizazio eraginkorra bideratzeko egungo hizkuntza legediari eta politikari ikusten deitsozan mugak aipatzea, bai EAEn bai Euskal Herrian: *el elemento simétrico del bilingüismo es lo que pretende la Ley del Euskara y lo que limita avanzar en el camino hacia la normalización* (Ezker Abertzalea, 1998), *los modelos de normalización de las políticas lingüísticas desarrolladas en el ámbito del actual marco juridicopolítico son insuficientes para constituir una Euskal Herria euskaldun* (Ezker Abertzalea, 2001), *con las políticas lingüísticas desarrolladas hasta ahora el euskera no se normalizará* (Ezker Abertzalea, 2012). Modu horretan, Ezker Abertzaleak normalizazio marko desbardin bat dau proposagai eta helburu bere hauteskunde programetan: *construir un nuevo marco normalizado para el euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Norabide horretan zentrala da aipatzea Ezker Abertzalearentzako euskararen normalizazioa zertan datzan. 2012ko hauteskunde programan alderdiak honakoa dino: *entendemos por normalización del euskera el que sea el idioma habitual y prioritaria de la ciudadanía vasca en todos los ámbitos*

*cotidianos* (Ezker Abertzalea, 2012). Hortaz, alderdiarentzako euskararen normalizazioa eta euskara lehentasunezko hizkuntza bilakatzea ildo beretik doaz.

Egitez, alderdiak hauteskunde urterik urte bere azken helburua modu argian esplizitatu izan dau. *Nuestro objetivo es construir una Euskal Herria euskaldun compuesta por individuos plurilingües* (Ezker Abertzalea, 1994, 1998). Herritar eleanizdunen herri euskalduna. Eta azken helburu horretara heltze aldera, euskara lehenesteko neurri ugari izan dauz proposagai alderdiak. Maila orokorrean, ekologia linguistikoaren teorizazioari jarraiki, euskarari funtzio eskusiboak eskaintzeko beharrezana antzeman dau: *son necesarias funciones exclusivas para las lenguas de origen o propias* (Ezker Abertzalea, 2012) eta euskararen aldeko diglosia funtzionala bultzatzearen alde agertu da: *se impulsará la diglosia funcional a favor del euskara* (Ezker Abertzalea, 1998). Arlo jakinetan be egin dau euskara lehenesteko hautua. Esaterako, herri administrazioan euskara lehentasunezko zerbitzu zein lan hizkuntza moduan ezartzea (1990), enpresa publikoetan zein herri administrazioagaz hitzarmenak dabezanetan euskara lehenestea (2012), gazteei zuzendutako aisia ekintzetan bere bai (2012), edota euskararen arnaguneetan (2012), etorkinei harrera egiterakoan (2012), ETBn ETB2 gitxika gitxika elebidun bihurtuz (1994), etab.

Ezker Abertzalearen hauteskunde programetan euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzeak eta bilakatzeko nahiak presentzia nabarmena bereganatu dauan arren, eleaniztasun bardinzalea aldarrikatzen daben aipua be izan dira, bereziki 1998ko hauteskunde programan. Euskal Herriari begira euskara, gaztelania eta frantsesaren arteko eleaniztasun bardinzalea aldarrikatu da: *Euskal Herria ha de tener un plurilingüismo igualitario* (Ezker Abertzalea, 1998) eta Europar Batasunari begira lurraldeko berezko hizkuntzen arteko bardintasuna: *plurilingüismo igualitario en la unidad Europea* (Ezker Abertzalea, 1998).

Elebitasunak bereganatutako bi aipuetan herritarren integrazio linguistikoa izan da bilatua: *la integración lingüística de la población vasca* (Ezker Abertzalea, 1994, 2001); hau da, herritarrek euskara eta gaztelania bi hizkuntzak ezagutzea.

#### 4.2.7. Hizkuntza politika proposamenak

---

Atal honen xedea Ezker Abertzaleak proposagai dauzan hizkuntza politika ekimen zehatzak aztertzea da. Ezker Abertzaleak hizkuntza politika ekimenei adierazpen ideologikoei baino tarte handiagoa eskaini deutse 1990, 1994 eta 2012ko hauteskunde programetan; 1998 eta 2001ean, barriz, adierazpen ideologikoei aurrea hartu deutse ekimen politikoei (ikus 4.21. taula). Hizkuntza politika ekimen motei dagokionean, bost hauteskunde programetan zehar alderdi politikoak 26 ekimen mota ezbardin mahaigaineratu dauz. Hizkuntza politika ekimenei tarte handiena egin deuten hauteskunde programak izan dira ekimen aniztasun handiena agertu dabenak.

## 4.21. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN INGURUKO DATU ZENTRALAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa ala guztira
Hizkuntzen gaiari hauteskunde programetan eskaintako ehunekoa	19,5	9,8	31,7	19,6	13,4	18,8
Hizkuntza politika eduki motara zuzendutako esaldi-muin kopurua	97	110	112	89	333	741
Hizkuntzen diskurtsoan hizkuntza politika eduki motak bildutako ehunekoa	64,24	58,2	26,99	40,83	63,79	49,57
Hizkuntza politika ekimen mota kopurua	19	19	15	17	25	26

*Iturria:* norberak egina.

Ezker Abertzaleak hizkuntza politika ekimen gehien gehienak euskarari zuzendu deutsoz, zehazki, proposamenen %92,84: %6,34 beste hizkuntza batzuekatz konbinaketan eta %86,5 bera beratarra (ikus 4.22. taula). Euskarak bera beratarra lortutako presentzia eztabaidaekin horrek gainontzeko mintzarentzako tarte txikia itzi dau. Dana dala, aipamen berezia merezi dabe gaztelaniak, euskaragaz batera EAEko hizkuntza ofiziala dalako, eta frantsesak, Ezker Abertzalearen hauteskunde programetan gaztelaniaren trataera berbera jaso daualako. Gaztelaniak, orotara, politika ekimenen %8,1 bildu dau eta frantsesak %2,29. Nabarmentzekoa da hauteskunde programa guztietan politika proposamenak bereganatu dabezan hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa bakarrak euskara, euskara eta gaztelania eta euskara, gaztelania eta frantsesak eratutako eleaniztasuna izan direla.

Aldi berean, Ezker Abertzalearen hizkuntza politikan atzerriko hizkuntzek bildutako ehuneko murrizta aipagarria da (%0,27); baita ingelesari bera beratarra proposamenik ez zuzendu izana eta euskara eta gaztelaniagaz batera %0,27 baino ez biltzea. Etorkinen eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak be 2012ko hauteskunde programan soilik izan dauz hizpide, eta oso modu marjinalen gainera.

**Etorkinen ala gitxiengo etnikoen hizkuntzei** lotuta, Ezker Abertzaleak bi ekimen mota proposatu dauz: batetik, sentsibilizazio dinamikak burutzea etorkinak ez beste euskal herritarrentzako etorkinen kultura eta hizkuntzak ezagun egin daitezkan, besteak beste, eskoletan: *pondremos en marcha dinámicas de sensibilización y formación en los centros escolares, para que las lenguas de procedencia de esas familias tengan un espacio y reconocimiento en nuestro sistema educativo* (Ezker Abertzalea, 2012); bestetik, herri administrazioan etorkinentzako itzulpen zerbitzuak indartzea, bereziki, euskara eta etorkinen jatorrizko hizkuntzen artean.

**Atzerriko hizkuntzen** kasuan euren ikaskuntza eta ikaskuntza horren zer-nolakotasuna izan dauz hizpide alderdiak, hizkuntzon ikaskuntza goiztiarra bultzatzea proposatuz,



esaterako. Euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza bat, arruntean ingelesa izan ohi dana, batera mintzagai izan direnetan helburua be mintzairon ikaskuntza eta ezagutza izan dira, azken xedetzat honakoa ezarriz: *la meta debe ser al terminar la educación obligatoria dominar bien al menos dos de las tres lenguas oficiales (euskera y castellano), y una lengua extranjera o la tercera lengua oficial de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2012).

4.22. TAULA. EZKER ABERTZALEAK HIZKUNTZA DESBARDINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1990-2001, 2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1990	1994	1998	2001	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Hizkuntzak</b>	1,03	0,91	0	0	3,30	1,75
<b>Euskara</b>	85,57	86,36	81,25	87,64	88,29	86,50
<b>Gaztelania</b>	8,25	1,82	0	0	0	1,35
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	3,09	6,36	4,46	5,62	3,60	4,32
<b>Euskara &amp; Frantsesa</b>	0	0	0,89	0	0	0,13
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0,60	0,27
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Frantsesa</b>	0	0	9,82	0	0,30	1,62
<b>Gaztelania &amp; Frantsesa</b>	0	1,82	0	2,25	0	0,54
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0,60	0,27
<b>Etorkinen ala gitxiengo etnikoen hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0,90	0,40
<b>Estatuko, eskualdeko hizkuntzak</b>	0	0,91	0	0	0	0,13
<b>Eleaniztasuna</b>	2,06	1,82	1,79	4,49	1,80	2,16
<b>Hizkuntza gitxituak</b>	0	0	0	0	0,60	0,27
<b>Berezko hizkuntzak</b>	0	0	1,79	0	0	0,27
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100
	N =	97	110	112	89	333

*Iturria:* norberak egina.

## Gaztelania eta frantsesari zuzendutako proposamen politikoak

Gaztelaniak eta frantsesak jasotako proposamen politikoak bi norabidetakoak izan dira: batetik, 2001ean gaztelaniaz ala frantsesez burututako kultura nazionala kontuan harzeko konpromisoa: *se tendrá en cuenta la cultura nacional que se desarrolle en castellano y francés* (Ezker Abertzalea, 2001); eta bestetik, gaztelania eta frantsesaren nagusigoak euskararentzako dakarren bazterketa gainditzea: *superación de la división y arbitrariedad que supone la existencia, hoy día, de estas cinco situaciones lingüísticas diferentes, todas ellas discriminatorias para el euskera* (Ezker Abertzalea, 1994). Gaztelania bera berataraz hizpide izan danetan, euskararekiko bere izaera baztertzaila gaitzestu dau alderdiak esparru desbardinetan; hain zuzen, hezkuntzan, komunikabide pribatu eta estataletan edota herri administrazioan; eta berau gainditzeko beharra adierazi. Hizkuntza politikaren azken

helburuetan islatu dogun moduan, Ezker Abertzaleak euskararen nahia euskara lehentasunezko hizkuntza eta hizkuntza nagusi moduan ezartzea da Euskal Herrian, gaztelania edota frantsesaren aurretik. Hori holan izanda, gaztelaniak batutako politika ekimenak nagusigoa lagatze horren ildotik joan dira; gaztelaniaren erabateko alboratzea bultzatu ez arren, bere bigarren mailakotzea bilatuz. Horrela, gaztelaniaren erabilera egoerak horrela eskatzen dauanean onartuko da (1990), errealtate soziolinguistikoa aintzat hartuta harremanerako hizkuntza moduan erabiltzea zuzenetsiko da, estatuko edota pribatuak diren komunikabideei gaztelaniaz emititu edota Euskal Herrian jasotzea itziko jake (1990), ikasleak gaztelania maila betegarrian ezagutzea bilatuko da (1990), esaterako, gaztelania eskolan nahitaezko ikasgai moduan ezarrita. Dana dala, esan beharra dago, gaztelania “bigarren posizio” batean jartzeko proposamen guztiak 1990eko hauteskunde programan burutu ebazala Ezker Abertzaleak.

Gaztelania eta frantsesa euskaragaz batera hartu dauzanetan ekimenen xedea bat bakarra izan da, hain zuzen, hiru hizkuntzen bardintasuna. *Proclamamos un bilingüismo igualitario* (Ezker Abertzalea, 1998), *el euskera ha de tener en todo Euskal Herria la misma función que el castellano tiene en Hego Euskal Herria y el francés tiene en Ipar Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1998), *alcanzar la igualdad real con las otras lenguas* (Ezker Abertzalea, 2012).

## Euskarari zuzendutako proposamen politikoak

Ekimen politiko gehien bildu dauzan euskararen zentratuz orain, politika proposamen gehien jaso dauzan esparrua diferentzia handiz irakaskuntza izan dala baieztatu beharra dago. Halaber, kultugintzak, esparru juridikoak, herri administrazioak, hizkuntza politikaren arlo orokorrak, komunikabideek eta gizarte bizitzak be ekimen ugari bildu dabez. Barriz, nabarmen tarte murriztagoa jaso dau lan munduak eta, are murriztagoa, teknologia barriek.

**Irakaskuntza** alorraren baitan euskarak ekimen aniztasun handia bereganatu dau. Hauteskunde urterik urtera, Ezker Abertzaleak irakaskuntza maila guztietan euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu dau: *todos los ciudadanos vascos tienen derecho a cursar sus estudios en euskera empezando desde la guardería hasta llegar a la universidad* (Ezker Abertzalea, 2001). Eskubideaz harago, 2012ko hauteskunde programan Ezker Abertzaleak euskararen ikasketa unibertsalizatzeko nahia adierazi dau: *universalizar el aprendizaje del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Hezkuntza maila guztietan euskara lan hizkuntza bilakatzea be ezarri izan dau helburutzat alderdiak, hori bideragarri egiteko beharrezko dan hizkuntza eskakizunen dekretua berrikusiz (1994). Ezker Abertzaleak euskara ikasteko aukera etorkin guztiei be ziurtatu gura deutse: *este gobierno trabajará para que las personas que han venido a Euskal Herria tengan la oportunidad de aprender euskera* (Ezker Abertzalea, 2012); esaterako, Aisa programa indartuz eta zabalduz. Era berean, euskararen ikaskuntza nazioartera zabaltzeko hautua be egin dau alderdiak: *impulsaremos la enseñanza, el aprendizaje y la utilización del euskera en todo el mundo* (Ezker Abertzalea, 2012). Azken hori bideragarri egiteko lekuan lekuko irakaslegoa prestatzeko programak edota atzerrian euskara ikasten dabilzan ikasleak euskal familietan egonaldiak burutzeko ekimenak izan dauz proposagai (2012).

4.23. TAULA. EZKER ABERTZALEAK EUSKARARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN EHUNEKOAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Adm.	Irakas.	Kom.	Tekn.	Lan	Kult.	Giz.	Jurid.	Batazbestekoa
Ezagutza, euskalduntzea	6,90	4,62	15,68	3,85	12,50	10,34	0	25,49	1,49	9,38
H. babestu, bultzatu	31,03	4,62	3,24	5,77	0	17,24	4,88	11,76	5,97	8,21
Corpus plangintza	0	0	1,08	5,77	0	0	12,20	1,96	0	2,68
Ikasketa, alfabetatzea	0	1,54	7,03	0	0	0	0	0	0	2,35
Legedia: aldatu	1,72	10,77	0,54	0	0	0	1,22	0	37,31	5,86
Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea	0	0	0,54	0	0	0	0	0	46,27	5,36
Hizkuntza eskubideak	15,52	9,23	9,73	3,85	0	10,34	0	1,96	7,46	7,37
Bateratze linguistikoaren ereduak: euskara nagusi	0	0	10,81	0	0	0	0	0	0	3,35
Hizkuntza didaktika	0	0	0,54	0	0	0	0	0	0	0,17
Ikerketa	0	0	9,19	0	0	0	0	0	0	2,85
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	10,34	16,92	5,41	13,46	0	10,34	1,22	0	0	6,37
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0	0	0	1,92	0	0	0	0	0	0,17
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	18,46	0	0	0	0	0	0	0	2,01
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	15,14	0	0	3,45	0	0	0	4,86
Komunikazio hizkuntza funtzioa	8,62	4,62	3,24	19,23	50	6,90	0	33,33	0	7,87
Laneko hizkuntza funtzioa	0	10,77	0,54	1,92	0	0	0	0	0	1,51
Itzulketa, bikoizketa	0	0	0	3,85	0	0	3,66	0	0	0,84
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	1,72	0	0	15,38	25	0	40,24	9,80	0	8,21
Baliabide tekniko, giza, materialak	3,45	0	5,41	9,62	12,50	0	14,63	1,96	0	5,19
Hizkuntza paisaia	0	0	0	1,92	0	3,45	0	0	0	0,34
Planifikazio soziolinguistikoa	12,07	9,23	5,41	0	0	17,24	0	1,96	0	4,86
Ebaluaketak, erreformak	1,72	4,62	2,70	0	0	0	0	0	1,49	1,68
Transmisioa	0	0	0	0	0	0	0	5,88	0	0,50
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	3,45	3,08	0,54	1,92	0	6,90	13,41	5,88	0	3,69
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	3,45	1,54	3,24	11,54	0	0	8,54	0	0	3,69
Tituluak, akreditazioak	0	0	0	0	0	13,79	0	0	0	0,67
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	58	65	185	52	8	29	82	51	67	597

Iturria: norberak egina.

Eskolari dagokionean, 1998ko hauteskunde programan atzerabegirakoa eginez, Ezker Abertzaleak alor horretan euskararen babeserako burututako lana eta aurrerapenak izan dauz hizpide; baita 2012an euskararen berreskuratze prozesuari begira oraindino agertzen dauzan erronkak be. Egitez, euskalduntzea da Ezker Abertzaleak aldarrikatzen dauan eskola nazionalaren eginkizun funtsezkoa: *la Euskaldunización será un objetivo primordial de la Escuela Nacional Vasca* (Ezker Abertzalea, 1990). Alderdiaren iritziz, eskolak ikasleak euskaraz ikasteko aukera eta euskara ezagutzea bermatu behar dauz; modu horretan ikasleek euskara komunikazio hizkuntza moduan erabiltzeko aukera izan dagien: *se trata de adquirir suficiente conocimiento del euskera para que l@s alumn@s de enseñanzas no universitarias puedan vivir en euskera* (Ezker Abertzalea, 2001).

Euskara ezagutzea mintzagai izanda, aipatu beharra dago 2012ko hauteskunde programan familia etorkinen umeak euskara ikastea be hartu dauala helburu Ezker Abertzaleak, horretarako euskarazko murgiltze ereduetan izen-ematea bultzatzeko neurriak bideratzea proposatuz: *tomaremos medidas para fomentar que los alumnos de familias migrantes se matriculen en el modelo de inmersión en euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Garrantzitsua da oso 1994az gerotik eta euskalduntzea bermatze bidean, Ezker Abertzaleak xede hori betetzea lortzen ez daben hezkuntza ereduak bertan behera iztea proposatu dauala: *será imprescindible efectuar un cambio radical en los modelos lingüísticos, suprimiendo los modelos que no garantizan los objetivos de euskaldunización* (Ezker Abertzalea, 1994). Inportantea da azpimarratzea, 2001era arte proposamena A eredu baztertu eta B eta D ereduak indartzea izan dan bitartean, 2012an euskarazko murgiltze eredu bakarraren aldeko apustua egin dauala indartsu alderdiak: *es necesario superar el actual esquema de modelos, y encaminarse hacia un único modelo de inmersión* (Ezker Abertzalea, 2012). Euskarazko murgiltze ereduak izaera malgua eukiko dau, eta lehenengo pausu moduan eskolaurrean ezarriko da. Egoera barri horretan, gaztelaniak ikasgai funtzioa beteko dau. Esan beharra dago, Ezker Abertzaleak proposamen hau EAEn hasteko helburua dauan arren, azken xedea Euskal Herri osorako proiektu izatea dala: *debe ser un proyecto para toda Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2012). Horrek guztiak, beraz, hezkuntzaren erreforma dakar.

Aipatu beharra dago, Ezker Abertzaleak ikasleen euskalduntzea eskubide moduan begitaratzen dauala Euskal Autonomia Erkidegoan ezeze Nafarroako Foru Erkidegoan bere bai. Izan be, *tod@ ciudadanía vasc@ tiene derecho a realizar todos los estudios en euskera* (Ezker Abertzalea, 1998), nafarrek bere bai. Hizkuntza eskubideak hizpide hartuta, aipatzekoa da 2001eko hauteskunde programan irakasleak elebidunak izateko beharrak irakasle elebakarren zeozelango alboratzea dakarrela Ezker Abertzalearen proposamenetan: aurretiko erretiroak, hezkuntza sistemaz kanpoko ordezkari lanpostuak, soldatapeko bajak bideratzea proposatuz. Izan be, eskolak, ikasleen euskara ikaskuntza eta ezagutza bermatzeaz gainera, irakasleen euskalduntzea be bermatu behar dau. Ezker Abertzalearentzat euskara ezagutzen ez daben irakasle guztiek nahitaez ikasi beharko dabe euskara. Horretarako, Ezker Abertzaleak zenbait neurri proposatu dauz: irakasleentzako birziklapen eta prestakuntza neurriak (1998, 2001), irakasle euskaldunen kontratazioa (2001), etab.

Aurreko guztiaren ildotik, eskolan normalizazio linguistikorako planak bultzatzea be hauteskunde urterik urtera proposatu dau Ezker Abertzaleak: *promover planes de normalización lingüística en la comunidad educativa* (Ezker Abertzalea, 2012); *promover proyectos de normalización lingüística y hacerlos extensivos a todos los centros, para euskaldunizar la actividad diaria de los mismos* (Ezker Abertzalea, 2001), etab. Egiteko guzti horreetarako baliabideen eskaintza be izan dau aipagai Ezker Abertzaleak: baliabide ekonomikoak (1990), giza baliabideak (1994, 1998); baita sentsibilizazio eta motibazio kanpainak be (1990).

Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoan zonakatzean oinarritutako hizkuntza politika eta zonalde batzuetan euskararen ofizialtasun faltak hezkuntza euskaraz burutzea galarazo dauala gaitzestu dau Ezker Abertzaleak, egoera normalizatzeko neurriak hartu beharra adieraziz: *la falta de oficialidad y la política lingüística zonal han impedido la difusión de la enseñanza en euskera en Navarra; consideramos primordial activar la iniciativa de normalizar la situación de este País* (Ezker Abertzalea: 1998).

Lanbide heziketak be jaso dau ekimen bat edo beste euskara hizpide izan dauanetan. 2001ean batxilergoa eta lanbide heziketa euskaraz ikasteko ikasleen eskubidea bermatu beharra izan dau hizpide alderdiak: *las instituciones han de respaldar especialmente el derecho a estudiar en euskera los Bachilleratos y Ciclos Formativos de FP* (Ezker Abertzalea, 2001); eta 2012an lanbide heziketan hezkuntza euskaraz eskaintzeko pausuak emon beharra, euskara komunikazio eta lan hizkuntza bihurtzeko nahia eta irakasleen prestakuntza zein euskarazko materialen prestaketa.

Euskara mintzagai hartuta unibertsitatea be agertu dau politika ekimenen xede Ezker Abertzaleak. Alderdiaren ustetan unibertsitateari be badagokio euskara bultzatzea. Egitez, unibertsitate publikoaren euskalduntzeko nahia baten baino gehiagotan aipatu dau Ezker Abertzaleak: *una universidad pública, nacional y euskaldun* (Ezker Abertzalea, 1990); *se impulsará la total euskaldunización de la UPV* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, unibertsitatearen erabateko euskalduntzeaz gainera euskara indartzeko nahia be agertu dau alderdiak 2012ko hauteskunde programan: *reforzaremos el euskera en la universidad* (Ezker Abertzalea, 2012); *promoveremos que en la universidad y en la investigación se utilice el euskera y estén al servicio del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Besteak beste, ikasleen euskaraz ikasteko eskubidea bermatu ahal izateko. Modu horretan, ikasleei unibertsitateko ikasketak euskaraz ikasteko aukera ziurtatu gura jake: *garantizar la posibilidad de realizar todos los estudios universitarios en euskera* (Ezker Abertzalea, 1994). Baina euskarari ikasketa funtzioa atxikitzeaz gainera, 2012ko hauteskunde programan ikerketa funtzioa atxikitzea be proposatu dau Ezker Abertzaleak: *daremos pasos para lograr que en la investigación superior, en las publicaciones y en las divulgaciones se utilice el euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, unibertsitatean euskararen normalizazioa bermatzeko beharrezkoa izango da planifikazio bat burutzea eta baliabide ekonomikoak be bideratzea. Esanak esan, onartu beharra dago ekimen gehien bildu dauzana euskararen inguruko ikerketa bultzatzea izan dala: hizkuntzen teknologien inguruko ikerketek, euskararen egoera aztergai

daben ikerketa soziolinguistikoek, ahozko euskal tradizioaren bilketak, euskararen historiak, iraganeko euskararen ikerketak, etab. Dana dala, argitu beharra dago, mota honetako proposamen gehien gehienak 2012ko hauteskunde programan burutu dauzala alderdiak. Era berean, esateko dago 2012ko hauteskunde programan nazioartean euskarazko unibertsitateko irakurletzak martxan jartzea be proposatu dauala Ezker Abertzaleak.

Euskaltegiek eta hizkuntza eskolek be bereganatu dabez zenbait aipamen; gehienak finantzaketa edota baliabide eskaintzara zuzenduak: *la Administración Autónoma apoyará a todos aquellos organismos, instituciones y asociaciones sin ánimo de lucro que trabajen en el campo de la Euskaldunización y Alfabetización de adultos, distribuyendo cuantitativamente entre todos ellos las partidas presupuestarias que el Parlamento asigne al efecto* (Ezker Abertzalea, 1990). 2012ko hauteskunde programan helduen euskalduntzeak euskararen unibertsalizazioari begira dauan funtzio zentrala azpimarratu dau eta, horregaitik, jendearentzako bere ikasketak dohakoak eta sektorearen finantzaketak etengabeak izan beharko dau: *la euskaldunización y alfabetización de adultos contribuirá a la universalización del euskera. Para ello, se encaminará hacia la gratuidad, en función de la asistencia y el aprovechamiento. Se garantizará la financiación permanente del sector* (Ezker Abertzalea, 2012).

Hezkuntzaren ostean **kultura** alorrerako proposatu dauz Ezker Abertzaleak euskararentzako ekimen gehien. Alderdia euskararen eta euskal kulturaren alde agertzen da: *apostamos por fomentar nuestra identidad, lengua y cultura* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, 1990eko hauteskunde programan adierazi eban lez, *no estamos en contra de otras lenguas y culturas, sino a favor de la nuestra* (Ezker Abertzalea, 1990).

Kultura babesteko bidea euskaraz burututako sorkuntza, ekoizpena eta eskaintza kulturala bultzatzea da, eta horretara bideratu dauz Ezker Abertzaleak hainbat eta hainbat ekimen (%40,24) (ikusi 4.23. taula); bereziki 2012ko hauteskunde programan, baina baita 1994 eta 2001ean be. 1994an, esaterako, Ezker Abertzaleak kultura arloan euskararen presentzia indartzeko enpresa kulturalak azpimarratuak sinatzeko proposamena bideratzeko konpromisoa adierazi eban: *trabajar acuerdos con las empresas que trabajan en la producción cultural y el ocio para que en su labor fortalezcan la presencia del euskera, sobre todo cuando estas actividades se dirigan a la juventud* (Ezker Abertzalea, 1994). 2001ean be gazteentzako kultura bultzatzeko beharra adierazi eban: *habrá que garantizar a los estudiantes y jóvenes en general, que pueden disfrutar en euskera de un ambiente sociocultural de calidad* (Ezker Abertzalea, 2001). Egitez, 2012an Ezker Abertzaleak mogimendu kultural euskalduna bere eginkizun zentral dala baieztatu eban: *EH Bildu afirma la centralidad del movimiento cultural vasco y, en especial, de la creación cultural en euskera como uno de sus ejes primordiales* (Ezker Abertzalea, 2012). Horrela, euskal kultura indartzeko konpromisoa hartzen dau, Euskal Herrian ezeze nazioartean bere bai, diasporan besteak beste: *difusión de actividades culturales vascas de y hacia la diáspora* (Ezker Abertzalea, 2012). 2012ko hauteskunde programan euskara nazioartean zabaltzeko bideen berrikusketa konpromisoa be adierazi dau Ezker Abertzaleak: *revisaremos las estructuras que existen actualmente para difundir el euskera y la cultura euskaldun en el mundo* (Ezker Abertzalea, 2012).

Euskal literatura eta liburugintza bultzatzeko nahia be adierazi dau alderdiak: *creación literaria, producción de libros, fomento del comic*, etab. (Ezker Abertzalea, 2012); eta hauxe be Euskal Herrian zein nazioartean eta diasporan; baita antzerkia indartzekoa be euskarazko obrak bultzatuz: *impulso de obras teatrales en euskera* (Ezker Abertzalea, 2012), zein, bereziki, euren lana euskaraz burutzen daben antzerki talde amateurs-ak zein profesionalak bultzatuz: *priorizar el objetivo de aumentar el número de grupos amateurs y profesionales, dando siempre prioridad a las actividades que se desarrollen en euskera* (Ezker Abertzalea, 2001). Euskal musika indartzeko nahia be agertu izan dau Ezker Abertzaleak (1994, 2012), talde musikalak, bakarkako lanak, Dj-ak, zein produkzio diskografikoa orokorrean; eta 2012ko hauteskunde programan euskarazko sorkuntza kulturala burutzen daben elkarteak diruz laguntzeko konpromisoa be agertu dau.

Ezker Abertzaleak euskararekiko sentsibilizazio estrategiak be proposatu dauz (%13,41) (ikusi 4.23. taula). Sentsibilizazio neurriok 1990 eta 2012ko hauteskunde programetan izan dabe agerpena, baina oso modu desbardinean. 1990ean sentsibilizazioa euskaldun kontzientzia eta euskararekiko harrotasuna berreskuratuzera zuzendu dau Ezker Abertzaleak: *Herri Batasuna dará, pues, prioridad al establecimiento del sentimiento de orgullo por el uso y la vida en euskera, eliminando complejos de inferioridad y autoadversión* (Ezker Abertzalea, 1990). 2012ko hauteskunde programan, barriz, sentsibilizazioa etorkinei eta ijitoei begirakoa da, hain zuzen, poblazio horreengan euskararekiko eta Euskal Herriarekiko sentsibilizazioa bultzatzea: *tomando en consideración las culturas y las lenguas de los inmigrantes, promoveremos un acercamiento al euskera y a la cultura vasca* (Ezker Abertzalea, 2012); *el objetivo sería (...) dar a conocer Euskal Herria como nación a quienes vienen de fuera o tienen otra procedencia* (Ezker Abertzalea, 2012).

**Herri administrazioa** izan da, esparru juridikoagaz batera, euskarari zuzendutako ekimen kopuruan hirugarren postua bete dauana. Herri administrazioaren baitan ekimen orokorrez gainera, azpi esparru desbardinetarako be proposatu dauz alderdiak ekimenak: osasuna, epaitegiak, udal eta foru administrazioa, hizkuntza politika erakundeak, estatuko administrazioa, ordezkari politikoak, nazioarteko erakundeak, zein herri administraziorako modu orokorrean.

Herri administrazioa maila orokorrean landu dauanean langai presentzia handiena hizkuntza eskakizuna baldintza moduan ezartzeak bereganatu dau. Hauxe 1990ean, 1994an eta, indar handiagoz, 2012an proposatua izan dau. 1990an zonalde euskaldunetan zenbait lanpostutan euskararen ezagutza hasiera unetik nahitaezko bilakatzea proposatu dau; eta euskara gitxiengoa dan zonaldeetan, barriz, betebeharra epe ertain edo luzera ezartzea. Ildo berean, 1994ko hauteskunde programan etorkizunean herri administrazioak kontratatatu beharreko langileak euskaldunak izatea proposatu dau: *que las y los trabajadores que contrate en el futuro la Administración, sean euskaldunes* (Ezker Abertzalea, 1994). 2012ko hauteskunde programan, ostera, momentu horretantxerako bertantxerako ezarri dau baldintza: *en adelante, para trabajar en la administración pública de la CAV obligatoriamente se deberá poseer como mínimo el 2º perfil lingüístico o equivalente* (Ezker Abertzalea, 2012).

Interes berezia dau Ezker Abertzaleak hizkuntza eskakizunak herri administrazioaz haratago herri administrazioaren erakunde autonoma eta soziedade publikoetan ezartzeko beharra be agertu dauala 2012ko hauteskunde programan. Eta are gehiago, administrazioak, bere erakunde autonomo eta erakunde emakidedunak publizitatea argitaratzerakoan euskarazko komunikabideei eta komunikabide elebidunen kasuan argitalpenaren %33 baino gehiago euskaraz dabenei lehentasuna emongo deusela azaldu dau.

Epaitegiak behin bakarrik izan dauz hizpide Ezker Abertzaleak euskara politiken esparru jasotzaile moduan, hain zuzen, 2012ko hauteskunde programan; eta ekimen horretan proposatutakoa epaile, magistratu, fiskal zein zerbitzu langileak izendatzerakoan euskararen ezagutza nahitaezko baldintza moduan ezartzea izan da.

Euskara herri administrazioiko lehentasunezko zerbitzu eta lan hizkuntza bilakatzeko konpromisoa be agertu dau Ezker Abertzaleak 1990 eta 2012an. *La Administración Pública, sea municipal, provincial, nacional o periférica del Estado, asumirá el deber inexcusable de normalizar y fomentar el uso del euskara como lengua prioritaria de servicio y de trabajo* (Ezker Abertzalea, 1990); eta hori egingarri egiteko zenbait neurri be proposatu dauz: langileriaren berregituraketa, lanpostu barrien sorkuntza, etab. Herri administrazioak, bere erakunde autonomoek edota erakunde publikoek 16 urte baino gitxiagoko gazteei zerbitzuak euskaraz eskaintzea proposatu dau.

Era berean, aipatu beharra dago Ezker Abertzaleak herri administrazioiko esparru desbardinetan euskalduntze planak egitea be proposatu dauala 1990 eta 1994an. Baita herri administrazioaren euskalduntzea lortzeko Funtzio Publikoaren Legea, zein Hizkuntza Eskakizunen Dekretua berrikustea be (1994).

Euskara herri administrazio orokorreko politiken xede izan danetan, Ezker Abertzaleak behin baino ez dauz izan hizpide hizkuntza eskubideak; hain zuzen, koofizialtasunak banakako hizkuntza eskubideak dakartzala esateko. Azpimarragarria da eskubide hori gauzatua izateko herritarrentzako sentsibilizazio kanpainak burutzea be proposatu dauala Ezker Abertzaleak 1990ean: *a través de constantes campañas de sensibilización y concienciación en todos los medios, se animará a la población a ejercer a ser atendidos en euskera por la Administración* (Ezker Abertzalea, 1990).

Bestalde, osasun sistemara zuzendutako politika motak herri administrazioa zuzendutakoen oso antzekoak izan dira; hau da, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea: *tomar medidas necesarias para posibilitar el derecho de todos los usuarios de Osakidetza a ser atendidos en euskera en todos los niveles asistenciales* (Ezker Abertzalea, 2012); eta arreta euskaraz eskaintzea: *garantizar la relación y comunicación en euskera entre las/los profesionales sanitarios y las usuarias/os* (Ezker Abertzalea, 1994). Horretarako, langileak euskalduntzea zein langileei hizkuntza eskakizunak eskatzea funtsezkoa izango da. Era berean, eginkizun guztiok bideragarri egiteko euskalduntze planak burutzea be garrantzitsutzat jo da. Norabide horretako ekimenak 1990, 1994 eta 2012ko hauteskunde programetan proposatu



dira. 2012ko hauteskunde programan, aurreko proposamenez gainera, euskararen erabilera klinikoa indartzeko zein medikuntza arloko ikerketa proiektuak euskaraz burutzeko neurriak be aipatu dau Ezker Abertzaleak, besteak beste, neurri ekonomikoak.

Udal eta Foru administrazioari dagokionean, Ezker Abertzaleak UEMA bultzatzeko eta indartzeko nahia adierazi dau, bai 1994ko hauteskunde programan baita 2012koan be. Hauteskunde deialdiotan Estatuko administrazioak be bi aipamen jaso dau Ezker Abertzalearen aldetik, eta bien xedea euskararen presentzia indartzeko planifikazio burutzea izan da.

Ezker Abertzaleak Hizkuntza Politika Sailburuordetza 1994 eta 2012ko hauteskunde programetan izan dau langai. 1994an sailburuordetzaren egituratzea eta funtzionamendua berrikustea eta Euskara Zerbitzua sortzea izan dira proposatutakoak; 2012an, ordea, sailburuordetzaren baitan euskararen normalizazio prozesuari jarraipena emotea edota Euskal Herri osoan eragingo dauan hizkuntza politika sortzea.

Bestalde, nazioarteko erakundeen baitan hizkuntza politika koherente eta unifikatua bultzatzea eta Europar Batasunak Euskal Herriaren hizkuntza eskubideak babesteko beharra be agertu dau 1994an eta 2001ean, hurrenez hurren. Eta arduradun politikoak hizpide hartuta, euskararen normalizazioarekiko konpromisoa adieraziz berau bultzatzeko nahia (2001) eta arduradun politiko guztiak elebidunak izateko pausuak emoteko gogoia eta ardura adierazi dau Ezker Abertzaleak (2012).

**Esparru juridikoan** euskarari zuzendutako hizkuntza politikek oso izaera zehaztua dabe. Hain zuzen, hizkuntza legediaren aldaketa proposamena, euskararen ofizialtasun deia eta hizkuntza eskubideen inguruko proposamenak. Halaber, euskararen babesera zuzendutako ekimen bat edo beste, zein hizkuntza politikaren ebaluaketari lotutakoak be agertu dira. Azken horren ildora, Ezker Abertzaleak 2012an erakunde publiko zein pribatuek bideratutako proiektuek zenbateko eragin soziolinguistiko kaltegarria daben neurtzea proposatu dau: *medir las consecuencias sociolingüísticas perjudiciales de los proyectos de las instituciones y de las iniciativas privadas* (Ezker Abertzalea, 2012).

Esparru juridikoan euskararen auzian aurrerapenak egiteko beharra be agertu dau behin baino gehiagotan alderdiak. Besteak beste, hizkuntza eskubideen kasuan, 2001ean Ezker Abertzaleak Euskal Herri osorako hizkuntza eskubide bardenen aldarrikapena egin dau; Euskal Herriko herritar guztiak dabelako eskubidea euskara gorde eta garatzeko: *tod@s l@s ciudadan@s de Euskal Herria tienen derecho a conservar y desarrollar el euskera* (Ezker Abertzalea, 2001).

Aldi berean aztergai doguzan Ezker Abertzalearen hauteskunde deialdi guztietan, alderdiak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu dau Euskal Herrirako, EAerako ezeze NFE osorako eta Iparralderako be (%46,27) (ikusi 4.23. taula): *Herri Batasuna no cejará hasta que nuestra lengua, el Euskara, sea la lengua oficial de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea,

1990), *garantizar la oficialidad de la lengua en toda Euskal Herria es una reivindicación ineludible* (Ezker Abertzalea, 1998), etab. Azpimarratu beharra dago 2012ko hauteskunde programan Ezker Abertzaleak bere hizkuntza zertxobait moldatu dauala eta ofizialtasun osoaz hitz egitetik *oficialidad suficiente, estatus juridiko adecuado*-ri buruz berba egitera pasatu dala. Halaber, estatus jurídico adecuado hori zertarako? *Para que sea una lengua propia, normalizada, oficial, prioritaria y que se deba conocer* (Ezker Abertzalea, 2012). Egitez, Ezker Abertzaleak berezko hizkuntza guztiek euren lurraldean estatus bardintasuna izan behar dabela defendatzen dau. *El único punto de partida democrático es que todas las lenguas tengan el mismo estatus en su territorio* (Ezker Abertzalea, 1998), baita Euskal Herrian euskarak be. Era berean, Europar Batasunean be aldarrikatu dau alderdiak euskararen ofizialtasuna 1998ko eta 2012ko hauteskunde programetan.

Hizkuntza politika barri bateri bidea zabaltzeko legedia aldatzeko deia be 1994, 1998, 2001 eta 2012ko hauteskunde programetan alderdiak indartsu aldarrikatu dauan ekimena dogu (%37,31) (ikusi 4.23. taula). Izan be, gaur egungo marko juridikoa ez da nahikoa Euskal Herri euskalduna eraikitzeko: *los modelos de las políticas lingüísticas desarrolladas en el ámbito del actual marco jurídico-político son insuficientes para constituir una Euskal Herria euskaldun* (Ezker Abertzalea, 2001); ezta euskara normalizatzeko be: *nos encontramos en una encrucijada: o seguimos con la frágil política y estructura jurídica actual del euskara, o cambiamos la política del euskera y construimos un nuevo marco normalizador* (Ezker Abertzalea, 2012).

Aldi berean, azpimarratu beharra dago legedia aldatzeko nahia Euskal Herria euskalduntzetik haratago nazio eraikuntzaren ikuspuntutik be aldarrikatu dauala alderdiak: *se hace pues evidente que para dar respuesta a las aspiraciones políticas y conquistar los derechos democráticos y el poder político que como Pueblo y nación diferenciada nos corresponde se ha de recorrer un camino diferente al actual, que no es otro que la conquista de un nuevo marco jurídico-político concretado en un Estatuto Nacional de Autonomía para Hegoalde* (Ezker Abertzalea, 1994). Egitez, euskararen hizkuntza politika legedia aldatzeko proposamena egiterakoan, Ezker Abertzaleak Euskal Herria hartu dau gehiengoan erreferentziazko lurralde. 2001ko hauteskunde programan argi adierazten dauan lez, bere nahia Euskal Herrian politika eta zuzendaritza linguistiko bakarra ezartzea da: *única Política y Dirección Lingüística para Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2001). Halaber, esan beharra dago 2012ko hauteskunde deialdian legediaren aldaketa, beraren aplikazioa, EAEn kokatzen dauala eta espezifikoki zonalde sozial eta herri euskaldunak babesteko legedia barri bat be proposatu dauala: *impulsaremos una ley para proteger los espacios sociales y los pueblos euskaldunes* (Ezker Abertzalea, 2012).

Esparru zehatz batera be atxikita ez dagozan ekimenak, hau da, **hizkuntza politika orokorrera** zuzenduta dagozanak be izan dauz proposagai Ezker Abertzaleak. Esan beharra dago gainera, esparru orokor horretan ekimen mota desbardin asko bildu dauzala. Esaterako, euskara babestu eta bultzatzeko dei orokorra (%31,03) (ikusi 4.23. taula), besteak beste, euskararen normalizazioa lortze aldera hizkuntza politika barria sortuz: *proclamaremos la*

*centralidad de la normalización del euskera y la llevaremos a la práctica* (Ezker Abertzalea, 2012). Bide horretan, euskararentzako marko normalizatu bat eraikitzeak asmoa agertu dau alderdiak: *EHBildu quiere salir cuanto antes de ese ámbito, y pretende construir un nuevo marco normalizado para el euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, euskararen normalizazioa bideratzeko 2012an euskararen egoeraren diagnostiko zehatza egiteko beharra adierazi dau alderdiak.

Euskalduntzea be izan dau proposagai Ezker Abertzaleak (%6,9) (ikusi 4.23. taula). Hizkuntza politikaren bidez herritarren euskalduntze prozesu etenbakoa burutu beharra dago alderdiaren ustetan; 2012ko hauteskunde programan adierazten dauan moduan, herritar guztiak euskara ezagutzea bermatu arte, kanpotik etorritakoak barne: *garantizar que todas y todos los ciudadanos sepan y conozcan el euskera, independientemente de su procedencia* (Ezker Abertzalea, 2012). Era berean, maila orokorrean euskararen erabilera handitzeko beharra be adierazi dau, bereziki 2012ko hauteskunde programan: *fomentaremos el afianzamiento del ámbito comunicativo en euskera y contribuiremos a su transformación* (Ezker Abertzalea, 2012). Interesgarria da euskararen erabilera indartzeko Ezker Abertzaleak ekologia linguistikoko teoria aplikatzeko asmoa agertu dauala, berezko hizkuntzentzako funtzio eskusiboak eskatuz.

Hauteskunde urterik urtera euskararen normalizazioa lortzeko hizkuntza plan orokorrak bideratzeko proposamenak egin dauz Ezker Abertzaleak (%12,07) (ikusi 4.23. taula): *Plan de emergencia para la normalización del uso del Euskera* (1990), *Plan General de Normalización del Euskera* (1998), *Plan Estratégico de Normalización del Euskera* (2012); edota plan orokorrak baino zonaldez zonalde burutzekoak: *Planes de pueblo a pueblo, comarca a comarca y herrialde a herrialde* (2001).

Aldi berean, euskararen normalizazioari zentralitatea eskainiko bajako, egiteko horretara baliabideak bideratzeko beharra agertu dau Ezker Abertzaleak, bai baliabide pertsonalak baita ekonomikoak be (%3,45) (ikusi 4.23. taula). Ildo horretan, 1998an euskararen hizkuntza politika barria bideratzeko mugaz gaindiko erakunde publiko bat sortzea proposatu eban: *la constitución de un ente público transfronterizo que tendrá una determinada formulación jurídica, para poder materializar desde Euskal Herria la nueva política lingüística* (Ezker Abertzalea, 1998).

Euskararekiko sentsibilizazio neurriak be izan dira aipagai Ezker Abertzalearen proposamenetan (%3,45) (ikusi 4.23. taula); dala euskal gizartea sentsibilizatzeko (1994) dala ijitoak euskarara hurbiltzeko (2012); eta aldi berean, euskal errealitatea euskaraz mintzo diren mundu osoko kolektibitateetara eta herri anitzetara hurbiltzeko (2012).

Bestalde, hizkuntza eskubideak modu orokorrean eta Euskal Herrian be izan dauz hizpide Ezker Abertzaleak. Euskaradunen hizkuntza eskubideak errespetatu beharra adierazi dau alderdiak, baita errespetatuak ez izatea kritikatu be: *los informes anuales de Behatokia muestran que se siguen vulnerando los derechos lingüísticos de los euskaldunes en toda*

*Euskal Herria y que las administraciones los incumplen cada día* (Ezker Abertzalea, 2012). Alderdiak hizkuntza eskubideak bardintasunetik pentsatu izan dauz, hain zuzen, euskarak gaztelania eta frantsesarekiko bardintasuna lortzea: *lograr para el euskera en todo Euskal Herria el estatus de igualdad y la situación de equiparación que tienen el español y el francés en sus respectivos estados en el campo político, jurídico y sociolingüístico* (Ezker Abertzalea, 2012). Izan ere, hizkuntzen estatus bardintasuna eta egoera bardintasuna da Ezker Abertzaleak eskatzen dauana. Era berean, interesgarria da oso hizkuntza eskubideen izaera banakakoaren ala kolektiboaren inguruan Ezker Abertzaleak egiten dauan analisia: *el euskera es un derecho que le corresponde a cada ciudadano porque es de tod@s, pero la garantía y materialización de ese derecho tiene carácter colectivo y tiene lugar en un determinado territorio, pues además de ser de tod@s, es para tod@s* (Ezker Abertzalea, 1998).

Euskararentzako politikek **komunikabideetan** be izan dabe tartea; EiTbK, prentsa idatziak, iratiak, zinemak zein komunikabideek orokorrean.

Ezker Abertzalearentzako komunikabideak normalizazio lingüistikorako lanabes zentrala dira. Horregaitik, euskararen presentzia komunikabideetan indartzea funtsezkoa da, bai komunikabide publikoetan baita pribatuetan be. EiTbri dagokionean, Ezker Abertzaleak honakoa dino: *el eje de los medios de comunicación del grupo EiTb debe ser el euskera y su normalización* (Ezker Abertzalea, 2012), eta horrela, katea euskararen normalizazioaren zerbitzura jartzeko konpromisoa adierazi dau: *pondremos a EiTb al servicio de la normalización del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Egiteko horren lorpenerako ekimen desbardinak proposatu dauz alderdiak; esaterako, euskaraz sortzen dan produkzioa indartzea (1994) edota euskara kanal guztietan presente egitea (2012). Ildo horretan, 1994an be ETB2 elebidun bihurtzeko asmoa agertu eban alderdiak, gitxika gitxika ETB1en kanal subsidiario bilakatzeko.

Aldi berean, euskarazko komunikabideen esparrua sendotzeko euren arteko kooperazioa bultzatuko da: *se crearán una coordinación, un intercambio de contenidos y unas vías de difusión compartidas con los restantes medios de comunicación en euskera no públicos, para lograr un ámbito de comunicación del euskera sólido y estable* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, EiTbK herritarren euskara gaitasuna eta adierazkortasuna indartzeko bikoizketak lehenestuko dauz; eta eskainiko dan programazioa be normalizatu egongo da, danatariko programak eskainiz. Garrantzitsua da baita EiTb Euskal Herri osoan hartzea gura dauala alderdiak; euskal komunitate osoari zerbitzua emoteko bokazioa izanik, erakunde supraautonomiko moduan definituz.

Euskararen presentzia handituko dauan komunikabide batean langileen euskara ezagutza be funtsezkotzat jo dau alderdiak. Horrela, Ezker Abertzaleak langile guztiei euskara ezagutzeko beharra ezarri deutse: *todos los trabajadores de EiTb deberá tener la capacidad de desenvolverse en euskera, y se establecerán perfiles lingüísticos preceptivos, en función de la responsabilidad del puesto de trabajo* (Ezker Abertzalea, 2012). Baina langileak

euskara ezagutzeaz haratago, langileen lan hizkuntza euskara izateko beharra be adierazi dau alderdiak. Bestalde, EiTBn adierazpenak egiten dabezan euskaldunen kasuan adierazpen bardina euskaraz eta beste hizkuntzetan egitea ekidingo dau alderdiak.

Era berean, aipatzekoa da Ezker Abertzaleak euskararen kalitateari garrantzia berezia eskaini deusola, 1994ko hauteskunde programan Euskarazko Zerbitzu Teknikoa sortzea proposatuz.

Esan beharra dago, EiTBri zuzendutako ekimenak ia modu erabatekoan 1994 eta 2012ko hauteskunde programetan bildu direla. Barriz, prentsa idatzia 1990 eta 1994an izan da aipagai bi ekimen mota proposatuz: batetik, euskaraz bideratzen dan prentsa idatzia %100ean diruz laguntzea eta prentsa elebidunean euskararen erabilera saritzea (1994); eta, bestetik, Euskarazko Prentsaren Legea sortzea komunikabide lokalak, eskualdekoak zein nazionalak, egunkariak, aldizkariak zein astekariak indartzeko (1994). Irratigintza indartzeko nahia be agertu eban 1994an Ezker Abertzaleak.

Euskal zinemari dagokionean iradokitakoak honakoak izan dira: atzerriko pelikulen euskarazko bikoizketak edota azpтитuluak handitzea (2001, 2012), euskal zinema eta bideogintza indartzeko (2001, 2012) eta zinema emanaldietan euskarazko kuota bat ezartzea (2012).

Komunikabideek orokorrean ekimen andana jaso dabez Ezker Abertzalearen eskutik. Ezker Abertzaleak herritarrek komunikabide propioak izateko daben eskubidea aldarrikatu izan dau 1994an. 1990ean EiTBren kanal desbardineterako proposatutakoaren erara, Ezker Abertzaleak EAEko komunikabide guztietan euskararen gitxieneko presentzia ziurtatzea proposatu dau (1990, 2012), baita Euskararen Erabilpena Normaltzeko Emergentzi Planean komunikabideen euskalduntzeari erabateko lehentasuna eskaintzea be (1990). Ildo horretan, 1994an komunikabide lokal eta estataleka azkordioak bultzatzea proposatu dau euskarari tartea itzi deioen, edota 2012an Estatuko komunikabide publikoei euskararen legea betetzeko deia egingo jakela emisioak euskaraz egin dagiezan, zein komunikabideetako editore eta enpresak eskarazko produktuak egitera animatuko dabezala. Azken sentsibilizazio ekimen horreek herritarrentzako be proposatu dauz Ezker Abertzaleak, hain zuzen, herritarrak euskarazko komunikabideak kontsumitu dagiezan: *las instituciones y los medios de comunicación públicos canalizarán para que la ciudadanía consume medios de comunicación en euskera, con el fin de convertir a los usuarios potenciales en reales* (Ezker Abertzalea, 2012).

Era berean, 2012ko hauteskunde programan euskarazko komunikabideak bultzatzeko emisio lizentzia guztiek gitxienez 50eko euskarazko emisioa izatea exigituko dabe<sup>106</sup> eta gainera barruti bakoitzean euskarazko komunikabideentzako lizentzia bat gordeko da. Halaber, 1994ko hauteskunde programan euskaraz burututako produkzioarentzako aurrekontuak

<sup>106</sup>Esan beharra dago etorri barriak diren komunitate linguistikoek kasuan betebehaz honetatik salbuetsiko direla.

bideratzea proposatu zan eta 2012an euskarazko komunikabideen egonkortasuna bermatzeko diru laguntzen politiketatik akordio eta hitzarmen bidezkoa saltoa egitea. Gainera, euskarazko komunikabide multimedien sorrera be bultzatu eta lehenetsiko dabela baieztatu dau alderdiak; eta Euskararen Bikoizketa Agentzia sortzeko nahia be adierazi dau 2012an.

**Gizarte bizitza** alorrean barneratuz, Ezker Abertzaleak gizarte mailan euskara indartzeko konpromisoa hartu dau: *el euskara ha de impulsarse y utilizarse sin límites en los seis herrialdes de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1998), errealitate soziolinguistiko desbardinek ezarritako mugak gaindituz (1998), zein gizarte alor guztietan bere erabilera eta normalizazioa bultzatuz. Ezker Abertzalearen nahia euskal herritarren euskarazko integrazio linguistikoa lortzea da (1994, 1998, 2001), Euskal Herriaren euskalduntzea sustatzea euskaraz bizi ahal izateko eta bizitzeko (1998). 2012an alderdiak aipatzen dauan moduan, *potenciar un modo de vida euskaldun y fomentar el uso social y público en la vida social* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, aipatzekoa da 2012an Ezker Abertzaleak arnasmuneak be hartu dauzala xede, gizarte espazio euskaldunak bultzatzea euskara hizkuntza nagusi moduan ezarritz, baita zerbitzu kultural eta abarretan be.

Gizartera begirako hizkuntza eskubideei dagokionean, 1990eko hauteskunde programan adierazten dauan lez, Ezker Abertzalearentzat ez dauka zentzurik teorikoki herritar banakakoari hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea aitortzeak eta, aldi berean, bere balio soziala ezeztatzeak; izan be, horrek normalizazio prozesu erreala ezinezko bihurtuko leuke. Halanda be, aipatzekoa da 2012ko hauteskunde programan Ezker Abertzalea herritarren euskaraz bizitzeko aukera bermatzeaz haratago doala, herritarrak sensibilizatu nahia adieraziz euskaraz bizi gura dagien: *encaminaremos iniciativas y campañas, para impulsar que la ciudadanía vasca viva en euskera, estable* (Ezker Abertzalea, 2012); *alimentaremos la conciencia de ser euskaldun, el deseo de vivir en euskera y el espíritu de pueblo* (Ezker Abertzalea, 2012).

Aisialdira orokorrean bideratutako ekimenak 1990 eta 2012ko hauteskunde programetan izan dabe agerpena. Aisiaren euskalduntzea bultzatzeko hautua egin dau alderdiak, euskaraz eskaintzen diren ekimenak indartuz, bereziki gazteei zuzendutakoak. Ildo berean, eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea proposatu dau Ezker Abertzaleak 1994 eta 2012ko programetan: *abordar planes para la realización de actividades extraescolares dirigidas a niños/as y jóvenes en euskara, para determinar la oferta global de espacios euskaldunes* (Ezker Abertzalea, 1994). Espresuki kirolera bideratutako ekintzak be izan dauz proposagai alderdiak 2012ko hauteskunde programan.

Etxe barruan euskararen erabilera indartzeko ekimenak be proposatu dauz Ezker Abertzaleak 2012an: *trabajaremos políticas y estrategias para fomentar el uso del euskera de padres y madres, y para euskaldunizar a las familias* (Ezker Abertzalea, 2012). Aipatzekoa da, euskararen transmisioaz haratago familia barneko euskararekiko jarrera proaktiboak indartzeko nahia be adierazi daua alderdiak.

**Lan mundua** 1990, 1994 eta 2012an izan dau langai Ezker Abertzaleak eta bertan euskara sustatzeko eta bere normalizazioa bideratzeko konpromisoa hartu dau. Langileriaren zein enpresa, komertzio edo barrikuntza sistemen euskalduntzea gura dau bultzatu alderdiak. Euskalduntzeari begira aurkeztutako neurri zehatz bat publikoari begira dagozan lau langile baino gehiagoko komertzio edo enpresetan langileek euskara jakin dagien laguntza eskaintzeko konpromisoa hartu dau alderdiak. 2012ko hauteskunde programan enpresa publikoen kasuan lehenetsutako hizkuntza euskara izatea proposatu dau alderdiak eta baita administrazio publikoagaz kontratuak sinatzerakoan euskaraz jarduteko gaitasuna nahitaezko baldintza moduan ezartzea eta herri administrazioaren eskutik diru laguntzak jasoten dabezan enpresek administrazioak ezarritako irizpide linguistikoak betetzea. Egitez, Ezker Abertzaleak lan munduan be euskara lehenetsi gura dau, behinik behin, zerbitzu publiko bat edota administrazioagaz kontratu bat daben enpresetan: *el criterio principal será que todo lo que se pueda hacerse en euskera se haga en euskera, y únicamente cuando no se pueda hacer en euskera se hará en bilingüe* (Ezker Abertzalea, 2012).

Eta enpresa pribatuetako profesionalei begira, formakuntza ikastaroak euskaraz eskaintzea eta lehenengo eta bigarren sektoreetan hizkuntza paisaia euskalduntzea proposatu izan dauz Ezker Abertzaleak: rotulazioa, etiketak ipintzea, produktuen komertzializazioa, publizitatea, etab.; 1994 eta 2012an lan munduaren arlo pribatuan agenteen inplikazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea proposatu dau, lan munduko agenteek problematika linguistikoa ezagutu dagien (1994) zein euskararen normalizazioagaz inplikatu daitezzen (2012), besteak beste, euskara planak bideratuz. Ildo horretan, 2012an Bikain eta Bai Euskarari moduko ziurtagiriak bateratzeko nahia adierazi dau eta ziurtagiriaren jabe izatea balioan jartzea.

**Teknologia barriak** 2012ko hauteskunde programan izan dira hizpide eta proposatutakoa euskarazko eduki multimediak sustatzea, euren produkzioa zein kontsumoa, softwarea euskaraz eskaintzea eta euskera dominioa lortzeko laguntza bideratzea izan dira.

Esan beharra dago, Ezker Abertzaleak proposagai dauzan hizkuntza politika ekimenen gehiengoa (%61,84) EAera bideratu dauzala. Hori horrela, azpimarratzeakoa da politika ekimenen %30ek Euskal Herria izan dabela jomuga, bera beratara edo eskualdeka. Euskal Herrira zuzendutako ekimenotan hizkuntza eskubideei lotutako proposamenak gailendu dira gehien; eta neurri txikiagoan baina hizkuntza eskubideekaz estu lotuta, euskararen ofizialtasun eta hizkuntza legediaren aldaketa eskaerak, zein euskalduntzea eta euskara indartzeko neurri orokorrak. Bestalde, eremu lokalera eta estrategikoetara bideratutako politikak, zein nazioartera, Europar Batasunera eta diasporara egindakoak be bildu dauz Ezker Abertzaleak, nahiz eta askoz modu bazterrekoagoan.

#### 4.2.8. Balio euskarriak

---

Ezker Abertzaleak bere diskurtso linguistikoa balio euskarri desbardinetan oinarritu dau eta baliook hizkuntza diferenteei zuzendu deutsoz. Balioen gehiengoa euskarari atxiki

deutsoz alderdiak, hain zuzen, %83,42. Halaber, beste hizkuntza, hizkuntza konbinaketa eta hizkuntza kategoriatzuk be bereganatu dabez zenbait balio euskarri; gehienak Euskal Herriaren orbitan kokatutako hizkuntza ala hizkuntza konbinaketek (ikusi 4.24. taula).

4.24. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN  
BALIO EUSKARRIAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		1,53
Euskara		83,42
Gaztelania		3,32
Euskara & Gaztelania		6,12
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		0,51
Euskara & Gaztelania & Frantsesa		1,79
Gaztelania & Frantsesa		1,53
Etorkin & Gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,77
Eleaniztasuna		0,51
Berezko hizkuntza		0,51
Guztira	%	100
	N =	392

*Iturria:* norberak eginda.

Euskal Herriaren orbitatik kanpo kokatu eta balio euskarriren bat edo beste bereganatu daben hizkuntza konbinaketen baitan zenbait lotura aipatzeak merezi dau. Esaterako, alderdiak hizkuntza guztien bardintasuna aldarrikatu dau, bai duintasunean bai eskubideetan, eta hizkuntza aniztasuna begionez ikusi dau. Zehazki, **eleaniztasuna** aniztasunagaz eta bardintasunagaz alkarlotu dauz. Espainiar Estatuan kultura aniztasunaren errespetua aldarrikatu dau eta European eleantiztasun bardinzalea. Lurraldeko **berezko hizkuntza** kategoriatzuk hizpide izan dauan bi aldietan, 1998ko hauteskunde programan kokatuak biak, aldarrikatutakoa bardina izan da, hain zuzen, lurralde bateko berezko hizkuntzen arteko bardintasuna: *el único punto de partida democrático es que todas las lenguas tengan el mismo estatus en su territorio* (Ezker Abertzalea, 1998). Bestalde, **etorkinen eta gitxiengo etnikoen hizkuntzei** inklusibitate, aniztasun eta alkarlan balioak lotu deutsoz Ezker Abertzaleak 2012ko hauteskunde programan. Alderdiak etorkinak euren hizkuntza eta guzti Euskal Herrian barneratzeko nahia adierazi dau: *ningún ciudadano vasco debería tener que rechazar su identidad, cultura o idioma, para ser ciudadano de pleno derecho en nuestro pueblo* (Ezker Abertzalea, 2012). Kultura desbardinen jabe diren etorkinak eurekaz dakarren aniztasuna begionez ikusten dau Ezker Abertzaleak.



## Euskararentzako balio euskarriak

Bere baitan balio euskarri gehien bildu dauzan euskaran zentratuz gero, azpimarratzekoa da alderdiak alkarlanari eskaini deitson tarte handia, balio euskarri moduan kodetutako esaldi-muinen %23,85 berak batu baitau (ikus 4.25. taula).

4.25. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN EUSKARARI ATXIKITAKO BALIO EUSKARRIAK BALIO-TALDEKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		Eusk.
Hizkuntza eskubideak	Askatasuna	7,03
	Bardintasuna	2,75
	Inposaketarik eza	0
	Bazterkeria eza	0,92
	Guztira I	10,70
Erritmoa	Moderazioa	0
	Progresibitatea	5,50
	Egingarritasuna	0,31
	Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea	3,06
	Guztira II	8,87
Agente parte hartzaileak eta alkarlana	Adostasuna	1,53
	Akordia	8,26
	Alkarlana	23,85
	Guztira III	33,64
Ekimenen balio bitartekariak	Ekintza positiboa	8,26
	Eraginkortasuna	3,36
	Malgutasuna	1,53
	Kalitatea	1,53
	Guztira IV	14,68
Herritarren nahia	Konpromisoa	10,09
	Borondatea	0,92
	Erakargarritasuna	0
	Guztira V	11,01
Botere politikoa	Subiranotasuna	16,21
	Subsidiaritatea	0,61
	Guztira VI	16,82

(... / ...)

(... / ...)

		Eusk.
<b>Bizikidetzta linguistikoa</b>	<b>Kohesioa</b>	3,06
	<b>Alkarbizitza</b>	0,31
	<b>Errespetua, tolerantzia</b>	0
	<b>Aniztasuna</b>	0,31
	<b>Irekiera</b>	0,61
	<b>Inklusibitatea</b>	0
	<b>Guztira VII</b>	4,28
<b>Guztira</b>	%	<b>100</b>
	N =	<b>327</b>

Iturria: norberak egina.

Alkarlanak aztergai doguzan Ezker Abertzalearen hauteskunde deialdi guztietan izan dau presentzia; are presentzia handiagoa 2012ko hauteskunde programan, non euskararen normalizazioa lortzeko gako moduan eskaini deutson alkarlanari garrantzia; alegia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hizkuntza politika bateratua bideratzeko eta Nafarroa Garaia eta Iparraldeagaz koordinatuta jarduteko; zein Diasporagaz lankidetzta burutzeko. Alkarlana erakunde publikoekaz, Estatukoekaz barne, zein euskararen erakunde sozialekaz bideratu gura dau alderdiak: *el Gobierno Vasco trabajará en común con los agentes sociales del ámbito del euskera en las políticas que desarrollan la normalización del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012): komunikabide, kirol talde, corpusean, etab. lanean diharduen erakundeekaz. Egitez, euskararen aldeko jarduna modu parte hartzaile eta bateratuan burutu gura dau alderdiak: *la pauta principal será el trabajo en común, la promoción del proceso partiendo desde la base y la dirección compartida* (Ezker Abertzalea, 2012). Normalizazio prozesuaren jarraipena egiteko batzordea sortzeko asmoa be agertu dau Ezker Abertzaleak, hain zuzen, euskararen normalizazioa modu koordinatuan egikaritu daiten. Hortara, Ezker Abertzaleak bilatu eta bultzatutakoa honakoak izango dira: *trabajo colectivo, liderazgo compartido, transversalidad, estrecha colaboración de todas las fuerzas, complementariedad, un liderazgo y una estrategia compartida en todos los ámbitos* (Ezker Abertzalea, 2012). Aipatzekoa da, euskalduntze sektorearen baitan osagarritasuna be bultzatu gura dauala Ezker Abertzaleak.

Alkarlana hizpide izan dan gainontzeko hauteskunde deialdietan be adierazpenak antzekoak izan dira. Batetik, Euskal Herri mailako alkarlanak argitasun handia bereganatu dau, hizkuntza politika bateratua bideratzeko neurriak proposatuz; esaterako, 1998ko hauteskunde programan mugaz gaindiko erakunde publiko bat sortzea proposatu dau alderdiak, formulazio politikoa dauan akordiorako espazio egonkor bat indartzeko; edota 1994an administrazio desbardinez osatutako Euskara Batzordea eraikitzeko nahia adierazi dau. Bestetik, agente sozialen lana balioan jartzeak eta eurekaz alkarlanean jarduteak be garrantzia berezia bildu dau hauteskunde deialdiotan: *manteniendo nuestra colaboración*

*con dichos movimientos sociales* (Ezker Abertzalea, 1990), *optimizar las relaciones entre la dinámica social y el trabajo institucional* (Ezker Abertzalea, 1994), *buscando la interrelación de la vida parlamentaria con la iniciativa popular* (Ezker Abertzalea, 1994), *reconocimiento de los agentes sociales inmersos en la normalización*; y (...) *se ha de determinar el funcionamiento y la colaboración de dichos agentes* (Ezker Abertzalea, 1998), etab. Halaber, esan beharra dago, hauteskunde deialdiotan be alkarlanak forma desbardin asko bereganatu dauzala: herri administrazio maila desbardinaren artean, esku-hartze arlo desbardinaren artean: euskalduntze, hezkuntza, lan mundu, etab.

Bestalde, alkarlanaren ildo berean, 1994ko eta 1998ko hauteskunde programetan indar handia bereganatu dabe Euskal Herriko eremu administratibo desbardinaren artean bideratu beharreko akordioek (%8,26) (ikus 4.25. taula); hau da, Hegoalde eta Iparraldearen artean, EAE, NFEa eta Iparraldearen artean. Akordioekin Euskal Herri osoan hizkuntza politika komun bat bultzatu gura dau alderdiak: *para que las Políticas Lingüísticas que se desarrollen en los próximos años en Iparralde, Nafarroa y la Comunidad Autónoma vayan en la misma dirección, con el objetivo de conseguir un acuerdo en torno a una sola Política Lingüística para toda Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1994); *para que el euskera sea la lengua oficial de los seis herrialdes es necesario impulsar el acuerdo y la afinidad de ideas en el ámbito social, político e institucional* (Ezker Abertzalea, 1998).

Eremu administratibo desbardinaren arteko akordioez gainera, gizarte sektore desbardinetan be bultzatu nahi dauz hitzarmenak alderdiak, betiere, euskararen erabilera indartze aldera. Esaterako, *trabajar acuerdos con las empresas que trabajan en la producción de cultura y el ocio para que en su labor fortalezcan la presencia del euskara* (Ezker Abertzalea, 1994); *impulsar una política de acuerdos con los medios locales o estatales para que en sus secciones locales y regionales den cabida al euskara* (Ezker Abertzalea, 1994); *conseguir un amplio Acuerdo Escolar entre instituciones y organizaciones educativas* (Ezker Abertzalea, 2001).

Interes berezia dau Ezker Abertzaleak akordioen erdikide ezartzen dauzan agente, sektore, eta abarren aniztasunak. Izan be, alderdiak akordioen parte bilakatzen dauz gizarte sektorea, alderdi politikoak, sindikatuak, enpresa elkarte, kultura sektore, hezkuntza erakunde, komunikabide, eta abarrak.

Alkarlanaren eta akordioaren presentzia nabarmengarriaren kontrara, adostasuna birritan baino ez dau izan hizpide Ezker Abertzaleak, hain zuzen, 1990eko eta 2012ko hauteskunde programetan esaldi sendo biren baitan. Bi esalდიotan Ezker Abertzaleak euskararen politika bideratzerakoan agente desbardinaren artean ahalik eta adostasunik handiena lortzeko nahia adierazi dau: *la propuesta de Herri Batasuna no debe ser la última palabra sino un punto de partida a desarrollar con las distintas aportaciones y con el afán de alcanzar el máximo de consenso nacional y popular sobre los ejes básicos* (Ezker Abertzalea, 1990). Bereziki aipagarria da 2012ko proposamena adostasunaren lorpen bidean inplikatzeko dauzan agente desbardin guztiekaitik: *promoveremos la consecución del mayor consenso: interinstitucional*

(entre Udalbiltza, Diputaciones y Gobierno), intersectorial (cultura, educación, socioeconomía, medios de comunicación, tiempo libre, deporte...), interterritorial (barrios, pueblos, comarcas, territorios y Euskal Herria) y entre agentes (agentes del mundo del euskera, agentes sociales y políticos) (Ezker Abertzalea, 2012).

Alkarlana balio indartsuaz aparte, subiranotasunari be zentralitate handia eskaini deutso Ezker Abertzaleak, balio euskarriei zuzendutako hizpidearen %16,12 bideratuta (ikus 4.25. taula). Euskara eta subiranotasunaren arteko lotura aztergai doguzan hauteskunde deialdi guztietan ezarri dau Ezker Abertzaleak. Alderdiak subiranotasun falta dau kritikagai eta aldarrikapen iturri. Alderdiak Euskal Herriaren subiranotasun falta euskararen egoera hiltamuaeren jatorri moduan ezartzen dau: *el sometimiento político de nuestro Pueblo es el factor clave de la agonía del Euskara* (Ezker Abertzalea). Alderdiarentzat *soberanía vasca significa reconocer que la lengua nacional de nuestro Pueblo es el Euskara, (...) soberanía significa capacidad y poder político para garantizar la recuperación económica, cultural, lingüística y política de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1994). Modu horretan, *queremos intensificar la lucha en todos los campos de acción social, tanto en la calle como en las instituciones, para abrir cauces políticos de resolución que se encaminen decididamente a superar los marcos impuestos* (Ezker Abertzalea, 1994). Hizkuntza alorrean kanpoko eskuhartze barik erabakiak hartzeko boterea izan gura dau Ezker Abertzaleak: *las decisiones que la sociedad vasca debe tomar en torno a la euskaldunización de Euskal Herria no deben estar limitadas previamente en manera alguna. Sólo compete a la sociedad vasca, sin que medie interferencia alguna, definir su política lingüística. Ella tiene la palabra y a nosotras nos corresponde garantizar la materialización de la decisión que tome* (Ezker Abertzalea, 1998).

Ezker Abertzaleak gaur egungo banaketa politiko administratiboa gáindituz ulertzen dau subiranotasuna: *no planteamos pues una política de acuerdo institucional para “no perder” lo que tenemos en tres provincias sino para garantizar nuestros derechos civiles, sociales, lingüísticos, educativos y políticos en el conjunto de nuestro pueblo* (Ezker Abertzalea, 2001). Horrek guztiak, hizkuntza politika barri bat eskatzen dau: *la apuesta a favor de la soberanía ha de fijar los ejes de la Nueva Política Lingüística para Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2001). Interesgarria da aipatzea 2012ko hauteskunde programan alderdiak indarrean jarri gura dauan hizkuntza politika barria aurkezterakoan subiranotasun kontzeptuagaz bat egin izan dauala behin eta barriro: *una nueva política lingüística eficaz y soberana, la nueva política lingüística prioritaria y soberana, una política lingüística soberana*, etab. Halaber, pentsatzekoa da alderdiak 2012an proposatutako hizkuntza politika subirano barriaren aplikazio esparrua, eta ez erreferentzia esparrua, Euskal Herriaren ordez EAE dala. Era berean, aipatu beharrekoa da, Ezker Abertzaleak subiranotasuna esparru desbardinetan jarri dauala abian, besteak beste, hezkuntza sistema propioaren, euskal botere judicialaren, eta abarren proposamenetan.

Bestalde, euskararen hizkuntza politika bideratzerakoan herritarren nahia xede dauan balio taldearen baitan konpromisoa aldarrikatu dau (%10,09) borondatearen ordez (%0,92)

(ikusi 4.25. taula). Ezker Abertzaleak, batetik, herritarren euskararekiko konpromisoa goraipatu; eta bestetik, euskararekiko konpromisoa bultzatzeko nahia agertu dau. Herritarren euskararekiko konpromisoa eskola alorrean egin da agerikoena; irakasleak euskara ikasiz zein guraso erdaldunak euren seme-alabak euskarazko hezkuntza eredueta matrikulatuz. Aipatzekoa da hezkuntza alorrean nagusitu dan konpromisoa hauteskunde deialdiz deialdi izan dauala hizpide Ezker Abertzaleak (1994, 1998, 2001, 2012). Bestalde, Ezker Abertzaleak euskararekiko konpromisoa indartzeari garrantzia handia eskaini deutso: *se promoverá la tan necesaria implicación social* (Ezker Abertzalea, 1998). Hori horrela, konpromisoaren indartzea gizarteko sektore guztietan barreiatzeko beharra agertu dau Ezker Abertzaleak; hasi alderdi politikoetatik eta eskola profesional, sindikatu, itunpeko eskola, unibertsitate zein gizarte osoaren konpromisora. Izan be, *si no existe un compromiso activo de todos los agentes, no se logrará la normalización* (Ezker Abertzalea, 2012). Aipatu beharrekoa da, Ezker Abertzaleak alderdi politikoei orain artekoa baino borondate eta adore handiagoa eskatu izan deustela; izan be, *estas instituciones, si tuvieran voluntad y valentía política para impulsar los mecanismos que exige un proceso de normalización lingüística, podrían hacer mucho más de lo que hacen en la actualidad* (Ezker Abertzalea, 1998). Era berean, euskararen aldeko herritarrak aktibatzea helburu daben ekimen eta elkarteei babesa eskainiko deustela be adierazi dau 2012ko hauteskunde programan: *apoyaremos las iniciativas y asociaciones que alimentan una ciudadanía activa a favor del euskera y una conciencia activa de identidad vasca* (Ezker Abertzalea, 2012).

Bestalde, hizkuntza politika ekimenak bideratzeko balio bitartekarien artean, euskararen alde ekintza positiboak bideratzeko beharra azpimarratu dau Ezker Abertzaleak. Sarri askotan adierazi izan dau orain arte bideratutako hizkuntza politikak ez direla nahikoak euskararen normalizazioa, garapena bultzatzeko. 2012ko hauteskunde programan bertan honakoak adierazi ebazan: *el euskera no se normalizará con las políticas lingüísticas desarrolladas durante las tres últimas décadas* (Ezker Abertzalea, 2012), *en el mejor de los casos, son políticas de baja intensidad, por debajo de los mínimos que necesita el desarrollo del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012), *si la botella del euskera no se llena a un ritmo mayor se vaciará* (Ezker Abertzalea, 2012). Ildo horretan, interesgarria da 1998ko hauteskunde programan progresibitatearen harira Ezker Abertzaleak burututako hausnarketa hona ekartzea. Bere ustetan, 1998an dagoeneko progresibitatea ez da Euskararen Legeak ezarrirakoak lortzeko bidea: *cuando van a cumplirse dieciséis años desde que se publicó esa ley* (Euskararen Legea), *el elemento de progresividad ha perdido todo su sentido como factor de normalización* (Ezker Abertzalea, 1998). Are gehiago, 1990an elebitasuna bera euskararen heriotzarako zurigarri ikusi eban Ezker Abertzaleak: *el “bilingüismo” es una simple coartada para la muerte “dulce” del Euskara* (Ezker Abertzalea, 1990). Horrela, alderdia euskararen normalizazioa eta garapenerako ekintza positiboaren alde agertzen da, politika esparru desbardinetan: osasunean, hezkuntzan, komunikabideetan, kultura alorrean, etab.

Euskararentzako politikak bideratzerako orduan eta politikok izan beharreko eritmoari dagokionean, Ezker Abertzaleak progresibitateari eskaini deutso tarte handiena, %5,5, eta

errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzeari gero, %3,06 (ikusi 4.25. taula). Aipatzekoa da moderazioa, barriz, ez dauala behin be hizpide izan. Egitez, Ezker Abertzalearen ustez euskararentzako hizkuntza politikak modu aurrerakor batean bideratu beharra dagoz, izan be, aurrera ez egitea atzera egitea baita alderdiaren ustetan: *no avanzar supone retroceder* (Ezker Abertzalea, 2012). Zentzu horretan, epemugen bidezko progresibitatea izan dau proposagai alderdiak behin eta barriro. Horrela, politika ekimenak eta neurriak bideratzerakoan epemuga finkoak, segidukoak, zehatzak, etab. ezartzeko hautua egin dau Ezker Abertzaleak: *plazos fijos* (1990), *plazo inmediato, concreto y detallado* (1990), *plazos concretos* (1998), *sujetas a plazos* (2012), etab.

Era berean, euskararentzako hizkuntza politikak bideratzerakoan lekuan lekuko errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuta jardutea be proposatu dau alderdiak: *capaz de adaptarse a las diferentes situaciones sociolingüísticas* (Ezker Abertzalea, 1994), *una única política que se adecuará a las diferentes situaciones sociolingüísticas de los pueblos, comarcas, territorios y sectores de la sociedad* (Ezker Abertzalea, 1998), *teniendo en cuenta el punto de partida, las condiciones y el ritmo real de cada lugar* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, esan beharra dago, errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat izanda jarduteak 2012ko hauteskunde programan izan dauala presentzia handiena. Egitez, 2012ko hauteskunde programan proposagai dauan hizkuntza politika barriak abiapuntua egungo errealitatean izatea iradoki dau: *la propuesta de la nueva política lingüística de EHBildu tendrá como punto de partida la realidad actual* (Ezker Abertzalea), herri euskaldun, hiriburu eta eskualde buruak hizkuntza politika barriaren lekutze intentsibo moduan ezarritz. Interesgarria da, 1994ko hauteskunde programan euskararentzako hizkuntza politika bat batean baino progresiboki ezartzearen arrazoi moduan lekuan lekuko egoera soziolinguistikoko anitez gainera herritarren kontzientzia maila desbardinak be agertu dauzala arrazoi moduan Ezker Abertzaleak: *dado que se dan niveles de conciencia distintos y situaciones sociolingüísticas muy diferenciadas, el proceso de recuperación del euskara debe darse, necesariamente, de forma escalonada, actuando progresivamente* (Ezker Abertzalea, 1994).

Euskal Herriaren orbitan kokatzen diren gaztelania, frantsesa, etab. hizkuntzekaz gertatu ez bezala, euskara hizpide iza dauanetan, alderdiak ez dauz hizkuntza eskubideei lotutako balioak horren presente izan. Hori horrela, Ezker Abertzaleak euskal hiztunei euskaraz jarduteko aukera eskaini gura deutse, modu horretan euren hizkuntza askatasuna bermatuz: osasun arreta euskaraz jasoteko eskubidea (1990, 2012), komunikabideak euskaraz izatearena (1994, 1998), hezkuntza euskaraz jasotearena, lanbide heziketa eta unibertsitateko ikasketak barne (1998, 2001, 2012), eskaintza kulturala izatekoa eta, azken helmugan, euskaraz bizitzeko eskubidea (2012). Bardintasuna be aldarrikatu dau noiz edo noiz euskal hiztunentzat: bardintasuna gaztelania eta frantsesarekiko (2012) eta bardintasuna Europar Batasunean gainontzeko hizkuntza ofizialekiko (1998). Bestalde, euskara dala eta bazterketarik ez burutzea eskola mailan izan dau hizpide alderdiak; hain zuzen, euskara ez dakien irakasleei, klaseak ezin emotekotan eta baztertuak ez izateko, ordezko aukerak planteatuz.

Bizikidetzatza linguistikoari erantzuten deuten balioen presentzia ere murrizta izan da euskara hizpide hartuta. Halaber, balioen artean kohesioa izan da Ezker Abertzaleak indar handienaz aipatu dauana (%3,06) (ikus 4.25. taula). Ezker Abertzaleak euskararen bitartez gizarte kohesioan sakontzeko nahia agertu dau. Egitez, alderdiaren hitzetan, *la euskaldunización constituye el principal elemento cultural integrador de la población* (Ezker Abertzalea, 1994), *la cultura y el euskera son dos de los principales elementos de unión de la ciudadanía vasca* (Ezker Abertzalea, 2012), *[el euskera] como elemento común para la cohesión y la construcción social* (Ezker Abertzalea, 2012).

## Gaztelania eta frantsesarentzako balio euskarriak

Gaztelania bazterketa ezagaz lotu dau Ezker Abertzaleak. Alkarketa 1990, 1994 eta 1998ko hauteskunde programetan burutu dau alderdiak, baina 1998ko hauteskunde programan agerpen bereziki handia eskainita. Gaztelaniaren nagusigoa dala eta, kaltetutako hizkuntza euskara da Ezker Abertzalearen ustetan, eta bazterketa hori arlo desbardinetan egiten da ageriko: herri administrazioan, epaitegietan, irakaskuntzan, komunikabideetan. Aipatu beharra dago, bazterketarik eza kodea euskara hizkuntza gitxitu ala gitxiagotuagaz estu lotuta dagoela, baina hizkuntza eskubideen ikuspuntutik begiratuta. Adibide jakinak emonda, azken finean Ezker Abertzaleak salatzen dauana euskaldunen hizkuntza eskubideak formalki aitortuak bakarrik dagozela da, ez errealitatean errespetatuak. Alderdiaren hitzetan, *los derechos de l@s ciudadan@s sólo son reconocidos formalmente. (..) en la práctica quedan sin efecto todos los derechos reconocidos en las diferentes leyes a l@s ciudadan@s vasc@s* (Ezker Abertzalea, 1998).

Gaztelaniari bera berataratxikitako balio berberak atxiki deutoz Ezker Abertzaleak gaztelania eta frantsesari alkarregaz. Alkarketa horren presentzia bereziki sendoa izan ez dan arren, hauteskunde deialdirik deialdi agerpen nahiko iraunkorra izan dau: 1990, 1994, 2001 eta 2012an. Adierazpenotan, gaztelania eta frantsesaren nagusigoa dala eta, baztertutako hizkuntza euskara izan da; bai maila orokorrean zein maila juridikoan, komunikabideetan, arduradun politikoen artean. Horrela, 1998ko hauteskunde programan burututako hizkuntza legediaren azterketa zehatzean, euskara eta gaztelaniaren artean ezarritako harreman teorikoki parekidea dau kritikagai. Bere ustetan, Euskararen Legeak bilatutako elebitasun simetrikoa da euskararen normalizazioari muga ezartzen deuto, azken neurrian gaztelaniarentzako ekintza positiboa burutuz: *aunque el objetivo de la Ley del Euskara sea la normalización del euskara, refuerza la utilización del castellano, pues no prevé ningún acotamiento a la normal utilización del castellano. Por tanto, el euskara no encontrará nunca la vía para poder ser utilizado con normalidad en ningún espacio* (Ezker Abertzalea, 1998).

Beraz, Ezker Abertzaleak euskara, gaztelania eta frantsesaren arteko bardintasun erreala aldarrikatu dau: *el euskara ha de tener en toda Euskal Herria la misma función que el castellano tiene en Hego Euskal Herria y el francés tiene en Ipar Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1998); *ambos estados han de admitir que al euskara le corresponde en Euskal*

*Herria el mismo nivel de reconocimiento que tienen el castellano y el francés en el Estado español y francés respectivamente* (Ezker Abertzalea, 1998). Aipatzekoa da hiru hizkuntzon bardintasan aldarrikapen guztiak bat salbu, 2012koa dana, 1998ko hauteskunde programan burutu izan dauzala alderdiak.

#### 4.2.9. Estatusa eta alkarketak

Atal honen bidez, Ezker Abertzaleak mintzagai dauzan hizkuntzei zein estatus atxikitzen deutesen eta alderdiak zein errealitateguz alkarkotzen dauzan aztertuko da. Alkarketa gehien bereganatu dauzan hizkuntza euskara izan da, hain zuzen, batazbesteko alkarketen %69,12 (ikus 4.26. taula). Askoz neurri txikiagoan izan arren, Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelania ala frantsesa kodepean bildutako esaldi-muinak be askotxo izan dira, zehazki, %10,23; baita euskara eta gaztelania kodepean egindakoak be, %9,38. Beraz, Euskal Herriaren orbitan kokatzen diren mintzaierek bereganatu dabez estatus eta alkarketa gehien, euren artean diskurtso bateratu bat sortuz. Beste hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa batzuei be atxiki jakiez ideiak, baina askoz modu bazterrekoagoan. Hori horrela izanik be, ikerketaren helburuak aintzat hartuta, eleaniztasunari eta etorkinen hizkuntzei atxikitako alkarketak hizpide izateak merezi dau.

4.26. TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN ESTATUS ETA ALKARKETAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK, N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
<b>Orokorrean</b>		0,63
<b>Euskara</b>		69,12
<b>Gaztelania</b>		3,36
<b>Frantsesa</b>		1,68
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>		9,24
<b>Euskara &amp; Frantsesa</b>		0,42
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Frantsesa</b>		1,89
<b>Gaztelania &amp; Frantsesa</b>		1,68
<b>Etorkin &amp; Gitxiengo etnikoen hizkuntzak</b>		0,42
<b>Eleaniztasuna</b>		1,05
<b>Estatuko eskualdeko hizkuntzak</b>		0,42
<b>Estatuko eskualdeko hizkuntzak &amp; Gaztelania ala frantsesa</b>		10,08
<b>Guztira</b>	%	100
	N =	476

*Iturria:* norberak egina.



Ezker Abertzaleak **eleaniztasuna** aberastasunagaz, nazioartekotzeagaz eta komunitatearen eraikuntzagaz lotu dau (ikusi 4.27. taula). Aberastasunari dagokionean, alderdiak honakoa dino: *es deseable y a su vez expresión de conocimiento cultural que el ciudadano y ciudadana vasco domine una o más lenguas* (Ezker Abertzalea, 1990). Nazioartekotzea hizpide hartuta, barriz, Ezker Abertzaleak euskal gizarteak barne integrazioa lortzeaz gainera munduari begira jardun behar dauala adierazi dau, kultura aniztasunari bidea zabalduz (1994). Komunitatearen eraikuntzari begira, Ezker Abertzaleak euskal eleaniztasun bat bultzatzeko nahia adierazi dau: *promover un multilingüismo vasco* (Ezker Abertzalea, 2012), euskal identitatea indartzeagaz lotuta joango dana.

**Etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak**, barriz, kulturartekotasunagaz lotu dauz Ezker Abertzaleak 2012an, hain zuzen, etorkinen komunitateen inguruko ezagutza kulturala, politikoa, etab. ezagutarazteari bidea zabalduz, baita etorkinen jatorrizko kulturak zein hizkuntzak aintzat hartzeko konpromisoa hartuz.

4.27.TAULA. EZKER ABERTZALEAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI ATXIKITAKO ESTATUS ETA ALKARKETAK HIZKUNTZAKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Hizk.	Eusk.	Gazt.	Frant.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Frant.	Eusk. & Gazt. & Frant.	Gazt. & Frant.	Etork. & gitxiengo etnikoen H.	Es. Eskual. H.	Eleaniz.	Es. Eskual. H. & Gazt. Ala Frant.
H. gitxitu	0	57,14	81,25	100	97,73	100	88,89	62,50	0	100	0	100
Nazioarteko H.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
H. ofiziala	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bertoko H.	0	2,74	0	0	0	0	0	12,50	0	0	0	0
H. nazionala	0	3,34	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ama H.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Aberastasuna	0	0,61	6,25	0	0	0	11,11	0	0	0	40	0
Ondarea	0	3,34	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Modernitate	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Gatazka	0	0,30	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Identitatea	0	3,65	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Kultura	0	1,22	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Kulturartekotasuna	30,23	0,30	0	0	0	0	0	0	100	0	0	0

(... / ...)

(... / ...)

	Hizk.	Eusk.	Gazt.	Frant.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Frant.	Eusk. & Gazt. & Frant.	Gazt. & Frant.	Etork. & gitxiengo etnikoen H.	Es. Eskual. H.	Eleaniz.	Es. Eskual. H. & Gazt. Ala Frant.
<b>Integrazioa</b>	32,56	0,30	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Errefus sentimen-dua</b>	0	0,61	6,25	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Komunitatearen eraikuntza</b>	37,21	22,19	0	0	2,27	0	0	25	0	0	20	0
<b>Alderdikeria</b>	0	1,82	6,25	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Lehiakortasuna</b>	0	0,30	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Nazioartekotzea</b>	0	2,13	0	0	0	0	0	0	0	0	40	0
<b>Guztira %</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>N =</b>	3	329	16	8	44	2	9	8	2	2	5	48

Iturria: norberak egina.

**Euskal Herriaren orbitan kokatzen diren mintzaitretan** arreta jarriz, hizkuntza gitxitua kodeak bereganatu dauan presentzia handia azpimarratu beharra dago; kasu batzuetan ia erabatekoa. Bere presentzia murriztagoa izan dan kasuetan komunitatearen eraikuntzak bereganatu dauala protagonismoa. Izatez, deialdi batzuetan hizkuntza gitxitu eta komunitatearen eraikuntza kodeek bilduta alkarketan ia osotasuna batu dabe.

Baina zelako edukia biltzen dabe hizkuntza gitxitu eta komunitatearen eraikuntza kodeek? Hizkuntza gitxitu kodearen baitan euskararen egoera gitxitu edo gitxiagotua dau mintzagai Ezker Abertzaleak oso modu anitzean: euskara jarraibide zuzen hartuta; euskara zentro hartzen dauan egoera juridikoa zein soziolinguistikoa deskribatuz; Euskal Herriko txoko desbardinaren kondizioa aditzera emonez: EAE zein Hego Euskal Herria, Nafarroa, Nafarroako hizkuntza zonalde desbardinak, Iparraldea, Euskal Herria bere osotasunean, etab.

Aurretik aipatu dogun moduan, 1990 eta 1994ko hauteskunde programetan Ezker Abertzaleak euskararen egoera gitxitua ala gitxiagotua deskribatzeari tarte txikia eskaini deutso; halaber, bi hauteskunde programetan alderdiak atzerabegirakoa burutu dau egungo euskararen egoera gitxituari izaera historikoa gaineratzeko: *la opresión extranjera de tantos siglos y la traición de los jauntxos han llevado a la agonía al Euskara* (Ezker Abertzalea, 1990); *la situación de postergación y minorización a la que se le ha venido sometiendo en largos años de historia y en la actualidad* (Ezker Abertzalea, 1994). Barriz, euskararen egoera gitxiagotua aztertzeari tarte handiena itzi deutson 1998ko hauteskunde programan

arlo juridikoa dau oso modu zehatzean aztergai alderdiak; eta 2001ean eta 2012an esparru juridikoaz gainera arlo soziolinguistikoa be izan dau hizpide euskararen egoera gitxituaren adierazgarri. Aipatzekoa da, gainera, 2012an deskribapen soziolinguistikoari garrantzia erlatibo nabarmena eskaini deusola alderdiak.

Esparru juridikoari dagokionez, gaur egungo Euskal Herriaren banaketa juridiko politikoak euskararen berreskuratzea baldintzatzen dauala uste dau Ezker Abertzaleak; izan be, euskarak bost erregimen juridiko desbardin daukaz, ofizialtasunetik tolerantzia hutsera doazenak, tarteko egoerak barne hartuta eta hizkuntza eskubide desbardinetan gauzatzen dana. Alderdiaren hitzetan: *en la actualidad, el euskera no es oficial en todo el territorio de Euskal Herria, y el estatus del euskera, dividido entre dos estados, está regulado por cinco regímenes distintos. En consecuencia, el euskaldun tiene diferentes derechos según dónde viva o dónde esté, y en los lugares en los que el euskera no es oficial, no tiene derechos lingüísticos* (Ezker Abertzalea, 2012).

Espainiar eta frantziar Konstituzioek alderdiak atzerriko hizkuntza moduan definitu izan dauzan gaztelania eta frantsesaren nagusigoa eta euskararen menpekotasuna ezartzen dabez: *las Constituciones de España y de Francia otorgan al español y al francés un valor jerárquico, y someten a las restantes comunidades lingüísticas que viven en dichos estados, relegando a los hablantes de dichas lenguas a un segundo plano. El Estado francés no reconoce los derechos lingüísticos de la comunidad lingüística vasca, y el español, a pesar de aceptar algunos derechos, no reconoce la igualdad de derechos de las comunidades lingüísticas y establece la supremacía del español y la subordinación del euskera* (Ezker Abertzalea, 2012). Hortara, frantsesa nazio hizkuntza izanik, Frantziako Konstituzioak ez deutso euskarari babes legalik eskaintzen. *La constitución Francesa solo admite el francés como lengua de la Administración. La utilización de otras lenguas es consecuencia de la mera tolerancia* (Ezker Abertzalea, 1998).

Hego Euskal Herrian, gaztelaniaren nagusigoa bere ezagutza nahitaezko bilakatzean datza, neurri handi batean: *se exige el conocimiento y el derecho de utilización del español, pero no se exige el conocimiento del euskera* (Ezker Abertzalea, 2001); modu horretan elebitasun asimetrikoa indarrean jarriz eta elebitasun bardinzalea baztertuz. Gainera, ezin ahaztu daiteke eskualdetako hizkuntza legediek ezin daikiezala Konstituzioak ezarritako mugak gainditu: *los Estatutos sólo pueden modular en alguna medida la cooficialidad particular del resto de las lenguas* (Ezker Abertzalea, 1998). Modu horretan, gaur egungo marko juridikoaren baitan euskarak ezin daike lehenatasunezko tratamendu juridikoa jaso eta, beraz, eskualdeko legediaren zerumuga gaztelaniarekiko parekotasun teorikoan datza; errealitatean inoiz lortuko ez dana hizkuntza ahulena ezin izango daualako nagusiarekiko oreka lortu.

Ildo horretan, aipatzekoa da, Hego Euskal Herriari begira, Ezker Abertzaleak behin baino gehiagotan kritikatu izan dauzala Auzitegi Gorenaren zein Konstituzio Auzitegiaren epaiak, gaztelaniazko elebakartasun praktikoa zalantzan jarri barik, euskarazko zein Espainiar Estatuko gainontzeko eskualdetako hizkuntzen elebakartasun espazioak debekatu

izan dabezalako, besteak beste. Nafarroaren kasuan gaztelaniaren euskararekiko nagusigoa erabatekoa dala be baieztatu dau alderdiak. Euskarari Nafarroa osoan ofizialtasun estatusa izatea galarazo jako. Halaber, Nafarroan euskararen normalizazioa be ez da xedea. Ezker Abertzalearen hitzetan, *en general se puede afirmar que entre sus objetivos (Ley Foral 18/1986 del Vascuence) no figura la normalización del uso del euskera en Nafarroa, sino otro muy distinto cual es el de, a lo sumo, mantenerlo en los parámetros actuales cerrándole todas las vías de supervivencia* (Ezker Abertzalea, 1998).

Euskal Herria euskalduntzeko muga juridiko guzti horreen eragina gizarte alor desbardenetan islatzen da modu argian: herri administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan, etab. Halaber, muga juridikoez haratago, maila praktikoa be identifikatu izan dauz Ezker Abertzaleak zedarriak: *la situación del euskera es realmente preocupante, ya que en algunas zonas no es oficial, y en las que lo es, no se lleva a la práctica* (Ezker Abertzalea, 2001).

Era berean, aipatzekoa da, Ezker Abertzalearen erreferentzia esparrua Euskal Herria izanik euskararen normalizazio prozesu oso eta orokortua ezinezko ikusten dauala: *los modelos de normalización de las políticas lingüísticas desarrolladas en el ámbito del actual marco juridicopolítico son insuficientes para constituir una Euskal Herria euskaldun* (Ezker Abertzalea, 2001); *las leyes en materia lingüística perpetúan la situación diglósica* (Ezker Abertzalea, 1998).

Arlo hertsiki juridikoa alde batera itziz eta Ezker Abertzaleak ikuspuntu soziolinguistikotik azaldutako euskararen egoera gitxitua hizpide hartuta, Ezker Abertzaleak euskararen ezagutza eta erabilera maila jarri deutse arreta, baita hizkuntza gisa betetzen dauzan funtzioei be. 2012ko hauteskunde programan Ezker Abertzaleak euskal herritarren gehiengoak euskara ezagutu barik jarraitzen dauala gogora dakar, eta euskararen erabilerak be txikia izaten jarraitzen dauala. *Salvo en Gipuzkoa, el uso está por debajo de la línea roja del 33 fijada por la UNESCO* (Ezker Abertzalea, 2012). Gainera, ikaskuntzan azken hamarkadetan bizitako igoerak ez dau izan baliokiderik erabileran, aldi horretan euskalduntutakoak euskaldun oso ez direlako, hau da, gaztelania edota frantseserako erraztasun handiagoa dabelako. Horixe da gazte askoren egoera: *a pesar de que hay más jóvenes bilingües, los jóvenes de hoy utilizan menos el euskera que los jóvenes de hace 20 años (excepto en los pueblos euskaldunes). La razón es que no son euskaldunes completos, se manejan mejor en castellano o francés, y tienen dificultades para expresarse en euskera; viven en entornos erdaldunes; su nivel de adhesión al euskera es menor; y su peso demográfico es pequeño, debido a la caída de la tasa de natalidad* (Ezker Abertzalea, 2012). Era berean, aipatu beharrekoa da azken hamarkadetako euskararen ikaskuntzaren hazkundeak moteltzea bizi izan dauala azken urteetan. Bestalde, erabileran be aldaketak izan direla gogorarazi dau alderdiak, inguru formaletan indartuz, baina informaletan murriztuz.

Bestalde, hizkuntza funtzioei dagokionean, Ezker Abertzaleak euskara, gaztelania eta frantsesaren artean dagoen asimetria egoera ekarri deusku gogora: *mientras en el ámbito del uso social el francés y el español ocupan todos los espacios en nuestro pueblo, a veces ellos*

*solos, el euskera solo ocupa unos pocos espacios y además, compartidos con aquellos* (Ezker Abertzalea, 2001). Ondorioz, *los euskaldunes no pueden llevar a cabo todas las funciones de la vida en su idioma* (Ezker Abertzalea, 2012). Alderdiaren ustetan, hizkuntzen arteko indar hierarkiak elebitasun soziala euskararen kalterako bilakatzen da: *el bilingüismo social redundo en perjuicio del euskera y favorece el proceso de sustitución del euskera y de imposición de los demás idiomas* (Ezker Abertzalea: 2001). Faktore guzti horreek euskararen biziraupena zalantzan jartzen dabela uste dau alderdiak. Aldi berean, Ezker Abertzalearen ardura be bada gizarte mailan ez dagoela euskararen desagertzearen arriskuaren diskurtsorik. *Debido al discurso oficial, la sociedad no cree que el euskera esté en peligro* (Ezker Abertzalea, 2012). Halaber, aipatu beharra dago, aztergai doguzan azken bi hauteskunde programetan (2001, 2012) azken hamarkadetan euskararen normalizazio bidean zenbait aurrerapen egin direla be aitortu dauala alderdiak, nahiz eta alderdiaren iritziz oraindino euskararen egoera konplexua izan.

Komunitatearen eraikuntza kodea langai hartuta, gogoratu beharra dago, Ezker Abertzalearentzako Euskal Herriaren eraikuntza nazionala bere helburu politiko nagusia dala: *la construcción nacional y social de Euskal Herria es nuestro objetivo principal y a él orientaremos nuestra actuación en todos los terrenos* (Ezker Abertzalea, 1994). Ezker Abertzaleak xede dauan Euskal Herria honakoa da: *Euskal Herria unida y libre, independiente, socialista y euskaldun* (Ezker Abertzalea, 1994). Baina helburu hori lortzeko, nazioa eraikitzeko zimentu materialak beharrezkoak dira: *para la construcción de cualquier nación, está claro que son necesarios unos cimientos materiales como la lengua, la educación, la cultura, la economía* (Ezker Abertzalea, 1998). Hortara, euskalduna da Ezker Abertzaleak xede dauan Euskal Herria eta euskara da Euskal Herri horretarako bidea egiteko lanabes zentraletako bat. Are gehiago, *[Euskal Herria] siendo un pueblo sin estado, nos es imprescindible para la supervivencia y el desarrollo y estructuración social, política, económica, cultural y lingüística de nuestro pueblo* (Ezker Abertzalea, 2012); *hacer Euskal Herria saltando las actuales fronteras supone un esfuerzo de integración positiva en lo lingüístico, en lo político y social, consiguiendo que la ciudadanía vasca sea una identidad compartida por sus pobladores* (Ezker Abertzalea, 1994). Horrela, *el euskara es la lengua que puede unir toda Euskal Herria, salvando la división hoy impuesta por el español y el francés* (Ezker Abertzalea, 1994). Bera izango da *(la) lengua común para unir Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1994).

Ezker Abertzaleak euskal komunitatearen eraikuntza proiektuaren baitan euskal kontzientzia indartzeari be garrantzia handia eskaini deutso: *recuperación de la conciencia euskaldun* (1990), *(la) identidad compartida* (1994), *(la) conciencia de ser euskaldun* (2012), *espíritu de pueblo* (2012). Eta egiteko horretan be euskara zutabe zentrala izango da: *la actividad dirigida a reafirmar la identidad vasca se basará en los cuatro pilares principales de la cultura nacional: nacionalidad, euskaldunidad, carácter popular y universalidad* (Ezker Abertzalea, 2001). Izan ere, Ezker Abertzalearen hitzetan, *si el Euskara vive, nosotros mismos viviremos como Pueblo* (Ezker Abertzalea, 1990); euskara baita *(el) vehículo de acceso y transmisión de cultura* (Ezker Abertzalea, 1990).

Era berean, esan beharra dago nazio eraikuntzaren aldeko adierazpen orokor horreez gainera, Ezker Abertzaleak arloka burutu beharreko proiektua be jasotzen dauala bere hauteskunde programetan: hezkuntza nazionala, komunikabide nazionalak, kultura kontseilu nazionala, osasun nazionala, etab. eta proiektu guztiotan euskarak funtzio zentrala bereganatzen dau. Horren adierazle honako aipua: *los vascos necesitamos una Universidad Nacional que tenga como principal referencia Euskal Herria, el euskera, la cultura y la realidad social vasca* (Ezker Abertzalea, 2001). Esan beharra dago, arlokako proiektu nazionalaren baitan hezkuntzak tarte berezia izan dauala.

Aurretik aipatu dogun moduan, hizkuntza gitxitu eta komunitatearen eraikuntza izan dira Euskal Herriaren orbitan kokatzen diren mintzaira ala mintzaira konbinaketen artean protagonismo handiena ala bakarra bereganatu dabenak. Behin kodeon pean bildutako edukia aztertuta eta gainontzeko alkarketak aztertuz gero, honakoak aipatu daitezke. Behin, gaztelania eta frantsesari modu bateratuan bertokotasun izaera nolabaitekoa atxiki deutse Ezker Abertzaleak, gaztelaniaz ala frantsesaz burutzen dan kultura nazionala kontuan izango dala adierazita. Bestalde, euskara, gaztelania, frantsesa gatazka politikoaren baitan kokatzen dan gatazka linguistikoagaz lotu dau alderdiak; eta nazioarte mailako agenteekaz harremanak izateko interesa agertu dau gatazkari aurre egite aldera. Gaztelaniari bera berataraz hizkuntza gitxitu kodeaz aparte beste hiru alkarketa ezarri jakoz bi norabide desbardin dabezanak: batetik, gaztelania aberastasunagaz lotu dau bertako ondare kulturalera zein unibertsalera sartzeko aukera eskaintzen daualako; eta, bestetik, alderdikeria eta errefus sentimendua; indar espainolistek Espainiaren batasuna eta gaztelania lehenetsi eta babesten dabezala kritikatzan dau, baita elebakartasun gaztelaniadunaren alde indartzen dabilen diskurtsoa be.

**Euskararen** kasuan be hizkuntza gitxituagaz eta komunitatearen eraikuntzagaz ezarritako lotura izan da nagusi. Halaber, beste lotura dexente be ezarri deutsoz Ezker Abertzaleak: bertoko hizkuntza eta nazio hizkuntza izaera, ondare kategoria, identitateagaz eta kulturagaz lotura, baita nazioartekotzeagaz be, alderdikeria zenbaitetan eta, neurri txikiagoan, errefus sentimendua, aberastasuna, gatazka, kulturartekotasuna, integrazioa eta lehiakortasuna.

Ezker Abertzaleak euskara Euskal Herriko bertoko hizkuntza moduan sarritan definitu dau (1994, 1998, 2012): *el euskera como lengua propia de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2012); eta baita hizkuntza nazional moduan be (1990, 1994, 1998, 2012): *euskara, la lengua nacional de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 1998). Are gehiago, Ezker Abertzaleak euskara hizkuntza nazional moduan definitzeaz gainera nazio izaera proiektu moduan be bizi dau: *nuestro objetivo es la recuperación del euskara como lengua nacional de todos los vascos y vascas* (Ezker Abertzalea, 1990). Aipagarria da 1990eko hauteskunde programan euskara nazio hizkuntza moduan definitu izan dauala beti Ezker Abertzaleak. Euskarak bertoko hizkuntza moduan ez dau hauteskunde deialdi horretan aipamen bakarra be lortu.

Ezker Abertzalearentzat euskara euskaldunen gorengo ondare kulturala da: *el euskara es nuestro mayor patrimonio cultural* (Ezker Abertzalea, 2012); *instrumento receptor del patrimonio cultural universal y generador de nuestra aportación al mismo* (Ezker Abertzalea,

1990). Garrantzitsua da aipatzea, Ezker Abertzaleak euskara guztion eta guztiontzako hizkuntza moduan ikusten dauala: *el euskara es patrimonio de toda la sociedad de Euskal Herria y no de un exclusivo partido político o grupo* (Ezker Abertzalea, 2001). Eta horixe da, hain zuzen, 1990an etorkizunera begira irudikatzen dauan gizartea: *una sociedad en la que el euskara sea patrimonio de todos los vascos y vascas, no solamente patrimonio de los que conocemos esta lengua* (Ezker Abertzalea, 1990). Ondarearen ildoan, Ezker Abertzaleak euskara euskal kulturaren atal moduan be definitu izan dau, kulturaren atal zentral gainera: *un componente esencial de nuestra cultura* (Ezker Abertzalea, 2012). Are gehiago, alderdiaren hitzetan, *una lengua sin cultura tiene los días contados* eta, aldi berean, *una lengua no perdurará si no existe una cultura propia, rica y profundamente enraizada en el pueblo* (Ezker Abertzalea, 1998). Era berean, euskara herriaren identitatearen oinarritzko osagaia be bada alderdiaren ustetan: *el principal componente de la identidad de este pueblo* (Ezker Abertzalea, 2001); *el principal símbolo de identidad de Euskal Herria* (Ezker Abertzalea, 2012), singularitasuna eskaintzen deutsona, *punto de distinción frente a otros destinos* (Ezker Abertzalea, 2012), herriaren bihotza. 2012ko hauteskunde programan EHBilduk erabilitako esamoldea erabiliz: *izaite bat ez daike hezur hutsez osa, herria da gorputza, hizkuntza bihotza* (Ezker Abertzalea, 2012).

Euskara eta nazioartekotzearen artean be ezarri dau lotura modu sendoan Ezker Abertzaleak 2012ko hauteskunde programan: euskararen eta euskal kulturaren nazioartekotzea izan dau xede alderdiak. Aipamen bakarra lortu arren 1998ko hauteskunde programan, interesgarria da esatea Ezker Abertzaleak bere hezkuntza lehiakorra, gaur egungo euskal gizartearen beharrianei erantzuten deutsona eta dimentsio unibertsalagoak lortzeko helburu dauana, euskaratik eta euskal kulturatik bideratzeko konpromisoa adierazi dauala.

Euskal Herrira datozen etorkinei begira, euskara kolektiboon integrazioarako bide eta kulturartekotasunerako sarrera moduan agertu dau 2012an. Dana dala, ideion agerpena oso ahula izan dala esan beharra dago.

Euskararen indartzea guztiontzako onura moduan be agertu dau Ezker Abertzaleak. *Con el desarrollo completo del euskera ganamos todos, tanto los euskaldunes como los restantes comunidades lingüísticas* (Ezker Abertzalea, 2012).

Halaber, euskarari konnotazio ezkorragoa daben gatazka, alderdikeri eta errefus sentimendua be atxiki deutsoz alderdiak. Hain zuzen, Ezker Abertzaleak alderdi politiko batzuen baitan nabarmentzen dan euskararekiko errefus sentimendua (1998), jarrera alderdikoa (2001, 2012), euskararentzako kaltegarri dana, eta alderdien artean egon dagoen gatazka (1998) aditzera emon dauz. Halaber, esan beharra dago honako kodeek ez dabela presentzia handiegirik lortu Ezker Abertzalearen hauteskunde programetako diskurtso linguistikoan<sup>107</sup>.

<sup>107</sup>Aipatzekoa da gatazka, errefus sentimendu zein alderdikeri kodeek bereganatu daben presentzia txikia, neurri batean, hizkuntza gitxitu kodeak bildu dauan protagonismo erabakiorrak eraginda dagoela. Izan be, Ezker

## 4. 2. 10. Laburbilduz

---

Legebiltzarrerako hauteskunde programetan, Ezker Abertzaleak hizkuntzen inguruko diskurtsoari tarte handia eskaini deuto, batz bestean, programen bostena. Diskurtsoa euskarari zuzendu deuto ia modu erabatekoan. Alderdiaren ekimen politiko eta adierazpen ideologikoez EAE ezeze Euskal Herria be izan dabe aplikazio esparru 2012ra bitarteko hauteskunde deialdietan. Barriz, 2012ko hauteskunde programan, maila ideologikoan Euskal Herriak erreferentzia esparru izaten jarraitu dau, baina proposamen politiko mailan EAE bilakatu da aplikazio esparru nagusia. Alderdiak gehien aipatu dauan hizkuntza politikaren azken helburua euskararen normalizazioa izan da. Atzetik, euskara lehentasunezko hizkuntza bilakatzea kokatu dau, elebitasun simetrikoa euskararen kalterako dala argudiatuta. Halaber, Euskal Herria oinarri hartuta, aniztasun hiruelea be ezarri dau helburutzat.

Ezker Abertzalearen politika ekimenak euskararen normalizazioa lortzera bideratuak dagoz eta izaera aurrerakoia dabe oso. Esaterako, euskararentzako funtzio eskusiboak ezartzea, Euskal Herri osoan euskara ofizial bilakatzea, indarrean dagoen legediaren aldaketa gaurkoak euskara normalizatzeko mugak erakusten dauzala iritzita, hezkuntzan euskararen ikaskuntza unibertsalizatzea, herri administrazioan euskara lehentasunezko zerbitzu eta lan hizkuntza bilakatzea, e.a. Euskarari zuzendutako politikak bideratzeko, Ezker Abertzalean agente desbardinaren alkarlana, erabakiak hartzeko subiranotasuna, ekintza positiboa, progresibitatea eta konpromisoa eskatu dauz, besteak beste. Maila ideologikoan, alderdiak tarte handia zuzendu deuto euskararen Euskal Herriko egoera gitxitua gaitzesteari. Era berean, euskararen indarbarritzea komunitatearen eraikuntza proiektu zabalagoaren parte egin dau, euskara nazio hizkuntza moduan joaz eta nazioa eraikitzeko tresna bilakatur. Bestalde, atzerriko hizkuntzei zuzendutako tarte txikian, alderdiak euren ikasketa goiztiarra bideratzea proposatu dau. Etorkinei dagokionean, Ezker Abertzaleak honeei itzulpen zerbitzuak eskaintzea eta Euskal Herriko eta euskararen egoera ezagutaraztea iradoki dauz

## 4. 3. PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI – EUSKADIKO EZKERRA

---

### 4. 3. 1. Hizkuntzen presentzia

---


Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programetan hizkuntzen gaiak bereganatutako presentzia hizpide hartuta, batz bestean, PSE-EEK hauteskunde programaren %4,6 eskaini deuto hizkuntzen alorrari. Halanda be, hauteskunde programaka ehunekoa aldatuz joan da, 1994ko %8,3 izanik hizkuntzek lortutako presentzia handiena eta 1980ko %2,4 txikiena (ikus 4.7. grafikoa).

---

Abertzaleak burutzen dauan euskararen egoera juridiko eta sozialaren atzean egoera hori bultzatu dabenen interes alderdikoiak, euskararen onartze ezak zein interes gatazkak agertzen dira.



#### 4.7. GRAFIKOA. DISKURTSO LINGUISTIKOA PSE-EE-REN HAUTESKUNDE PROGRAMETAN. 1980-2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA)\*




\*Ehunekoak lortzeko hauteskunde programa bakoitzaren hitz-kopuru osoa eta hizkuntzei buruz diharduen esaldimainen hitz-kopurua hartu dira kontuan.

*Iturria:* norberak egina.

### 4.3.2. Eduki mota

PSE-EEren hauteskunde programetako diskurtso linguistikoak izaera ideologikoa izan dau politikoa baino gehiago hamar hauteskunde programetatik zortzitan. Batazbesteko datuak aintzat hartuta, hizkuntza ideologiak hizpidearen %54,9 bereganatu dau; hizkuntza politikak, ostera, %45,1 (ikusi 4.8. grafikoa).

#### 4.8. GRAFIKOA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN EDUKI MOTA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% HORIZONTALAK)



*Iturria:* norberak egina.

### 4.3.3. Hizkuntza joko

PSE-EEren hauteskunde programetako diskurtso linguistikoan euskara bera beratarra (%44,25) eta euskara eta gaztelania batera (%37,68) izan dira nagusi; nahiz eta 2005az geroztik ingelesak be tarte esanguratsua bereganatu dauan, bakarrik zein EAeko hizkuntza ofizialekaz batuta (ikus 4.28. taula). Interesgarria da aipatzea nazioarteko mintzaireri lotutako mintzoa nagusiki ekimen politikoak proposatzera zuzendu dan bitartean (%75), hizkuntza ofizialei bideratuak izaera ideologikoagoa bereganatu dauala (%56). Ostera, gainontzeko hizkuntza eta hizkuntza kategorien agerpena, izan eleaniztasunarena, etorkinen hizkuntzana, gaztelaniarena bera beratarra, Estatuko hizkuntzena zein hizkuntzena maila orokorrean oso mugatua izan da.

4.28.TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN HIZKUNTZAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabetkoa
<b>Hizkuntzak orokorrean</b>	2,99	1,32	1,49	2,38	2,14	1,35	1,69	3,85	6,95	4,84	3,85
<b>Euskara</b>	46,27	42,11	62,69	42,86	53,57	74,32	47,88	36,73	32,35	53,23	44,25
<b>Gaztelania</b>	1,49	3,95	0	0	0,71	0	0,85	0,23	0,27	0	0,51
<b>Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	2,95	4,01	10,48	3,06
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	49,25	51,32	35,82	30,95	37,14	21,62	48,73	46,03	35,83	14,52	37,68
<b>Euskara &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0,53	0	0,11
<b>Euskara &amp; Gaztelania Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	2,27	12,57	15,32	5,38
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	0	23,81	2,86	2,70	0,85	4,08	4,28	0,40	3,00
<b>Etorkinen hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0	0	0	1,13	1,07	0,40	0,57
<b>Estatu hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0	0	0	2,04	0,53	0,81	0,74
<b>Eleaniztasuna</b>	0	1,32	0	0	3,57	0	0	0,68	1,60	0	0,85
<b>Guztira</b>											
%	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	67	76	67	42	140	74	236	441	374	248	1765

Iturria: norberak egina.

#### 4.3.4. Alorrak

Hizkuntza politika arlo orokorrak eta azpi-alorrak kontuan hartuta, PSE-EEK mintzairen gaineko diskurtsoaren gehiengoa esparru gitxi batzuetara bideratu dauala esan daiteke eta hezkuntza alorreko eskolaren kasuan salbu, azpi-alor zehatzagoen aurretik alor orokorrak nagusitu direla. Bere diskurtso linguistikoaren herena irakaskuntzara bideratu dau. Atzetik, baina distantzia nabarmenera, hizkuntza politikaren arlo orokorra (%18,98), kulturgintza (%14,05), herri administrazioa (%14,28) eta gizarte bizitza (%13,54) kokatu dira (ikus 4.29. taula). Komunikabideek (%1,53), esparru juridikoak (%1,59), lan munduak (%1,53) eta teknologia berriek (%0,51), barriz, oso presentzia txikia lortu dabe.

4.29. TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN POLITIKA ALOR OROKORRAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabes- tekoa
<b>Herri administrazioa</b>	4,48	5,26	16,42	26,19	28,57	9,46	15,68	12,93	14,17	11,69	14,28
<b>Irakaskuntza</b>	22,39	78,95	31,34	23,81	20,00	39,19	26,27	34,69	39,57	29,84	33,99
<b>Komunikabideak</b>	2,99	0	0	7,14	0	0	0	0,91	2,14	4,03	1,53
<b>Teknologia barriak</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0,27	3,23	0,51
<b>Lan mundua</b>	0	0	0	14,29	0	2,70	1,69	1,36	1,87	0,81	1,53
<b>Kulturgintza</b>	31,34	5,26	5,97	9,52	12,86	5,41	18,22	15,87	15,78	8,47	14,05
<b>Gizarte bizitza</b>	13,43	3,95	14,93	7,14	15,71	10,81	17,37	16,33	10,70	12,50	13,54
<b>Esparru juridikoa</b>	0	1,32	10,45	0	0	0	0,42	2,27	1,87	0,81	1,59
<b>Orokorrean</b>	25,37	5,26	20,90	11,90	22,86	32,43	20,34	15,65	13,64	28,63	18,98
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	67	76	67	42	140	74	236	441	374	248	1765

Iturria: norberak egina.

### 4.3.5. Aplikazio esparrua

PSE-EEren politika ekimen eta adierazpen ideologikoen helmuga ia esklusiboa EAE izan da; batzbesteko datuak aintzat hartuz gero, diskurtsoaren %94,51 bere eginda (ikus 4.30. taula). Bestalde, Espainiar Estatuak politika ekimen edota adierazpen ideologikoen aplikazio esparru moduan indar murrizta bereganatu dauan arren, bere presentzia nahiko egonkorra izan da, hamar hauteskunde programetarik zazpitan agertuz. Barriz, nazioarteak bere presentzia 2001etik aurrera egonkortu dau eta Europar Batasunak, barriz, 2005etik aurrera. Euskal Herria 2009 eta 2012n izan da adierazpen ideologikoen aplikazio esparru, baina urteko esaldi-muin banagaz besterik ez.

4.30.TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN APLIKAZIO ESPARRUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Lokala</b>	0	0	0	0	1,43	0	0	0	0	0	0,11
<b>Eremu estrategikoak</b>	0	0	0	0	13,57	0	0	0	0	0	1,08
<b>EAE</b>	98,51	100	98,51	90,48	84,29	100	94,92	92,53	97,33	94,38	94,51
<b>Euskal Herria</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0,27	0,40	0,11
<b>Espainiar Estata</b>	0	0	1,49	0	0,71	0	0,42	2,71	0,27	0,80	1,02
<b>Europar Batasuna</b>	0	0	0	2,38	0	0	0	0,68	1,07	0,80	0,57
<b>Nazioartea</b>	1,49	0	0	7,14	0	0	4,66	4,07	1,07	3,61	2,60
<b>Guztira</b>											
%	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	67	76	67	42	140	74	236	441	374	248	1765

*Iturria: norberak egina.*

### 4.3.6. Azken helburuak

PSE-EEk hizkuntza politikaren bidez lortu gura dauan azken helburua edota desiatzen dauan hizkuntza bizikidetzaren eredu ideala aztergai hartuta, aipatzekoa da PSE-EEren diskurtsoan hizkuntza politikaren azken helburuek tarte aipagarria bereganatu dabela. Hain zuzen, hamar hauteskunde programen batzabestekoa aintzat hartuta, PSE-EEk bere hizpidetaren %5,95 eskaini deitso azken helburuak formulatzeari (ikus 4.31. taula); halanda be, ehunekoak urtez urte aztertuta, kopuru hori gehienetan gauditua izan dala ikusiko da; zehazki hamarretik zazpi hauteskunde programetan.

4.31.TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN PRESENTZIA  
PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN. 1980-2012  
(%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbestekoa
<b>Azken helburuen ehunekoa</b>	10,45	6,58	8,96	9,52	6,43	6,76	5,08	4,76	2,94	10,08	5,95
N	67	76	67	42	140	74	236	441	374	248	1765

*Iturria:* norberak egina.

Hizkuntza politikaren azken helburuei eskainitako tartearaz gainera, PSE-EEk zein helburu mota gailentzen dauan jakiteak be interes handia dauka. Batazbesteko datuek PSE-EEren azken helburu aipatuena elebitasuna dala erakusten dabe, azken helburuen %54,29 bere eginez (ikus 4.32. taula). Barriz, normalizazioari %26,67 eskaini deitso eta eleaniztasunari %19,05. Lehentasunezko hizkuntza kodeak, barriz, ez dau aipamen bat bera be jaso hamar hauteskunde deialditan.

4.32.TAULA. PSE-EE-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK  
HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbes- tekoa
<b>Elebitasuna</b>	100	60	0	50	55,56	80	66,67	71,43	54,55	28	54,29
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	0	22,22	0	0	14,29	45,45	40	19,05
<b>Normalizazioa</b>	0	40	100	50	22,22	20	33,33	14,29	0	32	26,67
<b>Lehentasunezko hizkuntza</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	7	5	6	4	9	5	12	21	11	25	105

*Iturria:* norberak egina.

Gainera, elebitasunak eleaniztasun eta normalizazioari aurrea hartu deutse hauteskunde deialdi guztietan, 2012koan izan ezik, non eleaniztasuna izan dan gailendutako azken helburua. Egitez, baiztatu daiteke eleaniztasunak azken bi hauteskunde deialditan indartze bat bizi izan dauala, elebitasunaren kalterako. Dana dala, esan beharra dago, azken hiru helburu horreen arteko ehuneko banaketa nahiko aldakorra izan dala hauteskunde deialdi batetik bestera; izan be, helburu bat hizpide ez izatetik ehuneko garrantzitsua bereganatzera pasatu da hauteskunde urte batetik bestera. Horren erakusgarri da normalizazioak 2009an agerpenik ez izan arren, 2012an azken helburuen %32 bereganatzea.

Azken helburuak maila orokortuan lortzekoak diren edota politika alor jakinetarako pentsatuak dagozan ezagutzeak interes berezia dauka. Beheko taulan (ikusi 4.33. taula) ikusi daiteken moduan, azken helburua kategoria pean kodetutako esaldi-muinen %38,1 gizarteari zuzendu deutso PSE-EEK, %31,43 irakaskuntzari eta %21,9 arlo orokorrari. Ostera, herri administrazioa zuzendutako azken helburuak egon egon diran arren, askoz be gitxiago izan dira; eta are murriztakoak izan dira komunikabide eta kulturgintzari bideratutako azken helburuak. Bestalde, teknologia barri eta lan mundurako ez dau azken helbururik proposatu alderdiak.

#### 4.33. TAULA. PSE-EE-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN POLITIKA ALORRAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)


	%
Orokorrean	21,9
Herri administrazioa	4,76
Irakaskuntza	31,43
Komunikabideak	1,9
Teknologia barriak	0
Lan mundua	0
Kultura	1,9
Gizartea	38,1
Guztira	%
	100
	N =
	105

*Iturria: norberak egina.*

Era berean da interesgarria alorretako bakoitzean zein azken helburu nagusitzen dan ezagutzea. Azken helburu kategoriapean ehuneko handienak lortu dabezan alorretan euskararen normalizazioa, elebitasuna eta eleaniztasuna, hirurak izan dira hizpide, nahiz eta neurri desbardinean. Esaterako, gizarteari begira alderdiak elebitasuna bilatzen dau nagusiki (%80), nahiz eta eleaniztasuna (%15) eta, neurri txikiagoan, euskararen normalizazioa be (%5)

izan diran aipatuak. Irakaskuntzan be elebitasuna nagusitu da (%48,48), baina eleaniztasuna atzetik gertu kokatu da (%39,39); ez ostera euskararen normalizazioa, hizpidearen %12,12 bakarrik bildu baitau. Hizkuntza politikaren arlo orokorrean, barriz, euskararen normalizazioa da diferentziaz ehuneko handiena bereganatu dauana (%72); elebitasuna da hurrengoa (%24) eta, azkenik, eleaniztasuna (%4).

#### 4.9. GRAFIKOA. PSE-EE-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK POLITIKA ARLOKA (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak egina.

Azken helburuak modu kualitatibo batean aztertuta, azpimarratzekoa da PSE-EEK elebitasunaren alde dagoen alderdia dala ziurtatzen dauala. Alderdiaren hitzak aintzat hartuta: *los socialistas vascos como firmes defensores del bilingüismo* (PSE-EE, 1994), *el bilingüismo es un objetivo social al que aspiramos* (PSE-EE, 1998); izan be, *creemos en el bilingüismo por principio y porque enriquece nuestro patrimonio personal de vascos* (PSE-EE, 1994). Elebitasunaren alde eta elebakartasunaren kontra be agertu da PSE-EE: *el PSE-PSOE está en contra del monolingüismo, ya sea en castellano o en euskera* (PSE-EE, 1980). Aipatzekoa da noiz edo noiz euskararen gehiegizko gailentzearen edota zenbait euskaldunek agertu ei daberen elebakartasun gaztelania-kontrakoaren aurka be agertu dala alderdia: *el euskera no desterrará el uso del castellano, a pesar de que se pongan los medios* (PSE-EE, 1980).

Elebitasun erreal (1980, 2012), integratzailea (2001, 2005, 2009, 2012), orekaduna (1998, 2001, 2005), alkarlanean diharduena (2005), akordioan oinarritua (2009, 2012) gura dau PSE-EEK. Baina zelako elebitasuna ostentzen da adjektibo horreen guztien atzean? Elebitasun erreal, integratzaile, orekadun, alkarlanean eta akordioan oinarritutakoaren atzean?

Hori ezagutzeko beharrezkoa da esaerok beregain hartzen dauzan esaldi edota paragrafoak aintzat hartzea. Egiteko hori burututa, adjektibo guztien atzean ideia bera gailentzen dala pentsatu daiteke eta adjektiboak alkarren osagarri direla. Egitez, erreala, integratzailea, akordioan oinarritua, eta abarlako ideiak sarritan alkarregaz agertu izan dauz alderdiak elebitasun ideala modu zeharkakoan zein zuzenean hizpide izan dauanetan. PSE-EEK Euskadi tradizionalki lurralde elebidun moduan jotzen dau, bi berezko hizkuntza dauzana: euskara eta gaztelania, nahiz eta euskararen bizindarra murriztagoa izan. Etorkizunari begira PSE-EE euskararen ezagutza eta erabilera indartzearen alde agertzen da. Egitez, alderdiaren 1980ko hitzak hona ekarriz, *la sociedad vasca camina indefectiblemente a una sociedad bilingüe* (PSE-EE, 1980); gainera, PSE-EEren ustez elebitasun hori modu natural samarrean helduko da hezkuntza sistemari esker: *las nuevas generaciones, serán bilingües de forma natural y espontánea* (PSE-EE, 1998, 2005).

Euskararen indarberritzeagaz ados agertu arren, PSE-EEK sarritan adierazi dauan ideia da bideratuko dabena politika euskaltzalea oinarri identitario eta historiko bakoa izango dala eta gaur egungo gizartearen izaera elebidunean eutsia: *anclada en el carácter bilingüe de la sociedad vasca actual* (PSE-EE, 2012, 2009). Hortik, beraz, elebitasun errealaen ideia. Era berean, elebitasunak integratzailea izan behar daua alderdiak sarritan aipatu dauan ideia da. Integratzaile adjektiboaren atzean lurraldeko bi komunitate linguistikoen existentzia legitimatzen da, neurri batean behintzat, euren betikotzea ahalbidetuz. Izan be, PSE-EEK herritarren hizkuntza aukerak errespetatzeko deia behin baino gehiagotan burutu dau eta, era berean, bi komunitate linguistikoek dakarren aniztasun soziolinguistikoa errespetatua izatea, bien arteko elkarrizketa interkulturala eta interlinguistikoa bideratuz: *que ambos idiomas puedan interrelacionarse y entrar en contacto con mayor fluidez que hasta el presente, desde la asunción positiva de la realidad plural del país, considerada como factor de enriquecimiento cultural* (PSE-EE, 2005). Hortxe legoke lankidetzan oinarritutako elebitasunaren ideia be, hain zuzen, bi komunitate linguistikoen elkarrizketa bultzatuko dauana.

Hori horrela, PSE-EEK herritarren euskara eta gaztelaniaren ezagutzak gizarte kohesioari on egingo leuskiola be agertzen dau. *Todas las personas tienen el derecho a usar las dos lenguas, su conocimiento favorecerá la cohesión social* (PSE-EE, 2005). Hortara, alderdiak etorkizunari begira elebitasun orekatu bat bai planteatu arren; ez dau elebitasun orekatu horren alde herritarren aukera linguistikoak sakrifikatzeko posibilitatea begiesten. Ideia hauxe 2012ko hauteskunde programan argitara emon izan dau. *Nuestro ideario en materia de política lingüística se puede resumir en dos puntos: Por un lado, pretendemos avanzar de manera paulatina en el conocimiento y, especialmente, en el uso de la lengua vasca, con el objetivo de alcanzar un equilibrio entre las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma. Por otro, consideramos que ese avance del euskara tiene que producirse dentro de un marco de respeto a las diversas opciones lingüísticas de la ciudadanía* (PSE-EE, 2012).

Era berean da interesgarria 2005eko hauteskunde programan PSE-EEK proposagai dauan elebitasun asimetricoa: *el Bilingüismo Vasco habrá de interpretarse de manera asimétrica de forma tal que teniendo en cuenta que Euskadi es una realidad plural con sentimientos de*



*identidades diferentes habría ciudadanos que se sigan identificando con el castellano y otros con el euskera, teniendo todos ellos el mismo derecho a verse reflejados institucionalmente y a relacionarse entre sí sin que su deseo a comunicarse en una lengua u otra se vea defraudado en la práctica, lo que implica que la cohesión social se verá favorecida cada vez que los hablantes no necesiten romper la comunicación entre sí pudiendo utilizar cada uno un registro lingüístico diferente* (PSE-EE, 2005).

Hezkuntza sistemaren baitan elebitasunean sakontzea be behin baino gehiagotan aipatu dauan xedea da: *la Escuela Pública debe capacitar a los alumnos, al final de la enseñanza obligatoria, en el conocimiento del euskera y del castellano* (PSE-EE, 1990); *alcanzar el bilingüismo al final de la Enseñanza Secundaria Obligatoria en las Comunidades Autónomas con lengua propia* (PSE-EE, 2001). Horretarako, 1998an hezkuntza eredu elebidun bakarra be proposatu izan dau, beraren bidez integrazio erabatekoa lortuko dalakoan: *creemos que el actual modelo lingüístico debe tender hacia un único modelo basado en el bilingüismo que integre las 2 lenguas oficiales de la CAV, de manera que en un futuro no haya diferencias y se vaya hacia una integración total* (PSE-EE, 1998).

Bestalde, PSE-EEK eleaniztasuna be hartu dau azken xede moduan. Hain zuzen, gizarte eta herritar eleanitzak lortzea: *alcanzar una sociedad vasca plenamente multilingüe* (PSE-EE, 1994), *objetivo del multilingüismo general* (PSE-EE, 1994) *conseguir una sociedad trilingüe en distintos grados* (PSE-EE, 2009), *ciudadanas y ciudadanos con una buena formación, capaces de comunicarse en al menos tres lenguas – las dos propias de nuestra comunidad y el inglés* (PSE-EE, 2012). 2012. urtean Euskadi igarobidean kokatzen dau PSE-EEK: *Euskadi, un país bilingüe en tránsito hacia un país trilingüe* (PSE-EE, 2012). Interesgarria da ikustea, alderdiak aipamen batetik bestera eleaniztasunari maila desbardinak atxiki deutozala: *plenamente multilingüe zein trilingüe en distintos grados*; eta hizkuntzak definitu bako eleaniztasun batetik, euskarak, gaztelaniak eta ingelesak osatutako hirueletasunera pasatu dala.

Hezkuntza sisteman, 2005az geroztik PSE-EEK eskola hirueledunaren aldeko apustu argia burutu dau: *implantar un sistema trilingüe* (PSE-EE, 2005), *un modelo educativo trilingüe* (PSE-EE, 2009), *del sistema de modelos lingüísticos al Marco de Educación Trilingüe* (PSE-EE, 2012).

Euskararen normalizazioa be izan dau hizpide alderdiak, berau bideratzeko konpromisoa hartuz: *una política lingüística destinada a normalizar la lengua vasca y a posibilitar su uso por todos los ciudadanos vascos* (PSE-EE, 1986), *impulsaremos las acciones oportunas para garantizar un uso normalizado de su lengua materna a los hablantes de las dos lenguas oficiales del país* (PSE-EE, 2005). Normalizazio prozesua planifikazio bat jarraituz, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz eta akordioetan oinarrituz bideratu gura dau alderdiak. Aipagarria da normalizazioak ez dauala izan arloka presentzia nabarmengarririk eta normalizazioari zuzendutako aipamenok transmitidutako informazioa be oso apurra izan dala.

### 4.3.7. Hizkuntza politika proposamenak

Atal honetan, PSE-EEK mintzaira desbardinei zuzendutako hizkuntza politika ekimen zehatzak aztertu gura dira. Aurretik aipatu dan moduan, PSE-EEren hauteskunde programetan hizkuntza politika ekimenei zuzendutako tartea baino handiagoa da hizkuntza adierazpen ideologikoei zuzendutakoa, nahiz eta desbardintasuna ez dan horren handia. Batzbesteko datuak aintzat hartuta, hizpidearen %45,1 dago hizkuntza politika ekimenei zuzendua eta %54,9 adierazpen ideologikoei (ikusi 4.8. grafikoa). Ekimen motei dagokionean, 1994ko hauteskunde programa salbuetsita, 1980tik 1998ra bitartean ekimen mota kopurua egonkor mantendu dala esan daiteke, 10en inguruan; 1998tik aurrera eta azken hauteskunde deialdira arte (2012), barriz, ekimen kopuruak goranzko joera iraunkorra izan dau. Aipatzekoa da hizkuntzen gaiari tarte gehiago eskaintzeak ez daula ekarri zuzenean hizkuntza politika ekimen aniztasun handiagoa, nahiz eta eragindura bat egon badagoen.

4.34.TAULA. PSE-EE-REN HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN INGURUKO DATU ZENTRALAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa ala guztira
<b>Hizkuntzen gaiari hauteskunde programetan eskainitako ehunekoa</b>	2,4	2,9	3,3	3,9	8,3	2,7	5,6	7,6	5	4	4,6
<b>Hizkuntza politika eduki motara zuzendutako esaldi-muin kopurua</b>	32	47	29	17	67	35	84	188	163	134	796
<b>Hizkuntzen diskurtsoan hizkuntza politika eduki motak bildutako ehunekoa</b>	47,76	61,84	43,28	40,48	47,86	47,30	35,59	42,63	43,58	54,03	45,10
<b>Hizkuntza politika ekimen mota kopurua</b>	10	11	12	10	19	10	16	19	20	21	26

*Iurria: norberak egina.*

Hizkuntza politika ekimenak mintzaira desbardinei zuzendu izan deutsoz PSE-EEk (ikusi 4.35. taula). Ekimen gehien bereganatu dauzan hizkuntza euskara izan da. Orotara, hizkuntza politika ekimenen %81,28 egin dau bere euskarak; %30,53 gaztelaniagaz batera eta %7,91 gaztelania eta ingelesagaz batera. Gaztelaniak berak beratarra ekimenen %0,38 baino ez dau bereganatu.

4.35.TAULA. PSE-EE-K HIZKUNTZA DESBARDINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1980-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabes- tekoa
<b>Hizkuntzak</b>	0	2,13	3,45	0	2,99	0	2,38	3,72	6,13	0	2,89
<b>Euskara</b>	53,13	51,06	58,62	41,18	65,67	77,14	54,76	36,70	27,61	47,01	45,10
<b>Gaztelania</b>	0	0	0	0	0	0	2,38	0	0,61	0	0,38
<b>Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	4,79	8,59	14,93	5,40
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	46,88	46,81	37,93	29,41	22,39	17,14	38,10	39,36	28,22	12,69	30,53
<b>Euskara &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	1,23	0	0,25
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0	3,19	15,95	23,13	7,91
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	0	29,41	5,97	5,71	2,38	7,98	7,98	0,75	5,28
<b>Etorkinen &amp; Gitxiengo etnikoen hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0	0	0	0,53	2,45	0,75	0,75
<b>Estatuko, eskualdeko hizkuntzak</b>	0	0	0	0	0	0	0	2,66	1,23	0,75	1,01
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	0	2,99	0	0	1,06	0	0	0,50
<b>Guztira %</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>N =</b>	32	47	29	17	67	35	84	188	163	134	796

Iturria: norberak egina.

Azpimarratzekoa da, PSE-EEK bere politika ekimenen ehuneko hogeia inguru (%18,84) (ikus 4.35. taula) nazioarteko hizkuntzei zuzendu deusela, 1990etik 2005era arte atzerriko hizkuntzen pean eta 2005etik aurrera ingelesaren nagusitasunagaz. Bestalde, hizkuntzek modu orokorrean, eleaniztasuna, Estatuko eskualdeko hizkuntzak edota etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak eurak be izan dira ekimen politikoen xede, baina askoz be modu bazterrekoagoan.

Hizkuntza politiken jasotzaile izan diren mintzairerako bakoitzak politika ekimen desbardinak bereganatu dauz. Eleaniztasuna eta hizkuntzak kategoria zabalaren baitan kodetutako ekimenek ez dabe entitate berezirik bereganatu; mintzaira zehatzen esplizitazio gabeziaren eta anbiguotasunaren fruitu baitira, neurri handi batean. Barriz, **etorkinen eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak** 2005eko hauteskunde programan izan dauz lehenengoz hizkuntza politika ekimenen xede PSE-EEK. Orduetik, hauteskunde deialdi guztietan izan dira politika ekimenen xede, neurri txikian bada be. PSE-EEK etorkin hizkuntzak babesteko eta bultzatzeko konpromisoa hartu dau (2012), baita euren jatorrizko hizkuntzak ikasteko erraztasunak eskaintzekoa be (2009). Era berean, bitartekotza interkulturala eta linguistikoa indartzeko zerbitzuak be badauz proposagai, herri administrazio zein hezkuntzaren baitan (2005, 2009).

**Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzei** dagokionean, PSE-EEK eurak babestearen alde egin dau (2005, 2009, 2012), baita Europar Batasuneko erakundeetan euren aitortpena bultzatzearen alde be (2005). Hori horrela, Estatuko eskualdeko hizkuntzak ezeze, **gaztelania** bera beratarra be babestu beharreko hizkuntza moduan jo dau PSE-EEK (2009) eta gaztelania hitzunen hizkuntza eskubideak bere bai (2001).

## Nazioarteko hizkuntzei zuzendutako politika proposamenak

Aurretik aipatutako moduan, nazioarteko hizkuntzek tarte esanguratsua batu dabe PSE-EEren hizkuntza politikan. PSE-EEK beroneen ikaskuntza bultzatzeko neurriak lehenetsi dauz (1990, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009), euren ezagutzara heltzeko (1990, 1994, 2009). Horretarako, hezkuntza alorrean planifikazio soziolinguistikoko neurriak bideratzea (2001, 2005), hizkuntzen didaktikan hobekuntzak burutzea, (1994, 2012), atzerrian hizkuntzak ikasteko bekak eskaintzea, zein hezkuntzan atzerriko hizkuntzei ikasketa funtzioa atxikitzea be proposatu dauz alderdiak (2005).

Aurretik aipatu dogun moduan, PSE-EEren diskurtsoan atzerriko hizkuntzei ingelesak hartu deutse aurrea 2005az geroztik, hau da, atzerriko hizkuntzen lidergoa ingelesak bereganatu dau. Izaera jarraikor horren adierazle da ingelesak bereganatutako ekimen motek atzerriko hizkuntzek bereganatutakoen oso izaera antzekoa dabela. Ekimena ingelesari bakarrik zuzendua dagoenetan bere ikasketa da politika proposamen ohikoena; barriz, euskara eta gaztelaniagaz batera doanean, hezkuntza alorrean marko hirueleduna ezartzeak bereganatu dau nagusigoa; eta euskaragaz alkartuta politika ekimenen xede izan dan bi aldietan eskolaz kanpoko ekintzetan mintzairon erabilera bultzatzea izan da helburua.

Era berean, aipatu beharra dago, ingelesari zuzendutako ekimenen ia guztiak irakaskuntza alorrari zuzenduak dagozala. Halanda be, gizarte bizitzan, komunikabideetan, lan munduan eta hizkuntza politikaren arlo orokorrean be izan da politika ekimenen jasotzaile inoiz. Gizarte eta komunikabideetan ingelesaren erabilera izan da bilatutakoa (2012), eta lan munduan eta arlo orokorrean, ordea, bere ikasketa (2005).

Hezkuntza alorraren baitan ingelesari bera beratara ala konbinaketan zuzendutako ekimenen aniztasuna zabala da; guztira 13 ekimen mota bildu dauz, hasi ingelesa babesteko eta bere ezagutza bermatzeko konpromiso orokorretik, eta neurri zehatzagoetara. Ingelesari lotutako ekimen errepikatuen marko hirueledunari dagokiona izan da, hizpiderean %32,99 bere eginez (ikus 4.36. taula). Hezkuntza eredu banatua eredu bateratu hirueledunagaitik aldatzeko proposamena egin izan dau alderdiak 2005az geroztik modu egonkor eta ekinean. PSE-EEren apostua honako da: *modificar los actuales modelos lingüísticos para introducir uno sólo, mixto y flexible, introduciendo el inglés como tercera lengua de uso curricular* (PSE-EE, 2009). PSE-EErentzat *el trilingüismo es un proyecto irreversible* (PSE-EE, 2012); baina eredu aldaketa egokitasunez burutzeko esperimendazio aldiak zein aurrera begira modu egonkorragoan ebaluaketak egiteko beharra agertu dau 2009an. Aldi berean, ingelesa hezkuntza sisteman barneratzeko baliabideak eskaintzea be beharrezkotzat jo da (2009, 2012), baliabide ekonomikoak zein bestelakoak. Horrela material didaktikoen prestakuntza zein hizkuntza didaktikan barrikuntzak barneratzeari (2009, 2012) garrantzia eskaini deutso alderdiak, eta baita irakasleen prestakuntzari be (2009, 2012). Izan ere, irakasleek ingelesa ikastea funtsezkoa da eredu barria bideragarria izateko. Marko hirueleduna ezartzeko Hezkuntza Legean burutu beharreko aldaketak be begietsi dauz PSE-EEk 2012ko hauteskunde programan.

4.36. TAULA. PSE-EE-K INGELESARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Irakas.	Kom.	Lan	Giz.	Batazbestekoa
Ezagutza, euskalduntzea	0	5,15	0	0	0	4,76
H. babestu, bultzatu	0	3,09	0	0	0	2,86
Ikasketa, alfabetatzea	100	16,49	0	100	0	17,14
Legedia: aldatu	0	1,03	0	0	0	0,95
Hizkuntza eskubideak	0	4,12	0	0	0	3,81
Bateratza linguistikoaren eredu: marko hirueleduna	0	32,99	0	0	0	30,48
Hizkuntza didaktika	0	6,19	0	0	0	5,71
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	7,22	0	0	0	7,62

(... / ...)

(... / ...)

	Orok.	Irakas.	Kom.	Lan	Giz.	Batazbestekoa
<b>Komunikazio hizkuntza funtzioa</b>	0	0	100	0	100	4,76
<b>Laneko hizkuntza funtzioa</b>	0	2,06	0	0	0	1,90
<b>Baliabide tekniko, giza, materialak</b>	0	6,19	0	0	0	5,71
<b>Planifikazio soziolinguistikoa</b>	0	3,09	0	0	0	2,86
<b>Ebaluaketak, erreformak</b>	0	8,25	0	0	0	7,62
<b>Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak</b>	0	4,12	0	0	0	3,81
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100
	N =	1	98	1	1	4

*Iturria: norberak egina.*

Eskola mailan ezeze unibertsitatean (2009, 2012) eta lanbide heziketan (2012) ingelesa ikasketa hizkuntza bihurtzea hartu dau helburutzat PSE-EEK; eta unibertsitatean lan hizkuntza moduan erabiltzea bere bai (2012). Hori bideragarri egiteko unibertsitaterako hizkuntza plan bat bideratzeko beharra agertu dau 2009ko eta 2012ko hauteskunde programetan; eta finantzaketa beharra bere bai (2012).

PSE-EEK hizkuntza eskubideak be izan dauz hizpide ingelesa mintzagai hartuta, nahiz eta modu bazterrekoan. Alderdiak hezkuntza mailako bilakaera linguistikoak (hirueletasunak) irakasleen eskubideetan kalterik ez eragiteko konpromisoa hartu dau (2009) eta baita marko hirueleduna ezartzerakoan ikasleen hizkuntza aukeraketa bermatua izatea be: *garantizando en todo caso el principio de elección de la lengua básica de escolarización* (PSE-EE, 2012).

## Euskara eta gaztelaniari zuzendutako proposamen politikoak

Euskarak eta gaztelaniak alkarregaz PSE-EEren hizkuntza politika proposamenen %30,54 bereganatu dabe (ikusi 4.35. taula). Hizkuntza politika proposamen gehien irakaskuntza alorrera zuzendu dauz, baina hizkuntza politikaren arlo orokorrak eta herri administrazioak be ekimen ugari bildu dabez. Era berean, kulturgintza, gizarte bizitza eta esparru juridikoa be izan dira politika ekimenen jasotzaile eta neurri murriztagoan komunikabideak eta lan mundua. Aipatzekoa da, euskara eta gaztelania helburu dauan teknologia barrien esparruko ekimenik ez dauala proposatu PSE-EEK.

**Irakaskuntzaren** baitan ekimen mota desbardin asko bildu dauz alderdiak. Proposamen indartsuena, batazbesteko datuekaz bat eginez, hizkuntza eskubideei dagokiena da (%17,53) (ikusi 4.37. taula). Bertan bi hizkuntza ofizialen arteko bardintasuna, ikasle eta familien ikasketa hizkuntzaren aukeraketa askatasuna bermatzea edota, hizkuntzak medio, ikasle zein

irakaslerik bazterturik ez izatea izan dira alderdiaren iritzian lortu beharrekoa. Aipatzekoa da, PSE-EEK hezkuntza sisteman ikasleen ama hizkuntza ez baztertzeari emon deusola garrantzia, alegia, umeei euren ama hizkuntzan ikasteko daben eskubideari. Bardintasunari dagokionean, PSE-EEK hezkuntza sisteman gaztelaniak bizi dauan alboratzea kritikatu dau, egoera horren aurrean euskera eta gaztelaniaren arteko bardintasuna aldarrikatuz.

4.37. TAULA. PSE-EE-K EUSKARA ETA GAZTELANIARI ALDI BEREAN  
BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Lan	Kul.	Giz.	Jurid.	Batazbes- tekoa
Ezagutza, euskalduntzea	6,90	0	12,37	0	0	0	0	0	6,81
H. babestu, bultzatu	5,17	9,68	1,03	0	0	5,56	6,25	0	3,83
Ikasketa, alfabetatzea	1,72	0	6,19	33,33	0	0	0	0	3,40
Legedia: mantendu	0	0	1,03	0	0	0	0	0	0,43
Legedia: aldatu	0	3,23	1,03	0	0	0	0	0	0,85
Hizkuntza eskubideak	63,79	35,48	17,53	0	100	11,11	31,25	100	35,74
Bateratza linguistikoaren eredua: marko hirueleduna	0	0	11,34	0	0	0	0	0	4,68
Aukeraketa banatuaren eredua	0	0	1,03	0	0	0	0	0	0,43
Hizkuntza didaktika	0	0	2,06	0	0	0	0	0	0,85
Ikerketa	0	0	1,03	0	0	0	0	0	0,43
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	19,35	0	0	0	0	0	0	2,55
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	13,40	0	0	0	0	0	5,53
Komunikazio hizkuntza funtzioa	0	0	1,03	66,67	0	0	62,50	0	5,53
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	0	0	0	0	0	72,22	0	0	5,53
Baliabide tekniko, giza, materialak	3,45	9,68	5,15	0	0	0	0	0	4,26
Planifikazio soziolinguistikoa	1,72	0	11,34	0	0	0	0	0	5,11
Ebaluaketak, erreformak	15,52	22,58	13,40	0	0	0	0	0	12,34
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	1,72	0	0	0	0	0	0	0	0,43
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	0	0	1,03	0	0	11,11	0	0	1,28
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	58	31	97	3	1	18	16	11
									235

Iturria: norberak egina.

Bardintasuna egikaritzeko bidea bateratze linguistikoaren eredu da alderdiarentzat, euskara eta gaztelania ikasketa hizkuntza moduan ezartzea ekarriko leukelako. Aipatzekoa da, hezkuntza elebiduna 1980an dagoeneko izan ebala proposagai PSE-EEk (*bilingüismo que irá extendiéndose a toda la enseñanza educativa en todos sus niveles, tanto pública como privada* (PSE, 1980)) eta 2005era arte mantendu izan dala bere ekimenen artean, eredu elebidunetik eredu hirueledunerako saltoa burutzea proposatu dauanera arte, alegia. Hortaz, PSE-EEk hezkuntza eredu bakarra modu jarraituan aldarrikatu izan dau, nahiz eta 1994tik aurrera ekite handiagoz<sup>108</sup>. Bere hitzetan, *creemos que el actual modelo lingüístico debe tender hacia un único modelo basado en el bilingüismo que integre las dos lenguas oficiales de la CAV, de manera que en un futuro no haya diferencias y se vaya hacia una integración total* (PSE-EE, 1998). Hezkuntza ereduak modu esplizituan hizpide izan barik be, euskara eta gaztelania biak ikasketa ikerketa hizkuntza moduan ezartzeak (%13,4) eta, bide horretatik, bi hizkuntzon ezagutza lortzeak (%12,37) be presentzia nabarmena bereganatu dau alderdiaren mintzoan; baita bi mintzairon ikasketa bideratzeak be (%6,19) (ikusi 4.37. taula).

Aipatu beharra dago hezkuntza elebidunari dagokiozan adierazpen gehien gehienek eskolari erantzuten deuten arren, unibertsitatea elebidun izateko nahia be agertu dauala PSE-EEk, nahiz eta bi alditan bakarrik: 1980an, unibertsitateak apurka apurka elebitasuna bere egin beharko dauala adieraziz: *la Universidad también deberá acoger paulatinamente el bilingüismo, de manera realista y científica* (PSE, 1980) eta, 2005ean, titulazioen elebitasuna hizpide izanik: *avanzar en el desarrollo lingüístico de las distintas titulaciones*, (PSE-EE, 2005).

Irakaskuntza alorrean bideratutako hizkuntza politikaren ebaluaketa eta erreformei espazio nabarmena eskaini deutse PSE-EEk. Halaber, erreforma baino ebaluaketa da alderdiaren diskurtsoan indartsuago agertu dana<sup>109</sup>. 1986 eta 2009 urte bitartean, alderdiaren ebaluaketa proposamen nagusia hizkuntza eredu araberako ikasleen emaitzen ebaluaketa burutzea izan da: *pondremos en marcha una evaluación del sistema educativo del País Vasco, en función de los modelos lingüísticos existentes* (PSE-EE, 2005). Halaber, 2009ko hauteskunde programan hezkuntza sistemaren erreforma dau proposagai PSE-EEk, bateratze linguistikoaren ildotik: *recuperaremos la política del pacto en Educación para poder acometer una reforma de nuestro sistema de enseñanza y que prepare también al alumnado para un bilingüismo integrador en Euskadi* (PSE-EE, 2012). Era berean, planifikazio soziolinguistikoak be tarte garrantzitsua bereganatu dau, hain zuzen, hizpidearen %11,34 eta baliabideen eskaintza be izan dau helburu eskola, hizkuntza eskola zein helduentzako zentroetarako, nahiz eta neurri txikiagoan (%5,15) (ikusi 4.37. taula). Bestelako neurri batzuk be aipatu dauz PSE-EEk, baina oso modu bazterrekoan; esaterako, komunikazio hizkuntza moduan euskara eta gaztelaniaren erabilera, bi hizkuntzen inguruan ikerketa burutzea, etab.

<sup>108</sup>Aukera banatuaren hezkuntza eredu behin baino ez dau izan hizpide PSE-EEk eta aldi horretan ere proposatutakoa ereduon hobekuntza izan da, hain zuzen, ikasleen euskara eta gaztelania ezagutza handiagoa lortzeko.

<sup>109</sup>Kode honen baitan erreformak indarrrik ez izateak ez dau esan gura PSE-EEk erreformak helburu ez dauzanik; izan be, PSE-EEren erreformak hezkuntza eredu ildotik doaz eta, hortaz, erreformok bateratze linguistiko kodearen baitan aurkitutzen dira.



Euskara eta gaztelaniari zuzendutako **hizkuntza politikaren esparru orokorrean** be hizkuntza eskubideak izan dira politika proposamenen gehiengo bereganatu dabenak, hain zuzen, mintzagaiaren %63,79 (ikusi 4.37. taula). PSE-EEK herritarren aukera linguistikoen errespetua aldarrikatzen dau. Gainera aldarrikapen hori alderdiak betidanikoa dauala baieztatu daiteke. Hurrengo bi aipuok dira horren adierazle: 1986ko aipua da honakoa: *todos los ciudadanos de Euskadi tienen derecho de conocer el euskera y el castellano, así como el de usar ambas lenguas oficiales indistintamente* (PSE, 1986); eta 2012koa beste hauxe: *respeto de las opciones lingüísticas de la ciudadanía, sea ésta vasco parlante o castellanoparlante* (PSE-EE, 2012). Aldi berean, hizkuntza medio, herritarra baztertua izatearen kontra be agertu da alderdia lehenengo hauteskunde deialditik: *nos oponemos a toda discriminación social y laboral que pueda derivarse de la existencia de las dos lenguas en Euskadi* (PSE, 1980); eta baita hizkuntza baten ala bestearen inposaketaren kontra. Ildo horretan, behin baino gehiagotan aipatu dau PSE-EEK herritarrak direla eta ez hizkuntzak eskubide subjektuak: *el respeto de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, porque son las personas y no las lenguas los sujetos de derecho* (PSE, 1990).

Bestalde, askoz neurri txikiagoan baina ehuneko esanguratsugaz, ebaluaketak izan dauz proposagai alderdiak (%15,52) (ikusi 4.37. taula). PSE-EEren ebaluaketa proposamen gehienak hizkuntza ofizialkidetasunak ekarritakoen ebaluaketara zuzenduak egon dira. Horrela, alderdiak konpromisoa hartzen dau *a poner en marcha un sistema de evaluación que permita conocer de manera objetiva lo que ha supuesto para el avance del bilingüismo en Euskadi la aplicación de la cooficialidad lingüística en todos los ámbitos de la vida social en que se ha puesto en marcha* (PSE-EE, 2001).

Holan be, euskara eta gaztelaniaren babesa (1980, 1994, 2009) eta ezagutza (2005, 2009) be izan dauz hizpide PSE-EEK esparru orokorrean. Horrela, 1980ko hauteskunde programan PSE-EEK bi hizkuntzak neurri berean babesteko konpromisoa hartu eban: *el PSE-PSOE reafirma su decidida intención de proteger las dos expresiones lingüísticas por igual* (PSE, 1980). Ezagutzari dagokionean, 2005 eta 2009ko hauteskunde deialdietan bi hizkuntzen ezagutza bultzatzearen aldeko konpromisoa esplizitatu dau alderdiak: *se fomentará desde los poderes públicos el conocimiento de ambas lenguas en los distintos ámbitos* (PSE-EE, 2009); horretarako baliabideak eskainiz. Etorquinek bi hizkuntzak ikasteko nahia be agertu dau; alderdiaren hitzetan: *promover un modelo de acogida que proporcione a los inmigrantes el conocimiento y la comprensión de las normas, valores y lenguas de la sociedad a la que se incorporan* (PSE-EE, 2009).

**Herri administrazioaren** baitan be hizkuntza eskubideen errespetu eskaera da, beste behin, euskara eta gaztelaniari zuzendutako politika ekimenetan indartsuena (%35,48) (ikusi 4.37. taula). Hizkuntza arrazoiekaitik langileria zein herritarrak – herri euskaldunetan bereziki- baztertutak ez izatea dau helburu PSE-EEK. Langileriaren kasuan horrela dino: *evitando toda discriminación en el acceso a los puestos de trabajo por razón de la lengua*

(PSE-EE, 1984). Are gehiago, enplegu publikorako sarrerak euskal gizartearen pluraltasuna eta elebitasuna islatzea proposatzen dau alderdiak 2009an: *proponemos que el acceso al empleo público refleje el carácter plural y bilingüe de la sociedad vasca* (PSE-EE, 2009).

Bigarren ekimen indartsuena ebaluaketa eta erreformari erreferentzia egiten deusona da, proposamen bakarrean gorpuztua: Euskararen Aholku Batzordean euskaldunak ezeze gaztelaniadunak be partaide bilakatzekoa (2001, 2005, 2009), horretarako araudia aldatuz. PSE-EEK Aholku Batzordearen aholkulari izaera azpimarratzen dau eta bere aurrean Legebiltzarraren protagonismoa handitzeko nahia agertzen dau: *confirmaremos el carácter exclusivamente asesor de este Organo de Encuentro, que estará sujeto al control del Parlamento Vasco, por lo que deberá rendir cuentas periódicamente a la Cámara del resultado de sus trabajos* (PSE-EE, 2009). Euskarak eta gaztelaniak herri administrazioan arreta-harreman hizkuntza moduan funtzionatzea be proposatu dau PSE-EEK. Halaber, azpimarratu beharra dago euskara eta gaztelania era berean xede dauzan politika ekimenotan elebitasunak komunikazio idatziei erreferentzia egin deusela, eta ez ahozkoiei, eta bostetik lau proposamen justizia administrazioa zuzenduta dagozala, bostgarrena, barriz, udal administrazioa. Aldi berean, herri administrazioan elebitasuna, euskara eta gaztelania babestu eta bultzatzeko konpromiso orokorra be hartu izan dau PSE-EEK (1994, 2001, 2005). Eta azkenik, alkarbitza linguistikoa bultzatzeko Hizkuntza Topaketarako Organo bat sortzeko baliabide eskaintza be proposatu dau alderdiak (%9,68) (ikusi 4.37. taula).

Euskarak eta gaztelaniak **kultura alorrean** be izan dabe tartea. Ekimen gehienak (%72,22) sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturalera bideratu dira; eta bere baitan liburugintza alorra gailendu da (ikusi 4.37. taula). Horrela, 1990 eta 1994. urteko hauteskunde programetan proposatutakoa Liburuaren Euskal Institutoa sortzea izan da; 2005 eta 2009 urteetan, barriz, euskarazko eta gaztelaniazko literatura nazioartean bultzatzea, betiere, EAE barneko bultzada baztertu barik. Gainontzeko ekimen guztiak arlo kultural zabal eta orokorraren pean kokatu dira, eta euren izaera be orokor eta zabal mantendu da. Esaterako, euskara eta gaztelaniaz politika kultural ekintzailea bideratzea: *política cultural activa* (PSE-EE: 2001, 2005), zein euskaraz eta gaztelaniaz bideratutako kulturarekiko konpromisoa adieraztea: *compromiso con la cultura vasca en euskera y en castellano* (PSE-EE, 2009), edota elebitasuna Euskadiren, Espainaren eta Europar Batasunaren aldetik babestu beharreko errealitatea dala baieztatzea (2005). Hizkuntzaren erabilerari dagokionean sortzaileen askatasuna aldarrikatu dau alderdiak: *consideramos que todas las actividades que se propugnan podrán ser llevadas a cabo en cualquiera de nuestras dos lenguas, con libertad total para los respectivos creadores* (PSE-EE, 1980). Era berean, maila kulturean banakakoaren balioak taldearen balioen aurretik kokatzea be defendatu dau: *para nosotros, programa cultural quiere decir ante todo, colocar los valores del individuo por delante de las entidades colectivas* (1994).

**Gizarte alorrean** euskarak eta gaztelaniak komunikazio hizkuntza moduan jardutea da. PSE-EEren proposamen nagusia (%62,5) (ikusi 4.37. taula); hau da, gizarte mailan euskara

zein gaztelania erabiltzea, *que ambas lenguas oficiales, castellano y euskara, puedan utilizarse en todas las actividades de la vida cotidiana* (PSE-EE, 2012); modu horretan, gizarteko elkarrekintzetan herritarrek hizkuntza aukeraketa bermatua izan dagien eta euren hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezkan. Ildo honetan, interesgarria da 1980ko hauteskunde programan egindako adierazpena: *apoyaremos las acciones encaminadas a llegar a un bilingüismo real* (PSE-EE, 1980).

**Esparru juridikoan**, legedian – Espainiar Konstituzioan, Autonomia Erkidegoko Estatutuan eta 10/1982 Legean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoan-oinarritutako hizkuntza eskubideek bereganatu dabe hizpide osoa; hizkuntza medio baztertua ez izatea eta hizkuntza aukeratzeko eskubidea izatea direlarik bi aldarrikapen nagusiak.

**Komunikabideetan** euskara eta gaztelaniaren erabilera bultzatzea izan da ekimen nagusia (%66,67) (ikusi 4.37. taula): *hacer presentes en lo cotidiano nuestros dos idiomas* (PSE-EE, 2009). Horretarako, bi hizkuntzen ikasketa bultzatzeko beharra agertu dau alderdiak 2009an, ezagutza aktiboa zein pasiboa bultzatuz: *propiciar conocimientos activos y pasivos de los mismos* (PSE-EE, 2009). Euskara eta gaztelania hizkuntza politikaren xede hartu direnean, zinemagintza izan da komunikabideen baitan azpi-alor aipatu bakarra. Zehazki, euskara eta gaztelaniazko zinemagintzaren finantzaketa neurriek (2005, 2009) ezeze, finantzaketaz haratago babes neurriak be izan dauz xede alderdiak (2009).

**Lan munduari** dagokionean euskara eta gaztelania ekimen bakarrean izan dira xede, hau be, hizkuntza eskubide itxuran, enplegu bat lortzerakoan hizkuntza eskakizuna baldintza izatea gaitzetsiz.

## Euskarari zuzendutako proposamen politikoak

Aurretik aipatutako moduan, PSE-EEK euskarari bera beratara proposamen politikoen %45,1 zuzendu deutso (ikusi 4.35. taula). Euskarari zuzendutako ekimen gehien bereganatu dauzan alorra hezkuntza izan da eta atzetik gertu hizkuntza politikaren arlo orokorra kokatu da. Herri administrazioak eta kultura alorrak be ehuneko esanguratsuek bereganatu dabez. Barriz, komunikabideen, gizartearen, lan munduaren, teknologia barrien eta esparru juridikoaren indarra askoz murriztagoa izan da. Aipatu beharrekoa da, hizkuntza politika esparruaren arabera ekimen motak dezente desbardindu direla, nahiz eta zenbait proposamen esparru batean baino gehiagotan nabarmendu.

Euskarak politika alor bakoitzean bereganatu dauzan ekimen motak aztertzen hasi aurretik, interesgarria da aipatzea, batzbesteko datuak aintzat hartzen badira bi ekimen mota modu argian gailendu direla; hain zuzen, ebaluaketa eta erreformei zuzendutakoa, ekimen guztien %19,51 bere eginda; eta hizkuntza eskubideak, proposamenen %17,53 batuta (ikusi 4.38. taula).

4.38. TAULA. PSE-EE-K EUSKARARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Tek. Barri	Lan	Kul.	Giz.	Jurid.	Batazbes- tekoa	
Ezagutza, euskalduntzea	5,36	3,03	1,53	0	0	0	2,33	0	0	2,72	
H. babestu, bultzatu	17,86	9,09	2,29	15,38	0	0	13,95	8,33	0	9,38	
Corpus plangintza	0	0	0	0	0	0	6,98	0	0	0,74	
Ikasketa, alfabetatzea	0	6,06	12,98	23,08	0	0	0	0	0	5,93	
Legedia: mantendu	0	1,52	0,76	0	0	0	0	0	25	0,99	
Legedia: aldatu	0	4,55	0,76	0	0	0	0	0	37,50	1,73	
Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea	0	0	0	0	0	0	0	0	37,50	0,74	
Hizkuntza eskubideak	36,61	7,58	8,40	0	0	81,82	2,33	33,33	0	17,53	
Hizkuntza didaktika	0	0	3,82	0	11,11	0	0	0	0	1,48	
Ikerketa	0	0	1,53	0	0	0	0	0	0	0,49	
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	0	10,61	0	0	0	0	0	0	0	1,73	
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0,89	18,18	3,05	0	0	9,09	0	0	0	4,44	
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	4,55	0	0	0	9,09	0	0	0	0,99	
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	1,53	0	0	0	0	0	0	0,49	
Komunikazio hizkuntza funtzioa	10,71	6,06	3,82	15,38	22,22	0	0	25	0	6,91	
Itzulketa, bikoizketa	0	3,03	0	0	0	0	0	0	0	0,49	
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	0	0	0	15,38	0	0	39,53	0	0	4,69	
Baliabide tekniko, giza, materialak	1,79	1,52	6,11	7,69	66,67	0	11,63	0	0	5,68	
Planifikazio soziolinguistikoa	6,25	6,06	10,69	15,38	0	0	0	0	0	6,67	
Ebaluaketak, erreformak	14,29	16,67	35,11	7,69	0	0	4,65	25	0	19,51	
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	0,89	0	0	0	0	0	4,65	0	0	0,74	
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	5,36	1,52	3,05	0	0	0	13,95	8,33	0	4,44	
Tituluak, akreditazioak	0	0	4,58	0	0	0	0	0	0	1,48	
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100	100	
	N =	112	66	131	13	9	11	43	12	8	405

Iturria: norberak egina.

**Irakaskuntza** alorrean euskarari zuzendutako ekimenen ehuneko handiena (%35,11) ebaluaketak eta erreformak planteatzera bideratu dau PSE-EEk (ikusi 4.38. taula). Modu jarduntsuenean proposatutako erreforma, bai hauteskunde deialdi kopuruari dagokionean (1990, 2001, 2005, 2009) baita deialdi bakoitzean eskainitako tarteari dagokionean, Iraleren erreforma izan da. PSE-EEren ustetan, *el sistema de examen único hoy en vigor para determinar la adquisición del perfil lingüístico es injusto y anacrónico* (PSE-EE, 2005); eta gainera ez da eraginkorra. Horregaitik, besteak beste, ebaluaketa jarraia aldeko apustua egin dau alderdiak. Bestalde, ikasleen euskara ikasketa maila neurtzeko ebaluaketa egiteko nahia be agertu dau PSE-EEk 1998 eta 2001eko hauteskunde programetan, eta euskalduntzeari bideratutako baliabide publikoen kuantifikazioa burutzeko proposamena be behin baino gehiagotan burutu dau (2001, 2005, 2009).

Ildo beretik, planifikazio soziolinguistikoari be tarte handia itzi deutso alderdiak, hain zuzen, ekimenen %10,69 (ikusi 4.38. taula). 80 hamarkadan nagusiki hezkuntza sisteman euskararen sarrera planifikatzeko beharra izan zan PSE-EEren ardura (1980, 1984, 1986, 1990); 2001az geroztik, barriz, helduen euskalduntze zerbitzuak (Habe eta euskaltegi sarea) argitu eta planifikatzeko (2001, 2005, 2009, 2012). 80 hamarkadara bueltatuz, aipatzekoa da, euskaraz burututako hezkuntzarako baliabide eskaintza garai horretan izan ebala eskari PSE-EEk nagusiki.

Pentsatzekoa danez, hezkuntza alorrean euskarari zuzendutako ekimenen artean bere ikasketak eta alfabetatzeak be presentzia handia bereganatu dau (%12,98); ez ostera beronen erabilerak, hau da, komunikazio hizkuntza moduan euskara indartzeak (%3,82) (ikusi 4.38. taula).

Bestalde, hizkuntza eskubideak be tarte esanguratsua batu dabe PSE-EEren hezkuntza politikan. Ikasle eta irakasleen hizkuntza eskubideak izan dauz alderdiak hizpide nagusi. Ikasleen kasuan, beharrezko hezkuntzan euskararen tratamenduak ekarri leikezan eragozpenen aurrean ikasleen hizkuntza eskubideak urratuak ez izatea izan da helburua; eta irakasleen kasuan euskara dala eta bazterketarik ez gertatzea. Horrela, *el profesorado de la Escuela Pública, funcionario o no, que no esté euskaldunizado no se verá afectado por este diferente tratamiento lingüístico manteniendo su vinculación con la Administración en las mismas condiciones* (PSE-EE, 2005). Horrerri lotuta, interesgarria da aipatzea irakaskuntza alorrean hizkuntza eskakizunek oso tarte txikia bereganatu dabela, eta egin dabenean meritu moduan egin dabela; inoiz ez baldintza moduan. Era berean, azpimarragarria da, PSE-EEk 2001az geroztik modu egonkorrean izan dauala ardura moduan euskara tituluek herri administraziora sarrera izateko sortzen dabezan mugak. Horrela, zera proposatu dau: *resolver los problemas que se plantean en el acceso a las Administraciones Públicas, mediante la normalización y homologación de los estudios que se realizan en los euskaltegis, las Escuelas Oficiales de Idiomas, exámenes EGA o los estudios en la Enseñanza Obligatoria y Bachillerato* (PSE-EE, 2001, 2005, 2009). 2012ko hauteskunde programan be, ildo berean, tituluen lorpenaren razionalizazioa proposatu dau alderdiak; horretarako, legedia mailako neurriak hartuz.

Modu puntualagoan bada be, bestelako neurri batzuk be proposatu dauz PSE-EEK euskararentzako hezkuntzan: hizkuntza didaktika neurriak, euskararen babesa eta beronen ezagutza lortzea, zein euskararen inguruko ikerketa eta ikasketa-ikerketa hizkuntza moduan erabiltzea.

Euskarari zuzendutako **hizkuntza politika modu orokorrean** hizpide izan danetan, hizkuntza eskubideek bereganatu dabe tarte handiena (%36,61) (ikusi 4.38. taula). Halaber, oraingoan be hizkuntza eskubideak ez dagoz euskaldunen hizkuntza eskubideetara zuzenduak, euskarari zuzendutako hizkuntza politikek eragindako bazterketa eta inposaketa egoeren gaitzespena baino. Norabide horretan, interesgarria da alderdiaren 2012ko honako adierazpena: *hay quien sostiene que no hay política lingüística sin cierto grado de imposición o coerción, que las medidas de recuperación o revitalización de una lengua conllevan incomodidades para una parte de la población que ésta necesariamente ha de asumir. Nosotros creemos que es posible articular otro discurso* (PSE-EE, 2012). Horrela, PSE-EEK modu jarraituan gogoratu dau, *que el sujeto de derechos es la persona y no la lengua* (PSE-EE, 1998, 2001, 2005, 2009). Aipatu beharra dago, euskararen normalizazio prozesuak sortutako bazterketa eta inposaketa egoeren gaitzespena alderdiaren diskurtsoan iraunkor mantendu dala 1980ko hauteskunde programaz geroztik.

Hori horrela eta kontrapuntu moduan, euskara babestearen aldeko ekimenak be ugariak izan dira PSE-EEren diskurtsoan hizkuntza politikaz modu orokorrean jarduterakoan (%17,86); baita euskararen erabilera bultzatzeko proposamenak (%10,71), zein herritarren euskalduntzea bermatzekoak (%5,36) (ikusi 4.38. taula). Dana dala, esan beharra dago, euskararen babesa, euskalduntzea eta erabilera hizpide daben proposamenok izaera orokor samarra bereganatu dabela, hau da, ez direla neurri zehatzetan gauzatu.

Bestalde, euskara planak burutzea hauteskunde deialdi desbardinetan proposatu dau alderdiak (1986, 1994, 2001, 2005, 2009, 2012), eta baita euskarari zuzendutako hizkuntza politikaren ebaluaketak egitea be (1994, 1998, 2001, 2005, 2009). Hau da, *elaborar balances del resultado de la aplicación de las políticas lingüísticas que desarrolla la administración en todos los campos* (PSE-EE, 1998). Era berean, euskararen ezagutza eta erabilera maila ebaluatzeko proposamena be hauteskunde deialdi jarraituetan egin dau alderdiak (1998, 2001, 2005, 2009). Euskararen politika orokorrera zuzendutako finantzaketa neurria bat bakarra izan da hauteskunde deialdirik deialdira errepikatua izan dana (2001, 2005, 2009), zehazki, materialen produkziara bideratzeko diru laguntzak. Aipagarria da proposamen horren aurretik, 1998an, diru laguntzon berbegiratzea eta ordezkapena beharrezkotzat jo ebala, ordura arte indarrean egoena diskriminatzailea zalakoan. Euskara politika orokorrarentzako baliabideen eskaintza oso marjinala izan dala aipatu beharrekoa da.

Euskara **herri administrazioan** landu danetan, beste behin, hizkuntza eskakizunak izan dira ekimen aipatuena (%28,79). Eskakizunok mintzagai izan diren gainontzeko alorretan ez bezala, herri administrazioan eskakizunoi baldintza izaera atxikitzea bai proposatu dau

PSE-EEK (%11,29) (ikusi 4.38. taula), baina hainbat irizpide kontuan hartuta: zonaldeko euskaldun kopurua, herriaren tamaina, lanpostuak eskatutako euskara gaitasun maila. Zenbait lanpostutan hizkuntza eskakizunaren beharrezkotasuna onartu arren, alderdiak indarrean dagoen eskakizunen berdoitzea beharrezkotzat jo dau (1994, 1998, 2001, 2005, 2009), euskararen ezagutzagaitik bidezko balorazioa eskaintzeko eta eskakizunak beharrian eta lurraldeetara egokitzeko.

Noiz edo noiz, euskara arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzea (%4,55), itzulpen eta bikoizketak burutzea (%3,03) eta bere erabilera bultzatzea (%6,06) be izan dauz helburu PSE-EEK. Bere hitzetan, *las Administraciones públicas garantizarán que en sus plantillas haya un número suficiente de funcionarios euskaldunes* (PSE-EE, 1986). Helburu hori lortzeko, *las Administraciones públicas (...) pondrán los medios necesarios para facilitar el aprendizaje del euskera a todos aquellos funcionarios que no lo conocieran en el momento de acceder a la función pública* (PSE-EE, 1986) eta, aldi berean, euskalduntze ikastaroetara sarrera aukera bardina bermatuko deutse langile guztiei (2005, 2009).

Herri administrazioan hizkuntza eskubideak hizpide izan diranetan, beste behin, euskararen eskaerak langileengan sortu daikezan bazterketak gaitzesteko izan da. *No debe convertirse el euskera en un elemento que impida, injustificadamente, el acceso a un puesto de trabajo* (PSE-EE, 1998). Baina era berean, herritarrei EAeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan arreta jasoteko eskubidea be luzatu deutse alderdiak: *hacer posible el derecho de los ciudadanos vascos a ser atendidos en cualquiera de los dos idiomas de la Comunidad Autónoma* (PSE-EE, 1986).

Herri administrazioan legedia aldatzeko beharra be ikusi izan dau alderdiak 2001, 2005 eta 2009an; hiruretan eskaera bardina burutuz: *revisar las normas y políticas de euskaldunización no acordes con el consenso alcanzado en torno a la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera* (PSE-EE, 2009). 1994an maila lokalean euskara sustatzeko ordenantzak aztertu eta garatzeko nahia be agertu eban.

Halaber, herri administrazioan euskarari zuzendutako hizkuntza politikak erreformatzeko deia sarritan burutu izan dau (%16,67) (ikusi 4.38. taula). 1994tik 2009ra etenik barik aldarrikatua dan eskaera Euskararen Aholku Batzordearen funtzioen berdefinizioa burutzea izan da.

Bestalde, planifikazio soziolinguistikoa, euskararen ezagutza zabaltzea, euskara sustatzeko baliabideen eskaintza zein finantzaketa be izan dira hizpide euskarari zuzendutako herri administrazioiko politika ekimenetan, nahiz eta aipamen bakarren bat bereganatuta bakarrik.

**Kulturgintza** alorrean euskarazko sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturalak jaso dauz proposamen gehien (%39,53) (ikusi 4.38. taula). Nagusigoa lortu arren, azpimarragarria da ekimenok 2001ean izan ebazala lehenengoz proposagai alderdiak eta ordutik modu egonkorrean aipatu izan dauzala. Era berean da azpimarratzekoa sorkuntza literarioak

bereganatu dauzala PSE-EEren mota honetako ekimen gehienak, nahiz eta euskal agerpen kulturaletikiko konpromiso orokorragoa be agertu dauan: *avanzar en la diversificación de las manifestaciones culturales en euskara* (PSE-EE, 2012). Sorkuntza kulturala euskal lurraldera ezeze nazioartera begira be kokatu dau alderdiak: *continuar las políticas de apoyo específico a la creación, producción y difusión de la cultura en euskera, tanto dentro como fuera de nuestra Comunidad* (PSE-EE, 2012). Horrela, nazioartean euskara bultzatzeko Cervantes Institutuagaz alkarlanean jardutea proposatu dau alderdiak 2005ean eta 2012an Etxepare Institutua bultzatzea.

Finantzaketa neurriak hiru alditan proposatu dira kulturgintza alorrean: lehenengoa, 1980an Euskaltzaindia diruz laguntzeko konpromisoa (1980); bigarrena, euskal idazleen lana gaztelaniara itzultzeko laguntzak (1986) eta; hirugarrena, krisi garaian egon arren, euskal ekintza kulturalentzako diru murrizketa ez burutzeko konpromisoa (2009). Bestalde, euskararen corpus plangintzara zuzendutako proposamenik be izan dau PSE-EEK, baina hauteskunde deialdi bakarrean, 1994ean, hain zuzen.

Aipatzekoa da aurretik mintzagai izan doguzan hiru alorrekaz erkatuz, hizkuntza eskubideen indarra oso murrizta izan dala kultura alorrean, aipamen bakarra bereganatuta. Halaber, aldarrikatutakoa gauza bera izan da: euskara ezagutu barik gaztelania darabilenak ez baztertea.

2009 eta 2012an PSE-EEK euskal kultura prestigiatzeko beharra be ikusi dau eta norabide horretan herritarren sentsibilizazioa burutzekoa. Era berean, euskarara zuzendutako politikaren berbideratze kulturalaren beharizana be aldarrikatu dau alderdiak 2009an.

Aurretik azaldu dan moduan, gizartea, komunikabideak, lan mundua, teknologia barriak eta esparru juridikoa ez dira bereziki alor indartsuak izan euskarari zuzendutako hizkuntza politketan. **Gizarte** mailari zuzendutako 12 esaldi-muinetan bazterketa eta inposaketa ekidingo dauzan hizkuntza eskubideak errespetatzea, euskararen erabilera indartzea eta berau babestea, mintzairaren erabilera neurtzeko bideak ebaluatzea eta hobekuntza erreformak bideratzea, zein hizkuntza politika ekimenean finantzaketa burutzea izan dira proposatutakoak.

**Komunikabideen** alorrean be euskarari zuzendutako hizkuntza politikek 13 esaldi-muin baino ez dabez bereganatu, euretatik 12 EiTBra zuzenduta eta bakarra Euskal Irratia ez beste euskarazko irratietara (2012), non baliabideen eskaintza jarrera izan dan agindutakoa. Alderdiak EiTBri euskara babesle funtzioa atxiki deutso (1980, 2012), herritar eta umeen euskararen ikaskuntza (1980, 2005, 2009) eta erabilera bultzatzeko lanabesa (2012) eta euskal kultura eta euskara mundura zabaltzeko bidea (2012). Egiteko horretan, 2005 eta 2009an EiTBk euskararen ikasketari begira bete beharreko papela argitzeko beharra identifikatu dau alderdiak eta 2009an EiTBren edukiak eta aurrekontua berrikusteko beharra.

**Lan munduan** hizkuntza eskubideek bereganatu dabe proposamenean ia ehuneko osoa (%81,82) (ikusi 4.38. taula). PSE-EEK euskararen gehiegizko balorazioa kritikatu dau



kritikagai: *no debe convertirse el euskera en un elemento que impida, injustificadamente, el acceso a un puesto de trabajo* (PSE-EE, 2001, 2005, 2009). Era berean, alderdia zigor linguistikoen erabat kontrako agertu da; zentzu horretan, 2009an EAJren gobernuak proposatutako Komertzio Dekretuaren kontra lekutuz eta 2012an euren gobernuak Dekretuan proposatutako zigorrak kendu izana aldarrikatuz. Ostera, lan munduan euskara arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzea behin bakarrik izan dau mintzagai alderdiak; hain zuzen, 2012an zerbitzua euskaraz eskaintzen daben komertzioetan logo bat ezartzea proposatuz.

**Teknologia barrien** kasuan, euskara indartzeko nahiaren baitan baliabideen eskaintzak bereganatu dau hizpidearen gehiengoa: telefono eta tabletentzako euskarazko aplikazioak, itzultzaile automatikoak, etab. bultzatzeak, hain zuzen (2012). Era berean, teknologia barrien erabilerari probetxua ataraz euskararen ikasketarako modalitate barriak be proposatu dauz PSE-EEK 2009an.

**Esparru Juridikoan** Europar Batasunean euskararen ofizialtasuna lortzea izan da helburuetako bat: *trabajar por la oficialidad del euskera como lengua de la Unión Europea* (PSE-EE, 2005, 2009). Aldi berean, PSE-EEK 10/1982 Legea berrikusteko beharrezana identifikatu dau 2001 eta 2005 hauteskunde programetan hainbat aldaketa proposatuz; 2009an Euskararen Legearen gainean lortutako akordioak indartzeko beharra adierazi dau eta 2012ko hauteskunde programan, barriz, berau onartu eta garatzeko konpromisoa agertu dau: *ese es precisamente el espíritu del Estatuto de Gernika, de la Ley de Normalización y de la ponencia Euskara 21, que asumimos y nos esforzamos en desarrollar* (PSE-EE, 2012).

PSE-EEK proposagai dauzan hizkuntza politika ekimenen aplikazio esparruari dagokionean, gehien gehienak EAEn zuzendu deutsoz, hain zuzen, ekimenen %93,47. Hori holan izanik be, 2001eko hauteskunde deialdiaz geroztik proposamen politikoaren aplikazio esparrua aniztu egin da, EAE ezeze Espainiar Estatua eta bere autonomia erkidegoak, nazioarte eta Europar Batasuna be ekimenen jasotzaile egonkor bihurtuz. Azpimarratzeko modukoa da PSE-EEK ez dauala hizkuntza politika ekimenik aurkeztu Euskal Herrirako ezta euskal diasporarako be.

#### 4.3.8. Balio euskarriak

---

PSE-EEK hizkuntzen inguruko diskurtso ideologikoan eta proposatutako hizkuntza politikan balio euskarri ezberdinak izan dauz hizpide. Balio euskarrien %46,26 euskara eta gaztelania hizkuntzek bereganatu dabe eta %41,40 euskarak bera beratarra. Halaber, hizkuntzek ala hizkuntza politikak modu orokorrean balioen %5,49 bildu dabe eta euskarak, gaztelaniak eta ingelesak alkarregaz %4,36 (ikusi 4.39. taula).

## 4.39. TAULA. PSE-EEREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN BALIO EUSKARRIAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		5,49
Euskara		41,40
Gaztelania		0,25
Ingelesa		0,75
Euskara & Gaztelania		46,26
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		4,36
Atzerriko hizkuntzak		0,25
Etorkin & Gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,50
Eleaniztasuna		0,25
Estatuko eskualdeko hizkuntzak		0,50
Guztira	%	100
	N =	802

*Iurria:* norberak egina.

### Hizkuntza politika orokorraren balio euskarriak

Hizkuntza politikaz modo orokorrean jarduterakoan PSE-EEK akordioari zentralitate handia eskaini deitso (%36,36) (ikusi 4.40. taula); alegia, alderdiak hizkuntza politika *demokratizatu* nahi dau, herriaren borondatearen erakunde ordezkatzaille diren gobernu eta legebiltzarrari egokituz hizkuntza politikaren eginkizuna. Akordioaren ildotik adostasunari be arreta jarri deitso PSE-EEK. Horrela, 2005eko hauteskunde deialdian alderdiak akordioan oinarritutako hizkuntza politika barria eraikitzeke konpromisoa hartu dau: *elaborar una nueva Política Lingüística sobre bases diferentes, inspiradas en la voluntad de consenso con las fuerzas democráticas con representación en el Parlamento Vasco* (PSE-EE, 2005). Era berean, hizkuntza politikak bideratzerakoan herritarren borondatea aintzat hartzea jo dau inportantetzat (%13,64) (ikusi 4.40. taula). Alegia, *una política lingüística basada en la voluntad de la ciudadanía* (PSE-EE, 2012), legebiltzarrean ordezkatu. Hizkuntza politika bideratzerakoan gaur egungo gizartearen eta banakakoaren identitatearen izaera anitza eta konplexua aintzat hartzea zentrala da alderdiarentzako. Era berean, hizkuntza politika bideratzerakoan jarrera irekia eta inklusiboa mantentzea aldarrikatu dau eta hizkuntzak, orokorrean, elementu baztertzaille eta inposaketarako bide ez izatea.

4.40. TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI OROKORREAN, EUSKARA, EUSKARA ETA GAZTELANIA ETA EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESARI ATXIKITAKO BALIO EUSKARRIAK BALIO TALDEKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		Hizk.	Eusk.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Gazt. & Ingl.
<b>Hizkuntza eskubideak</b>	Askatasuna	0	1,81	9,16	5,71
	Bardintasuna	0	0,90	4,31	0
	Inposaketarik eza	2,27	9,94	2,16	0
	Bazterkeria eza	9,09	9,64	8,36	5,71
	Guztira I	11,36	22,29	23,99	11,43
<b>Erritmoa</b>	Moderazioa	2,27	10,24	0,27	0
	Progresibitatea	0	0	0,54	8,57
	Egingarritasuna	0	3,31	0,81	5,71
	Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea	0	3,31	4,58	2,86
	Guztira II	2,27	16,87	6,20	17,14
<b>Agente parte hartzaileak eta alkarlana</b>	Adostasuna	11,36	6,63	3,50	2,86
	Akordioa	36,36	9,94	15,09	0
	Alkarlana	2,27	4,82	0,54	2,86
	Guztira III	50	21,39	19,14	5,71
<b>Ekimenen balio bitartekariak</b>	Ekintza positiboa	0	0,60	0	0
	Eraginkortasuna	2,27	5,12	0,81	0
	Malgutasuna	0	0,60	2,43	42,86
	Kalitatea	2,27	4,22	1,62	5,71
	Guztira IV	4,55	10,54	4,85	48,57
<b>Herritarren nahia</b>	Konpromisoa	2,27	5,42	1,35	0
	Borondatea	13,64	5,72	3,50	11,43
	Erakargarritasuna	0	1,81	0,54	0
	Guztira V	15,91	12,95	5,39	11,43
<b>Botere politikoa</b>	Subiranotasuna	2,27	0,30	0	0
	Subsidiaritatea	2,27	0,90	0	0
	Guztira VI	4,55	1,20	0	0
<b>Bizikidetzazko linguistikoa</b>	Kohesioa	0	2,11	7,28	2,86
	Alkarbizitza	0	3,01	9,16	0
	Errespetua, tolerantzia	0	0,30	2,43	0
	Aniztasuna	6,82	3,61	10,78	2,86
	Irekiera	2,27	2,11	2,70	0
	Inklusibitatea	2,27	3,61	8,09	0
	Guztira VII	11,36	14,76	40,43	5,71
<b>Guztira</b>	<b>%</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>
	<b>N =</b>	<b>44</b>	<b>332</b>	<b>371</b>	<b>35</b>

Iturria: norberak egina.

## Euskara, gaztelania eta ingelesa hirukotearentzako balio euskarriak

Euskara, gaztelania eta ingelesa batera mintzagai izan diranetan balio desbardinak izan dira aipagai. Gizarte kohesioa hizpide dauan esaldi-muin batek salbu, gainontzeko guztiek irakaskuntza alorra izan dabe helburu. Malgutasuna izan da balioen %48,57 bereganatu dauana (ikusi 4.40. taula). Hain zuzen, eskoletan hirueletasuna ezartzeko zentzuei autonomia eskaintzearen aldeko apustu argia egin dau alderdiak; zentruko ikasleriaren ezaugarri linguistikoak aintzat hartuta, zentro bakoitzak bere proiektua eraiki dagian. Era berean, kalitatezko hezkuntza hiruelea eskaintzeko konpromisoa hartu dau alderdiak; ikaslearen lehenengo hizkuntzatik abiatu eta errealitate soziolinguistikoa kontuan harturik, modu progresiboan beste bi hizkuntzak barneratuz joango dana, betiere egingarritasuna oinarri hartuta: *avanzar sobre la ciencia y la evaluación; basado en criterios científicos* (PSE-EE, 2009). Aldi berean, eskolan hirueletasunean oinarritutako hizkuntza proiektua abiatzeko familien eta gizartearen borondatea aintzakotzat hartzeko deia egin dau PSE-EEK: *para la elaboración del proyecto lingüístico de cada centro se contará con la voluntad de las familias* (PSE-EE, 2009). Modu horretan, familia eta umeen aukera askatasuna bermatuko da. Izan be, PSE-EEK aniztasuna errespetatuko dauan eredu linguistikoa defentzen dau: *defensa de un modelo lingüístico basado en el respeto a la diversidad* (PSE-EE, 2009). Esan beharra dago, egoera linguistiko barrira egokitu beharraitik irakasleak ez baztertzeko konpromisoa hartu dau alderdiak: *garantizar que ningún profesor o profesora sufrirá ningún perjuicio laboral por la evolución lingüística de los métodos de enseñanza* (PSE-EE, 2009).

## Euskara eta gaztelaniarentzako balio euskarriak

Euskara eta gaztelania batera hizpide izan dauzanetan bizikidetzat linguistikoagaz lotutako balioek bereganatu dabe ehuneko handiena, zehazki %40,43 (ikusi 4.40. taula). Alderdiak euskal gizartearen aniztasuna dala baieztatu dau sarri: *la sociedad vasca es una realidad plural, con expresiones culturales diversas y segmentada política, étnica y lingüísticamente* (PSE, 1986); eta aniztasun hori aberastasun moduan jo dau. Hori dala eta, aniztasunaren mantentzeko neurriak hartzeko konpromisoa agertu dau: *adoptar medidas para mantener el pluralismo lingüístico como una riqueza a preservar* (PSE-EE, 2001, 2005).

Euskara eta gaztelaniaren arteko alkarbizitza lantzea be badau helburutzat PSE-EEK. Egitez, alderdiak hizkuntza komunitate desbardinaren izatasunak euskal gizartearen banaketa ekartzea ekidin gura dau: *evitar el fraccionamiento de la sociedad vasca en comunidades lingüísticas diferenciadas* (PSE-EE, 2009). Horretarako, norgehiagoka eta gerra linguistikoak baztertu nahi dauz: *nos proponemos desactivar guerras lingüísticas absolutamente indeseables* (PSE-EE, 2001), *el encauzamiento de los problemas y disfuncionalidades que la convivencia lingüística ocasiona en el presente o pueda ocasionar en el futuro* (PSE-EE, 2005), *nuevas fórmulas para alcanzar una convivencia armónica y productiva entre el euskera y el*

castellano (PSE-EE, 2009). Gizartea eta bere alkarbizitza inklusibitatearen eskutik daroa PSE-EEK: *los socialistas defendemos un proyecto integrador de la sociedad vasca* (PSE, 1994), eta ikuspuntu integratzaile hori hizkuntzan be islatu beharra dago. Zentzu horretan, alderdiak elebitasun integratzailearen aldeko apustua egiten dau, hizkuntza politikan be izaera integratzaile hori bilatuz: *la sociedad vasca necesita una política lingüística diseñada por todos los vascos y para todos los vascos y adecuada a la realidad en la que conviven euskaldunes y no euskaldunes* (PSE-EE, 1994).

Gainera euskara eta gaztelaniaren ezagutzak gizarte kohesioari onura egin dakiokela be defendatu dau azken urteetan alderdiak: *la cohesión se verá favorecida cada vez que los hablantes no necesiten romper la comunicación entre sí* (PSE-EE, 2005); izan ere, *su conocimiento favorecerá la cohesión social* (PSE-EE, 2005). Era berean, PSE-EEK leku-hartze endogamikoak gaitzesten dauz eta zabaltze intelektualerako deia egiten dau, elebitasuna politika kultural ekintzaile eta zabalagoaren zerbitzura jartzeko nahia agertuz: *poner el bilingüismo al servicio de una política cultural más activa y abierta* (2001, 2005). Errespetu eta tolerantziaren ildoan, PSE-EEK desbardintasunarekiko errespetua aldarrikatu dau azken urteetan.

Euskara eta gaztelania hizpide hartzerakoan, hizkuntza eskubideei lotutako balioek be presentzia garrantzitsua bereganatu dabe (%23,99) (ikusi 4.40. taula). PSE-EEK hizkuntza arrazoiekaitik inor diskriminatua izaterik ez dau gura, direla herritarrak orokorrean, langileak, irakasleak, ume eta gazteak, zein erakundeak: *nadie podrá ser discriminado por razón de lengua* (PSE-EE, 2009). Ume eta gazteen kasuan, alderdiak eskola barruan aukeraketa linguistikoa dala eta sortu dan edota sortu daiteken segregazioa dau alderdiak hizpide eta gaitzespen. Hori horrela, herritarrek euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko aukera izatea gura dau alderdiak: *todos los ciudadanos de Euskadi tienen el derecho de conocer el euskera y el castellano, así como el de usar ambas lenguas oficiales indistintamente* (PSE-EE, 1986). Era berean, askatasun hori ume eta gazteei eta euren familiei be eskaintzen deutse, hain zuzen, *consolidar y profundizar en los derechos individuales de cada una de las personas que viven en este país, besteak beste, escolarizarse en el idioma oficial de la propia elección* (PSE-EE, 2009). Bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzearen askatasunaren ildoan doa aukera bardintasunaren bermakuntza nahia eta hitzun batzuen eta besteen arteko bardintasunaren alderria: *todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi cuentan por igual, con independencia de (...) su lengua* (PSE-EE, 2009).

Agente parte-hartzaileen baitan akordioak lortzeari eskaini deutso PSE-EEK tarterik handiena (%15,09) (ikusi 4.40. taula). PSE-EEK hizkuntzen eta hizkuntza politikaren inguruko akordioak esparru desbardinetara zabaltzen dauz: bai legebiltzarreko eztabaidetara, hizkuntza politikaz diharduen aholkularitza batzordeetara, kultura arloko eragile eta kulturgileetara, hizkuntza komunitateetara, zein akordio sozial eta politiko zabal batera.

Erritmoagaz lotutako balioak be izan dauz aipagai PSE-EEK, nahiz eta neurri txikiagoan (%6,46) (ikusi 4.40. taula). Errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta jokatzeari izan da erritmoagaz lotutako balio errepikatua; alegia, hizkuntza politika bideratzerakoan errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartu beharra. Nahi hau hezkuntza alorrean aipatu da nagusiki.

Herritarren nahia aintzakotzat hartzen dabenean balioak ez dira orotara oso indartsuak izan (%5,39) eta euren artean borondatea gailendu da, konpromisoaren eta erakargarritasunaren aurretik (ikusi 4.40. taula). Hizkuntza politika diseinatu eta kudeatzerakoan euskal herritarren nahi legitimoa asetzeko gogoia adierazi dau PSE-EEK sarri. Irakaskuntza alorrean be familia eta ume eta gazteen borondatea da alderdiak oinarri moduan hartu dauana. Halaber, borondateaz haratago, jarduera esku-hartzaileagoa, gizarte mailan euskaldun eta gaztelaniadunen konpromisoa, inplikazioa indartzeko interesa aipatu dau PSE-EEK azken urteetan: *hacer efectiva una corresponsabilidad, una implicación de euskaldunes y castellano-hablantes en los compromisos y esfuerzos que unos y otros deben adoptar* (PSE-EE, 2005, 2001), *implicando activamente a las dos comunidades de hablantes de este país* (PSE-EE, 2001, 2005).

Euskara eta gaztelaniari zuzendutako hizkuntza politikak jarraitu beharreko balio bitartekariak ez dira asko landu; eta egin diranetan hezkuntza alorrean aipatu dira, alegia, hizkuntza tratamenduan malgutasuna eta hezkuntzan kalitatea aldarrikatuz.

## Euskararentzako balio euskarriak

PSE-EEK euskara bera berataraz langai izan dauanetan hizkuntza eskubideei lotutako balioak izan dira aipatuena (%22,29); nagusiki, inposaketarik (%9,64) eta bazterketarik eza (%9,64) (ikusi 4.40. taula). Alderdiak euskararen aldeko hizkuntza politikaren izaera inposatzaile, intolerante eta hertsapenezkoa gaitzesten dau, eskubideen subjektua hiztunak direla gogoratuz eta ez hizkuntzak. PSE-EEren aburuz, *en un ambiente sereno y sin imposiciones será posible un desarrollo normal del euskera* (PSE-EE, 2005). Aipatzekoa da, gehiengoan, inposaketarik ezeko politika maila orokorrean dauala hizpide PSE-EEK; halaber, 2009ko hauteskunde programan merkatu alorrean inposaketarik ez ezartzeko beharra be aipatu eban, Komertzio Dekretua aldatzeko beharra adieraziz: *modificar el Decreto de Comercio suprimiendo la imposición de sanciones por no usar el euskera* (PSE-EE, 2009).

Ildo berean, euskarari zuzendutako hizkuntza politika baztertzaila ez izateko nahia be adierazi dau PSE-EEK lehenengo hauteskunde deialditik. *Rechazamos el uso del euskera como elemento de discriminación social* (PSE-EE, 1994). Bazterketarik eza irakasle eta langileei begirako neurria da askotan. Horren adibide dira honako adierazpenak: *promover políticas que eliminen cualquier posible discriminación en materia de promoción y acceso al empleo público*, langilieriaren kasuan (PSE-EE, 2009), edota *el profesorado de la*

*Escuela Pública, funcionario o no, que no esté euskaldunizado no se verá afectado por este diferente tratamiento lingüístico manteniendo su vinculación con la Administración en las mismas condiciones*, irakasleen kasuan (PSE-EE, 2005). Bi adibideok langileria publikoari erreferentzia egiten deuten arren, langileria pribatuaren kasuan jarrera bardina mantentzen dau PSE-EEK: *no debe convertirse el euskera en un elemento que impida, injustificadamente, el acceso a un puesto de trabajo* (PSE-EE, 2005).

Euskara hizkuntza eskubideen baitan askatasunagaz batzerakoan zentzu desbardinetan egin izan dau: batetik euskal komunitateak bere hizkuntzan hitz egin eta arreta jasotzeko eskubide askatasuna bermatzea (1980, 1986), baita euskara ikasi gura dabenei aukerak eskaintzea (1994) edota euskararen erabilera “Euskara en libertad”<sup>110</sup> adierazpenak biltzen dauan moduan bultzatzea (2012). Bestalde, euskarari atxikita bardintasuna ez da balio oso erabilia izan, baina egin danetan euskara kurtsoetarako sarrera bardintasuna bermatzeko izan da nagusiki.

Euskarari buruz jardutean, agente parte-hartzaileen artean akordioak lortzeari garrantzia handia eskaini deuto PSE-EEK (%9,94), baina baita, neurri txikiagoan bada be, adostasunari (%6,63) eta alkarlanari (%4,82) (ikusi 4.40. taula). Akordioak ordezkari politikoen artean bultzatzeko nahia adierazi dau nagusiki PSE-EEK. Egitez, PSE-EEren aburuz Eusko Legebiltzarrari eta erakunde ordezkatzaillei dagokie euskarari zuzendutako politiketan akordioak lortzea, eta ez Aholkularitza Batzordeei. *Desde una perspectiva democrática, nos parece inadmisibile conceder a este organismo unas atribuciones que no le corresponde, como son las de planificación y control de la política lingüística, que deben ser competencia natural de las máximas instituciones representativas del país: el Parlamento y el Gobierno de esta Comunidad Autónoma* (PSE-EE, 2001).

Era berean, PSE-EEK euskararekiko hizkuntza politika bideratzerakoan adostasunari garrantzia zentrala eskaintzen deuto. Horrela, adostasunaren gabezia kritikatu berau lortzeko nahia adierazten dau: *avanzar de manera consensuada* (PSE-EE, 2001, 2005), *propiciar el consenso en la política lingüística a partir del Parlamento Vasco como máxima institución representativa de Euskadi* (PSE-EE, 2001). Euskararentzako politiketan erakunde desbardinaren arteko alkarlana be izan dau xede PSE-EEK: hizkuntza politikan arduraren bat daben erakundeekaz (Euskaltzaindia, esaterako) zein arlo kulturala lantzen dabenekaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan ezeze Nafarroa eta Iparraldean, Espainiar Estatuan (Cervantes Institutuagaz) zein nazioartean (Euskal Etxeak, etab.).

<sup>110</sup>“Euskera en libertad” (López, 2008) euskararen eta gaztelaniaren arteko alkarbizitza armoniotsua eta emonkorra bultzatzeko PSE-EEK 2008an aurkeztutako adierazpena da. Bertan alkarbizitza horren oinarriak eta ezaugarriak laburbiltzen dira. Adierazpen honetan bildutako ideiak alderdiaren hauteskunde programetan be agertu izan dira 2008az geroztik.

Erritmoagaz lotutako balioen baitan moderazioa gailendu da argi eta garbi (%10,24) (ikusi 4.40. taula). Hortaz, euskararentzako hizkuntza politika neurritasunez, maximalismoetan jauzi barik, gehiegizko presioak ekidinez, erritmoak behartu barik bideratu beharra dago, bestela egiteak gizartearen ezetza ekarriko leukelako. Era horretan, PSE-EE gobernu *nazionalistek* euskararen alde bideratutako politikekiko oso kritiko agertzen da, hain zuzen, moderazio hori errespetatu ez dabelako. Bestalde, egingarritasuna (%3,31) eta errealtate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea (%3,31) be hartu dauz bidelagun PSE-EEK. Egingarritasuna hizpide dauanean, alderdiak arrazionaltasuna, irizpide zientifikoak jarraituz jardutea dau mintzagai. Euskararekiko hizkuntza politikak aurkezterakoan errealtate soziolinguistikoa aintzat hartuta ibiltea be garrantzitsua da PSE-EErentzat, politika orokorrean, irakaskuntzan zein herri administrazioan. Euskararen hizkuntza politika bideratzeko erritmoari lotutako balioen artean, azpimarratzekoa da progresibitatea ez dauala aipagai izan PSE-EEK.

Bizikidetzat linguistikoari lotutako balioek balio euskarri aldagaiaren baitan kodetutako hizpidearen %14,76 bereganatu dau eta ehuneko hori oso modu bardintsuan banatu da balio desbarden artean: aniztasuna eta inklusibitatea, alkarbizitza, irekiera eta kohesioa eta, neurri txikiagoan, errespetua eta tolerantzia. Euskaraz burututako hizkuntza politikari zein politika kulturalari izaera plurala atxiki gura deitso PSE-EEK: *una política euskaltzale libre de fundamentos identitarios o historicistas* (PSE-EE, 2009), *una cultura en euskera moderna y plural* (PSE-EE, 2009). Horrela, euskararekiko hizkuntza eta kultura politiken izaera inklusiboa aldarrikatzen dau alderdiak. Izan ere, PSE-EEren hitzetan, es *un error profundo que la extensión del euskera, que va a afectar de un modo u otro a toda la población vasca en todos los órdenes se acometa sólo desde una parte, y sólo desde la perspectiva del euskera, en lugar de hacerlo desde el diálogo y la relación con el castellano* (PSE-EE, 2005). Modu horretan, eta inklusibitatearen alde, PSE-EEK herritarren izaera identitarioaren aurretik herritartasuna gailentzen dau (2009, 2012). Bere ustetan, euskarari zuzendutako politikek topaldi linguistikoa bilatu behar dabe, *integrar a la sociedad vasca en un proyecto común de convivencia democrática* (PSE-EE, 2009, 2012), izaera irekia eta askea bultzatuz. Euskarak gizartearen kohesio lanabesak izan behar dau, *una herramienta, elemento de cohesión social* (1986, 2001, 2005, 2012); izan ere, euskara indartzea besteko garrantzitsua da *que los instrumentos utilizados para lograrlo no obstaculicen la integración social y no fracturen la sociedad, esto es, sean cohesionadores* (PSE-EE, 1998).

Euskarari zuzendutako hizkuntza politikak bideratzerakoan herritarren nahia aintzat hartzerakoan, euren borondatea (%5,72) eta konpromisoa nagusitu dira (%5,42) (ikusi 4.40. taula). Borondateari dagokionean, PSE-EEK politika esparru desbardenetan euskara eskaintza herritarren eskaerara egokitzea aldarrikatu dau (hezkuntzan, herri administrazioan); eta euskararekiko gizarte inplikazioa neurtzeko nahia be adierazi dau hauteskunde deialdi desbardenetan: *analizar la implicación social en el proceso (por ejemplo en empresas) al margen de las iniciativas públicas* (PSE-EE, 1998, 2001, 2005, 2009). Konpromisoaren



kasuan, alderdiaren beraren euskararekiko konpromisoa aldarrikatu dau behin baino gehiagotan: *el PSE-EE (PSOE) se compromete a sostener la promoción del euskera* (PSE-EE, 2005); eta noiz edo noiz herritarren konpromisoa indartzeko nahia be adierazi dau: *fomentar la implicación social* (PSE-EE, 2009). Azken bi hauteskunde deialdietan (2009, 2012) herritarrak euskarara erakarrita sentitzeko garrantzia be adierazi dau: *la sociedad vasca necesita hacerla suya paulatinamente, sintiéndola atractiva* (PSE-EE, 2012).

Ekimenen balio bitartekarien baitan eraginkortasuna (%5,12) eta kalitatea (%4,22) nagusitu dira (ikusi 4.40. taula). Eraginkortasunaren baitan kostu-emaitzen logika izan dau kontuan PSE-EEK, hau da, euskarari zuzendutako hizkuntza politikek dakarren kostua emaitzekaz bat etorri daitela; kalitatearen kasuan, kalitate irizpideak aintzat hartzea bilatu dau. Bestalde, aipatzekoa da ekintza positiboa 2012ko hauteskunde deialdian bakarrik izan dauala hizpide PSE-EEK bi aipamenetan. Horrelaxe dino euretako batek: *en estos momentos, a pesar de los avances realizados, es el euskera, o mejor dicho, los ciudadanos hablantes de euskera, los que necesitan todavía medidas de apoyo institucional en diversos campos* (PSE-EE, 2012). Bigarren baieztapena hezkuntza alorrera zuzendua dago: *la propia realidad sociolingüística del País Vasco requiere una atención preferente al euskera en el ámbito educativo* (PSE-EE, 2012).

Botere politikoaren banaketari buruzko balioak noizik noizerako moduan erabili dira. Subsidiaritate printzipioa epaitegietan izan dau mintzagai PSE-EEK. Alderdiaren ustez euskara epaitegietan bultzatu beharra dago subsidiaritate printzipioari so egiteko: *se seguirá potenciando el uso del euskera en la Administración de Justicia, como expresión del principio de proximidad del servicio* (PSE-EE, 2001, 2005, 2009). Halaber, subiranotasun kodearen baitan bildutako esaldi-muinak euskararen garapena bultzatzeko Estatu propioaren beharizana ezeztatu dau, autonomiak beharizan horrerri modu arrakastatsuan aurre egiten deusola adieraziz: *los socialistas manifestamos que la fuerza y desarrollo del euskera y de la cultura vasca no dependen de la consecución de un Estado propio, porque con la Autonomía ya están garantizados* (PSE-EE, 2012).

#### 4.3.9. Estatusa eta alkarketak

---

PSE-EEK hizkuntza desbardinei zein estatus atxikitzen deuten eta zein errealtategaz alkarkotzen dauzan aztertzea da atal honen helburua. Ehunekoak ikusita, baieztatu daiteke euskara-gaztelania konbinaketak (%46,36) eta euskarak bera beratarara (%39,65) batu dabezala erreferentzien gehiengoa; baina ez osotasuna. Eleaniztasunak, hizkuntzek orokorrean, atzerriko hizkuntzek, ingelesak, gaztelaniak bera beratarara, euskarak, gaztelaniak eta ingesesak alkarregaz eta Estatuko eskualdeetako hizkuntzek be bildu dabez erreferentziak euren inguruan (ikusi 4.41. taula).

## 4.41. TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN ESTATUS ETA ALKARKETAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		2,92
Euskara		39,65
Gaztelania		1,46
Ingelesa		2,04
Euskara & Gaztelania		46,36
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		0,87
Atzerriko hizkuntzak		3,21
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,29
Eleaniztasuna		2,62
Estatuko eskualdeko hizkuntzak		0,58
Guztira	%	100
	N =	343

Iturria: norberak egina.

Interesgarria da aurkezpena **euskara-gaztelania** eta gatazkaren artean ezarritako loturagaz hastea, nahiz eta aipamen gehien bereganatu dauzan lotura ez izan (%16,35) (ikusi 4.42. taula). Izan be, PSE-EEren planteamentu zentrala ulertzeko baliagarria da. PSE-EEK Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntzen inguruan gatazka linguistiko bat badagoela erakusten dau eta beronei amaiera emoteko nahia adierazten dau: *ayudaremos (...) a borrar los restos de radicalismos y comportamientos sectarios que todavía se muestran dentro del mundo del euskera y del castellano* (PSE-EE, 1994), edota *nos proponemos desactivar guerras lingüísticas absolutamente indeseables* (PSE-EE, 2001). Gatazkaren ildo beretik, hizkuntzen arloan alderdikeria be badagoela baieztatzen dau PSE-EEK (%8,81), *enfoques unilaterales de carácter predominantemente ideológico* (PSE-EE, 2001), eta kontra agertzen da. *Los socialistas rechazamos la instrumentalización de cualquier idioma como un arma de separación de gentes o pueblos* (PSE-EE, 1994). Behin bakarrik aipatu dauan arren (%0,63), PSE-EEK hizkuntza ofizialen inguruan sortu daiteken errefus sentimendua be izan dau hizpide, hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko obligazioa agertuz errefus sentimenduaren bultzatzaile. *Uno de los motivos, quizá el mayor, por el que la gente puede no querer utilizar una de las lenguas oficiales es que se pretende, abierta o veladamente, obligarle a hacerlo* (PSE-EE, 2012).

4.42. TAULA. PSE-EE-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI  
ATXIKITAKO ESTATUS ETA ALKARKETAK HIZKUNTZAKA  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Hizk.	Eusk.	Gazt.	Ingl.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Gazt & Ingl.	Atzerriko H	Etorkin & gitxiengo etnikoien H	Es. Eskual. H	Eleaniz.
H. gitxitu	0	5,88	0	0	0	0	0	0	0	0
Nazioarteko H.	0	0	0	28,57	0	0	0	0	0	0
H. ofiziala	0	0	0	0	5,03	0	0	0	0	0
Bertoko H.	0	0	40	0	15,72	0	0	0	0	0
Aberastasuna	0	0,74	0	0	8,81	0	0	0	0	11,11
Ondarea	0	8,09	20	0	5,03	0	0	0	50	0
Modernitatea	10	4,41	0	0	1,26	33,33	0	0	0	0
Gatazka	20	7,35	0	0	16,35	0	0	0	0	0
Identitatea	10	6,62	0	0	1,26	0	0	0	0	0
Kultura	10	3,68	0	0	5,66	0	0	0	0	0
Kulturarte- kotasuna	0	1,47	0	0	21,38	0	18,18	100	0	44,44
Integrazioa	0	0	0	0	2,52	0	0	0	0	0
Errefus sentimendua	0	11,03	0	0	0,63	0	0	0	0	0
Komunitatearen eraikuntza	0	0,74	0	0	5,03	0	0	0	0	0
Alderdikeria	40	38,97	40	0	8,81	33,33	0	0	0	0
Komunikazio tresna	0	2,92	0	0	0	0	0	0	50	11,11
Lehiakortasuna	0	0,74	0	42,86	0	0	54,55	0	0	11,11
Nazioarteko- tzea	10	7,35	0	28,57	2,52	33,33	27,27	0	0	22,22
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	10	136	5	7	159	3	11	1	2	9

Iturria: norberak egina.

Honen guztiaren aurrean, PSE-EEK elebitasuna aberastasun kultural zein sozial moduan jotzen dau (%8,81) (ikusi 4.42. taula), komunikaziorako indargune eta aukera moduan. Azken finean, elebitasuna *[es] un valor en sí mismo* (PSE-EE, 2009). Egitez, alderdiak bai euskara eta bai gaztelania ondare kultural moduan identifikatzen dauz; eta norabide horretan, sarritan atxiki izan deutse bi hizkuntza ofizialei bertako hizkuntza kategorizazioa (%15,72), biak era berean direlakoan gure ondarearen parte (%5,03). *Consideramos el castellano y el euskera como lenguas igualmente propias de los vascos, porque han sido y son vehículos de expresión de sus ideas y creencias* (PSE, 1990). Bi hizkuntzen parekotasun horren aurrean eta, 1990. urteko hauteskunde deialdiaz geroztik, PSE-EEren nahia bi unibertso linguistikoen arteko harremanak indartzea izan da, kulturartekotasunean sakontzea (%21,38). Euskadiren garapen kulturalerako, elkarbizitza demokratikoan hondeatzeko, herri moduan aurrera egiteko, etab. Alderdiaren hitzetan, *los socialistas apostamos por establecer relaciones de colaboración e interrelación entre dos universos lingüísticos que, en un clima de confianza, puedan ir descubriendo aportaciones mutuas muy valiosas para el avance cultural de la sociedad vasca* (PSE-EE, 2001, 2005).

Komunitatearen eraikuntza (%5,03) (ikusi 4.42. taula) bera be bi hizkuntzen presentzia aintzat hartuta burutu beharra dago. *Los socialistas defendemos un proyecto integrador de la sociedad vasca porque concebimos Euskadi como un colectivo compuesto por ciudadanos y ciudadanas que, con orígenes diversos, tienen así la tarea de hacer compatible la pluralidad cultural y lingüística con su afirmación como nacionalidad* (PSE-EE, 1994, 1998). Halaber, kulturartekotasun hori babestu arren, esan beharra dago PSE-EEK herritarren artean identitate eta hizkuntzekiko identifikazio desbardinak iraun egingo dabela baieztatu dauala (%1,26). Izan be, *teniendo en cuenta que Euskadi es una realidad plural con sentimientos de identidades diferentes habrá ciudadanos que se sigan identificando con el castellano y otros con el euskera* (PSE-EE, 2005). Gaur egun identitate konplexuak dira nagusi.

Aldi berean, elebitasuna sormen kulturalerako aukera moduan jo dau PSE-EEK, kulturaren garapenerako bi hizkuntzak osagarritzat joaz, eta nazioartera salto egiteko lanabes moduan lurraldeko euskarazko eta gaztelaniazko literaturaren bidez. Halaber, aipatzekoa da, hizkuntzen bidezko nazioartekotzea liburu mundura bideratu eta mugatu dauala PSE-EEK.

Bestalde, integrazio kodea etorkinei lotuta erabili da alderdiaren hauteskunde programetan. Hain zuzen, etorkinen integraziorako euskara eta gaztelaniaren ezagutza garrantzitsutzat jotzen dau PSE-EEK. Horren adierazle dira hezkuntza mailan ume eta gazte etorkinen muga linguistikoei aurre egiteko proposatutako ekimenak: sostengu irakasleak, programa bereziak.

Euskara eta gaztelaniak bereganatutako hizkuntza ofizial izendapenari dagokionean, zazpi guztira, aipatzekoa da PSE-EEK ofizialtasuna eta berezko hizkuntza alkarregaz aipatu dauzala gehienetan: *el euskara y el castellano son lenguas propias y oficiales de la ciudadanía vasca* (PSE-EE, 2009). Interesgarria da ofizialtasun baieztapen gehienien ostean (1984, 2005, 2009) bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko herritarren eskubidea izan dauala aipagai alderdiak. *Las*

*lenguas propias de Euskadi son el euskera y el castellano. Ambas son sus lenguas oficiales. Todas las personas tienen el derecho a usar las dos lenguas* (PSE-EE, 2005).

Aurretik aipatu dogun moduan, bigarren erreferentzia gehien jaso dauzana **euskara** bera beratarra izan da. Euskarari atxiki jakon lotura sendoena alderdikeriagaz ezarritakoa izan da (%38,97) (ikus 4.42. taula). Hain zuzen, euskararen inguruan alderdikeria handia dagoela baieztatuz. Gainera, sarritan PSE-EEK alderdikeriari norabidea ezarri izan deutso: nazionalismotik burututako alderdikeria; maiz, EAJk, gobernuko alderdiak, burututakoa. PSE-EEren ustez euskara eraikuntza nazionalerako tresna moduan erabilia izan da. Horren adigarria da honako adierazpena: *el Partido Nacionalista Vasco ha querido, de manera desleal, exclusivizar la defensa de la nación, del euskera, de los símbolos y contenidos más importantes del autogobierno* (EAJ, 2005). Edota, *la política lingüística de normalización del euskera se puso en marcha durante la hegemonía política del PNV y está fuertemente imbuida por las formas y valores de su mundo ideológico* (PSE-EE, 1994). Horren guztiaren aurrean, PSE-EEK euskara eta euskal nazionalismoaren arteko lotura apurtu gura dau. *Frente a esta situación, defendemos una política euskaltzale libre de fundamentos identitarios o historicistas* (PSE-EE, 2012). Izan be, *estamos convencidos de que se puede ser euskaldún y euskaltzale sin ser nacionalista* (PSE-EE, 2012).

Era berean, erabilera alderdikoiak, bazterketak, erritmoa estutzeak, inposaketak, zuztartzetxikiak, etab. euskararen kontrako jarrerak indartu dauzala be sarri askotan baieztatu izan dau PSE-EEK. *Esa instrumentalización del Euskara ha llevado a fomentar entre un sector muy importante de la ciudadanía vasca un sentimiento de animadversión hacia el euskera* (PSE-EE, 2012).

Euskara inguratzen dauan alderdikeri, gatazka linguistiko edota errefus sentimenduen konfirmazioaz gainera, PSE-EEK euskara ondare kultural moduan be jo izan dau. Aipatzekoa da gainera, ondare moduan definitzerakoan danen ondare, ondare komun gisa identifikatu izan daua: *euskera patrimonio de todos los vascos* (PSE-EE, 2012). Ildo beretik, euskara euskal herriaren identitate kulturalaren zeinu bereizgarri moduan definitu izan dau. *El euskera, la lengua vasca como elemento diferenciador de un pueblo, constituye sin duda una seña de identidad cultural del pueblo vasco* (PSE, 1984). Are gehiago, euskara Euskadiren lehen ordezkaria be badala aipatu izan dau PSE-EEK. *Lengua y cultura (vascas) constituyen el primer embajador de Euskadi antes de que lleguen allá nuestras propuestas empresariales y económicas o nuestras estrategias de desarrollo en y con otros países* (PSE-EE, 2012). Modu horretan, nazioartekotzea euskararen eta kulturaren bidetik dau proposagai alderdiak: *continuar con las políticas de apoyo específico a la creación, producción y difusión de la cultura en euskera, tanto dentro como fuera de nuestra Comunidad* (PSE-EE, 2012). Halaber, aipatu beharra dago, kultura eta euskararen edota euskal folklorearen adierazpenen artean ezarritako loturarekiko kritiko ere agertu izan dala. Era berean, euskara modernitatean txertatzeko beharra be identifikatu izan dau baten baino gehiagotan PSE-EEK, horretarako zabaltze kultureko politika bat bideratuz, kultura garaikideari buruzko liburuen argitalpenagaz, esaterako. Dagoeneko 1986ko hauteskunde programan aditzera emon eban

lez, *el problema lingüístico en el País Vasco no puede abordarse en términos históricos (raíces, señas de identidad, recuperación nacional), sino en términos de sociedad presente y futura* (PSE, 1986).

Era berean, euskararen izaera gitxitua izan dau hizpide PSE-EEK; bere diglosia, ahultasun egoera. Halaber, aipatu beharra dago euskararen egoera soziolinguistikoen deskribapenak ez dauala izan indarrrik PSE-EEren diskurtsoan. Guztira zortzi esaldi-muin hamar hauteskunde programen ibilbidean. Euskararen biziraupenerako bere bakartzea kaltegarritzat jo izan dau PSE-EEK. *Teniendo en cuenta que el euskera, como cualquier otra lengua, difícilmente sobrevivirá en condiciones de aislamiento* (PSE-EE, 2001, 2005). Modu horretan, kulturartekotasunerako aldarrikapena presente egin dau.

Euskarari ezarritako alkarketekaz amaitzeko, aipatu beharra dago PSE-EEK euskara komunikazio tresna moduan be definitu izan dauala behin baino gehiagotan. *Los socialistas entendemos el euskera como un vehículo de comunicación* (PSE-EE, 2005).

PSE-EEK **gaztelania** bera beratarra bost esaldi-muinetan bakarrik izan dau hizpide alkarloturak ezartzerakoan. Birritan gaztelania alderdikeriagaz batu dau, beste birritan bertako hizkuntzagaz eta beste behin ondareagaz. Alderdikiaren baitan, gaztelaniaren kontrako jarrera salatu dau PSE-EEK, zenbaiten gaztelaniaren kontrako jarrera edota ezin ikusi linguistiko edota ideologikoa. Bestalde, gaztelania bertako hizkuntza moduan izendatu dauanetan alkarketa defentsa kutsuagaz egin izan dau. Hementxe esaldiak: *como si el castellano no fuera una lengua tan propia de los vascos como lo es el propio euskera* (PSE, 1984) edota *como si pudiera ignorarse que el nacimiento del castellano fue el resultado de la interacción de castellanos, vascos, navarros y aragoneses* (PSE, 1984). Aipatzekoa da, gaztelaniaren kontrara, PSE-EEK ez dauala behin be euskara bera bakarrik bertoko hizkuntza moduan definitu; alegia, euskara gaztelaniagaz batera aipatzean egin izan dau bakarrik lotura. Amaitzeko, gaztelaniaren ondare izaera hizkuntza unibertsal moduan definituta burutu dau PSE-EEK 2005ean.

**Estatuko eskualdeko hizkuntzen** gainean alkarlotura bi ezarri dauz PSE-EEK: ondarea eta komunitatearen eraikuntza. Hizkuntza aniztasuna espainiar guztien ondare komun izateko deia eginez: *que éstas diversidades sean patrimonio común de todos los españoles* (PSE-EE, 2005); eta Espainia integratua eraikitzeke lotura kultural eta politikoak indartzeko nahia agertuz. **Etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzek** be alkalotura bakarra jaso dabe: kulturartekotasuna. Hain zuzen, etorkinen alkarbitza eta integrazioa bultzatzea bitartekotza interkulturalerako zerbitzua eskainiz.

**Atzerriko hizkuntzak**, zertxobait alkarlotura gehiago bilduta, lehiakortasunagaz, nazioartekotzeagaz eta kulturartekotasunagaz lotu dauz PSE-EEK. Atzerriko hizkuntzek lehiakortasunari begira eskaintzeko dabena 1990ean izan eban hizpide lehenengoz PSE-EEK. Bere hitzetan, *el conocimiento de lenguas extranjeras va a constituir un importante factor de competitividad de nuestra economía en unos mercados cada vez más integrados*

(PSE, 1990). Nazioartekotzeko bidea be atzerriko hizkuntzen ezagutzatik dator, *porque de ello depende una parte importante de nuestra capacidad para contribuir a la construcción de la unidad europea* (PSE, 1990). Gainera, atzerriko hizkuntzak ezagutzeak beste errealitate batzuk ezagutu eta eurekaz komunikatzeko aukera eskaintzen dau: *permite la comunicación y el conocimiento de otras realidades* (PSE-EE, 2005).

**Ingelesari** atxikitako errealitateak atzerriko hizkuntzei atxikitakoen ildo beretik doaz. Ingelesa nazioarteko hizkuntza moduan definitua izan da – *principal lengua extranjera, lengua internacional e intraeuropea de comunicación* (PSE-EE, 2012)-, eta baita nazioartekotzeko eta ekonomikoki lehiakorrek izateko bide. Bestalde, ingelesa euskara eta gaztelaniagaz batera hizpide izan danetan ezarritako loturak jarraipena eta apurketa dakarre, era berean. Hiru dira ezarritako loturak, bakoitza behin: nazioartekotzea, modernitatea eta alderdikeria. Alderdiaren ustetan, hezkuntza hirueledun batek herritartasun europarrean parte hartze erabatekoa ahalbidetzen dau (2009), hezkuntza modernizatzeo aukera eskaintzen dau (2009) eta, era berean, eredu hirueledunean aurrera egiteko alderdikeria baztertzeko beharra agertzen dau (2009).

Bestalde, eleaniztasuna kulturartekotasunagaz lotu dau gehiengoan PSE-EEk, baina baita nazioartekotzeagaz, aberastasunagaz, lehiakortasunagaz eta komunikazio tresna izateagaz. Eleaniztasunak kulturartekotasuna dakar inguruko hizkuntzei zabalduz: etorkinen hizkuntzei, Europako hizkuntzei. PSE-EEren hitzetan: *para los socialistas vascos el multilingüismo en la Europa del futuro no significa una simple respuesta a la flexibilización del mercado laboral, sino que es a un tiempo el sueño de una cultura del abrazo de culturas y lenguas* (PSE-EE, 1994). Mundu globalizatuak, nazioartekoak, gainera beragaz dakar eleaniztasunaren beharra; lehiakorrek izateko, behinik behin. Eleaniztasunaren aberastasuna hizkuntza anitzen ezagutzak beragaz dakarren pentsamendu askearen indartzean funtsatzen dau alderdiak. Era berean, eleaniztasunak komunikazio interpersonalari be eskaintzen deutsoz onurak. Estatu mailan eleaniztasunak Estatu Espainiar integratuari ateak zabaltzen deutsoz, lotura kultural eta politikoak indartzeko eta eleaniztasuna aurreiritzi barik barneratzeko interesa be adierazten dau, gatazka barik.

Amaitzeko, **hizkuntzak edo hizkuntza politika** modu orokorrean hizpide izan danetan alderdikeria, gatazka, identitatea, modernitatea, nazioartekotzea eta kultura izan dira alkarloturan ezarritako kodeak. Alderdikeriari dagokionean, hizkuntzak proiektu politiko jakinekaz lotzea gaitzetsi izan dau: *ni la lengua vasca ni ninguna otra lengua deberían estar vinculadas a un proyecto político concreto* (PSE-EE, 2012). Bestalde, EAEn gatazka linguistikoak gaintzeko nahia<sup>111</sup> be adierazi izan dau alderdiak, *superando encasillamientos obsoletos entre nacionalistas y no-nacionalistas* (PSE-EE, 2005). Identitateari dagokionean, PSE-EEk identitate anitz eta integratzaileak dauz xede (2012). Era berean, hizkuntzak pluralean modernitateagaz be lotu dauz alderdiak, baita nazioartekotzagaz be. Kulturari

<sup>111</sup>PSE-EEk hizkuntza jakinak aipatzen ez dauzan arren, pentsatzekoa da modu inplizituan euskara eta gaztelaniaren arteko gatazka linguistikoak dauala hizpide.

dagokionean PSE-EEK hizkuntza eta kulturaren arteko lotura itxuraz berezkoa zalantzen jarri dau. Bere hitzetan, *la lengua, al igual que otros códigos, no determina necesariamente la cultura* (PSE, 1980).

### 4. 3. 10. Laburbilduz

---

PSE-EEren hizkuntzen inguruko diskurtsoa gehiengo nagusian euskarari, bera beratara, eta euskara eta gaztelaniari, batera, zuzendua dago. Halaber, 2005az geroztik ingelesak be tarte aipagarria bereganatu dau. Orotara, hizkuntza ofizialen kasuan, PSE-EEren hizkuntzen inguruko diskurtsoak izaera politikoa baino gehiago ideologikoa batu dau. Ostera, nazioarteko hizkuntzen kasuan, ekimen politikoez adierazpen ideologikoei aurre hartu deutse. Bestalde, PSE-EEren diskurtsoa EAera dago bideratua ia erabatean. Halaber, Espainiar Estatuak indar mugatua baina egonkorra izan dau, baita nazioarteak be 2001etik aurrera eta Europar Batasunak 2005etik aurrera. PSE-EEren diskurtsoaren herena hezkuntza alorrera zuzendua dago. Dana dala, hizkuntza politikaren arlo orokorra, kultura, herri administrazioa eta gizartea be esparru indartsuak izan dira. Hizkuntza politikaren azken helburuei dagokionean, elebitasuna da PSE-EEren xede errepikatua, hain zuzen, elebitasun orekatua.

PSE-EEK hizkuntza politika ekimen gehien hizkuntza eskubideei zuzendu deutsoz. Alderdiak hizkuntza eskubideak orokorrean mintzagai hartu dauzanetan, gehien aipatutako ideiak hizkuntza arazoiekaitik bazterketarik ez burutzea eta aukera askatasuna bermatzea izan dira. Barriz, euskara erreferentzia moduan hartu dauanetan, ideia indartsuenak euskara ezagutza ezagaitik baztertuta ez izatea eta euskara ez inposatzea izan dira. Aipatzekoa da, hizkuntza eskubideak politika alor gehienetan izan dauzala helburu alderdiak. Era berean, gaur egun indarrean dagozan hizkuntza politika neurrien ebaluaketa eta erreforma beharrak be presentzia handia bereganatu dau alderdiaren ekimenetan. Euskarari bideratutako proposamen politikoetan berau sustatzera, ikastera eta erabiltzera zuzendutako politikak be izan dira. Halaber, PSE-EEK bi hizkuntza ofizialak neurri berean babesteko nahia agertu dau eta, horrela, kultura esparruan bi hizkuntzentzako sustapen politikak bideratu dauz.

Nazioarteko hizkuntzei eta, 2005etik aurrera, ingelesari zuzendutako politika ekimenak bere ikasketa indartzera bideratu dauz. Egitez, PSE-EEren politika izarra hezkuntzarako marko hirueleduna (euskara, gaztelania, ingelesa) da. Etorkinei dagokionean, bitartekotza linguistikoa indartzeko zerbitzuak, euren hizkuntzak babesteko konpromisoa eta euskara eta gaztelania ikasteko neurriak izan dira proposatutakoak.

Hizkuntza politikak bideratzeko moduen gainean, PSE-EEK akordioari, moderazioari, egingarritasunari, errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuta jarduteari, herritarren borondatea kontuan izateari eta oinarri identitarioak alboratuta jarduteari eskaini deutso garrantzia. Bestalde, euskaldun eta gaztelaniadunen arteko bizikidetzeta linguistikoari be




tarte handia eskaini deitso; mintzairon inguruan hautemandako gatazka linguistikoa eta alderdikeriari aurre egiteko. Aipatzekoa da baita be, euskara eta gaztelania era berean definitu dauzala bertako hizkuntza eta ondare kulturala. Nazioarteko hizkuntzak, ingelesa eta eleaniztasuna orokorrean nazioartekotzeagaz, lehiakortasunagaz eta kulturartekotasunagaz batu dauz

#### 4. 4. PARTIDO POPULAR

##### 4. 4. 1. Hizkuntzen presentzia

PPk aztergai diren legebiltzarrerako hauteskunde programetan hizkuntzen alorrari eskaini deitson tarte  $\%3,8$ koa izan da batazbestean (ikusi 4.10. grafikoa). Halaber, hauteskunde urterik urtera ehuneko hori aldatuz joan da. 1986ko hauteskunde programa izan da hizkuntzei leku handiena eskaini deitsona ( $\%7$ ). 1990ko beherakada handiaren ostean ( $\%2,3$ raino jeitsiz), hizkuntzen alorrak goranzko presentzia egonkorra bildu dau 2012ko hauteskunde programara arte non, beste behin, beherakada esanguratsua izan dauan ( $\%3,6$ rainokoa).

#### 4.10. GRAFIKOA. DISKURTSO LINGUISTIKOA PP-REN HAUTESKUNDE PROGRAMETAN. 1984-2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA)\*




\* Ehunekoak lortzeko hauteskunde programa bakoitzaren hitz-kopuru osoa eta hizkuntzei buruz diharduen esaldimainen hitz-kopurua hartu dira kontuan.

Iturria: norberak egina.

#### 4.4.2. Eduki mota

PPren legebiltzarreko hauteskunde programetako hizkuntzen inguruko diskurtsoa ekimen zalea baino ideologikoagoa da. Zehazki, batzbesteko datuak aintzat hartuta, mintzagaiaren %59,64 adierazpen ideologikoei zuzendua dago eta %40,36 ekimen politikoei (4.11. grafikoa). Halaber, aztergai doguzan azken bi hauteskunde programetan ekimen politikoak izan dira adierazpen ideologikoen aurretik gailendu direnak, hizpidearen %57,34 batuta 2009an eta %60 2012an.

##### 4.11. GRAFIKOA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN EDUKI MOTA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012 (% HORIZONTALAK)



*Iturria: norberak egina.*

#### 4.4.3. Hizkuntza joko

PPren diskurtso linguistikoan bi izan dira modu argian gailendu diren hizkuntza ala hizkuntza konbinaketak; hain zuzen, euskara, batzbesteko hizpidearen %48,58 batuta, eta euskara eta gaztelania, %35,19 eginez (ikusi 4.43. taula). Dana dala, aipatzekoa da zenbait hauteskunde deialditan euskara-gaztelania konbinaketak euskarari aurrea hartu deusola. Euskarak eta euskara eta gaztelaniak bereganatu ez daben hizpidea beste mintzaira batzuk egin dabe bere; bereziki, hizkuntzek modu orokorrean (%7,34) eta gaztelaniak (%5,09). Atzerriko hizkuntzak, ingelesa eta etorkinen hizkuntzak be izan dabez hizpide, baina oso modu bazterrekoan (ikusi 4.43. taula).

4.43. TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN  
HIZKUNTZAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbes- tekoa
<b>Hizkuntzak orokorrean</b>	4,55	0	6,52	0,91	4,90	0,83	10,46	13,99	20	7,34
<b>Euskara</b>	28,79	30	52,17	45,45	49,02	65	58,82	48,25	23,08	48,17
<b>Gaztelania</b>	21,21	5	2,17	1,82	5,88	6,67	4,58	2,1	0	5,09
<b>Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	1,31	1,40	10,77	1,30
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	45,45	65	36,96	50,91	35,29	27,50	22,22	32,87	32,31	35,50
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0,65	1,40	10,77	1,18
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	2,17	0,91	1,96	0	1,96	0	3,08	1,07
<b>Etorkinen hizkuntzak</b>	0	0	0	0	2,94	0	0	0	0	0,36
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	66	40	46	110	102	120	153	143	65

*Iturria: norberak egina.*

#### 4.4.4. Alorra

PPk ekimen politiko eta adierazpen ideologikoak politika alor desbardinetara bideratu dauz. Irakaskuntza izan da presentzia handiena lortu duan alorra, batazbesteko hizpidearen %25,44 batuta. Halaber, herri administrazioak, kulturgintzak eta hizkuntzen alor orokorrak be ehuneko handiak lortu dabez, hurrenez hurren %21,3, %19,76 eta %18,11. Gainontzeko esparruen presentzia askoz murriztagoa izan da. Gizarte bizitzak mintzagaiaren %6,27 bildu dau, komunikabideek %4,38, esparru juridikoak %3,79 eta lan munduak %0,95 ahula. Teknologia barriak, barriz, ez dira landuak izan (ikusi 4.44. taula).

Aipatzekoa da alor orokorren agerpena nahiko egonkorra izan dala hauteskunde deialdirik deialdi, lan munduarena salbu. Azken hau bi programetan (1998, 2009) bakarrik izan da hizpide.

4.44. TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN POLITIKA ALOR OROKORRAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Herri administrazioa</b>	1,52	7,50	15,22	17,27	24,51	26,67	16,34	39,16	18,46	21,30
<b>Irakaskuntza</b>	24,24	17,50	28,26	18,18	28,43	16,67	28,10	20,28	58,46	25,44
<b>Komunikabideak</b>	4,55	42,50	15,22	6,36	0,98	0	0	0,70	1,54	4,38
<b>Teknologia barriak</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Lan mundua</b>	0	0	0	0	3,92	0	0	2,80	0	0,95
<b>Kulturgintza</b>	27,27	10	2,17	30,91	15,69	15,00	26,14	17,48	16,92	19,76
<b>Gizarte bizitza</b>	19,70	10	6,52	5,45	2,94	4,17	7,19	4,20	3,08	6,27
<b>Esparru juridikoa</b>	6,06	0	6,52	1,82	4,90	6,67	4,58	2,10	0	3,79
<b>Orokorrean</b>	16,67	12,50	26,09	20,00	18,63	30,83	17,65	13,29	1,54	18,11
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	66	40	46	110	102	120	153	143	65
		66	40	46	110	102	120	153	143	65

*Iturria: norberak egina.*

Alor orokorren baitan bereizten diren politika azpi-alorren agerpena ikertzen bada, honakoak aipatu daitezke Herri administrazioa alor orokorrak gehiengoa bereganatu arren, bere baitako beste azpi-alor batzuk be batu dabe mintzagaiaren atal aipagarria: osasun sistemak, ordezkari politikoek, epaitegiek, ertzaintzak edota hizkuntza politika sailburuordetzak. Irakaskuntzaren kasuan eskolak bildu dau batzbesteko hizpidearen ia gehiengo osoa, unibertitate eta ikerketa zentroi, hizkuntza eskolei eta lanbide heziketari oso tarte murrizta eskainiz. Komunikabideen kasuan EiTb nagusitu da modu argian. Gainontzeko politika esparruetan, barriz, alor orokorrak izan dira mintzagaiaren gehiengo nagusia bereganatu dabenak. Izatez, kodifikazioan bereiztutako 35 azpi-alorretatik, PPK 21 izan dauz hizpide. Hortaz, azpi-alor guztien %60.

#### 4.4.5. Aplikazio esparrua

PPren hauteskunde programetako ekimen politiko eta adierazpen ideologikoen esparru geografikoa aztergai hartuta, aplikazio lurralde ia ia bakarra EAE izan da; batazbesteko datuak aintzat hartuta hizpidearen %98,1 bere eginda (ikusi 4.45. taula). EAE ez beste aplikazio esparruen artean, Espainiar Estatua, nazioartea eta eremu lokal eta estrategikoak hartu dauz bere ekimen politiko eta adierazpen ideologikoen aplikazio esparru. Horreetatik, Espainiar Estatua izan da agerpen egonkorra bereganatu dauan bakarra, nahiz eta 80 eta 90 hamarkadetan bakarrik. Aipatzekoa da PPK ez dauzala Euskal Herria eta Euskal Herriak beregain hartzen dauzan lurraldeak, diaspora eta Europar Batasuna bere proposamen politiko zein adierazpen ideologikoen aplikazio esparrutzat jo.

4.45.TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN APLIKAZIO ESPARRUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Lokala</b>	0	0	0	0	0,98	0	0	0	0	0,12
<b>Eremu estrategikoak</b>	0	0	0	0	1,96	0	0	0	0	0,24
<b>EAE</b>	93,94	97,50	97,83	95,45	96,08	99,17	100	100	100	98,11
<b>Espainiar Estatua</b>	4,55	2,50	2,17	2,75	0,98	0	0	0	0	1,07
<b>Nazioartea</b>	1,50	0	0	1,82	0	0,83	0	0	0	0,47
<b>Guztira %</b>	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
<b>N =</b>	66	40	46	110	102	120	153	143	65	845

*Iturria:* norberak egina.

#### 4.4.6. Azken helburuak

PPk bere hizkuntza politikaren bidez lortu gura dauzan azken helburuak zehazteari tarte oso txikia eskaini deuto; modu esplizitu eta zuzenean, behinik behin. Zehazki, hizkuntzen inguruko hizpide osoaren %1,07 bideratu dau egiteko honetara, 9 esaldi-muinen baliokide

dana (ikus 4.46. taula). Aipatzekoa da, gainera, 1986, 2001 eta 2009ko hauteskunde programetan adierazpen bakarra be ez dala azken helburuetara bideratu.

4.46.TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN PRESENTZIA PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN. 1984-2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Azken helburuen ehunekoa</b>	1,52	0	2,17	2,73	0,98	0	0,65	0	3,08	1,07
N =	66	40	46	110	102	120	153	143	65	845

Iturria: norberak egina.

Azken helburuen presentziaz gainera, helburuon edukien nolakotasuna aztertzen badugu, PPK normalizazioa (5 esaldi-muin), elebitasuna (2 esaldi-muin) eta eleaniztasuna (2 esaldi-muin) mintzagai izan dauzala aipatu beharra dago; ez ostera hizkuntza bateri lehentasuna eskaintzea. Hiru helburuok modu ez jarraituan izan dira aipatuak: normalizazioak 1990, 1994 eta 2005ean jaso dauz aipamenak; elebitasunak 1984 eta 1998an eta eleaniztasunak, barriz, 2012an.

4.47.TAULA. PP-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Elebitasuna</b>	100	0	0	0	100	0	0	0	0	22,22
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	100	22,22
<b>Normalizazioa</b>	0	0	100	100	0	0	100	0	0	55,56
<b>Lehentasunezko hizkuntza</b>	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira %	100	0	100	100	100	0	100	0	100	100
N =	1	0	1	3	1	0	1	0	2	9

ITURRIA: norberak egina.

Datuak aztertuz, alderdiak azken helburu moduan kodetutako aipuetatik 4 alor orokorrera zuzendu dauz eta beste bostak politika alor jakinetara: 3 hezkuntzara eta bana herri administrazio eta gizarte bizitzara. Komunikabide, teknologia barri, lan mundu, kultura gintza zein esparru juridikora ez dau azken helburu bat bera be bideratu.

4.48. TAULA. PP-REN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN POLITIKA ALORRAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		44,44
Herri administrazioa		11,11
Irakaskuntza		33,33
Komunikabideak		0
Teknologia barriak		0
Lan mundua		0
Kulturgintza		0
Gizarte bizitza		11,11
Esparru juridikoa		0
Guztira	%	100
	N =	9

*Iturria: norberak egin.*

Arlo orokorrera bideratutako azken helburuak elebitasuna (birritan) eta normalizazioa (birritan) izan dira. Hezkuntzara egindakoak, barriz, eleaniztasuna lehenengo (birritan) eta normalizazioa bigarren (behin). Bestalde, herri administrazioari eta gizarteari begirako azken helburu bakarra normalizazioa izan da (behin aipatua).

Arlo orokorrean elebitasuna helburu moduan ezartzean, PPK bi baieztapen honek egin izan dauz: 1984an elebitasun naturalaren lorpena defendatu eban. *La Coalición Popular en el País Vasco defiende la consecución de un bilingüismo natural* (PP, 1984) eta 1998an elebitasunaren defentsa: *se defenderá el bilingüismo* (PP, 1998). Bestalde, eleaniztasunaren aldeko aldarria eskola elebidunetik hirueledunera pasatzeko proposamena burutuz egin dau behin: *cambiar un sistema de inmersión bilingüe por una escuela trilingüe abierta al mundo* (PP, 2012). Halaber, euskararen normalizazioa aipagai izan dan esaldi-muinetan PPK birritan euskararen normalizazioa defendatzen dauala baieztatu dau, 1990 eta 1994ko hauteskunde programetan, zehazki, honakoa esanez: *el Partido Popular del País Vasco –tal como ha hecho en la pasada legislatura- defenderá la recuperación y normalización del euskera* (PP, 1994). Normalizazioaren alde, baita be, 2005eko hauteskunde deialdian euskara batuaren normalizazioaren defentsa egin dau. Baina hori guztia horrela, aipatu beharra dago, esaldi-muin apurrotan euskararen normalizazioaren defendatzaile agertu dan arren, normalizazioak beragaz dakarzan neurriekaz be kritiko kokatu dala, bai irakaskuntzan baita herri administrazioan be, bazterketa arriskuak sortu daikezala begitaraziz.

#### 4.4.7. Hizkuntza politika proposamenak

Atal honen bitartez, PPK mintzaira desbardinei bideratutako hizkuntza politika ekimen zehatzak zeintzuk diren ikertu gura da. Baina horren aurretik, PPren hizkuntzen inguruko diskurtsoa proposamen politikoetara baino adierazpen ideologikoetara zuzenduago dagoela gogoratzea komeni da. Esana da, aztergai diren bederatzi programetatik adierazpen ideologikoak zazpitan nagusitu dirala, hain zuzen, 1984tik 2005era doazan hauteskunde programetan. Proposamen politikoak, ostera, 2009 eta 2012ko hauteskunde programetan gailendu dira (ikusi 4.49. taula). Hizkuntza politikari zuzendutako proposamen moten aniztasunari dagokionean, orokorrean urteak pasa ahala goranzko joera nagusitu dala baieztatu daiteke, nahiz eta 2012ko hauteskunde deialdian erorketa izan dan. Aldi berean, aipatzekoa da, PPren bederatzi hauteskunde programak batera hartuta, kode zerrendan bildutako 29 ekimen motetatik 19 landu izan dauzala.

4.49.TAULA. PP-REN HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN INGURUKO DATU ZENTRALAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa ala guztira
Hizkuntzen gaiari hauteskunde programetan eskainitako ehunekoa	2,3	7,0	2,3	1,9	2,7	3,6	5,0	6,3	3,5	3,8
Hizkuntza politika eduki motara zuzendutako esaldi-muin kopurua	20	13	22	31	46	37	51	82	39	341
Hizkuntzen diskurtsoan hizkuntza politika eduki motak bildutako ehunekoa	30,30	32,50	47,83	28,18	45,10	30,83	33,33	57,34	60	40,36
Hizkuntza politika ekimen mota kopurua	6	7	7	8	11	9	14	13	10	19

*Iurria: norberak egina.*

Hizkuntza politika proposamenak mintzaira desbardinei zuzendu deutsoz PPK. Proposamen gehien bereganatu dauzan hizkuntza euskara izan da, berak beratarra ekimenen %45,75 batuta (ikusi 4.50. taula). Baina euskarak eta gaztelaniak alkartuta be proposamenen ehuneko handia bereganatu dabe, zehazki %37,34; eta gainera, zenbait hauteskunde deialditan euskarari bera beratarra aurea hartuta. Horixe da 1984, 1986, 1994 eta 2012ko hauteskunde programen kasua. Bestalde, gaztelaniak bera beratarra be bildu dauz 2009ra arte ekimen politikoak modu



jarraituan; nahiz eta askoz era ahulagoan. Batzbesteko datuak aintzat hartuta, proposamenen %3,52 izan da gaztelaniarentzako (ikus 4.50. taula).

4.50.TAULA. PP-K HIZKUNTZA DESBARDINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1984-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
Hizkuntzak	5	0	0	3,23	4,35	2,70	5,88	7,32	7,69	4,99
Euskara	35	15,38	54,55	41,94	47,83	54,05	60,78	50	20,51	45,75
Gaztelania	5	15,38	4,55	3,23	4,35	5,41	3,92	1,22	0	3,52
Ingelesa	0	0	0	0	0	0	3,92	2,44	15,38	2,93
Euskara & Gaztelania	55	69,23	36,36	48,39	36,96	37,84	17,65	36,59	35,90	37,24
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	1,96	2,44	15,38	2,64
Atzerriko hizkuntzak	0	0	4,55	3,23	4,35	0	5,88	0	5,13	2,64
Etorkinen & Gitxiengo etnikoen hizkuntzak	0	0	0	0	2,17	0	0	0	0	0,29
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	20	13	22	31	46	37	51	82	39

*Iturria:* norberak egina.

Euskarak eta gaztelaniak PPre politikaren ekimenen gehiengoa batu daben arren, beste mintzaira batzuk be egin dauz politiken jasotzaile. Aipatzekoak dira atzerriko hizkuntzak eta ingelesa, edota etorkinen hizkuntzak. Atzerriko hizkuntzak 1990ean lehenengoz politika proposamenen xede bihurtu ziranetik, presentzia nahiko egonkorra bildu dabe, batzbestean, proposamenen %2,64 batuta. Ingelesa, barriz, azkenengo hiru hauteskunde programetan (2005, 2009, 2012) izan da landua, berak beratararen ekimenen %2,93 batuta eta euskara eta gaztelaniagaz batera proposamenen %2,64 bilduta (4.50. taula). Bestalde, **etorkinen hizkuntzek** proposamen bakarra jaso dabe; alegia, hezkuntza alorrean etorkinen seme-alabek euren hizkuntza eta kultura mantentzeko klase osagarriak bideratzea, gazteon integrazio soziala lortzeko bide moduan.

## Nazioarteko hizkuntzei zuzendutako proposamen politikoak

Atzerriko hizkuntzei bideratutako ekimenen artean gailendutakoa hezkuntza sisteman ume eta gazteek mintzairok ikastea izan da, helburutzat honakoa izanik: *que todos los alumnos culminen su educación obligatoria con el conocimiento de, al menos, una lengua extranjera* (2012). Hizkuntza eskolei begira, 1990 eta 1994ko hauteskunde programetan hizkuntzen

ikasketa dohakoa izatea proposatu dau; eta unibertsatean atzerriko unibertsitateekaz titulu partekatua bultzatzea (2012).

Ingelesari zuzendutako politika ekimenak be mintzaira horren ikaskuntzara bideratu dauz alderdiak, bai ikasleek baita irakasleek ingelesa ikasi dagien, EAEn zein atzerrian. *Se promoverán programas de aprendizaje de inglés para el profesorado* (PP, 2012, 2009); *se establecerá con carácter general la iniciación de un idioma extranjero comunitario (preferentemente el inglés) a los tres años* (PP, 2005); etab. Ingelesa euskara eta gaztelaniagaz batera hizpide izan danetan bateratze linguistikoaren eredia izan da proposatutakoa. PPK irakaskuntza hirueledunerako apustua egin dau hizkuntzak ikasteko bide moduan: *impulsaremos un sistema educativo que garantice el aprendizaje de idiomas, por lo que impulsaremos una educación trilingüe* (PP, 2012). Proposamen hau 2005ean egin eban lehenengoz PPK eta urteak pasatu ahala indarra hartzen joan da aipamen gero eta gehiago batuz, batez be 2012an.

### Gaztelaniari zuzendutako proposamen politikoak

EAEko hizkuntza ofizialak mintzagai hartuta, gaztelaniari zuzendutako politika ekimenetatik abiatuko gara. Gaztelaniak bereganatu dauzan proposamen gehienak ez dira oso errepikatuak izan. Aztergai doguzan lehenengo hauteskunde deialdietan PPK gaztelaniadunen hizkuntza eskubideak aldarrikatu dauz, bai hezkuntzako irakasle gaztelaniadunenak baita herritar gaztelaniadunenak be. Hezkuntza arloan irakasle eradaldunen hizkuntza eskubide jabetuak errespetatzea aldarrikatu dau: *respetar los derechos adquiridos* (PP, 1986, 1990) eta EiTbN euskal herritarren gehiengoari hobeto erantzutea, hau da, gaztelaniadunak ez baztertzea euskara lehenesteagaitik: *Euskal Telebista (...) debe servir mejor a los intereses de la mayoría de los ciudadanos vascos. Sin embargo, Euskal Telebista no responde a la realidad de la sociedad vasca, que se define por su pluralismo; ETB utiliza en su programación el euskera batua, con exclusión casi total del castellano y de los dialectos euskéricos* (PP, 1986). PPK herri administrazioan eta komunikabideetan euskararen erabilera aurrerakorra eta borondatezkoa defendatzen dauan era berean, zaindu gura izan dau gaztelaniaren erabilera (1984). Ildo horretatik, gaztelaniaz burutzen dan kultura babesteko konpromisoa be adierazi dau alderdiak (1994). Era berean, gaztelania ezagutzen ez daben etorkinei hezkuntza sistamarako sarrera errazteko baliabideak eskaintzea proposatu dau (2009).

Aipamen berezia merezi dau 1998tik 2009ra arte modu egonkorrean epaitegietan gaztelaniaren erabilerearen alde egindako aldarria, euskararen erabilerearen eskaerari zilegitasuna kenduz. PPreun ustetan, *carece de sentido dar carta de naturaleza, desde el Gobierno Vasco o desde el Consejo General del Poder Judicial, a cuestiones que no son problemas reales del funcionamiento de la Justicia* (PP, 1998, 2001, 2005), *no se debe dar carta de naturaleza a polémicas artificiales o exigencias minoritarias que, al margen de la legalidad y la realidad social, sólo dificultan el funcionamiento de la Justicia* (*Juicios en euskera, euskaldunización de jueces y magistrados, polémicas sobre plantillas, etc.*) (PP, 2009).

## Euskara eta gaztelaniarentzako politika proposamenak

Euskara eta gaztelania modu bateratuan politika ekimenen xede bilakatu direnetan, hizkuntza eskubideen defentsa izan da modu argian gailendu dan ekimena, zehazki proposamenen %62,5 bere eginda (ikus 4.51. taula). Hizkuntza eskubideok hauteskunde deialdi guztietan eta politika alor desbardinetan izan dira aldarrikatuak: herri administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan, lan munduan, kulturean, esparru juridikoan, zein esparru orokorrean. PPren hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoan presentzia handia bereganatu dauan ideia euskara eta gaztelaniaren ezagutza eta erabileran banakakoaren askatasuna errespetatzea izan da. Ideia hori modu jarduntsuan izan da errepikatua hauteskunde deialdirik deialdi: *respeto a la libertad de cada ciudadano para expresarse en el idioma que quiera* (AP, 1984); *el Partido Popular del País Vasco pugnará allá donde haga falta para que lo que caracterice el uso y conocimiento tanto del Castellano como del euskera sea la libertad* (PP, 1998); *toda política lingüística deberá respetar la libertad personal de los ciudadanos en el ejercicio de su derecho al conocimiento y utilización de cualquiera de las dos lenguas de nuestra Comunidad* (PP, 2001); *se respetará la libertad personal de los ciudadanos, tanto en el conocimiento como en la utilización de cualquiera de las dos lenguas de nuestra comunidad* (PP, 2005, 2009), etab.

### 4.51. TAULA. PP-K EUSKARA ETA GAZTELANIARI ALDI BEREAN BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Lan	Kul.	Jurid.	Batazbestekoa
H. babestu, bultzatu	5,56	0	1,20	0	0	11,76	0	2,50
Legedia: mantendu	0	0	1,20	0	0	0	0	0,63
Legedia: aldatu	0	10	0	0	25	0	0	1,25
Hizkuntza eskubideak	77,78	90	56,63	38,46	75	41,18	100	62,50
Aukeraketa banatuaren eredia	0	0	8,43	0	0	0	0	4,38
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	0	0	0	0	0	35,29	0	3,75
Baliabide tekniko, giza, materialak	0	0	0	0	0	5,88	0	0,63
Planifikazio soziolinguistikoa	16,67	0	0	0	0	5,88	0	2,50
Ebaluaketak, erreformak	0	0	15,66	53,85	0	0	0	12,50
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	0	0	4,82	0	0	0	0	2,50
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	0	0	12,05	7,69	0	0	0	6,88
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100
	N =	18	10	83	13	4	17	160

Iturria: norberak egina.

Banakakoaren askatasunaren errespetua hizkuntza arrazoiekaitik diskriminatua ez izateagaz agertu dau sarritan PPK: *de acuerdo con la Constitución y el Estatuto de Autonomía, nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua* (PP, 1994, 2001, 2005), bazterketak ekiditzeko neurriak hartzea botere publikoen eginkizun moduan joaz: *los poderes públicos han de adoptar las medidas reales oportunas para que nadie sea discriminado por la razón de la lengua en la Comunidad Autónoma del País Vasco* (AP, 1984). Aipatzekoa da hizkuntza diskriminazioak ekiditzez gainera, 1994ko programan herritar bakoitzak euskara edo gaztelania hitz egiteko eskubidea izanik, berau bideragarri egiteko betebeharra be ezarri ertsola euskal funtzio publikoari: *frente al derecho de cada ciudadano para expresarse en euskera o castellano corresponde el deber de la Función pública Vasca de hacer posible el ejercicio del mismo* (PP, 1994).

Modu orokorrean azaldutako ideioak politika alor desbardinetan be gorpuztu dauz PPK. Esaterako, hezkuntzan behin eta barriro errepikatu dau hizkuntza aukera askatasunaren eskubidea: *ejercicio del derecho a la libre elección del modelo lingüístico* (AP, 1984, 1990); *libertad real de los padres, y en su caso, alumnos, para elegir el centro educativo y el modelo lingüístico de enseñanza que deseen* (PP, 1998, 2001). PPK familiei euren umeen eskola hizkuntza aukeratzeaz gainera, behin baino gehiagotan azpimarratu dau ama hizkuntzan eskolaratzeko eskubidea: *el Gobierno Vasco debe garantizar por ley el derecho de las familias a la libre elección de la lengua vehicular en la enseñanza, así como el derecho de escolarización en la lengua materna en todo el territorio de la C.A.V.* (PP, 2009). Hizkuntzaren aukera askatasuna aldarrikatzeaz gainera, PPK ikaskuntza mintzaira bat edo beste aukeratzeko bardintasuna defendatu izan dau: *el Partido Popular defiende la igualdad de derechos de quienes matriculan a sus hijos en cualquiera de los actuales tres modelos educativos (A, B y D) y la legitimidad de su opción* (PP, 2009, 2012). Aurreko adibideetan ikusten dan moduan, hezkuntzan euskara eta gaztelania hizkuntza eskubideen leku-mugan ezarri izan danetan PPK ikasleak eta euren familiak ezarri dauz hizkuntza eskubideen jasotzaile.

Herri administrazioan be izan dira hizkuntza eskubideak hizpide, nahiz eta neurri txikiagoan. PPK 1998ko hauteskunde programan herritarren euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko eskubidea izan dau aipagai, baita herri administrazioaren betebeharra berau egingarri egiteko be: *derecho de cada ciudadano para expresarse en euskera o castellano* (PP, 1998) eta *el deber de la Administración Pública Vasca de hacer posible el ejercicio del mismo* (PP, 1998). Herritarren herri administrazio baitako hizkuntza eskubideak eta herri administrazioaren betebeharra aipatzerakoan interesgarria da 2005eko hauteskunde programan PPK egindako zehaztasuna aditzera emotea. Herri Administrazioaren eginkizuna mintzagai hartuta, herritarren interes objektiboen zerbitzura dagoela azaltzen dau, eta norabide horretan herri administrazioa profesionalizatzeko neurri gisa hizkuntza eskakizunak murrizteko proposamena bideratzen dau. Halaber, herri administrazioaren baitan hizkuntza eskubideak langai hartuta, PPK herritarren eskubideak baino langileenak sarriagotan izan dauz hizpide, zehazki, herri administrazioan lan egiteko sarrera bardintasun eskubidea: *derecho al principio constitucional de igualdad en el acceso a la función pública* (PP, 2009,

2012). Eskubide horren aldarrikapena Osakidetzaren baitan behin baino gehiagotan egin izan dau PPK: *garantizar la igualdad en el acceso a una plaza en Osakidetza* (PP, 2009, 2012).

Bestalde, kultura eta komunikabideen arloan kulturgileen hizkuntza eskubideak izan dauz mintzagai alderdiak: *garantizaremos la libertad de expresión y de creación, tanto en euskera como en castellano, de los intelectuales y artistas, así como de los medios de comunicación* (PP, 2009, 2012). EiT Bren kasuan, herritarrak bihurtu dauz beste behin eskubideen jasotzaile: *la lengua no debe constituir impedimento para que todos los ciudadanos accedan a esa información* (PP, 1990); *todo ciudadano tiene derecho a servirse de la información que le proporcionan sus medios propios de comunicación* (AP, 1986).

Euskara eta gaztelania hizpide hartuta, lan munduko hizkuntza eskubideak 2009ko hauteskunde programan bakarrik aipatu dauz PPK. Bertan eskubideen subjektu komertzioak eta profesional liberalak bilakatu dauz: *para garantizar la libertad en el ámbito del comercio y de las profesiones liberales en materia lingüística, suprimiendo los condicionamientos o las posibilidades de imposición de sanciones por la lengua de rotulación de los productos o el idioma en que se atienda al público* (PP, 2009).

Badirudi hizkuntza eskubideak maila orokorrean hizpide direnean eskubideen subjektu herritarrak izaten direla, baina hizkuntza eskubideok alor ala ekintza zehatzetan konkretizatzen direnean herritarrak subjektu izateari izten deusela, herritarren mintzaidea bihurtuz subjektu barri: irakaslea, langilea, kulturgilea.

Euskara eta gaztelania modu bateratuan politika ekimenen xede izan direnetan, ebaluaketa eta erreformak be ekimen errepikatu izan dira, hizkuntza eskubideen ostean bigarren postuan kokatuz hizpidearen %12,5egaz (ikus 4.51. taula). Halaber, esan beharra dago, ebaluaketa eta erreformak hezkuntza eta komunikabide esparrura mugatu dauzala PPK. Hezkuntza alorrean, 1986tik 1998ra bitartean, alderdiak hezkuntza eredu ebaluaketa bideratzea proposatu dau, hau da, hezkuntza ereduak ezartzen dauan hizkuntza ume eta gazteek zein neurritan ikasten daben neurtzea, baita eredu eta eskola porrotaren artean loturarik dagoen aztertzea be: *La Secretaría de Política Lingüística valorará periódicamente los resultados del aprendizaje en cada modelo y del nivel de utilización social para, en su caso, establecer los elementos correctores necesarios* (PP, 1990). Zentzu horretan, interesgarria da azpimarratzea PPK sentsibilizazio, kanpainak eta informazio kodearen baitan bereganatu dauzan aipamenak hezkuntza eredu inguruko informazio objektiboa eta egiazkoa eskaintzera bideratu daua. *La realización de una información objetiva a los padres por parte de los poderes públicos, sobre las ventajas e inconvenientes de los modelos lingüísticos en la enseñanza no universitaria, según los distintos factores ambientales* (PP, 1986). Erreforme dagokionean PPK 1998ko hauteskunde programan Eskola Mapa berrikusteko beharra adierazi eban eta 2001ean, oster, berau erreformatzekoa. *Reforma del Mapa Escolar en función de la situación sociolingüística de la zona de influencia de los centros y en base a la demanda social* (PP, 2001).

Komunikabideen kasuan erreforma beharra EiTbra zuzendua egon da. 1986, 1990 eta 1994ko hauteskunde deialdietan EiTbren bi kanalak bakarrera murrizteko nahia adierazi dau. *El Partido Popular del País Vasco reafirma su convencimiento de que con un único canal de televisión pública, se puede dar adecuada respuesta al objetivo de servicio público, tanto desde el punto de vista lingüístico, como desde el cultural, educativo informativo, etc.* (PP, 1994).

Euskara eta gaztelaniari zuzendutako hirugarren ekimen indartsuena finantzaketa, diru laguntza eta hitzarmenei bideratutakoa izan da, batzbesteko proposamenen %6,88 bere eginda (ikusi 4.51. taula). Erreforma eta ebaluaketen kasuan lez, finantzaketari lotutako ekimenok be hezkuntza eta komunikabide alorrean kokatzen dira. Egitez, komunikabideek finantzaketa proposamen bakarra jaso dabe; zehazki 1990ean EiTbk jaso eban, autonomia erkidegoko aurrekontu orokorretan katearen gehiegizko pisua ekiditzeko bere autonomia ekonomikoa bultzatzea proposatuz: *se tenderá a la autonomía económica, a fin de evitar un peso creciente sobre los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma* (PP, 1990). Irakaskuntzaren baitan hizkuntza-itunak izan dauz hizpide Ppk 2001az geroztik modu jarraituan, esanez, hezkuntza eredu bat edo beste izan eskola eta familia guztiak hezkuntza-itunetara baldintza berberetan sartuko direla: *familias y centros accederán en idénticas condiciones a los conciertos educativos o cualquier otra vía de financiación pública, con independencia del modelo de enseñanza* (PP, 2009, 2012). Era berean, aipatzekoa da 2009an lanbide-heziketa be izan dauala hizpide alderdiak finantzaketa langai hartuta. Bertan lanbide-heziketaren finantzaketa sistema hobetzeko beharra lehenestu dau barrikuntza teknologikoetara egokitu ahal izateko, baina helburu horretatik kanpo dagoen beste xedeen menpe gelditu barik, besteak beste, euskalduntzearen menpe. *Consideramos prioritario acometer una mejora de los sistemas de financiación de los centros de formación profesional, que permitirá la rápida adaptación a la evolución de los procesos tecnológicos, y que no debe quedar subordinada a requisitos ajenos a tal finalidad* (Euskaldunización, intervención de la administración, etc.) (PP, 2009).

Laugarren ekimen indartsuena irakaskuntza alorrean ezarri beharreko aukeraketa banatuaren eredu izan da, proposamenen %4,38 bereganatuz (ikusi 4.51. taula). Ppk hezkuntza ereduak mantentzeko eta babesteko hautua egin dau hauteskunde programa nahikotxotan 2005eko hauteskunde deialdiraino. 2005ean hiru eredu eskaintza bermatzeko konpromisoa hartu eban: *el Gobierno Vasco garantizará la oferta de los tres modelos lingüísticos en toda la Comunidad Autónoma del País Vasco* (PP, 2005).

Euskaraz zein gaztelaniaz burututako sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturalak be izan dau tarte txiki bat Ppren hauteskunde programetan, zehazki bi hizkuntzoi zuzendutako politika proposamenen %3,75egaz (ikusi 4.51. taula). Alegia, alderdiaren nahia honakoa da: *Promoción y defensa especial del hecho cultural vasco, tanto en castellano como en vascuence, mediante el apoyo a iniciativas de grupos, instituciones y sociedades que sean de interés general* (AP, 1984). Egitez, beste behin, botere publikoen gain jartzen dau euskaraz

zein gaztelaniaz burututako kulturaren garapena bultzatzeko betebeharra: *es obligación de los poderes públicos favorecer el desarrollo de ambas expresiones de una misma cultura* (PP, 1994, 1998).

Bestalde, planifikazio soziolinguistikoak be bereganatu dau tartetxoa (%2,5), bai kulturari baita hizkuntza politika orokorrean be (ikusi 4.51. taula). Kultura esparruan proposamena bakarra izan da: irakurketa zaletasuna bultzatzeko plan bat burutzea; arlo orokorrean, barriz, Euskal Herriko mapa soziolinguistikoa burutzea izan da proposatutako hiru hauteskunde deialditan: 1986an, 2001ean eta 2005ean.

Euskara eta gaztelania bi hizkuntzak babesteko nahi orokorra be agertu dau PPK 1984, 2009 eta 2012ko hauteskunde deialdietan. Eginkizuna argia da: *el cultivo y fomento común del euskera o vascuence y del castellano* (AP, 1984); *la preservación y fomento tanto del euskera como del castellano* (PP, 2009, 2012).

Euskara eta gaztelaniari eragiten deutson legedia mantentzea edota bultzatzeak be proposamen bana bereganatu dabe. 1984an Konstituzioa eta Estatuarekiko adikorra izango zan hezkuntza legedia izan eban proposagai PPK eta 2009an Kontsumitzaile eta Bezeroen Legea aldatzea, erreformatzea, aurretik aipatutako komertzio eta profesional liberalen askatasuna segurtatzeko.

## Euskararentzako politika proposamenak

Euskara politika ekimenen jasotzaile izan danetan, hizkuntza eskakizunak, meritu moduan, eta hizkuntza eskubideak izan dira modu argian gailendu diren proposamen politikoak, hain zuzen, ekimenen %33,84 eta %31,31 batuz, hurrenez hurren (ikusi 4.52. taula). Halaber, esan beharra dago hizkuntza eskakizunak meritu moduan herri administrazio eta hezkuntza alorretan landuak izan diren bitartean, hizkuntza eskubideak herri administrazio, hezkuntza, komunikabide, lan arlo, kulturgintza, gizarte bizitza, esparru juridiko eta hizkuntza politikaren arlo orokorrean izan direla hizpide.

4.52. TAULA. PP-K EUSKARARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Herri Adm.	Irakas.	Kom.	Lan	Kul.	Giz.	Jurid.	Batazbes- tekoa
H. babestu, bultzatu	50	1,09	0	0	0	50	0	11,11	13,64
Corpus plangintza	0	0	0	0	0	37,50	0	0	1,52
Ikasketa, alfabetatzea	4,76	0	10,26	0	0	0	0	0	3,03
Legedia: aldatu	0	1,09	2,56	0	0	0	0	11,11	1,52
Hizkuntza eskubideak	23,81	27,17	35,90	75	50	12,50	50	77,78	31,31
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0	59,78	30,77	0	0	0	0	0	33,84
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	2,17	0	0	0	0	0	0	1,01
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	2,56	0	0	0	0	0	0,51
Komunikazio hizkuntza funtzioa	14,29	1,09	2,56	25	0	0	0	0	4,55
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	0	0	0	0	0	0	50	0	0,51
Planifikazio soziolinguistikoa	0	2,17	0	0	0	0	0	0	1,01
Ebaluaketak, erreformak	7,14	5,43	15,38	0	0	0	0	0	7,07
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	0	0	0	0	50	0	0	0	0,51
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	42	92	39	4	2	8	2	9

*Iurria: norberak egina.*

Hizkuntza eskakizunek, meritu moduan, herri administrazioak bildutako ekimenen %59,78 batu dabe. Ehuneko horrerik hizkuntza eskubideek batu daben %27,17 batzen badeutsagu, herri administrazioaren proposamenen gehiengoak bi ekimen mota horreek hartu dabela ohartuko gara, zehazki, %86,95 (ikusi 4.52. taula). Esan beharra dago gainera, hizkuntza eskakizunak meritu moduan hartzeko deia 1984an salbu aztergai doguzan hauteskunde deialdi guztietan egin izan daukala PPK.



PPren hitzetan, herritarrek arreta euskaraz zein gaztelaniaz jasoteko daben eskubidea *puede cumplirse suficientemente sin que cada funcionario tenga que conocer el euskera. (...) por ello el Partido Popular del País Vasco defiende transitoriamente el que en la Función Pública Vasca haya puestos de trabajo para cuyo desempeño no sea el euskera requisito indispensable* (PP, 1994). Ildo horretan, egun indarrean dagozan hizkuntza eskakizunak barriro antolatzekeo beharra adierazi dau PPK 1994az geroztik modu jarraituan: *replanteamiento de los perfiles lingüísticos exigidos para el acceso a la función pública* (PP, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009). Besteak beste, eskakizun zeroko lanpostuak sortzea dau proposagai alderdiak, *para cuyo desempeño el euskera sea mérito adhesorio pero no requisito indispensable, siendo la capacitación técnica y profesional del funcionariado el baremo fundamental* (PP, 1994).

Era berean, aipatzekoa da 2009 eta 2012ko hauteskunde programetan herri administrazioari dagokiozan proposamen orokorrak herri administrazioioko esparru jakinetara zuzendu dauzala neurri handi batean, hain zuzen, Ertzaintza eta Osakidetza arloetara. Ertzaintzari dagokionean, honakoa dino: *consideramos que los agentes de la Ertzaintza conocen suficientemente el euskera. No es necesario exigirles un perfil lingüístico 2 para la eficacia del servicio* (PP, 2009). Horrela, ertzainei zuzendutako bigarren hizkuntza eskakizuna kentzeko aldarria egin dau PPK (2009). Osakidetzan, barriz, Enplegu Publikorako Eskaintzak (EPE) izan dauz alderdiak hizpide, euskararen balioespena beste merituekatz (esaterako, esperientzia eta trebakuntza profesionalagatz) konparatuz gehiegizkoa dala kritikatu eta legedia aldatzeko proposamena eginez: *modificación de la normativa relativa a la asignación de los perfiles lingüísticos como la valoración otorgada al euskera como mérito, de modo que no sustituya a la formación o la experiencia* (PP, 2009). Halaber, Osakidetzako EPEz haratago, beste batzuetan be modu bardinean jokatzeko konpromisoa hartu izan dau. *El Gobierno Vasco del Partido Popular velará especialmente en las sucesivas OPEs para evitar que la menor formación o experiencia pueda ser suplida mediante una exigencia o valoración desproporcionada del conocimiento del euskera* (PP, 2009).

PPk hizkuntza eskubideak eta komunikabideak modu bateratuan langai izan dauzanetan EiTB izan da landutako esparru bakarra. Herri administrazioaren ildo berean euskara EiTBn lanean hasteko nahitaezko baldintza dala kritikatu dau alderdiak, lanpostu motaren arabera inolango desbardintasunik egin barik: *se exige, para acceder a un puesto de trabajo en el medio, aunque sea de electricista o almacenista, como requisito previo e indispensable, el dominio del euskera* (AP, 1986). Hauteskunde urte bardinean, 1986an, batuaren alde gaztelania ezeze euskalkiak be baztertuak izana gaitzestu eban garaiko APk.

Irakaskuntza alorrean hizkuntza eskakizunak merito moduan norabide desbardinetan hartu izan dauz PPK. Batetik, irakasleei zuzenduta, euren euskalduntze erritmoak aintzat hartzen dauzan ekimenak proposatu dauz, dala euskalduntze erritmo eta mailak hezkuntza ereduaren arabera ezartzea (1990), euskalduntze modu eta erritmoak berrikustea (1994), zero hizkuntza eskakizuna barnean hartuta (1998), edota 40 urtetik gorako irakasleak hizkuntza eskakizuna bete behar ez izatea proposatuz (2005). Bestetik, ikasleen eta euren familien

mugikortasuna errazteko, euskararen ikasketatik salbustea be proposatu dau PPK 2009 eta 2012ko hauteskunde programetan. Unibertsitateari begira be ikasle onak ez galtzeko hizkuntza eskakizunak egokitzeko ardura be adierazi eban alderdiak 2005ean: *promoveremos las medidas necesarios para evitar la fuga de cerebros y que nuestros mejoras universitarios no tengan que recalar en otros centros por no adecuarse a un perfil diseñado desde el nacionalismo gobernante* (PP, 2005).

Oso interesgarri eta argigarria da PPK euskara hizkuntza eskakizunei itzitako tartea euskararen arreta-harreman funtzioa garatzeko proposatu dauzan neurri politikoekaz konparatzea. Izan be, PPK euskarari administrazioan arreta-harreman funtzioa atxikitzeko beharra birritan baino ez dau identifikatu.

Bestalde, euskara mintzagai hartuta hizkuntza eskubideak mintzagai izan direnetan presentzia handiena bereganatu daben balioak bazterketarik eta inposaketarik eza izan dira, nahiz eta askatasunari be tartetxoa itzi izan deitson noiz edo noiz; hain zuzen, herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko daben eskubidea eta askatasuna errespetatzeko beharra (1990, 2001). Hauteskunde deialdi jarraituetan euskararen berreskuratzea modu orokorrean mintzagai hartuta PPK aipatu dauan ideia honakoa da: *el Partido Popular se compromete a defender – en consonancia con el Estatuto de Autonomía- el derecho de todos los ciudadanos a no ser discriminados por razón de la lengua y promoverá que el proceso de recuperación lingüística se realice con moderación, sin agraviar sentimientos, sin generar rechazos y sin conculcar derechos* (1994, 1998, 2001, 2005). Baina PPren ustetan, errealitatean EAJK eta PSE-EEK burututakoa kontrakoa da. Alderdiaren iritziz EAJK eta PSE-EEK onartutako hizkuntza legeek politiken izaera inposatzailea bideratu dabe: *las leyes aprobadas en su momento por el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista han dado la cobertura necesaria para desarrollar una política impositiva en relación con la lengua* (2009).

Hizkuntza politika alor bakoitza modu banatuan aztertuz gero, honakoak aipatu daitezke. Batetik, herri administrazioan hizkuntza eskakizunen politika izan dau gogor kritikatur PPK lanpostu publikoetarako sarreran bazterketak eragin dauzala baieztatuz: *la cuestión de la normalización lingüística (...) opera con un criterio de selectividad para acceder, primero a la función pública, y después a los puestos de trabajo concretos, a través del mecanismo del perfil lingüístico* (PP, 1994). Osakidetzan be euskara ezagutzen ez daben profesionalen bazterketa salatu dau PPK. *El conocimiento del euskera se convierte en un elemento determinante y discriminatorio a la hora de acceder a un puesto de sanidad pública vasca* (PP, 2009), formakuntza eta esperientzia handiko profesionalak lanpostu barik itziz Enplegu Publikorako Eskaintzetan (EPE) euskarari gehiegizko balorazioa atxikitzeagaitik zein norgehiagokarako estimulua galduz. Horren aurrean, PPK euskararen izaera baztertzaila alboratu gura dau, besteak beste, aurretik aipatutako hizkuntza eskakizunak murriztuz eta modu horretan lanpostu publikoetarako sarrera bardintasuna bermatuz.

Irakaskuntzan be salatu dauz PPK inposaketa eta bazterketa. Ikasleei begira, euskara ikastera edo erabiltzera inor ezin daitekela behartu uste dau PPK: *no se puede obligar, de*

*manera directa o indirecta, al conocimiento y empleo del euskera* (AP, 1984). PPren ustetan, irakasleen kasuan be euskararen ezagutza eza ezin izan daiteke traba orokortua irakaskuntzan jarduteko: *el desconocimiento del euskera no puede ser motivo generalizado de exclusión para ejercer la función docente en ningún nivel* (PP, 1990, 1994, 1998). Irakasleen lortutako eskubideen errespetua be izan dau mintzagai PPK: *el respeto de los derechos adquiridos por el profesorado* (PP, 1998). Irakasleen artean euskalduntze erritmoek eragindako tentsio eta bazterketak be izan dauz hizpide. Era berean, unibertsitate ikasleen kasuan be euskara unibertsitateko ikasketak burutzeko traba izateko arriskuaren aurrean kritiko agertu da alderdia. *El euskera no puede convertirse en una traba que impida a muchos universitarios iniciar una carrera académica* (PP, 2005).

Lan munduaren baitan euskara eta hizkuntza eskubideak aipamen bat jaso dabe inposaketaren inguruko hausnarketa zabalago baten baitan. Alegia, lan merkatuan sartzeko euskara titulua atara beharrak hizkuntzari bere komunikazio eta kultura izaera kendu eta gizarte bazterketa zeinu bilakatzea dakar: *la imposición de la obtención de títulos para poder acceder al mercado laboral, es convertir al Euskera en algo diferente al instrumento de comunicación que es y al instrumento de reafirmación cultural que significa, la imposición supone convertir al Euskera en signo de exclusión social*<sup>112</sup> (PP, 1998).

Maila kulturalen, PPK kulturalki eta linguistikoki egiten dan “gurearen” definizio murriztatzailea kritikatu dau, izaera baztertzaila daukalakoan, eta bere ordean aniztasun kultura eta linguistikoa babesteko konpromisoa hartu dau (PP, 1994).

Hizkuntza eskakizunak, meritu moduan, eta hizkuntza eskubideen ostean euskarari zuzendutako hirugarren ekimen indartsuena, nahiz eta aurreko biekaz erkatuta askoz maila txikiagoan, euskara babestera eta bultzatzera zuzendutakoa izan da (%11,64) (ikusi 4.52. taula). Esan beharra dago baina, euskara babestera zuzendutako PPren proposamenek oso izaera orokorzalea izan dabela. Hona hemen adibide batzuk: *el euskera debe ser defendido, promocionado y estudiado* (AP, 1984), *Coalición Popular defiende la recuperación y utilización del Euskera* (AP, 1986), *el Partido Popular del País Vasco defenderá la recuperación y normalización del euskera* (PP, 1994), *el Partido Popular del País Vasco defenderá la recuperación del euskera* (PP, 1998), etab. Ostera, euskara efektiboki babestera bideratutako neurri zehatzak askoz murriztagoak izan dira, direla euskararen erabilera handitzeko proposamenak, bere ikasketa eta alfabetatzea bermatzekoak, eskolaz haratago ikasketa hizkuntza bilatzekoak, euskararen corpus plangintzara bideratutakoak, edota euskaraz burututako sorkuntza eta eskaintza kulturala indartzera zuzenduak.

Barriz, euskarari zuzendutako politikan ebaluaketa eta erreformek tarte esanguratsua bildu dabe, laugarren ekimen aipatuena bilakatuz euskarari zuzendutako ekimen politikoen %7,07 batuta (ikusi 4.52. taula). Ebaluaketa eta erreformok herri administrazioan, irakaskuntzan

<sup>112</sup>*La imposición supone convertir al Euskera en signo exclusión social.* Hauxe da gizarte alorraren baitan hizkuntza eskubideak eta euskara konbinaketak bereganatu dauan aipamen bakarra.

eta hizkuntza politikaren arlo orokorrean proposatu dauz PPk. Herri administrazioaren baitan proposatutako erreformak Euskararen Aholku Batzardea berdefinitzera zuzendu dauz alderdiak (1998, 2001, 2005, 2012); bere osaketa, funtzio eta helburuen berdefinitziora, estimazio politikoetatik kanpo batzardearen benetako izaera aholkularia garatzeko. Berdefinitze horren edukia honako adierazpenak laburbiltzen dau: *redefinición del Consejo Asesor del Euskera como órgano asesor del euskera, compuesto por verdaderos técnicos que aconsejen a los poderes públicos en relación a las políticas lingüísticas a desarrollar al margen de todo tipo de consideración política* (PP, 2005). Hezkuntzan, eskolari begira, irakasleen euskalduntze sistemaren berrikusketa burutzea proposatu dau PPk (2005) eta HABEren askonahiko erreforma. Bigarren erreforma horrek, besteak beste, honako neurriak dauz proposagai: *[garantizar] al idoneidad del profesorado adscrito a dichos centros, así como la idoneidad de los contenidos de cada nivel de capacidades lingüística y el acceso en condiciones económicas ventajosas a dichos centros dependiendo de las circunstancias personales de cada alumno* (PP, 2001, 2005). Euskararentzako politika arlo orokorrean Euskara Biziberritzeko Plan Orokorra berrikusteko proposamena bi hauteskunde deialditan egin izan dau PPk (2001, 2005); eta indarrean dagoen hizkuntza politika berbidertzeko beharra be adierazi dau bere eduki eta helburuak ebaluatuz eta berrikusiz (2001). Ildo horretan, aipatzekoa da euskararen hizkuntza politikara bideratutako ala beragaz lotura dauan eta indarrean dagoen legedia aldatzeko proposamena egin dauala PPk, hain zuzen, legeon izaera baztertzalea gainditzeko. Horrela, 1998an Euskararen Legea berrikustea proposatu eban eta 2009an Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea erreformatzea.

Hizkuntza politikaz jardunda, interesgarria da jakitea PPk bere proposamen politiko guztiak EAEn kokatu dauzala. Horrek ez dau esan gura baina politika ekimenak bideratzerako orduan lekuan lekuko errealitatea aintzakotzat hartu barik jardun dauanik. Egitez, aurretik aipatu dan moduan, PP hizkuntza politika proposamenak bideratzerako orduan eremu soziolinguistikoa aintzakotzat hartzearen alde agertzen da.

#### 4. 4. 8. Balio euskarriak

---

Atal honetan, PPk bere hizkuntzen inguruko diskurtso ideologikoan eta proposatutako hizkuntza politikan oinarri dauzan balio euskarriak identifikatuko dira. Balio euskarri gehienak euskara eta gaztelaniak batera (%45,50) eta euskarak bera beratarra (%40,52) bildu dabez, ez ostera gaztelaniak modu indibidualean (%3,08). Aldi berean, hizkuntza politikak maila orokorrean be balio euskarri dexente bildu dauz bere inguruan (%10,19); ingelesa eta etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak, barriz, ia ia batere ez (ikusi 4.53. taula).

#### 4.53.TAULA PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN BALIO EUSKARRIAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		10,19
Euskara		40,52
Gaztelania		3,08
Ingelesa		0,24
Euskara & Gaztelania		45,50
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		0,24
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,24
Guztira	%	100
	N =	422

*Iturria: norberak egina.*

### Hizkuntza politika orokorraren balio euskarriak

PPk hizkuntzak ala hizkuntza politika modu orokorrean hizpide izan dauzanetan bizikidetzeta linguistikoari lotutako balioak izan dauz nagusiki hizpide. Bizikidetzeta linguistikoaren baitan irekiera balioak garrantzia zentrala bereganatu dau alderdiaren mintzoan (kode azpian bildutako aipuen %18,6 (ikus 4.54. taula)). PPren ustetan, hizkuntzen defentsa ikuspegi zabalagaz burutu beharra dago; hizkuntza eta kultura errealitate dinamikoak baitira: *lengua y cultura social son hechos complejos, dinámicos y creados cada día por la libertad de los individuos, y no moldes ancestrales inmutables* (PP, 2005, 2009). Baieztapen hori egiterakoan PPK akderdi politiko *nazionalistak* dauz buruan. Bere ustetan nazionalismoak irekiera jarrera baino ikuspegi mugiezina daualako hizkuntza eta kulturari dagokionean. Ildo berean, alderdiaren iritziz politika kulturala eta linguistikoa gizartearen aniztasuna aintzat hartuta burutu beharra dagoz (2009, 2012): *la promoción y fomento de la cultura, así como la política lingüística debe caracterizarse por la aceptación de una realidad plural* (PP, 2012), hizkuntza iragazki moduan ezarri barik. Horrela, *una política cultural debe tener por objetivo estimular y preservar todas las expresiones culturales, sin apriorismos, filtros lingüísticos o censuras políticas* (2009, 2012). Norabide horretan, inklusibitatea defendatu dau alderdiak (%9,3) kultura zein hezkuntza alorretan. Kulturaren baitan PPK honakoa dino: *la política cultural y lingüística deben servir al ciudadano y a sus inquietudes, y no pretender conformarlo bajo ciertos proyectos exclusivistas (...) proyectos para los que solo ciertas*

*expresiones culturales y actitudes lingüísticas a la óptica nacionalista son propias del pueblo vasco* (PP, 2005). Hezkuntzan, ikasleak hizkuntza ala beste trebetasun batzuen faltagaitik alboratuta gelditzea ekidin gura dau alderdiak, eta inklusibitate hori bideratzeko aurreneurriak hartzeko konpromisoa hartu dau (2009, 2005). Hizkuntzak, komunikazio tresna izanda, elkarbizitzaren zerbitzura egon behar dabela be adierazi dau azken bi hauteskunde deialdietan (%4,65): *consideramos los idiomas como instrumentos de comunicación, al servicio del entendimiento y la convivencia entre las personas, y la vertebración de la sociedad* (PP, 2009, 2012).

Ekimenen balio bitartekarien baitan, hizkuntzak edo hizkuntza politika modu orokorrean hizpide izan danetan, eraginkortasuna (%9,3), kalitatea (%4,65) eta malgutasuna (%2,33) izan daz mintzagai PPk (ikusi 4.54. taula). Hiru baliook oso ekintza jakinei lotuta agertu dira: kultura, eta bere baitan hizkuntza politika sailburuordetza, eraginkortasunaren alde departamentu moduan desagertzea (1994, 1998); kalitatezko unibertsitea (2005, 2009) eta hizkuntza proiektu propiodun eskolak, malgutasunari bide emenez (1990).

4.54.TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI OROKORREAN, EUSKARA ETA EUSKARA ETA GAZTELANIARI ATXIKITAKO BALIO EUSKARRIAK BALIO-TALDEKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		Hizk.	Eusk.	Eusk. & Gazt.
Hizkuntza eskubideak	Askatasuna	0	2,92	28,65
	Bardintasuna	2,33	0	7,81
	Inposaketarik eza	6,98	4,68	3,65
	Bazterkeria eza	2,33	27,49	12,50
	Guztira I	11,63	35,09	52,60
Erritmoa	Moderazioa	0	11,70	0
	Progresibitatea	0	0,58	0
	Egingarritasuna	6,98	1,17	0,52
	Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea	2,33	5,85	7,81
	Guztira II	9,30	19,30	8,33
Agente parte hartzaileak eta alkarlana	Adostasuna	2,33	5,26	0
	Akordioa	0	0,58	0
	Alkarlana	0	1,17	0,52
	Guztira III	2,33	7,02	0,52

(... / ...)

(... / ...)

		Hizk.	Eusk.	Eusk. & Gazt.
Ekimenen balio bitartekariak	Ekintza positiboa	0	0	0
	Eraginkortasuna	9,30	8,77	3,13
	Malgutasuna	2,33	0	2,08
	Kalitatea	4,65	11,11	1,04
	Guztira IV	16,28	19,88	6,25
Herritarren nahia	Konpromisoa	0	0	0
	Borondatea	9,30	3,51	2,08
	Erakargarritasuna	0	0	0
	Guztira V	9,30	3,51	2,08
Botere politikoa	Subiranotasuna	0	0	0
	Subsidiaritatea	9,30	0,58	0
	Guztira VI	9,30	0,58	0
Bizikidetzak linguistikoa	Kohesioa	0	4,09	0
	Alkartzatzea	4,65	4,09	4,69
	Errespetua, tolerantzia	0	1,75	1,04
	Aniztasuna	9,30	1,75	15,63
	Irekiera	18,60	2,92	7,29
	Inklusibitatea	9,30	0	1,56
	Guztira VII	41,86	14,62	30,21
Guztira	%	100	100	100
	N =	43	171	192

Iturria: norberak egina.

Hizkuntza politikaren erritmoari dagokionean, egingarritasuna (%6,98) eta errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea (%2,33) aldarrikatu dauz PPK (ikusi 4.54. taula). Egingarritasuna mintzagai hartuta, orokorrean, alderdiak hizkuntza politika arrazionalizatzeko beharra adierazi dau (1990) eta irakaskuntza esparruan hizkuntzei dagokionean helburu egingarriak ezartzeko apustua egin dau. Bestalde, hizkuntza politika berrikusteko beharra be agertu dau PPK eduki eta helburuak errealitate soziolinguistikora egokitzeko: *reorientar la política lingüística, evaluando y revisando sus contenidos y objetivos a la diversa realidad existente en el País Vasco* (PP, 2005).

Botere politiko balio-taldearen baitan subsidiaritate printzipioa aldarrikatu dau alderdiak (%9,3) (ikusi 4.54. taula); printzipio honekiko euren adostasuna adieraziz: *creemos en el principio de subsidiaridad* (PP, 2012), edota gizarte zibilari protagonismoa eskainiz: *concebimos la sociedad como una estructura que se construye de abajo hacia arriba; la*

*cultura nace, en todo caso de la sociedad civil nunca del poder político* (PP, 2012), edota subsidiaritate printzipio hori praktikan jarritz: *devolver a las Diputaciones y Juntas Generales el protagonismo, la capacidad y autonomía para ordenar, diseñar y dirigir la política lingüística en cada Territorio Histórico* (PP, 1998).

Herritarren nahiaren baitan borondateari eskaini deutso tartea PPK (%9,3) (ikusi 4.54. taula). Alderdiaren ustetan, hizkuntza politikak pertsonen ardura eta interesei erantzun behar deutso; izan be, politiken helburua herritarrek izan behar dabe. *La política cultural y lingüística debe estar al servicio del desarrollo de las personas y de sus iniciativas o inquietudes* (PP, 2009). Horregaz bat, agente parte hartzaile eta alkarlanari lotutako balioen artean adostasunak bereganatutako aipamenean, hizkuntza politikak gizartearen gehiengoagaz adostuta egon behar daua adierazi dau alderdiak.

Amaitzeko, hizkuntzak ala hizkuntza politika modu zabalean hizpide izan dauzanetan, hizkuntza eskubideak inposaketa (%6,98) eta bazterketa ezaren (%2,33) bidetik burutzea nabarmendu dau PPK (ikusi 4.54. taula). Bi mezu argi helaraziz: hizkuntzak ezin daitezke inposatu eta hizkuntza arrazoiekaitik inor ezin da baztertu.

## Euskararentzako balio euskarriak

Euskarari hizkuntza eskubideekaz lotutako balioak atxiki jakoz gehien; hain zuzen, batzbestekoaren %35,09 (ikusi 4.54. taula). Hizkuntza eskubideen baitan euskara dala eta bazterketarik ez burutzea izan da PPK indar handienaz aldarrikatu dauana. PPK euskararen hizkuntza politika eskubideak hautsi barik eta sentimenduak iraindu barik burutu beharra dagoela behin eta barriro adierazi dau (1990, 1994, 1998, 2001, 2005). Alderdiaren ustetan, ezin daitezke euskararen ezagutza faltagaitik irakasleak, langile publikoak, ertzainak, Osakidetzako langileak zein EiTbkoak baztertu, egun gertatu ohi dan moduan. *El desconocimiento del euskera no puede ser motivo generalizado de exclusión para ejercer la función docente en ningún nivel* (PP, 1990). *No puede seguir discriminándose a profesionales por no saber euskera. No podemos prescindir de nuestro personal sanitario por no saber euskera* (PP, 2009). Aipatzekoa da EAJren gobernuak burututako bazterketa linguistikoa kritikatzear gainera, 2009-2012 legegintzaldian PSE-EEren gobernuak bazterketa mantendu daua deritzola PPK. *El conocimiento del euskera sigue siendo determinante a la hora de acceder a un empleo público en Osakidetza tal y como se ha constatado en la última oferta de empleo convocada por el gobierno socialista* (PP, 2012). Langileria publikoaz gainera, unibertsitateko ikasleen bazterketa arriskua be kritikatu dau alderdiak: *el euskera no puede convertirse en una traba que impida a muchos universitarios iniciar una carrera académica* (PP, 2005).

Euskararen ezagutza eta erabileraren inposaketa be izan dau kritikagai PPK; nagusiki, ume eta gazteak euskara ikastera behartzea, euren aukera askatasuna ez errespetatuz edota, bigarren maila batean, lan merkatuan sartzeko tituluen lorpena eskatuz. Bestalde, herritarrei



euskera ezagutu eta erabiltzeko eskubidea errespetatzea be hartu dau aintzakotzat alderdiak (1990, 2001): *el respeto a la libertad de los individuos en el ejercicio de su derecho al conocimiento y utilización del euskera* (PP, 1990).

Hizkuntza eskubideen ostean, balio euskarrien baitan tarte handia euskara politika ekimeneen balio bitartekariak bereganatu dabe (%19,88). PPK kalitateari (%11,11) eta eraginkortasunari (%8,77) eskaini deutse tarte esanguratsua (ikusi 4.54. taula). Kalitatearen funtsezkotasuna herri administrazioan eta hezkuntzan aldarrikatu dau PPK. Bai batean eta bai bestean euskararen aurretik kalitatea –ezagutza eta esperientzia- lehenesteko beharra adieraziz: *en la Administración queremos los mejores profesionales, sepan o no euskera* (PP, 2009). PPreh hitzetan, *no se puede prescindir de los mejores currículos en función del grado de conocimiento del euskera* (PP, 2009). Herri administrazioaren baitan Osakidetzak presentzia aipagarria bereganatu dau: *en el Partido Popular queremos los mejores profesionales en la sanidad pública vasca y consideramos que no podemos privarnos de excelentes especialistas sanitarios por el hecho de no saber euskera o primarlo sobre la experiencia o la formación* (PP, 2012). Hezkuntzan erabilitako argumentua parekoa da: *el sistema educativo no puede prescindir de su experiencia y vocación docente* (2005). Modu horretan, *frente a políticas de profesorado que primaban la lengua frente al conocimiento, un gobierno del PP defenderá la excelencia* (PP, 2005).

Eraginkortasunari dagokionean, PP euskararen normalizaziora bideratutako baliabide eta zenbatekoekiko kritiko agertu da sarri, euren eraginkortasun eza adieraziz: *nos encontramos ante una política para la recuperación del euskera, caracterizada más por la impaciencia en las exigencias que por la efectividad en los objetivos perseguidos. Si detenemos ahora nuestra atención en el coste económico en que se ha incurrido para realizar esta política, que según las últimas encuestas oficiales ha hecho crecer el bilingüismo en un 5% en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entonces las cosas dejan de ser tan atractivas* (PP, 1994). Politiken emaitzei begiratu gero, euskararen normalizaziora zuzendutako baliabideen eraginkortasuna murrizta izateaz gainera, PPK ikuspuntu konparatzailea egin dau beste politika batzuek azterkatuz eta euskarari zuzendutako baliabideak gehiegizkotzat joaz (1994). Ildo horretan, hizkuntza politikaren erritmoari erantzun arren, egingarritasuna eraginkortasunagaz batera aztertea komeni dala baieztatu dau, pareko gaiak direlako. Egitez, egingarritasunaren pean kodetutako bi esaldi-muinak 2008az geroztik EAE murgilduta dagoen krisi ekonomikoaren aurrean euskararen aurrekontuak igotzea dabe kritikagai, honen egingarritasuna gogor zalantzan jarritz.

Euskararen hizkuntza politikari ezarri beharreko erritmoa hizpide hartuta, moderazioa izan da ehuneko handiena bereganatu dauana (%11,7), eta errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzea bigarrena (%5,85) (ikusi 4.54. taula). Alderdiaren ustetan, euskarari zuzendutako hizkuntza politika moderazioz burutu beharra dago; *proceder con moderación (...) cambiando la situación sin violentar la realidad* (PP, 1990, 1994); *siendo necesario emplear la prudencia a la hora de fijar los objetivos y los ritmos* (PP, 1998, 2001). Erritmoa hizpide hartuta, PPK

hizkuntza arloan ekimenak burutzerakoan erritmoa garapen naturalak ezarri behar dauala defendatu izan dau: *el desarrollo natural (...) debe de guiar cualquier actuación en materia lingüística* (PP, 2001). Moderazioz aritu beharra irakaslegoaren euskalduntze prozesuan azpimarratu dau behin baino gehiagotan, irakasleak euskalduntze erritmoekaz estututa dagozala kritikatzuz (1990, 1994, 1998).

Euskararen sustatzea errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta burutu beharra be adierazi dau sarritan PPK: *teniendo en cuenta los ritmos que se deriven de la propia realidad sociolingüística existente en el País Vasco* (PP, 2001), *(el) respeto a la realidad sociolingüística de cada territorio histórico* (PP, 2001). Maila orokorrean ezeze, 1984an hezkuntza esparruan be kritikatu eban PPK hezkuntza eredu en aplikazioan errealitate soziolinguistikoa aintzat ez hartzea: *estos modelos de enseñanza, en ocasiones no respetan en su aplicación la realidad sociolingüística de las zonas donde se implantan* (AP, 1984); eta 2009an ertzaintzari, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta, euskararen beharrezko eskaera egitea be kritikatu eban.

Euskara hizpide hartuta, bizikidetzaz linguistikoagaz lotutako balioek be izan dabe presentzia (%14,62) (ikusi 4.54. taula). PPrentzako euskarak enkontru eta alkarbizitza tresna izan beharko leuke: *un instrumento de encuentro y convivencia* (1990, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009); elementu banatzailea baino integratzailea, kohesio sortzailea: *el euskera como elemento cohesionador e integrador de nuestra cultura y de nuestra sociedad; y no como mero elemento diferenciador y disgregador* (PP, 2001). Era horretan, PP euskal nazionalismoagaz oso kritiko agertzen da euren euskal kultura eta gizartearen ikuspegia oso sarratua dalakoan: *para el nacionalismo lengua, cultura y territorio son moldes únicos a los que el ciudadano debe, para serlo, conformarse y aceptarlos sumisamente* (PP, 2005). Kritika hori burutuz, PPK, modu zeharkakoan, irekieraren aldeko deia egiten dau. Izan be, ikuspegi anitza aldarrikatzen dau: *una concepción pluralista* (PP, 2005); *un nuevo estilo que se caracterizará por aceptar y potenciar la pluralidad* (PP, 2005); hau da, aniztasunarekiko adikorra eta zabala izango dana.

Agente parte hartzaile eta alkarlanari dagokionean, PPK adostasuna lehenetsi dau (%5,26) (ikusi 4.54. taula). Alderdiak gogor kritikatu dau 10/1982ko Euskararen Legean inguruan lortutako adostasuna legearen garapenak berak apurtu egin dauala. Hori horrela, adostasuna berreskuratzearen alde agertu da. Alderdiaren hitzetan, euskarari zuzendutako hizkuntza politikak adostasun zabalean oinarrituta egon beharko dau: *consensuada con la mayoría real de nuestra sociedad* (PP, 1994). Horrela, adostasun zabal eta sendoen alde agertzen da alderdia.

Euskararen politika bideratzerakoan, herritarren nahia borondatearen ildotik aldarrikatu dau PPK (%3,51), ez konpromisoaren aldetik ezta erakargarritasunetik be (ikusi 4.54. taula). Euskararen hizkuntza politika orokorrean zein irakaskuntzan edota komunikabideetan herritarren, ume eta gazteen, euren familien zein komunikabideen borondatea oinarri hartzea.

## Euskara eta gaztelaniarentzako balio euskarriak

Euskarak eta gaztelaniak bere inguruan bildu dabezan balio eta balio taldeen artean aipamenen erdia pasatxo hizkuntza eskubideek batu dabela azpimarratu beharra dago; zehazki, batzbestekoaren %52,6 (ikusi 4.54. taula). Era berean, bizikidetzat linguistikoagaz harreman dutako balioek be presentzia handia bereganatu dabe, %30,21, hain zuzen. Gainontzeko balio taldeen agerpena, barriz, askoz murriztagoa izan da.

Hizkuntza eskubideen baitan askatasuna izan da ia aipamen guztiak bereganatu dauzana (%28,65) (ikusi 4.54. taula). PPK askatasuna banakakoaren aukera askatasun moduan jorratu dau. *El respeto a la libertad de cada individuo para expresarse en el idioma que quiera* (AP, 1984). Horregaitik, askatasun horrekiko adikorra dan hizkuntza politika aldarrikatzen dau alderdiak: *toda política deberá respetar la libertad personal de los ciudadanos en el ejercicio de su derecho al conocimiento y utilización tanto del euskera como el castellano* (PP, 1994). Eskubide hori herritarrei, orokorrean, eta herri administrazioaren aurrean egonik, ume eta gazteei eta euren familiei hezkuntza arloan, sortzaile kulturaleri, komunikabideei zein komertzio eta profesional liberalei atxiki deutse.

Bazterketarik eza hizpide izan dauanetan (%12,5) (ikusi 4.54. taula) bi izan dira PPK behin eta berriz errepikatu dauzan ideiak: *nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua* (PP, 1984, 1990, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009), Konstituzioak eta Estatutuak horrelaxe dinoalako; eta, bigarren maila batean, *el Partido Popular defenderá el derecho de todos los ciudadanos a no ser discriminados por razón de la lengua* (PP, 2001, 2005), beste behin, indarrean dagoen legediari jarraiki. Hizkuntzak mugarri izango ez diren aukera bardintasuna be defendatu dau PPK (%7,81): bardintasuna komunikabideetan informazioa jasotzeko (1986, 1990), bardintasuna herri administrazioan lan egiteko (2009, 2012), bardintasuna umeak hezkuntza eredu batean edo bestean matrikulatzeko (2009, 2012), bardintasuna ikastola eta gainontzeko zentroen artean (1984). Barriz, euskara eta gaztelaniaren inposaketarik eza askoz gitxiagotan aipatu dau (%3,65), eta egin dauanetan herritarrentzako orokorrean, hezkuntzan ume eta gazteen familientzako edota produktuen rotulazioan diharduen enpresentzako egin dau.

Euskara eta gaztelania bizikidetzat linguistikoagaz be estu lotu dauz PPK. Nagusiki aniztasunagaz (%15,63), neurri txikiagoan irekiera (%7,29) eta alkarbizitazagaz (%4,69) eta noiz edo noiz inklusibitateagaz (%1,56) eta errespetu eta tolerantziagaz (%1,04) (ikusi 4.54. taula). PPK euskal gizarteko aniztasuna, linguistikoa barne, aitortzea eta onartzea funtsezkotzat jotzen dau; baita aniztasun horren arabera jokatzeko be. Esan beharra dago, aniztasun hori aintzat hartu eta bideratzeko beharra komunikabideetan eta kultura mailan aldarrikatu dauala nagusiki PPK. Komunikabideen kasuan, EiTBRen baitan aniztasun linguistiko, ideologikoa, kulturala eta soziala presente egoteko beharra adierazi eban 1986ko eta 1990eko hauteskunde deialdietan, bereziki: *(que) Euskal Telebista responde adecuadamente a la diversidad lingüística, cultural e ideológica de la sociedad vasca* (AP, 1986). Maila kulturean, *el Partido Popular propugna retomar la riqueza cultural y lingüística de Euskadi como un*

*punto de partida para hacer cada día un país más plural y tolerante* (PP, 2005). Aniztasun hori adierazpen kulturaletan ziurtatzea be beharrezkotzat jo dau PPK: *garantizar el pluralismo acorde con nuestra diversa realidad social, de modo que todas las manifestaciones culturales sean percibidas como propias por las instituciones Vascas* (PP, 2005).

Aniztasun balioagaz estu lotuta dator hizkuntza politikaren irekitasun izaera eta irekia izateko beharra be: *el hecho cultural vasco no es algo cerrado y monolítico, sino abierto y plural* (AP, 1986). Zentzu horretan, euskara eta gaztelania barnean hartzen dauzan kulturak eta politika kulturalak be irekiak izan behar dau: *una cultura abierta y enriquecedora* (PP, 1994); *una política cultural abierta, dinámica y tolerante* (PP, 2009). Aitzitik, irekiera hori ez da euskal gizartera bakarrik mugatzen; kanpora begirako irekiera be badau hizpide PPK: *la cultura vasca con su propio marco referencial de identidad, debe abrirse al exterior para completarse y enriquecerse con el mestizaje de las corrientes culturales universales* (PP, 1994).

Anitza eta irekia izateaz gainera, izaera inklusiboa be bildu behar dau politika kulturalak, helburua ez baita esparru banatuak sortzea, gizarte osoa barnean hartzen dauana egitea baino. Bestalde, alkarbizitza balioari arreta jarriz, euskarak eta gaztelaniak gizartearen banaketa tresna ordezkohesiorako lanabes izan behar dabela be adierazi dau PPK: *vehículo de armonía y de cohesión social* (PP, 1994). Egitez, alderdiaren ustetan bi hizkuntzak elkarbizitza demokratiko eta normalizatuari lagundu behar deutse: *tanto el castellano como el euskera deben contribuir a la convivencia democrática y normalizada de la sociedad* (PP, 2005, 2009).

Beste alde batetik, euskara eta gaztelaniari zuzendutako politikaren erritmoari lotutako balioen artean, errealtate soziolinguistikoa aintzat hartuta jarduteak bereganatu dau ia presentzia osoa (%7,81) (ikus 4.54. taula). PPK Euskal Herriko errealtate soziolinguistikoa oso anitza dala sarritan adierazi dau (1990, 1994, 1998, 2001): *la realidad sociolingüística del País Vasco es muy diversa* (PP, 1998); eta, horregaitik, berau kontuan hartuta jarduteari garrantzia berezia eskaini deutso: *la política lingüística de nuestras instituciones ha de basarse en la realidad* (PP, 1994), *el respeto a la realidad sociolingüística de cada territorio histórico* (PP, 1998). Hortara, helburu eta erritmoak ezartzerakoan tokian tokiko errealtate soziolinguistikoa aintzat hartuko dau PPK: *se hace necesario respetar y tener en cuenta la realidad sociolingüística existente y así fijar distintos ritmos y objetivos* (PP, 2005). Hezkuntzan be aldarrikapen bardina egin izan dau PPK, hezkuntza zentroa kokatuta dagoen tokiaren arabera eskola-mapa erreformatzea: *reformar del Mapa Escolar en función de la situación sociolingüística de la zona de influencia de los centros* (PP, 2001). Egingarritasuna EiTBri begira izan eban hizpide garaiko APk. Zehazki, ETB1 eta ETB2k sortutako gastua arrazionalizatzeko kateak berregituratzea.

Euskara eta gaztelaniarentzako ekimenen balio bitartekariei dagokionean, eraginkortasuna (%3,13), malgutasuna (%2,08) eta kalitatea (%1,04) aipatu dauz PPK (ikus 4.54. taula). Eraginkortasun beharra EiTBn agertu izan dau PPK gehien bat (1986, 1994). Hain zuzen,

eraginkortasun ekonomikoaren beharra gastuak murriztuz. Barriz, malgutasuna hezkuntza alorrean aldarrikatu dau (1990,1998); hezkuntza zentroeï malgutasuna eskaintzea eurak euretara antolatu daitezcan; besteak beste, hezkuntza ereduñ gaian. Kalitate beharra be irakaskuntzan adierazi dau PPK. Hain zuzen, hezkuntza ereduñ benetako kalitatearen eskaintza.

Herritarren nahia borondatearen errespetuan bildu dau PPK (%2,08) (ikusi 4.54. taula); eta borondate hau hezkuntza alorrean zentratu dau. PPK hezkuntza ereduak ezartzerakoan familien borondatea aintzakotzat hartzea aldarrikatu dau eta hezkuntza ereduak gizartearen eskaera errelera egokitzea: *atendiendo a la demanda real de la sociedad* (PP, 1998).

### Gaztelaniarentzako balio euskarriak

Gaztelaniak edo gaztelaniarentzako politikak balio gutxi bildu dauzan arren, labur-labur aipamena egiteak bai merezi dau. PPK gaztelaniari eraginkortasuna, bazterketarik eza eta errespetua eta tolerantzia balioak atxiki deutsoz. Zehazki, alderdiak epaitegietan gaztelaniaren erabilera eraginkortasunagaz lotu dau; euskararen eskaera horren murrizta izanik epaitegien lana gaztelaniaz burutzea askoz eraginkorragoa dalakoan. PPreñ hitzetan, *al margen de la legalidad y la realidad social, sólo dificultan el funcionamiento de la Justicia* (*Juicios en euskera, euskaldunización de jueves y magistrados, polémicas sobre plantillas, etc.*) (PP, 2009). Bestalde, bazterketarik eza dagoeneko hizkuntza politika proposamenetan landu dan hizkuntza eskubideekaz estu lotuta dago. Alegia, hezkuntzan euskara ez dakien irakasleen eskuratutako eskubideak errespetatzea: *respetando los derechos adquiridos* (AP, 1986, PP, 1990). Tolerantziari aipamen bat atxiki deutso, euskarari eskaintzen jakon errespetu berbera gaztelaniari be bideratzea eskatuz: *respetaremos y haremos respetar el castellano con la misma intensidad que la otra lengua vasca* (PP, 2001).

#### 4. 4. 9. Estatusa eta alkarketak

---

Atal honen xedea, PPK mintzagai dauzan hizkuntzei zein estatus atxikitzen deuten eta alderdiak zein errealtategaz alkarkotzen dauzan aztertzea da. Estatusa eta alkarketak aldagaiaren pean kodetutako aipamenen %56,41 euskarak bereganatu dauz; eta %26,15, barriz, euskara-gaztelania hizkuntza jokoak. Aipatzekoa da gaztelaniak bera beratara be ehuneko esanguratsua batu dauala, zehazki %10,26. (ikusi 4. 55. taula). Hizkuntzek modu

orokorrean, euskara, gaztelania eta ingelesa hizkuntza konbinaketak eta etorkinen eta gitxiengo etnikoen hizkuntzek be batu dabe alkarketaren bat edo beste, baina askoz be modu bazterrekoagoan.

4.55. TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN ESTATUS ETA ALKARKETAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

		%
Orokorrean		5,64
Euskara		56,41
Gaztelania		10,26
Euskara & Gaztelania		26,15
Euskara & Gaztelania & Ingelesa		1,03
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak		0,51
Guztira	%	100
	N =	195

*Iturria: norberak egina.*

Alkarketa oso gutxi jaso dabezan arren, ikerketa helburuak aintzat hartuta, PPK etorkinen hizkuntzak zein ideiaz alkartu dauzan ezagutzeak badau interesik. **Etorkinen hizkuntzak** integrazioagaz alkarlotu ebazan PPK 1998an. Alegia, alderdiak etorkinen integrazioa euren ezaugarri kultural eta sozialekiko erabateko errespetutik bideratu beharra baieztatu eban: *el fenómeno de la inmigración obliga a la adopción de medidas de integración social a este colectivo, con respeto absoluto a sus características culturales y sociales* (PP, 1998); besteak beste, hizkuntza. **Euskara, gaztelania eta ingelesaren** konbinaketa, barriz, aberastasun kognitibo eta linguistikoagaz eta nazioartekotzeagaz batu dauz alderdiak: *Una escuela trilingüe abierta al mundo* (PP, 2012).

## 4.56. TAULA. PP-REN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI ATXIKITAKO ESTATUS ETA ALKARKETAK HIZKUNTZAKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Hizk.	Eusk.	Gazt.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Gazt. & Ingl.	Etorkin & gitxiengo etnikoen. H.
H. gitxitua	0	0	0	0	0	0
Nazioarteko H.	0	0	0	0	0	0
H. ofiziala	0	0	5	5,88	0	0
Bertoko H.	0	1,82	35	23,53	0	0
H. nazionala	0	0	0	0	0	0
Ama H.	0	0	0	0	0	0
Aberastasuna	9,09	3,64	10	11,76	50	0
Ondarea	0	16,36	10	9,80	0	0
Modernitatea	0	0	0	1,96	0	0
Gatazka	0	10,91	0	9,80	0	0
Identitatea	0	1,82	5	5,88	0	0
Kultura	18,18	6,36	10	25,49	0	0
Kulturartekotasuna	0	0	0	1,96	0	0
Integrazioa	0	0	10	0	0	100
Eerrefus sentimentua	0	9,09	0	0	0	0
Komunitatearen eraikuntza	0	0	0	1,96	0	0
Alderdikeria	36,36	49,09	15	0	0	0
Komunikazio tresna	27,27	0,91	0	0	0	0
Lehiakortasuna	0	0	0	1,96	0	0
Nazioartekotzea	9,09	0	0	0	50	0
Guztira	%	100	100	100	100	100
	N =	11	110	20	51	2

*Iturria: norberak egina.*

Bestalde, **hizkuntzak** modu zabalean hizpide izan dauzanetan, PPK alderdikeria kritikatu dau gogor. Bere iritziz, hizkuntzak ezin daitezke proiektu politiko eta ideologiko baztertzailer jakinekaz lotu. Izan be, bazterketarako tresna ordez, hizkuntzak komunikazio tresna dira, kultura zeinu handienetakoa, banakakoaren eta lurraldearen aberastasuna zein mundura zabaltzeko aukera: *una oportunidad para abrirse al mundo* (PP, 2012).

**Gaztelania** hizpide hartuta, 1984ko hauteskunde programa izan zan hizkuntza honeri diskurtso zabalean eskaini eutsona. Orduantxe aldarrikatu zan gaztelania bertako hizkuntza moduan. *Defendemos el castellano como lengua también de los vascos* (AP, 1984); historiara joaz, *el romance castellano era y es tan propio de los vascos como el catalán de los catalanes y el gallego del pueblo galaico* (AP, 1984). Eta gaztelania horrela ikusten ez ebenak kritikatu be egin ebazan alderdiak: *el olvido sectario de nuestra lengua castellana por parte de algunos, que llegan a calificarla de “lengua del imperio” olvidando que se forjó por los vascos* (AP, 1984). Arrazoitze berberaren baitan, gaztelania euskaldunen ondare, kultura ekarpen eta aberastasun iturri moduan be aldarrikatu eban garaiko APK: *la más brillante aportación creativa de origen vasco (junto con otras zonas vecinas) al acervo cultural universal* (AP, 1984). Aipatzekoa da maila kulturalean gaztelaniak euskaldunei ekarritako izaera unibertsal hori 200lean be aldarrikatu izan dauala PPK: *[la lengua castellana] hace que lo vasco sea también universal* (PP, 2001). Aldi berean, PPren hitzetan, gaztelaniak euskaldunei identitate komuna eskaintzen deusku. *[El castellano es] parte integrante de un todo que proyecta una identidad común bajo la que se encuentra el conjunto de la sociedad vasca* (PP, 1994) eta euskaldunak biltzen dauzan espainiar nazioaren hizkuntza ofiziala be bada: *lengua oficial de toda la nación española* (AP, 1984).

Denboran hurbilago, hain zuzen 2005 eta 2009ko hauteskunde programetan, gaztelania etorkinen integraziorako tresna lagungarritzat jo dau PPK. Horretaz gain, eta gaztelaniaren inguruko diskurtso abstraktotik praktikoagora jeitsiz, PPK epaitegietan gaztelaniaren erabilera eta euskararen erabilera eza dala eta sortutako polemikaren baitako alderdikeria be kritikatu dau 1998, 2001 eta 2005eko hauteskunde programetan. *Los casos polémicos lo han sido por razones ajenas al funcionamiento de la Justicia* (PP, 1998, 2001, 2005).

**Euskara eta gaztelania** batera hizpide hartuta, PPK Euskadiko hizkuntza ofizial eta, batez be, bertako hizkuntza moduan izendatu dauz urteen joanean. *El pueblo vasco cuenta como soporte de su cultura con dos idiomas propios: el euskera y el castellano* (PP, 1990). Interesgarria da 1984an euskara eta gaztelaniak osatutako euskarri kultural hori espainiar eta europar kulturaren barnean kokatu ebazala alderdiak: *el pueblo vasco tiene la fortuna de contar como soportes de su cultura, integrada en el cuadro más general de la cultura española y europea, con dos idiomas propios* (AP, 1984). Bi aipuotan nabarmentzen dan moduan, euskara eta gaztelania kulturaren atal moduan jotzen dauz PPK. Kultura eta euskara eta gaztelania alkarlotzean hiru ideia nabarmendu izan dauz PPK behin eta barrero: euskaraz burututako kulturak ez dauala euskal kultura agortzen, gaztelaniaz burutzen dan kultura be euskal lurretako berezko kultura dala eta euskal kultura espainiar kulturaren parte dala: *la cultura vasca no agota la cultura vasca sino que la completa, la enriquece y la singulariza*



(PP, 1994, 1998, 2001); *la cultura vasca que se expresa en castellano es también cultura propia del País Vasco* (PP, 1994, 1998, 2001), *la cultura vasca es sólo posible entenderla como parte de la cultura española* (AP, 1986).

Kulturaren ildotik, elebitasuna aberastasun moduan be jo dau sarritan PPK; baita ondare kultural moduan be. *Parte de nuestro patrimonio cultural* (PP, 2009, 2012). Nabarmendu beharra dago euskara eta gaztelania ondare moduan definitu dauzanean, alderdiak behin baino gehiagotan guztion ondarea direla zehaztu dauala: *euskera y castellano, patrimonio de todos* (PP, 2009). Norabide horretan, bi hizkuntzak herrialdearen identitatearen ordezkari moduan jo dauz PPK: *la manera de ser de este País* (PP, 2001). Aipamen bat bakarrik lortu arren, nabarmentzekoa da 1994ko hauteskunde programan euskal identitatea taxutzen daben elementuen babesa nazio eta estatuaren ikuspuntutik egin beharra adierazi ebala. Modu horretan, hizkuntzak komunitatearen eraikuntzaren parte bilakatu ebazan; espainiar komunitatearen parte: *la acción de protección a todos los elementos configuradores de la identidad vasca debe realizarse desde un concepto de nación y estado español, que exprese la idea de un proyecto de vida en común* (PP, 1994). Hauteskunde deialdi bardinean kulturartekotasunerako deia be egin eban PPK, euskal kultura bere identitatetik kanpoaldera zabaltzea era horretan osatu eta aberasteko: *la cultura vasca con su propio marco de referencia de identidad, debe de abrirse al exterior para completarse y enriquecerse con el mestizaje de las corrientes culturales universales* (PP, 1994).

Era berean, euskara eta gaztelaniaren inguruan dagoen norgehiagoka be emon dau aditzera PPK baten baino gehiagotan, beronen kontra agertuz: *ambas lenguas no son –no deben ser– instrumento de división* (PP, 1994). Hizkuntza gatazka hori gainditzeko PPK gizarte moderno eta zibilizatua aldarrikatu dau: *una integración cultural armoniosa que supere los movimientos divergentes y permita el surgimiento de una sociedad moderna y civilizada* (PP, 1994).

**Euskarari** bera beratarat atxikitako ideiak bestelakoak izan dira. Alkarlotura indartsuena alderdikeriagaz burutu dau PPK, zehazki alkarketen %49,09 (ikusi 4.56. taula). Azpimarratu beharra dago euskara eta alderdikeriaren arteko lotura 1990an ezarri ebala lehenenagoz alderdiak, eta ordutik aurrera modu egonkorrean izan dauala arduragai. Hauteskunde urterik urtera kritikatu izan dau euskararekiko alderdi politiko nazionalistek burututako patrimonializazio baztertzaila: *el nacionalismo ha patrimonializado de forma excluyente el euskera y se ha adueñado de él. (...) Ha utilizado el euskera como parte de su estrategia política para distorsionar la realidad vasca, esgrimiéndola como su particular seña de identidad* (PP, 2001). Horren aurrean, PPK euskara ideologietatik askatu behar dala uste dau: *el euskera tiene que ser liberado de su utilización política, de su falseamiento xenófobo, y de su manipulación estratégica para la construcción nacional* (PP, 2005). Egiteko horretan, bere konpromisoa be adierazi dau alderdiak: *el Partido Popular realizará un esfuerzo intenso desde las Instituciones para despolitizar a este lengua, para lo que es necesario emprender una campaña de desintoxicación y oxigenación* (PP, 2001).

Euskaran gorpuztutako alderdikeriaz gainera, euskararen hizkuntza politikaren zer-nolakoak gatazkak sortzen dauzala be agertu dau sarritan PPK. Esaterako, euskalduntze erritmoak sortutako estutasunak, tentsioak, bazterketak: *el ritmo de la euskaldunización surge creando tensiones y discriminaciones* (PP, 1994). Euskararen politiken inguruan sortu daiteken errefus sentimendua be oso presente izan dau hauteskunde deialdi guztietan eta, horregaitik, bideratu beharreko hizkuntza politika ukatzeak sortu barik burutu beharra dagoela baieztatu dau behin eta barrero alderdiak: *sin generar rechazos, sin agraviar sentimientos, sin generar malestar* (PP, 1986, 1990, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009).

Beste alde batetik, alderdiak euskara ondare moduan sarritan identifikatu dau. Euskara guztion ondare gisa: *el euskera es un patrimonio de todos los vascos* (PP, 2001, 2005, 2009), *patrimonio común* (PP, 2001, 2005). Are gehiago, 2009 eta 2012ko hauteskunde programetan euskara ondare kultural eta sozial moduan sustatua izango dala baieztatu dau: *se trabajará por el euskera como patrimonio cultural y social* (PP, 2012). Aldi berean, euskara kulturagaz be alkarlotu dau PPK: *un elemento cultural propio de nuestra sociedad* (PP, 2001); baita inoiz identitateagaz be: *nuestro signo de identidad más auténtico, nuestro idioma, el Euskera* (PP, 1998); berau elemento aberasgarritzat joaz eta, horregaitik, babesteko hautua eginez: *defenderemos el euskera como un elemento enriquecedor e integrador de nuestra cultura* (PP, 2009). Bestalde, euskara bera beratarra bertako hizkuntza moduan birritan bakarrik definitu izan dau, biak 1984ko hauteskunde programan; euskal lurretako bertoko hizkuntzatat zein Espainiakotzat: *defenderemos el vasco como una de las lenguas de España* (AP, 1984).

#### 4. 4. 10. Laburbilduz

---

PPk hizkuntzen inguruko diskurtsoari tarte txiki samarra eskaini deutso legebiltzarrerako hauteskunde programetan. Alderdiaren diskurtsoa euskara eta gaztelaniari guztiz bideratua dago eta EAEn lekutzen da. Bere izaera ideologikoa da politikoa baino gehiago. Hizkuntzen inguruko hizpidean presentzia handiena bereganatu daben alorrak hezkuntza, herri administrazioa, kultura eta hizkuntza politikaren arlo orokorra izan dira. Nabarmentzekoa da, alderdiak ez dauzala hizkuntza politikaren azken helburuak ia aipagai izan. Bestalde, hizkuntza politikari dagokionean, bi izan dira PPren neurri zentralak: hizkuntza eskubideen errespetua eta euskara eskakizunen murrizketa. Hizkuntza politika bideratzeko moduen gainean, PPK banakakoaren askatasuna errespetatuko dauan hizkuntza politika nahi dau, nagusiki euskara ez ezagutzeagaitik baztertuko ez dauana, aniztasuna eta jarrera irekia beregain hartuko dauzana, hizkuntza neurriak kalitatearen aurretik ezarriko ez dauzana, eraginkorra izango dana eta moderazioz bideratuko dana. Bestalde, euskararen inguruan nagusitutako alderdikeria gaitzesteari eta berau gainditzeko beharra agertzeari tarte handia eskaini deutso. Euskara eta gaztelaniaz gainera atzerriko hizkuntzak eta ingelesak be jaso dabez ekimenak, hain zuzen, euren ikasketara zuzendutakoak. Etorrintentzako harrera eta gaztelania ikasteko neurriak eta euren hizkuntzak mantendu dagiezan erraztasunak izan dauz proposagai.


PPk hizpide izan dauzan hizkuntzei atxikitako estatusari dagokionean, gaztelania eta euskara berezko hizkuntza, euskaldunen ondare eta euskal kulturaren parte moduan jo dauz, eta gaztelania identitate komuna eskaintzen dauan hizkuntza lez. Hirueletasuna aberastasunagaz eta nazioartekotzeagaz lotu dau.

## 4. 5. EZKER ANITZA

### 4. 5. 1. Hizkuntzen presentzia

Ezker Anitzak hizkuntzen alorrari hauteskunde programaren %3,7 eskaini deutso bataz bestean (ikusi 4.12. grafikoa). Baina ehunekoak hauteskunde deialdiz deialdi aztertuta, tarterik handiena 1986an eskaini eutson (%5,8) eta 1994an txikiena (%1,9).

4.12. GRAFIKOA. DISKURTSO LINGUISTIKOA EZKER ANITZAREN HAUTESKUNDE PROGRAMETAN. 1986-2012 (%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA)\*



\* Ehunekoak lortzeko hauteskunde programa bakoitzaren hitz-kopuru osoa eta hizkuntzei buruz diharduen esaldimuen hitz-kopurua hartu dira kontuan.


*Iturria:* norberak egina.

### 4. 5. 2. Eduki mota

Ezker Anitzaren hauteskunde programetan hizkuntza politika ekimenak adierazpen ideologikoen aurretik gailendu dira hauteskunde deialdi guztietan. Batazbesteko datuak aintzat hartuta, hizkuntza politikak mintzagaiaren %57,6 bereganatu dau eta hizkuntza ideologiak %42,4 (ikusi 4.13. grafikoa). Hori horrela, urtearen arabera bien arteko tarte

handiagoa ala txikiagoa izan da. Hizkuntza politikak gorengo gailentzea 2012ko hauteskunde programan lortu dau, hizpidearen %71,43 bere eginez. Dana dala, aipatzekoa da Ezker Anitzaren 2012ko hauteskunde programa oso laburra dala eta hizkuntzei zuzendutako tartea 14 esaldi-muinekoa dala bakarrik. Beraz, datu hau eta hauteskunde programari dagokiozan guztiak tentuz tratatzea komeni da.

#### 4.1.3. GRAFIKOA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN EDUKI MOTA HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012 (% HORIZONTALAK)



Iturria: norberak egina.

### 4.5.3. Hizkuntza joko

Ezker Anitzaren mintzairen inguruko diskurtsoan euskara da hizkuntza zentrala. Batazbesteko datuak aintzat hartuta, euskarak berak berataraz hizpidearen %59,4 bereganatu dau; gaztelaniagaz batera, barriz, %23,61, eta gaztelaniak bera berataraz, barriz, %0,38 baino ez (ikus 4.57. taula). Aipatzekoa da, 1986 eta 1990ko hauteskunde programetan, aztergai doguzan Ezker Anitzaren lehenengo bietan, euskara eta euskara eta gaztelania direla hizpide hartutako hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa bakarrak. Barriz, 1994az geroztik, beste mintzaira batzuk be Ezker Anitzaren diskurtsoaren parte bilakatuz joan dira, bereziki Estatuko eskualdeko hizkuntzak. Mintzairok 1994az geroztik Ezker Anitzaren diskurtsoaren hirugarren indar bilakatu dira, batazbesteko hizpidearen %8,78 bereganatuz.

Gainontzeko hizkuntzen presentzia txikia izan da oso. Esaterako, eleaniztasunak mintzagaiaren %2,36 bereganatu dau eta hizkuntzek orokorrean %1,32 (ikus 4.57. taula). Hori horrela, 1998az geroztik biak izan dira etenik barik hizpide. Aldi berean, aipatzekoa

da atzerriko hizkuntzek eta ingelesak be oso tarte txikia bildu dabela; bereziki ingelesak, diskurtsoaren %0,09 baino ez baitau egin bere. Azpimarratzekoa da, gainera, *euskara, gaztelania eta ingelesa* hirukotearen lekuan Ezker Anitzak euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza konbinaketa erabili daua.

Ezker Anitzak etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzak be izan dauz hizpide 1998 eta 2009 bitarteko hauteskunde programetan, batazbesteko datuetan %0,85 bilduta. Hizkuntza gitxituak orokorrean be 2005 eta 2009an izan dauz langai, orotara %0,28 batuz (ikusi 4.57. taula).

4.57. TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN  
HIZKUNTZAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batazbes- tekoa
<b>Hizkuntzak orokorrean</b>	0	0	0	0,53	0,83	2,41	2,16	0,00	1,32
<b>Euskara</b>	85,19	72,50	76,12	67,37	51,87	57,03	55,41	21,43	59,40
<b>Gaztelania</b>	0	0	0	1,05	0,83	0	0	0	0,38
<b>Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	0,43	0	0,09
<b>Euskara &amp; Gaztelania</b>	14,81	27,50	19,40	18,42	31,95	24,90	18,18	42,86	23,61
<b>Euskara &amp; Gaztelania &amp; Ingelesa</b>	0	0	0	0	0	0	7,79	7,14	1,79
<b>Atzerriko hizkuntzak</b>	0	0	1,49	0	1,24	2,81	0,43	0	1,13
<b>Etorkinen hizkuntzak</b>	0	0	0	1,58	0,83	1,20	0,43	0	0,85
<b>Estatu hizkuntzak</b>	0	0	2,99	9,47	10,37	9,64	9,52	14,29	8,78
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	1,58	2,07	1,20	5,19	14,29	2,36
<b>Hizkuntza gitxituak</b>	0	0	0	0	0	0,80	0,43	0	0,28
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	27	40	67	190	241	249	231	1059

*Iturria:* norberak egina.

#### 4.5.4. Alorra

Ezker Anitzak politika ekimenak eta adierazpen ideologikoak esparru desbardinetera zuzendu dauz; bi alor indartsuenak irakaskuntza eta herri administrazioa izanik (ikusi 4.58. taula). Lehenengoak hizpide osoaren %37,39 bereganatu dau eta bigarrenak %22,09.

Hortaz, hezkuntza eta herri administrazio esparruek Ezker Anitzaren hizkuntzen inguruko diskurtsoaren %60 inguru bildu dabe. Hurrengo esparru landuenak hizkuntza politikaren arlo orokorra eta kulturgintza izan dira, hurrenez hurren, mintzagaiaren %9,73 eta %9,44 batuta. Gizarte bizitzak, barriz, mintzagaiaren %7,84 bereganatu dau, esparru juridikoak %6,14 eta komunikabideek %4,91. Ostera, lan munduak %1,79 baino ez dau batu eta teknologia barriek %0,66. Teknologia barrien, lan munduaren eta esparru juridikoaren kasuan salbu, gainontzeko alorren presentzia egonkorra izan da, alegia, deialdiz deialdi lan esparru moduan hartu dauz alderdiak.

4.58. TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN POLITIKA ALOR OROKORRAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabes- tekoa
<b>Herri administrazioa</b>	22,22	12,50	14,93	22,63	24,07	22,89	23,81	0	22,09
<b>Irakaskuntza</b>	25,93	45,00	31,34	30,53	40,25	40,56	38,96	28,57	37,39
<b>Komunikabideak</b>	0	12,50	8,96	6,84	4,98	3,61	2,60	7,14	4,91
<b>Teknologia barriak</b>	0	0	0	0	0	1,61	1,30	0	0,66
<b>Lan mundua</b>	0	0	0	0	0	4,02	3,90	0	1,79
<b>Kulturgintza</b>	7,41	7,50	13,43	8,95	7,88	9,64	9,52	28,57	9,44
<b>Gizarte bizitza</b>	11,11	10	16,42	8,95	5,39	5,22	8,23	21,43	7,84
<b>Esparru juridikoa</b>	0	0	0	7,89	7,88	7,23	5,63	0	6,14
<b>Orokorrean</b>	33,33	12,50	14,93	14,21	9,54	5,22	6,06	14,29	9,73
<b>Guztira</b>									
%	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	27	40	68	191	241	249	231	14	1061

*Iturria: norberak egina.*

Alor orokorrak bere barneko azpi-esparruakaz batera langai hartzen badoguz, aipatzekoa da irakaskuntzaren barnean eskola eta unibertsitate eta ikerketa zentro azpi-alorrek esparru orokorra baino askoz presentzia handiagoa bereganatu dabela eta herri administrazioaren kasuan be epaitegi eta ordezkari politikoek presentzia indartsua batu dabe. Bestelakoan, Ezker Anitzak langai izan dauan azpi-alor kopurua ugaria izan da, 29 alor edo azpi-alorretatik 20, baina euren protagonismoa, barriz, askoz murriztagoa izan da.

#### 4.5.5. Aplikazio esparrua

Atal honetan, Ezker Anitzak hauteskunde programetan proposagai dauzan hizkuntza politikak eta adierazpen ideologikoak zein esparru geografikotara bideratzen dauzan ikertu gura da. Ezker Anitzak ekimen politikoak eta adierazpen ideologikoak EAera bideratu dauz nagusiki; hain zuzen, batzbesteko datuei arreta jarritz, mintzagaiaren %80,93 (ikus 4.59. taula). Politika ekimen eta adierazpen ideologikoen bigarren ezargune indartsuena Espainiar Estatu eta Espainiar Estatuko eskualdeak izan dira; zehazki, mintzagaiaren %9,54 bilduta. Hori horrela, azpimarragarria da Espainiar Estatu eta bere eskualdeak 1994ko hauteskunde programan izan zirela lehenengoz landuak eta ordutik alderdiak modu egonkorrean izan dauzala bere politika ekimenen eta adierazpen ideologikoen aplikazio esparru. Hizpide izan diren gainontzeko aplikazio esparruek askoz be presentzia murriztagoa bereganatu dabe. Hori horrela izanik be, aipatzekoa da Ezker Anitzak Euskal Herria, Iparraldea eta Nafarroako eskualdeak be hartu dauzala bere ekimen eta adierazpen ideologikoen aplikazio esparru; eta Estatu Frantsesa eta diaspora bera be aipatu izan dauzala noiz edo noiz; baita eremu lokal eta estrategikoak be. Era berean da aipagarria, nazioarteak (%0,85) eta Europa Batasunak (%1,32) bildu daberen ehuneko bazterrekoa.

4.59. TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAREN APLIKAZIO ESPARRUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
Lokala	0	0	0	1,05	0,83	0	0	0	0,38
Eremu estrategikoak	0	0	4,48	9,47	3,32	0	0	0	2,74
EAE	100	100	82,09	74,74	81,33	76,71	83,98	85,71	80,93
Euskal Herria	0	0	8,96	3,68	2,90	3,21	3,03	0	3,31
Espainiar Estatu	0	0	2,99	10,53	10,37	11,65	9,96	14,29	9,54
Europar Batasuna	0	0	0	0,53	1,24	3,21	0,87	0	1,32
Nazioartea	0	0	0	0	0	2,41	1,30	0	0,85
Diaspora	0	0	0	0	0	0,40	0,43	0	0,19
Iparraldea	0	0	1,49	0	0	1,20	0	0	0,38
NFE	0	0	0	0	0	0,80	0	0	0,19
Estatu Frantsesa	0	0	0	0	0	0,40	0,43	0	0,19
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100
	N =	27	40	67	190	241	249	231	1059

*Iturria:* norberak egina.

#### 4.5.6. Azken helburuak

Hizkuntza politikaren azken helburuen zehaztapenak tarte nabarmena izan dau hizkuntzei zuzendutako Ezker Anitzaren hauteskunde programen mintzoan. Hizpide linguistikoaren batzbesteko datuak aintzat hartuta, hizpidearen %12,37 zuzendu deutso alderdiak azken helburuak formulatzeari (ikusi 4.60. taula). Halaber, urtez urteko datuak aztertuta, azken helburuei zuzendutako tarteak aldatuz joan dala baieztatu daiteke.

4.60.TAULA. HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN PRESENTZIA  
EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN. 1986-2012  
(%-AK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Azken helburuen ehunekoa</b>	7,41	17,50	7,46	12,63	10,79	10,04	16,88	21,43	12,37
N =	27	40	67	190	241	249	231	14	1059

Iturria: norberak egina.

Azken helburu aipatuena normalizazioa izan dau Ezker Anitzak esaldi-muinen %51,91 bilduta (ikusi 4.61. taula). Atzetik elebitasuna kokatu da (%31,3) eta hurrengo eleaniztasuna (%15,27). Bestalde, euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzeak bi aipamen baino ez dauz lortu. Interesgarria da aipatzea, batz bestean euskararen normalizazioak aipamen gehiago bildu dauan arren, elebitasuna izan dala hauteskunde deialdiz deialdi, modu egonkorrean, azken helburu moduan xede hartu dauana. Era berean da azpimarratzekoa, 2001ean lehenengoz aipagai izan zanetik, eleaniztasunak be hartu dauala presentzia egonkor eta goranzkoa, elebitasunari berari be aurea hartuta (ikusi 4.61. taula).

4.61.TAULA. EZKER ANITZAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN  
AZKEN HELBURUAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa
<b>Elebitasuna</b>	100	85,71	20	41,67	38,46	20	15,38	33,33	31,30
<b>Eleaniztasuna</b>	0	0	0	0	7,69	16	30,77	66,67	15,27
<b>Normalizazioa</b>	0	14,29	80	54,17	50	64	53,85	0	51,91
<b>Lehentasunezko hizkuntza</b>	0	0	0	4,17	3,85	0	0	0	1,53
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	2	7	5	24	26	25	39	3	131

Iturria: norberak egina.



Azken helburuak maila orokorrera zein hizkuntza politikaren arlo jakinetara bideratuak egon daitezke. Ezker Anitzak azken heburuan %19,08 hizkuntza politikaren esparru orokorrera zuzendu dauz eta %14,5 gizarte bizitzara, helburuen kasuan alor orokor moduan be jo daitekena (ikus 4.62. taula). Alor zehatzetan irakaskuntza izan da azken helburu gehien bildu dauzan esparrua (%32,06) eta atzetik herri administrazioa (%22,14), lan mundua (%6,11) eta esparru juridikoa (%6,11) kokatu dira. Esan beharra dago, Ezker Anitzak ez daukala komunikabide, teknologia barri eta kulturgintzarako azken helbururik zehaztu.


4.62. TAULA. EZKER ANITZAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUEN POLITIKA ALORRAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	%
Orokorrean	19,08
Herri administrazioa	22,14
Irakaskuntza	32,06
Komunikabideak	0
Teknologia barriak	0
Lan mundua	6,11
Kulturgintza	0
Gizarte bizitza	14,50
Esparru juridikoa	6,11
Guztira	% 100
	N = 131

*Iturria:* norberak egina.

Gizarte bizitzan (%57,89) eta irakaskuntzan (%50) elebitasuna nagusitu da; esparru juridikoan, barriz, eleaniztasuna (%40), Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelaniak osatutakoa, eta hizkuntza politikaren maila orokorrean (%96), herri administrazioan (%65,52) eta lan munduan (%100), ostera, normalizazioa.

#### 4.14. GRAFIKOA. EZKER ANITZAREN HIZKUNTZA POLITIKAREN AZKEN HELBURUAK POLITIKA ARLOKA (% HORIZONTALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)



Iturria: norberak egina.

Azken helburuen atzean ostantzen diren aipamenak hizpide hartuta, Ezker Anitzak euskararen normalizazio prozesua bere egiten dauala baieztatu daiteke, normalizazioa mintzagai izan dauanetan berau martxan jartzeko izan dalako. Halaber, gogoratu beharra dago Ezker Anitzak ez dauala behin be normalizazioa komunikabideetan, teknologia barrietan zein esparru kulturean aipatu. Herri administrazioaren baitan be epaitegietarako normalizazio linguistiko planen beharra gailendu da bereziki, 1998tik aurrera eta 2012ko deialdia kenduta modu egonkorrean proposagai izan dana. Hori horrela, Ezker Anitzak behin eta barriro adierazi dau herri administrazioak, Estatukoak barne, normalizazio linguistikoaren eginkizuna betetzeko eta bertan parte hartzeko dauan betebeharra: *las distintas Administraciones públicas deben cumplir y participar en las labores de normalización lingüística* (Ezker Anitza, 1998, 2001).

Hezkuntza sistemari dagokionean, Ezker Anitzak irakaskuntza euskararen normalizazio prozesuan esparru giltzarritzat jo dau eta normalizazio prozesuan egindako ekarpena be balioan jarri dau; halaber, euskararen normalizazioan hezkuntza sistemari gehiegizko erantzunkizuna ezartzearen kontra be agertu da. Era berean, aipatzekoa da eskolan ezeze euskararen normalizazioa unibertitate alorrean be izan dauala xede alderdiak; hain

zuzen, unibertsitatean euskararen normalizazioa bideratzeko neurriak zein planak (1998, 2001, 2005). Lan munduan euskararen normalizazioan sakontzeko nahia 2005 eta 2009ko hauteskunde programetan agertu dau: *extensión del proceso de normalización a nuevos ámbitos como el laboral o el comercial* (Ezker Anitza, 2005, 2009); eta gizarte mailan euskara modu normalizatuan erabiltzeko nahia adierazi dau noiz edo noiz: *programas tendentes a la normalización del uso del euskera en el conjunto de nuestra Comunidad* (Ezker Anitza, 1998), *su uso normalizado en la sociedad vasca* (Ezker Anitza, 2009).

Elebitasuna azken helburu moduan hartuta, Ezker Anitzak gizarte elebidunaren aldeko apustua egin dau 1986az geroztik: *el conocimiento y uso generalizado de ambas lenguas en toda la población vasca* (Ezker Anitza, 1986). Garrantzitsua da azpimarratzea gizarte elebidun kontzeptua erabiltzerakoan Ezker Anitzak behin baino gehiagotan zehaztu dauala elebitasun horrek erreala izan beharko dauala: *apostamos por una sociedad bilingüe real* (Ezker Anitza, 1990), *alcanzar una sociedad realmente bilingüe* (Ezker Anitza, 2012). Arlo orokorrez haratago, herri administrazioan eta hezkuntzan be izan dau mintzagai elebitasuna alderdiak. Herri administrazioari dagokionean bere elebitzea aldarrikatu dau alderdiak: *la “bilingüización” de todas las Administraciones públicas y sus distintos niveles* (Ezker Anitza, 1998); irakaskuntzari dagokionean eskola eta unibertsitate elebidunaren aldarrikatzea: *potenciar una Universidad vasca realmente bilingüe* (1990), *apuesta decidida por una Universidad bilingüe* (1994); *una escuela bilingüe e integrada* (Ezker Anitza, 1998), *un planteamiento de educación bilingüe-plurilingüe* (Ezker Anitza, 2009).

Bestalde, eleaniztasuna azken xede moduan be hartu dau Ezker Anitzak. Gizarte eleanitza 2005eko hauteskunde programaz geroztik izan dau aldarrikatua: *un Estado social plurilingüístico* (Ezker Anitza, 2005), *una Euskadi pluricultural y plurilingüe* (Ezker Anitza, 2012); herritarren eleaniztasunak ekarria. Egitez, eleaniztasunak bi hizkuntza ofizialen eta atzerriko hizkuntzaren baten ezagutzak eraikia egon beharko dau: *contribuir al objetivo de un conocimiento pleno por parte de toda la ciudadanía vasca de sus dos lenguas oficiales complementado por el conocimiento adecuado por lo menos de una lengua extranjera* (Ezker Anitza, 2009). Ildo horretan, hezkuntza sisteman, bai eskolan bai unibertsitatean, irakaskuntza elebidunaz haratago eleanitza be proposatu dau alderdiak. 2001ean unibertsitate eleanitzaren aldeko apostua agertu dau: *apuesta decidida por una Universidad plurilingüe* (Ezker Anitza, 2001) eta 2009an eskola eleanitzaren aldekoa: *una educación plurilingüe (...) que capacite en las dos lenguas oficiales y en, al menos, una tercer extranjera* (Ezker Anitza, 2009). Aldi berean, aipatu beharra dago Espainiar Estatu eleanitzaren alde alderdiak egindako aldarria. Egitez, Ezker Anitzak estatu federal nazio, kultura eta hizkuntza anitza sortu gura dau: *un Estado federal, solidario, plurinacional, pluricultural y plurilingüístico* (Ezker Anitza, 2001, 2005, 2009).

Amaitzeko, euskara lehenesteko xedea bi esaldi-muinetan baino ez dau proposatu alderdiak (1998, 2001); hain zuzen, herri euskaldunetan herri administrazioaren lehenetasuneko hizkuntza euskara izatea onetsiz.

#### 4.5.7. Hizkuntza politika proposamenak

Atal honen helburua, Ezker Anitzak proposagai dauzan hizkuntza politika ekimen zehatzak ikertzea da. Dagoeneko ezagun dan moduan, Ezker Anitzaren hizkuntzen inguruko diskurtsoak ekimen izaera handiagoa dau ideologikoa baino, eta horrela izan da hauteskunde programa guztietan. Batzbesteko datuak aintzat hartuta, diskurtsoaren %57,6 da ekimenei zuzendutakoa (ikusi 4.63. taula).

4.63.TAULA. EZKER ANITZAREN HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENEN INGURUKO DATU ZENTRALAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzbestekoa ala guztira
<b>Hizkuntzen gaiari hauteskunde programetan eskainitako ehunekoa</b>	5.8	3.0	1.9	3.0	3.7	4.3	3.5	4.7	3.7
<b>Hizkuntza politika eduki motara zuzendutako esaldi-muin kopurua</b>	14	28	42	115	136	134	131	10	610
<b>Hizkuntzen diskurtsoan hizkuntza politika eduki motak bildutako ehunekoa</b>	51,85	70	62,69	60,53	56,43	53,82	56,71	71,43	57,60
<b>Hizkuntza politika ekimen mota kopurua</b>	9	10	15	21	22	22	22	5	27

*Iturria:* norberak egina.

Ekimen motei dagokionean, hauteskunde deialdi guztiak kontuan izanik, 27 dira landutako proposamen politiko motak. Halaber, hauteskunde programa batek be ez dau aniztasun hori bere egin. Kopuru horretatik hurbilen gelditu direnak 1998-2009 arteko hauteskunde programak izan dira (ikusi 4.63. taula). Aipatzekoa da, ekimen mota kopurua hizkuntza politikari zuzendutako diskurtsoaren luzeragaz bat datorrela, hau da, zenbat eta diskurtso luzeagoa orduan eta ekimen mota gehiago proposatu dazala alderdiak<sup>113</sup>.

<sup>113</sup>Azpimarratu beharra dago hauteskunde programaren hizkuntza politikara zuzendutako esaldi-muin kopuru eta hizkuntza politika ekimen mota aniztasun handiagoak ez dauala esan gura hauteskundearen osotasunarekiko ehuneko handiagoa bereganatu daunik hizkuntzen alorrak. Barriz, esan daiteke, hauteskunde programarik luzeenak direla hizkuntzei be tarte handiena eskaintzen deutenak eta, hortaz, hizkuntza politika ekimenei bere bai.

Hizkuntza politika ekimenak hizkuntza desbardinei zuzendu deituz Ezker Anitzak. Ekimen gehien jaso dauzana euskara izan da. Egitez, euskarak bera beratara proposamenen %61,97 bildu dau eta gaztelaniagaz batera %21,64 (ikus 4.64. taula). Aitatzekoa da, era berean, Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzek jaso daben tarte esanguratsua; hirugarren indar bilakatuta proposamenen %8,52 batu baitabe. Hortaz, Ezker Anitzaren hizkuntza politika euskara, gaztelania eta Estatuko eskualdeko hizkuntzetan zentratu dala baieztatu daiteke. Halanda be, beste hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa batzuk be izan dauz ekimen politikoen xede alderdiak, baina oso modu bazterrekoan: hizkuntzak orokorrean, eleaniztasuna, atzerriko hizkuntzak, euskara, gaztelania eta ingelesa, gaztelania bera beratara, etorkin ala gitxiengo etnikoen hizkuntzak, hizkuntza gitxituak eta, azkenik, ingelesa bera beratara.

4.64.TAULA. EZKER ANITZAK HIZKUNTZA DESBARDINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK HAUTESKUNDE PROGRAMAKA. 1986-2012 (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	Urteen batzabetkoa	
Hizkuntzak	0	0	0	0	0	1,49	3,05	0	0,98	
Euskara	78,57	78,57	85,71	69,57	55,15	59,70	54,96	20	61,97	
Gaztelania	0	0	0	0,87	1,47	0	0	0	0,49	
Ingelesa	0	0	0	0	0	0	0,76	0	0,16	
Euskara & Gaztelania	21,43	21,43	7,14	19,13	29,41	21,64	18,32	50	21,64	
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	0	0	0	0	0	0	4,58	10	1,15	
Atzerriko hizkuntzak	0	0	2,38	0	2,21	4,48	0,76	0	1,80	
Etorkinen ala gitxiengo etnikoen hizkuntzak	0	0	0	2,61	1,47	0	0,76	0	0,98	
Estatuko eskualdeko hizkuntzak	0	0	4,76	7,83	8,82	11,94	9,92	0	8,52	
Eleaniztasuna	0	0	0	0	1,47	0	6,11	20	1,97	
Hizkuntza gitxituak	0	0	0	0	0	0,75	0,76	0	0,33	
Guztira	%	100	100	100	100	100	100	100	100	
	N =	14	28	42	115	136	134	131	10	610

Iturria: norberak egina.

Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren nondik-norakoak ezagutzeko interesgarria da hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa batzuei zuzendutako ekimen motak modu bereiztuan lantzea. Hizkuntza politikaren baitan tarte txikiena jaso dabenetatik hasita, **hizkuntza gitxituen** gainean egindako ekimen proposamena bakarra da, bi hauteskunde deialdi jarraituetan aipatua izan dana (2005, 2009); hain zuzen: *promover la declaración del euskera y otras lenguas minorizadas europeas como lenguas oficiales de la UE* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

**Etorkinen hizkuntzak** modu zeharkakoan zein zuzenean izan dauz langai Ezker Anitzak. Alderdiaren helburu nagusia etorkinen komunikazio harremanak erraztea dala esan daiteke: gizarte zerbitzuen barri emongo dauan informazioa hizkuntza aniztetan eskaintzeko gidak sortzea (1998), gizarte zerbitzuetan etorkinekaz harremana daben profesionali interpretak jartzea (1998), osasun zentruetan itzulpen zerbitzuak edota hizkuntza desbardinak ezagutzen dabezan profesionalak jartzea (2001), zein Euskadiren ezaugarriak aditzera emongo dauzan gida bat sortzea hizkuntza desbardinetan (2009). Etorkin eta bertakoen komunikazio harremanak hobetzeko neurriez gainera, aipatzekoa da 1998ko hauteskunde programan eskoletan etorkinen seme-alabei euren ama hizkuntza ikasteko programak sortzeko Ezker Anitzak egindako proposamena.

Hizkuntza politikaren baitan kodetutako **eleaniztasunari** begira dagozan neurriek arlokako azken helburu izaera hartu dabe gehienetan. Ezker Anitzak, bai gizarte mailan bai hezkuntza alorrean eleaniztasuna lortzea dau helburu (2001, 2009). Era berean, eleaniztasunari zuzendutako ekimen zehatzen bat edo beste be proposatu dau Ezker Anitzak. Aurreko hezkuntzako helburuagaz lotuta, umetatik eskolan hizkuntza desbardinaren ikasketa bultzatzea (1998), hezkuntza eredu eleanitza ezartzea (2009), gizarte eleanitzaren inguruko ikerketa bideratzea (2001, 2009).

**Ingelesak** modu esplizituan eta bera beratarra ekimen bakarra hartu dau beregain, hain zuzen, unibertsitatean ingelesa bultzatuz aniztasun linguistikoa indartzea (2009). Dana dala, gogoratu beharrekoa da, Ezker Anitzaren politiketan ingelesa baino arrakastatsua goak izan direla **atzerriko hizkuntzak**. Atzerriko hizkuntzekaz bilatutakoa eskolan mintzairon ikaskuntza bultzatzea izan da (2001, 2005, 2009), horrela beronen ezagutza bermatuz (2001, 2005, 2009) eta horretarako baliabideak be jarritz (1994). Ezker Anitzaren berezitasun moduan, esan beharra dago, atzerriko hizkuntza lez kodetu diren ekimen gehienek ez dabela atzerriko hizkuntza terminoa erabili. Bere ordeaz, modu abstraktuan Europar Batasuneko hizkuntzak izan dauz mintzagai: *dominio de otra lengua de la comunidad europea* (2001), *otros idiomas de la Unión Europea* (2005), *una tercera lengua comunitaria* (2005), etab. Ildo berean, bateratze linguistikoa baino marko hirueleduna proposagai izan danetan be - gure kodeketan *euskara, gaztelania eta ingelesaren* pean kodetu dana-, Ezker Anitzak ez dau sekula hirugarren hizkuntza moduan ingelesa ezarri. 2009az geroztik, eta hauteskunde deialdi horretantxe bereziki, Ezker Anitzak proposatutakoa hezkuntza hirueleduna ezartzea izan da, bide horretan hizkuntzen ikaskuntzarako lege bat sortzea be planteatuz eta hiru

hizkuntzaren ezagutza bermatzea be helburutzat joaz. Hiru hizkuntzotatik bi zeintzuk diren esplizitatu dauan arren -euskara eta gaztelania, bi hizkuntza ofizialak- hirugarrena ez jako mintzaira jakin bateri atxiki. Horren adibidetzat hurrengo esaldi-muinak: (*un modelo*) *que capacite en las dos lenguas oficiales y en, al menos, una tercera extranjera* (Ezker Anitza, 2009); edota hirurotako mintzaira bat bera be ez esplizitatu, baina hizkuntza ofizialak emontzat joaz: *la superación del actual marco de modelos lingüísticos por medio de un modelo único y flexible* (Ezker Anitza, 2009). Gizarte mailan be, ezagutza hiruelea lortzea xedetzat jo danean, esapidea parekoa izan da: *conocimiento pleno por parte de la ciudadanía vasca de sus dos lenguas oficiales complementado por el conocimiento adecuado por lo menos de una lengua extranjera* (Ezker Anitza, 2009).

**Gaztelania** bera berataraz gizarte eta hezkuntza arloan izan dau hizpide alderdiak bi proposamen bideratuz: lehenengoa, gizarte alorrekoa, 1998an aipatutakoa eta gune erdaldunetan gaztelania hizkuntza nagusia izaten jarraitzea legitimatzen dauana, nahiz eta euskara be bultzatu; bigarrena, hezkuntza alorrekoa, 2001eko, non eskola mailan A ereduaren euskalduntze maila eskasarekiko eta gizarte sektore baxuetako ume eta gazteak bilduz eskola publikoan eredu honek bizi izandako bazterketarekiko arduraz adieraziz, hezkuntza eredu ebaluaketa egiteko beharrezana aditzera emoten dauana.

## Estatuko eskualdeko hizkuntzentzako politika proposamenak

Estatuko eskualdetako hizkuntzak herri administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan eta esparru juridikoan izan dira langai; baina lau arloetan ekimen gehien bildu dauzana **herri administrazioa** izan da (ikus 4.65. taula). Ezker Anitzak Estatuko Administrazioa eskualdetako hizkuntzen defentsa eta berreskuratzeagaz konprometitzeko beharra adierazi dau (2005, 2009), Estatuko aurrekontu orokorretan Estatuko hizkuntza guztien normalizaziorako berariazko diru multzo bat bideratzea be eskatuz (2005, 2009). Are gehiago, Estatu mailan eskualdetako hizkuntzei izaera koofiziala atxikitzea aldarrikatu dau alderdiak. Bere hitzetan, *las diversas lenguas del Estado habrían de ser oficiales en sus territorios a todos los efectos y cooficiales en los órganos ejecutivos, legislativos y judiciales federales del Estado* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Ildo berean, Ezker Anitzak Senatuan Estatu barneko hizkuntza ofizialen arteko parekotasuna eskatu izan dau hauteskunde deialdi jarraituetan (1998, 2001, 2005): *plena equiparación en los trabajos del Senado de todas las lenguas oficiales en el Estado* (Ezker Anitza, 1998, 2001). Era berean, herritarrak Estatuko Administrazioagaz euren berezko hizkuntzan mintzatzeko aukera bermatzeko nahia adierazi dau Ezker Anitzak, hau da, eskualdetako hizkuntzek be Estatuko administrazioan arreta hizkuntza moduan jokatzeko (1998, 2001). Horri lotuta, Estatuko administrazioiko langileriaren ibilbide profesionalean hizkuntza autonomikoen ezagutza merito moduan hartzea proposatu dau alderdiak (2001, 2005, 2009). Amaitzeko, EAEn egoitza daben Estatuko administrazioak helarazitako dokumentazio, inprimaki ofizial, web orrialde, NAN, pasaporte, eta abarretan lurraldearen izaera eleanitza aditzera emoteko nahia be agertu dau (2005).

4.65.TAULA. EZKER ANITZAK ESPAINIAR ESTATUKO ESQUALDEKO HIZKUNTZEI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Adm.	Irakas.	Komu.	Jurid.	Batazbestekoa
H. babestu, bultzatu	11,11	0	22,22	0	9,09
Ikasketa, alfabetatzea	0	66,67	0	0	9,09
Legedia: aldatu	0	0	0	100	22,73
Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea	22,22	0	0	0	9,09
Hizkuntza eskubideak	5,56	0	0	0	4,55
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	16,67	0	22,22	0	11,36
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	11,11	0	0	0	4,55
Komunikazio hizkuntza funtzioa	22,22	0	55,56	0	20,45
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	0	33,33	0	0	4,55
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	11,11	0	0	0	4,55
Guztira	%	100	100	100	100
	N =	19	6	9	10
					44

*Iturria: norberak egina.*

**Irakaskuntza** alorrean, eskolan gaztelania ez beste eskualdetako hizkuntzen aukerazko ikaskuntza bultzatzea izan dau Ezker Anitzak proposagai (1998, 2001), baita nazioartean euskara, galego eta katalanaren ikaskuntza eta zabalkuntza bultzatzea be (2005, 2009). Aldi berean, eskolan Estatuaren izaera plurilinguistiko eta plurikulturalaren inguruko oinarritzko ezagutza eskaintzea bilatu dau alderdiak (2005, 2009). **Komunikabideetan**, ordenu konstituzionala aintzat hartuta, eskualdetako hizkuntzak babesteko erantzunkizuna atxiki deutso Estatuko administrazioari (1994, 1998, 2001).

Bestalde, erkidegoetako telebistak, euskara, galego edota katalanez emititzen direnak barne, Estatu osoan ikusi ahal izateko neurriak hartzea proposatu dau alderdiak (2005, 2009): *garantizar que las emisoras que dependen de Gobiernos autonómicos, incluidas las que emiten en euskara, galego y catalán, puedan ser captadas en todo el territorio del Estado* (Ezker Anitza, 2005). Ildo horretan, 1994an Estatuko telebista eta irrati publikoetan euskarazko programak sartzeko proposamena egin eban alderdiak. Aitagarria da, Ezker Anitzak telebista pribatuak be izan dauzala xede, komunikabideen eginkizuna zerbitzu



publikoa dala azpimarratuz, programazioaren atal bat eskualdeko berezko hizkuntzetan emititzeko exigentzia ezartzea proposatuz: *en el caso de las TV privadas, teniendo en cuenta que se hallan dentro del marco de un servicio público, también se les debe exigir un esfuerzo similar, incluyendo el desarrollo de un porcentaje significativo de su programación en la lengua propia de cada Comunidad* (Ezker Anitzak, 1998, 2001).

Esparru juridikoari dagokionean, proposatutako ekimena bat izan da, urterik urtera aldarrikatu dana (1998, 2001, 2005, 2009): Konstituzioan hizkuntza guztien parekotasuna lortzea. Horretarako, Konstituzioa erreformatzeko beharra adierazi dau alderdiak; izan be, *la prevalencia constitucional del castellano sobre el resto de las lenguas del Estado español es una de las expresiones constitucionales del Estado Unitario que no pueden mantenerse en el Estado Federal propugnado por Ezker Batua Berdeak. El equiparamiento constitucional de todas las lenguas del Estado español es el marco en el que ha de apoyarse un ejercicio plurilingüístico real y efectivo* (Ezker Anitza, 1998, 2001). (...) *Así, en el Título Preliminar ha de reconocerse con claridad el carácter plurinacional, pluricultural y plurilingüístico del Estado* (Ezker Anitza, 2001).

## Euskara eta gaztelaniari zuzendutako proposamen politikoak

Ezker Anitzak euskara eta gaztelaniari be atxiki deutsoz politika ekimenak arlo desbardinetan: hizkuntza politikaren arlo orokorrean, herri administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan, kultura eta kulturgintzan eta gizarte bizitzan. Alde handiz, **irakaskuntza** izan da ekimen gehien bildu dauzana; bereziki eskola, baina baita helduentzako eskolak eta unibertsitatea be. Eskolarako, proposamenek euskarak eta gaztelaniak esparru horretan izan beharreko lekua itxuratzen dabe. Ezker Anitzak euskara eta gaztelania, biak, babestu eta bultzatu gura dauz eskola barnean: bataren eta bestearen ikasketa bultzatuz eta ikasketa funtzioa atxikiz (*lengua vehicular de aprendizaje*), zein euren erabilera normalizatua bilatuz. Izan be, Ezker Anitzak behin baino gehiagotan (1990, 1998, 2009, 2012) adierazi dauan lez, helburua ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen ezagutza ziurtatzea da (%8,45): *el objetivo lingüístico de la EPV (Escuela Pública Vasca) debe de ser que todos los alumnos y alumnas alcancen al finalizar la enseñanza obligatoria una capacidad real de comprensión y expresión oral y escrita en las dos lenguas* (Ezker Anitza, 1990). Hezkuntza ereduen proposamenei dagokionean, Ezker Anitzak aukeraketa banatuaren eredia (%5,63) baino gehiagotan dau hizpide eredu bateratu elebiduna (%14,08) (ikusi 5.65. taula). Egitez, 1994, 1998 eta 2001ean ereduen sistema mantentzeko deia egiten dauan aldi berean izan dau hizpide eskola elebiduna. 2001ean, gainera, honakoa be adierazi eban: *consideramos que es necesario tender a la superación paulatina de este sistema y a la implementación de otro, en sí mismo bilingüe* (Ezker Anitza, 2001). Ebaluaketa eta erreformen proposamenak 1998ko hauteskunde deialdiaz geroztik ugariak izan dira Ezker Anitzaren diskurtsoan (%28,17) (ikusi 4.66. taula). Ebaluaketa eta erreforma asko hezkuntza ereductara zuzendu dauz. Egitez, hasiera batean ebaluaketa beharra zana (*realizar un informe exhaustivo sobre los tres modelos lingüísticos*) (Ezker Anitza, 2001, 2005), 2009rako erreforma bihurtu da: *la remodelación de los modelos lingüísticos* (Ezker Anitza, 2009), beste hainbat erreformaren tartean.

4.66. TAULA. EZKER ANITZAK EUSKARA ETA GAZTELANIARI ALDI BEREAN BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Adm.	Irakas.	Komu.	Kult.	Gizar.	Batazbes- tekoa
<b>Ezagutza, euskalduntzea</b>	0	0	8,45	0	0	50	6,25
<b>H. babestu, bultzatu</b>	0	8,70	1,41	0	0	0	2,68
<b>Ikasketa, alfabetatzea</b>	0	0	8,45	0	0	0	5,36
<b>Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea</b>	33,33	0	0	0	0	0	0,89
<b>Hizkuntza eskubideak</b>	66,67	34,78	8,45	100	0	0	16,96
<b>Bateratza linguistikoaren eredia: marko bieledua</b>	0	0	14,08	0	0	0	8,93
<b>Aukeraketa banatuaren eredia</b>	0	0	5,63	0	0	0	3,57
<b>Hizkuntza eskakizunak: baldintza</b>	0	4,35	0	0	0	0	0,89
<b>Arreta-harreman hizkuntza funtzioa</b>	0	52,17	0	0	0	0	10,71
<b>Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa</b>	0	0	8,45	0	0	0	5,36
<b>Komunikazio hizkuntza funtzioa</b>	0	0	7,04	0	0	50	5,36
<b>Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala</b>	0	0	0	0	70	0	6,25
<b>Baliabide tekniko, giza, materialak</b>	0	0	5,63	0	0	0	3,57
<b>Planifikazio soziolinguistikoa</b>	0	0	1,47	0	0	0	0,89
<b>Ebaluaketak, erreformak</b>	0	0	28,17	0	0	0	17,86
<b>Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak</b>	0	0	2,82	0	30	0	4,63
<b>Guztira</b>	%	100	100	100	100	100	100
	N =	3	23	71	3	10	2

*Iturria:* norberak egina.

Hizkuntza eskubideak be izan dauz hizpide irakaskuntza alorrean Ezker Anitzak, hiru norabidetan adierazita: batetik, Ezker Anitzak aukeraketa linguistikoa dala eta gertatu daiteken segregazioa gaitzeten dau (2009); bestetik, hezkuntza elebiduna izatea ume eta gazte guztien eskubidea dala aldarrikatzen dau (2009) eta, azkenik, umeak euren ama hizkuntzan hezteko aukera errespetatzeko deia egiten dau, betiere euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna aintzat hartuta: *respetar la posibilidad de cada familia de educar a sus hijos en su lengua materna, teniendo en cuenta la cooficialidad del euskera y el castellano* (2009). Azpimarratzekoa da hezkuntza alorrean euskara eta gaztelania batera mintzagai izan direnetan ebaluaketa eta erreformak izan direla gehien aipatutakoak (%28,17) (ikusi 4.66. taula). Bestalde, hizkuntza politikaren aplikaziorako beharrezko diren bitarteko neurriak eskaintzen dabezan ekimenak be izan dira langai, nahiz eta neurri nahiko txikian: baliabideen eskaintza, finantzaketa.

**Herri administrazioan** euskara eta gaztelania batera hizpide izan direnetan bi izan dira proposamen nagusiak: euskara eta gaztelaniari arreta-harreman hizkuntza funtzioa atxikitzea (%52,17) eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuak izatea (%34,78) (ikusi 4.66. taula). Zehaztu beharra dago, arreta-harreman funtzioa epaitegiatarako izan dauala proposagai Ezker Anitzak, bai komunikazio idatzirako bai ahozkorako. Modu horretan, alderdiak honakoa aldarrikatu dau: *debe existir un número suficiente de funcionarios públicos, en todos los estamentos, capaces de prestar servicio en las dos lenguas* (Ezker Anitza, 1998, 2001, 2005); eta era berean, *modelos en ambos idiomas oficiales, de todos los documentos judiciales que se dirigen a los ciudadanos y ciudadanas vascas* (Ezker Anitza, 1998). Hizkuntza eskakizunei dagokionean, aipatzekoa da Ezker Anitzak komunitate elebidun batean bizitzeak langileria publikoari herritarrekiko betebeharrak batzuk dakartzozala argi adierazten dauala: *las obligaciones de un servidor público hacia los ciudadanos de una lengua u otra, en una comunidad bilingüe como la nuestra* (Ezker Anitza, 2009). Era berean, eta gorago aurreratu dan moduan, aipatzekoa da Ezker Anitzak hizkuntza politika bideratzeko beharra ez dauala administrazio lokalera edo erkidegokora mugatzen, Estatuko administrazio periferikoari be betebeharrak ezartzen deutsoz: *establecer políticas lingüísticas en la Administración periférica del Estado y en la Administración de Justicia, con los mismos criterios que en las Administraciones locales y el Gobierno Vasco* (Ezker Anitza, 2005).

**Kultura eta kulturgintza arloan** sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturalak bereganatu dau protagonismoa (%70) (ikusi 4.66. taula). Hain zuzen, *potenciar la creación cultural realizada en Euskadi, tanto en euskera como en castellano* (Ezker Anitza, 1998, 2001). Kulturgintza mailan literatura eta liburugintza azpi-alorrari eskaini deutso tartea Ezker Anitzak. Aldi berean, adierazpen kulturalak diru mailan laguntzeko konpromisoa be hartu dau alderdiak: *apostando mediante ayudas públicas por las manifestaciones artísticas históricamente asociadas a nuestra Comunidad* (Ezker Anitza, 1998, 2001). Ildo berean, 2012ko hauteskunde deialdian, BEZaren igoerak bultzatuta, herritarrek produktu kulturalak kontsumitu dagiazan diru-laguntzen programa bat be izan dau proposagai Ezker Anitzak: *programa de subvenciones públicas para el acceso a los productos culturales gravados por la nueva reforma del IVA* (Ezker Anitza, 2012).

Euskara eta gaztelania batera hizkuntza politikaren arlo orokorrean, komunikabideetan eta gizartearen langai izan direnetan modu honetantxe egin dabe: **hizkuntza politikaren arlo orokorrean** hizkuntza eskubideak (%66,67) eta ofizialtasuna (%33,33) izan dira hizpide (ikus 4.66. taula). Hain zuzen, bai herritarren hizkuntza eskubideak bai ofizialtasuna benetako bihurtzea. **Komunikabideetan** be hizkuntza eskubideak izan dira mintzagai hartutako gai eskusiboa. Zehazki, EiTB herritar guztien zerbitzura jarritako komunikabidea dala aditzera emoteko, euskaldun zein gaztelaniadunentzako. **Gizarte bizitzan**, barriz, bi hizkuntzen erabilera eta ezagutza osoa lortzea izan dau helburu alderdiak.

### Euskarari zuzentutako proposamen politikoak

Aurretik aipatu dogun lez, euskara izan da bera beratara politika proposamen gehien bereganatu dauzan hizkuntza Ezker Anitzaren diskurtsoan; hain zuzen, politika ekimen guztien %61,97 (ikus 4.64. taula). Gainera, aipatzekoa da euskarak politika alor guztietan bereganatu dauzala ekimenak. Ekimen gehien bildu dauan esparrua, diferentzia handiaz, irakaskuntza izan da. Bigarren, herri administrazioa gailendu da, eta hirugarren, hizkuntza politikaren arlo orokorra. Laugarren postuan kokatu dira komunikabideek eta bostgarrenean kulturgintza. Beraren atzetik gizarte bizitza, lan mundua eta esparru juridikoa ezarri dira eta, azkeneko postuan, teknologia barriak.

#### 4.67.TAULA. EZKER ANITZAK EUSKARARI BIDERATUTAKO HIZKUNTZA POLITIKA EKIMENAK ARLOKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Orok.	Adm.	Irakas.	Komu.	Tekno.	Lan	Kult.	Gizar.	Jurid.	Batazbestekoa
Ezagutza, euskalduntzea	3,92	10,14	12,69	0	0	0	0	6,25	0	7,56
H. babestu, bultzatu	35,29	5,80	2,24	0	0	0	13,64	0	0	7,84
Ikasketa, alfabetatzea	11,76	5,80	15,67	0	0	13,33	0	0	0	9,24
Legedia: mantendu	0	1,45	0	0	0	0	0	0	42,86	1,96
Legedia: aldatu	0	0	0,75	0	0	0	0	0	14,29	0,84
Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea	0	5,80	0	0	0	0	0	0	42,86	2,80
Hizkuntza eskubideak	15,69	5,80	1,49	6,90	0	13,33	0	0	0	5,04
Hizkuntza didaktika	0	0	1,49	0	0	0	0	0	0	0,56
Ikerketa	0	0	4,48	0	0	0	0	0	0	1,68

(... / ...)

(... / ...)

	Orok.	Adm.	Irakas.	Komu.	Tekno.	Lan	Kult.	Gizar.	Jurid.	Batazbes- tekoa
Hizkuntza eskakizunak: baldintza	0	8,70	0	0	0	0	4,55	0	0	1,96
Hizkuntza eskakizunak: meritu	0	1,45	3,73	0	0	0	0	0	0	1,68
Arreta-harreman hizkuntza funtzioa	0	20,29	0	0	0	0	0	0	0	3,92
Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa	0	0	11,94	0	0	13,33	0	0	0	5,04
Komunikazio hizkuntza funtzioa	11,76	7,25	3,73	20,69	28,57	0	0	68,75	0	9,80
Laneko hizkuntza funtzioa	0	1,45	0	0	0	0	0	0	0	0,28
Itzulketa, bikoizketa	0	0	0	6,90	28,57	0	13,64	0	0	1,96
Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala	0	0	0	27,59	0	0	18,18	0	0	3,36
Baliabide tekniko, giza, materialak	5,88	0	14,18	17,24	0	0	0	0	0	7,56
Hizkuntza paisaia	0	0	0	0	14,29	13,33	0	0	0	0,84
Planifikazio soziolinguistikoa	11,76	18,84	2,99	0	0	13,33	0	0	0	7
Ebaluaketak, erreformak	0	4,35	10,45	0	0	0	0	0	0	4,76
Transmisioa	0	0	0	0	0	0	0	18,75	0	0,84
Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa	3,92	1,45	2,99	0	0	0	36,36	6,25	0	4,48
Finantzaketa, diru laguntza, hitzarmenak	0	1,45	11,19	20,69	28,57	13,33	13,64	0	0	8,12
Tituluak, akreditazioak	0	0	0	0	0	20	0	0	0	0,84
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	51	69	134	29	7	15	22	16	14	357

Iturria: norberak egina.

Euskarak **irakaskuntzaren** baitan jasotako ekimenak eskola, unibertsitate eta hizkuntza eskoletara zuzenduak egon dira gehiengoan; baina helduentzako eskolek, lanbide heziketak eta hezkuntza arlo orokorrak be bildu dabez politika proposamen bat edo beste. Helduentzako eskoletan proposatutakoa euskararen ikasketarako programa bereziak zabaltzea izan da (1998) eta lanbide heziketan bere euskalduntzean aurrerapenak egitea (2005, 2009). Irakaskuntza modu orokorrean hizpide izan danetan, barriz, hezkuntzako maila guztietan euskara babestea (1998), euskalduntze prozesuak bideratzea (2001), euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzea (2001) eta ikaskuntza prozesua babesteko materialak sortzea (2001) izan dira proposatutakoak.

Hizkuntza eskola edota euskaltegietan, Ezker Anitzak herritar guztiei euskara ikasteko aukera zabaldu gura izan deutse: *que todo el mundo tenga la posibilidad de aprender euskera, lo cual no sucede en estos momentos* (Ezker Anitza, 1990) eta azken urteetan etorkinek euskara ikasi dagien programa bereziak sortzea proposatu dau (2005, 2009). Baliabideen eskaintzak be pisu handia bereganatu dau, dala materialen sorkuntzarako (1994, 1998), dala udaletako eta itunpeko euskaltegi sarea indartzeko (1994, 1998, 2001). Era berean, finantzaketak eta diru laguntzak izan dauz hizpide Ezker Anitzak, euskaltegiei eurei zuzenduta zein ikasleei eurei eginda: *[aumentar] la financiación de los euskaltegis concertados hasta 2 euros por hora y alumno, tal y como reivindica el conjunto del sector* (Ezker Anitza, 2005); *[incrementar y generalizar] las ayudas económicas ligadas a resultados académicos, hasta conseguir la gratuidad* (Ezker Anitza, 2009). 2009an ikasleen perfil eta beharizanetara eta teknologia barrietara egokituko dan hezkuntza sistemaren bermoldatzea be proposatu dau. Era berean, aipatzekoa da 1986an HABEren lege erreforma izan ebala proposagai Ezker Anitzak; eta 2005 eta 2009an helduen euskalduntzeko hezkuntza sistemaren indartzea eta erreforma.

Unibertsitatean, bere euskalduntzea dau Ezker Anitzak helburu (*la euskaldunización de la Universidad* (1998)), euskararen presentzia eta erabilera indartzea (1998, 2001, 2009). Izan be, Ezker Anitzaren ustetan unibertsitatearen eginkizuna be bada euskara indartzea: *se le asigna cada vez más un papel de fomento de la lengua vernácula* (Ezker Anitza, 2009). Zentzu horretan, unibertsitate mailan euskarari ikasketa (1998, 2001, 2005, 2009) eta ikerketa (1994, 1998, 2001, 2009) funtzioa atxikitzeari presentzia eta jarraipen handia eskaini deutso alderdiak. Horren adibidea honako aipuak: *incrementar la oferta de estudio de asignaturas en euskera* (2005), edota *desarrollar una política que impulse el trabajo científico en euskera* (1998, 2001). Irakaskuntza euskaraz bideragarri egiteko irakaslegoak euskara ikastea funtsezkotzat jotzen dau Ezker Anitzak (1994, 1998, 2001): *deben redarctarse y ponerse en marcha planes de aprendizaje y profundización en el conocimiento de nuestra lengua, de cara a que en un plazo de tiempo adecuado pueda subsanarse esta situación* (Ezker Anitza, 1994, 1998, 2001). Baina irakasleen euskalduntzeaz gainera, euskara unibertsitatean normalizatzeko plan zabalagoen beharra be identifikatu dau alderdiak: *se requiere seguir impulsando planes consensuados de extensión del euskera en la Universidad* (2009). Era berean, prozesu hori bideratzeko baliabideen eskaintza be hartu dau kontuan Ezker Anitzak, baita finantzaketa handiagotzeko beharra be (1990, 1998, 2001, 2005, 2009); izan be, alderdiaren ustetan *ésta progresión no es posible sin asignar esfuerzos presupuestarios especiales* (Ezker Anitza,

2005). Amaitzeko, Ezker Anitzak, ikerketa euskaraz egiteaz gainera, euskararen inguruan ikerketa babesteko hautua be egin dauala aipatzekoa da: *apoyo a la investigación en y sobre el euskera* (Ezker Anitza, 1994, 1998, 2001).

Eskolari dagokionez, Ezker Anitzak 1986an, dagoeneko, ikasle guztiak euskalduntzea helburu moduan jo eban. Bere hitzetan: *en definitiva, el objetivo a conseguir es la Euskaldunización de toda la población escolar vasca* (Ezker Anitza, 1986). Bide horretan, euskalduntzea indartzeko beharra behin baino gehiagotan adierazi dau: *necesidad de reforzamiento de los niveles de euskaldunización* (Ezker Anitza, 2009), ikasleena ezeze irakasleena ere bai. Irakasleek euskara ikasteko neurri errepikakor bat Irale zentruen sarea zabaltzea izan da (1994, 1998, 2001). Hori holan izanik be, irakasleak euskara hizkuntza eskakizunetik salbuesteko kasuak lege mailan aintzat hartu eta garatzea proposatu dau: *desarrollar legislativamente el reconocimiento de los supuestos de exención de perfil lingüístico contemplados genéricamente en el Decreto sobre Perfiles Lingüísticos* (Ezker Anitza, 2001, 2005). 90 hamarkadaren bueltan, ikasleak euskalduntzeko B eta D eruedetan matrikulazioa sustatzea, zein A eruedan euskarari ikasketa funtzioa atxikitzea izan dira proposatuak.

Euskarari eskolan tarte bereiztua eskaini izan jakonetan ebaluaketa eta erreformek espazio nabarmena bereganatu dabe bi norabidetan: batetik, hezkuntza sisteman ezarritako euskalduntze ereduaren ebaluaketa eta erreforma egitea izan da proposatutakoa, estrategiak eraginkorrak izanez diren kasuetan (1986, 1990, 2001); eta, bestetik, irakasleen euskalduntzeko programa dan Irale bera ebaluatu eta erreformatzea (2001, 2005): *reformular los planes de euskaldunización del profesorado (Irale) que están dando muestras de inadecuación* (Ezker Anitza, 2005). Era berean, Ezker Anitzak hezkuntza sistemako baliabideen eskasia emoten dau aditzera eta beroneri aurre egiteko konpromisoa hartzen dau (1990, 1994, 1998, 2001), besteak beste, material didaktikoa gehituz eta hobetuz.

Euskarak bera beratara **herri administrazioan** be presentzia nabarmena lortu dau, dala herri administrazioa hizpide orokor hartuta, epaitegietan, udal eta foru administrazioetan, arduradun politikoaren artean, estatuko administrazioan eta organismo internazionalan.

Udal administrazioan politika proposamen berberak izan dauz aipagai Ezker Anitzak 1998an eta 2001ean: Udal Lege proiektuan herri administrazioaren normalizazio linguistikoari kapitulu bat eskaintzea eta euskaldun kopurua handia dan herrietan euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzea.

Ezker Anitzak hizkuntzei modu zuzenean ala zeharka lotutako erakundeetan euskal ordezkari politikoak izatea proposatu dau: *bien incorporando los representantes vascos a la delegación del Estado federal, especialmente en el caso de aquellos que se ocupan de materias en las que es importante la aportación de Euskadi, por ejemplo: presencia en la UNESCO para las cuestiones relativas a la lengua y a la cultura* (Ezker Anitza, 2005). Eta ordezkari politikoaren artean hizkuntza politika gaietan sentsibilizazioa indartzea proposatu

dau Ezker Anitzak (2009), ordezkari politikoen soziolinguistika konparatuko ezagutza zein hizkuntza politikaren inguruko eztabaidetan parte hartzea bultzatuz.

Aldi berean, Estatuko administrazio periferikoan eta epaitegietan herri administrazio eta Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politika irizpide bardinak ezartzeko proposamena egin dau alderdiak 1998, 2001 eta 2009an: *establecer políticas lingüísticas en la Administración periférica del Estado y en la Administración de Justicia con los mismos criterios que en las Administraciones locales y el Gobierno Vasco* (Ezker Anitza, 2009).

Bestalde, herri administrazioaren baitan politika ekimen gehien jaso dauzan epaitegien kasuan, proposatutako ekimen motak anitzak izan dira, nahiz eta euren artean koherentzia eta norabide berbera ageri. Ezker Anitzaren ustetan, *la Administración de Justicia del País Vasco no puede seguir siendo una isla lingüística en medio de un conjunto de Administraciones Públicas vascas que caminan hacia el bilingüismo* (Ezker Anitza, 2001). Alderdiak beharrezkotzat jotzen dau botere judizialak euskararen izaera ofiziala aintzakotzat hartzea eta beronetara egokitzea (*adecuación de la Justicia en Euskadi a las exigencias derivadas de la existencia de dos lenguas oficiales y euskaldunización* (Ezker Anitza, 2009)); modu horretan euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Helburu horregaz, euskarak epaitegietan arreta-harreman hizkuntza moduan jokatzeko funtsezkoa da, baita harremana eskaintzerakoan itzulpen zerbitzuen behin behinekotasuna helburutzat jotzea be: *el objetivo se ha de centrar en reducir al máximo el uso transitorio de los traductores, que ha de quedar desterrado en el plazo más breve posible* (Ezker Anitza, 1998). Hori lortzeko, neurri desbardinak dauz proposagai: maila orokorrean epaitegien euskalduntzean ahalegin berezia egitea (2001, 2005) zein justizia administrazioan Hizkuntza Normalizaziorako Plana martxan jartzea (1998, 2001, 2005). Maila zehatzagoan, honakoak izan dira proposatutakoak: epaitegi eta auzitegi bakoitzean herritarren euskara eskaerari erantzuteko hizkuntza eskakizundun langile nahikoa ezartzea (1998, 2001, 2005); arreta euskaraz emoteko gai diren epaitegi zirkuituak eratzea (2005, 2009); epaile, fiskal eta sekretarioen euskalduntzea bultzatzea, euren lan eskubideak kaltetu barik, euskara ikasteko neurriak hartzera konprometituz (1998, 2001, 2005, 2009).

Bestalde, herri administrazioa modu zabalean lantzerakoan, honakoak izan dira proposatutakoak: euskara herri administrazio desbardinetan bultzatzea (1998), herri administrazioa eta euskal erakundeetan euskara orokortzea (1990), herri administrazioan herritarren hizkuntza eskubideak aintzat hartzea (2001), langileria publikoari hizkuntza eskakizunak ezartzea (1998, 2001), baina ezartze hori lanpostuan bete beharreko funtzioak aintzat hartuta egitea: *evitando la asignación de perfiles no relacionados con el contenido de sus funciones* (Ezker Anitza, 2005). Hizkuntza eskakizunak hizpide hartuta, interesgarria da 1990eko esaldi batez puntualizazioa burutzea. Ezker Anitzak herri administrazioaren euskalduntzea lortu gura dau, baina langileria lanpostua lortzeko momentuan baztertu baino, eurak euskalduntzeko aurrekontu konpromisoa hartuz: *generalización del euskera en la Administración e instituciones vascas, incidiendo en el compromiso presupuestario de euskaldunización del funcionamiento y no tanto en el hecho discriminatorio a la hora de procurar el acceso* (Ezker Anitza, 1990). Langileriaren euskalduntze prozesuetan azken



azterketa bakarraren lekuan ebaluaketa jarraia ezartzea be proposatu dau Ezker Anitzak (2005); baita hizkuntza planifikazio orokorra burutzea herri administrazio zehatza, denbora, lekua zein lanpostu mota aintzat hartuta (2001, 2009). Ildo horretan, eremu euskaldunetan euskarak lehentasunezko hizkuntza moduan jokatzea, arreta-harreman hizkuntza izatea eta laneko hizkuntza moduan erabiltzea ontzat jo da.

Euskarari zuzendutako ekimenetan **hizkuntza politikaren arlo orokorra** izan da hirugarren arlo indartsuena 51 ekimenegaz (ikus 4.67. taula). Ekimen horreen %35,29 euskara babesteko proposamen orokorretara zuzendu dauz Ezker Anitzak; alegia, normalizazio linguistikoaren aldeko aldarrietara, euskara babesteko neurrien aldarrikapenera, etab.; planak erkidego osora, berenberegi, zein zonalde euskaldunetarako zuzenduz. Hizkuntza politikaren arlo orokorrean euskarari zuzendutako bigarren ekimen indartsuena hizkuntza eskubideei dagokiena izan da, proposamenen %15,69gaz. Hain zuzen, herritarrei euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea bermatu gura deutse Ezker Anitzak: *garantizar el derecho de todos los ciudadanos a conocerlo y comunicarse correctamente en él, en cualquiera de los ámbitos propios de la expresión lingüística* (1994, 1998, 2001). Bestalde, euskararen erabilera indartzeko eta normalizatzeko konpromisoa be hartu dau alderdiak, bere funtzio eta erabilera esparruak zabalduz (%11,76): *ampliar el repertorio de funciones y ámbitos de utilización del euskera* (1998, 2001); eta baita euskaldunen kopurua handitzeko be, beronen ikaskuntza bideratuz (%11,76) eta herritar zein gizartearen euskalduntzean aurrera eginez (%3,92) (ikus 4.67. taula).

Planifikazio soziolinguistikoari dagokionean, alderdiak euskararen normalizaziorako Plan Zuzentzaile Orokorra aldarrikatzeaz gainera (1998, 2001), erabilera planak (2001) edota hiriburu eta hiri handietara berariaz zuzendutako planak (1998, 2001) burutzeko nahia agertu dau Ezker Anitzak. Planok euskarak hizkuntza politikaren arlo orokorrean jasotako ekimenen %11,76 batu dabe (ikus 4.67. taula). Bestalde, dagoeneko abian dagozan zonalde euskaldunetako lanak babesteko erakunde publikoen laguntza eta baliabideak eskaintzeko konpromisoa be hartu dau Ezker Anitzak 1990, 1998 eta 2001eko hauteskunde programetan. Azkenik, herritarren sentsibilizaziorako neurriak izan dauz hizpide; izan be, alderdiaren hitzetan, *es necesario que el euskera gane prestigio social y sea precibido como algo valioso y propio por toda la población, euskaldun o no* (Ezker Anitza, 2005).

Bestalde, **komunikabideetan** euskarari zuzendutako ekimen nagusia sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturalak bereganatu dau (%27,59) (ikus 4.67. taula). Bere baitan proposatutako ekimenak hiru izan dira, hauteskunde deialdi desbardinetan proposatutakoak: batetik, euskaraz egunkari plurala sortzeko babesa eskaintzea (1990, 1994, 1998, 2001); bestetik, maila orokorragoan komunikabide barriak sortzeko babesa eskaintzea (2005, 2009); eta, azkenik, ETB1 indartzea, gazte eta hiritar euskaldunentzako (euskaldunen gehiengoa direlako) eduki erakargarriak sortuz (2005, 2009).

Halaber, euskararen erabilera komunikabide desbardinetan indartzeko nahia be adierazi dau Ezker Anitzak sarritan, EAEn ezeze helburu dauan Estatu federaleko komunikabide

publiko zein pribatuetan (%20,69) (ikusi 4.67. taula): *garantía de la presencia del euskera en todos los medios de comunicación públicos y privados del Estado federal* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Era berean, euskarazko prentsa idatziarentzako (1990, 1994, 1998) eta euskarazko irrati publikoarentzako (1994, 1998, 2001) diru laguntzak eskaintzea eta indartzeko konpromisoa hartu dau alderdiak, baita euskal telebistako euskarazko kanala indartzeko neurriak, zein euskara darabilen komunikabideen sendotzea: *impulsar la consolidación de los medios de comunicación que utilizan el euskera, actualmente existentes* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Gaztelaniaz argitaratzen diren egunkari eta aldizkarien itzulpena argitaratzeko proposamena be egin izan dau Ezker Anitzak: *publicación de versiones traducidas de periódicos o revistas que actualmente se editan sólo en castellano, aprovechando las posibilidades que brindan las nuevas tecnologías* (Ezker Anitza, 2005, 2009). 2005ean zinema aretoetan euskararentzako presentzia kuota bat ezartzea izan eban proposagai alderdiak: *establecer una cuota de presencia del euskera en las salas de exhibición cinematográficas* (Ezker Anitza, 2005). Eta amaitzeko, aipatu beharra dago, herritarren hizkuntza eskubideen errespetua, euskara ezagutu eta erabiltzekoa, komunikabideen alorrean errespetatzea be birritan izan dauala hizpide alderdiak, 2001ean eta 1998an.

**Kultura alorraren** baitan ekimen gehien sentsibilizaziora bideratu dauz Ezker Antitzak (%36,36) (ikusi 4.67. taula). Esaterako, euskal herritarren artean euskararen ondare estimazioa indartzea (1998, 2001), euskararen egoera ezagutarazteko kanpainak bideratzea (2005, 2009) bai EAEn bai EAetik kanpora, zein euskararen eguna jaiegun moduan ezartzea (2005) izan dira sentsibilizazioari begira proposatutako ekintzetako batzuk. Euskaraz burututako sorkuntza eta eskaintza kulturala indartzera zuzendutako ekimen bat edo beste be izan dau Ezker Antitzak. Hain zuzen: *potenciación de la música, literatura, teatro y otras manifestaciones culturales en euskera* (Ezker Anitza, 2005); *promoción del euskera en aquellos ámbitos en los que menor presencia haya tenido, como por ejemplo en el teatro o el cine* (Ezker Antitza, 2009), *aumentar la oferta musical en ámbitos sociales donde mayor presencia tiene el euskera* (Ezker Antitza, 2009), edota *musika alorrean incrementar la producción de servicios en euskera* (Ezker Anitza, 2009).

Hiru hauteskunde deialdi jarraietan Ezker Anitzak pentsamendu unibertsalaren, zientzien eta literatur artelanenak itzultzeko Itzulpen Departamentu Egonkor bat sortzea proposatu dau: *incentivar de forma sostenida su virtualidad expresiva, mediante la creación de un Departamento Estable de Traducción de las grandes obras del pensamiento universal, las ciencias, y las diversas artes literarias* (Ezker Anitza, 1994, 1998, 2001). Ekimen horretarako aurrekontuan tarte bereiztua eskaintzea proposatu dau alderdiak (1994, 1998, 2001). Halaber, Ezker Anitzak euskara euskal kultura adierazpen moduan zaintzea aldarrikatu dau 2005 eta 2009ko hauteskunde deialdietan: *la conservación del legado cultural y lingüístico* (Ezker Anitza, 2009).

**Gizarte bizitzan** euskarari zuzendutako ekimenetatik bi heren euskararen erabilera indartzera zuzendu dau alderdiak, bai gizartean orokorrean: *fomento del uso social del euskera* (Ezker Anitza, 2005)); baina bereziki eskolaz kanpoko jardueretan: *favorecer la*

*utilización del euskera como lengua de relación por parte del alumnado fuera del ámbito de la escuela* (Ezker Anitza, 2000)). Bestalde, euskararen transmisioa be izan dau hizpide alderdiak, zehazki, euskararen transmisio naturala bultzatzeko planak bideratzea: *elaboración de planes que tenga como objetivos la potenciación de la transmisión natural del euskera de padres a hijos en el seno de la familia* (Ezker Anitza, 1994, 1998, 2001). Kultura arloan gertatu dan era berebean, euskararen gizarte prestigioa indartzeko sentsibilizazioa be izan dau hizpide Ezker Anitzak (2009), baita gizartearen euskalduntzea be (1998).

**Lan munduaren** baitan, euskarak ekimen gutxi baina anitzak bildu dauz. Esaterako, sindikatu eta enpresa batzordeekaz batera enpresen normalizazio linguistikorako baldintzak ezartzea (2005, 2009), langile eta enpresen artean hitzartutako normalizazio planak diruz laguntzea (2005, 2009), zerbitzua euskaraz eskaintzen daben enpresentzat ziurtagiri bat sortzea zerbitzuaren akreditazioa burutzeko (2005, 2009), enpresa publiko eta pribatuetako formakuntza planetan euskararen ikaskuntza gehitzea (2005, 2009), zein beste ikasgai batzuetan ikasketa hizkuntza moduan jokatzeko (2005, 2009), publizitatean zein etiketajeon euskara indartzea (2005, 2009) eta langileen hizkuntza eskubideak errespetatzea (2005, 2009).

**Esparru juridikoan** aldarrikatuak bi ekintza mota izan dira. Batetik, euskararen inguruko legedia garatzea (%42,26) (ikusi 4.67. taula). Ezker Anitzak Euskararen Legea bere osotasunean garatzea aldarrikatu dau: *que se desarrolle en su integridad la Ley Básica de Normalización del uso del euskera* (Ezker Anitza, 1998, 2001); eta baita esparru desbardineterako legedia barria sortzea: Osakidetzarako, Ertzaintzarako, Eusko Trenbideetarako, etab. Esan beharra dago, 2005ean, Euskararen Legea garatzea orde berrikeratzea eta eguneratzeko nahia adierazi ebala Ezker Anitzak: *revisar y actualizar la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera* (Ezker Anitza, 2005). Bestetik, Ezker Anitzak EAEtik kanpora euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea, bai Espainiar eta Frantziar Estatuetan bai Europar Batasunean (%42,06) (ikusi 4.67. taula): *oficial tanto en los Estados Español y Francés, como en la Unión Europea* (Ezker Anitza, 2009).

Amaitzeko, **teknologia barrietan** be eskeini jako tartea euskararentzako politika ekimenei 2005eko eta 2009ko hauteskunde programetan. Teknologia barrietan euskara erabiltzea eta berau diruz laguntzea (2005, 2009) izan dira proposatutakoak, software informatikoan euskarazko bertsioa bermatzeko.

Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren aplikazio esparru nagusia EAE izan da (%85,74). EAEn ostean, Espainiar Estatuak izan da proposamen politiko gehien jaso dauzan lurraldea (%8,85), 1998tik 2009ra arte hizkuntza politiken jasotzaile bihurtuta.

#### 4.5.8. Balio euskarriak

Ezker Anitzaren diskurtso linguistikoak hiru hizkuntza ala hizkuntza konbinaketa izan dira bere inguruan balio euskarri gehien bildu dabezanak: euskara (%45,71), euskara eta gaztelania (%29,52) eta Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzak (%14,6) (ikusi 4.68. taula). Beste mintzaira ala mintzaira konbinaketa batzuk be beregantu dabe balioen bat edo beste, nahiz eta askoz be neurri txikiagoan: hizkuntzek orokorrean; euskarak, gaztelaniak eta hirugarren atzerriko hizkuntzak<sup>114</sup>; eleaniztasunak; etorkin eta gitxiengo etnikoen hizkuntzek eta gaztelaniak.

4.68.TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN BALIO EUSKARRIAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	%
Orokorrean	2,54
Euskara	45,71
Gaztelania	0,32
Euskara & Gaztelania	29,52
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	3,17
Atzerriko hizkuntzak	0,63
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak	0,63
Eleaniztasuna	2,86
Estatuko eskualdeko hizkuntzak	14,60
Guztira	%
	100
	N =
	315

*Iturria:* norberak egina.

**Gaztelaniari** bera beratarra behin bakarrik (1998) atxiki deutso Ezker Anitzak balio euskarri bat; eskolako hezkuntza ereduaren aplikazioan eremu soziolinguistikoa aintzat hartuta jardutea; zehazki, A eredia historikoki erdaldunak diren zonaldeetan ezartzea.

<sup>114</sup>Hirugarren atzerriko hizkuntza ingelesa izango danik zehaztu ez dauan arren, “euskara, gaztelania eta ingelesa” kodearen baitan kodetu dira, hirukotasunari zentralitatea eskaintzeko.

**Etorkinen hizkuntzen** kasuan kulturartekotasuna eta malgutasuna izan dira aipatutako balioak. Eskola testuinguruan ikasle etorkinek eurekaz dakarren aniztasun linguistiko eta kulturala azpimarratu izan dau Ezker Anitzak; eta aniztasunari erantzuteko lekuan lekuko ikasleriaren hizkuntza ezaugarriak eta testuinguruarenak aintzat hartuko dauzan kontseilu bat eratzea ikastetxe-barruti bakoitzean.

**Eleaniztasuna** aniztasunari lotuta ageri da Ezker Anitzaren hauteskunde programetan; zehazki, kultura aniztasunari. Ezker Anitzak gure gizarteetako aniztasunari arreta jarri deutso eta, era berean, begi onez ikusi eta berau bultzatzeko deia egin, bai EAEn, bai Espainiar Estatuan eta baita Europar Batasunean be. Europar Batasunari dagokionean, Ezker Anitzak lurraldeko aniztasun kulturala errespetatu eta balioan jarriko dauan Batasuna gura dau, hori baita Europaren aberastasuna eta berezitasuna. Horrela, ikuspuntu federalista bere egingo dauan Europar Batasun nazio, kultura eta hizkuntza anitza dau xede alderdiak: *una Unión Europea plurinacional, pluricultural y plurilingüe* (2005, 2001). Espainiar Estaturako be pareko helburua dauka: *carácter plurinacional, pluricultural y plurilingüístico del Estado Federal Solidario a crear* (Ezker Anitza, 1998)<sup>115</sup>. Aipatzekoa da EAEko 1998ko hauteskunde programan pluraltasun linguistikoa ezeze ideologiko, kultural eta etnikoaren aurrean kohesioa mantentzeko hezkuntza sistemari atxikitako erantzunkizuna.

**Euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntzak** alkarregaz hizpide izan direnetan aipatutako balioek eskola mailan hirueletasuna ezartzeko moduei erantzun deutse nagusiki: progresibitatez, malgutasunez, testuinguru soziolinguistikoa aintzat hartuz, konpromisoak gehituz, eta adostasuna eta akordioak lortuz. Aipatzekoa da aplikazio guztiok 2009ko hauteskunde programan izan zirala hizpide.

**Hizkuntzak** orokorrean baino hizkuntza politika maila orokorrean mintzagai izan danetan be balio desbardinak agertu dauz Ezker Anitzak. Aipamenok urriak izan dira eta balioak be ez dira gehiengoan errepikatu. Hizkuntza arrazoiekaitik baztertua izatea gaitzestu dau Ezker Anitzak (2009). Era berean, hizkuntza politika abian jartzerakoan akordioak eta adostasunak bilatzeari garrantzia eskaini deutso (2005), baita beste politika batzuekaz koordinatuta eta alkarlanean jarduteari be (2005). Bestalde, hizkuntza politika modu eraginkorrean burutzea be aipatu dau alderdiak, dagozan baliabideak aprobetxatuz (2001), eta egingarritasuna aintzat hartuta (2001). Amaitzeko, aipatzekoa da Ezker Anitzak helburu dauan federalismo nazio-anitzean hizkuntza politika alorrari eskumen eskaintza bideratuz, zeharka, subiranotasuna handitzeko deia egin dauala (1998).

<sup>115</sup>Espainiar Estatuan aniztasuna langai hartu danetan eleaniztasuna izan da sarritan mintzagai; halaber, eleanitasun hori Espainiar Estaturako hizkuntza desbardinek eraikia dagonez, esaldiok Estaturako eskualdeko hizkuntzak kodearen baitan kodetu dira.

## Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzentzako balio euskarriak

Balio euskarri gehien atxiki jakezan hizkuntza ala hizkuntza konbinaketei helduaz, Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzei dagokionean honakoak aipatu daitezke: hizkuntzon inguruan bildutako balio euskarri gehien-gehienek (%80,43) bizikidetzatza linguistikoari erantzuten deutsela eta bere baitan aniztasuna izan dala balio izarra (%45,65), nahiz eta alkarbizitzari (%19,57) eta inklusibitateari (%15,22) be tarte nabarmena itzi jakon (ikus 4.69. taula). Ezker Anitzak Espainiar Estatuari izaera Federala emon gura deutso, hori baita alderdiaren ustetan bizikidetzatza eredu egokiena, besteak beste, alkarbizitzatza egokiari bidea zabaltzen deutsolako. *La propuesta del Estado federal solidario, plurinacional, pluricultural y plurilingüístico, como modelo para la convivencia* (Ezker Anitza, 2005). Ezker Anitzak helburutzat dauan Estatu Federalak aniztasunarekiko erabateko errespetua adierazten dau; hizkuntza aniztasunarekiko errespetua barne. Are gehiago, Ezker Anitzak irudikatzen dauan Estatu Federalean egiazko (*real*) eta eraginkorra (*efectivo*) dan eleaniztasuna lortu gura dau (2001). Esan beharra dago, proposamen hau inklusibitatearen ikuspuntutik begiratu beharra dagoela; izan be, Ezker Anitzaren hitzetan: *un país de todos y todas y para todos y todas, que es nuestro principal objetivo; un país en el que todas las personas nos sentimos incluidas* (Ezker Anitza, 2001, 2005, 2009). Aipatzekoa da Estatu Federal kultura eta hizkuntza anitza 1998az geroztik izan dauala modu jarraikorrean proposagai Ezker Anitzak.

Hizkuntza eskubideei dagokionean, askatasuna (%4,35) eta bardintasuna (%2,17) agertu dira Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzen kasuan bultzatu beharreko balio moduan (ikus 4.69. taula). Alderdiak Estatu Federal eleanitzaren baitan hizkuntzen arteko bardintasunaren aldarrikapena burutu dau; izan be: *la prevalencia constitucional del castellano sobre el resto de las lenguas del Estado español es una de las expresiones constitucionales del Estado Unitario que no pueden mantenerse en el Estado Federal propugnado por Ezker Batua/ Izquierda Unida* (Ezker Anitza, 2001). Bide horretan, herritarrek Estatu federaleko herri administrazioagaz euren aukerako hizkuntzan jarduteko askatasuna aldarrikatu dau.

4.69. TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN EUSKARA, EUSKARA ETA GAZTELANIA ETA ESPAINIAR ESTATUKO ESQUALDEKO HIZKUNTZEI ATXIKITAKO BALIO EUSKARRIAK BALIO-TALDEKA (% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUINA)

		Eusk.	Eu. & Ga.	E. esk.H
<b>I. Hizkuntza eskubideak</b>	Askatasuna	6,94	6,45	4,35
	Bardintasuna	0	2,15	2,17
	Inposaketarik eza	0	0	0
	Bazterkeria eza	2,08	6,45	0
	Guztira I	9,03	15,05	6,52
<b>II. Erritmoa</b>	Moderazioa	1,39	0	0
	Progresibitatea	6,25	3,23	0
	Egingarritasuna	4,86	4,30	0
	Errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartzea	9,03	8,60	0
	Guztira II	21,53	16,13	0
<b>III. Agente parte hartzaileak eta alkarlana</b>	Adostasuna	4,86	10,75	0
	Akordioa	4,86	2,15	0
	Alkarlana	14,58	2,15	2,17
	Guztira III	24,31	15,05	2,17
<b>IV. Ekimenen balio bitartekariak</b>	Ekintza positiboa	0,69	0	0
	Eraginkortasuna	6,25	1,08	0
	Malgutasuna	3,47	5,38	0
	Kalitatea	4,17	1,08	0
	Guztira IV	14,58	7,53	0
<b>V. Herritarren nahia</b>	Konpromisoa	9,03	5,38	4,35
	Borondatea	3,47	10,75	0
	Erakargarritasuna	0	0	0
	Guztira V	12,50	16,13	4,35
<b>VI. Botere politikoa</b>	Subiranotasuna	0,69	0	6,52
	Subsidiaritatea	0,69	1,08	0
	Guztira VI	1,39	1,08	6,52
<b>VII. Bizikidetzak linguistikoa</b>	Kohesioa	4,86	1,08	0
	Alkarbizitza	0	3,23	19,57
	Errespetua, tolerantzia	0	0	0
	Aniztasuna	4,86	7,53	45,65
	Irekiera	6,25	0	0
	Inklusibitatea	0,69	17,20	15,22
	Guztira VII	16,67	29,03	80,43
Guztira	%	100	100	100
	N =	144	93	46

Iturria: norberak egina.

Subiranotasun balioa langai hartuta, federalismo nazio-anitzak eskumen bereizgarriak eskaintzea dakar, hizkuntzen alorrean ezeze beste alor batzuetan bere bai. *El federalismo plurinacional que propugnamos implica también el reconocimiento de competencias diferenciales en ámbitos como la lengua, la cultura, (...) que pueden derivarse de las particularidades propias de cada sociedad* (Ezker Anitza, 2001). Era berean, garrantzitsua da aipatzea subiranotasun subjektuari dagokionean, Ezker Anitzak Estatu Federalaren sorkuntza berau osatzen daben herri eta herritar guztien batuketa solidario eta askean oinarritzen dauala: *en la generación de un estado federal plurinacional y plurilingüe basado en la libre y solidaria unión entre toda la ciudadanía y pueblos que lo componen* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

Amaitzeko, Ezker Anitzak Espainiar Estatu Federala bere eskualdeko hizkuntzen defentsa eta berreskurapenean konprometituta egotea be garrantzitsutzat jo dau: *un Estado Federal debe asumir como propias todas las lenguas que utilizan sus ciudadanos y estar comprometido en su defensa y recuperación* (Ezker Anitza, 2009, 2005); baita hizkuntza bereiztua daben herrien artean harremanak handitzea be.

## Euskara eta gaztelaniarentzako balio euskarriak

Euskara eta gaztelania alkarregaz mintzagai izan dauzanetan Ezker Anitzak balio desbardinak izan dauz aipagai. Espainiar Estatuko eskualdetako hizkuntzekaz gertatu dan moduan, euskarari eta gaztelaniari indar handienaz batu jakon balio-taldea bizikidetzatz linguistikoa izan da, nahiz eta ez horren modu erabakiorrean; alegia, kategoriapeko aipamenen %29,03 bilduta. Bigarren lekuan erritmoagaz lotutako balio taldea kokatu da hizpiderearen %16,13gaz. Agente parte hartzaileak eta alkarlanak, herritarren nahiak eta hizkuntza eskubideek %15,05 bana bereganatu dabe. Barriz, ekimene balio bitartekariak %7,53 eta botere politikoak %1,08 baino ez (ikus 4.69. taula).

Bizikidetzat linguistikoaren baitan inklusibitatea izan da gailendu dan balioa (%17,2) (ikus 4.69. taula). Inklusibitateak eskolan bereganatu dau presentzia 2001az geroztik. Alderdiak hezkuntza ereduaren baitan gizarte segregazio arriskua identifikatu dau. Ezker Anitzaren hitzak gurera ekarriz: *un factor tremendamente discriminador y en el que habitualmente no se repara es el actual sistema de modelos lingüísticos* (Ezker Anitza, 2009). Izan be, gizarte bazterketa arrisku handiena daben ikasleak eskola publikoaren A ereduaren batzen dira. Egoera horren aurrean, Ezker Anitzak eskola inklusiboa bilatzen dau, ikasleen arteko bereizketa ekidin eta integrazioa bultzatuko dauana; eta norabide horretan ekimenak be proposatu dauz: *superar de forma paulatina y acordada el actual sistema de modelos lingüísticos hacia fórmulas más integradas y flexibles de modelos lingüísticos en sí mismos bilingües* (Ezker Anitza, 2001, 2005).

Bizikidetzat linguistikoa balio taldearen baitan aniztasuna be izan dau hizpide alderdiak. Dana dala, aipatu beharra dago aniztasuna helburu moduan baino EAEko errealitatearen



deskribatzaile lez aipatu daua Ezker Anitzak, hau da, bi hizkuntza izateak sortzen dauan aniztasunaren konstatazioa. Eta aniztasun horren aurrean alkarbizitza gizarte mailan jorratu eta lortu beharra be defendatu dau: *otra cuestión que es necesaria abordar es la de la relación entre las comunidades lingüísticas de nuestro país* (Ezker Anitza, 2009).

Euskara eta gaztelaniari lotutako politika ekimenen aplikazio erritmoari dagokiozan balioak irakaskuntzako hezkuntza alorrei lotuta izan dira hizpide; ereduon aplikazioan zein diseinuan (aukeraketa banatuko eredutik bateratze lingüistikorako proposamenera) errealtate soziolingüistikoa aintzakotzat hartuta jarduteak, ekimenak egingarriak izateak eta bateratze lingüistikorako bidea progresiboki burutzeak, hain zuzen.

Ildo berean, ekimenen balio bitartekari nagusia malgutasuna izan da (%5,38) (ikusi 4.69. taula). Malgutasuna eskola mailako planifikazio soziolingüistikorako aldarrikatu dau Ezker Anitzak, besteak beste hezkuntza ereduak ezartzeko.

Irakaskuntzara bueltatuz, hezkuntza ereduon aplikazio eta diseinu moduetan herritarren nahari erantzuten deuten balioek be zeresana izan dabe; hain zuzen, ereduon aplikazio eta diseinuan eskaera sozialaren (familien eskaera barne) bidez egituratutako herritarren borondatea (%10,75) kontuan izatea (ikusi 4.69. taula). Egitez, hezkuntza ereduon eskaintza bideratzerakoan eskaera soziala, errealtate soziolingüistikoa eta irakaslegoaren plantilla izan dira Ezker Anitzaren hitzetan kontuan izan beharrekoak: *garantizar una oferta de modelos lingüísticos (...) acordes con el triple criterio de demanda social, la realidad sociolingüística y la realidad de las plantillas existentes* (Ezker Anitza, 2005). Bestalde, EiTbri begira herritarren borondatea kontuan izatea be aldarrikatu dau Ezker Anitzak: *Euskal Irrati Telebista ha de ser también un medio que refleje de manera exacta la vocación de la sociedad vasca* (Ezker Anitza, 1998, 2001). Borondatea konpromisoari gailendu jakon arren. Horrela, 1990ean gobernu eta erakundeen gizarte elebitasunarekiko konpromiso falta kritikatu eban alderdiak: *poco o nada se ha hecho por parte del Gobierno y las instituciones para lograr una sociedad realmente bilingüe* (Ezker Anitza, 1990); eta aurreragoko urteetan herritarren elebitasunarekiko konpromisoa handitu dala aditzera emon: *existe una creciente demanda de bilingüismo real en la sociedad vasca* (Ezker Anitza, 1998, 2001, 2005). Are gehiago, 2009an gizarte osoaren konpromiso horren beharra be azaldu dau alderdiak: *no se alcanzarán los objetivos lingüísticos anhelados si no hay un esfuerzo correlativo de toda la sociedad* (Ezker Anitza, 2009).

Agente parte hartzaileen eta alkarlanaren kasuan adostasuna izan da gailendu dan balioa %10,75 bilduz, baina akordioa eta alkarlana (%2,15) be izan dira hizpide (ikusi 4.69. taula). Adostasun, akordio eta alkarlan beharra eskola alorrean azpimarratu dira. Adostasunari dagokionean, beronen beharra azpimarratzeaz gainera, urteen joanean gertatutako apurketa be kritikatu dau Ezker Anitzak: *no se ha sabido preservar algo tan delicado y tan costoso de construir socialmente como los consensos logrados hasta ahora en materia educativa y de política lingüística en particular* (Ezker Anitza, 2001). Zentzu horretan akordioak lortu eta indartzeko beharra adierazi dau alderdiak: *impulsar la negociación de un acuerdo entre*

*los distintos agentes sociales que operan en el campo de la educación en base a reforzar y profundizar los consensos adquiridos en materia de política lingüística* (Ezker Anitza, 2001). Era berean, azpimarratzekoa da hezkuntza alorrera bideratutako akordioak hizpide izan dauzanetan, bai 2001ean eta bai 2009an, esparruan murgilduta dagozan agente guztien artean lortzeko eginkizun moduan jo izan dauzala. Bestalde, alkarlana administrazio desbardinaren artekoa zein administrazio eta beste elkarleen artekoa izan dau proposagai.

Botere politikoaren presentzia oso ahula izan dan arren, bere baitan bildutako ideiak badauka zeresanik. Ezker Anitzak subsidiaritatea aldarrikatu dau justizia administrazioari aitamen berezia eginez, baina zerbitzu publiko guztiei begira Ezker Anitzak helburu dauan federalizazio prozesuaren magalean (2005).

Amaitzeko, hizkuntza eskubideei dagokionean bazterketarik ezak eta askatasunak berenaganatu dabez aitamen gehien. Bazterketarik eza eskolan eta EiTBN aldarrikatu dau Ezker Anitzak euskara eta gaztelania hizpide hartuta; alegia, eskolan aukera linguistikoa dala eta bazterketarik ez egitea aldarrikatu dau (*sin segregaciones en función de la elección lingüística* (2001, 2005)); eta EiTBN berau herritar guztiei, salbuespen barik, zuzendutako zerbitzua izatea (*actuar como un elemento puesto al servicio de todas las personas sin excepción* (1998, 2001, 2005)). Askatasunari dagokionean, eskolan (2005, 2009) zein epaitegietan (1998, 2001, 2005, 2009) hizkuntza aukera bermatzeko nahia adierazi dau alderdiak, hizkuntzen arteko bardintasuna bultzatuz.

## Euskarari zuzendutako balio euskarriak

Euskara bera berataraz hizpide izan danetan, agente parte hartzaile eta alkarlanari dagokion balio-taldea izan da hizkuntzari indar handienaz atxiki jakona, kategoriarepeko esaldi-muinen %24,31 bilduta. Atzetik gertu erritmoari lotutako balio-taldea kokatu da %21,53gaz. Bestalde, bizikidetzatza linguistikoa %16,67 batu dau, politika ekimenen balio bitartekariak %14,58 eta herritarren nahiak %12,5. Barriz, hizkuntza eskubideei eskainitako tartea txikitxoagoa izan da, hain zuzen, %9,03 eta botere politikoaren presentzia, barriz, oso bazterrekoa izan da, kategoriarepeko %1,39 batuz (ikusi 4.69. taula).

Agente parte hartzaile eta alkarlanaren kasuan modu argian gailendu dan balioa alkarlana izan da (%14,58) (ikusi 4.69. taula). Agente desbardinaren arteko alkarlana izan dau hizpide Ezker Anitzak: erakunde publikoen arteko koordinazioa (udaletxe, foru aldundi eta gobernu artekoa), administrazio publikoaz haratagoko erakunde eta elkarrekeaz alkarlana, zein Nafarroa eta Iparraldean hizkuntza politika arloan eskudunak diren erakundeekaz. Orobat, akordioari eta adostasunari be egin deutso tartea Ezker Anitzak; hain zuzen, euskararen normalizazioa bideratzeko politikan akordio handiak lortzearen aldeko apustua egin dau alderdiak adostasunera heltzeko bide moduan: *sería necesario (...) mantener por parte de todas las fuerzas políticas el mayor consenso posible* (Ezker Anitza, 1990).

Bideratutako politika ekimenek izan beharreko erritmoari erantzuten deuten balioen artean progresibitatea izan da Ezker Anitzak gehien aipatu dauan egiteko modua hizpiderean %6,25egaz (ikusi 4.69. taula). Tratamentu graduala izan beharko dau euskal hiztunen hazkundeak (2001) zein langile publikoen euskalduntzeak (2009), epe laburreko, ertaineko zein luzeko planifikazioa eta helburuak bereiztuz; hizkuntza eskakizunen eskaerak, derrigorrezko epeak zehaztuz (2001, 2009); gradualtasunez burutu beharko da unibertsitatean euskara zabaltzeko bidea (2001, 2009), etab. Halaber, gradualtasun horren baitan, aipatzekoa da euskararen garapen prozesua berehala hasi beharreko eginkizun moduan jo dauala Ezker Anitzak: *entendemos que el trabajo en este materia debe iniciarse de un modo inmediato* (Ezker Anitza, 1994, 1998). Hori horrela izanda be, moderazioaren beharra be identifikatu dau alderdiak noiz edo noiz (%1,36). Bere ustetan, herri administrazioari begira zeinbait lekutan euskalduntze prozesua bizkorregi bideratu da.

Izatez, Ezker Anitzarentzako errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuta jardutea garrantzitsua da (%9,03) (ikusi 4.69. taula). Hizkuntza planifikazioa burutzerakoan errealitate soziolinguistikoaren ezaugarriak kontuan izateko beharra hezkuntza alorrean, herri administrazioan zein hizkuntza politikaren arlo orokorrean azpimarratu dauz. Modu horretan, *Ezker Batua/Izquierda Unida propone desarrollar programas tendentes a la normalización del uso del euskera en el conjunto de nuestra Comunidad, siempre desde la perspectiva del respeto máximo a la realidad sociolingüística del país* (Ezker Anitza, 1998, 2001). Aldi berean, euskararen garapenerako politika bideratzerakoan egingarritasunari be itzi deutso tartea alderdiak. Zehazki, hezkuntza alorrean, eskolan zein unibertsitatean izan dau hizpide egingarritasuna, irakasle plantillak (2001, 2005) zein egon dagozan baliabideak kontuan hartuta ekiteko beharra (1998).

Euskara hizpide hartutakoan bizikidetzat linguistikoagaz lotutako balioak aipatu direnean, irekiera izan da gehien aipatu dana (%6,25); eta gero aniztasuna eta kohesioa (%4,86) (ikusi 4.69. taula). Irekiera balioa ideia bat berbera errepikatuz azpimarratu dau Ezker Anitzak: hain zuzen, komunitatea ezin daitekela euskal nazionalismoaren klabe etniko-linguistikoaren arabera egituratu, baina ezta espainiar nazionalismoan gailentzen dan euskal komunitatearen pertsonalitatea ezeztatuz. Jarreror ordez, irekiera ikuspegia nagusitu beharra dago; gizarte aniztasuna baikorra baita. Ikuspegi honen ildotik, euskarak gizartearen kohesio tresna lez jokatu behar dau, aniztasun guzti hori beregain hartuz.

Bestalde, politika ekimenen balio bitartekarien artean eraginkortasuna (%6,25) nabarmendu da (ikusi 4.69. taula). Eraginkortasun beharra euskalduntze prozesuei batu deutso alderdiak bereziki; langile publikoen, epaile, fiskal eta idazkarien, irakasleen zein ume eta gazteen euskalduntzeari. Ekimenak malgutasunez burutzeko beharra be adierazi dau Ezker Anitzak, bai herri administrazioan baita hezkuntzan be (%3,47); aldagai desbardinak aintzat hartuta jokatzeara: lekua, denbora, lanpostua, langileen banakako egoera, etab. Aldi berean, euskararen aldeko ekimenak kalitatea baztertu barik burutu beharra azpimarratu dau (%4,17). Esaterako, epaitegiak hizpide hartuta honakoa dino: *cualquier actuación en este campo ha de garantizar la continuidad y la calidad en el servicio público* (Ezker Anitza, 2009); baita unibertsitatea

mintzagai izanda be: *en ningún caso se pueden desarrollar (acciones) en detrimento de la calidad de la oferta docente e investigadora* (Ezker Anitza, 2009). Euskararen aldeko ekintza positiboa aipatua izan dan arren, egiteko modu horrek oso bazterreko lekua bereganatu dau, adierazpen bakarragaz: euskarazko zerbitzua emongo daben epaitegi zirkuituetako langileak suspertzea proposatuz.

Herritarren nahia aintzat hartzerakoan konpromisoa izan da alderdiak indar handienaz azpimarratu dauana (%9,03). Konpromisoari dagokionean, Ezker Anitzak euskararen aldeko hizkuntza politika bideratzerakoan justizia administrazioaren (1998, 2001) eta Estatuko administrazioaren (2009) konpromisoa beharrezkotzat jo dauz, baita euskal komunitateaz haratago gizarte osoarena ere bai. Bere hitzetan, *(la) preservación, desarrollo y evolución (del euskera), no debe ser sólo una labor asumida por la comunidad euskaldun, sino una responsabilidad que todo el pueblo vasco contrae frente a la comunidad internacional* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Aldi berean, azken hamarkadetako irakasle eta ume eta gazteen gurasoek adierazitako euskararekiko konpromisoa be goraiatu dau, lehenengoak euskalduntzen eta bigarrenak erdaldunak izanda umeak euskal hezkuntza erduetara bidaliaz (2001, 2005, 2009).

Euskarari lotutako hizkuntza eskubideak mintzagai hartuta, askatasuna (%6,94) eta bazterketarik eza (%2,08) aipatu dauz Ezker Anitzak; ez ostera bardintasuna edota inposaketarik eza (ikusi 4.69. taula). Halaber, onartu beharra dago euskara mintzagai hartuta hizkuntza eskubideen gaia oso gitxi jorratu dauala alderdiak. Ezker Anitzak herritar guztiei euskara ezagutu eta euskaraz komunikatzeko eskubidea bermatu gura deutse (1994, 1998, 2001); baina era berean, ez dau gura inor euskaragaitik baztertua izatea, lan publiko batera sarrera izaterakoan (1990), diru laguntzak jasotean (1990).

Amaitzeko, botere politikoaren baitan subiranotasuna eta subsidiaritatea biak izan dauz mintzagai Ezker Anitzak, baina oso modu bazterrekoan; zehazki balio bakar bana bilduta. Subiranotasunari dagokionean, Ezker Anitzak eskumen gehiago eskatu dauz EAERI mugaz gaindiko akordioak sinatu ahal izateko aukera emoteko Frantziar Estatuan kokatutako lurralde euskaldunekaz (2005). Subsidiaritateari lotuta, barriz, justizia euskal gizartera hurbiltzeko legezko erreformak bideratzea aldarrikatu dau (2001).

#### 4.5.9. Estatusa eta alkarketak

---

Atal honetan, Ezker Anitzak mintzagai dauzan hizkuntzei zein estatus atxikitzen deuten eta alderdiak zein errealtategaz alkarketzen dauzan aztertu gura da. Aipatzekoa da, alkarketon gehiengo nagusia euskarak bildu dauala, hain zuzen, aldagaiaren pean kodetutako esaldimainen %58,8 (ikusi 4.70. taula). Bigarren kokatu da euskara eta gaztelania hizkuntza jokoak %18,52gaz eta hirugarrena, barriz, Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzak %18,06gaz.

Gainontzeko hizkuntza, hizkuntza kategoria edota hizkuntza konbinaketek askoz be modu puntualagoan egin dabez bere loturak; gehiengoan oinarri sendo bako ideiak bilduta gainera.

4.70.TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN  
ESTATUS ETA ALKARKETAK BILDU DABEZAN HIZKUNTZAK  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	%
Orokorrean	0,46
Euskara	58,80
Euskara & Gaztelania	18,52
Euskara & Gaztelania & Ingelesa	0,93
Etorkin & gitxiengo etnikoen hizkuntzak	0,46
Eleaniztasuna	2,31
Hizkuntza gitxituak	0,46
Estatuko eskualdeko hizkuntzak	18,06
Guztira	% 100
	N = 216

*Iturria: norberak egina.*

Lotura gehien bildu dabezan hizkuntzei heldu aurretik, **eleaniztasunari** atxikitako errealitateak aipatzeak merezi dau, alderdiaren ikuspuntu ideologikoaren oso adierazgarri baita. Ezker Anitzak eleaniztasuna aberastasun zeinu (2009) ezeze komunitatea eraikitze bide moduan (200) jo dau. Bai Europar Batasuna eraikitzerakoan baita Espainiar Estatu egiterakoan be, alderdiak ikuspuntu federalista dau proposagai; eta ikuspuntu federalista horrek aniztasuna beregain hartu eta bere osagai bihurtzen dau nazio, kultura eta hizkuntza aniztasuna: *la idea de una Unión Europea plurinacional pluricultural y plurilingüe dentro de una perspectiva federal* (Ezker Anitza, 1998). Espainiar Estatuan aniztasunean oinarritutako komunitatearen eraikuntza **eskualdeko hizkuntzen** eskutik dator. Horrela, Estatu horren eraikuntzan Ezker Anitzak funtsezkotzat jotzen dau herritarrek darabilezan hizkuntza guztiak Estatuak bere egitea, hau da, bertako hizkuntza moduan jotzea: *un Estado Federal debe asumir como propias todas las lenguas que utilizan sus ciudadanos* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

4.71. TAULA. EZKER ANITZAREN DISKURTSO LINGUISTIKOAN HIZKUNTZEI  
ATXIKITAKO ESTATUS ETA ALKARKETAK HIZKUNTZAKA  
(% BERTIKALAK. N = ESALDI-MUIN KOPURUA)

	Hizk.	Eusk.	Eusk. & Gazt.	Eusk. & Gazt. & Ingl. <sup>6</sup>	Etorkin & gitxiengo etnikoen H.	Es. Eskual. H	Eleaniz.	H. gitxi
H. gitxitu	0	13,39	0	0	0	5,13	0	0
Bertoko H	0	3,15	0	0	0	5,13	0	0
Ama H.	0	1,57	0	0	0	0	0	0
Aberastasuna	0	0	7,50	0	0	0	40	0
Ondarea	0	15,75	0	0	0	0	0	0
Gatazka	0	14,96	40	50	100	0	0	0
Identitatea	0	7,09	0	0	0	0	0	0
Kultura	0	4,72	0	0	0	0	0	0
Kulturartekotasun	0	0	10	0	0	0	0	0
Integrazio	100	0	7,50	0	0	0	0	0
Errefus sentimendu	0	4,72	0	0	0	0	0	0
Komunitatearen eraikuntza	0	5,51	5	0	0	89,74	60	0
Alderdikeria	0	26,77	30	50	0	0	0	100
Nazioartekotzea	0	2,36	0	0	0	0	0	0
Guztira %	100	100	100	100	100	100	100	100
N =	1	127	40	2	1	39	5	1

Iturria: norberak egina.

Euskara eta gaztelania batera hizpide izanda, gatazka (%40) eta alderdikeria (%30) hartu dauz Ezker Anitzak askotan hausnarketa gai (ikusi 4.71. taula). Aztergai dogun Ezker Anitzaren lehenengo programan, 1986koan, alderdiak Euskadin hizkuntza gatazka

egon dagoela adierazi eban, berau gainditzeko beharra agertuz: *IU Ezker Batua plantea la necesidad de superar el conflicto lingüístico en Euskadi* (Ezker Anitza, 1986). Hemeretzi urteren buruan, 2005ean, gatazka horrek hizkuntza politikan gorpuztuta bizirik dirauela adierazi izan dau: *el enfrentamiento político y social por la política lingüística sigue presente en Euskadi* (Ezker Anitza, 2005). Urte tarte horretan, alderdiak gatazka horren existentzia esparru desbardinetan emon dau aditzera: eskolan, epaitegietan, kulturaren. Era berean, hizkuntzen alorrean begitaratzen dan alderdikeria be agertu dau Ezker Anitzak, blokeen norgehiagoka aditzera emonez: *de un lado se da un atornillamiento lingüístico más callado pero permanente del bloque nacionalista, en más de una ocasión incluso saltándose lo estipulado en las leyes. De otro lado se ha dado una oposición demagógica y estridente de PP y PSOE, amenazadora de regresiones en consenso adquiridos en materia lingüística* (Ezker Anitza, 2001). Sentitutako alderdikeri horren aurrean, Ezker Anitzak berau gainditzeko nahia be agertu dau: *hizkuntzen gaia ha de sacarse fuera del contexto de una utilización sectaria y de arma electoral* (Ezker Anitza, 2001).

Gatazka eta alderdikeria horreen aurrez aurre, Ezker Anitzak elebitasuna aberastasun moduan bizi dau eta horrela onartua izateko nahia adierazi dau: *asunción del bilingüismo como un elemento enriquecedor de nuestra sociedad* (Ezker Anitza, 1994). Aberastasun hori oinarri hartuta, kulturartekotasunerako, kultura mestizajerako deia be luzatu dau alderdiak. Bestalde, Ezker Anitzak euskara eta gaztelania etorkinen integraziorako bide moduan jo izan dauz, beroneen ezezagutzak sortarazten deutesen desabantaila aditzera emonez. Azkenik, aipagarria da Ezker Anitzak, Europar Batasunean eta Espainiar Estatuan eleaniztasunagaz planteatu dauan era beretsuan, Euskadin be herriaren eraikuntza elebitasunetik eraiki gura daua.

Halaber, aurretik aipatu dogun moduan, Ezker Anitzak **euskarari** zuzendu deutsoz alkarketa gehien. Euskararen inguruan gailentzen dan alderdikeria izan da Ezker Anitzak indar handienaz azpimarratu dauan harremana (%26,77) (ikusi 4.71. taula). Bere esaerak geurera ekarriz, euskararen arloan honakoak egin dira: *discursos demagógicos* (1986), *monopolizaciones partidistas* (1986), *euskara como arma arrojadiza* (1986, 2005), *utilización partidista* (1990), *sectarización* (1998, 2001, 2009), etab. Gainera, esan beharra dago, alderdikeria hori EAETik haratago antzeman daua Ezker Anitzak: Nafarroako Gobernuan, Frantziar Estatuan eta Espainiar Estatuan. Ezker Anitzaren ustetan hiru lurraldeotan alderdikeriak euskararen kalterako jarrera begitaratzen dau. Nafarroaren kasuan: *peor es la situación en Navarra, donde el Gobierno de UPN se ha significado por atacar al euskara mediante todo tipo de medidas* (Ezker Anitza, 2005). Estatu Frantsesean, barriz, *tiene especial responsabilidad en esta situación la Administración francesa que aplaza reiteradamente la adopción de medidas que palién esta grave situación* (Ezker Anitza, 2005). Espainiar Estatuarenean: *dado el reconocimiento cicatero que de las lenguas minoritarias hace la actual Constitución Española no es de extrañar que la actitud del Estado haya sido en estos 25 años, en el mejor de los casos una benevolencia tolerancia hacia una lengua "extraña", y en los peores momentos una abierta oposición y obstaculización de los procesos de normalización lingüística* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

EAEn euskararen normalizazioaren kontrako jarreraz gainera euskararentzako gehiegizko babesa be kritikatu izan dau Ezker Anitzak: *Ezker Batua-Berdeak entiende que la política lingüística en Euskadi tiene que alejarse definitivamente del “dopaje” al que han pretendido llevarla desde sectores ultra-abertzales* (Ezker Anitza, 2009). Horrela, euskararen arloan EAEn baztertu beharreko bi jarrerak mogimendu ultra-abertzaleenak eta ideologia nazionalista espainola dira (2009). Alderdikeri guzti horren aurrean, 1986az gerotik, Ezker Anitzak euskara eztabaida politikotik urruntzea funtsezkotzat jo dau: *es necesario poner fin a la política que instrumentaliza, en uno u otro sentido, nuestro idioma milenario para hacer con él clientelismo electoral* (Ezker Anitza, 1986).

Joko politikoaz haratago baina edukietan alderdikeriaz estu lotuta, gatazka dogu, Ezker Anitzak indarrez azpimarratutakoa (%14,96), berezki, irakaskuntzan irakaslegoagaz eta epaitegietan langileriagaz gertatutakoa. Halaber, maila globalean be emoten dau aditzera tentsioa ala gatazka. Alderdiaren hitzetan: *la euskaldunización, entendida como un proceso global, está siendo motivo de tensión permanente* (Ezker Anitza, 1998). Zentzu horretan, euskalduntzeak eragin daikezan gatazkek ekiden beharra azpimarratzen dau alderdiak: *hay que evitar que los procesos de euskaldunización generen crispaciones y conflictos que finalmente acaban perjudicando el proceso de normalización lingüística* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

Bestalde, euskarari hizkuntza moduan atxikitako kategorizazioen artean hizkuntza gitxitu moduan jasotakoa gailendu da (%13,39) (ikusi 4.71. taula). Ezker Anitzak euskararen egoera gitxitua hauteskunde programetan modu jarraikorrean deskribatu dau. Ezker Anitzaren hitzetan, euskararen egoera *minorizatua* (1986), *diglosikoa* (2009) da; eta egoera horren ondorioz bere biziraupena arriskuan dago, ordezkapen osoa emon daitekelako: *debemos constatar que en amplias zonas no se produce ya el relevo generacional de este idioma, de modo que existe el riesgo de sustitución total del euskera por el castellano o el francés* (Ezker Anitza: 1994, 1998). Aipu horretan agerian gelditzen dan moduan, Ezker Anitzak euskararen egoera gitxitua hizpide izan dauanetan erreferentziatzat hartutako lurraldea Euskal Herria izan da sarritan; eta Euskal Herri barnean zonaldekako deskribapenak be egin izan dauz, azalduz, esate baterako, Iparraldea dala euskara egoera txarrean dagoen lurraldea. Era berean, azpimarratzekoa da 30 urtean zehar euskararen normalizazio prozesua abian egon dan arren, 1986 zein 2009an euskararen egoera soziala deskribatzeko erabilitako adjektiboak parekoak izan direla. Ezker Anitzaren hitzetan: 2009an be, *hay que seguir reconociendo el carácter diglósico del euskera respecto al castellano* (Ezker Anitza, 2009).

Bestalde, Ezker Anitzak euskara ondare moduan be sarritan kalifikatu dau (%15,75) (ikusi 4.71. taula). *Euskera patrimonio de todos los vascos* (Ezker Anitza, 1986), *patrimonio de la ciudadanía vasca* (Ezker Anitza, 2009), *guztion altxorra* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Euskara ondare moduan izendatzerakoan bi ideia azpimarratu beharra dago: batetik, euskara inolango bazterketa barik danon ondare moduan ezartzen dauala; eta, bestetik, euskararen gitxitu egoera deskribatzerakoan gertatzen dan moduan, mintzairaren ondare izaera Euskal Herri osora zabaltzen dauala: *(el euskara) supera los límites político-administrativos de la*



*Comunidad Autónoma Vasca o Euskadi, ya que también es patrimonio de la Comunidad Foral de Navarra y de los Territorios de Lapurdi, Benafarroa y Zuberoa en Francia* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

Euskara euskaldunen berezko hizkuntza moduan be defendatu dau Ezker Anitzak noiz edo noiz (%3,15) (ikusi 4.71. taula). *Lengua de los vascos y las vascas* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Are gehiago, ikuspegi federalista oinarri hartuta, alderdiak euskara Espainiar Estatuako, Estatu Frantseseko eta Europar Batasuneko berezko hizkuntza moduan onartua izatea gura dau: *su ascensión como lengua propia y oficial tanto en los Estados Español y Francés, como en la Unión Europea* (Ezker Anitza, 2005, 2009). Era berean, inoiz euskara euskal herritarren berezko hizkuntza izateaz gainera, biztanleriaren atal baten ama hizkuntza be badala adierazi dau.

Euskara kulturagaz be batu dau Ezker Anitzak. Egitez, euskara bertoko kulturaren elementu giltzari moduan jo dau alderdiak: *elemento clave de la configuración de la cultura autóctona* (Ezker Anitza, 1986); eta aldi berean, Euskal Herriaren identitate zeinu nagusia: *el principal elemento identitario que ha continuado a dar su carácter diferencial al pueblo vasco* (Ezker Anitza, 2005, 2009).

Euskara komunitatearen eraikuntzarako bidea be bada alderdiarentzat; komunitatearen integrazioa, kohesio kulturala eta soziala zein talde identitatearen eraikuntza ahalbidetuko dauzana. Amaitzeko, aipatzekoa da euskara nazioarteagaz be lotu izan daua, baina euskara nazioarteari begira jartzeko baino, nazioartean dagozan euskaldunak euskal errealitatera hurbiltzeko. Zentzu horretan, Ezker Anitzarentzat euskal lurretatik haratago be euskararen prestigioa indartzea garrantzizkoa da.

#### 4.5.10. Laburbilduz

---

Ezker Anitzaren hizkuntzen inguruko diskurtsoan euskara izan da bera berataraz hizpidearen gehiengoa bereganatu dauana. Halaber, euskara eta gaztelaniak batera eta Estatuako eskualdeko hizkuntzek be tarte esanguratsua bildu dabe; ez osteraz nazioarteko hizkuntzek. Alderdiaren diskurtsoan ekimen politikoak adierazpen ideologikoak baino ugariagoak izan dira hauteskunde deialdi guztietan. Indar handiena bereganatu daben esparruak hezkuntza eta herri administrazioa izan dira; eskola, unibertsitatea eta epaitegien presentzia aipagarriagaz. Ezker Anitzak hizkuntzen inguruko diskurtsoaren gehiengoa EAEn lekutu dauan arren, Espainiar Estatuak eta Euskal Herriak be aipamen ugari batu dabez. Azken helburuei dagokionean, euskararen normalizazioa izan da alderdiak indar handienaz aipatu dauana. Hori horrela, EAEn elebitasunak be tarte handia bildu dau. Espainiar Estatuan eleaniztasuna izan da jomuga.

Ezker Anitzaren hizkuntza politika neurri zehatzek euskara, euskara eta gaztelania eta Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzak hartu dabez objektu. Estatuko eskualdeko hizkuntzen kasuan, euren defentsa eta bizibarritzea eta balizko Espainiar Estatu Federal batean euren ofizialtasuna bideratzeko neurriak izan dauz proposagai. Euskara eta gaztelaniaren kasuan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta ofizialtasuna benetako bihurtzea izan dauz xede. Horretarako neurri nagusiak herri administrazioan eta epaitegietan bereziki arreta-harremana bi hizkuntzetan eskaintzea, hezkuntza elebiduna emotea eta euskaldun eta gaztelaniadunentzako komunikabide publikoak eskaintza izan dira. Euskarari bideratutako politiketan, barriz, bere ezagutza eta erabilera eskubidea bermatzeko sustapen neurriak gailendu dira. Horretarako, bere funtzio eta erabilera esparruak zabaltzea jo dau funtsezkotzat alderdiak. Bestalde, ingelesaren orde z gailendu diren nazioarteko hizkuntzei zuzendutako politikek euren ezagutza eta ikaskuntza izan dabe xede; eta etorkinei zuzendutako politikek heldu-barriei abegi zerbitzuak eskaintzea, zein euren ama hizkuntza ikasteko aukerak emotea.

Hizkuntza politika bideratzeko moduen gainean, Ezker Anitzak aniztasunarekiko erabateko errespetua eta hiztun desbardinei eskubide bardinak eskaintzeko beharra agertu dau. Gainera, blokeen alderdikeria eta gatazka linguistikoa gogor gaitzestu dauz. Euskararen sustapen neurrietan progresibitatea, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzea, egingarritasuna, alkarlana zein herritarren borondate eta konpromiso beharra gailendu dauz. Bestalde, Ezker Anitzak euskararen estatusa definitzean jarri dau fokua. Horrela, euskarari euskaldunen ondare kultural, identitate zeinu eta bertako hizkuntza estatusa atxiki deutsoz; argituz euskarari bertako hizkuntza izaera Espainiar Estatuan, Frantziar Estatuan eta Europar Batasunean be aitortu beharko jakola.



## 5. ONDORIOAK: EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKA EREDUAK ETA LEKU-HARTZE IDEOLOGIKOAK

Azterketaren ondorioei bideratutako kapitulu honen helburua aztergai izan diren EAEko alderdi politikoaren hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ereduak agertzea da, abiapuntu teorikoan landutako edukiak eta alderdiek hauteskunde programetan eskainitako datuak oinarri hartuta.

Hizkuntza politikari dagokionean, modu banatuan aztertuko dira EAEko euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialei zuzendutako ekimenak, etorkinei eta euren hizkuntzei bideratuak eta nazioartekotzeari begira atzerriko mintzaireri zuzenduak. Euskara eta gaztelaniaren kasuan, ofizialtasun erregimen ereduak eta euskararen normalizazio ereduak izango dira aztergai; baita euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza bizikidetzaren eredu ideala be. Etorkinen eta euren ama hizkuntzen kasuan, helburua politika ekimenak hizkuntza eskubideen mailaketan oinarritutako hizkuntza politika erregimenetan egokitzea izango da; eta atzerriko mintzaireren kasuan, barriz, xedea mintzairerentzat proposatutako ekimen politikoaren trinkotasun eta barreiadura maila neurtzea.

Alderdi politikoaren hizkuntzekiko leku-hartze ideologikoak aurkezterakoan, honakoak hartuko dira oinarri: alderdi politikoek erakutsitako hizkuntza eskubideen ulerkerak eta tratamendua (mintzaira gitxituena bereziki); alderdiek euskal testuinguruan tradizionalki hitz egin diren euskara, gaztelania eta frantsesari atxikitako estatusa, eta alderdiek nazioarterako desiratzen daberen errealitate linguistikoaren zer-nolakoa.

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia ereduaren azterketa ikergai diren bost alderdi politikoak modu bateratuan landuz burutuko da, euren arteko puntu komunak eta bereizgarriak aditzera emonez eta politika ekimen eta adierazpen ideologikoen erabakitasun mailaren arabera antolatuz.

Azken atalean, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia elkarrizketan jarriko dira. Aztergai diren alderdi politikoaren baitan nazio-estatu eraikuntzaren eta hizkuntza gitxituen eskubideen gaineko ideologiak alderdion hizkuntza politiken euskarri ideologiko moduan jokatzeko dagozan aztertuko da. Era berean, hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko loturaren zer-nolakoaz teorizatuko da.

## 5. 1. OFIZIALTASUN ERREGIMENA ETA EUSKARA: EZIKUSITIK LEHENESPENERA

Euskara eta gaztelania EAeko hizkuntza ofizialak dira. Baina abiapuntu teorikoan esana danez, ofizialtasuna kontzeptu labankorra da. Izan be, hizkuntza bat ofizial izendatzean ez da modu zuzenean funtzio zehatz eta nahitaezkoz hornitzen; ez maila teorikoan eta, are gitxiago, errealitate praktikoan. Hortaz, ofizialtasun maileri buruz hitz egitea aproposagoa da.

Hizkuntza baten ofizialtasun maila neurtzeko hainbat aldagai izan daitezke kontuan. Batetik, ofizialtasun erregimenak esparru publikoa hartzen dau beregain. Hortaz, zehaztu beharreko lehenengo aspektua publikotasunaren mugak dira. Izan be, aurretik aipatu dan moduan, publikoaren definizioaren arabera, esparru publikoa estatuak eta estatutik eskainitako zerbitzu publikoek osatu daikie; edota, gizarte zibiletik eskaini arren, interes publikoa daben zerbitzu guztiei atxiki dakiok ee izaera horixe. Bestalde, hizkuntza bat ofizial izendatzerakoan esparru publikoan komunikazio-funtzio batzuk atxikitzen jakoz. Milian i Masana-ren hitzak gogoratuz, *dar a una lengua el carácter de oficial significa adoptarla como vehículo de comunicación, en sus diversos niveles (intracomunicación, intercomunicación y extracomunicación), de los poderes públicos, y reconocerla, análogamente, como vehículo de relación de los ciudadanos hacia dichos poderes públicos* (Milian i Massana, 1984: 72). Hortaz, botere publikoek barne komunikaziorako eta kanpo komunikaziorako hizkuntza bat darabileanean hauxe ofizial moduan jokatzen legoke. Dana dala, mintzaira batek botere publikoen baitan komunikazio hizkuntza moduan espazioa eta funtzio kopurua desbardina bereganatu daikie, behinik behin, ofizialtasuna partekatua bada. Beraz, eremu administratiboan ofizial dan hizkuntza kopurua eta ofizialtasun alkarbanatu horren egikaritze modua aintzat hartzea be komeni da. Baita, ofizialtasunaren gobernu irismena be, hau da, hizkuntza bat herrialde luze zabalean dan ofiziala edota bere ofizialtasun esparrua herrialdeko lurralde jakin batera mugatua dagoen<sup>116</sup>. Analisi honetan elementu guztiok izango dira kontuan; aztertutako bost alderdi politikoeke euren proposamen politikoetan islatzen dabezan ofizialtasun erregimenak ezagutzeko.

Aztergai diren bost alderdi politikoeke euskara eta gaztelaniaren izaera ofiziala aitortzen dabe. Dana dala, horrek ez dau esan gura ofizialtasun bikoitz hori modu berean ulertu eta egikaritzen dabenik.

### Ofizialtasuna herri administrazioan

Euskarak eta gaztelaniak herri administrazioan bete beharreko funtzioari dagokionean, gaztelaniaren arreta-harreman funtzioa testuinguruak emona dago; euskararen kasua, ostera, bestelakoa da, bere egoera gitxitu eta ezagutza mugatuak zuzenean arreta-harreman hizkuntza

<sup>116</sup>Aldagaiok “2.1.5. Ofizialtasun hizkuntza erregimenak” atalean landu dira modu sakonean.

moduan jardutea erabat zailtzen deusolako; berau egingarri bihurtzeko neurri gehigarri asko exigitzen dauzalako. Egoera horren aurrean, badira herri administrazioan euskararen arreta-harreman funtzioa modu argian garatu gura dabela agertzen daben alderdi politikoak eta horren argiro lekutzen ez direnak.

EAJk eta Ezker Abertzaleak euskara herritarren herri administrazioarekiko idatzizko zein ahozko arreta-harreman hizkuntza orokortua izateko nahia modu argian agertu dabe hauteskunde deialdirik deialdi. Ezker Anitzak herri administrazioa orokorrean zuzendutako baieztapen bat edo beste burutu dau, herritarrei arreta bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea proposatuz; baina euskararen ahozko zein idatzizko arreta-harreman funtzioaren funtsezkotasuna epaitegietan azpimarratu dau indartsuen eta modu eginkorrean. Barriz, PSE-EEK euskararen arreta-harreman eginkizuna idatzizko komunikazioan esplizitatu dau eta PP behin bakarrik mintzatu da modu zuzenean herri administrazioan zerbitzuak euskaraz eskaintzeko nahiaz. Esan daiteke, euskara herri administrazioiko arreta-harreman hizkuntza bilakatzea ez dagoela PPren lehentasunen artean. Baieztapen hau indartzera dator PPK epaitegietan euskara arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzea zentzugabekeria moduan jo izana hauteskunde deialdi jarraituetan, zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoan eskaera murrizta aitzakia moduan hartuta<sup>117</sup>.

Epaitegietako hizkuntza ofizialen erabilera hautuan, PP gainontzeko alderdi politikoen-gandik modu argian bereizi da; izan be, gainontzeko alderdi politikoez, dala modu eginkorrean dala lausoagoan, euskararen erabilera epaitegietan barneratzen joateko nahia agertu dabe. Epaitegiez gainera, Ezker Abertzaleak osasun sistema euskalduntzearen garrantzia azpimarratu dau behin eta barriro, herritarrek euskarazko zerbitzua bermatua izan dagien. EAJk be nahi berbera esplizitatu dau osasun sistemari zein ertzaintzari begira.

Epaitegiez harago, alderdi politikoez EAEko administrazioan ezeze Estatuko administrazioan euskarari tarte izten deuszen ezagutzea interesgarria da. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak Estatuko administrazioan euskara aintzakotzat hartzeko nahia agertu dabe. Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak bi administrazio mailetan euskararen erabilera irizpideak berberak izatea proposatu dabe. Esaterako, administrazioa edozein dalarik be, herritarrek zerbitzua euskaraz jasoteko eskubidea izatea. EAJk ez dau bi administrazioen arteko parekotasuna esplizitatu, baina euskararen normalizazio bidean Estatuko administrazioa tartean egotea eskatu dau, horretarako politika neurriak proposatuz. PSE-EEK Estatuko administrazioari aipamen bakarra zuzendu deutso, zehazki Estatuko

<sup>117</sup>Euskarari arreta-harreman funtzioa atxikitzeko adierazpen zuzenek informazio horixe eskaintzen daben arren, alderdi politikoen leku-hartzeok ñabartu eta zehaztu egin daitezke arreta-harreman funtzioa zeharka lantzen daben beste proposamen politiko batzuk aintzat hartuta. Esaterako, pentsatu daiteke alderdiek herri administrazioiko langileak euskalduntzea proposagai dabenetan modu zeharkakoan euskararen arreta-harreman funtzioa indartzen legokezela. Dana dala, alderdi politikoen ekimen zuzenek eta errepikatuek alderdiaren lehentasunen gainean informazio garrantzitsua eskaintzen dabela baieztatzea zilegi da; eta ofizialtasun erregimen mota zehazteko horren funtsezkoa dan hizkuntza funtzioa modu esplizituan eta jarraikorrean proposatzeak garrantzia zentrala dauala pentsatu daiteke.

esparru jakinetan hizkuntza koofizialen erabilera eta defentsa erraztea proposatuz, Senatuan bereziki. PPK, ostera, hizkuntza politika proposamenetan ez deitso Estatuko administrazioari aipamen bakarra egin.

Euskara herri administrazioan herritarrekaz jarduteko arreta-harreman hizkuntza izateaz gainera, erakundeon lanerako hizkuntza izateko gogoia agertu daben alderdi politiko bakarrak EAJ eta Ezker Abertzalea izan dira. Halaber, EAJk herri administrazioari lan jardunerako euskara eta gaztelania biak erabiltzea bultzatu dauan bitartean, Ezker Abertzaleak euskara herri administrazioari lehentasunezko hizkuntza moduan ezarri gura dau, hau da, euskararen aldeko diglosia funtzionala burutu. Egitez, Ezker Abertzalea da herri administrazioari begira euskarari lehentasunezko postua eskaini gura deitson alderdi politiko bakarra eta EAJ herri administrazioan burutu beharreko hizkuntza funtzio guztietan elebitasun osoaren aldeko hautu argia burutu dauana. Ezker Anitzaren ardura euskara eta gaztelania herritarrekiko harremanean erabiltzea da; barriz, herri administrazio barneko lan jardunerako hizkuntza erabileran ez da sartzen. Bestalde, euskara herri administrazioari lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzeari dagokionean, aipatzekoa da Ezker Anitzak deialdirik deialdi udalerrri oso euskaldunetan euskara herritarrekiko komunikazioan hizkuntza nagusi izatea babestu dauala, betiere herritarrek hala erabakitzeotan. Testuinguru berberaren aurrean, PSE-EEk euskal elebakartasuna gaitzestu dau, herritarrekiko komunikazio idatzian elebitasuna nahitaezko bihurtuz.

Euskara herri administrazioan barneratzeko jarrera argiena agertu daben EAJ eta Ezker Abertzaleak eta erdibidean kokatu dan Ezker Anitzak euskararen presentzia hori egingarri bihurtzeko neurriak proposatu dabez. Hautatu dabezan ekimenen artean aipagarrienak planifikazio soziolinguistikoa eta langileriarentzako hizkuntza eskakizunak izan dira. EAJ eta Ezker Anitzaren kasuan normalizazio planek hizkuntza eskakizunei aurrea hartu deitso eta hirugarren neurri garrantzitsu moduan langile eta erakundeen euskaldunetzea eta euskararen ikasketa nabarmendu dira; Ezker Abertzalearenean, ostera, hizkuntza eskakizunak izan dira gailendutakoak. EAJ eta Ezker Abertzaleak normalizazio planak herri administrazio orokorrerako ezeze justizia administrazioarako, osasun sistemarako zein ertzaintzarako proposatu izan dabez hainbat hauteskunde deialditan, EAJren kasuan egonkortasun handiagaz. Aipatzekoa da Ezker Abertzaleak Estatuko administrazioa be planifikazio linguistikoko beharrean dagozan erakundeen baitan sartu dauala. Ezker Anitzaren kasuan, normalizazio planen jasotzaile nagusia epaitegiak izan dira, nahiz eta herri administrazio orokorrerako zein udal administrazioarako be proposatu izan dauan noiz edo noiz normalizazio planik.

Hizkuntza eskakizunei dagokionean, EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza langileria publikoarentzako euskara eskakizunak ezartzearen alde agertu dira. Hori horrela, Ezker Abertzalearen ikuspegia askoz errokoagoa da; izan be, langile publikoak euskaldunak izatea dau xede. Egiteko horretan, hauteskunde deialdiz deialdi bere eskaerak moldatuz joan da: 1990ean une horretatik bertatik zonalde euskaldunetako langileria publikoa euskalduna izatea nahitaezkoztat jo eban, euskararen presentzia murriztagoa zan guneetan baldintza epe ertain edo luzean bete beharra ezarriz. 22 urte beranduago, 2012an, herri administrazioan

lan egiteko langileria publiko guztiari gitxieneko 2. hizkuntza eskakizuna ezarri gura deuto, neurria une horretatik bertatik indarrean sartuta. Are gehiago, Ezker Abertzaleak herri administrazioan ezeze herri administrazioagaz alkarlanean diharduen enpresetan be hizkuntza eskakizunak ezartzeko hautua burutu dau. EAJk, barriz, ez dau hizkuntza eskakizun mailen eta eskakizunok indarrean jartzeko epeen gainean horren argitasun handiko baieztapenik burutu. Bestalde, Ezker Anitza hizkuntza eskakizunak ezartzearen alde agertu da, betiere eskakizunok lanpostuan betebeharreko eginkizunei lotuta badagoz. Ezker Anitzak, beste behin, epaitegiei eskaini deutse tarte handiena; herritarrek arreta euskaraz jasotzeko langileriaren baitan hizkuntza eskakizundun langile nahikoa egotea proposatuz.

Esan daiteke, hizkuntza eskakizunak alderdi politikoen arteko hizkuntza politika eztabaidagune zentrala direla; zehazki, hizkuntza eskakizunen eskaera maila da eztabaidatua eta alderdien artean leku-hartze kontrajarriak begitaratzen dauzana. PSE-EE eta PPren hizkuntza eskakizunekiko jarrera bestelakoa da. PSE-EE legez ezarritako hizkuntza eskakizunekiko kritiko agertu da azken hauteskunde deialdian eta euren beheranzko berdoitzea aldarrikatu dau hainbat irizpide kontuan hartuta: lanpostuaren beharrezana, zonaldeko euskaldun kopurua, etab. PPren kasuan hizkuntza eskakizunekiko jarrera are kritikoagoa da. Alderdi honen iritiz herritarrei arreta euskaraz eskaintzeko langile guztiak euskaldunak izatea ez da beharrezkoa. Ildo horretan, alderdiaren iritiz euskaraz eskaintzeko arreta-harremana herritarren eskaera objektibora egokitu beharra dago. PPK herri administrazioan euskararen ezagutzari gehiegizko balioa eskaintzen jakola uste dau, sarritan langileriaren formakuntza beraren aurretik kokatuz. Alderdiak ez dau gura langileen herri administrazioarako sarrera euskararen ezagutzak baldintzatua egotea, horregaitik, ezagutza meritu moduan zenbatetsi gura dau, inoiz ez baldintza moduan. Horrela, PSE-EEren antzera, PP hizkuntza eskakizunak murriztearen alde agertzen da; besteak beste, hizkuntza eskakizunak herritarren eskaera objektibora egokituz eta zero hizkuntza eskakizundun postuak ezarriz.

Hizkuntza eskakizunak EAEko politika linguistikoaren nondik norakoak eztabaidatze-rakoan alderdi politikoen leku-hartzeetan bereizketa gune diren hizkuntza eskubideekaz lotuta dagoz; hain zuzen, herri administrazioan hizkuntza eskubideen onuradun moduan hartzen dabezan subjektuetan. PPK eta, neurri txikixeagoan, PSE-EEk langileria publikoa kokatzen dabe hizkuntza eskubideen jasotzaile printzipal, euskara ezagutzeko eskaera dala eta bizi daben bazterketa egoera argudiatuta eta berau gaitzetsiz. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak, barriz, herritarrek kokatzen dabez herri administrazioan hizkuntza eskubideen jasotzaile nagusi.

Ofizialtasun erregimena espazio publikoari zuzendua egonik, berau bideratzeko ardua botere publikoei dagokie. Horrela, herri administrazioaren erantzunkizuna da herritarrei zerbitzu publikoak hizkuntza ofizialetan eskaintzea; eta herritarren eskubidea hizkuntza bat edo beste aukeratzea. Halaber, alderdi politikoen hizkuntzen gaineko diskurtsoan bi rol horreek ez dagoz hain argi. Izan be, PSE-EEk eta PPK herri administrazioako langile publikoei herritar trataera emoten deutse; herritarren hizkuntza eskubideen bermatzaile ordez, eskubide jasotzaile bihurtuz eta, modu horretan, maila praktikoan herritarrek hizkuntza aukeratzeko



daben eskubidea sakrifikatuz. Aldiz, EAJk, Ezker Anitzak eta Ezker Abertzaleak herri langileak zerbitzari publiko moduan ezarri dabez. Dana dala, Ezker Abertzaleak herri administrazioari atxiki deitson eginkizun nagusia euskararen normalizazioa bideratzea izan da. Horrela, Ezker Abertzaleak herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko daben eskubidea azpimarratu dau behin eta berrero, gaztelaniaz egitekoa aipatu barik. Ezker Anitzak, ordea, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea azpimarratu dau modu jarraituan, eta EAJk 2012ko hauteskunde programan hizkuntza-bikotasuna aldarrikatu dau, Ezker Anitzaren antzera, ordura arteko euskara zentroan jartzeko Ezker Abertzalearen pareko joera alboratuta.

PPk hizkuntza eskakizunen gaitzespena eta langileria publikoaren hizkuntza eskubideen errespetura zuzendutako espazio handiak eta PSE-EEK hizkuntza eskakizunei egindakoak, euskara zein euskara eta gaztelania arreta-harreman hizkuntza moduan ezartzeak bereganatutako tarte txikiagaz kontrastatzen dau. Gainera, PPren kasuan bi ekimen horreek dira herri administrazioa zuzendutako politika ekimenen ia ehuneko osoa bereganatu dabenak. PSE-EEren kasuan ekimenen aniztasuna ugariagoa da, baina proposamen gehienak indarrean dagoen hizkuntza politika zalantzan jartzera bideratuak dagoz; eskaera garrantzitsu bat hizkuntza politika diseinatzerakoan legebiltzarrari erabakimen handiagoa eskaintzea izanik.

Bestalde, gaztelania, EAEz haratago, Espainiar Estatuan eta Europar Batasunean be bada ofiziala; euskarak EAEn eta NFEan dau ofizialtasun estatusa, nahiz eta azken horretan zonaldeka mugatua. Egoera horren aurrean, badira EAE ez beste lurraldeetan euskarari ofizialtasun erregimena aitortu gura deutesen alderdiak. Europar Batasuna da alderdien artean jarraitzaile gehien batu dauan esparrua; izan be, PPk ez beste alderdi politiko guztiek eskatu dabe euskarak Europar Batasunean ofizialtasuna bereganatzea. Euskal Herriari begira, Ezker Abertzalea, EAJ eta Ezker Anitza izan dira ofizialtasun deia egin dabenak. Ezker Abertzaleak hauteskunde deialdiz deialdi eskatu dau euskararentzako ofizialtasuna; EAJk behin, 2012ko hauteskunde programan. Ezker Anitzak, barriz, Espainiar eta Frantziar Estatueterako proposatu dau euskararen ofizialtasuna, modu horretan, zeharka, euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osora ailegaraziz.

EAetik harago euskararen ofizialtasuna eskatzea gauza bat da, eta beste bat euskararen ofizialtasuna zabaltzea alderdi politikoaren proiektuaren parte zentral bilakatzea. Horixe da Ezker Abertzalearen eta Ezker Anitzaren kasua. Ezker Abertzaleak euskara Euskal Herri osoan ofiziala eta Hegoaldean gaztelaniagaz eta Iparraldean frantsesagaz koofiziala izango dan Euskal Herria dau proposagai; Ezker Anitzak, barriz, eskualdetako hizkuntza guztiak era berean ofizialak izango diren Espainiar Estatu eleanitza. Proiektu politiko horreek eraikitzea bi alderdi politikoen eskumenetik kanpo dagozan arren, bai Ezker Abertzaleak bai Ezker Anitzak berau egikaritzen joateko ekimen politikoak proposatzen dabez. Ezker Anitzaren kasuan, proiektua Estatu erakundera zedarritzen da, hau da, herri administrazioari dagokion eremura. Ezker Abertzaleak, ordea, herri administrazioa erabat gaintitzen dau, gizarte eremu guztietan euskararen presentzia komuna kudeatuz. Aipatzekoa da gainera, 2012ko hauteskunde deialdian salbu, Euskal Herria izan dala Ezker Abertzalearen hizkuntza politikaren oinarrizko aplikazio esparrua.

Orain arte aipatutako guztiak kontuan hartuta, aztergai diren EAEko alderdi politikoei formalki euskara eta gaztelaniari ofizialtasuna aitortu arren, herri administrazioerako ofizialtasun eredu eta maila desbardinak iradokitzen dabezala baieztatu daiteke. EAJk euskara eta gaztelaniaren arteko ofizialtasun parekidea defendatzen dau EAerako; herri administrazioari dagokionean bi hizkuntzei funtzio berberak atxikiz eta herritarrei dagokionean honeen hizkuntza aukera askatasuna bermatzeko nahia agertuz. Ezker Anitzak, bere aldetik, ofizialtasun parekidea herritarrei begirakoan aldarrikatu dau; herri administrazioaren barne funtzionamendurako hizkuntzen erabileran murgildu barik eta, hortara, barne jardunean gaztelaniaren nagusitasuna zilegituz. Ezker Abertzaleak, ostera, euskararen aldeko diglosia funtzionala proposatu dau, maila praktikoan, euskara gaztelania baino hizkuntza ofizialago bihurtuz. Aldi berean, Ezker Anitzak eta Ezker Abertzaleak euskararen ofizialtasunaren lurralde irismena zabaltzeko eta, ondorioz, egungo bere ofizialtasun maila handitzeko hautu argia burutu dabe; Espainiar Estatuan lehenengoak eta Euskal Herrian bigarrenak. Bestalde, PSE-EE eta PP herritarren hizkuntza aukera askatasunaren alde agertu diren arren, ez dabe aukera egingarri bihurtzeko biderik jarri eta, gainera, martxan dagozan neurriak be gogor kritikatu dabez. Era horretan, euskararen ofizialtasunari eta bere bideragarritasunari etena ezarri deutse<sup>118</sup>.

#### 5.1. IRUDIA. EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN OFIZIALTASUN MAILA HERRI ADMINISTRAZIOAN ALDERDI POLITIKOEN ARABERA

← Gaztelania euskara baino ofizialagoa	Euskarak eta gaztelaniak ofizialtasun berbera	→ Euskara gaztelania baino ofizialagoa
<b>PP</b> <b>PSE-EE</b>  (euskararen ofizialtasuna egikaritzeko neurri eza)	<b>EAJ</b>  (EAEn koofizialtasun osoa extra, intra eta interkomunikazioan)  <b>Ezker Anitza</b>  (Espainiar Estatuan koofizialtasun osoa extrakomunikazioan)	<b>Ezker Abertzalea</b>  (euskara lehentasunezko hizkuntza. Ofizialtasun erregimen bateratua EHn)

*Iturria: norberak egina.*

<sup>118</sup>Onartu beharra dago, EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak euren ofizialtasun eredu idealera heltzeko neurri ugari proposatu dabez arren, neurrion nahikotasuna zalantzan jarri daitekela. Zentzu horretan, Ezker Abertzalea da erotiko neurriak modu sistematikoan proposatu dauzan alderdi bakarra. EAJk eta Ezker Anitzak, ostera, mailaz mailakoa eta egingarritasuna oso kontuan hartu dabez, euskararen ofizialtasunaren erabateko egikaritzea denboran luzatuz.

Esandako guztiak kontuan hartuta, herri administrazioari dagokionean, EAEko alderdi politikoen euskara eta gaztelaniaren ofizialtasunaren onarpen formalaren atzean, euskara eta gaztelaniarentzako ofizialtasun maila desbardinak identifikatu daitezkeela baieztatu daiteke.

## Ofizialtasuna hezkuntza sisteman eta komunikabide publikoetan

Ofizialtasun erregimenaren azterketarako hezkuntza sistema<sup>119</sup> eta komunikabide publikoak aztertzea be funtsezkoa da. Komunikabide publikoen presentzia orokorra nahiko murrizta izan dan arren, hezkuntza sistemak eta bereziki eskolak alderdi politiko guztien diskurtsoan atal garrantzitsua bereganatu dau.

Eskolari dagokionean, alderdi politikoen leku-hartzeak ezagutzeko auzi garrantzitsuenetakoa alderdiek ume eta gazteek EAEko bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko agertzen daben nahia da. EAJk, Ezker Anitzak, Ezker Abertzaleak eta PSE-EEK ikasleek bi hizkuntza ofizialen ezagutza bereganatzea gura dabe, nahiz eta Ezker Abertzaleak euskalduntzean jarri dauan azpimarra eta PSE-EEK aukera askatasunean. PPK, barriz, euskara ikastea ezin behartu daitekela defendatzen dau, eta ikasle eta familien mugikortasuna errazte aldera euskara ikasgaitik salbuesteko proposamena be sarri agertu dau. Azpimarratu beharrekoa da gainera, PPK hizkuntzen presentzia zonalde soziolinguistikoen arabera ezartzeko proposamena egin izan dauala, modu horretan banaketa linguistikoa betiketzea sustatuz. Dana dala, bost alderdietatik lauk ume eta gazteen bi hizkuntza ofizialen ezagutza orokortura hurbildu gura badabe ere, berau lortzeko proposatutako bideak desbardinak dira. Hezkuntza ereduak dira horren adibide argienetakoa<sup>120</sup>.

Gaur egun indarrean dirauen aukeraketa banatuaren hezkuntza ereduak ezarri zanetik eta urteak pasa ahala, alderdi politikoak euren leku-hartzeak moldatuz joan dira, ereduak emondako emaitzak aitzaki hartuta, neurri batean behintzat. EAJ aukeraketa banatuaren hezkuntza ereduaren alde agertu izan da, lehen unetik berau bideragarri egiteko neurri ugari proposatuz; baina urteak pasa ahala berau egokitzeko beharra agertu dau. PP be hezkuntza eredu banatuaren alde agertu izan da, 2005ean marko hirueledunaren proposamenera hurbildu danera arte, behinik behin. Ezker Abertzalea, barriz, ereduakiko kritiko izan da, euskalduntzea unibertsalizatzeko mugak agertzen dauzalakoan. Horrela, hasiera batean euskalduntzen ez daben ereduak kentzea eta B eta C ereduak indartzea proposatu izan dau; eta 2012ko azken hauteskunde deialdian murgiltze eredu orokortua ezartzea. PSE-EEK

<sup>119</sup>Hezkuntza sistemaren kudeaketa orokorra Eusko Jaurlaritzak daroala kontuan hartuta, hezkuntzari zuzendutako ekimenak esparru publikoaren baitan landuko dira. Halaber, onartu beharra dago, posible dala alderdiek eskola edota unibertsitatea hizpide izan dabenetan, esplizitatu ez arren, eskola eta unibertsitate pribatuak be barnean hartzea.

<sup>120</sup>Eskolari zuzendutako ekimenen baitan, hezkuntza ereduak estu lotutako bi momentu bereizi daitezke, neurri handiagoan ala txikiagoan, alderdi politiko guztien proposamenetan islatu direnak: lehenengoa, aukeraketa banatuaren hezkuntza ereduaren ezarpen eta egikaritze aldia litzateke eta, bigarrena, eredu horren berplanteatze aldia.

eta Ezker Anitzak, ostera, eredu bieledun bateratuaren onurak baieztatu izan dabez; eredu honek, besteak beste, bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzeko ahalmena izango leuke eta ikasleek ama hizkuntzan ikasteko eskubidea bermatuta izango leukie - azken argudio hori PPK be aipatu izan dau. Gainera, PSE-EEren iritziz, eredu bielearen bitartez hezkuntza sisteman gaztelaniak bizi dauan bazterketa gainditzea lortuko litzateke. Eredu bieleari, 2005etik aurrera, eredu hirueledunaren aldeko apustuak hartu deutso aurrea. Ezker Anitza be eredu horretatik gertu kokatu da, betiere, ume eta gazteen hizkuntza ofizialen kalitatezko ezagutza bermatzea lortzekotan.

Aipatu beharra dago hezkuntza ereduen ebaluaketa alderdi politiko guztiek proposatu izan dabela. Halaber, ebaluaketa egiterakoan kontuan hartutako irizpidea desbardina izan da alderdi politikoaren arabera. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak ikasleen maila linguistikoa ezarri dabe ebaluaketa irizpide moduan; PSE-EEK eta PPK, barriz, ikasleen ikasketa emaitza orokorrak. Emaitza akademiko eta linguistikoez harago, Ezker Anitzak ereduek umeen gizarte integrazioan daben eragina ebaluatzeko nahia be agertu dau.

Alderdi politikoaren arteko beste eztabaidagune garrantzitsu bat eskola sisteman euskara barneratzeak ekarri dauan irakasleen euskalduntze prozesua bideratzeko modua izan da. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak irakasleen erabateko euskalduntzea bilatu dabe; helburu horregaz, hizkuntza eskakizun zorrotzak ezartzea defendatuz eta arrazoi desbardinak medio euskaldundu ezin daitezkan irakasleentzat hautabideak proposatuz; leunagoak EAJ eta Ezker Anitzaren kasuan eta zorrotzagoak Ezker Abertzalearenean. PSE-EEK irakasleen euskalduntzea zilegitu dauan arren, hizkuntza eskakizunak ez dauz ia mintzagai izan eta egin dauzan apurretan inoiz ez baldintza moduan. PPK irakasleen euskalduntzea ereduen arabera izatea defendatu dau, modu horretan irakasle guztien euskalduntzea alboratu, euskalduntze erritmoak berrikustea proposatu eta euskalduntzetik salbuesteko irizpideak zabaltzea proposatuz.

Beste behin, hizkuntza eskubideak hizpide izan direnetan diferentzia argiak agertu dira alderdien artean. Ezker Abertzaleak ume eta gazteen euskalduntzeko eskubidea azpimarratu dauan bitartean, Ezker Anitzak hezkuntza elebidunerako eskubidea baieztatu dau. Barriz, PSE-EEK hizkuntza aukeraketagaitik ikasle eta irakasleek bizitako bazterketa izan dabe kritikagai; eta PPK irakasleen hizkuntza eskubideak azpimarratu dabez, hain zuzen, euskara ezagutza irakaskuntzan jarduteko traba ez izatea defendatuz.

Interesgarria da aipatzea, Ezker Anitzak Estatuako eskualdeetako hizkuntzei be itzi deusela tartea euskal hezkuntza sisteman, mintzairon ikasketa hautazko ikasgai moduan eskaintzea proposatuz.

Lanbide heziketak tarte oso murrizta bereganatu dau bost alderdi politikoetan. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko nahia agertu dabe. Ezker Abertzaleak euskara ikasketa hizkuntza bilakatzear gainera, lan hizkuntza moduan jokatzeara

be proposatu dau. PSE-EEren kasuan, euskara lanbide heziketan ikasketa hizkuntza moduan barneratzeko proposamena ingelesaren eskutik etorri da, hain zuzen, hezkuntza hirueleduna xede hartu dauanean. Une horretara arte euskarak ez dau lanbide heziketan bera beratarra inolango agerpenik izan PSE-EEren ekimen politikoetan. PPK euskalduntzeko nahia baino lanbide heziketan euskara barneratzeak dakarren inbertsio neurrigabea izan dau kritikagai; euskalduntzea lanbide heziketa kalitatezkoak beharrezko dauan hobekuntza teknologikoen aurretik ezarri izan dala argudiatuz.

Bestalde, unibertsitateak espazio esanguratsua batu dau EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza alderdi politikoaren diskurtsoan; PSE-EE eta PPren kasuan, barriz, bereganatu dauan tarte askoz murriztagoa izan da. EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak euskararen erabilera unibertsitate munduan barneratu gura dabe, unibertsitatea euskaldundu. Horrela, EAJk eta Ezker Abertzaleak ikasketak euskaraz egiteko aukera bermatzeko nahia agertzen dabe. Ezker Anitzaren eskaera, barriz, askoz neurrizkoagoa da; hain zuzen, euskaraz irakasten diren ikasgaien kopurua ugarituz joatea. Ezker Anitzaren eskaera murriztagoa izanda be, berau egikaritzeko proposatutako neurrien ugaritasuna azpimarragarria da; besteak beste, normalizazio planak, irakasleen euskalduntzea, baliabideen bideratzea. EAJk be ekimen bideragarriak izan dauz proposagai, planifikazioa izanik indar handiena bereganatu dauana. Aipatzekoa da, eskolaren kontrara, EAJk birritan baino ez dauzala izan hizpide hizkuntza eskakizunak baldintza moduan, hain zuzen, 1990 eta 1994ko hauteskunde deialdietan. PSE-EE eta PPren jarrera, ordea, bestelakoa da. PPK behin bakarrik izan dau hizpide unibertsitatean euskarazko irakaskuntza bermatzeko beharra eta PSE-EEK 1980ko hauteskunde deialdian elebitasuna modu errealistan, zientifikoan eta testuinguruak ahalbidetu ahala barneratzeko deia egin eta ostean, hirueletasunaren eskutik berragertu dau 2012an. Horrela, PSE-EE eta PPK, beste behin, euskara bultzatzeko neurri aktiboen aurretik, euskararen eskaera dala eta sortu daitekezan egoera baztertzailak izan dabez hizpide. Bi alderdiek hizkuntza eskakizunak gaitzestu dabez eta euskara ez ezagutzeagaitik irakasle edo ikaslerik ez baztertzea aldarrikatu. EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitzaren kasuan hizkuntza eskubideak ez dira ia hizpide izan.

Ikerketa alorrean, Ezker Anitzak eta Ezker Abertzaleak euskararen erabilera handitzeko nahia agertu dabe. Era berean, aipatzekoa da EAJ eta Ezker Abertzaleak euskara zentro daben gai soziolinguistikoen azterketari bideratutako ekimen kopuru ugaria. Ezker Anitzak eta PSE-EEK be proposatu izan dabez, baina askoz neurri murriztagoan.

Komunikabide publikoei dagokionean ETB-EiTB da aipatu beharrekoa, aztergai diren bost alderdi politikoek hizpide izan dabena. Azpimarratu beharrekoa da, EAJ eta PPren kasuan EiTBra bideratutako ekimen politikoak 80 eta 90 hamarkadetan zentratu diren bitartean, PSE-EE eta Ezker Anitzaren kasuan 2000ko hamarkadan be proposamenek jarraikortasun bat mantendu dabela. Ezker Abertzalearen kasuan, azterketarako hauteskunde programen faltan,

etenik egon dan ala ez ezin daiteke baieztatu; dana dala, 2012ko hauteskunde deialdian Ezker Abertzaleak EiTBri proposamen ugari zuzendu deutoz eta badirudi alderdiak irratia telebista publikoarentzako proiektu gaurkotu indartsua daua<sup>121</sup>.

EAJk eta Ezker Abertzaleak EiTB euskararen eraberritze prozesuaren zerbitzura jartzeko nahia behin baino gehiagotan agertu dabe, eta PSE-EEK be sarritan nabarmendu dau EiTBk euskara sustatzeko eta bere ikasketa bultzatzeko dauan balioa. Barriz, Ezker Anitzak eta PPK EiTBren zerbitzu publiko izaera azpimarratu dabe gehiago eta, beraz, herritar guztiei heltzeko beharra. Nabarmentzekoa da, gainera, Ezker Anitzak zerbitzu publiko izaera komunikabide publikoei ezeze pribatuei be atxikitzen deusela, horrek sortu daikezan betebeharrak guztiekaz. Egitez, Ezker Anitzak komunikabideen zerbitzu publiko izaera darabil hizkuntza gitxituak sustatzeko argudio moduan. Horrela, Ezker Anitzak, EAJk eta Ezker Abertzaleak egin daberen erara, euskarazko telebista eta irratia publikoarentzako hainbat baliabide eskatu dauz. PPrene kasuan ez da horrelakorik gertatu. Euskarak ez dau bere sustapenerako ekimenik jaso; bai ostera euskarak herritarrengan sortu daikezan eskubideen urraketa gaitzespenak. EiTBk bete beharreko funtzioaren gainean alderdi politikoen jarrera mintzagai dala, aipatzekoa da 1994tik EiTBri neurri linguistikorik bideratu barik egon eta ostean, 2012ko hauteskunde programan, EAJk irratia telebista publikoaren hizkuntza politikari zuzendutako ekimen bakarrean, euskaraz eta gaztelaniaz kalitatezko programazioa eskaintzea izan daua proposagai; oraingo honetan euskararen sustapena baino komunikabidearen zerbitzu publiko izaera lehenestuz.

Alderdi politikoei EiTBri atxikitako eginkizun nagusiaren isla bere sorkuntza garaian alderdi politikoei euskara eta gaztelania kanalaren gainean agertutako jarrera desbardina izan daiteke. Hauteskunde programetan eskaintzen dan informazioa aintzat hartuta, EAJ eta Ezker Abertzalea bi kate sortzearen alde agertu ziran, bata euskalduna eta bestea elebiduna; PPK, ostera, kate bakarrean aldeko hautua egin eban, dirua aurrezte bidean.

Ezker Abertzalearen kasuan EiTBk euskararen normalizaziorako dauan garrantziak indarrean dirau. Xede horregaz, 2012ko hauteskunde programan alderdiak EiTBri astindu esanguratsua emoteko ekimen zorrotzak izan dauz proposagai. Besteak beste, gaztelaniaz bakarrik emititzen dauan telebista edo irratirik ez izatea; EiTBko lan hizkuntza euskara izatea eta, horretarako, langile guztiek euskaraz jarduteko ahalmena izatea eta hizkuntza eskakizunak ezartzea, lanpostuan betebeharreko eginkizunetara egokituta; zein EiTB diruz laguntzea, etab.

EAEko komunikabide publikoetan ezeze, EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak Espainiar Estatuko komunikabide publikoetan be euskara erabiltzeko eskaera egin dabe;

<sup>121</sup>Kontsultatu Ezker Abertzalearen datuen analisisa (4.2).

Ezker Anitza izanik neurriok modu ekintzaileenean proposatu dauzana<sup>122</sup>. Barriz, PSE-EE eta PPren komunikabide publikoetarako eskaerak EAEkoetara mugatu dira.

## 5.2. IRUDIA. EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN OFIZIALTASUN MAILA HEZKUNTZA SISTEMAN ETA KOMUNIKABIDE PUBLIKOETAN ALDERDI POLITIKOEN ARABERA

← Gaztelania euskara baino ofizialagoa	Euskarak eta gaztelaniak ofizialtasun berbera	→ Euskara gaztelania baino ofizialagoa
PP  PSE-EE  (gaztelania nagusi dan alorretan bere gehiagotasuna ez da zalantzan jartzen; euskara indartsu dan alorretan euskara eta gaztelaniaren bardintzea aldarrikatzen da)	EAJ  Ezker Anitza  (zerbitzu publikoetan aukera askatasuna bermatu)	Ezker Abertzalea    (euskararen normalizazioa aukera askatasunaren aurretik lehenetsi)

*Iturria: norberak egina.*

Esandako guztiak aintzat hartuta, pentsatu daiteke hezkuntza eta komunikabide publikoetan proposatutako ekimen linguistikoak bi norabidetan doazala: batetik, EAEko hizkuntza ofizialak zerbitzu publikoak bideratzeko mintzaira bihurtzera; bestetik, gizartean euskara normalizatzeko esparruok daben garrantzia aintzat hartuta, euskararen normalizazio prozesua gauzatzera<sup>123</sup>. Euskararentzako neurri aktiboak proposatzen dabezan alderdien artean ildoetako bakoitzak indar desbardina bereganatu dau. Ezker Anitzak hezkuntza eta komunikabideen zerbitzu publiko izaera gailendu dau. Hain zuzen, hezkuntza eta komunikabideak zerbitzu publiko diren neurrian bi hizkuntza ofizialetan eskainiak izan behar direla azpimarratuz. Ezker Abertzaleak, ostera, esparruok euskararen normalizaziorako erabiltzea lehenetsi dau, zenbaitetan gaztelaniaz zerbitzua eskaintzeari uko egitera arte. EAJk euskararen normalizazioari espazio zentrala eskaini deutso, baina zerbitzu publikoa bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeko konpromisoari uko egin barik. Bestalde, PSE-EEk eta, bereziki, PPK euskararen normalizazioa baino zerbitzuotan gaztelaniaren presentzia bermatzeko beharra exijitu dabe; batez be, euskarak berezko espazioa bereganatu dauan alorretan, eskolan gehien bat. Ostera, euskarak berezko espaziorik ez dauan alorretan ez dabe euskararentzako pareko presentzia eskaerarik egin. Laburbilduz, koofizialtasun parekideari dagokion zerbitzuen hizkuntza bikoitza errespetzen daben alderdi politiko bakarrak EAJ eta Ezker Anitza dira.

<sup>122</sup>Kontsultatu Ezker Anitzaren datuen analisisia (4.5).

<sup>123</sup>Euskararen normalizaziora bideratuago dagozan neurriak eta planteamenduak “5.2. Euskararen normalizazioa: normalizazioaren bidean edo bidetik kanpo” atalaren ondorioetan berreskuratuko dira.

## 5. 2. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA: NORMALIZAZIOREN BIDEAN EDO BIDEK KANPO

---

Hizkuntza normalizazioa deritzogu desabantailan edo gitxitu posizioan dagoen mintzaira ala hizkuntza aldaera baten egoera soziolinguistikoa hobetzeko bideratzen dan prozesuari. Baina ofizialtasunaz gertatzen dan moduan, normalizazioan be maila desbardinak bereiztu daitekez. Boix eta Vilak (1998) normalizazioak helburu politiko-juridikoak eta soziolinguistikoak izan daitezala baieztatzen dabe. Ikuspegi soziolinguistikoa aintzat hartuta, gitxiengo normalizazioa litzateke prozesuaren objektu dan hizkuntza erabilera esparru guztietan presente egitea; normalizazio ertaina hizkuntza ezagutzen ez daben herritarrek berau ikasi eta erabiltzea; eta gehieneko normalizazioa hizkuntza erabilera esparruko hizkuntza bakar bihurtzea, gainontzeko mintzairak alboratuta.

Aztergai izan diren alderdi politikoek euskararentzako zein normalizazio maila gura daben ezagutzeko aldagai ezbardinak hartu behar dira aintzakotzat. Batetik, alderdi politikoek zein neurritan eta esparrutan daben hizpide normalizazioa eta zelan definitzen daben. Bestetik, gizarte esparru desbardineterako alderdi politikoek euskarari bideratutako ekimenak eta ekimenon zorrotasun eta zabaltze maila. Eta azkenik, alderdi politikoek euskararen hizkuntza politika bideratzerakoan subjektu eragile moduan ezartzen dabezan agenteak eta hizkuntza politika bideratzeko gailentzen dabezan balio bitartekariak.

Alderdi politiko guztiek baieztatu dabe noiz edo noiz euskararen normalizazioaren alde dagozala. Halaber, alderdi politikoek aldeko jarrera teoriko formal horri euskararen normalizazioa ulertzeko eta berau bideratzeko proposagai dabezan ekimenak gehituz gero, euskararen normalizazioarekiko inplikazio mailak desbardinak direla baieztatu daiteke.

Euskararen normalizazioa esaera askotan erabili izan dabe aztergai diren alderdi politikoek, baina modu esplizituan berau edukiz betetzeko ardura hartu daben bakarrak EAJ eta Ezker Abertzalea izan dira. EAJrentzako normalizazioa hizkuntza bat gizarte esparru guztietan berreskuratzea da, egunerokoan komunikazio tresna ohiko bilakatzea. Horrela, normalizazioak honakoak dakar: hizkuntzaren ezagutza orokortua, ezagutzatik erabilerara salto egitea eta normalizazio unera arte beste mintzaira bateri edo batzuei egokezan espazio eta funtzioak betetzea. EAJk ez dau normalizatu beharreko hizkuntzak, euskarak, espazio eta funtzio barriak eskuratzeak gainontzeko mintzairengan, gaztelaniarengan, zenbaterainoko espazio iztea dakarren zehaztu. Halaber, EAJk EAeko bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun bardinalea sarritan aldarrikatu dau. Horregaitik, zilegi da pentsatzea EAJrentzat euskararen normalizazioa gizarte alor guztietan bi hizkuntzek erabilera parekidea bereganatzean lortuko dala.

Ezker Abertzaleak be normalizazioa euskararen erabateko berreskuratzeagaz lotzen dau, euskaraz bizitzeko aukeragaz. Baina EAJk ez bezala, Ezker Abertzalearentzat normalizazioak euskara lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzea be badakar; euskara euskal herritarren hizkuntza ohikoa eta lehentasunezkoa izatea eguneroko bizitzako esparru guztietan.



Ezker Anitzak eta PSE-EEK euskararen normalizazioa bere erabileragaz lotu dabe. Ezker Anitzaren kasuan, normalizazioa zertan datzan ez da zehaztu, euskararen erabileraren normalizazioa eta komunikazio tresna moduan euskara normalizatzea izan baitaiz bakarrik aipagai. PSE-EEren kasuan, zehaztapena Ezker Anitzarena baino handiagoa izan da, euskararen normalizazioak herritar guztiei bere erabilera ahalbidetzea dakarrela baieztatuz. Aipatzekoa da, PSE-EEK euskararen erabilera normalizatua aldarrikatzeaz gainera gaztelaniaren erabilera normalizatua be aldarrikatu dauala; hain zuzen, bi hizkuntza ofizialeko hiztunei bere ama hizkuntzaren erabilera normalizatua ahalbidetzeko nahia agertuz. Ildo berean, interesgarria da esatea PSE-EEK euskarari modu ia erabatekoan atxiki izan jakon normalizazio kontzeptua zabaltzeko hautua egin dauala, euskararen normalizazioa ordeztuz, euskara eta gaztelania barnean hartzen dauzan “normalizazio linguistikoa” kontzeptua erabiliz. PPK, bere aldetik, ez dau normalizazioaren bere ulkerera argitara emon.

Bestalde, aipatzekoa da euskararen normalizazioa sarrien EAJk eta Ezker Abertzaleak izan dabela hizpide. Ezker Anitza be sarritan mintzatu da euskararen normalizazioaz; hainbat gitxiagotan PSE-EE eta askoz urriago PP, bost alditan guztira. Euskararen normalizazioari buruzko aipamen ugariak ikuspegi orokorrean oinarritu dira alderdi guztietan. PSE-EEren kasuan mota horretakoak izan dira aipamen ia guztiak. Ostera, EAJk euskararen normalizazioa hizkuntza politika alor guztietan izan dau hizpide eta Ezker Abertzalea be, teknologia barrietan salbu, gainontzeko esparru guztietan mintzatu da euskararen normalizazio beharraz. Ezker Anitzaren kasuan epaitegiak eta hezkuntza nabarmendu dira euskararen erabilera normalizatzeko esparru moduan; eta azken hauteskunde deialdietan lan eta merkataritza mundua bere bai.

Hizkuntza baten erabateko normalizazioa lortzeko bere erabilera gizarte esparru guztietan edo gehienetan izan beharko da ohikoa, esparru publikoan ezeze esparru pribatuan bere bai. Esparru publikoan alderdiek euskarari eskaintzen deusien tartea aztertu da dagoeneko, *Ofizialtasun erregimena eta euskara: ezikusitik lehenespenera* atalean; hortaz, hurrengo lerroetan esparru pribatuan jarriko da arreta, zehazki, helduen euskalduntzean, komunikabideetan, teknologia barrietan, kulturgintzan, aisiazko ekimenetan, lan munduan eta gizarteko eguneroko jardunean. Era berean, hizkuntza baten normalizaziorako giltzarri dan corpus plangintza neurriak be aintzat hartuko dira. Hori horrela, esparru pribatua lantzen hasi aurretik, azpimarratu beharra dago herri administrazioa, hezkuntza sistema eta komunikabide publikoak euskararen normalizaziorako esparru moduan identifikatu dabezala EAJk eta Ezker Abertzaleak, nagusiki, baina baita Ezker Anitzak be. Are gehiago, Ezker Anitzaren kasuan euskararen normalizazioak baieztapen eta ekimen gehien esparru publikoan jaso dauz.

Helduen euskalduntzera bideratutako neurriak bost alderdi politikoek bideratu dabez. EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitzaren kasuan, sektorea babesteko zein herritarrak euskara ikastera hurbiltzeko finantzaketa neurri indartsuak izan dira indar handiena bildu dabenak. Era berean, EAJk sektorean hobekuntzak txertatzeko egokitzapen ugari proposatu dauz, materialetan, irakaskuntza metodologian, eskola eskaintzan, etab. PSE-EE eta PPren

kasuan, barriz, Haberen berdefinizio edo erreformak eta PSE-EEren kasuan euskara tituluen homologazioak batu dabe ia hizpide osoa.

Komunikabideei dagokionean, PSE-EEk eta PPK EiTBra mugatu dabez euren politika ekimen guztiak; EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak, ostera, EiTBra ezeze Estatuko komunikabide publikoetarako eta komunikabide pribatuetaarako be proposamen ugari bildu dabez. Ekimen nagusiak martxan dagozan euskarazko komunikabideak babestea eta barriak sortzea izan dira. Aldi berean, euskarari tartea egiteko irizpide linguistikoak aintzat hartzeko beharra be hiru alderdi politikoek azpimarratu dabe; Ezker Abertzalea izanik irizpideoi derrigorrezko izaera gaineratu deuten alderdi bakarra: kuotak, euskararen gitxieneko erabilera. Era berean, Ezker Abertzaleak euskal kulturgintza sendotu eta saretzeari garrantzia zentrala eskaini deutso eta, norabide horretan aurrera egiteko, diru laguntzen politikatik hitzarmenen politikara igarotzea aldarrikatu dau; baita euskal komunikabideen saretzea burutzeko botere publikoak koordinazio lanetan kokatzea. Holan be, aipatzekoa da EAJk eta Ezker Abertzaleak euskarazko komunikabideen kontsumoa sustatzeko nahia eta komunikabideok Euskal Herri osoan jasotzeko gogoia be agertu dabela. Ildo berean baina bestelako norantzan, Ezker Anitzak komunitate erkidegoetako komunikabideak Espainiar Estatu osoan jasotzeko konpromisoa agertu dau.

EAJk, Ezker Abertzaleak eta PSE-EEk euskarari teknologia barrietan tartea egiteko antzeko sustapen ekimenak proposatu dabez: euskarazko edukiak, softwarea euskaraz, itzultzaile automatikoak, etab. Ezker Anitzak tarte txikia eskaini deutse teknologia barriei eta proposatutakoa, euskarari tartea egiteko, botere publikoetatik diru laguntzak eta publizitatea eskaintzea izan da. Bestalde, PPK ez dau teknologia barrietarako proposamenik plazaratu.

Kulturgintza sustatzearen aldeko baieztapenak bost alderdi politikoek egin dabez; baina EAJk eta Ezker Abertzaleak euskaraz burututako kulturgintza sustatzeko nahia agertu daben bitartean, PSE-EEk, PPK eta Ezker Anitzak euskarazko eta gaztelaniazkoa biak sustatzekoa egin dabe, PSE-EE eta Ezker Anitzaren kasuan euskarari bera beratara zuzendutako sustapen baieztapenekaz konbinaketan eta PPren kasuan modu eskusibo eta gainera urrian. Egitez, PPK ez deutso kulturgintzari ia tarterik eskaini. Politika ekimen zehatza bakarra izan da: euskaraz eta gaztelaniaz burutzen dan literaturaren ekoizpena eta ekoizpen editoriala bultzatzea. Gainontzeko aipamen guztiak inposaketarik eza eta adierazpen askatasuna aldarrikatzera zuzendu dauz. Ezker Anitzak be politika ekimen zehatz gitxi bideratu deutsoz euskarari zein gaztelaniari. Ugariagoak izan dira PSE-EErenak; baina are ugariagoak eta anitzagoak EAJ eta Ezker Abertzalearenak. Beste behin, Ezker Abertzaleak hitzarmen bidezko finantzaketa egonkorraren beharra eta saretzearen garrantzia azpimarratu dauz. Bestalde, EAJk, Ezker Abertzaleak eta PSE-EEk bat egin dabe euskara eta euskal kultura nazioartean zabaltzearen garrantziaz; eta EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak zabalkunde hori euskal diasporan zehar egiteagaz. Aipagarria da EAJk euskara eta euskal kulturaren defentsa eta sustapenaren aldeko baieztapenak 80 hamarkadaz geroztik burutu izan dauzala, baina 2001eko hauteskunde deialditik aurrera baieztapenok nazioartera baino ez dauzala bideratu.

Aisiazko jardueretan euskara sustatzea proposatu daben alderdi politiko bakarrak EAJ eta Ezker Abertzalea izan dira eta ume eta gazteei bideratu deusiez jardueretatik asko. Hori horrela, aisiazko jardueretak harreman estua daben eskolaz kanpoko jardueretan euskara erabiltzea bai izan dabe proposagai PPK ez beste alderdi politiko guztiek. Ezker Abertzalearen kasuan, herri administrazioa aisiazko jardueren antolatzaile edota finantzatzaile moduan kokatu dauanetan, euskararen presentzia nahitaezko bilakatu dau, sustapen jarrera lausoagoak atzean itziz.

Lan munduari dagokionean, bi leku-hartze argi bereiztu dira alderdi politikoen artean. EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza lan munduan euskararen erabilera handitzearen alde agertu dira eta horretarako hainbat sustapen politika proposatu dabez: euskalduntze planak, planok bideratzeko enpresei zuzendutako diru laguntzak, enpresentzako euskara ezagutza egiaztatzeako ziurtagiriak, euskarazko eta euskaraz formakuntza kursoak, produktuen etiketatzea. Lan munduaren baitan Ezker Abertzalea pausu bat harago joan da, herri administrazioagaz kontratuak burutzen dabezan enpresei eta enpresa publikoei herri administrazioaren irizpide linguistiko berberak ezarri. Bigarren leku-hartzea PSE-EEK eta PPK irudikatu dabe. Bi alderdiok lan munduan burutu daitekezan zigor eta izun linguistikoak gogor kritikatu dabez eta euskara lan munduan jarduteko traba izatea gaitzestu dabe. Euskararen erabileraren aldeko ekimenik ez dau proposatu PPK; eta PSE-EEK zerbitzua euskaraz emoten daben enpresa eta komertzioetan hori aditzera emoten dauan logo bat ezartzea izan da proposatutako ekimen bakarra. Lan munduari zuzendutako diskurtsoan hizkuntza eskubideak presente egin dira. EAJk eta Ezker Abertzaleak hizkuntza eskubideen jasotzaile herritarrek kontsumitzaile gisa ezarri dabez; ostera, PSE-EEK eta PPK langileria eta Ezker Anitzak bi kolektiboak: herritarrek eta langileria.

Gizarte zibil antolatuaren jardura esparrua gaintuta, herritarren eguneroko gizarte bizitzan eragiteko nahia agertu dabe EAJk eta Ezker Abertzaleak; eta neurri askoz txikiagoan Ezker Anitzak. Helburua egunerokotasunean euskara erabiltzeko aukerak handituz joatea da bere erabilera normalizatu arte. Bide horretan, EAJk eta Ezker Abertzaleak bi behar nagusi identifikatu dabez. Batetik, euskararen erabilera esparru tradizionalak egonkortu eta sendotzea, indar berezia jarri herri euskaldunetan. Bestetik, gizarte mailako erabilera handituz joatea, era horretan euskararentzako erabilera eta funtzio barriak irabazteko. Gainera, bi alderdiek egunerokotasunean gazteek euskara erabiltzeari garrantzia berezia eskaini deutse. Bestalde, gizarte bizitzan ezeze familia bizitzan eragiteko beharra askotan agertu dau EAJk, eta noizean behin Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak. Ardua belaunaldiz belaunaldi euskararen transmisioa bermatzea eta sustatzea da; horretarako estrategiak bideratuz. PSE-EEK eta PPK gizarte bizitza aipagai izan daben apurretan euskararen inposaketak sortu daikezan bazterketa egoerak salatzeke izan da; eta PSE-EEren kasuan normalizazio prozesuak euskararen gizarte erabileran zenbateko eragina izan dauan neurtzeko.

Euskararen corpus plangintza neurriak landu dauzan alderdi bakarra EAJ izan da. Neurri gehienak 1994ko hauteskunde deialdia aurretik proposatu izan dauz: euskararen normatibazioa, hizkuntza juridikoaren sorkuntza, toponimiaren bateratzea. Azken bi deialdietan corpusaren garapena eta barriztapena eta estandar komunikatiboak aniztu eta malgutzea izan dauz hizpide.

Bestalde, EAJk eta Ezker Abertzaleak euskararen kalitatea zaintzeari garrantzia eskaini deutse; eta PSE-EEK eta PPK euskalkientzako babesa defendatu dabe aldi banatan.

Euskarari zuzendutako politika ekimenen izaera normalizatzailea neurtzeko euren eragile lanetan diharduen agenteei buruz galdegitea garrantzitsua da. PSE-EEK behin eta barriro errepikatu dau euskararen hizkuntza politikaren lidergoa Eusko Legebiltzarrak berreskuratu behar dauela, politika neurriak ahalik eta adostasun mailarik handienagaz bideratu daitezkan. Ezker Abertzaleak, ostera, adostasuna maila politikoan ezeze maila sozialean be bilatu dau. Ildo horretan, bai Ezker Abertzaleak bai EAJk erakunde publikoen arteko zein erakunde publiko eta gizarte zibilaren arteko alkarlanari garrantzia zentrala eskaini deutse; Ezker Abertzaleak lidergo alkarbanatua eta zeharkakotasuna jarduteko moduaren oinarrian ezarri dauzalarik. Halaber, alkarlana EAEko agenteen artean bultzatzeaz gainera, Euskal Herrikoekaz bideratzeko determinazioa be agertu dabe bi alderdiek. Ezker Anitza bi leku-hartzeen erdibidean kokatu da: batetik, euskararen hizkuntza politika diseinatzerakoan arduradun publikoen arteko adostasun eta akordioei garrantzia eskaini deutso; bestetik, botere publiko eta gizarte zibilaren arteko alkarlan beharra azpimarratu dau, Nafarroa eta Iparraldeko agenteekaz burutzekoari barne.

Euskarari bideratutako hizkuntza politikak jarraitu edo errespetatu beharreko oinarritzko balioen inguruan desbardintasunak itzelak izan dira alderdien artean. PSE-EEK eta PPK moderazioan eta bazterketarik ezan oinarritutako hizkuntza politika defendatu dabe; EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak, ostera, hizkuntza politika aurrerakoiaren beharra identifikatu dabe, non giltzarria agenteen arteko alkarlana eta euskararekiko konpromisoa diren. Esan beharra dago, gainera, euskarari bideratu izan jakozan politika ekimenek kritika gogorak jaso dabezala PPren aldetik. PPK euskarari bideratutako baliabide eta zenbatekoak gehiegizkotzat jo izan dauz eta, sarritan, euskararen ezagutza zerbitzuaren kalitatearen aurretik lehenetsi izan dala gaitzestu dau.

Alderdi politikoen artean leku-hartze desbardinak eragin dauzan gai garrantzitsua euskarari zuzendutako legedia izan da, euskararen normalizazio juridiko-politikoagaz lotu daitekena. PSE-EEK eta PPK Euskararen Legea ezarri dabe begimugan, Legea hitzartu zan garaian lortutako adostasuna galdu dala kritikatu eta adostasun horretara bueltatzeko beharra aldarrikatu. EAJk eta Ezker Anitzak, egun indarrean dagoen legedia oinarri hartuta eta euskararen normalizazio bidean, berau garatzeko nahia agertu dabe. Ezker Abertzaleak, ostera, egungo legedia euskara normalizatzeko nahikoa ez dala defendatu dau eta, ondorioz, legedia gaintzeko beharra agertu dau. Ezker Abertzalearen iritziz egungo marko juridikoak gaztelaniarekiko parekotasunean ezartzen dau zerumuga, euskarari lehentasunezko tratamendua emotea ezinezko bihurtuz eta, modu horretan, elebitasun asimetrikoa betikotuz.

Orain arteko guztiak kontuan hartuta, garbi agertzen da aztergai diren bost alderdi politikoek proposatutako hizkuntza politiketan euskararentzako normalizazio maila desbardinak ageri direla; eta are gehiago, badirela alderdion artean euskararen normalizazio prozesuaren baitan kokatzen direnak eta prozesutik kanpo lekutzen direnak. Bigarren horixe da PPren

kasua eta, neurri lausoagoan, PSE-EErena. Izan be, bi alderdiok ez dabe hizkuntza baten normalizaziorako funtsezkoak diren esparru askotan sustapen neurri bakarra be proposatu. Areago, PPK hizkuntza politikak presente egin dauzan alorretan, euskararentzako neurri aktiboen orde indarrean dagozan sustapen bideen kritika gogorra burutu dau. Gainera, PPK kritikekaz batera hautabide bat bera be ez dau proposatu; eta euskarari tarte itzi deutsonetan egun euskaldunak direnei zuzenduz egin dau, euskaldundu daitekezan gaztelania hitzunen aukera ezikusiz. Beraz, PPren hizkuntza politika erabat erreaktiboa dala baieztatu daiteke, sustapen neurri bakoa. Horregaitik, zilegi da esatea PPren hizkuntza politikak tolerantzia erregimenagaz parekotasun handiak dauzala; esku-hartze publiko mugatuko hizkuntzen gizarte garapen naturalari erantzuten deutsona eta, modu horretan, egungo gizarte errealitateari oniritzia emoten deutsona.

PSE-EEren kasua bestelakoa da. PSE-EEK ez deutso uko egiten botere publikoen esku-hartzeari eta euskararen aldeko sustapen neurriak bai proposatu dauz. Hori horrela, normalizazioa egingarri bihurtzeko neurri nahikorik ez dau bideratu eta gainera bideratutakoek oso izaera epela dabe. Gainera, euskararen aldeko ekintza positiboak bideratzearen kontra be agertu da eta euskararen ezagutza eskatzearen erabat aurkako. Modu horretan, nahiz eta euskara biziberritzearen aurrean jarrera positiboa izan, bere bideragarritasuna zalantzan jartzen dau herritarren borondatearen esku itzita hizkuntzaren indarberritzea eta, azken aldian, hezkuntza eredu hirueledunaren orokortzeagaz etorriko ei dan ume eta gazteen euskararen ezagutza orokortua.

### 5.3. IRUDIA. EUSKARARENTZAKO NORMALIZAZIO MAILAK ALDERDI POLITIKOEN HIZKUNTZA POLITIKETAN

0 Normalizazio eza	1 Gitxiengo normalizazioa	2 Normalizazio ertaina	3 Gehieneko normalizazioa
Egungo euskararen diglosia egoera mantentzea	Esparru guztietan euskara erabiltzea	Euskara ezagutzen ez daben herritarrek berau ikastea	Euskara esparru guztietan mintzaira bakar bilakatzea
<p><b>PP</b> (sustapen ekimen eza)</p> <p style="text-align: center;"><b>PSE-EE</b> (sustapen neurri gitxi eta ahulak)</p> <p style="text-align: center;"><b>Ezker Anitza</b> (hezkuntza elebidunaz elebitasun osoaren bidean kokatu)</p> <p style="text-align: center;"><b>EAJ</b> (gizarte esparru guztietan berreskuratu; sustapen neurri ugari eta orokortuak; aukera askatasunaren errespetuak normalizazio ertaina eten)</p> <p style="text-align: center;"><b>Ezker Abertzalea</b> (euskara lehentasunezko hizkuntza; ekimen erabagigarri eta hedagarriak)</p>			

*Iturria: norberak egina.*

EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza, barriz, euskararen normalizazio bidean murgilduta dagozala esan daiteke, nahiz eta maila desbardinetan. EAJk euskararen erabilera gizarte alor guztietara zabaldu gura dau eta, hortara, politika esparru danetarako ekimenak dauz proposagai. Egitez, EAJ da euskara sustatzeko ekimen aniztasun handiena agertu dauan alderdia. Beraz, EAJ euskararen gitxiengo normalizazio bidean badago. Ordea, alderdiak aukera askatasunari, nagusiki hezkuntza alorrean, emondako espazio esanguratsuak normalizazio ertainerako sarrera zailtzen dauala baieztatu behar da.

Ezker Abertzaleak, 2012ko hauteskunde deialdira arte, askoz ekimen aniztasun txikiagoa proposatu dau, baina EAJrenak baino erabagigarritasun eta hedagarritasun maila handiagokoak. Horren adibide argia da eskolarako proposagai dauan murgiltze eredu orokortua, ume eta gazte guztiak euskalduntzeko helburu dauana, edota herri administrazioiko lehentasunezko hizkuntza moduan euskara ezartzea. Halaber, aipatu beharra dago, Ezker Abertzalearen ekimen zorrotzenak, derrigorrezko izaera dabenak, botere publikoen eskumeneko alorretan planteatu izan dauzala, esparruoi ahalik eta zabalera handiena eskainiz. Hortaz, Ezker Abertzalea normalizazio ertainaren eta gehienezkoaren artean kokatu daiteke, xedetzat euskara hizkuntza nagusi izango dan lurraldea eraikitzea daualako.

Bestalde, Ezker Anitzak euskararentzako politika ekimenak esparru gehienetara bideratu dauzan arren, bere jarduna arlo jakinetan zentratu dau: herri administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan eta, azkenaldian, neurri murriztagoan baina era berean esanguratsuan, lan munduan. Hortaz, Ezker Anitza normalizazioan bidean murgilduta dago. Esan daiteke, alderdiak ume eta gazteek euskara eta gaztelania biak ezagutzeko modu egonkorrean erakutsi dauan nahiak eta helburu horretarako proposatutako hezkuntza eredu bateratuak normalizazio ertainaren bidean kokatu dauala.

Halaber, pentsatzekoa da, Ezker Anitzak euskarari zuzendutako hizkuntza politika gizarte esparru guztietan euskararen erabilera bermatzera baino ofizialtasun erregimen zabal bat egikaritzera bideratuago dagoela. Bere bi giltzarriak honakoak dira: bi hizkuntza ofizialen ezagutza orokortua, herritarren aukera linguistiko benetakoa bermatuko dauana, eta euskaraz zein gaztelaniaz bideratutako zerbitzu publiko sendo eta zabala. Ofizialtasun erregimen zabal horren bitartez, Ezker Anitzak gitxiengo normalizaziotik pasatu behar barik normalizazio ertainerako saltoa burutzen dauala hausnartu daiteke eta, behin normalizazio ertaina bermatuta, herritarren esku izten dauala gizarte esparru desbardinetan bi hizkuntza ofizialek bereganatuko daben tartea. Euskararen normalizazio prozesuan murgilduta dagozan EAJ eta Ezker Abertzalearen kasuan, ostera, agerikoa da euskal hizkuntzaren erabilera indartzea badala xedea, gaztelaniagaz parekatzeraino, EAJren kasuan, eta gaztelania eta frantsesa gainditzera arte Ezker Abertzalearenean.

### 5. 3. HIZKUNTZA BIZIKIDETZA EREDUAK: KOMUNITATE LINGUISTIKO BEREIZTUEN ALKARBIZITZA BAKETSUTIK EUREN BAT EGITERA

Lurralde batean mintzaira bat baino gehiago berba egiteak hizkuntzen aldi bereko existentzia antolatzekeo beharra nahitaez dakar. Halaber, izate bateratua kudeatzeko moduak anitzak dira. Izan daitekez baketsuak ala gatazkatsuak, egungo egoeraren mantenua bultzatzen dabenak ala aldaketa bilatzen dabenak, hizkuntza eskubideak aintzat hartuta diharduenak ala aintzat hartu barik jokatzen dabenak, etab. Helburua hizkuntza aniztasuna modu baketsu eta harmoniatsuan kudeatzea bada, existentzia bateratu hutsaren ordeaz, bizikidetza linguistikoa da bilatutakoa. Atal honen helburua EAEko alderdi politikoek euskara eta gaztelania hiztunen arteko bizikidetza lantzeko eredu idealik daben ezagutzea da eta euren artean agertu daitekezan diferentziak identifikatzea.

Aipatu beharra dago, EAEko alderdi politikoaren hizkuntza bizikidetza proposamen eta ereduak aurkitzea ez dala zuzenean egin daiteken bidea. Izan be, alderdi politikoaren diskurtsoaren alde desbardinak aztertzea beharrezkoa da bakoitzaren hizkuntza bizikidetza ereduaren argazkia lortzeko. Egiteko horretarako, aurkezpenean honakoak izango dira kontuan: batetik, indarrean dagoen egoera linguistikoa eta bere kudeaketaren gainean alderdiek daben ikuspegia eta eskaintzen daben irudia eta, bestetik, etorkizunerako desiratzen daben gizartearen errealitate linguistikoa eta komunitatearen eraikuntzan hizkuntzei eskaintzen deuten tartea.

EAEko hizkuntza bizikidetzaren oinarrian euskara eta gaztelania dagoz, lurraldeko bi hizkuntza ofizialak; bata, gaztelania, eskualde osoan ezagutza eta erabilera orokortuduna eta bestea, euskara, zatikako ezagutza eta erabileraduna eta eztabaidagune dan normalizazio prozesu batean murgildutakoa. Egoera orokorra hori dan arren, alderdi politiko bakoitzak bere diskurtsoan errealitatearen atal bat edo beste nabarmendu ohi dau, egoeraren ikuspegi desbardinak aditzera emonez.

Gaur egungo egoera linguistikoa hizpide hartzerakoan, Ezker Abertzaleak euskararen gitxitu egoera deskribatzeari eskaini deutso tarte handia, maila juridikoan eta maila soziolinguistikoan euskarak gaztelania eta frantsesarekiko bizi dauan gitxiagotze egoera modu gogorrean gaitzestuz. EAJK eta Ezker Anitzak be euskararen egoera diglosikoa baieztatu dabe, nahiz eta euren diskurtsoan zentralitaterik bereganatu ez dauan. Esan beharra dago, gainera, bi alderdiok gitxiagotzea ikuspuntu sozialetik begitaratu dabela, inoiz ez legedia mailan<sup>124</sup>. PSE-EEK be onartu dau noiz edo noiz euskarak gaztelaniagaz erkatuz ezarpen sozial murriztagoa dauala; halaber, aurreko hiru alderdien baieztapenetan euskararen egoera gitxitua eragina izan dala aditzera emon dan bitartean, PSE-EEK euskara eta gaztelaniaren de facto-ko egoera baino ez dau deskribatu. Aldi berean, aipatzekoa da Ezker Abertzaleak,

<sup>124</sup>Dana dala, Ezker Anitzak bere proposamenen artean Espainiar Konstituzioan Estatuko hizkuntza guztien parekatzea bai aldarrikatu izan dau; zeharka, egungo egoeraren izaera asimetrikoa aditzera emonez.

EAJk eta Ezker Anitzak euskararen gitxitu egoera deskribatzerakoan hizkuntza mintzo dan lurralde osoa erreferentziatatzat hartu daben bitartean, PSE-EEren aipamenek ez dabela zabalera osoa bildu. Hau da, PSE-EEK ez dau euskarak frantsesarekiko bizi dauan gitxitu egoera deskribapenean barneratu. PPren kasua muturrekoa da, euskarak bere hizkuntzen inguruko diskurtsoaren atal handiena biltzen dauan arren, bere gizarte egoera gitxitua ez daualako behin be hizpide izan.

Azpimarratzekoa da, gaur egungo egoera linguistikoa mintzagai hartzerakoan euskararen gitxitu egoera albo batera itzi daben alderdiak izan direla, Ezker Anitzagaz batera, euskara eta gaztelaniaren arteko gatazka linguistikoa indar handienaz baieztatu eta gaintzeko beharra agertu dabenak. Hori horrela, onartu beharra dago, Ezker Abertzaleak euskararen egoera gitxitua deskribatu dauanean, zeharka, liskar linguistikoaren errelatoa burutu dauala; hain zuzen, gaztelaniaren eta frantsesaren gorentasun juridiko eta sozialak bultzatutako neurrigabekeria.

Ezker Abertzaleagaz alderatuz, gatazka linguistikoa hizpide izan dabenetan, PPK eta Ezker Anitzak borrokaren iturri moduan euskarari zuzendutako politiken zer-nolakoa aipatu dabe. Halaber, PPK gatazkaren arduradun bakartzat politiken eta berau bideratzen dagozanen jarrera gehiegizkoa jo dauan bitartean, Ezker Anitzak politikai ezezkoa emoten deutsenen jokabidea be gatazkaren parte bilakatu dau. Ildo berean, PPK euskararekiko errefus sentimenduaren eragile hizkuntza politikak eurak jo dauz. Ostera, Ezker Anitzak politikak sortutako ukatze sentimenduaz haratago doazen euskararen kontrako jarrera errokoagoak be badirala agertu dau.

Gatazka linguistikoaren ildoan, euskararen inguruan sortu dan alderdikeria gehien azpimarratu daben alderdiak be PP, PSE-EE eta Ezker Anitza izan dira; nahiz eta EAJk eta Ezker Abertzaleak be bat egin daben eztabaida linguistikoan alderdikeria badalako iritziaz. Dana dala, alderdi politikoaren arabera alderdikeria hori agente desbardinetan gorpuztu da. PSE-EEK eta PPK euskal nazionalistak ezarri dabez alderdikeriaren sorburu, euskaraz jabetu eta hizkuntza euren interes nazionalen alde erabili dabela kritikatu. Kontrako ikuspegia agertu dau Ezker Abertzaleak, alderdikeria euskararen kontrako sektore estatu zale espainoletan nabarmentzen dala adieraziz. Ezker Anitzak, barriz, euskararen inguruan bi bloke kontrajarri nabarmendu dauz: euskararen aldeko eta kontrako gehiegizko jarreraren isla diren eta euskal eta espainiar nazionalismoek lideratuta dagozan blokeak. Ezker Anitzak bere burua bi blokeon erdibidean kokatu dau. EAJk jarrera alderdikioiak mintzagai izan dauzan apurretan euskararen kontrako jarrerak gaitzestu dauz eta Ezker Anitzaren antzera bi mutur bereizi dauz: euskararen normalizazio osoa defendatu eta elebitasuna onartzen ez dabenen muturra eta elebitasunaren alde egon eta euskararen aldeko ekintza positiborik proposatzen ez dabenen muturra; eta, beste behin, Ezker Anitzaren modura, EAJk be bere burua erdigunean kokatu dau.

EAEko errealitate linguistikoa deskribatzerakoan gatazka linguistikoa eta alderdikeria ekintasun handienaz agertu daben alderdi politikoak izan dira bizikidetzatza linguistikoa



hobetzeko gakoak gehien azpimarratu dabezanak: PSE-EE lehenengo, PP bigarren eta Ezker Anitza hirugarren. Ostera, EAJK eta, are gitxiago, Ezker Abertzaleak tarte murrizta eskaini deutse balio bidez bizikidetzazko estrategiak garatzeari.

PSE-EEK, PPK eta Ezker Anitzak maila kultural eta linguistikokoan sarritan nabarmendu dan ikuspegi zerratua kritikatu dabe<sup>125</sup> eta bere lekuan ikuspuntu irekia, anitza, inklusiboa, etab. aldarrikatu. Egitez, hiru alderdiek EAE gizarte anitza dala sarri askotan adierazi dabe, linguistikoki ezeze kulturalki bere bai, eta aniztasun hori politika linguistikoko zein kulturalak bideratzerakoan kontuan hartu behar dala modu ekinean azpimarratu dabe. Halaber, onartu beharra dago, irekitasunak, aniztasunak, inklusibitateak, eta abarrek ez dabela helduleku praktikoko handirik garatu alderdion politikan, PSE-EE eta PPren kasuan bereziki.

Aldi berean, PSE-EEK eta PPK hizkuntzak gizarte banaketarako harraminta orde, gizarte kohesio eta topaketarako tresna izan behar dabela behin eta berriz azpimarratu dabe. Ildo horretan, aipagarria da alderdi politiko guztiek euskara gizartearen kohesiorako elementu moduan jo dabela. Baina pentsatzekoa danez, kohesio hori egikaritzeko moduetan alderdien arteko desbardintasunak agerian gelditu dira. PSE-EEK eta PPK euskara eta gaztelaniaren arteko alkarbizitza baketsua aldarrikatu dabe, PSE-EEren kasuan bi komunitate linguistikoen arteko harremana indartzeko neurriak be proposatuz. Bestalde, Ezker Abertzaleak eta EAJK gizartearen kohesioa eta bizikidetzan aurreratzeko euskararen garapenari aparteko eginkizuna eskaini deutse. Ezker Abertzaleak, Euskal Herria oinarri hartuta, euskara eta euskal kultura jo dauz biztanleen integrazioa lortzeko elementu garrantzitsuenatzat. EAJK, bere aldetik, alkarbizitza linguistikoko harmoniatsuen euskara eta gaztelania hitzunez aukera bardinak dabezanean emongo dala baieztatu dau. Hortaz, bi kasuetan euskararen ezagutza indartzeak gizartearen integrazioari mesede egingo deusola hausnartu da. Hori horrela, aipatu beharra dago, barriki, Ezker Abertzalearen eta EAJren ilduan, PSE-EEK be euskararen ezagutza zabaltzeak gizarte kohesioari on egingo deusola onartu daua<sup>126</sup>.

Aurretik esana da, PSE-EE eta PPren balio bidezko bizikidetzazko estrategiek helduleku praktikoko oso zehatzik ez dabela garatu. Ezker Anitzaren kasua bestelakoa da; alderdiak aniztasuna, inklusibitatea, etab. balioak proiektu politiko batean gorpuztu dauzalako. Hain zuzen, Espainiar Estatu federal batean, non nazio, kultura eta hizkuntza aniztasuna Estatuaren berezkoa izango diren eta Estatuaren eguneroko jardunean egikaritzeko diren; esaterako, maila juridikoan hizkuntza guztiei estatus berbera emonez.

Ezker Abertzaleak be hizkuntzak eta, zehazkiago, euskara proiektu politiko baten baitan kokatzen dau; hain zuzen, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren baitan. Egitez, alderdiarentzako euskara euskal nazioa eraikitze lanabes zentrala da, are gehiago, Euskal

<sup>125</sup>PPK eta PSE-EEK jarrera itzi eta murriztatzailea euskal nazionalismoari atxiki deutse nagusiki; Ezker Anitzak, ostera, euskal nazionalismoari eta espainiar nazionalismoari, bie; lehenengoen erakutsitako ikuspegi etniko-linguistikoko itziagaitik eta bigarrenek Euskal Herria eta bere erabakitze eskubidea ezeztatu dabelako.

<sup>126</sup> Kontsultatu PSE-EEren datu analisisian (5.3) 303-304. eta 333. or.

Herria estatu bako nazioa izanik. Berez, euskara Euskal Herria batzeko, integartzeko aukera da alderdiarentzat. Hortaz, gainontzeko hizkuntzak, dala gaztelania dala frantsesa, bere proiektutik kanpora gelditzen direla esan daiteke; euren ofizialtasuna onartuta baina euretan esku-hartu barik. Aipatzekoa da Ezker Abertzaleak nazio eraikuntzaren alderdi praktikoaz gainera pentsamendu esparrua lantzeko beharra be agertu dauala, hain zuzen, euskal kontzientziaren indartzea. Ildo berean, EAJk komunitatearen eraikuntza euskal identitatea indartzetik begitaratu dau gehiengoan, euskara izanik identitate horren funtsezko elementu.

#### 5.1. TAULA. EAE-KO ERREALITATE LINGUISTIKOAREN EGOERAREN DIAGNOSIA: AZPIMARRATUTAKO ERREALITATEA ETA BERE NORABIDEA

Euskararen egoera gitxitua hizpide			
Ezer ez	Gitxi	Zerbait	Asko
PP	PSE-EE.; de facto-ko egoera onartu EAEn.	EAJ, Ezker Anitza, sortutako egoera Euskal Herrian.	Ezker Abertzalea: sortutako egoera Euskal Herrian.
Gatazka linguistikoa hizpide			
Gitxi		Asko	
EAJ: euskararen kontrako jarrerak sortua.		Euskararen politiken zer-nolakoak sortua: PSE-EE, PP: politiken gehiegikeriak. Ezker Anitza: kontrako eta aldeko muturreko jarrerak. Euskararen egoera gitxituak sortua: <b>Ezker Abertzalea</b>	
Alderdikeria hizpide			
Gitxi		Asko	
Ezker Abertzalea: aldebarrekoa: nazionalista espainolek eragina.		PSE-EE, PP: aldebarrekoa euskal nazionalistek eragina.	
EAJ: aldebikoa: euskararen aldeko eta kontrako jarrera muturrekoek bultzatua.		Ezker Anitza: aldebikoa: euskal eta espainar nazionalistek bultzatua.	
Bizikidetzatza linguistikoa landu beharra hizpide			
Gitxi		Asko	
EAJ Ezker Abertzalea		Aniztasuna, irekitasuna, inklusibitatea: Helduleku praktikoarik ez: PSE-EE, PP Helduleku praktikoa: Espainiar Estatu Federal nazio, kultur eta hizkuntza anitza: Ezker Anitza	

*Iturria: norberak egina.*

Etorkizunari begira linguistikoki desiratzen daben gizarteari dagokionean, alderdien artean desbardintasun nabarmenak begitaratu dira. Ezker Abertzaleak herritar eleanizdunetz osatutako Euskal Herri euskalduna jotzen dau helburu, nahiz eta euskarak, gaztelaniak eta frantsesak sortutako eleaniztasun bardinzalea be proposatu dauan Euskal Herrirako. Bestalde, EAJk, Ezker Anitzak eta PSE-EEk elebitasunaren aldeko hautua egin dabe. EAJk eta Ezker Anitzak elebitasun erreala desio dabe, non euskara eta gaztelaniaren ezagutza eta erabilera orokortua izango dan. Ostera, PSE-EE euskararen ezagutza orokortuz joatearen alde agertzen dan arren, herritarrek euskara gogoz kontra ikastea ez dau gura; eta ondorioz, elebitasun mota herritarren borondatearen esku izten dau, elebitasun diglosiko zein faltsuari bidea zabalduz. PP elebitasun naturalaren alde agertu da birritan. Naturalaren inguruan zehaztapenik emoten ez dauan arren, pentsatzekoa da gizarteak bere eguneroko jardunean esku-hartze barik eraikitako elebitasuna gura izatea PPK; orain arteko joerak mantenduz gero elebitasun faltsua litzatekeena. Azpimarratu beharra dago, gainera, PPK elebitasuna birritan baino ez dauala izan hizpide aztergai izan diren bere bederatzai hauteskunde programetan. Horrek elebitasunarekiko bere konpromisoa mugatua dala pentsatzea dakar.

Aipatutako guztiak aintzat hartuta, euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzeta lantzeko beharren atzean, EAEko alderdi politikoen artean berau egikaritzeko modu desbardinak gailentzen direla baieztatu daiteke.

#### 5.4. IRUDIA. ETORKIZUNERAKO DESIRATUTAKO ERREALITATE LINGUISTIKOA ALDERDI POLITIKOEN IKUSPEGIAN

0 Elebitasun faltsua	I Elebitasun diglosikoa	2 Elebitasun osoa	3 Elebitasun ordezkatzalea
Herritarren parte batek hizkuntza bakarra darabil eta bestea ez dau pasiboki be ulertzen	Herritarrek hizkuntza bat arlo eta maila guztietan darabile eta beste bat arlo eta maila batzuetan	Herritar guztiak bi hizkuntzak darabilez arlo eta maila guztietan	Epe ertain luzera hizkuntza batek bestea ordezkaturko dau
<p>PP (elebitasun naturala)</p> <p>← PSE-EE (herritarren borondatearen esku dagoen elebitasuna) →</p> <p>EAJ (elebitasun erreala)</p> <p>Ezker Anitza (elebitasun erreala)</p> <p>Ezker Abertzalea (Herritar eleanizdunak eta Euskal Herri euskalduna)</p>			

*Iturria: norberak egina.*

## 5. 4. ETORKINEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKAK: "GURE" DESBARDINAK ETA EURENAK UZTARTUZ

---

Herrialde gehienak, guztiak ez badira, eleanitzak dira neurri handiagoan ala txikiagoan. Aniztasun hori lurraldean historikoki berba egin diren mintzairen ugaritasunak sortua izan daiteke, migrazio-mugimenduek eragina, zein bien arteko konbinaketak. Atal honen gaia etorkinak eta etorkinen hizkuntzak dira. Hain zuzen, EAEko alderdi politikoez etorkinei zuzendutako hizkuntza politikarik bideratzen daben aditzera emotea eta, egitekotan, ekimenok zein hizkuntza politika erregimenen baitan lekutzen diren identifikatzea.

Etorkinak kolektibo moduan 1994ko Ezker Anitzaren hauteskunde programan izan ziran hizpide lehenengoz; baina aztergai diren alderdien politiketan presentzia orokortua 2005eko hauteskunde programaz geroztik izan dabe. Halaber, onartu beharra dago, hizkuntzei zuzendutako hauteskunde programen osotasuna aintzat hartuz gero, euren agerpena mugatu samarra dala.

Etorkinei zuzendutako hizkuntza politiken baitan badira parekotasunak alderdi politikoen artean. Batetik, PPK ez beste lau alderdiek harrera lurraldeko hizkuntzen ezezagutzak eragin daikiezan mugak gainditze aldera etorkinentzako abegi zerbitzuak proposatu dabez; Ezker Anitza izanik zerbitzuok gehien garatu dauzana. Bestetik, bost alderdiek harrera lurraldeko hizkuntzen ikasketa bultzatzeko ekintzak proposatu dabez. Gainera, etorkinei zuzendutakoetan, ekimenok izan dira indar handiena bereganatu dabenak. Ordea, etorkinek ikasi beharreko hizkuntzak esplizitatzerakoan alderdien arteko desbardintasunak agerian gelditu dira. PPK ume etorkinek gaztelania ezagutzea beharrezko jotzen dauan bitartean, PSE-EEK eta Ezker Anitzak gaztelania eta euskararen ikasketa dabe proposagai; EAJK eta Ezker Abertzaleak, barriz, euskararena. Xehetasun batzuk emotea komeni da edozelan be.

PSE-EEK helduentzako gaztelania eta euskara eskolak eskaintzeko proposamena egiten dau, baina gaztelania eskolei lehentasuna eskainiz. Gainera, ume etorkinak danaren gainetik murgiltze ereduari sartzeko sektore batzuen nahia gogor kritikatu dau. Alderdiaren ustetan, horrek hezkuntzaren beste alderdi batzuk bazterrean iztea dakar, zenbaitetan ume etorkinen eskola porrota bultzatzera arte. Ezker Anitzaren proposamenetan euskara eta gaztelaniaren ikasketa ume eta heldu etorkinen aldetik parekatua dago erabat, etorkinen guztizko integrazioa eta desabantaila egoera gainditzeko nahia agertuz proposamenon justifikagarri. EAJK, barriz, etorkinen gizarteratze eta integrazioarako euskararen ezagutzaren indarra azpimarratzen dau, eleaniztasunari ezetza emon barik, betiere. Ezker Abertzalearen kasuan gaztelania diskurtsoetik kanpora dago erabat. Horrela, etorkin zein ijito ume eta helduek euskara ikastea gura dau; umeen kasuan murgiltze ereduaren alde eginez, eredu hauxe gainontzeko herritarrekiko aukera bardintasun bultzatzailea dalakoan. Aipatu beharra dago, EAJK eta Ezker Abertzaleak euskara etorkinen harrera unetik bertatik txertatu gura dabela herritar barrion ibilbidean. Are gehiago, Ezker Abertzaleak etorkinei hasiera unetik ezagutarazi gura deutse Euskal Herria nazio moduan.



## 5. 5. ATZERRIKO HIZKUNTZEI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKAK: IKASGAIK PRESENTZIA OROKORTURA

---

EAEko alderdi politikoez euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialentzako ezeze atzerriko hizkuntzentzako be proposatu dabez ekimenak, nahiz eta euskara eta gaztelaniarentzako baino askoz neurri txikiagoan. Abiapuntu teorikoan aipatu dan moduan (ikus 2.1.3 *Hizkuntza politikaren helburuak* atala), atzerriko hizkuntzentzako politikak hizkuntzaren eskuratzeko politikek harreman estua dabe. Horrela, planifikatutakoak atzerriko hizkuntzen ikasketa eta ikasketaren zer-nolakoa izan ohi dira. Atal honen helburua EAEko alderdi politikoez atzerriko hizkuntzei bideratutako neurrien zer-nolakoa aztertzea da, neurrien trinkotasun eta barriadura mailan arreta berezia jarri.

Atzerriko hizkuntzak 90 hamarkadaren hasieratik - EAJren kasuan 1986tik - presentzia egonkorra izan dabe aztergai diren alderdi politikoen hauteskunde programetan. Hori horrela, 2005eko hauteskunde deialdiaz geroztik euren presentzia nabarmen igo da alderdi politiko guztietan. Hori horrela, atzerriko hizkuntzei tarte handiena eskaini deusena PSE-EE izan da eta Ezker Abertzalea txikiena egin deusena. EAJ, PP eta Ezker Anitza tarteko posizioan kokatu dira.

Aztertutako alderdi politiko guztiek bat egin dabe atzerriko hizkuntza bat behintzat ezagutzaren garrantziagaz eta, horrela, bost alderdi politikoez bere ikasketarako ekimenak proposatu dabez. Alderdiak bakoitzak ikasi beharreko atzerriko mintzaira zehazterakoan agertu dabezan leku-hartze desbardinak ezagutzeko interesekoa da. PSE-EEK, EAJk eta PPK atzerriko hizkuntza baten ikasketa modu orokorrean proposatetik, ingelesaren ikasketa lehenestera igaro dira 2005az geroztik; betiere, ingelesa ez beste atzerriko hizkuntzaren baten ikasketa erabereko baztertu barik. Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak, barriz, gehiengoan, ikasi beharreko hizkuntza zehaztu barik jarraitu dabe. Ezker Abertzaleak jokoa Euskal Herriko hirugarren hizkuntza ofizialaren, frantsesaren, eta atzerriko hizkuntza baten, esaterako ingelesaren, artean ezarri dau; Ezker Anitzak, ostera, mintzaira jakin bat esplizitatu barik, Europar Batasuneko mintzairerako baten-baten ikasketa proposatu dau.

Atzerriko hizkuntzei zuzendutako politika gehienek eskola izan dabe helmuga alderdi politiko guztietan; hain zuzen, euren ikasketara zuzendutako ekimenek zein berau egikaritzekoek. Norabide horretan, PSE-EEK 2005ean hezkuntza publikorako marko hirueledunaren alde burututako hautu erabakigarria azpimarratu beharra dago, hau da, irakaskuntzan euskara, gaztelania eta ingelesa ikasketa hizkuntza pareko bilakatzea. Gero, 2009an ereduaren proiektu linguistikoa modu orobiltzailean aurkeztu izan dau, ahalegin berezia jarri eredu bideragarri egiteko ingelesak exigitutako egokitzapenetan: irakasleen formakuntza EAEn zein atzerrian, materialen prestaketa, ikasleentzako neurri lagungarrien aurreikuspena, etab. 2012an, marko hiruelearen aldeko lektzea berretsita, proiektuari jarraipena emoteko nahia agertu dau. Eredu hirueledunaren aldeko apustu irmoena PSE-EErena izan dan arren, gainontzeko alderdi politikoez be atzerriko hizkuntzei gero eta espazio

handiagoa itzi deuse eskolan. Horrela, PPK 2005az geroztik eredu hirueledunaren aldeko adierazpenak egin dauz. Ezker Anitzak 2009tik aurrera lehenagotik defendatutako eredu elebidunari hirugarren hizkuntza bat gaineratzeko nahia agertu dau; nahiz eta hirugarren hizkuntza gaineratzeko moduaren zernolakoa ez dauan esplizitatu. EAJk, barriz, hezkuntza eleanitza indartzeko nahia agertu dau 2012an, baina euskara ardatz hartuta. Aipatzekoa da, EAJ hezkuntzan atzerriko hizkuntzak indartzearen alde agertzen dan arren, atzerriko hizkuntzei ikasketa hizkuntza funtzioa ez deusela atxiki. Bestalde, aurretik aipatu dan moduan euskararen murgiltze eredu orokortua da Ezker Abertzalearen apustua, deialdirik deialdi lehenetsi dauana; betiere, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza goiztiarra bermatuz.

Eskola ez beste hezkuntzako esparruetan be PSE-EE izan da atzerriko hizkuntzei tarte handiena eskaini deusena. Lanbide heziketan, esaterako, PSE-EE izan da ingelesa barneratu dauan bakarra. Alderdiak lanbide heziketarako be eredu hirueleduna proposatu dau 2012an, nahiz eta berau egikaritzeko moduak garapenik ez dauan izan hauteskunde programetan. Bestalde, unibertsitate sisteman ingelesa barneratzeko hautu argia burutu dau; ingelesa ikasketa hizkuntza ezeze lan hizkuntza moduan erabiltzeko nahia agertuz. Baina hezkuntza alorraz harago eta hizkuntza eskolen esparrutik irtenda, lan munduan atzerriko hizkuntzen eta ingelesaren ezagutza sustatzeko konpromisoa be agertu dau. Aldi berean, modu bazterrekoan bada be, PSE-EEK herri administrazioan, komunikabideetan eta eskolaz kanpoko jardueretan atzerriko hizkuntzen presentzia bermatu gura izan dau. Alderdiak ingelesari eta atzerriko hizkuntzei alor desbardinetan eskainitako espazio zabala ez da gainontzeko alderdi politikoetan emon. Unibertsitatean ingelesa barneratzea bai izan dabe hizpide PPK, Ezker Anitzak eta EAJk, baina modu bazterrekoan; baita hizkuntza eskoletan mintzairon ikasketa PPK zein EAJk; edota EAJk eskolaz kanpoko jardueretan, e a.

Hortaz, EAeko alderdi politikoek atzerriko hizkuntza eta ingelesarentzako trinkotasun eta barreiadura maila desbardineta politikak ekimenak agertzen dabezala baieztatu daiteke. Are gehiago, aztergai diren bost alderdi politikoek atzerriko hizkuntzei edota ingelesari zuzendutako hizkuntza politikak bi mailatan kokatu daitekez. Batetik, mintzairon ikasketa bermatzera zuzendutako politikak dagoz, ekimenen gehiengoa bildu dabenak. Bestetik, behin ikasketa bermatuta, mintzairoi zabaldutako gizarte esparruetan euren erabilera normalizatua indartzeko politikak daukaguz. PSE-EE da, diferentziaz, bigarren motako politikei tarte handiena egin deusena. Halaber, lehenengo motako politketan be indar handiena berak jarri dau.

## 5.6. IRUDIA. ATZERRIKO HIZKUNTZEI ETA INGELESARI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKEN TRINKOTASUN ETA BARREIADURA MAILA ERLATIBOA ALDERDI POLITIKOKA

Trinkotasun eta barreiadura maila		
gitxiengoa*		gehiengoa*
Ezker Abertzalea	EAJ PP Ezker Anitza	PSE-EE

\* Gitxiengoa zeroren parekoa da eta gehiengoak izaera erlatiboa dau, hau da, ikergai diren bost alderdi politikoak erreferentzia hartuta ezarri da.

*Iturria:* norberak egina.

Deigarria da PSE-EEK ez dauala ingelesaren ikasketa handitzeko eta bere erabilera indartzeko bideratu dauzan politika aurrerakoien parekorik proposatu euskararentzako. Euskararen kasuan PSE-EEK politika aurrerakoiak baino, indarrean diren “gehiiegikerizko” hizkuntza politiken aurrean, defentsazko jarrera mantendu dau. Bestalde, esan beharra dago PSE-EEgaz erkatuta gainontzeko alderdi guztiek atzerriko hizkuntza eta ingelesari zuzendutako politika gitxiago proposatu dabezan arren, azken hauteskunde deialdietan ekimenok goranzko joera orokortua hartu dabela.

## 5. 6. HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ULERMENA ETA EUSKAL HIZTUNEN ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GITXITU MODUAN: EUSKARA HIZKUNTZA BAZTERTUTIK EUSKARA HIZKUNTZA BAZTERTZAILERA

Hizkuntza gitxituen eskubideen gainean aldeko eta kontrako iritzi hartzeak dagoz. Batzuk zein besteak argudio sendoz eta sarritan kontrajarriz hornituak egon ohi dira. Abiapuntu teorikoan landutako ideiak labur-labur gogoratuz, hizkuntza gitxituen eskubideen alde edo kontra lekutzeak ekintza ala ekintza eza dakar beragaz, hau da, izaera positiboa ala negatiboa atxikitzea eskubideoi. Baina era berean, eragina dauka eskubideon subjektutzat nor jotzen dan (hizkuntza, hiztuna edo herritar neutroa), eskubidei zelako izaera atxikitzen jaken (kolektiboa, banakakoa kolektiboan edo banakakoa), eskubideoi mugak ezartzekotan mugok non kokatzen diren (hiztun komunitatekideen nahian – barne muga-, hiztun komunitatetik kanpoko herritarretan – kanpo muga- edo barne eta kanpo muga neurrizkoan), zein eskubideon alde agertzekotan berau defendatzeko erabilitako argurioak zelakoak diren. Gainera, hizkuntza gitxituen eskubideei eskainitako trataera mintzaireri atxikitzen jaken



balioagaz be lotura estuan dago (intrinsikoa, identitarioa edo instrumentala)<sup>127</sup>. Atal honetan, EAEko alderdi politikoez hizkuntza gitxitu dan euskararen eskubideen aurrean erakusten daben iritzi hartzea aztertuko da.

Hizkuntza eskubideak EAEko alderdi politikoen diskurtsoan gai zentrala dira, nahiz eta neurri desbardinetan. Ezker Abertzalea eta PP dira hizkuntza eskubideei tarte handiena eskaini deuten alderdiak, Ezker Abertzalearen kasuan euskarak bizi dauan egoera gitxitua mintzagai hartuta, neurri handi batean. PSE-EE atzetik dator. Aipatutako hiru alderdi politikoez konparatuz, EAJk eta Ezker Anitzak tarte txiki samarra eskaini deutse hizkuntza eskubideen gaiari; gainontzeko alderdien moduan hauteskunde deialdirik deialdi hizpide izan daben arren.

Hizkuntza eskubideak hizkuntza politikaz modu orokorrean jarduterakoan eta eskolari buruz egiterakoan izan dira hizpide gehiengoan; halaber, herri administrazioan zein esparru juridikoan be tarte esanguratsua batu dabe. Neurri txikiagoan bada be, komunikabideak, kulturgintza, lan mundua eta gizartea be izan dira hizkuntza eskubideen jasotzaile. Modu horretan, hizkuntza eskubideen aldarria gizarteko esparru guztietan egin da presente; esparru publikoan zein pribatuan. Lurraldeari begira, alderdi politikoez hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko esparrua EAEra mugatu dabe ia modu erabatekoan, Ezker Abertzaleak izan ezik. Azken honek hizkuntza eskubideen diskurtsoaren zati handi bat Euskal Herrira zuzendu dau, hain zuzen, Euskal Herri osorako hizkuntza eskubide berberak aldarrikatzera.

Alderdi politikoez hizkuntza eskubideei emon deuten tratamendua hizpide hartuta, hizkuntza eskubideen inguruko jarduna lau balio handiren inguruan zentratu da: hizkuntza bat edo gehiago ezagutu eta/edo erabiltzeko banakakoaren askatasunean, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko bardintasunean, hizkuntza arrazoiekaitik baztertua ez izatean eta hizkuntza bat edo gehiagoren ezagutza eta/edo erabilera ez inposatzean. Horrela, aztergai diren alderdi politikoez oinarritzko lau esaldion inguruan eraiki dabe euren hizkuntza eskubideen gaineko diskurtsoa, euskara eta/edo gaztelania - gehi frantsesa, Ezker Abertzalearen kasuan- ezarrita esaldion objektu. Egitez, alderdi politikoen artean desbardintasuna bakoitzak diskurtsoaren erdigunean ezarritako hizkuntzak eta gailendutako balioek eragin dabe; ikuspegi erabat bereiztuak sortuz.

Alderdi politiko guztiek bat egin dabe gizarte alor desbardinetan herritarrei hizkuntza aukerak eskaintzeko nahiagaz. Halaber, EAJk, PSE-EEK, PPk eta Ezker Anitzak herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea azpimarratu daben bitartean; Ezker Abertzaleak euskaraz jardutekoa egin dau bakarrik; eta Ezker Anitzak hizkuntza-bikotasuna ertzean itzita, noizean behin, Ezker Abertzalearen ildo hartu dau. Egitez, EAJk euskaraz edo gaztelaniaz jarduteko aukera askatasuna eraginkorra bihurtzea, hau da, aukera bardintasuna erreala

<sup>127</sup> Hizkuntza gitxituen eskubideen aurrean nagusitzen diren leku-hartzeak “2.2.4.1.2 Hizkuntza gitxituen eskubideak ezbaian” atalean landu dira modu sakonean.

izatea bihurtu dau bere hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoaren muina. Gainontzeko alderdi politikoetan egoera bestelakoa izan da. PSE-EEK eta PPK, behinik behin, hizkuntza eskubideen gaineko diskurtsoaren zentralitatea kokaleku desbardinean ezarri dabe.

PSE-EEK eta PPK herritarren hizkuntza aukera askatasuna bermatzeari baino tarte handiagoa eskaini deutse indarrean dagoen euskararen hizkuntza politikak eragiten dauzan bazterketa egoerak gaitzesteari. PSE-EE eta PPren iritziz, herritarrez gainera, hiru kolektibo baztertuenak langileria, publikoa gehiengoan, irakaslegoa eta ume, gazte eta euren familiak dira. Langile eta irakasleak euskara ez ezagutzeagaitik dira baztertuak, euskararen ezagutza lanpostu bat lortzeko baldintza bihurtu ei dalako; eta ume, gazte eta euren familiak eskolan gaztelaniaz ikasteko aukera mugatua dabelako. Deskribatutako egoera horren aurrean, bi alderdiek euskararen ezagutza eta erabilera beharrezko bihurtzen dauzan politika itxuraz inposatzailea gogor salatzen dabe. Ezker Anitzak noiz edo noiz plazaratu izan dauz bazterketarako pareko arriskuak.

Egoera berberaren aurrean, Ezker Abertzalearen ikuspegia bestelakoa da. Alderdiarentzako euskara baztertzaila baino hizkuntza baztertua da. Bere egoera gitxiagotua gizarteko esparru guztietan eta maila juridikoan zein soziolinguistikoa azaltzen da, gaztelania eta frantsesaren nagusigorako. Gainera, alderdiaren hitzetan, euskaldunei formalki aitortzen jakezan eskubideak eurak be erreallitatean ez dira betetzen. Egoera horren aurrean, Ezker Abertzaleak euskararen ezagutza eta erabilera askatasuna errespetatua izateko eskaera burutzen dau esparruz esparru. Eta, are gehiago, euskarak, gaztelania eta frantsesak estatus berbera izatea aldarrikatzen dau maila politikoan, juridikoan zein sozialean.

Alderdi politikoaren leku-hartze desbardinok hizkuntza gitxituen eskubideen inguruko eztabaidaren oinarrian dagozan hainbat auzi mahaigaineratzen dabez. Lehenengo eta behin, alderdiek aitortutako hizkuntza eskubideen bidez helburu desbardinak lortu gura dabez. Ezker Abertzaleak herritarrei euskaraz jarduteko eskubidea bermatu gura deutse eta, aldi berean, euskara maila juridikoan ezeze sozialean be gaztelania eta frantsesagaz bardindu. Gainontzeko alderdiek hizkuntza eskubideei eskatzen deusena mintzairen arteko egoera juridiko eta sozial parekatua baino, euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko herritarren aukera askatasuna da. Alderdi politikoek eskabide dabezan hizkuntza eskubideok ikusita, alderdi guztiek eskubideoi banakako izaera atxikitzen deusela baieztatu daiteke, herritarren hizkuntza aukera baita guztiek bermatu gura dabena. Halaber, Ezker Abertzaleak hizkuntza eskubideei izaera pertsonala atxikitzeaz gainera kolektibo-lurraldekoa be egiten deutse. Alderdiak berak aitortua da eskubidea banakakoari dagokiola, baina bere egikaritzeak lurralde jakinean lekututako taldea behar daua.

Dana dala, PSE-EEK eta PPK euskara ala gaztelaniaren artean aukeratzeko askatasuna sarri baieztatu daben arren, helburu hori egingarri bihurtzeko ezartzen dabezan mugak handiak dira; aurkeztutako nagusiena euskaldunak ez direnei, direla herritar direla herri administrazioko langile, inolango albo kalterik ezin egin ahal izatea eta, halabere, euskara ikastea ezin

eskatzea<sup>128</sup> neurri inposatzailea dalakoan. Era horretan, PSE-EEk eta PPK gaztelania hiztunen akomodazio eskakizunei atak zarratzen deutesiez. Baina ildo horretan, bada desbardintasun bat PSE-EE eta PPren artean. PSE-EEk gaztelaniadunak gizarteko esparru guztietan euskara ikasi ala erabiltzera ezin behartu daitezkeela sinisten dauan arren, erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko nahia agertu dau azken hauteskunde deialdian. Zentzu horretan, PPK erdaldunen betikotzea zilegitzeko dauan jarrera sendoagoa da. Alderantziz, EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak sarritan izan dabe proposagai herri administrazioagaz lotura zuzena daben alorretan hizkuntza eskakizunak eta gaztelaniadunen euskalduntzerako neurri esanguratsuak. Modu horretan gaztelaniadunen maila batera arteko akomodazioa bideratu dabe. Halaber, hiru alderdion kasuan, herri administrazioan lan egiteko euskararen ezagutza eskatzea gaztelaniadunen akomodazio deiari baino herri administrazioaren eginkizunaren ulkererari erantzuten deusola esan daiteke.

Bost alderdi politikoei herri administrazioari herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eginkizuna atxiki deutse, baina EAJk, Ezker Anitzak eta Ezker Abertzaleak langile publikoei, herri administrazioaren ordezkari diren neurrian, eginkizun hori helduarazi deutesen bitartean, PSE-EEk eta PPK, herritarrei modura, euskara ezagutzeko ala ez ezagutzeko eskubidea eskaini deutse. Gainera, euskarari zerumuga ezartzerakoan hizkuntza eskubideez haratago doazen mugak be begitaratu dabez bi alderdiok: euskararen gehiegizko eskaerak dakarren merezimendu profesionalaren lerma, hizkuntza eskubideak ez beste eskubideen errespetu eza, edota PPK sarritan kritikatu dauan euskarari zuzendutako hizkuntza politikak ekarritako gehiegizko diru xahutzea. Argudio bardinak edo antzekoak esparru pribatuan be errepikatu dabez bi alderdiek gizarte zerbitzu emoileentzako, nahiz eta neurri txikiagoan.

PPk modu zabalean euskara babestearen alde dagoela sarritan aipatu dau<sup>129</sup>. Halanda be, banakako herritarren aukera askatasunari eskaini deutson zentralitateak, euskarari zuzendutako hizkuntza politiken aurrean erakutsitako jarrera errektiboak eta alderdiak berak euskarari modu proposatzailean zuzendutako ekimen apurrak ikusita, PPK hizkuntza eskubideei atxikitzen deutesen izaera positiboa ala negatiboa ete dan pentsatzea dakar. Gainontzeko alderdiek, ostera, hizkuntza eskubideei izaera positiboa atxikitzen deutesela ez dago zalantzarik. Izan be, modu gogotsuagoan ala geldiagoan, neurri zorrotzagoekaz ala malguagoekaz danek planteatu izan dabez hizkuntza politika neurri proposatzaileak.

Hizkuntza eskubideei dagokionean, Ezker Abertzalea PPren beste muturrean kokatzen da. Egitez, aurretik aipatutako lez, euskarari gaztelania eta frantsesarekiko bardintasun juridiko eta soziala aitortzen deutso eta berau ekimen handinahikoz gauzatzea proposatu; besteak

<sup>128</sup> Askoz neurri txikiagoan bada be, Ezker Anitzak eta EAJk esparru barrietan euskara barneratzeagaitik sortu daitezkezan bazterketa egoerak ekiditzeko nahia agertu dabe; baina inoiz ez euskara ikastea ezin eskatu ahal izatea.

<sup>129</sup> Kontsultatu PPren datu analisisian (4.4).

beste, euskara ezagutu beharreko hizkuntza bilakatu. Era horretan, ezagutzari dagokionean gaztelaniadunen akomodazio erabatekoa exigitzen dau<sup>130</sup>.

Hizkuntza eskubideak zein norabidetan aldarrikatzen diren ezagutzeaz gainera, eskubideok zeren edo noren izenean eskatzen diren jakiteak be badau interesik. Alderdi politiko guztiek hizkuntza eskubideak aldarrikatzerakoan indarrean dagoen legedia erabili dabe noiz edo noiz justifikagarri. Nabarmentzekoa da, sarritan, legediaren izenean justifikatutako ikuspegiak alkarren artean kontrajarriak izan direla. Ezker Abertzaleak lurraldeari lotutako argudioak eskaini dauz; hain zuzen, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dan neurrian gorengo hizkuntza eskubideak jagokozala agertuz. Bestalde, EAJk eta Ezker Anitzak herritarren hizkuntza izateagaitik aitortu dabez eskubideak; gizartea elebiduna dala aitortuz lehenengoak eta herritarren ama hizkuntzak direla esanez bigarrenak. Lurraldeko eta herritarren jatorrizko hizkuntza izateaz gainera, aldarria herritarren momentuko borondatean be oinarritu dabe EAJk eta Ezker Abertzaleak; hain zuzen, herritarrek horrela gura dabelako. Aitortu beharra dago, herritarrek agertzen daben borondateaz harago, alderdiek eurak herritarren borondate eta konpromisoan eragiteko nahia be agertu dabela; EAJk eta Ezker Abertzaleak ezeze Ezker Anitzak eta PSE-EEk bere bai, nahiz eta azken bi horreek neurri txikiagoan. Azkenik, hizkuntzaz harago, hizkuntza eskubideen defentsa gizartearen kohesioan izan daikezan onuretan be oinarritu dabe EAJk eta Ezker Anitzak.

Hortaz, EAEko alderdi politiko guztiek euskara hitzunei hizkuntza eskubideak aitortu arren, desbardintasunak nabarmentzen dira eskubideok gorpuzteko ezartzen dabezan mugetan. Egitez, mintzaira gitxituen hizkuntza eskubideen ikuspegia aintzat hartuta, PSE-EE eta PPren kasuan euskal hitzunei aitortutako hizkuntza eskubideak maila teorikora mugatzen direla esan daiteke; hain zuzen, eskubideok egikaritzeko ezartzen dabezan mugak oso zorrotzak direlako. Horren dira handiak baldintzapenak, orokorrean hizkuntza gitxituei lotu izan jakezan hizkuntza eskubideak iraultzera heldu direla, eskubideen jasotzaile hizkuntza nagusia bihurtuz. Gainontzeko hiru alderdiek hizkuntza gitxituen aldeko diskurtsoa darabile. Halanda be, hiruren artean badira desbardintasunak; bereziki hizkuntza eskubideei zerumuga ezartzerakoan eta eskubideok egikaritzeko mugak identifikatzerakoan. Hain zuzen, Ezker Abertzaleak euskara, gaztelania eta frantsesaren bardintasan juridikoa eta soziala ezarri dau helburutzat, berau lortzeko gaztelania hitzunen erabateko akomodazioa eskatuz. EAJk eta Ezker Anitzak, barriz, herritarrek euskara eta gaztelaniaren artean aukeratzeko daben askatasuna aldarrikatu dabe, akomodazio beharra zerbitzari publikoei atxikiz eta herritarrak egokitzen animatuz.

<sup>130</sup>Erdaldunen akomodazioa herri administrazioko langileria publikoari euskara ezagutzea exijituz eta hezkuntza sistemarako murgiltze eredu orokortua proposatuz bideratu dau nagusiki Ezker Abertzaleak.

## 5.2. TAULA. HIZKUNTZA ESKUBIDE ALDARRIAK ETA EUSKARAREN ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GITXITU MODUAN ALDERDI POLITIKOEN BAITAN

Aldarrikatutako hizkuntza eskubide nagusia					
EAJ	Ezker Abertzalea	PSE-EE	PP	Ezker Anitza	
Aukera askatasun eraginkorra	Euskararen ezagutza eta erabilera askatasuna  Euskara, gaztelania eta frantsesaren estatus berbera	Hizkuntza arrazoiekaitik (euskaragaitik) baztertua ez izateko eskubidea.	Hizkuntza arrazoiekaitik (euskaragaitik) baztertua ez izateko eskubidea	Aukera askatasuna	
Euskararen hizkuntza eskubideak					
	EAJ	Ezker Abertzalea	PSE-EE	PP	Ezker Anitza
<b>Aldarrikatutako hizkuntza eskubidea</b>	Euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea	Euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea	Euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea	Euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea	Euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea
<b>Gaztelania hitzunen akomodazio eskaera</b>	Konpromiso eskaera	Betebeharra	Ezin eskatu. Borondatea lantzea posible	Ezin eskatu	Borondate-konpromiso eskaera
<b>Euskararen hizkuntza eskubideak egikaritzeko mugak</b>	-	-	Hizkuntzaz haragoko mugak	Hizkuntzaz haragoko mugak	-
<b>Euskararen hizkuntza eskubideen justifikazioa</b>	Herritarren hizkuntza  Hitzunen borondatea  Gizarte kohesioa  Legedia	Lurraldeko berezko hizkuntza  Hitzunen borondatea  Legedia	-	-	Herritarren hizkuntza  Gizarte kohesioa  Legedia

*Iturria: norberak egina.*

## 5. 7. EUSKARA, GAZTELANIA ETA FRANTSESAREN ESTATUSA: EUSKARAREN ESTATUS BEREZIAREN BAIEZTAPENA ALA UKAPENA

---

Euskal testuingurua eleanitza da bere mugen baitan hizkuntza desbardinak hartzen dabelako aterpe. Egoera eleanitz horrek mintzaira batzuekiko eta besteekiko lotura diferenteak ezartzeko bidea zabaltzen dau, hau da, mintzaira batzuei eta besteei balio desbardinak atxikitzekoa. Esaterako, balio identitarioa, instrumentala, integratzailea, kulturala, etab. Atal honen helburua EAEko alderdi politikoez historikoki lurraldean berba egin diren hizkuntzekiko ezartzen dabezan loturak aztertzea izango da, arreta berezia eskainiz balio identitario eta kulturalari eta alderdien artean komunak eta bereizgarriak diren ikuspegi.

Aztertu doguzan alderdi politiko guztiek bat egin dabe euskara bertako hizkuntza, euskal kulturaren eta identitatearen parte eta ondare moduan identifikatzerakoan. Alderdien arteko desbardintasunak aipameno eskaintako presentzian, eskusibotasunean eta lurralde zabaleran gailendu dira.

EAJk eta Ezker Abertzaleak bertako hizkuntza estatusa euskarari eskaini deutse, modu eskusiboan Ezker Abertzaleak eta ia eskusiboan EAJk. Gainera bertakotasuna Euskal Herrian kokatu dabe bi alderdiek. Hain zuzen, euskarari bertako hizkuntza estatusa eskusiboki atxikitzea Euskal Herriko hiru hizkuntzak euskara, gaztelania eta frantsesa direla baieztatzen etorri da EAJren kasuan. Halaber, baieztapen hori bazterrekoa izan da EAJren diskurtsoan, ez ostera euskara bera beratar bertako hizkuntza moduan jotzea. Ezker Abertzalearen kasuan, barriz, euskarari bertako hizkuntza estatusa baino askoz gehiagotan atxiki deutso Euskal Herriko nazio hizkuntza estatusa; hau da, nazioa eraikitze eta nazioaren ordezkari moduan jokatzeko erabiliko dan hizkuntza izatea euskara. EAJk be izendatu izan dau euskara hizkuntza nazional moduan noiz edo noiz, baina ez nazio eraikuntza proiektu argi baten agente moduan.

PSE-EEK eta PPK euskarari bere beratar baino gaztelaniagaz batera atxiki deutso bertako hizkuntza izendapena. Hau da, aldarrikatua euskara eta gaztelania, biak, EAEko bertoko hizkuntza direla izan da. Azpimarratzekoa da, alderdion diskurtsoan euskarak ez daukala bera beratar bertako hizkuntza izendapenik lortu; gaztelaniak bai ostera.

Ezker Anitzak bertako hizkuntza izendapena euskarari atxiki deutso. Halaber, euskararen bertakotasuna euskal lurraldearentzako ezeze Espainiar eta Frantziar Estatuentzako eta Europar Batasunarentzako be aldarrikatu dau. Ezker Anitzaren iritziz, estatu federal batek bere herritarrek hitz egiten dabezan hizkuntza guztiak propio sentitu behar dauz. PPK be euskara Espainiako hizkuntza moduan esplizitatu izan dau, nahiz eta behin bakarrik.

Hizkuntzak ondare kultural izendatzerakoan antzeko egoera errepikatu da. Danek euskara guztion ondare moduan aurkeztu daben arren, euskara dakienena ezeze euskara ez dakienena bere bai, desbardintasunak ondare moduan izendatutako hizkuntza kopuruan bildu dira.

EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak euskararen ondare izaera nabarmendu daben bitartean, PSE-EEK eta PPk euskara eta gaztelaniarena egin dabe. Bestalde, euskal kultura izendapenaren baitan Ezker Abertzaleak eta EAJk euskarazko kultura nabarmendu dabe, nahiz eta azkenak elebitasuna Euskadiko errealtate kulturalaren parte be bilakatu dauan. PSE-EEK eta PPk euskal kulturaren baitan euskaraz zein gaztelaniaz burututako kultura barneratu beharra aldarrikatu dabe. Are gehiago, PPk euskaraz burututako kultura bera Espainiar kulturaren baitan kokatu izan dau. Era berean, aipatu beharra dago EAJk, Ezker Anitzak, PSE-EEK eta PPk elebitasuna aberastasun kultural moduan jo daben arren, PSE-EE eta PP izan direla baieztapena gehiegotan burutu dabenak. Ezker Abertzaleak elebitasun sozialarena baino eleaniztasun indibidualaren aberasgarritasuna aipatu dau.

Beste behin, euskara euskaldunen identitate ezaugarri moduan jo dabe alderdi guztiak baina EAJ izan da lotura hori indar handienaz azpimarratu dauana, euskara Euskal Herriaren sinbolo nagusi moduan joaz. Bestalde, PPk euskaraz gainera gaztelania be herriaren izatearen adierazgarri dala azpimarratu dau, euskaldunei identitate komuna emoten deusena gaztelania dala baieztatuz. PSE-EEK euskararen eta identitatearen artean lotura ezarri dauan arren, gaur egungo identitateen izaera konplexua azpimarratu dau, hizkuntzekiko lotura mailak desbardinak direla nabarmenduz eta, beraz, hizkuntza eta identitatearen artean lotura zurrunegiak ez ezartzearen garrantzia azpimarratuz. Ildo berean, azken hauteskunde deialdietan EAJk testuinguru anitzera egokituko dan euskal identitatea izan dau hizpide, izaera iragazkor eta dinamikoduna. Baina aniztasun horren baitan, identitate pluralok egikaritzeko hizkuntza euskara izateko nahia agertu dau.

### 5.3. TAULA. ALDERDI POLITIKOEN EUSKARARI ATXIKITAKO ESTATUSAREN IZAERA

Euskarak estatus berezia	Euskarak estatus berezirik ez
Euskara bertoko hizkuntza, identitate zeinu, ondare kulturala	Euskara eta gaztelania bertoko hizkuntza, identitate zeinu, ondare kulturala
EAJ Ezker Abertzalea (+ nazio hizkuntza) Ezker Anitza (Euskal Herria erreferentziatzat hartuta)	PSE-EE PP Ezker Anitza (Espainiar Estatu erreferentziatzat hartuta)

*Iturria: norberak egina.*

Laburbilduz, EAEn alderdi politikoak banatuta dagoz euskarari euskal nortasunarekiko estatus berezia emoten deusenen eta ez deusenen artean. Hain zuzen, EAJk, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak euskal lurraldean euskarari estatus berezia edo bereiztua eskaintzen deus bitartean, PSE-EEK eta PPk euskara gaztelaniagaz parekatzeko hautua egin dabe. Gainera, lehen hiru alderdiek euskararen estatus bereiztua Euskal Herrira zabaldu dabe; hau da, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza, ondare kultural eta identitate zeinu

moduan onartzen dabe. PSE-EEK eta PPK, ostera, Euskal Herria ez dabe buruan hartzen eta PPK euskara eta euskal kultura Espainiar Estatuaren parte jo izan dauz. Bestalde, Ezker Anitzak euskarak euskaldunentzako dauan estatus berezia onartu eta Euskal Herriaren aitortpena burutzen dauan era berean, euskara, euskal kultura eta Euskal Herria Espainiar eta Frantziar Estaturen baitan kokatu dauz.

## 5. 8. KANPORA BEGIRAKO HIZKUNTZA IDEOLOGIAK: PARADIGMA EKONOMIZISTA ETA EKOLOGISTA BATERATUZ

---

EAEko alderdi politikoez lurralde barruko errealitate linguistikoari begira ikuspuntu ideologiko jakinak agertzen dabezan antzera, nazioarteko errealitate linguistikoaz eta bere zer-nolako idealaz be leku-hartze ideologiko bereziak erakutsi daikiez. Atal honetan, alderdi politikoez nazioarterako irudikatzen daben hizkuntza errealitatea izango da aztergai bi auzi oinarri hartuta: batetik, nazioartean alderdiez hizkuntza aniztasunari eskaintzen deuten tartea, eta bestetik, nazioartera zabaltzen diren mintzaira desbardinei atxikitzen deutesan funtzioak.

Hizkuntza aniztasunari erreparatuta, alderdiez nazioartean *lingua franca* baten erabilera onetsi eta lehenesten daben ala hizkuntza aniztasunari tartea egiten deuten eta dibertsitate horretan, hizkuntza gitxituek tartea bereganatzen daben argituko dogu. Modu horretan, alderdi politikoez ingelesaren zabalkundearen paradigma eta paradigma ekologikoaren arteko ardatzean kokatu ahal izango dira

Bi paradigmen zerizatea labur-labur gogora ekarriz, ingelesaren zabalkundearen paradigmak nazioarteko komunikazioetan ingelesaren nagusigoa aldarrikatzen dau, era horretan, elebakartasunari eta ingelesaren inperialismo linguistikoari bidea zabalduz. Paradigma ekologikoak, barriz, nazioarte eleanitzean eta giza hizkuntza eskubideen defentsan oinarritzen dau bere ikuspegia.

Nazioarteari begira bere lekutzearen inguruan informazio gitxien eskaini dauan alderdia PP izan da; nahiz eta eskainitako informazioak datu interesgarriak eskaintzen dauzan. PPK ingelesa zein atzerriko hizkuntzen ikasketa xede izan dau, baina ikasketa horren zergaitien inguruan ia ez dau hausnartu. Alderdiak hizkuntzak komunikazio tresna direla behin baino gehiagotan azpimarratu dau eta, zentzu horretan, ingelesa be mundura zabaltzeko mintzaira dala nabarmendu dau. Ildo berean, EAJK eta PSE-EEK be ingelesari nazioartean gorengo lekutzea atxiki deutesie, nazioarteko lehen hizkuntza, hizkuntza nagusi moduan jota. Hortik, hiru alderdiek azken hiru hauteskunde deialdietan ingelesari eskainitako hobespena. Halaber, hiru alderdietan PSE-EE izan da ingelesari balio ugarien atxiki deutesana. PSE-EEK ingelesa nazioarteko eta Europako komunikazio hizkuntza moduan definitu dau, sare mundialetara konektatzeko bidea, Europar Batasunera zabaltzekoa, ekonomiaren nazioartekotzeari



arrakastaz erantzutetako, modernitateari atek edegitzeko. Dana dala, PSE-EEK atzerriko hizkuntzei orokorrean be atxiki deutsoz antzeko balioak. EAJk, barriz, ingelesa baino eleaniztasuna orokorrean jarri dau balorean, berau modernizazioagaz lotuz, etorkizuneko erronkei erantzuteko lanabes moduan joaz, pertsonen erabateko garapena lortzeko bide gisa hartuz. Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak ingelesaren gainean balorazioak egiteari ez deutse tarterik itzi, baina EAJ eta PSE-EEren antzera, eleaniztasuna aberastasun moduan jo dabe. Egitez, lau alderdiok etorkizun hurbilari begira euskal gizarte eleanitza ezarri dabe helburutzat.

Nazioarteari begira ingelesa edota atzerriko hizkuntzak ezagutzeak zein orokorrean eleanitza izateak eskaintzen dauzan onuren edota betetzen dauzan funtzioen gainean informazio argiena PSE-EEK eskaini dau. PSE-EEK egungo testuinguru ekonomiko gero eta internazionalagoan ingelesaren zein atzerriko hizkuntzen ezagutza ekonomikoki lehiakorra izateagaz lotu dau behin eta barriz. EAJk be horren baieztapen gardenik burutu ez dauan arren, eleaniztasuna prestakuntza onagaz eta etorkizunari begirakoagaz lotu dau. Era berean, bi alderdiek hizkuntza desbardinak ezagutzeak komunikazio interkulturalari atea zabaltzen deusola azpimarratu dabe; era horretan, nazioartekotzea irekiera kulturalerako bidetzat jo dabe. Aipatzekoa da gainera, bi alderdien kasuan, nazioartekotzeak dakarren zabaltze kulturalen hizkuntza desbardinak bereganatu dabela tartea, ingelesez bakarrik burutzen dan interkomunikazioa, neurri batean behintzat, alboratuz. Bestalde, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak ez dabe nazioartekotzearen ikuspuntu lehiakorra nabarmendu, baina bai Europar Batasunari, herri desbardinaren alkarketa dan neurrian, eskatzen deuten egituraketa linguistikoa, zein nazioartean hizkuntza gitxituei egin behar jaken tartea.

Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza Europar Batasun eleanitz baten alde agertu dira, non Europako hizkuntza gitxituak be erakundearen izaera eleanitzari ekarpena egingo deuten gainontzeko mintzaira nagusien neurri berean. Halaber, EAJk eta PSE-EEK be Europar Batasun eleanitz baten alde egin dabe zeharka, Ezker Abertzale eta Ezker Anitzak lez, Batasunerako euskararen ofizialtasuna eskatuz. EAJk eta Ezker Anitzak euskal erakundeek nazioartean hizkuntza gitxituen alde diharduen erakundeekaz alkarlanean jarduteko deia egin dabe; eta Ezker Abertzaleak herrien arteko alkarlana bultzatu nahia agertu dau. Ekintza guztiok nazioarte mailan eleaniztasunaren aldeko apustu moduan ulertu daitekez.


Aitorpen instituzional eta alkarlanaz aparte, hizkuntza gitxituek nazioartean espazioa dabeneko adibide dira lau alderdiek euskararen eta euskal kulturaren nazioartekotzeari itzitako tartea eta euskara gizateriaren ondare unibertsal moduan jotzea. Dana dala, EAJ eta Ezker Abertzalea haratago joan dira, euskaldunek nazioartekotzea euskal identitatetik eta euskal kulturatik burutu behar dabela aldarrikatuz.

Gainontzeko alderdien kontrara, PPK ez deutso euskarari ezta beste hizkuntza gitxituei nazioartean inolango lekuri egin, ez hizkuntzon estatus aitorpen edota suspertze ahaleginei, ezta maila kulturalen mintzairok burutu daikien ekarpenari be. Egitez, euskara eta nazioartea behin bakarrik lotu dauz PPK; zehazki, euskal kultura korrante kultural unibertsalareta

zabaltzea gomendatuz. Aipatzekoa da gainera, PPK gaztelaniari atxiki izan deusola ondare unibertsal estatusa. Are gehiago, euskaldunari unibertsaltasuna eskaintzen deusona gaztelania dala be baieztatu izan dau.

Hortaz, EAEko alderdi politikoez, PPK salbu, nazioarte eleanitza irudikatzen dabe non mintzaira desbardinek, gitxituek barne, euren espazio propioa izango daben. Eleanitzasun horren barnean baina azken urteetan PSE-EEK ingelesari protagonismo berezia eskaini deutso lehiakortasun ekonomiko zein interkomunikazio ikuspuntu batetik, nazioartekotzearen eta ingelesaren artean lotura zuzena ezarriz. EAJk be nazioarteari begira lehiakortasun kutsuko balioak agertu dauz, baina eleanitzasunagaz lotuta. Jarrera hori nazioarte plural bateri egindako keinu moduan interpretatu daiteke EAJren aldetik. Bestalde, Ezker Abertzaleak eta Ezker Anitzak ingelesa ez aipatzeak eta izaera ekonomikoko adierazpenak ez egiteak bi alderdion leku-hartze ideologikoz be informazio interesgarria aurreratzen dauala pentsa daiteke. Hain zuzen, lehiakortasunari begira baino kultura, herri, eta abarren alkargunean oinarritutako nazioartekotzea dabela xede.

#### 5.7. IRUDIA. NAZIOARTEARI BEGIRA ALDERDI POLITIKOEN BAITAN NAGUSITUTAKO LEKU-HARTZE IDEOLOGIKOA: PARADIGMA EKONOMIZISTA VS. EKOLOGISTA



*Iturria: norberak egina.*

Esandako guztia aintzat hartuta, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza paradigma ekologikoan erabat murgilduta dagozala baieztatu daiteke. Baita EAJ be neurri batean, nahiz eta bere lehiakortasun ikuspegiak paradigma ekonomizistara hurbiltzen dauan. PSE-EE, ostera, bi paradigmaren erdibidean kokatu daiteke. Izan be, ingelesari atxikitako nazioarteko hizkuntza zentral izaera eta bere bidez lortu beharreko lehiakortasun ekonomikoa Europar Batasun eleanitzagaz eta hizkuntza eta kultura gitxituen nazioartekotzeagaz uztartzen dauz. Bestalde, PP paradigma ekologikotik urrun kokatzen dala baieztatu daiteke, gehien bat hizkuntza gitxituei inolongo tarterik eskaini ez deustelako. Hortik aurrera bere lekutze ideologikoa ezagutzeko informaziorik ez dau ia eskaini. Bai da pentsatzekoa, ingelesa mundura zabaltzeko hizkuntza moduan definitu dauan arren, *lingua franca* bakarraren aldeko apustua ez dauala egingo, gehien bat gaztelaniari atxiki izan deutson izaera unibertsala

kontuan hartzen bada. Amaitzeko, EAJk eta Ezker Abertzaleak euskal herritarrak euskaldun moduan nazioartekotzeko agertutako nahia bi alderdion nazio eraikuntza estrategia moduan interpretatu daiteke.

Esandako guztiak aintzat hartuta, nazioarterako errealitate linguistiko desiragarria irudikatzerakoan, EAEko alderdi politikoen artean diferentziak dagozala baieztatu daiteke ingelesari eskainitako estatus eta espazioan.

## 5. 9. NAZIO-ESTATU ETA HIZKUNTZA GITXITUEN ESKUBIDEEN IDEOLOGIAK EUSKARARI ZUZENDUTAKO HIZKUNTZA POLITIKETAN: NAZIO-ESTATU PROIEKTU DESBARDINETAN ERPINERATUTAKO HIZKUNTZA ESKUBIDE ETA HIZKUNTZA POLITIKAK

---

Hizkuntza bateri atxikitako balioa estu lotuta dago gizarte mailan bereganatuko dauan funtzioagaz. Abiapuntu teorikoan esana da, historikoki eta gaur egun ere, mintzairak nazio eta estatu eraikuntzan oinarritzko elementu izan direla, bai nazio etniko-kulturalen bai nazio zibiko-politikoan; lehenengoan, hizkuntzari balio izanarazlea atxikita, hau da, mintzaira nazioaren ezaugarri kultural eta identitate partekatuen eskaintzaile nagusienetako bihurtuta; bigarreanean, hizkuntzaren balio instrumental-komunikatiboa goratuz, mintzairez haratago doazan helburuak egikaritzeko lanabes bilakatuta. Batean eta bestean, hizkuntzari atxikitako balioa erabat bereiztua dan arren, historikoki, bi nazio ereduaren elebakartasunaren aldeko apustua egin izan da; nazionalismo etniko-kulturalen nazioaren proiektu kulturala bat bakarra dalako: lurralde bat, kultura bat, hizkuntza bat; nazionalismo zibiko-politikoan, ostera, herritarrek hizkuntza komuna izateak onura anitzak dakarzalako: herritarren arteko komunikazio arrakastatsua, gizarte kohesioa, arrazionalizazio ekonomikoa, etab.

Era berean, komeni da gogoratzea, nazio txikiak nazionalismo etniko-kulturalagaz eta nazio-estatu handiak nazionalismo zibiko-politikoagaz lotzeko joera handia izan ohi dala; hain zuzen, nazio-estatu handietan hizkuntza komunaren legitimazio eta erakundetzeak bere erabilera naturalizatzea eta ikusezin bihurtzea dakarrelako, neurri handi batean. Halaber, nazio etniko-kulturalen eta zibiko-politikoan hizkuntzari atxikitako funtzioa eta balioa desbardina dan arren, azken emaitza parekoa izan ohi da gehiengoan: nazio osoak partekatutako gizarte-kultura bat bakarra hizkuntza komunean transmititua.

Aldi berean, hizkuntzei atxikitako balioak hizkuntza eskubideak ulertzeko moduan be eragiten dau. Hizkuntzari balio intrinsiko edo identitarioa atxikitzeak hizkuntza eskubide positiboan alde egitea dakar, eta hizkuntzari balio soilik instrumentala egiteak hizkuntza eskubide negatiboan alde egitea, besteak beste. Abiapuntu teorikoan aipatu dan moduan,

hizkuntza eskubideen inguruko eztabaidak nazio eta estatu ideologiagaz lotura estua dauka. Izan be, hizkuntza gitxituen eskubideen aldarria estatu-bako nazio txikien eskutik etorri izan da nagusiki; eta hizkuntza gitxituen eskubideen onarpen eza nazio-estatu handiengandik. Halanda be, estatu eleanitzaren aldeko hautua egitea be posible da; edota nazio-estatu ideologiatik kanpo kokatu eta hizkuntza gitxituen aldeko aldarria beste paradigma batetik burutzea, esaterako paradigma ekologiko soiletik.

Atal honetan, EAEko alderdi politikoen mintzairen gaineko diskurtsoan modu esplizitu ala implizituagoan hautematen diren nazio eta estatu proiektuak identifikatzeko lana hartuko da. Eta aldi berean, nazio eta estatu proiektuok euskarari zuzendutako hizkuntza politikak azaltzeko argigarri diren galdegingo da. Holan be, hizkuntza eskubideen ulerkeraren desbardinen atzean nazio eta estatu proiektu desbardinak ostentzen diren ezagutuko da.

Nazio eta estatu ideologiek, hizkuntza (gitxituen) eskubideen gaineko ideologiek eta euskararentzako hizkuntza politikek teoriarik osatzen daben hiruko jokoaren azterketa alderdi politikoka burutuko da, alderdi bakoitzaren errealitatea oso desbardina dalako eta banaka aztertzeak badaukalako interesik.

EAJren kasuan nazio-estatu ideologiaren eta alderdiak euskarari zuzendutako hizkuntza politikaren artean jarraipen argia dagoela esan daiteke. EAJren erro etniko-kulturalako nazionalismoa agerikoa da. Alderdiak euskarari, modu esklusiboan, Euskal Herriko berezko hizkuntza, ondare kultural bereizgarri eta funtsezko identitate zeinu estatusa atxikitzen deutso; eta horrek euskararen normalizazioagaz konpromiso erabatekoa agertzeri daroa, hizkuntza politika aktibo eta orobiltzailea proposatuz. Esan daiteke, gainera, EAJk proposagai dauzan ekimen politikoetan nazio eta herri eraikuntza zantzuak ageri direla. Esaterako, euskal identitatea sustatzea, Nafarroa eta Iparraldegaraz alkarlanean jardutea, euskaldun moduan nazioartekotzea, etab.

Ildo berean, EAJk euskal hiztunen euskaraz jarduteko eskubidea be aitortu eta egikaritzeko konpromisoa hartzen dau, modu erretorikoan baino hizkuntza proposamen bidez. Halaber, EAJren nazionalismo etniko-kulturalak ez dau izaera itxirik. Egitez, EAJk ez dau zalantzan jartzen euskal gizartearen izaera elebiduna; eta hizkuntza eskubideak be herritarren euskara edo gaztelania aukera askatasunean oinarritzen dauz. Gainera, aurretik aipatua dan moduan, azpimarragarria da EAJren aukera askatasunarekiko uste sendoa dala, hain zuzen, euskara gaztelaniagaz parekatzeko nahiari, elebitasun errealarari, balazta ezartzen deutsona.

Ezker Abertzalearen kasuan be, euskal nazionalismoa begibistakoa da, baina EAJrenagandik erabat desbardina. Ezker Abertzaleak, EAJren antzera, Euskal Herria lurralde jakinean lekututako nazio kultural moduan jotzen dau, non euskara herriaren identitate hizkuntza dan. Halaber, Ezker Abertzaleak euskarari balio identitarioa atxikitzeaz gainera balio instrumental zentrala be egiten deutso; hain zuzen, euskara balizko euskal nazio-estatuaren hizkuntza arrunta bilakatzea. Egitez, Ezker Abertzaleak egun indarrean dagoen errealitate juridiko-administratiboa ez ikusita jardun dau 2012ko hauteskunde deialdira arte;

Espainiar eta Frantziar Estatuak ezarritako muga politiko-administratiiboak alboratuta eta Euskal Herria ordezeko jokaleku bihurtuta. Horrela, Ezker Abertzaleak hizkuntza politika osoa bere nazio-estatu proiektuaren eraikuntzara bideratu dau; hain zuzen, egitasmo honen dimentsio linguistikora. Modu horretan, Ezker Abertzalearen nahia tradizionaliki estatu-bako nazio txikiei atxiki izan jaken izaera etniko-kulturala gainditzea dala pentsatu daiteke; eta bere ordezeko nazio-estatuari lotu jaken izaera zibiko-politiko bereganatzea, non euskararen legitimitatea eta erakundetzea emonak egongo diren.

Hizkuntza eskubideei dagokionean, Ezker Abertzalea euskal hizkuntza komunitateari gorenko hizkuntza eskubideak eskaintzearen alde agertu da, euskara dalako euskal lurretako berezko hizkuntza. Horregaitik, euskaldunei euskaraz jarduteko eskubideaz gainera, euskal hizkuntza gaztelania eta frantsesaren pareko egoera juridiko eta gizartezkoa dagokiola defendatu dau; eta hori egingarri bihurtzeko beharrezko neurriak hartzera konprometitu, besteak beste, gaztelania hitzun elebakarrei euskara ikastea exigitzea. Hortaz, Ezker Abertzaleak euskal hitzunei eskainitako hizkuntza eskubideen pean nazio ikuspegi argia dagoela baieztatu daiteke.

Ezker Anitzak estatu proiektu argia esplizitatu dau hauteskunde deialdiz deialdi Espainiar Estatuarentzako. Alderdiaren nahia Estatu Federal nazio, kultura eta hizkuntza anitza eraikitzea da non Estatuak bere herritarren mintzaira guztiak bertoko hizkuntza moduan hartuko dauzan. Aniztasunarekiko jarrera konprometitu horretan, Ezker Anitzak nazio kultural gisa Euskal Herriaren izatea be aitortzen dau eta euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza moduan onartu. Hizkuntza eskubide mailan, alderdia Espainiar Estatuako hizkuntza guztiei estatus berbera emotearen alde agertzen da, herritar guztiek euren mintzairan jarduteko eskubidea dabela hausnartuta. Ezker Anitzaren kasuan nazio-estatu ideologia eta hizkuntza (gitxituen) eskubideen ulermena alderdiaren posizio ideologikoaren bi zutoinak direla pentsatu daiteke, zentralitate maila berekoak.

Bestalde, Ezker Anitzaren leku-hartze ideologikoaren eta bideratutako hizkuntza politikaren artean jarraipena erabatekoa dala esan daiteke. Euskal herritarren hizkuntza eskubideak errespetatze aldera eta euskararen egoera diglosikoa ezagun, Ezker Anitzak estatu-egituren pean kokatzen diren zerbitzuak euskaraz jasoteko politika aurrerakoiak dauz proposagai. Are gehiago, euskal hitzunei euskaraz jarduteko aukera erreala eskaintzeko, bere ezagutza orokortzea begionez ikusten dau alderdiak. Hori horrela, EAJK eta Ezker Abertzaleak ez bezala, Ezker Anitzak ez dau ahalegin berezirik egiten euskara gizarteko esparru guztietan komunikazio hizkuntza bihurtu dadin. Izan be, alderdiak ez deutso euskarari nazio hizkuntza estatus eskusiborik atxikitzen; euskara eta gaztelania neurri berean dira euskal herritarren hizkuntzak. Hortara, behin euskararen ezagutza orokortuta, bere erabilera herritarren erabakimenaren esku iztearen alde agertzen da. Aldi berean, euskarari zuzendutako politikez haratago, Espainiar Estatuako eskualdeetako hizkuntzak Estatuaren luze-zabalean presente egiteko politikak be azpimarragarriak dira. Izatez, politikok, Espainiar Estatuaren unitate politikotzat hartuta, estatu pluralaren eraikuntza estrategia moduan interpretatu daitezke.

PPk euskal nazionalismoaren errotiko ukapena burutzen dau, nazionalista izendatzen dabezan alderdiek bideratu edo proposatutako neurriak kritikagai hartuta zein euskararen estatus etniko-kultural eskusiboa – hizkuntzen artean euskara dala euskaldunen berezko hizkuntza, ondare kulturala, identitate zeinua baieztatzen dauana– ezeztatuta. Gainera, oso noizean behinka, PPk gaztelaniari bera beratara balio ahaltsuak atxiki deutsoz. Azpimarragarriak dira euskaldunei identitate komuna eskaintzen deutson mintzaira gaztelania dala aipatu izana edota euskaldunei unibertsaltasuna gaztelaniaren bidez datorkela baieztatzea. Zilegi da pentsatzea, adierazpenon atzean gaztelania eta euskararen kokatze hierarkiko bat ostentzen dala, non gaztelania dan gailendutako mintzaira. Aipatutakoa kontuan hartuta, PPren diskurtsoan nazio-estatu ideologia espainola presente dagoela esan daiteke? Alderdiaren hizpidean nazio-estatu zibiko-politikoaren idealekaz alkarlotu daitekezan ezaugarriak sendoak direla bai baieztatu daiteke.

PPrentzako, nazionalismo zibiko-politikoetan berretsi izan dan moduan, estatuaren egiteko nagusia banakakoaren askatasuna babestea da. Hortik, askatasun linguistikoaren defentsa sutsua; alderdiaren hizkuntzen inguruko diskurtso osoa gidatu dauana. Egitez, alderdiak bere proposamen politiko gehientsuak askatasun linguistikoa errespetatua izateko neurrietara bideratu dauz, bazterketa eta inposaketa linguistikoa ekiditzera (hizkuntza eskubide negatiboak); eta ez euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa egikaritzera (hizkuntza eskubide positiboak). Berez, askatasun linguistikoaren ikuspegitik, berau egikaritzeko euskararen normalizazioa ez da beharrezkoa, ofizialtasun erregimenari dagokion esparru publikoan behinik behin. Horixe da, hain zuzen, PPk behin eta barriro erabili izan dauan argudioa: euskaldunei euskaraz zerbitzua eskaintzeko ez dala beharrezkoa langile guztiak euskaldunak izatea. Era berean, gogoratu beharra dago, nazionalismo zibiko-politikoetan defendatu ohi dan bezala, PPk be sarritan ezarri izan dauzala euskaldunen hizkuntza eskubideen aurretik beste mota bateko eskubideak; eta arrazionalizazio ekonomikoaren argudioak be sarri erabili izan dauz euskararen normalizaziora bideratutako diru-laguntzak kritikatzeko.

Halaber, PPren nazionalismoa zibiko-politikoa ala ezkutuko etniko-kultural espainola dan galdegiteak be badau zentzurik. Gaztelaniari euskarari baino defentsa indartsuagoa egitea nazionalismo zibiko-politikoak maila instrumentalean defendagai izan daiken hizkuntza komunaren argudio ildotik doala pentsatu daiteke; baina beste jarrera hartze batzuk zalantza sortzailegoak dira. Esaterako, PPk euskaldunen hizkuntza komunitateari behin eta barriro ezartzen deutson ikuspuntu estatikoa; egungo gaztelania hitzunek euskalduntzeko izan daikien nahia neurri batean ezikusiz. Era berean, aurretik aipatutako gaztelania eta euskararen arteko hierarkizazioak be zer pentsa handia eskaintzen dau.

Dana dala, zalantza barik PPren hizkuntza (gitxituen) eskubideen trataera eta euskarari zuzendutako, edo zuzendu bako, hizkuntza politika nazio-estatu ikuspegiak, ageriko zibiko-politikoak edo ezkutuetako etniko-kulturalak, baldintzatua dagoela baieztatu daiteke.

PSE-EEk PPgaz antzekotasun handiak erakusten dauz, baina desbardintasunak be nabarmenak dira. PSE-EEk, PPren antzera, euskararen estatus etniko-kultural eskusiboa

ukatzen dau eta euskal alderdi nazionalistek euskararentzako proposatutako hizkuntza politika neurriak kritikatu. Halaber, azpimarragarria da oso PSE-EEK euskal nazionalismoaren ikuspegi etniko-kulturala gogor kritikatzeko dauala, gaur egungo identitateak konplexuak, zabalak, etab. direla argudiatuz eta komunitatearen eraikuntza gako identitarioetan oinarritu ordez zibikoetan egin beharra aldarrikatuz. Modu horretan, PSE-EE nazionalismo zibiko-politikoaren alde lekutzen da. Hori horrela, alderdiaren nazionalismo zibiko-politikoak ez da zurruna.

PSE-EEK euskara eta gaztelaniari estatus etniko-kulturala atxikitzen deutse, baina parekatua: biak dira euskaldunen ondare kulturala, berezko hizkuntza, etab. Orobat, hizkuntza eskubideen ulerkerari dagokionean, PPren antzera, askatasun linguistikoa defendatzera eta bazterketa eta inposaketa ekiditzera bideratu dau indar handiena (hizkuntza eskubide negatiboak); baina PPren kontrara, euskararentzako sustapen neurriak bai proposatu dau. Horrela, PSE-EEK hizkuntza gitxituen eskubideei izaera positiboa esleitzen deutse; betiere gaztelania hitzunen bazterketa ala inposaketa zantzurik emoten ez bada. Aldi berean, PPren kontrara, PSE-EEK euskal hizkuntza komunitateari izaera dinamikoa onartzen deutso eta beronen zabaltzeak gizartearen kohesioari ekarri dakioken onura baieztatu. Modu horretan, euskararen normalizazioari bidea zabaltzen deutso. Halere, PSE-EEren diskurtsoan be, PPren moduan, gaztelania da indartuta urtetzen dan mintzaira. Eta egoera horren aurrean, galdera berbera da: zer dago sozialki egoera desbardina daben euskara eta gaztelaniarentzako tratua bardina exigitzearen atzean? Hizkuntza komun instrumentalaren ideia? Euskara eta gaztelaniari atxikitako balio etniko-kulturala benetan da parekoa PSE-EEren diskurtsoan? PSE-EEren kasuan, ageriko erantzun faltan, galderon erantzunak opakotasunaren atzean erantzun barik itzi beharra dago.

Beraz, argi dago EAEko alderdi politikoen euskarari zuzendutako hizkuntza politiken oinarrian nazio-estatu proiektu desbardinak dagozala eta, era berean, EAEko alderdi politikoen hizkuntza eskubideei emondako tratamenduaren atzean nazio-estatu ideologia desbardinak ostentzen direla.

## 5. 10. HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAREN ARTEKO LOTURAREN ZER-NOLAKOAZ: ALKAR AZALTZEN DAGOZAN BI ERREALITATE

---

Hizkuntza politikak neutraltasunetik urrun eta hizkuntza ideologiek eraginduta dagozala pentsamendu orokortua da gaur egun. Atal honen helburua, hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko loturaren zer-nolakoaren gainean giltzarri batzuk eskaintzea da.

Ikerketan aztergai diren alderdi politikoen Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde programetan proposagai dabezan ekimen politikoak eta adierazpen ideologikoak aztertuta,

hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren artean lotura badagoela baieztatu daiteke; izan be, adierazpen ideologiko paretsuak burutu dabezan alderdi politikoeak antzekotasun handiagoko hizkuntza politikak bideratu dabez. Esaterako, euskarari estatus berezia eskaini eta bere gitxitu egoeraren aitortza burutu daben alderdi politikoeak bere ofizialtasuna eta normalizazioa bideratzeko sustapen neurri garrantzitsuak proposatu dabez. Bestalde, euskara eta gaztelaniaren arteko gatazka linguistikoa, euskararen aurrean nagusi dan alderdikeria eta bizikidetzatza linguistikoa landu eta hizkuntza eskubideak errespetatu beharra indar handienaz azpimarratu dabenek, euskaren ofizialtasuna eta normalizazioa bideratzeko sustapen neurri gitxiago proposatu dabez, tarte handiagoa eskainiz egun indarrean dagoen euskararen hizkuntza politika kritikatzeari. Lehenengo taldean legokez EAJ, Ezker Abertzalea eta Ezker Anitza eta bigarrenean PSE-EE eta PP<sup>131</sup>. Halaber, EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren arteko lotura hori baino konplexuagoa da.

Berez, azterketak aditzera emon dau lekutze ideologiko desbardinak dabezan EAEko alderdi politikoeak hizkuntza politika parekoak proposatu daikiezala eta, era berean, posible dala adierazpen ideologiko parekoetatik hizkuntza politika desbardinak bideratzea. Lehenengoaren adibide argia dira EAJ eta Ezker Anitza. Bi alderdiok ofizialtasun bikoitzaren eta euskararen normalizazioaren alde agertzen dira, baina EAJren kasuan lekutze hori bi komunitate linguistikoekiko konpromiso politikoak eta euskararekiko lotura identitarioak bultzatua dagoela esan daiteken bitartean, Ezker Anitzarenean bardintasunean oinarritutako Estatu Federal nazio, kultura eta hizkuntza anitzarekiko engaiamenduak egina dagoela pentsatu daiteke. Hori horrela, onartu beharra dago, hizkuntza politika neurrietan EAJ Ezker Anitza baino harago joan izan dala euskararekiko sustapen neurrietan eta Ezker Anitza, ostera, elebitasunarekikoetan. Bestalde, emaitzatza hizkuntza politika bereziak dabezan adierazpen ideologiko parekoen adibide dira PSE-EE eta Ezker Anitza. Bi alderdiek bizikidetzatza linguistikoagaz konpromiso indartsua agertu daben arren, PSE-EEK alkarbizitza bi komunitate linguistikoaren existentzia bereiztutik lantzea proposatu dau gehiengoan; Ezker Anitzak, ostera, euskara eta gaztelaniaren ezagutza orokortutik.

Aldi berean, alderdi politikoen hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren inguruko ikerketak aditzera emon dau EAEko alderdi politikoen hizkuntza politika ekimenek euren baitan biltzen dabela informazio ideologikoa; besteak beste, alderdi politiko batek bere hizkuntza politikaren objektu bilakatzen dauzan mintzairak, politiken aplikazio esparru moduan ezartzen dauzan lurraldeak, etab. dira informazio ideologikoa eskaintzen dabenak. Adibidez, EAJk eta Ezker Abertzaleak euskara kokatzen dabe bere ekimen politikoen zentroan. PSE-EEK eta PPK euskaragaz batera gaztelaniari bideratzen deusiez ekimen ugari. Ezker Anitzak, barriz, euskara eta gaztelaniari dagokionean tarteko lekua biltzen dau, ekimen gehien euskarari zuzendu arren, gaztelaniari be batzuk bideratuz. Orobat, Ezker Anitzak

<sup>131</sup>Ezker Anitzak bigarren lekutze ideologikoagaz puntu komunak partekatzen dauz. PSE-EE eta PPKren antzera, Ezker Anitzak EAEko gatazka linguistikoa, alderdikeria eta bizikidetzatza linguistikoa hizpide izan dauz. Halanda be, problematikok bereganatu daben zentralitatea txikiagoa izan da eta gaion aurreko alderdiaren jarrera zentralagoa. Era berean, Ezker Anitzaren diskurtsuan hizkuntza eskubideek presentzia murriztagoa batu dabe eta eskubideok eskainitako tratamendua gehiengoan bestelakoa izan da.



Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzak ekimen politikoen jasotzaile bilakatzen dauz. Mintzaira aukeraketa horreek alderdiek hizkuntza desbardinekiko ezarritako atxikimendu bereiztuak aurreratzen dabezala baieztatzea zilegi da. Era berean da adierazgarria, Ezker Abertzaleak bere politika ekimenen aplikazio esparru moduan Euskal Herria ezartzea, edota Ezker Anitzak Espainiar Estatu egitea. Izan be, esana da, Ezker Abertzaleak euskaraz egikaritutako dan Euskal Herriaren nazio eta estatu eraikuntza dauala xede nagusi eta Ezker Anitzaren goi helburua Estatu Federal nazio, kultura eta hizkuntza anitza dala.

Dana dala, hizkuntza politika baten informazio ideologikoa aztertzerakoan esaten dana besteko garrantzitsua da hizkuntza politikan proposatzen ez dana. Zentzu horretan, nabarmendu beharrekoa da PPK bere hizkuntza politikaren azken helburuak erakusteari eskaini deutson tarte eskas eskasa. Danean, PPK ez dau euskararen normalizazioa helburutzat ezarri, ezta elebitasuna bera be. PPK euskararen normalizazioa lortzeko nahia ez esplizitatzeak alderdiaren normalizazioarekiko konpromiso eza agertzen dau. Are argitasun handiagoz alderdiak euskara indarbarritzeko neurririk ia bideratu ez dauala kontuan hartzen bada. Beste behin, ekimen gabezia konpromiso ezagaz, arabere euskararen normalizazio borondate ezagaz lotu daiteke.

Holan be, alderdi politikoez hizkuntza politikan proposatzen ez daben guztia borondate ezagaz alkarlotzea errakuntza litzateke. Esaterako, EAJk elebitasunaren eta hizkuntza aukera askatasunaren aldeko hautu argia burutu dauan arren, bere hizkuntza politika ia osoa euskarari zuzendu deutso. Pentsatzekoa da, gaztelania ekimenen jasotzaile moduan ez ezartzeko arrazoia, neurri batean behintzat, alderdiak gaztelaniaren presentzia bermatutzat jotzen dauala izatea; eta barriz, euskara desabantailan dagoen hizkuntza izanik, sustapen ekimenak jasotzeko beharra berari dagokiola hausnartzea. Pareko hautua izan daiteke Ezker Anitzarena.

Hizkuntza politika bera eduki ideologikoz bustita badago, aproposa da galdetzea alderdi politikoez esplizitu egiten dabezan adierazpen ideologikoen eta hizkuntza politikaren baitan zeharka eskainitako informazio ideologikoen artean jarraipena ala etadura dagoen. Hau da, alderdi politikoak zein neurritan diren koherenteak ala kontraesankorrek euren diskurtsoan eskaintzen dabezan mezu ideologikoetan. EAJ, Ezker Anitza eta Ezker Abertzalearen kasuan, orotara, koherentzia nabarmena da. PPren eta, are gehiago, PSE-EEren kasuan egoera bestelakoa da. Adibide argia hizkuntza eskubideena da. Azken bi alderdi politikoez herritarren hizkuntza aukera askatasuna defendatu izan dabe, baina aukera askatasun hori bideragarri egiteko ekimenak proposatu ordez, indarrean dagozan neurriak kritikatu dabez gogor baztertzaille eta inposatzaile direlakoan.

Jarraipen ezaren beste adibide argi bat PSE-EEren eskutik dator. Alderdiak askotan elebitasunaren defendatzaile eta elebakartasunaren aurkako aurkeztu dau bere burua, elebitasunaren onurak eta aberastasuna behin baino gehiagotan azpimarratuz. Hori horrela, hizkuntza politika neurrietan kritikagai izan dauan elebakartasun arrisku bakarra herri euskaldunetako herri administrazioan euskara lehenestea izan da. Kontrara, gaztelania jaun

eta jabe dan esparru askotan elebitasuna indartzeko alderdiaren konpromisoa oso murrizta izan da.

Ildo horretan, era berean da interesgarria PSE-EEK eta PPK euskara eta gaztelaniari atxiki deusiezan balioen gainean hausnarketa egitea. Bi alderdiak euskal unibertsoaren baitan euskarari estatus berezia atxikitzearen kontra agertu dira. Horren ordez, euskara eta gaztelania biak euskaldunen berezko hizkuntza, ondare kultural, identitatearen atal moduan azaldu dabez. Lehenengo irakurketa batean bi alderdiok euskara eta gaztelaniarentzako estatus berbera aldarrikatzen dagozala pentsatu daiteke. Barriz, maila praktikoan euskarari eskaintzen deusiezan politika esparru apurrak eta gaztelaniarentzako babesten dabez ugariak aintzat hartuta -betiere, bazterketa eta inposaketarik eza kokatuz jarrera horren justifikagarri-, balio-estatus bardintasunarekiko alderdion hautua zalantzan jarri daiteke. Ikuspuntu hori indartzera dator PPK inoiz gaztelaniaren gorazarrea be egin dauala; euskaldunei unibertsaltasuna eskaintzen deutsona gaztelania dala baieztatuz.

Interes berezia dauka aipatzeak, PSE-EEK euskarari zuzendutako adierazpen ideologiko, zuzen zein zeharkakoen, eta proposatutako ekimen politikoaren artean etendurak agerikoak diren bitartean, ingelesaren kasuan jarrera arteza dala. Hau da, alderdiak ingelesarekiko agertutako lekutze ideologikoak hizkuntza politikan dau isla zuzena. PSE-EErentzat ingelesa nazioartegaz konektatzeko bidea da, Europar Batasunera zabaltzekoa, ekonomiaren nazioartekotzeari arrakastaz erantzutzekoa, modernitateari ateak zabaltzekoa. Eta hori bideragarri egiteko, ingelesaren ikasketa eta gizarteko esparru desbardinetan bere presentzia indartzeko neurri aurrerazaleak proposatu dauz. Era berean da azpimarragarria, euskararekiko alderdiaren jarrera ez dala inondik inora ingelesarena besteko aurrerakoia. Egitez, PSE-EEK ingelesa euskararentzako ekimen iturri izan ez diren esparruetan barneratu dau eta, are gehiago, euskararen politiketan baztertzaila moduan jo dauzan proposamen antzekoak ingelesari bai bideratu deutsoz.

Esandako guztiak aintzat hartuta, baieztatu daiteke alderdi politikoaren adierazpen ideologikoen euren hizkuntza politika neurriak azaltzen dabezala? Erantzuna baiezkoa dala dirudi, baina ñabardurekaz. Aztergai diren alderdi politikoaren diskurtsoaren gehiengoa bildu dauan euskararengan -eta, alderdiaren arabera, bere inguruan bildu dauzan gaztelania, frantsesa, Espainiar Estatuko eskualdeko hizkuntzetan- arreta jarriz gero, bere hizkuntza politikaren grabitate ideologikoa agerikoa dala esan daiteke zenbait alderdi politikotan. EAJren kasuan, euskara euskaldunen berezko hizkuntza moduan sentitzeak dakar bere aldeko sustapen politika. Ezker Abertzaleak euskara Euskal Herriaren nazio hizkuntza moduan dauka; euskal nazioaren erakusle baina, era berean, euskal nazioaren eraikitzaile. Zentzu horretan, euskarari zuzendutako hizkuntza politikak alderdiaren nazio eraikuntza proiektu zabalagoari erantzuten deutso. Ezker Anitzaren hizkuntza politikaren oinarrian lekuan lekuko bereizgarri linguistiko, nazional eta kulturalaren aitortza, errespetua eta babesa dago. Gainera, Ezker Anitzak, Ezker Abertzalearen antzera, proiektu politiko definitua dauka. Hain zuzen, Estatu Federal hizkuntza, nazio eta kultura anitza, parekidetasunean oinarritua. PPrene euskararen hizkuntza politika erreaktiboaren atzean askatasun indibidualaren handiespena aurkitu daiteke.

Ordea, PSE-EEren kasuan euskarari bideratutako hizkuntza politiken motibazio ideologiko zentrala ez dago horren argi; bere hizkuntza politikaren grabitate ideologikoa marratzen dauan funtsa, egotekotan, lausoagoa da. Esan daiteke, hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren arteko etendurek berau identifikatzea zaildu egiten dabela. Izan daiteke, PSE-EEren lekutze ideologikoaren oinarrian bazterketarik eta inposaketarik eza, herritarren borondatea edota bizikidetzeta linguistikoa egotea? Ala posible da PSE-EEren sakoneko lekutzea, alderdiaren grabitate ideologikoa, ezkutuan egotea?

## 5. 1.1. ITXIERA: AZKEN GOGOETA TEORIKOA EAE-KO ALDERDI POLITIKOEN LEKU-HARTZE LINGUISTIKOAZ

Ikerketa honen abiapuntua EAeko alderdi politikoen leku-hartze linguistikoa izan da; alderdien hizkuntzen gaineko proposamen politikoen eta ideia-sistemen uztardura. Bi errealitateon azterketa bateratua aurre-suposaketa batetatik abiatu da: hizkuntza politikak ez direla neutralak, hizkuntzen gaineko ideiek eraginduak, baldintzatuak dagozala. Eta hortaz, hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren azterketa bateratuak agente politikoen hizkuntza politikak sakontasunean ulertzeko gakoak eskaini eta jarrera hartze linguistikoak modu osoagoan islatu daikiezala. Lan honetan aurreikuspenok baieztatu egin dira: hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren azterketa uztartuak azalpen teoriko aberasgarriak eskaintzen dauz. Are gehiago, etorkizunerako ikuspegi teoriko emonkor eta diziplinartekoari bidea zabaltzen deutso.

Ikerketa lan honetan abiarazitako ikuspegi teorikoak, oinarrian, zera proposatzen dau: batetik, hizkuntza politikaren azterketetan inplizituki presente dagoan atal ideologikoa bereiztea, esplizitatzea eta balioan jartzea; eta bestetik, hizkuntza politikaren ikerketari hizkuntza ideologiaren geruza analitikoa gehitzea. Izan be, geruza analitikoaren bateratze horrek azalpen indar handiagoko deskribapenei bidea zabaltzen deutse.

Azken gogoeta honetan, leku-hartze linguistikoaren izaeraz hausnartu gura da, lau ideia zentral mahaigaineratuz:

- I. Leku-hartze linguistikoaren bi zutabeak ekimenak (hizkuntza politika) eta ideiak (hizkuntza ideologia) diran arren, agente politiko batek agertutako leku-hartze linguistikoari beste zenbait elementuk be eragin leikie. Adibidez, alderdi politikoak bere leku-hartze linguistikoa plazaratzen dauan testuinguruak eta bere ezaugarriek. Jakina da hauteskunde garaian alderdi politikoek euren diskurtsoa asko neurtzen dabela, helburua herritarren aldetik ahalik eta botorik gehien lortzea baita. Hauteskundeak norgehiagoka politiko handiko garaia dira eta alderdien arteko desbardintze-bardintze ahaleginak be inoiz eta agerikoan bilakatzen dira. Horrek guztiak alderdi politikoek hauteskunde programetan agertzen daben diskurtsoan, leku-hartze linguistikoan

eragingo dauala pentsatzekoa da. Beraz, leku-hartze linguistikoa aztertzerakoan testuingurua aintzat hartuta jardutea zentrala bilakatzen da.

- II. Leku-hartze linguistikoak ez dira errealitate bakunak. Gehiago dira errealitate konplexu eta dimentsio anitzak; aurpegi amaibako errealitate poliedrikoak. Horrek agente politiko baten leku-hartze linguistikoa modu erabatekoan agertzea erabat zailtzen dau. Barriz, gai jakinekiko leku-hartzeak aztertzea egingarriagoa da. Esaterako, hizkuntza bizikidetzat hartuta beren gaineko leku-hartzeak aztertzea, ofizialtasun erregimenaren baitan alderdi politikoek agertzen dabezan posizioak ikertzea, etab. Hain zuzen, horixe da ikerketa lan honetan egin dana; baina alor batzuk bakarrik galdegai hartuta. Hortaz, etorkizunari begira EAeko alderdi politikoaren leku-hartze linguistikoaren inguruan ikertzen jarraitzeko aukerak asko dira. Interesgarria litzateke, adibidez, EAeko alderdi politikoek eleaniztasunaren gainean agertzen dabezan leku-hartze linguistikoak sakontasunean aztertzea eta urteen joanean izandako aldaketak identifikatzea. Izan be, jakina da azken hamarkadetan herrialde askotan elebakartasunaren eta eleaniztasunaren balorazioek aldaketak jasan dabezala, elebakartasunari gorengo balioa eskaintzetik eleaniztasuna estimatzera igaro direla, maila teorikoan behinik behin.
- III. Leku-hartze linguistikoaren oinarri diran hizkuntza politikek eta hizkuntza ideologiek azalpen geruza desbardinak dabez. Hizkuntza ideologiaren kasuan, esaterako, ideologia mikro eta makroez hitz egin daiteke, baita mikrotik makrora doan etenbako ibilbideaz be. Geruza guztiok alderdien leku-hartze linguistikoaren gainean informazioa gehigarria eskaintzen dabe. Ikerketa lanean hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia makroak izan dira aztergai eta zenbaitetan hizkuntzei zuzenean lotutako erreferentzia esparrua gaindituta jardun da. Nagusiki, hizkuntzak nazio eta estatu eraikuntza ideologia zabalagoaren baitan kokatu diranean. Edozelan be, leku-hartze linguistikoa ikuspegi mikroagotik aztertzea be interesgarria litzateke oso.
- IV. Aztertutako dokumentuetan agerikoa egin da alderdi politikoek ez dabela sarri leku-hartze erabat koherenterik aurkezten. Are gehiago, batzuetan alderdien ikuspegiak kontraesanean agertzen dira. Ikerketa lanean etendurak ageriko egin dira alderdi politiko batzuen ekimen politikoaren eta adierazpen ideologikoen artean. Horrek aditzera emoten dau zenbaitetan alderdi politikoaren leku-hartzeen identifikazioa zaila gertuta daitekela, ondorio eztabaidaezinak proposatzea ezinezko bihurtuz.

Beraz, EAeko alderdi politikoaren leku-hartze linguistikoaren gaineko azken azalpen gogobetekorik eskaintzea ez da posible. Alderdi politikoaren leku-hartze linguistikoaren argazkia nahitaez izango da fazetatua, probisionala, eztabaidatua.



## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

### 6. I. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

---

- Alonso, S., Volkens, A. & Gómez, B. (2012). Análisis de contenido de textos políticos. Un enfoque cualitativo. *Cuadernos Metodológicos*, 047. Madrid: CIS.
- Amorrortu, E.; Ortega, A.; Idiazabal, I.; Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aur-reiritziak eta jarrerak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Anderson, B. (1991). *Imagined Communities*. New York: Courier Companies.
- Archibugi, D. (2005). The language of democracy: Vernacular or Esperanto? A comparison between the multiculturalism and cosmopolitan perspectives. *Political Studies*, 53(3), 537–555 or.
- Auñamendi Euskal Entziklopedia (2010). *Hizkuntza Ideologia*. Helbidea: <http://www.eusko-media.org/aunamendi/ee152150/136227>
- Bara, J. (2005). A Question of Trust: Implementing Party Manifestos. *Parliamentary Affairs*, 58(3), 585–599 or.
- Bara, J., Weale, A. & Biquelet, A. (2007). Analyzing parliamentary debate with computer assistance. *Swiss Political Science Review*, 13(4), 577–605 or.
- Barry, B. (2001). *Culture and Equality: An Egalitarian Critique of Multiculturalism*. Massachusetts: Harvard University Press.
- Beacco, J.C. (2001). Les idéologies linguistiques et le plurilinguisme. *Le Français dans le Monde*, 314. Helbidea: [http://www.observatoireplurilinguisme.eu/index.php?option=com\\_content&view=article&id=2210:les-ideologies-linguistiques-et-le-plurilinguisme-j-c-beacco&catid=88889013&Itemid=88888984&lang=es](http://www.observatoireplurilinguisme.eu/index.php?option=com_content&view=article&id=2210:les-ideologies-linguistiques-et-le-plurilinguisme-j-c-beacco&catid=88889013&Itemid=88888984&lang=es)
- Berelson, B. (1952). *Content Analysis in Communication Research*. Glencoe, IL: Free Press.
- Berg, B. (2000). *Qualitative research methods for the social sciences*. Needham Heights, MA: Allyn and Bacon.

- Bergentoft, R. (1994). Foreign language instruction: A comparative perspective. *The Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 532(1), 8–34 or.
- Bertile, V. (2008). *Langues régionales ou minoritaires et Constitution. France, Espagne et Italie*. Bruxelles: Bruylant.
- Billig, M. (1995). *Banal Nationalism*. London: Sage.
- Blake, M. (2003). Language death and liberal politics. In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (210–229 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Blas, A. (2011). *Modelos de democracia en las comunidades autónomas: el caso del País Vasco*. Leioa: EHU-UPV. [Doktorego tesia]
- Blommaert, J. (2006). Language Policy and National Identity. In T. Ricento (editorea), *An Introduction to Language Policy: Theory and Method* (238–254 or.). Oxford: Blackwell.
- Boix-Fuster, E. & Strubell, M. (2011). *Democratic policies for language revitalisation: the case of Catalan*. Hamshire: Palgrave Macmillan.
- Boix-Fuster, E. & Vila, X. (1998). *Sociolingüística de la llengua catalana*. Barcelona: Ariel.
- Boix-Fuster, E. (2003). *Aménagement linguistique dans le pays de langue catalane*. Paris: L'Harmattan.
- Bourdieu, P. (1985). ¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos. Madrid: Akal.
- Branchadell, A. (1996). *La normalitat improbable*. Barcelona: Empúries.
- Branchadell, A. (1997). *Liberalisme i normalització lingüística*. Barcelona: Empúries.
- Branchadell, A. (2003). L'aménagement du statut les modèles de politiques linguistiques et la langue catalane depuis la transition politique espagnole. In E. Boix-Fuster & A. Millian i Massana (editoreak), *Aménagement linguistique dans les pays de langue catalane* (23–43 or.). Paris: L'Harmattan.
- Branchadell, A. (2005). *La moralitat de la política lingüística. Un estudi comparat de la legitimitat liberaldemocrática de les polítiques lingüístiques del Quebec y Catalunya*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans.

- Brenzinger, M. (1997). Language contact and language displacement. In F. Coulmas (editeora), *The Handbook of Sociolinguistics* (273–284 or.). Oxford: Blackwell.
- Bucy, E. P. & Holbert, R. L. (2013). *The Sourcebook of Political Communication Research. Methods, Measures and Political Techniques*. Oxon: Routledge.
- Burns, N. & Grove, S. K. (2005). *The Practice of Nursing Research Conduct, Critique & Utilization*. St. Louis: Elsevier Saunders.
- Calvet, L. J. (1997). *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot.
- Calvet, L. J. (1999). *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- Calvet, L. J. (2002). *Le marché aux langues. Les effets linguistiques de la mondialisation*. Paris: Plon.
- Carens, J. (2000). *Culture, Citizenship and Community: A Contextual Exploration of Justice as Even handedness*. Oxford: Oxford University Press.
- Carrasco, R. (1990). Notes sobre l'activitat de foment: estat de la qüestió en la doctrina i consideracions sobre el seu règim jurídic. Foment i normalització lingüística. *Llengua i Dret*, 14, 207–221 or.
- CIS (2012b). *Estudio nº 2956. Barómetro Autonómico (III) (Comunidad autónoma del País Vasco)*. Iraila-urria Helbidea: [http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2940\\_2959/2956/PAIS\\_VASCO\\_16/Es2956PV.pdf](http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/2940_2959/2956/PAIS_VASCO_16/Es2956PV.pdf)
- Cobarrubias, J. (1983). Ethical Issues in Status Planning. In J. Cobarrubias & J. A. Fishman (editoreak), *Progress in language planning: International perspectives*. Germany: Mouton Publishers.
- Collerette, P. & Delisle, G. (1988). *La planificación del cambio. Estrategias de adaptación para las organizaciones*. México: Trillas.
- Connor, W. (1998). *Etnonacionalismo*. Madrid: Trama.
- Cooper, R. L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Costa, J. (2003). Catalan linguistic policy: liberal or illiberal? *Nations and Nationalism*, 9(3), 413–432 or.



- Cotarelo, R. (1985). *Los Partidos Políticos*. Madrid: Sistema.
- Crystal, D. (2000). *Language Death*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Crystal, D. (2003). *English as a Global Language*. New York: Cambridge University Press.
- Crystal, D. (2010). *The Cambridge Encyclopedia of Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- De la Peña, A. (2001). *La presencia de los valores postmaterialistas en el discurso de la izquierda política vasca (1980-1998)*. Leioa: EHU-UPV.
- De Schutter, H. (2007). Language policy and political philosophy: On the emerging linguistic justice debate. *Language Problems & Language Planning*, 31(1), 1-23 or.
- De Swaan, A. (2001). *Words of the World: The Global Language System*. Cambridge: Polity Press.
- Del Valle, J. (2007). *La lengua, ¿patria común? Ideas e ideologías del español*. Madrid: Vervuert.
- Dey, I. (1993). *Qualitative Data Analysis. A User-Friendly Guide for Social Scientists*. London: Routledge.
- Edwards, J. (1994) *Multilingualism*. London: Routledge.
- Erize, X. (2001). El discurso contrario a la “normalización” de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46, 661–682 or.
- Esman, M. J. (1992). The state and language policy. *International Political Science Review*, 13(4), 281–396 or.
- Fasold, R. (1984). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford: Blackwell.
- Fishman, J. A., Das Gupta, J., Jernudd, B. H. & Rubin, J. (1971). Research Outline for Comparative Studies of Language Planning. In J. Rubin & B. H. Jernudd (editoreak), *Can Language Be Planned?* (293–306 or.). Honolulu: University of Hawaii.
- Gal, S. (2011). Sociolinguistic Regimes and the Management of Diversity. In A. Duchane & M. Heller (editoreak), *Language in Late Capitalism: Pride and Profit* (22–42 or.). New York: Routledge.
- Garrido, J. (2010). Lengua y globalización: inglés global y español pluricéntrico. *Historia y Comunicación Social*, 15, 63-95 or.

- Giner, S. & Lamo de Espinosa, E. (1998). *Diccionario de Sociología*. Madrid: Alianza.
- Giner, S. (1987). *Ensayos civiles*. Barcelona: Nexos.
- Gómez, B. & Cabeza, L. (2014). Ideología y actitudes hacia el Estado de Bienestar. In *Hitzaldi-zikloa. Gizarte Politikak praktikatik*. Gizarte Politiken Behatokia ikasgairako presatutako hitzaldia. Deustuko Unibertsitatea. [Argitaratu gabea]
- Graddol, D. (1998). *The future of English*. London: The British Council.
- Graddol, D. (2006). *English Next. Why Global English may mean the end of English as a Foreign Language*. London: British Council.
- Green, L. (1987). Are fundamental rights fundamental? *Osgood Hall Law Journal*, 25(4), 639–669 or.
- Guibernau, M. (1996). *Los nacionalismos*. Barcelona: Ariel.
- Heller, M. & Duchene, A. (2011). Pride and Profit: Changing Discourses of Language, Capital and Nation-State. In A. Duchane & M. Heller (editoreak), *Language in Late Capitalism: Pride and Profit* (1–21 or.). New York: Routledge.
- Hernández, J. M., Olaso, O. & Martínez de Luna, I. (2006). Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language. In M. J. Azurmendi & I. Martínez de Luna (editoreak), *The case of Basque: past, present and future* (103–117 or.). Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Hippler, J. (2002). Ethnicity, State, and Nation Building. Experiences, Policies and Conceptualization. In *Nation-Building in the Globalisation Process. A contribution to regional stability and global security?* University Club, Bonn. Helbidea: <http://www.jochenhippler.de/html/ethnicity- state- and nation-building.html>
- Hjarvard, S. (2004). Media, Globalization and Identity: How the Media Contribute to the Spread of English and the Emergence of Medialects. *Media, Globalization and Identity. Plenary Session III*, 75–97 or. Helbidea: <http://denizo.opia.dk/la.trezorejo/alilingve/hjarvard.The.Globalization.of.Language.pdf>
- Hofferbert, R., Klingemann, H.-D. & Volkens, A. (1995). Election Programmes, Government Statements and Political Action. Political Parties and their Programmes. In J. Thesing & W. Hofmeister (editoreak), *Political Parties in Democracy. Role and Functions of Political Parties in the Political System of the Federal Republic of German*. Sankt Augustin: Konrad Adenauer Stiftung.

- Hohenthal, A. (1998). English in India: A study of language attitudes. Helbidea: [fil http://www.researchgate.net/publication/255055419\\_ENGLISH\\_IN\\_INDIA\\_A\\_STUDY\\_OF\\_LANGUAGE\\_ATTITUDES](http://www.researchgate.net/publication/255055419_ENGLISH_IN_INDIA_A_STUDY_OF_LANGUAGE_ATTITUDES)
- Holsti, O. R. (1969). *Content analysis for the social sciences and humanities*. Massachusetts: Addison-Wesley.
- Hornberger, N. H. (2002). Multilingual language policies and the continua of biliteracy: An ecological approach. *Language Policy*, 1(1), 27–51 or.
- Hutcheon, P. D. (1972). Value theory: towards conceptual clarification. *The British Journal of Sociology (ber-inprimatua)*, 23, 172–187 or. Helbidea: [http://www.ics.uci.edu/~vid/Readings/Hutcheon\\_1972\\_Value\\_Theory.pdf](http://www.ics.uci.edu/~vid/Readings/Hutcheon_1972_Value_Theory.pdf)
- Ignatieff, M. (1993). *Blood and Belonging: Journeys Into the New Nationalism*. New York: Farrar, Straus and Giroux.
- Inglehart, R. (1977). *The Silent Revolution: Changing Values and Political Styles Among Western Publics*. Princeton: Princeton University Press.
- Inglehart, R. (1997). *Modernization and Postmodernization: Cultural, Economic, and Political Change in 43 Societies*. Princeton: Princeton University Press.
- Jausoro, N. (1996). *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Leioa: EHU-UPV. [Doktorego tesia]
- Joseph, J. E. & Taylor, T. J. (1990). *Ideologies of language*. New York: Routledge.
- Kachru, B. (1985). Standards, codification and sociolinguistic realism: the English language in the Outer circle. In R. Quirk, H.G. Widdowson, Y. Cantù (editoreak), *English in the World: Teaching and Learning the Language and Literatures* (11–30 or.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Kaplan, R. B. & Baldauf, R. B. (1997). *Language planning from practice to theory*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Kasares, P. (2004). *Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian. Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- Kloss, H. (1969). *Research Problems on Group Bilingualism: a Report*. Quebec: International Centre for Research on Bilingualism.

- Kloss, H. (1971). Language Rights of Immigrant Groups. *International Migration Review*, 5(2), 250–268 or.
- Kloss, H. (1977). *The American Bilingual Tradition*. Rowley: Newbury House.
- Krauss, M., Maffi, L. & Yamamoto, A. (2004). The World's Languages in Crisis: Questions, Challenges, and a Call for Action. In O. Sakiyama, F. Endo, H. Watanabe & F. Sasama (editoreak), *Lectures on Endangered Languages 4* (23–27 or.). Suita, Osaka: The Project "Endangered Languages of the Pacific Rim.
- Krippendorff, K. (2004). *Content analysis: An introduction to its methodology*. London: Sage.
- Kukathas, C. (2003) *The Liberal Archipelago. A Theory of Diversity and Freedom*. New York: Oxford University Press.
- Kymlicka, W. & Patten, A. (2003). *Language rights and political theory*. Oxford: Oxford University Press.
- Kymlicka, W. (1995). *Multicultural Citizenchip*. Oxford: Oxford University Press.
- Kymlicka, W. (2001). *Politics in the vernacular : nationalism, multiculturalism, and citizenship*. Oxford: Oxford University Press.
- Laitin, D. D. & Reich, R. (2003). A Liberal Democratic Approach to Language Justice. In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (80–104 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Lambert, R. (2005). Language Policy around the World. In D. Ingram, D. Cunningham & A. Hatoss (editoreak), *An International Perspective on Language Policies, Practices and Proficiencies* (21–36 or.). Rumania: Fédération Internationale des Professeurs de Langues Vivantes.
- Lamuela, X. (1994). Estandardització i establiment de les llengües. *Edicions 62*. Barcelona: Edicions 62.
- Larrañaga, N. (1996). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta bere eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Deustuko Unibertsitatea. [Doktorego tesia]
- Leonisio, R. (2013). *Discurso político de los socialistas vascos. Un análisis cuantitativo y cualitativo*. Leioa: EHU-UPV. [Doktorego tesia]

- Lewis, H. (2013b). On the Right to Linguistic Survival. *Regional & Federal Studies*, 23(1), 87–99 or.
- Lewis, M.-P. (editorea) (2009). *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas: SIL International. Helbidea: <http://www.ethnologue.com/16>
- Lijphart, A. (1977). *Democracy in Plural Societies: A Comparative Exploration*. New Haven: Yale University Press.
- Lijphart, A. (1991). *Las democracias contemporáneas*. Barcelona: Ariel.
- Mackey, W. F. (1968). The description of bilingualism. In J. A. Fishman (editorea), *Readings in the Sociology of Language* (554–584 or.). The Hauge: Mouton.
- Mackey, W. F. (1975). *Les états multilingues*. Québec: CIRB.
- Maio, G., Olson, J., Bernard, M. & Luke, M. (2006). Ideologies, values, attitudes and behaviour. In J. Delamater (editorea), *Handbook of Social Psychology* (283–308 or.). USA: Springer.
- Marí, I. (1992). *Un horitzó per la llengua. Aspectes de la planificació lingüística*. Barcelona: Empúries.
- Marko, J. (2009). *Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa. Dinamizazio soziolinguistikoa Gizarte Pedagogiaren baitan*. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. EHU-UPV. [Doktorego tesia]
- Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyant, C., Uranga, B., Amorrotu, E. (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbao: Unesco Etxea, EHU-UPV.
- Martínez de Luna, I. & Jausoro, N. (1998). Euskararekiko motibazio simbolikoak. In J. Intsausti (editorea), *Euskararen aldeko motibazioak* (69–136 or.). Leioa: EHU-UPV.
- Martínez de Luna, I. (1996) Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 18. 39-52 or.
- Martínez de Luna, I. (1998). Universos simbólicos e identificación etnopolítica en su relación con el euskera y el castellano. In I. Urkullu (editorea), *Nacionalismo vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia. Cultura vasca y euskera, ejes de la identidad nacionalista* (143–161 or.). Bilbao: Fundación Sabino Arana.

- Martínez de Luna, I. (2012). Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak. In *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herritartasuna eta kultura* (151–168 or.). Bilbo: Ipar Hegoa.
- Mateos, T. (2000). *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua. Soziologiazko Euskal koadernoak 5 - Cuadernos Sociológicos Vascos 5*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia. [Doktorego tesia]
- May, S. (2001). *Language Rights and Minority Rights*. Malaysia: Longman.
- May, S. (2003). Rearticulating the Case for Minority Language Rights. *Current Issues in Language Planning*, 4(2), 95-125 or.
- May, S. (2005). Language Rights: Moving the debate forward? *Journal of Sociolinguistics*, 9(3), 319–349 or.
- May, S. (2012). *Language and Minority Rights. Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*. New York: Taylor & Francis.
- Mayring, P. (2000). Qualitative Content Analysis. *Forum Qualitative Sozialforschung - Social Research*, 1(2). Helbidea: <http://www.utsc.utoronto.ca/~kmacd/IDSC10/Readings/Readings/text%20analysis/CA.pdf>
- McRae, K. (1970). The Constitutional Protection of Linguistic Rights in Bilingual and Multilingual States. In A. Gotlied (editorea) *Human Rights, Federalism and Minorities* (211–227 or.). Toronto: Canadian Institute for International Affairs.
- McRae, K. (1975). The Principle of Territoriality and the Principle of Personality in Multilingual States. *International Journal of the Sociology of Language*, 4, 33–54 or.
- McRae, K. (1994). El establecimiento de una política lingüística en sociedades plurilingües: cinco dimensiones cruciales. In A. Bastardas i Boada & E. Boix-Fuster (editoreak), *¿Un estado una lengua? La organización política de la diversidad lingüística* (75–98 or.). Barcelona: Octaedro.
- Milian i Massana, A. (1984). La regulación constitucional del multilingüismo. *Revista Española de Derecho Constitucional*, 4(10), 123–154 or.
- Milian i Massana, A. (1992). *Drets lingüístics i dret fonamental a l'educació: Un estudi comparat: Itàlia, Bèlgica, Suïssa, el Canadà y Espanya*. Barcelona: Institut d'Estudis Autònoms.

- Milian i Massana, A. (2000). *Público y privado en la normalización lingüística. Cuatro estudios sobre derechos lingüísticos*. Barcelona: Institut d'Estudis Autònomic.
- Mill, J. S. (1991). Considerations on Representative Government. In J. Gray (editorea), *On Liberty and Other Essays* (203–467 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Moreno Cabrera, J. C. (2000). *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza.
- Moreno Cabrera, J. C. (2008). *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Barcelona: Península.
- Moreno Cabrera, J. C. (2014). *Los dominios del español: guía del imperialismo lingüístico panhispánico*. Euphonía Ediciones. Helbidea: <http://www.euphoniaediciones.com>
- Moustaoui, A. (2007). *Lenguas, identidades y discursos en Marruecos: la pugna por la legitimidad*. Universitat Autònoma de Barcelona. [Doktorego tesia]
- Musschenga, A. W. (1998). Intrinsic value as a reason for the preservation of minority cultures. *Ethical Theory & Moral Practice*, 1(2), 201–225 or.
- Nelde, P., Strubell, M. & Williams, G. (1996). *Euromosaic. The production and reproduction of the minority language groups of the EU*. Luxembourg: Office for Official Publications of the European Communities.
- Ninyoles, R. L. (1975). *Estructura social y política lingüística*. Valencia: Bernardo Torres.
- Patten, A. (2001). Political Theory and Language Policy. *Political Theory*, 29, 691–715 or.
- Patten, A. (2003). What kind of Bilingualism? In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (296–321 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Patten, A. (2009). The Justification of Minority Language Rights. *Journal of Political Philosophy*, 17(1), 102–128 or.
- Payne, M. (2007). Foreign language planning: towards a supporting framework. *Language Problems & Language Planning*, 31(3), 235–256 or.
- Pennycook, A. (1994). *The cultural politics of English as an international language*. Harlow: Longman.

- Pérez-Díaz, V. (1986). El retorno de la sociedad civil. *Papeles de Economía Española*, 27/28, 99–121 or.
- Petrovic, J. & Kuntz, M. (2013). Strategies of reframing language policy in the liberal state. *Journal of Language and Politics*, 12(1), 126–146 or.
- Phillipson, R. & Skutnabb-Kangas, T. (1996). English only worldwide or language ecology? *Tesol Quarterly*, 30(3), 429–452 or.
- Phillipson, R. & Skutnabb-Kangas, T. (1997). Linguistic human rights and English in Europe. *World Englishes*, 16(1), 27–43 or.
- Phillipson, R. (1992). *Linguistic Imperialism*. Oxford: Oxford University Press.
- Phillipson, R. (1997). Realities and myths of linguistic imperialism. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 18(3), 238–248 or.
- Phillipson, R. (2006). Language Policy and Linguistic Imperialism. In T. Ricento (editorea), *An Introduction to Language Policy: Theory and Method* (346–361 or.). Oxford: Blackwell.
- Phillipson, R. (2009). *Linguistic Imperialism Continued*. Hyderabad: Orient Black Swan.
- Phillipson, R., Rannut, M. & Skutnabb-Kangas, T. (1994) “Introduction”. In T. Skutnabb-Kangas & R. Phillipson. *Linguistic Human Rights, Overcoming Linguistic Discrimination*. (1-22 or.) Berlin: Mouton de Gruyter.
- Pizzoruso, A. (1975). *Il pluralismo linguistico tra Stato nazionale e autonomie regionali*. 1975. Pisa: Pacini Editore.
- Pogge, T. (2003). Accommodation rights for Hispanics in the U.S. In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (105–122 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Ponterotto, J. G. & Grieger, I. (1999). In M. Kopala & L. A. Suzuki (editoreak), *Using Qualitative Methods in Psychology* (49–62). Thousand Oaks, CA: Sage.
- Pool, J. (1990). Language Regimes and Political Regimes. In B. Weinstein (editorea), *Language Policy and Political Development*. (241–262 or.). Norwood, NJ: Ablex.



- Proctor, R. W. & Capaldi, E. J. (2006). *Why science matters*. Malden, Oxford: Blackwell Publishing.
- Pueyo, M. & Turull, A. (2003). *Diversitat i política lingüística en un món global*. Barcelona: Pòrtic.
- Ralling, C. (1987). The Influence of Election Programmes: Britain and Canada 1945-1979. In I. Budge, D. Robertson & D. Hearl (editoreak), *Ideology, Strategy and Party Change. Spatial Analysis of Post-War Election Programmes in 19 Democracies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Réaume, D. (1994). The Group Right to Linguistic Security: Whose Rights, What duties? In J. Baker (editorea), *Group Rights* (118–141 or.). Toronto: University of Toronto Press.
- Réaume, D. (2000). Official-Language Rights: Intrinsic Value and the Protection of Difference. In W. Kymlicka & W. Norman (editoreak), *Citizenship in Diverse Societies* (245–272 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Réaume, D. (2003). Beyond Personality: The Territorial and Personal Principles of Language Policy Reconsidered. In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (271–295 or.). Oxford: Oxford University Press.
- Requejo, F. (2010) El fuste de la democracia liberal sigue siendo demasiado recto. In *Foro Interno*. 10, 51-70 or.
- Ricento, T. (2000a). Historical and theoretical perspectives in language policy and planning. *Journal of Sociolinguistics*, 4(2), 196–213 or.
- Ricento, T. (2000b). *Ideology, Politics and Language Policy. Focus on English*. Amsterdam: John Benjamin.
- Ricento, T. (2006). *An Introduction to Language Policy: Theory and Method*. Oxford: Blackwell.
- Roberge, P. T. (1990). The ideological profile of Afrikaans historical linguistics. In J. E. Joseph & T. J. Taylor (editoreak), *Ideologies of language* (131–152 or.). New York: Routledge.
- Rocheach, M. (1973). *The nature of human values*. New York: The Free Press.
- Rubio-Marín, R. (2003). Exploring the boundaries of language rights: insiders, newcomers, and natives. *Nomos*, 45, 136–173 or.
- Saldaña, J. (2009). *The Coding Manual for Qualitative Researchers*. London: Sage.

- Sartori, G. (1992). *Partidos y sistemas de partidos: marco para un análisis*. Madrid: Alianza.
- Schiffman, H. F. (1996). *Linguistic culture and language policy*. New York: Routledge.
- Schlereth, T. (1977). *The Cosmopolitan Ideal in Enlightenment Thought*. Southbend: University of Notre Dame.
- Segura-Ginard, L. (2011). Les llengües oficials en la doctrina recent del Tribunal Constitucional. *Revista de Llengua i Dret*, 56, 83–113 or.
- Seymour, M. (1999). On redefining the Nation. *The Monist*. 411-445 or.
- Shohamy, E. (2006). *Language policy: Hidden agendas and new approaches*. New York: Routledge.
- Siguan, M. (1996). Unidad y diversidad. Las políticas lingüísticas de los Estados Europeos. In M. Siguan (editorea), *La Europa de las lenguas* (1–22 or.). Madrid: Alianza.
- Siguan, M. (2001). *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madrid: Alianza.
- Skutnabb-Kangas, T. & Phillipson, R. (2008). A human rights perspective on language ecology. In *Encyclopedia of Language and Education* (3–14 or.). New York: Springer.
- Skutnabb-Kangas, T. (2006). Language Policy and Linguistic Human Rights. In T. Ricento (editorea), *An Introduction to Language Policy: Theory and Method* (273–291 or.). Oxford: Blackwell.
- Skutnabb-Kangas, T. (2008). *Language, Education and (violation of) Human Rights* Genevan emandako hitzaldia. Helbidea: <http://www.linguistic-rights.org/tove-skutnabb-kangas/> [Audioa]
- Smolicz, J. (1981). Core values and cultural identity. *Ethnic and Racial Studies*, 4(1), 75–90 or.
- Sonntag, S. K. (2009). Linguistic globalization and the call centre industry: Imperialism, hegemony or cosmopolitanism? *Language Policy*, 8(1), 5–25 or.
- Soriano, R. L. (1999). Política lingüística y derechos lingüísticos. *Revista de Llengua i Dret*, 32, 115–135 or.
- Spolsky, B. & Shohamy, E. (2000). Language Practice, Language Ideology and Language Policy. In R. D. Lambert, E. Shohamy & A. R. Walton (editoreak), *Language policy and pedagogy: Essays in honour of A. Ronald Walton*. Amsterdam: John Benjamins.

- Steger, M. (2009). *Globalization. A very short introduction*. Oxford: Oxford University Press.
- Stewart, W. A. (1968). A sociolinguistic typology for describing national multilingualism. In J. A. Fishman (editorea), *Readings in the Sociology of Language* (531–545 or.). The Hauge: Mouton.
- Stilz, A. (2009). Civic Nationalism and Language Policy. *Wiley Periodicals, Inc. Philosophy & Public Affairs*, 37(3), 257–292 or.
- Swann, A., Lillis, T. & Mesthrie, R. J. (2004). *A dictionary of sociolinguistics*. Edinburg: Edinburgh University Press.
- Tabouret-Keller, A. (1985). *Act of Identity. Creole-Based Approaches to Language and Ethnicity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Thoening, J.-C. & Mény, I. (1992). *Las políticas públicas*. Barcelona: Ariel.
- Toscano-Méndez, M. (2012). Language Rights as Collective Rights: Some Conceptual Considerations on Language Rights. *Res Pública: Revista de Filosofía Política*, 27, 109–118 or.
- Tsuda, Y. (1994). The diffusion of English: Its impact on culture and communication. *Keio Communication Review*, 16, 49–61 or.
- Urla, J. (2011). Total Quality Language Revival. In A. H. Duchane Monica (editoreak), *Language in Late Capitalism: Pride and Profit* (73–92 or.). New York: Routledge.
- Urrutia, I., Iñarritu, J. & Nikolas, Z. (2012). Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze juridiko-politikoa. In *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herri-gintza eta erakundeak* (55–83 or.). Bilbao: Ipar Hegoa.
- Van Dijk, T. A. (2006). *Ideología: una aproximación multidisciplinaria*. Barcelona: Gedisa.
- Van Parijs, P. (2000). Must Europe be Belgian? In C. McKinnon & I. Hampsher-Monk (editoreak), *The Demands of Citizenship*. London: Continuum.
- Van Parijs, P. (2011). *Linguistic Justice for Europe and for the World*. Oxford: Oxford University Press.
- Vernet, J. (1994). La regulación del plurilingüismo en la Administración española. In A. Bastardas & V. Boix (editoreak), *¿Un Estado una lengua? La organización política de la diversidad lingüística* (99–151 or.). Barcelona: Octaedro.

- Vernet, J. (koordinatzailea), Pons, E., Pou, A., Solé, J. R. & Pla, A. M. (2003). *Dret lingüístic*. Valls: Cossetània.
- Volkens, A. (2002). Manifesto Research: Past, Present, and Future. In D. Fuchs, E. Roller & B. Wessels (editoreak), *Bürger und Demokratie in Ost und West. Studien zur politischen Kultur und zum politischen Prozess. Festschrift für Hans-Dieter Klingemann*. Opladen: Westdeutscher Verlag.
- Weinstein, B. (1990). *Language Policy and Political Development*. Norwood, NJ: Ablex.
- Weinstock, D. M. (2003). The antinomy of language policy. In W. Kymlicka & A. Patten (editoreak), *Language Rights and Political Theory* (250–270 or). Oxford: Oxford University Press.
- Werner, A., Lacewell, O. & Volkens, A. (2011). Manifesto Coding Instructions (4th fully revised edition). Helbidea: [https://manifesto-project.wzb.eu/download/papers/handbook\\_v4.pdf](https://manifesto-project.wzb.eu/download/papers/handbook_v4.pdf)
- Williams, C. H. (2013). *Minority Language Promotion, Protection and Regulation: The Mask of Piety. Language and Globalisation*. Basingtoke: Palgrave Macmillan.
- Woolard, K. & Schieffelin, B. (1994). Language Ideology. *Annual Review of Anthropology*, 23, 55–82 or.
- Woolard, K. (1992). Language Ideology: Issue and Approaches. *International Pragmatics Association*, 2, 235–249 or.
- Wright, A. (2004). The Politics of Multiculturalism: A review of Brian Berry, 2001, Culture and equality: An egalitarian critique of multiculturalism. *Studies in Philosophy and Education*, 23(4), 299–311 or.
- Wurm, S. A. (2001). *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. Paris: UNESCO.
- Zabalo, J. & Mateos, T. (2005). Euskara euskal nazioaren funtsa, periferia erdaldunean ere? *Jakin*, 146/147, 165–182 or.
- Zarraga, A., Coyos, J.-B., Hernández, J. M., Joly, L., Larrea, I., V., M. L. (2010). *Soziolinguistikoa Eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. Bilbao
- Zubiaga, M. (2012). Euskal Estatua eta nazioa, ekintza kolektibo gisa: euskal estatugintzaz. In Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak (111–140 or.). Bilbao: Ipar Hegoa.

## 6. 2. AZTERKETA CORPUSA: EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDE PROGRAMAK

---

### 6. 2. 1. Euzko Alderdi Jeltzalea –Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)

---

EAJ-PNV (1980). *Programa de Gobierno del Partido Nacionalista Vasco.*

EAJ-PNV (1984). *Programa Electoral. Elecciones al Parlamento Vasco 1984.*

EAJ-PNV (1986). *Programa Electoral. Elecciones al Parlamento Vasco 1986.*

EAJ-PNV (1990). *Programa Electoral Autonómicas.*

EAJ-PNV (1994). *Programa Electoral. Elecciones Autonómicas '94.*

EAJ-PNV (1998). *Programa Electoral de EAJ-PNV. Elecciones al Parlamento Vasco. 25 de octubre de 1998.*

EAJ-PNV/EA (2001). *Programa electoral. Elecciones al Parlamento Vasco. 13 mayo 2001.*

EAJ-PNV/EA (2005). *Nuestro Contrato Social con Euskadi. Acuerdo-Programa de la Coalición PNV-EA con la Sociedad Vasca. 2005-II-28.*

EAJ-PNV (2009). *Ahora más. Programa electoral 2009. Más de 700 iniciativas a tu servicio.*

EAJ-PNV (2012). *Compromiso Euskadi. Programa Electoral 2012.*

### 6. 2. 2. Ezker Abertzalea [Herri Batasuna (HB), Euskal Herritarrok (EH), Euskal Herria Bildu (EHBildu)]

---

HB (1990). *Elecciones Autonómicas 28 Octubre 1990. Ejes Políticos Programáticos.*

HB (1994). *Euskal Herria de izquierdas y abertzale. Propuestas de acción política. Hacia la construcción de Euskal Herria.*

EH (1998). *Euskal Herritarrok. Elecciones 25 de octubre de 1990.*

EH (2001). *Acuerdo Nacional para la soberanía. Donostian, 2001eko martxoaren 31an.*

EHBildu (2012). *Programa Electoral 2012.*

### 6. 2. 3. Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra [Partido Socialista de Euskadi (PSE-PSOE), Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)]

---

PSOE (1980). *Programa de Gobierno. 9 de marzo 1980. PSOE.*

PSOE (1984). *Programa Electoral Elecciones Autonómicas 1984. Por la Paz.*

PSE-PSOE (1986). *Programa Electoral PSE-PSOE. Programa Electoral de Partido Socialista de Euskadi (PSOE) a las Elecciones Autonómicas del 30 de noviembre.*

PSE-PSOE (1990). *Elecciones al Parlamento Vasco 1990. Programa Electoral. PSE-PSOE.*

PSE-EE (1994). *Por un País para todos. Programa Electoral. Elecciones al Parlamento Vasco 1994.*

PSE-EE (1998). *Las Cosas Claras. Euskadi es de todos. Programa Electoral Autonómicas.*

PSE-EE (2001). *Programa Electoral 2001. Programa Electoral Autonómicas 2001.*

PSE-EE (2005). *Programa Elecciones Autonómicas País Vasco 2005. Una Euskadi de todos y para todos.*

PSE-EE (2009). *Programa Electoral Autonómicas 2009. Las elecciones del cambio.*

PSE-EE (2012). *Programa Electoral. Trabajar por lo importante.*

### 6. 2. 4. Partido Popular [Alianza Popular (AP), Partido Popular (PP)]

---

AP (1984). *Programa de Gobierno para el País Vasco (1984-1988).*

AP (1986). *Programa de Gobierno. País Vasco: Elecciones Autonómicas 86.*

PP (1990). *Elecciones al Parlamento Vasco 1990. El futuro es popular. Programa Electoral del Partido Popular del País Vasco.*

- PP (1994). *Programa de Gobierno. Nuestra tierra tiene otra fuerza.*
- PP (1998). *Por un País de todos. Programa de Gobierno. Elecciones al Parlamento Vasco 1998.*
- PP (2001). *Elecciones al Parlamento Vasco 2001. El compromiso de un gobierno para todos.*
- PP (2005). *Programa Electoral Elecciones Autonómicas 2005. Nuestro compromiso con todos los vascos.*
- PP (2009). *Hay solución. Tú decides. Programa Electoral. Elecciones Autonómicas 09.*
- PP (2012). *Programa electoral. +900 ideas pensando en Euskadi. Elecciones al Parlamento Vasco 2012.*

#### 6. 2. 5. Ezker Anitza [Izquierda Unida - Ezker Batua (IU-EB), Ezker Batua Berdeak (EB-berdeak), Ezker Anitza]

---

- IU-EB (1986). *Compromiso de Izquierda Unida - Ezker Batua con la sociedad vasca. Elecciones Autonómicas del 30 de noviembre 1986. Ezker Batuak euskal gizartearekin duen konpromezua.*
- IU-EB (1990). *Euskadi 1990. Vota Izquierda Unida - Ezker Batua. Otra forma de hacer política.*
- IU-EB (1994). *Programa Elecciones Autonómicas. Euskadi '91.*
- IU-EB (1998). *IU El voto solidario EB. Programa Electoral Autonómicas 1990. Por la paz, por el ejemplo. Por Euskadi ezkeraren ordua.*
- IU-EB (2001). *IU Ezker Batua. Una con todos. Un de todos. Elecciones Autonómicas 13-V-2001. Programa Electoral.*
- Ezker Batua Berdeak (2005). *Programa Electoral Elecciones Autonómicas. Tu decisión, la izquierda vasca. Zure aukera, hemengo ezkerria.*
- Ezker Batua Berdeak (2009). *Programa Autonómicas 2009. Euskadi: ante la crisis otro modelo económico, social y productivo es posible.*
- Ezker Anitza (2012). *Hauteskunde Programa Hauteskunde Autonomikoak 2012. Proposame-na Euskadi Ezkertiarra Helburu. Programa Electoral Elecciones Autonómicas 2012. Propuestas para una Euskadi de izquierdas.*

### 6. 3. DOKUMENTAZIO ZUZENA

---

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa*. In 32 EHAA, 1983ko azaroaren 24ean. Helbidea: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/euskara\\_legearen\\_itzulpen%20berria%20IZO.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/euskara_legearen_itzulpen%20berria%20IZO.pdf)
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, *Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri Eta Hobetzeari Buruzkoa*. In 106 NAO, 1982ko irailaren 3an. Helbidea: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published](http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published)
- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, *Euskarari buruzkoa*. In 154. NAO, 1986ko abenduaren 17an. Helbidea: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Vascuence/LF181986-04.htm](http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/IndicesPorDepartamentos/Educacion/Vascuence/LF181986-04.htm)
- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua*. In 12. EHAAn, 1980ko urtarrilaren 12an. Helbidea: [http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/e\\_estatuto.pdf](http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/e_estatuto.pdf)
- Constitución Española de 1978. In 311 BOE, 1978ko abenduaren 29an. Helbidea: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1978-31229>
- La Constitution du 4 octobre 1958 de la République française*, 1958ko urriaren 4koa. Helbidea: [http://www.assemblee-nationale.fr/connaissance/constitution\\_01-2015.pdf](http://www.assemblee-nationale.fr/connaissance/constitution_01-2015.pdf)
- Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa. In 159 BOE, 1986ko uztailaren 4koa. Helbidea: <https://www.boe.es/boe/dias/1986/07/04/pdfs/T00032-00034.pdf>
- Konstituzio Auzitegiaren 337/1994 Epaia, abenduaren 23koa. In 19 BOE, 1995ko urtarrilaren 23koa. Helbidea: <http://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/eu/Resolucion/Show/2854>
- Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 Epaia, ekainaren 28koa. In 172 BOE 2010eko uztailaren 16koa. Helbidea: [https://boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-11409](https://boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-11409)
- Europako Kontseilua (1992). *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*. Helbidea: <http://conventions.coe.int/Treaty/EN/Treaties/Html/148.htm>
- Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala*. Helbidea: <http://www.hikhasi.eus/docs/55/DEKLARAZIOA.pdf.pdf>
- Euskararen Aholku Batzordea (1983). *Euskararen politikarako oinarriak*. Zamudio: Eusko Jaurlaritza.



- Euskararen Aholku Batzordea (1998). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Helbidea: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/ebpn\\_eusk.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/ebpn_eusk.pdf)
- Euskararen Aholku Batzordea (2009). *Bases para la política lingüística de principios del siglo XXI*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Euskararen Aholku Batzordea (2013). *Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioan. IV. Plangintza (2008-2012). Ebaluazio txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Euskararen Aholku Batzordea (2013). *V. Plangintza. EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzza.
- Euskararen Aholku Batzordea (2014). Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia: V. plangintzaldia (2013-2017). In *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 16.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2011). *EBPNren Marko Orokorra. Esparrua Helburua Estrategia Ekintza*. Helbidea: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/2011\\_ebpn\\_deialdia/eu\\_deialdia/adjuntos/ebpnren\\_marko\\_oro Korra\\_eu.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/2011_ebpn_deialdia/eu_deialdia/adjuntos/ebpnren_marko_oro Korra_eu.pdf)

#### 6. 4. HELBIDE ELEKTRONIKOAK

---

- Euskal Erakunde Publikoa. Helbidea: [www.eke.org](http://www.eke.org)
- Euskal Herria Bildu. Helbidea: [www.ehbildu.eus](http://www.ehbildu.eus)
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Helbidea: <http://www.kontseilua.eus/>
- Euzko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco. Helbidea: [www.eaj-pnv.eus/](http://www.eaj-pnv.eus/)
- Eusko Jaurlaritzza. Helbidea: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
- Eusko Legebiltzarra. Helbidea: [www.legebiltzarra.eus/](http://www.legebiltzarra.eus/)
- Eustat. Euskal Estatistika Institutua. Helbidea: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)
- Ezker Abertzalea. Helbidea: [www.ezkerabertzalea.info](http://www.ezkerabertzalea.info)

Ezker Anitza – Izquierda Unida. Helbidea: [www.ezker-anitza-org](http://www.ezker-anitza-org)

Hizkuntza Eskubideen Behatokia. Helbidea: [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)

Manifesto Project. Helbidea: <https://manifestoproject.wzb.eu/>

Partido Popular del País Vasco. Helbidea: [www.ppvasco.com](http://www.ppvasco.com)

Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra. Partido Socialista Obrero Español. Helbidea: [www.socialistasvascos.com](http://www.socialistasvascos.com)

Regional Manifestos Project. Helbidea: <http://www.regionalmanifestosproject.com/>

Unesco. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. Helbidea: <http://www.unesco.org/>



## 7. ERANSKINA: KODIFIKAZIO LIBURUA

Eranskinak legebiltzarrerako hauteskunde programen eduki azterketa burutzeko eraiki dan kodifikazio liburuak biltzen dau. Kodifikazio liburuak honako edukiak biltzen dauz:

1.	Ikerketa objektua: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia	406
2.	Kodifikazio prozeduraren faseak	406
3.	Kodifikazio prozeduraren 2. fasea: azterketa dokumentuen prestaketa	407
4.	Kodifikazio prozeduraren 3. fasea: azterketa dokumentuak esaldi-muinetan banatzea	408
5.	Kodifikazio prozeduraren 4. fasea: esaldi-muinak kodifikatzea	409
A.	Aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazioa	409
a.	Atributuzko aldagaiak	410
b.	Hizkuntza politikaren azterketarako aldagai eskusiboak	410
c.	Hizkuntza ideologiaren azterketarako aldagai eskusiboak	410
d.	Hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren azterketarako aldagai lagungarri eta partekatuak	410
B.	Aldagaien kode-zerrendak eta euren deskribapena	411
a.	Alderdi politikoa (A.P.)	412
b.	Hauteskunde urtea (H.U.)	412
c.	Koalizioa (KO)	413
d.	Hauteskunde ordezkariak esparrua (H.O.E.)	413
e.	Eduki mota (E.M.)	413
f.	Hizkuntza (H)	414
g.	Alorra (AL)	416
h.	Azken helburuak (A.H.)	420
i.	Hizkuntza politika proposamenak (H.P.)	420
j.	Estatua eta alkarketak (E.A.)	424
k.	Balio euskarriak (B.E.)	427
i.	Aplikazio esparrua (A.E.)	431
m.	Onuradunak (ON)	433

## 1. Ikerketa objektua: hizkuntza politika eta hizkuntza ideologia

---

Kodifikazio honen ikerketa objektua alderdi politikoaren hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak dira eta azterketa dokumentuak hauteskunde programak. Hizkuntza politika gizarte edo komunitate linguistiko baten hizkuntza jarreraren eragiteko nahia eta etorkizunari begira bideratzen diren politika ekimenen multzoa da. Hizkuntza ideologia gizarte eta kultura balio batzuk sostengatutako hizkuntzen gainean konpartitzen diren jarrera eta sinismen sistema da.

## 2. Kodifikazio prozeduraren faseak

---

Hauteskunde programen kodifikazio prozedurak 4 fase desbardin biltzen dauz:

### 1. Hauteskunde programen corpus digitala osatu.

Formato digitalizatuan dagozan hauteskunde programen kasuan, ikerlariaren egitekoa dokumentua formato editagarri bihurtzea izango da. Papelean dagozan hauteskunde programen kasuan, dokumentuak digitalizatu egin beharko dira lehenengo. Horretarako prozedura errazena dokumentuak eskaneatzea eta OCR bidez testu arrunt bilakatzea izango da.

### 2. Hauteskunde programa osoetatik hizkuntzei buruz diharduen testu zatiak sailkatu eta azterketa dokumentuak sortu.

Kodifikazio honen xedea hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak aztertzea da. Hortaz, hauteskunde programa osoak ordeztuz, hizkuntzei buruz diharduen hauteskunde programa atalak bakarrik izango dira aztergai. Hauteskunde programa bakoitzetik azterketa dokumentu banatu bat sortuko da.

### 3. Azterketa dokumentuak esaldi-muinetan banatu.

Azterketa dokumentu bakoitzaren edukia esaldi-muin deritzon kodifikazio-unitateetan banatuko da. Gero, eraturako esaldi-muin zerrenda osoa kalkulu orrialde batera pasatuko da. Azterketa dokumentu guztietako esaldi-muin zerrendak kalkulu orrialde bakarrean bilduko dira datu-base bat eraikiz.

### 4. Esaldi-muinak kodifikatu.

Aldibereko kodifikazioa erabiliz, esaldi-muin bakoitza ikerketa aldagai desbardinaren arabera kodetuko da: atributuzko ikerketa aldagaien arabera –esaldi-muina identifikatzen laguntzen dabenak- eta edukizko ikerketa aldagaien arabera – esaldi-muinaren eduki politiko-ideologikoa edota informazio lagungarria biltzen dabezanak.

### 3. Kodifikazio prozeduraren 2. fasea: azterketa dokumentuen prestaketa

Hauteskunde programak dokumentu editagarri bihurtu eta ostean (kodifikazio prozeduraren 1. fasea), azterketa corpusa prestatzeari ekingo jako (kodifikazio prozeduraren 2. fasea). Hau da, aztergai diren hauteskunde programetako hizkuntzen inguruko testu zatiak sailkatuko dira eta bakoitza dokumentu bereizi batean bildu.

Hizkuntzen inguruko testu zatiak sailkatzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- Hizkuntzei erreferentzia egiten deusien hitz-gakoen zerrenda eraiki.

Hitz-gakoen zerrenda eraikitze bide zehatzena testu idatzien hitz kontaketa burutzen dauan aplikazio edo programa bat erabiltzea izango da. Esaterako ATLAS.ti programaren „wordcruncher“ aukera. Honekin testu baten agertzen diren hitz guztien zerrenda osatuko da. Zerrendan hizkuntzei erreferentzia egiten deusien terminoak aukeratuko dira eta hitz-gakoen zerrenda eraikiko da. Hitz-gakoen zerrenda eraikitzerakoan termino bakoitzaren sustraia bakarrik hartuko da kontuan. Esaterako, euskaraz, euskararen, euskararentzako, etab. „eusgara“ hitz-gakoaren baitan bilduko dira.

Ikerketa honetarako eraiki dan hitz-gakoen zerrenda honakoa da:

- *euskera*
- *euskara*
- *vasco (hizkuntza adieran)*
- *vascuence*
- *castellano*
- *español (hizkuntza adieran)*
- *inglés*
- *francés (hizkuntza adieran)*
- *alemán (hizkuntza adieran)*
- *idioma*
- *lengua*
- *lingü(ista/ística/etab.)*
- *euskaldun(izar/ización/etab.)*
- *normaliza(r/ción/etab.) (hizkuntzaren normalizazioari erreferentzia egitekotan)*
- *políglota*
- *parlan(te)*
- *euskaldun (hiztuna)*

- Hizkuntzei buruzko hitz-gakoen zerrenda erabilia, hauteskunde programetako hizkuntzen inguruko testu zatiak sailkatu.

Testu editorearen bilaketa tresna erabiliko da hizkuntzei buruzko hitz-gakoak hauteskunde programetan bilatzeko. Bilaketa bakoitza egiterakoan hitz-gakoa beregain hartzen dauan esaldia ezeze inguruko testu zatia be irakurriko da. Modu horretan, hizkuntzei buruz diharduen testu zati osoa aukeratuko da. Testu zatiok Word dokumentu barri batean gordeko dira (azterketa dokumentua). Hitz-gako bakoitzaren bilaketa egin ahala, barriak diren testu zatiak azterketa dokumentuari gehituko jakoz, beti testu zatiok hauteskunde programan daben ordena errespetatuz. Prozedura hitz-gakoen zerrenda osoa bilatu arte luzatuko da.

Azterketa dokumentu bakoitza zein alderdi politikori, zein hauteskunde motari eta zein urteri dagokion argi egon beharko da. Egokiena informazio guzti hau azterketa dokumentuen izenean gordetzea izango da. Esaterako: „EAJ ELHP 1980“ (Euzko Alderdi Jeltzalea. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Programa. 1980).

#### 4. Kodifikazio prozeduraren 3. fasea: azterketa dokumentuak esaldi-muinetan banatzea

---

Behin azterketa dokumentuak prestatuta (kodifikazio prozeduraren 2. fasea) azterketa dokumentuen edukia esaldi-muinetan banatuko da (kodifikazio prozeduraren 3. fasea).

Esaldi-muinak zuzentasunez bereizteko oinarritzko irizpide batzuk jarraitu beharko dira. Irizpideak honeexek dira:

- Esaldi-muin baten gehienezko luzeera esaldia izango da.
- Esaldi baten azpian esaldi-muin desbardinak bereizterakoan:
  - Hizkuntza politika proposamen bakoitza esaldi-muin bat izango da.
  - Hizkuntza politika proposamen baten zergaitia ala justifikazioa esaldi-muin barri moduan joko da, proposamenaren argumentazio ideologikoa dalako, hau da, adierazpen ideologikoa.
  - Adierazpen ideologiko edukari erantzuten deuten testu zatiak esaldi-muinetan bereizterakoan: argumentazio, justifikazio barri bakoitza esaldi-muin bat izango da. Horrela, argumentazio zentralak eta bigarren mailako argumentazio partzialak be esaldi-muin bereiztuetan banatuko dira, helburua testuak eskainitako informazioa maximizatzea baita. Esaldi-muin bakoitza lerro desbardin batean bilduko da; hau da, esaldi-muinak paragrafo saltoen bidez bereiztuko dira.

- Behin azterketa dokumentu guztia esaldi-muinetan banatutakoan, testu osoa taula bihurtu eta kalkulu orrialde batean gordeko da. Kalkulu orrialdean esaldi-muin bakoitzak lerro bat izango dau. Esaldi-muin bakoitzari atxikiko jakozan aldagaiak lerro berberan baina ondoz ondoko zutabeetan bilduko dira.

Aztergai izango diren aterketa dokumentu guztiak kalkulu orrialde berean batuko dira datu basea eraikitzeko.

Ikerketa honetan Excel softwarea erabili da behin hauteskunde programen kodifikazioa burututakoan azterketa estadistikoak egiteko tresna egokia dalako.

### 7.1. IRUDIA: DATU BASEA EXCELEN

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
1	E.M.	Testua	A.P	U	K	H.O.E.	H	AL	EM	A.H.	H.P	LOTURAK	BALIOAK	A.E	ON
1		Realizar una adecuada pedagogía social a favor de considerar la promoción y garantía progresiva del uso del euskera													
2															
3	2	como factor de convivencia													
4	3	y cohesión social,													
4		y a favor de una efectiva igualdad de oportunidades de uso lingüístico,													
5		incrementando el prestigio social del euskera.													
6		Todo ello con el objetivo de avanzar con el mayor consenso social posible													
7		hacia un bilingüismo social													
8		cada vez más armonioso, equilibrado e igualitario													
9															

*Iturria: norberak egina.*

## 5. Kodifikazio prozeduraren 4. fasea: esaldi-muinak kodifikatzea

Aztergai izango diren azterketa dokumentu guztiak esaldi-muinetan banatu eta Excel orrialde batean bildutakoan (kodifikazio prozeduraren 3. fasea), esaldi-muinak kodifikatzeari ekingo jako (kodifikazio prozeduraren 4. fasea).

### A. Aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazioa

Hizkuntza politika eta hizkuntza ideologiaren ikerketarako eduki azterketak aldagai anitzeko eta aldibereko kodifikazio eredu jarraitzen dau. Hau da, aztergai dan esaldi-muin bakoitzak kodifikazio askotarikoak bereganatuko dau aldagai desbardinak aintzat hartuta. Aldagaiak hiru taldetan bereiztu daitezke: atributuzko aldagaiak, aldagai eskusiboak (hizkuntza politikarenak eta hizkuntza ideologiarenak) eta aldagai lagungarri edo partekatuak. Aldagaiak honakoak dira eta ondorengo galderari erantzungo deusie:



### a. Atributuzko aldagaiak

Atributuzko aldagaiek esaldi-muina eta bere egile dan alderdi politikoa identifikatzeko informazio deskriptiboa eskaintzen dabe:

- **Alderdi politikoa (A.P.):** nork esana da esaldi-muina?
- **Hauteskunde urtea (U):** noiz esana da esaldi-muina?
- **Bakarka ala koalizioan (K):** esaldi-muinaren egile dan alderdi politikoa bakarka ala koalizioan aurkeztu da hauteskundeetara?
- **Hauteskunde ordezkari-tza esparrua (H.O.E.):** esaldi-muinaren egile dan alderdi politikoa hauteskunde ordezkari-tza esparrua zein da?

Esaldi-muin guztiak atributuzko lau aldagaion arabera kodifikatuko dira.

### b. Hizkuntza politikaren azterketarako aldagai eskusiboak

Hizkuntza politika moduan definitutako esaldi-muinak *hizkuntza politika proposamenak* eta/edo *azken helburuak* aldagaian baitan kodetuko dira:

- **Hizkuntza politika proposamenak (H.P.):** zein hizkuntza politika ekimen zehatz da/dira proposagai?
- **Azken Helburuak (A.H.):** zein da/dira hizkuntza politikaren bidez lortu nahi dan/ diran azken helburua/k?

### c. Hizkuntza ideologiaren azterketarako aldagai eskusiboak

Hizkuntza ideologia edo adierazpen ideologiko moduan definitutako esaldi-muinak *estatusa eta alkarketa* eta/edo *balio euskarriak* aldagaian baitan kodetuko dira:

- **Estatusa eta alkarketak (E.A.):** hizkuntza/k zein estatus jasotzen dabe eta/edo zein ideiekin lotzen da/dira?
- **Balio euskarriak (B.E.):** hizkuntza/k eda hizkuntza politika hizpide da/diranean zein gizarte balio aipatzen da/dira?

### d. Hizkuntza politikaren eta hizkuntza ideologiaren azterketarako aldagai lagungarri eta partekatuak

Esaldi-muinek informazio politiko-ideologikoa biltzeaz gainera, informazio osagarria biltzen daben aldagai lagungarri eta partekatuen arabera kodetuko dira:

- **Eduki mota (E.M.):** esaldi-muinaren edukia politikoa ala ideologikoa da?
- **Hizkuntza (H):** zein hizkuntza da/dira esaldi-muinean hizpide? Hau da, zein hizkuntza da/dira politika proposamenen ala adierazpen ideologikoen xede?
- **Alorra (Al):** zein alorretara dago zuzendua hizkuntza politika proposamena ala adierazpen ideologikoa?
- **Aplikazio esparrua (A.E.):** zein da hizpide dan hizkuntza politika proposamenaren ala adierazpen ideologikoen barruti geografikoa?
- **Onuradunak (O):** nori zuzendua dago hizkuntza politika proposamena ala adierazpen ideologikoa?

Behin esaldi-muin guztiak kodetuta datu baseak honako itxura hartuko dau:

## 7.2. IRUDIA: DATU BASEA KODETUTA

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
1	H	QF	A.P	U	K	H.O.E.	H	AL	E.M	A.H.	R.P	E.A.	B.E.	A.E	ON
2	1	PROPUGIAMOS UNA EUSKADI COMPROMETIDA CON EL EUSKERA	1	2012	1	2	2	10	2				10	3	1
3	2	PROPUGIAMOS UNA EUSKADI COMPROMETIDA CON (...) LA CONVIVENCIA LINGÜÍSTICA.	1	2012	1	2	6	80	2				3	3	1
4	3	EAJ-PRIV va a situar la política lingüística en la centralidad de la actuación del gobierno.	1	2012	1	2	1	28	1		2			3	12
5	4	Siendo la convivencia lingüística uno de los pilares de la propia convivencia social en Euskadi,	1	2012	1	2	6	80	2				3	3	1
6	5	vamos a promover un bilingüismo	1	2012	1	2	6	80	1	1	1			3	1
7	6	lo más igualitario y equilibrado posible,	1	2012	1	2	6	80	2		9		2	3	1
8	7	que garantice de manera efectiva la igualdad de oportunidades	1	2012	1	2	6	10	1		9		2	3	1
9	8	y la libertad lingüística de los ciudadanos.	1	2012	1	2	6	80	1		9		1	3	1
10	9	Atendiendo a la actual situación social de las dos lenguas oficiales,	1	2012	1	2	6	80	2				18	3	1
11	10	desarrollaremos una política lingüística proactiva y efectiva,	1	2012	1	2	2	10	2				17	3	1
12	11	que nos acerque a la plena normalidad del euskera.	1	2012	1	2	2	10	1	3	2			3	1
13	12	Por ello, recuperando el lugar central que corresponde a la política lingüística en la agenda política,	1	2012	1	2	1	28	2				10	3	12
14	13	impulsaremos en la totalidad de los departamentos y áreas del gobierno un uso de las dos lenguas oficiales	1	2012	1	2	6	20	1		21			3	16
15	14	que coadyuve a la sostenibilidad de nuestra pluralidad lingüística	1	2012	1	2	6	20	1		2			3	16
16	15	Por tanto, la política lingüística será una de las líneas de actuación transversales de nuestra acción de gobierno.	1	2012	1	2	1	10	2				10	3	12

*Iturria:* norberak egina.

## B. Aldagaien kode-zerrendak eta euren deskribapena

Aldagai bakoitza kode-zerrenda batek osatua dago. Behin esaldi-muina zein ikerketa aldagaien arabera kodetuko dan erabakita, aldagai bakoitzean esaldi-muinaren edukien deskribatzaile dan kode bat atxikiko jako.

### a. Alderdi politikoa (A.P.)

Aldagai honen bidez kodifikagai dan esaldi-muina zein alderdi politikorena dan adieraziko da.

1. *kodea: EAJ*

Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) esaldi-muina.

2. *kodea: Ezker Abertzalea*

Ezker abertzalearen esaldi-muina. Ezker Abertzalearen baitan doaz Herri Batasuna (HB), Euskal Herritarrok (EH), Euskal Herrietako Alderdi Komunista (EHAK) eta Euskal Herria-Bildu (EHBildu).

3. *kodea: PSE-EE*

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra-ren (PSE-EE) esaldi-muina. Kode honen baitan joango dira Partido Socialista Obrero Español (PSOE), Partido Socialista de Euskadi (PSE) eta Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra (PSE-EE).

4. *kodea: PP*

Partido Popularra-ren esaldi-muina. Kode honen baitan joango dira Alianza Popular (AP) eta Partido Popular Vasco (PP).

5. *kodea: Ezker Anitza*

Ezker Anitzaren esaldi-muina. Kode honen baitan joango dira Izquierda Unida - Ezker Batua (IU-EB), Ezker Batua Berdeak (EB-Berdeak) eta Ezker Anitza.

### b. Hauteskunde urtea (H.U.)

Aldagai honen bidez kodifikagai dan esaldi-muina zein hauteskunde urteri dagokion adieraziko da.

- *Kodea: 1980*

1980ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

- *Kodea: 1984*

1984ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

- *Kodea: 1986*

1986ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

- *Kodea: 1990*

1990eko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

- *Kodea: 1994*

1994ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

- *Kodea: 1998*  
1998ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.
- *Kodea: 2001*  
2001eko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.
- *Kodea: 2005*  
2005eko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.
- *Kodea: 2009*  
2009ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.
- *Kodea: 2012*  
2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programaran bateko esaldi-muina.

### c. Koalizioa (KO)

Aldagai honen bidez kodifikagai dan esaldi-muinaren egilea dan alderdi politikoa hauteskundeetara bakarrik ala koalizioan joan dan adieraziko da.

#### 1. *kodea: Koalizioa EZ*

Alderdi politikoa bakarrik aurkeztu da hauteskundeetara, beste alderdi bat ala batzuekaz koalizioan joan barik.

#### 2. *kodea: Koalizioa BAI*

Alderdi politikoa beste alderdi bategaz ala batzuekaz aurkeztu da hauteskundeetara.

### d. Hauteskunde ordezkari-tza esparrua (H.O.E.)

Aldagai honen bidez kodifikagai dan esaldi-muinaren egilea dan alderdi politikoa hauteskunde ordezkari-tza esparrua zein dan adieraziko da.

#### 1. *kodea: EAEn bakarrik*

Alderdi politikoa hauteskunde ordezkari-tza EAEn mugatzen da.

#### 2. *kodea: Euskal Herria*

Alderdi politikoa hauteskunde ordezkari-tza Nafarroako Foru Erkidegora eta Iparraldea barnean hartzen dauan Pirineo Atlantikoetako Departamentura zabaltzen da.

#### 3. *kodea: Espainiar Estatua*

Alderdi politikoa hauteskunde ordezkari-tza Espainiar Estatua zabaltzen da.

### e. Eduki mota (E.M.)

Aldagai honen bidez esaldi-muina hizkuntza politika edo hizkuntza ideologia moduan sailkatuko da.

1. *kodea: Hizkuntza politika proposamena*

Esaldi-muinak hizkuntza politika ekimen bat edo hizkuntza politikaren bidez lortu nahi dan azken helburu linguistiko bat agertzen dau.

*Hizkuntza politika* moduan kodetutako esaldi-muinak hizkuntza politikari modu eksklusiboan zuzendutako ikerketa aldagaietan jasoko dau bere eduki zehatzari lotutako kodeketa (*hizkuntza politika proposamenak* edo *azken helburuak* aldagaietan).

Esaldi-muinaren formulazio zentrala politikoa izan arren informazio ideologikoa be biltzen badau, hizkuntza ideologiari modu eksklusiboan zuzendutako ikerketa aldagaietan be izango da kodifikatua (*estatusa eta alkarketak* edo *balio euskarriak* aldagaietan).

2. *kodea: Adierazpen ideologikoa*

Hizkuntza politika proposamen moduan identifikatzen ez diren esaldi-muin guztiak adierazpen ideologiko moduan kodifikatuko dira.

Adierazpen ideologiko moduan kodetutako esaldi-muinak hizkuntza ideologiari modu eksklusiboan zuzendutako aldagaietan jasoko dau bere eduki zehatzari lotutako kodeketa (*estatus eta alkarketak* edo *balio euskarriak* aldagaietan).

Esaldi-muinaren formulazio zentrala ideologikoa izan arren informazio politiko be biltzen badau, hizkuntza politikari modu eksklusiboan zuzendutako ikerketa aldagaietan be izango da kodifikatua (*hizkuntza politika proposamenak* edo *azken helburuak* aldagaietan).

f. **Hizkuntza (H)**

Aldagai honen bidez esaldi-muinak zein hizkuntza/k dauan/dauzan hizpide adieraziko da.

Esaldi-muin batean bi hizkuntza edo gehiago badira hizpide eta hizkuntza konbinaketa hori kode zerrendan ez badago bilduta, kodetzaileak erabakiko dau zein hizkuntza kodetu ikerketa objektua eta diskurtsoan hizkuntzetako bakoitzak jasotako lehen maila kontuan hartuta.

1. *kodea: Hizkuntzak orokorrean*

Hizkuntza jakin bat zehaztu barik mintzairak orokorrean dira hizpide: *lenguas, politica linguistica*. Esaldi-muinaren formulazioak *orokorrean* kodeari erantzuten badeutso, baina esaldi-muinaren testuinguru hurbila aztertuz kodetzailea hizkuntza zehazteko gai bada, zehaztearen aldeko apustua egingo da.

2. *kodea: Euskara*

Euskara da hizpide eta helburu.

3. *kodea: Gaztelania*

Gaztelania da hizpide eta helburu.

4. *kodea: Frantsesa*

Frantsesa da hizpide eta helburu.

5. *kodea: Ingelesa*

Ingelesa da hizpide eta helburu. Baliteke esaldi-muinean ingelesa hitza erabili ordez *lingua franca*, hizkuntza internazionala, etab. erabiltzea. Termino alternatiboon atzean ingelesa aurkitzen dala argi badago esaldi-muina *ingelesa* kodearen baitan kodetuko da.

6. *kodea: Euskara eta gaztelania*

Euskara eta gaztelania biak batera dira hizpide eta helburu.

Alderdi politikoak EAEko errealitate soziolinguistikoari, linguistiko-kulturalari, etabarrerri erreferentzia egiten badeutso, hizkuntzok esplizitoki aipatu ez arren, esaldi-muina *euskara eta gaztelania* kodearen baitan kodetuko da. Esaldi-muinaren ingurune testuala irakurrita beste hizkuntza batzuk be tartean egon daitekezala ikusten bada, kodetzaileak beste kode aproposago bat erabiliko dau.

7. *kodea: Euskara eta ingelesa*

Euskara eta ingelesa dira hizpide eta helburu.

8. *kodea: Euskara eta frantsesa*

Euskara eta frantsesa dira hizpide eta helburu.

9. *kodea: Euskara, gaztelania eta ingelesa*

Euskara, gaztelania eta ingelesa dira hizpide eta helburu.

10. *kodea: Euskara, gaztelania, frantsesa*

Euskara, gaztelania eta frantsesa dira hizpide eta helburu.

Alderdi politikoak Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoari, linguistiko-kulturalari, etabarrerri erreferentzia egiten badeutso, hizkuntzok esplizitoki aipatu ez arren, esaldi-muina *euskara, gaztelania eta frantsesa* kodearen baitan kodetuko da. Esaldi-muinaren ingurune testuala irakurrita beste hizkuntza batzuk be tartean egon daitekezala ikusten bada, kodetzaileak beste kode aproposago bat erabiliko dau.

11. *kodea: Gaztelania eta frantsesa*

Gaztelania eta frantsesa dira hizpide eta helburu.

12. *kodea: Atzerriko hizkuntzak*

Atzerriko hizkuntzak dira hizpide eta helburu, hau da, alderdi politikoak erreferentziatzat hartzen dauan lurraldetik kanpoko hizkuntzak orokorrean (atzerriko hizkuntzak, Europako hizkuntzak, etab.) edo ingelesa ez beste mintzaira zehatzak (alemana, txinera, etab.).

13. *kodea: Etorkinen ala gitxiengo etnikoen hizkuntzak*

Etorkinen edo gitxiengo etnikoen hizkuntzak dira hizpide eta helburu.

*14.kodea: Estatuko, eskualdeko hizkuntzak*

Estatu Espainiarreko edota Frantseseko hizkuntzak orokorrean ala eskualdetako hizkuntzak dira hizpide eta helburu.

Alderdi politikoak Espainiar Estatuko lurraldeko errealitate soziolinguistikoari, linguistiko-kulturalari, etabarrerri erreferentzia egiten badeutso, hizkuntzok esplizitoki aipatu ez arren, esaldi-muina *estatuko, eskualdeko hizkuntzak* kodearen baitan kodetuko da. Esaldi-muinaren ingurune testuala irakurrita beste hizkuntza batzuk be tartean egon daitekezala ikusten bada, kodetzaileak beste kode aproposago bat erabiliko dau.

*15.kodea: Eleaniztasuna*

Eleaniztasuna da hizpide eta helburu.

*16.kodea: Hizkuntza gitxituak*

Hizkuntza gitxituak dira hizpide eta helburu.

*17.kodea: Beste*

Kode-zerrendan aipatzen ez dan hizkuntza ala hizkuntza konbinaketaren bat da hizpide eta helburu.

*18.kodea: Berezko hizkuntza*

Berezko hizkuntzak dira hizpide eta helburu.

*19.Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelania ala frantsesa*

Estatuko eskualdeko hizkuntzak eta gaztelania ala frantsesa dira hizpide eta helburu.

**g. Alorra (AL)**

Aldagai honen bidez hizkuntza politika proposamena zein esparruri dagokion edo adierazpen ideologikoa zein esparrutan kokatzen dan adieraziko da.

*10.kodea: Orokorrean*

Alor zehatz batean ezin kodifikatu daitekezan esaldi-muinak edo hizpide dan hizkuntza politika esparrua kodifikazio zerrendan zehaztuta ez badago, *orokorrean* kode zabalaren barruan kodifikatu.

*20.kodea: Herri administrazioa*

Herri administrazioa modu orokorrean helburu daben esaldi-muinak kodifikatzeko bakarrik erabili. Kode zehatzak lehenetsi *herri administrazioa* kodearen aurretik. Hizpide dan herri administrazioko esparrua ez badago zehaztuta kodifikazio zerrendan, *herri administrazioa* kode zabalaren barruan kodetu.

21. *kodea: Epaitegiak*  
Epaitegiak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu.
22. *kodea: Ertzaintza*  
Ertzaintza helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.
23. *kodea: Osasuna*  
Osasun sistema helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.
24. *kodea: Udal eta Foru Aldundi administrazioa*  
Udal administrazioa zein Foru Aldundi Administrazioa helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.
25. *kodea: Hizkuntza politika erakundeak*  
Hizkuntza politika ala hizkuntza normatibazioa lan esparru daben erakundeak, esaterako, Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Euskararen Aholku Batzordea, etab. helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu.
26. <sup>132</sup>
27. *kodea: Estatuko administrazioa*  
Estatuko administrazioa modu orokorrean helburu daben esaldi-muinak kodifikatu. Epaitegiak estatuko administrazio pean egon arren, modu banatuan kodetuko dira *epaitegiak* kodearen azpian.
28. *kodea: Ordezkeri politikoak*  
Ordezkeri politikoak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu: legebiltzarra, alderdi politikoak, gobernua, etab.
29. *kodea: Nazioarteko erakundeak*  
Nazioarteko erakunde desbardinak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu: Europar Batasuneko erakundeak, etab.
30. *kodea: Irakaskuntza*  
Irakaskuntza modu orokorrean helburu daben esaldi-muinak kodifikatzeko bakarrik erabili. Kode zehatzak lehenetsi *irakaskuntza* kodearen aurretik. Hizpide dan irakaskuntza esparrua ez badago zehaztuta kodifikazio zerrendan, *irakaskuntza* kode zabalaren barruan kodetu.
31. *kodea: Eskola*  
Eskola mintzagai daben esaldi-muinak kodifikatu. Hizpidea irakaskuntza orokorrean izanda be, sakoneko gaia eskola dala ikusten bada, eskola moduan kodetuko da.
32. *kodea: Lanbide heziketa*  
Lanbide heziketa helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

<sup>132</sup> Kode liburua hauteskunde programak kodetu ahala eraiki da eta prozesuan zehar zenbait kode desagertu edota fusionatu egin dira. Horregaitik, kode zerrendan hainbat zenbaki hutsik dagoz.



33. *kodea: Unibertsitatea eta ikerketa zentroak*

Unibertsitatea zein ikerketa zentroak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

34. *kodea: Hizkuntza eskolak, euskaltegiak*

Hizkuntza eskolak edo euskaltegiak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

35. *kodea: Helduentzako eskolak*

Helduei zuzendutako eskolak helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu. Helduen eskolak hizkuntza eskola badira *hizkuntza eskolak, euskaltegiak* kodearen barnean kodetu dira.

40. *kodea: Komunikabideak*

Komunikabideak modu orokorrean helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatzeko bakarrik erabili. Kode zehatzak lehenetsi *komunikabideak* kodearen aurretik. Hizpide dan komunikabide esparrua ez badago zehaztuta kodifikazio zerrendan, *komunikabideak* kode zabalaren barruan kodetu.

41. *kodea: EiTb*

EiTb, irrati telebista publikoa helburu daben esaldi-muinak kodifikatu. Lehenetsi *EiTb* kodea *irratia* eta *telebista* kodeen aurretik.

42. *kodea: Prentsa idatzia*

Prentsa idatzia (egunkariak, aldizkariak) helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

43. *kodea: Irratia*

Irratia helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

44. *kodea: Telebista*

Telebista helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

50. *kodea: Teknologia barriak*

Teknologia barriak (internet, etab.) helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

60. *kodea: Lan-mundua*

Lan mundua helburu daben esaldi-muinak kodifikatu: enpresa mundua, merkataritza, ostalaritza, etab.

70. *kodea: Kultura eta kulturagintza*

Kultura eta kulturagintza modu orokorrean helburu dabezan esaldi-muinak kodifikatzeko bakarrik erabili. Kode zehatzak lehenetsi *kultura eta kulturagintza* kodearen aurretik. Hizpide dan kultura eta kulturagintza esparrua ez badago zehaztuta kodifikazio zerrendan, *kultura eta kulturagintza* kode zabalaren barruan kodetu. Ondare eta identitatearen inguruko esaldi-muinak kode honen barruan kodetu. Kultura eta hizkuntza binomioa adierazten daben esaldi-muinak kode honen barruan kodetu.

71. *kodea: Literatura, liburugintza*

Literatura zein liburugintza helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

72. *kodea: Antzerkia*

Antzerkia helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

73. *kodea: Musika eta kantagintza*

Musika, kantagintza helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

74. *kodea: Euskararen normatibizazio-normalizazioaren aldeko erakundeak*

Euskararen normatibizazioaren eta normalizazioaren alde lanean diharduen erakunde, elkarte, etabarrak helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu; esaterako, Euskaltzaindia. Euskararen normalizazioa euren egitekoaren parte izan arren erakundeen lan-esparrua gehiago zehaztu badaiteke, esaterako, *euskaltegiak*, *komunikabideak* edo bere azpi-kategoriak, *kultura eta kulturagintza* edo bere azpi-kategoriak, etab., azken kodeok lehenetsi *euskararen normatibizazioaren normalizazioaren aldeko erakundeak* kodearen aurretik.

75. *kodea: Zinea*

Zinea helburu daben esaldi-muinen kodifikazioa.

80. *kodea: Gizartea*

Gizartea eta gizarte bizitza modu orokorrean helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu: hizkuntzen egoera soziolinguistikoa deskribatuz, bizikidetzaren linguistikokoaren inguruko adierazpenak eginez, etab. Kode zehatzak lehenetsi gizarte bizitza kodearen aurretik. Hizpide dan gizarte bizitza esparrua ez badago zehaztuta kodifikazio zerrendan, *gizartea* kode zabalaren barruan kodetu.

81. *kodea: Aisia*

Aisia eta aisiazko ekimenak helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu.

82. *kodea: Kirola*

Kirola eta kirol ekimenak helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu.

83. *kodea: Familia*

Familia ala familiaren baitan burutu beharreko ekimenak helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu.

84.

85.

86. *kodea: Eskolaz kanpoko jarduerak.*

Eskola orduetatik kanpo baina eskola testuinguruan ume eta gazteentzako burutzen diren ekimenak helburu dabezana esaldi-muinak kodifikatu.

100. *kodea: Esparru juridikoa*

Hizkuntzak esparru juridiko-legegile mailan hizpide dabezan esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntzen ofizialtasunaren inguruko aldarrien inguruko esaldi-muinak kode honen barruan kodetuko dira, baita estatuaren egituraren inguruko aldarrien gaineko esaldi-muinak. Legedia edota adierazpen juridikoa esparru jakin batera zuzendua dagoenean, esparru zehatza lehenetsiko da *esparru juridikoaren* aurretik. Esaterako, unibertsitate arloan lege aldaketa proposagai bada, alor gisa *unibertsitatea* aukeratuko da.

## h. Azken helburuak (A.H.)

Aldagai honetan alderdi politikoez hizkuntza politikaren bidez lortu gura daben azken helburua edota hizkuntza bizikidetzatza ideala irudikatzerakoan desiatzen daben jomuga kodifikatuko da.

1. *kodea: Elebitasuna*

Euskara eta gaztelaniak eraikitako elebitasuna (simetrikoa, asimetrikoa edota indefinitua) helburu moduan definitzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Elebitasuna orokorrean zein alor zehatzetan izan daiteke helburu.

2. *kodea: Eleaniztasuna*

Eleaniztasuna (simetrikoa, asimetrikoa edota indefinitua) helburu moduan definitzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Eleaniztasuna deritzogu euskara eta gaztelaniaz gainera, beste hizkuntza baten ala gehiagoren ezagutza eta erabilera konpartitua. Eleaniztasuna orokorrean edota alor zehatzetan izan daiteke helburu.

3. *kodea: Normalizazioa*

Normalizazio linguistikoa hizpide daben esaldi-muinak kodifikatu. Normalizazioa aipagai dan guztietan kodetuko da, nahiz eta esaldi-muinaren oinarritzko informazioa beste bat izan. Normalizazio kodearen barnean kodetuko dira euskararen erabateko indarberritzea, erabateko garapena, euskaraz bizi, etab. hizpide dabezan esaldi-muinak.

4. *kodea: Lehentasunezko hizkuntza*

Hizkuntzetako bat lehentasunezko hizkuntza moduan ezartzea helburu moduan definitzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntza lehenestea orokorrean edota alor zehatzetan izan daiteke helburu.

## i. Hizkuntza politika proposamenak (H.P.)

Aldagai honen bidez hizkuntza politika ekimen zehatzak kodetuko dira. Ekimenon edukiak honakoak dira:

1. *kodea: Ezagutza, euskalduntzea*

Hizkuntza baten ezagutza edota euskalduntzea xede daberen politika ekimenak kodifikatu. Ezagutza moduan ulertuko da edozein hizkuntzaren ikasketa prozesuaren ondorengo fasea, behin ikasketa amaitutzat emoten danekoa. Euskalduntzea, barriz, ikaskuntza prozesu baten bidez euskeraren ezagutza lortzea izango da.

2. *kodea: Hizkuntza babestu, bultzatu*

Hizkuntza ala hizkuntza politika baten babesa, sustapena, hedapena, berreskurapena, normalizazioa, etab. lortzeko alderdi politikoaren konpromiso adierazpen eta politika ekimenak kodifikatu.

3. *kodea: Corpus plangintza*

Hizkuntzaren corpusari zuzendutako politika ekimenak kodifikatu: hizkuntza bateratua sortu, hizkuntza arautu, corpusa aberastu, hizkuntzaren kalitatea zaindu, euskalkiak babestu, onomastika, toponomia, etab.

4. *kodea: Ikasketa, alfabetatzea*

Hizkuntzaren ikasketa bultzatzeko (hizkuntza eskolak, lan-ordu eskaintza, etab.), zein hizkuntzan hobeto trebatzeko burututako politika ekimenak kodifikatu (alfabetatzea, adibidez).

5.

6. *kodea: Legedia: mantendu*

Indarrean dagozan lege linguistikoak mantendu edo garatzea xede daberen politika ekimenak kodifikatu.

7. *kodea: Legedia: aldatu*

Indarrean dagozan lege linguistikoak berraztertu, egokitu, aldatu zein hizkuntza lege edota legedia barria sortzea xede daberen politika ekimenak kodifikatu.

8. *kodea: Ofizialtasuna, estatus juridikoa handiagotzea*

Hizkuntzarentzako estatus ofiziala eskatu, berau egikaritzeko konpromisoa adierazi edo hizkuntzarentzako orainaldian dauana baino estatus juridiko handiagoa aldarrikatzen daberen politika ekimenak kodifikatu.

9. *kodea: Hizkuntza eskubideak*

Herritarren edota herritar kolektibo baten hizkuntza eskubideen aldeko aldarria, edota beroneek babesteko nahia eta konpromisoa agertzen daberen politika ekimenak kodifikatu.

Esaldi-muinean hizkuntza eskubideak askatasun edo bardintasan balioekaz, inposaketa edo bazterketa kontra-balioekaz konbinatuta agertzen badira, esaldi-muinok *hizkuntza politika proposamenak* aldagaiaren baitan, *hizkuntza eskubideak* kodeagaz, eta *balio euskarriak* aldagaiaren barnean, kasuan kasu, *askatasun*, *bardintasan*, *inposaketarik eza*, edo *bazterketarik eza* kodeagaz kodetuko dira.

Esaldi-muina politika ekimen moduan formulatua badago eduki mota aldagaian *hizkuntza politika proposamena* kodea jasoko dau; barriz, esaldi-muina adierazpen ideologiko moduan formulatua badago eduki mota aldagaian *adierazpen ideologiko* kodea jasoko dau.

10.

11. *kodea: Bateratze linguistikoaren eredia: euskara hizkuntza nagusia*

Hezkuntzan euskara komunikazio hizkuntza nagusi izango dauan bateratze linguistikoaren aldeko aldarria eta beronen antolaketari buruzko adierazpenak burutzen dabezan politika ekimenak kodifikatu. Hezkuntza ereduaren aipamena esplizituki eginda ala argi adierazita egon beharko da; horrela ez egitekotan *ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzio* kodea erabiliko da.

12. *kodea: Bateratze linguistikoaren eredia: marko bieleduna ala hirueleduna*

Marko bieledunean (euskara, gaztelania) ala hirueledunean (euskara, gaztelania, ingelesa) oinarritutako bateratze linguistikoaren ereduaren aldeko aldarria eta beronen antolaketari buruzko adierazpenak burutzen dabezan politika ekimenak kodifikatu. Hezkuntza ereduaren aipamena esplizituki eginda ala argi adierazita egon beharko da; horrela ez egitekotan *ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzio* kodea erabiliko da.

13. *kodea: Aukeraketa banatuaren eredia*

Aukeraketa banatuaren ereduaren aldeko aldarria eta beronen antolaketari buruzko adierazpenak burutzen dabezan politika ekimenak kodifikatu. Hezkuntza ereduaren aipamena esplizituki eginda ala argi adierazita egon beharko da; horrela ez egitekotan *ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzio* kodea erabiliko da.

14. *kodea: Hizkuntza didaktika*

Hizkuntzen irakaskuntza arrakastatsua bultzatzeko metodologia barriak bultzatzeko politika ekimenak kodifikatu.

15.

16. *kodea: Ikerketa*

Hizkuntzen inguruko ikerketara (hizkuntza politika, soziolinguistika, etab.) edota ikerketa hori burutzeko baldintzen sorrerara zuzendutako politika ekimenak kodifikatu. Lehenetsi *ikerketa* kodea *sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala* kodearen edota *planifikazioa: soziolinguistikoa, normalizazio planak*. etab. kodearen aurretik.

17. *kodea: Hizkuntza eskakizunak: baldintza*

Hizkuntzaren ezagutzaren derrigortasuna ezartzen daben politika ekimenak kodifikatu. Hizkuntza eskakizunen plangintza burutzea ala dagoeneko egon dagoena egikaritzeko neurriak hartzea. Erakundeek bete beharreko hizkuntza irizpideak ezartzea, esaterako, kuotak.

18.kodea: *Hizkuntza eskakizunak: meritu*

Hizkuntzaren ezagutza eskatu ez, ezagutza meritu moduan ezarri edo indarrean dagozan hizkuntza eskakizunak murrizteko politika ekimenak kodifikatu.

19.kodea: *Arreta-harreman hizkuntza funtzioa*

Arreta zuzena, ahozkoa zein idatzizkoa, hizkuntza batean eskaintzeko konpromisoa eta berau bideratzeko politika ekimenak kodifikatu.

Arreta-harremana hizkuntza batean eskaintzeko konpromisoa hizkuntza eskubideetan oinarritzen bada *hizkuntza eskubide* kodea erabiliko da.

20.kodea: *Ikasketa, ikerketa hizkuntza funtzioa*

Hizkuntza bat ikasketa edo ikerketa hizkuntza moduan indartzea, bultzatzera bideratutako politika ekimenak kodifikatu.

21.kodea: *Komunikazio hizkuntza funtzioa*

Hizkuntza baten erabilera handitzeko konpromiso adierazpenak eta hizkuntza bat komunikazio hizkuntza moduan ezartzeko konpromisoa eta berau bideratzeko politika ekimenak kodifikatu.

Kode honen barruan joango dira, hizkuntzari funtzio zehatza atxiki barik (ikasketa-ikerketa, arreta-harreman, edo laneko funtzioa), bere erabilerari eta erabileraren normalizazioari erreferentzia egiten deutesen esaldi-muin guztiak.

22.kodea: *Laneko hizkuntza funtzioa*

Hizkuntza bat laneko (enplegua) hizkuntza moduan erabiltzeko, bultzatzeko politika ekimenak.

23.kodea: *Itzulketa, bikoizketa*

Jatorrizko hizkuntzan dagoena beste hizkuntza batera itzultzeko (idatzizko edo ahozko komunikazioan) zein bikoizteko (ahozko komunikazioan) politika ekimenak.

*Itzulketa, bikoizketa* kodea *hizkuntza* aldagaiagaz konbinatzerakoan, itzulketa ala bikoizketaren emaitza dan hizkuntza kodetuko da hizkuntza aldagaian.

24.kodea: *Sorkuntza, ekoizpen eta eskaintza kulturala*

Sorkuntza, *ekoizpen* eta eskaintza kulturala (literatura, antzerkia, musika, zinema, komunikabide desbardinak, etab.) (herri administrazioak) bultzatzeko eta/edo (ekimen pribatu zein herri ekimenetik burututakoa) babesteko politika ekimenak kodifikatu.

25.kodea: *Baliabideak: giza baliabideak, baliabide teknikoak, baliabide materialak, e.a*

Hizkuntza batean burututako ekimena egingarri bihurtzeko esplizituki baliabideak eskaintzeko (baliabide materialak, teknikoak, egiturazkoak zein giza baliabideak) eta bermatzeko politika ekimenak kodifikatu. Esaldi-muin batean baliabide zerrenda baten barruan finantzaketa be aipatzen bada, lehenestu *finantzaketa* kodea *baliabideak* kodearen aurretik.

*26.kodea: Hizkuntza paisaia*

Ekipamendu, establezimendu, kale, etabarretako errotulazio, seinaleztapen eta megafonia bidezko ahozko informazioetan, produktuen etiketan zein publizitatean, ahozkoan zein idatzizkoan, hizkuntza jakin baten ala batzuen erabilera bultzatzeko politika ekimenak kodifikatu.

27.

*28.kodea: Planifikazioa: soziolinguistikoa, normalizazio planak*

Hizkuntza politikan edota hizkuntza/k tartean hartzen dauzan eginkizunetan planifikazioa burutu zein egikartzeko politika ekimenak kodifikatu. Besteak beste, normalizazio planak, euskalduntze planak, mapa soziolinguistikoak, etab.

*29.kodea: Ebaluaketak eta erreformak*

Hizkuntza alorrean orain arte bideratutako ekintzen ebaluaketa, erreforma edota berrikusketa burutzeko politika ekimenak kodifikatu.

*30.kodea: Transmisioa*

Hizkuntzaren transmisioa, dala familia barruan dala beste bide batzuetatik, mantentzeko eta bultzatzeko politika ekimenak kodifikatu. Sentsibilizazio kanpainen edota plangintzaren helburua transmisioa bultzatzea danean, *transmisio kodea* lehenestuko da *sentsibilizazio, kanpainak, informazioa* kodearen aurretik.

*31.kodea: Sentsibilizazioa, kanpainak, informazioa*

Hizkuntzaren egoeraren eta hizkuntza ikastearen garrantziaren inguruko kontzientzia hartzera, zein hizkuntzaren eta hitzunen izen ona eta prestigioa handitzera zuzendutako politika ekimenak (kanpainak, esaterako) kodifikatu.

Kode honen barruan legokez hizkuntza politika eta bere egitekoek beragaz dakarzan ondorioen inguruko informazioa. Informazio kodearen aurretik lehenestuko dira informazio horren edukia inguruan gehiago zehaztu daikien kodeak.

*32.kodea: Finantzaketa, diru laguntzak eta hitzarmenak*

Hizkuntza politikari zuzendutako edo zuzendu beharreko aurrekontu, diru laguntza, salbuespen fiskalen inguruko politika ekimenak kodifikatu. Esaldi-muin batean finantzaketa baliabide moduan aipatzen bada, lehenestu *finantzaketa* kodea *baliabideak* kodearen aurretik.

*33.kodea: Tituluak, akreditazioak*

Pertsona zein erakundeen hizkuntza titulu eta akreditazioen inguruko politika ekimenak kodifikatu.

**j. Estatusa eta alkarketak (E.A.)**

Aldagai honen bidez alderdi politikoek hizkuntzei zein estatus atxikitzen deuten eta hizkuntzak zein errealitategaz erlazionatzen diren kodifikatuko da.

### 1. kodea: *Hizkuntza gitxitua*

Gitxitu, gitxiagotu, etab. terminoak erabiliz zein egoeraren deskribapena burutuz hizkuntzaren/hizkuntzen egoera gitxitua, diglosikoa, gitxiagotua dala aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntzaren egoera gitxitu ala gitxiagotua beronen egoera formala zein erreala aintzat hartuta burutu daiteke.

Inoiz egoera elebidun edo eleanitz bat hizpide danean azpimarratutakoa hizkuntzetako baten nagusigoa bada, *hizkuntza gitxitu* kodea atxikiko jako eta hizkuntza aldagaian gitxiengo egoeran gelditutako hizkuntza izango da kodetutakoa.

*Hizkuntza gitxitua* kodea *gizarte* alorragaz konbinatuko da esaldi-muinaren formulazioa modu abstraktuan burutzen bada. Hizkuntzaren gitxitu ala gitxiagotu egoera esparru zehatz batean hizpide bada alor zehatza lehenestuko da: juridikoa, hezkuntza, etab.

### 2. kodea: *Nazioarteko hizkuntza*

Internazional, *lingua franca*, etab. terminoak erabiliz zein izaera hori deskribatuz hizkuntzaren/hizkuntzen izaera nazioartekoa aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu.

Nazioarteko hizkuntza kodea *nazioarte* alorragaz konbinatuko da beti.

### 3. kodea: *Hizkuntza ofiziala*

“Ofizial” terminoa erabiliz zein izaera hori deskribatuz hizkuntzaren/hizkuntzen izaera ofiziala aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu.

Hizkuntza ofiziala kodea *esparru juridiko* alorragaz konbinatuko da beti. Ofizialtasun eskaera norako burutzen dan aplikazio esparrua aldagaiak eskainiko dau (esaterako: 4 Euskal Herrikorako, 5 Estatu Espainiarreko, 7 nazioarterako, etab.)

### 4. kodea: *Bertoko hizkuntza*

“Bertoko hizkuntza” terminoa erabiliz zein izaera hori deskribatuz hizkuntzaren/hizkuntzen izaera bertakoa aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu.

Bertoko hizkuntza kodea *gizarte* alorragaz konbinatuko da beti. Bertako hizkuntza izaera zein lurraldetan atxikitzen jakon aplikazio esparrua aldagaiak eskainiko dau (esaterako: 4 Euskal Herrian, 5 Estatu Espainiarrean, 7 nazioartean, etab.)

### 5. kodea: *Hizkuntza nazionala*

“Hizkuntza nazionala” terminoa erabiliz zein izaera hori deskribatuz hizkuntzaren/hizkuntzen izaera nazionala aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu.

Hizkuntza nazionala kodea *gizarte* alorragaz konbinatuko da beti. Hizkuntza nazionala zein lurraldetan atxikitzen jakon aplikazio esparrua aldagaiak eskainiko dau (esaterako, 4 Euskal Herrikoa, 5 Estatu Espainiarrekoa, 7 nazioartekoa, etab.)

### 6. kodea: *Ama hizkuntza*

“Ama hizkuntza” terminoa erabiliz zein izaera hori deskribatuz hizkuntzaren/hizkuntzen ama hizkuntza izaera aditzera emoten daben esaldi-muinak kodifikatu.

Ama hizkuntza kodea *gizarte* alorragaz konbinatuko da.



7. *kodea: Hizkuntza – aberastasuna*

Hizkuntzak, hizkuntzak ezagutzea eta hizkuntza aniztasuna aberastasunagaz, ezagutzagaz, jakinduriagaz harremantzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

8. *kodea: Hizkuntza – ondarea*

Hizkuntza/k ondare (kultural) gisa identifikatzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu. Gehienetan atzerabegariko ikuspuntua gailentzen da.

Hizkuntza – ondarea kodea *kultura eta kulturagintza* alorragaz konbinatuko da beti. Ondare izaera zein lurraldetan atxikitzen jakon aplikazio esparrua aldagaiak eskainiko dau (esaterako, 4 Euskal Herrikoa, 5 Estatu Espainiarrekoa, 7 nazioartekoa, etab.)

9. *kodea: Hizkuntza – modernitatea*

Hizkuntza bat ala batzuk modernitateagaz – orainagaz eta etorkizunagaz- modu esplizituan identifikatu, identifikatzeko beharra adierazi (kasu batzuetan horretarako neurriak ere hartuz) edota hizkuntza/k modernizazio proiektuaren parte bilakatzeko beharra agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

10. *kodea: Hizkuntza – gatazka*

Gizarte mailan hizkuntzen bizikidetzak edota euskararen normalizazio prozesuak sortarazitako presio, gatazka ala norgehigokak begitaratu zein gatazka hori gainditzeko beharra adierazten daben esaldi-muinak kodifikatu.

11. *kodea: Hizkuntza - identitate*

Hizkuntza/k talde edo banakakoaren identitatearen adierazle zein taldearen ezaugarri bereizgarri moduan jotzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

12. *kodea: Hizkuntza – kultura*

Hizkuntza ala hizkuntzen eta kulturaren artean lotura ezarri, hizkuntza/k kulturaren atal moduan identifikatu edota politika kulturalaren baitan hizkuntza barneratzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Gehienetan orainaldiko ikuspuntua gailentzen da.

Hizkuntza eta kulturaren arteko harremana modu abstraktuan bada hizpide, hizkuntza – kultura kodea *kultura eta kulturagintza* alorragaz konbinatuko da. Barriz, arlo zehatz batean proiektu kultural jakin bat bideratu nahi bada hizkuntza oinarri hartuta, alor zehatza zehaztuko da.

13. *kodea: Hizkuntza – kulturartekotasuna*

Hizkuntza desbardinetan bideratzen diren kulturen arteko harremanak landu, bultzatu edota berau balio moduan jotzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

Hizkuntza eta kulturtekotasunaren arteko harremana modu abstraktuan bada hizpide, hizkuntza – kulturartekotasuna kodea *kultura eta kulturagintza* alorragaz konbinatuko da.

14. *kodea: Hizkuntza – integrazioa*

Etorikin zein gitxiengo etnikoak euskal gizartean integratzeko hizkuntzaren/ hizkuntzen garrantzia azpimarratzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

*15.kodea: Hizkuntza – errefus sentimendua*

Hizkuntza batekiko sentitzen dan edo sentitu daiteken errefus sentimendua aditzera emotea.

*16.kodea: Hizkuntza - komunitatearen eraikuntza*

Hizkuntza komunitatearen eraikuntzarako bitarteko nagusi ala bitartekoetako bat bilakatzuz, beronen eraikuntzaren aldeko aldarria egin eta berau egikaritzeko neurriak hartzea proposatzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu. Sarritan komunitatearen eraikuntza nazio eraikuntzagaz lotuta joaten da.

*17.kodea: Hizkuntza – alderdikeria*

Hizkuntzei buruz jarduterakoan alderdikeriari eta alderdi batek bere ikusmoldea inposatzeko burututako ahaleginei kritika egiten deutesn esaldi-muinak kodifikatu. Gehiengoan alderdikeria erabiliko dabenak alderdi politikoak izango diren arren, posible da kasuren batean ideologia argidun beste talde batzuk be alderdikeriaren sortzaile izatea.

Alderdi batek beste alderdi baten kritika burutzen dauanean bere iritziz diskurtsoan eta ekintzetan darabilzan kontra-balioak aipatuz eta gaitzeztuz, *hizkuntza – alderdikeria* kodearen aurretik kontra-balioari dagokion balioa gailenduko da.

18.

*19.kodea: Hizkuntza komunikazio tresna*

Hizkuntza/k komunikatzeko tresna, bide moduan identifikatzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

Hizkuntza/k komunikazio tresna da/dirala modu zabalean aipatzen bada, hizkuntza komunikazio tresna kodea *gizarte* alorragaz konbinatuko da.

*20.kodea: Hizkuntza lehiakortasun tresna*

Hizkuntzak ezagutzea lehiakorrak izateko bide moduan jotzen dabezan esaldi-muinak kodifikatu. Normalean lehiakortasuna maila ekonomikoan aipatuko da.

*21.kodea: Hizkuntza - nazioartekotzea*

Nazioarteko bihurtzeko hizkuntzak eta hizkuntzen ezagutza baliozten dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

**k. Balio euskarriak (B. E.)**

Aldagai honen bidez alderdi politikoek hizkuntzen inguruko euren diskurtso ideologikoan eta proposagai dabezan hizkuntza politketan oinarri dabezan balio euskarriak identifikatuko dira.

Sarritan alderdi politikoek euren balio euskarrien aldarria kontra-balioak kritikatu burutzen dabe. Kasuotan, kodetzaileak adierazpidearen atzean dagoen balio euskarria identifikatu beharko dau eta esaldi-muina balio horren arabera kodifikatu.

#### 1. *kodea: Askatasuna*

Hizkuntza bat ezagutu edota erabiltzeko aukera eta askatasuna izateari, zein hizkuntza baten baino gehiagoren artean aukeratzeko askatasunari erreferentzia egiten deuten esaldi-muinak kodifikatu.

Askatasun balioa hizkuntza eskubideen formulazio mota bat da. Horregaitik, esaldi-muinok balio euskarri aldagaian *askatasuna* kodea jasotzeaz gainera hizkuntza politika proposamenak aldagaian *hizkuntza eskubideak* kodea jasoko dau.

Esaldi-muina adierazpen ideologiko moduan formulatuta badago eduki mota aldagaian *adierazpen ideologiko* kodea jasoko dau; barriz, esaldi muina politika ekimen moduan formulatua badago eduki mota aldagaian *hizkuntza politika proposamena* kodea jasoko dau.

#### 2. *kodea: Bardintasuna*

Bardintasun, orobatasun balioaren aldeko aldarria modu zabalean burutzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntza eskubideak hizpide direnean, hizkuntza desbardinen artean bardintasuna aldarrikatzea ala bilatzea helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

Bardintasun balioak hizkuntza eskubide moduan jokatzen dauanetan esaldi-muinak balio euskarri aldagaian *bardintasuna* kodea jasotzeaz gainera hizkuntza politika proposamenak aldagaian *hizkuntza eskubideak* kodea jasoko dau.

Esaldi-muina adierazpen ideologiko moduan formulatuta badago eduki mota aldagaian *adierazpen ideologiko* kodea jasoko dau; barriz, esaldi muina politika ekimen moduan formulatuta badago eduki mota aldagaian *hizkuntza politika proposamena* kodea jasoko dau.

#### 3. *kodea: Alkarbizitza*

Hizkuntzak bizikidetzak baketsurako lanabes moduan jo edota hizkuntzen arteko bizikidetzak baketsua bultzatu eta horretarako espazioak sortzea hizpide daben esaldi-muinak kodifikatu.

#### 4. *kodea: Kohesioa*

Hizkuntzak gizartearen kohesio eta integrazioarako lanabes moduan jo, hizkuntza desbardinetan komunikatzen diren gizartekideen eta euren komunitatearen arteko kohesioa bultzatu eta horretarako espazioak sortu zein kohesioaren apurtzaile diren politikak ekiditzeko nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

5. *kodea: Inklusibitatea*

Diferentziak albo batera itzita, pertsona eta talde desbardinak modu integratzailean barnean hartzeko nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

6. *kodea: Inposaketarik eza*

Hizkuntza baten ezagutzu edota erabilera nahitaezkoa ez egiteko eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

Inposaketarik eza balioa hizkuntza eskubideen formulazio mota bat da. Horregaitik, esaldi-muinok balio euskarri aldagaian *inposaketarik eza* kodea jasotzeaz gainera hizkuntza politika proposamenak aldagaian *hizkuntza eskubideak* kodea jasoko dau.

Esaldi-muina adierazpen ideologiko moduan formulatuta badago, eduki mota aldagaian *adierazpen ideologiko* kodea jasoko dau; barriz, esaldi muina politika ekimen moduan formulatuta badago eduki mota aldagaian *hizkuntza politika proposamena* kodea jasoko dau.

Inposaketarik ezari erreferentzia egiten deutesen esaldi-muinetan hizkuntza aldagaian kodetuko dan mintzaira inposaketa eragiten dagoen hizkuntza/k izango da/dira.

7. *kodea: Bazterkeria eza*

Hizkuntza bat ez ezagutzeagaitik edota ez erabiltzeagaitik baztertua ez izatea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

Bazterkeria eza balioa hizkuntza eskubideen formulazio mota bat da. Horregaitik, esaldi-muinok balio euskarri aldagaian *bazterkeria eza* kodea jasotzeaz gainera hizkuntza politika proposamenak aldagaian *hizkuntza eskubideak* kodea jasoko dau.

Esaldi-muina adierazpen ideologiko moduan formulatua badago, eduki mota aldagaian *adierazpen ideologiko* kodea jasoko dau; barriz, esaldi muina politika ekimen moduan formulatua badago eduki mota aldagaian *hizkuntza politika proposamena* kodea jasoko dau.

Bazterkeria ezari erreferentzia egiten deutesen esaldi-muinetan hizkuntza aldagaian kodetuko dan mintzaira bazterkeria eragiten dagoen hizkuntza/k izango da/dira.

8. *kodea: Adostasuna*

Hizkuntza politika bideratzean alderdi, eragile, herritar, etabarren artean iritzi akordua bilatzea.

9. *kodea: Akordioa*

Hizkuntza politikak bideratzean alderdi, eragile, etabarren artean hitzarmenak, elkarrizketa sustatzeko beharrianaren adierazpena burutzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*10.kodea: Konpromisoa*

Hizkuntzarekiko/hizkuntzekiko edo hizkuntza politikarekiko agente desbardinek (herritarrek, ordezkari politikoeak, etab.) daben inplikazioa aditzera emoten edota inplikazioa bultzatzea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*11.kodea: Borondatea*

Herritarren nahia, beharrianak eta eskaera bera-beratarra oinarri hartuta, hizkuntza politika beronetara egokitzea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

12.

*13.kodea: Aniztasuna*

Askotasun linguistikoa, soziala, kulturala, ideologikoa, etab. aditzera emon edota aintzat hartzea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu

14.

*15.kodea: Alkarlana*

Hizkuntza politika bideratzerakon agente desbardin (publiko zein pribatu) arteko alkarlana, koordinazioa bultzatzeko nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*16.kodea: Irekiera*

Jarrera zabal baten aldeko apustua egiten daben esaldi-muinak kodifikatu.

*17.kodea: Eraginkortasuna*

Hizkuntza politika ekimenetan efikazia bilatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*18.kodea: Errealitatea aintzakotzat hartu*

Gizartearen errealitate soziolinguistikoa eta euskalduntze maila aintzat hartuta jardutea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

19.

*20.kodea: Diskriminazio positiboa*

Esplicituki hizkuntza bat babesteko diskriminazio positiboa erabiltzeko hautua egin, hizkuntzari beste mintzairekiko tratamendu berezia emoteko nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*21.kodea: Subiranotasuna*

Hizkuntzen alorrean zein arlo zabalagoan ahalmen legegilea, autogobernua, autonomia, subiranotasuna, eskumenak modu baikorrean ikusi edota berau bultzako nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu. Gura dan ala bultzatzen dan subiranotasun eskaera erabatekoa ala partziala izan daiteke.

*22.kodea: Egingarritasuna*

Proposatutako hizkuntza politika bideragarria izateko eskaera burutzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

23.

*24.kodea: Progresibitatea*

Hizkuntza politika mailaz maila eta modu etengabea, neurriak lortzeko epemugak ezarriz burutzea eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

25.

*26.kodea: Subsidiaritate printzipioa*

Subsidiaritatearen printzipioaren alde egiten daben esaldi-muinak kodifikatu.

27.

*28.kodea: Errespetua, tolerantzia*

Hizkuntza politika bideratzerakoan edota hizkuntza bizikidetzan errespetuzko eta tolerantziazko jarrera izateko eskaera burutzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*29.kodea: Moderazioa*

Hizkuntza politiken aplikazio azkarregiaren orde, neurritasuna balioesten daben esaldi-muinak kodifikatu.

*30.kodea: Kalitatea*

Hizkuntza politiketan ekimenen ontasuna bermatzeko eskaera burutzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*31.kodea: Malgutasuna*

Errealitatearen konplexutasuna eta aniztasuna aintzat hartuta modu moldagarrian jokatzeko eskatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

32.

*33.kodea: Erakargarratasuna*

Herritarrentzako hizkuntza baten ala gehiagoren ezagutza eta erabilera atsegingarri bihurtzeko nahia agertzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

## **i Aplikazio esparrua (A.E.)**

Aldagai honen bidez politika ekimenak edota adierazpen ideologikoak zein eremu geografikotara dagozan bideratuak emongo da aditzera.

*1. kodea: Lokala*

Autonomia Erkidegoa baino esparru murriztagoa helburu daben esaldi-muinak kodifikatu: esaterako, udalak eta foru erkidegoak.

*2. kodea: Eremu estrategikoak: herri euskaldunak, hiriguneak*

Eremu soziolinguistikoen araberako sailkapena proposatzen daben esaldi-muinak kodifikatu.

*3. kodea: Euskal Autonomia Erkidegoa*

Esaldi-muinean eta inguruko testuan esparru jakin bateri erreferentziarik egiten ez bajako politika ekimena edota adierazpen ideologikoa Euskal Autonomia Erkidegora zuzenduko dala ontzat emongo da.

4. *kodea: Euskal Herria*

Euskal Herria terminoa erabili edota zazpi probintziei erreferentzia egiten jakenean kodifikatu.

5. *kodea: Espainiar Estatua edo Espainiar Estatuko Autonomia Erkidegoak*

Espainiar Estatua zein Espainiar Estatuko Autonomia Erkidegoak hizpide direnean kodifikatu.

6. *kodea: Europar Batasuna*

Europar Batasunari erreferentzia egiten jakonean kodifikatu.

7. *kodea: Nazioartea orokorrean*

Nazioartea orokorrean helburu danean kodifikatu.

8. *kodea: Diaspora*

Diaspora terminoa erabili edota euskal lurraldetik kanpora dagoen komunitate euskaldunari erreferentzia egiten jakonean kodifikatu.

9. *kodea: Iparraldea*

Iparraldeari, hau da, Frantziar Estatuan kokatuta dagozan Euskal Herriko lurraldeak hizpide direnean kodifikatu.

10. *kodea: Nafarroako Foru Erkidegoa*

Nafarroako lurraldea helburu danean kodifikatu.

11. *kodea: Estatu Frantsesa edo Estatu Frantseseko eskualdeak, departamentuak*

Estatu Frantsesa edo Estatu Frantseseko eskualdeak, departamentuak hizpide direnean kodifikatu.

12. *kodea: Hego Euskal Herria*

Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa hizpide direnean kodifikatu.

13. *kodea Nafarroako zonalde euskalduna*

Nafarroako zonalde euskalduna helburu danean daben esaldi-muinak kodifikatu.

14. *kodea: Nafarroako zonalde mixtoa*

Nafarroako zonalde mixtoa helburu danean daben esaldi-muinak kodifikatu.

15. *kodea: Nafarroako zonalde erdalduna*

Nafarroako zonalde erdalduna helburu daben esaldi-muinak kodifikatu.

16. *kodea: Nafarroa eta Iparralde*

Nafarroa eta Iparralde alkarregaz helburu direnean kodifikatu.

17. *kodea: Euskal Herri indefinitua*

*Pueblo vasco, Pais Vasco, vasco*, etab. erabiltzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoaz, Hego Euskal Herriaz ala Euskal Herriaz diharduen jakin ezin daitekenean erabili kodifikatzeko.

## m. Onuradunak (ON)

Aldagai honen bidez esaldi-muin ideologikoak helburu dauan edota hizkuntza politika proposamena zuzendua dagoen kolektibo edo erakundea emongo da aditzera.

### 1. kodea: *Herritarrak, gizarte orokorrean*

Gizarteari edota herritarrei orokorrean zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu. Kode honen azpian kodetutako esaldi-muin askotan gizarte edota herritarrak ez dira modu esplizituan adieraziko.

### 2. kodea: *Gaztelaniadunen hizkuntza komunitatea “elebakarrak”*

Modu esplizituan euskara ezagutzen ez daben gaztelaniadunek osatutako hizkuntza komunitateari zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntza komunitateen ordez hizkuntzen arteko harremana bada hizpide, esaterako, gaztelera eta euskararen artekoa, onuradun aldagaian *herritarrak, gizarte orokorrean* kodetuko da.

### 3. kodea: *Euskaldunen hizkuntza komunitatea*

Modu esplizituan euskaldunen hizkuntza komunitateari zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu. Hizkuntza komunitateen ordez hizkuntzen arteko harremana bada hizpide, esaterako, gaztelera eta euskararen artekoa, onuradun aldagaian *herritarrak, gizarte orokorrean* kodetuko da.

### 4. kodea: *Hizkuntza komunitateak*

Hizkuntza komunitateei orokorrean zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu. Gaztelaniadunen eta euskaldunen hizkuntza komunitateak biak era berean hizpide dabezan esaldi-muinak kodifikatu.

### 5. kodea: *Langileria*

Mota guztietako langileei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

### 6. kodea: *Irakasleak eta ikerlariak*

Hezkuntza sistemako irakasleei zein unibertsitate barruko zein kanpoko ikerlariei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

### 7. kodea: *Hizkuntza ikasleak*

Hizkuntza ikasleei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

### 8. kodea: *Umeak eta gazteak*

Eskola adineko umeetatik hasi eta unibertsitate adineko gazteei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

### 9. kodea: *Familiak, gurasoak*

Familia edota familia kide zehatzei (gurasoei, adibidez) zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

### 10. kodea: *Etorkinak eta gitxiengo etnikoak*

Etorkin zein gitxiengo etnikoei (ijitoei, esaterako) zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.



*11.kodea: Kontsumitzaileak*

Mota guztietako kontsumitzaileei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

*12.kodea: Ordezkarri politikoak*

Ordezkarri politikoei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu: alderdi politikoei, parlamentuari, gobernuari, estatuari, etab.

*13.kodea: Kulturgileak*

Kulturgileei zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu. Adierazpen kulturalak modu zabalean ulertzen direnez, kulturgileen kategoria be zabala izango da: idazleak, musikariak, bertsolariak, zinemagileak, artistak, etab. Kulturgileak zuzenean aipatu ez arren adierazpen kulturalakiko konpromisoa, babesak, nazioartekotzea, etab. aditzera emoten bada, onuradun gisara *kulturgileak* kodea hautatuko da. Ostera, helburua adierazpen kulturalen kontsumoa, eskaintza danean, onuraduna *gizartea* izango da.

*14.kodea: Euskalgintza*

Euskalgintzari, euskararen normalizazioa lortzeko lan egiten daberen erakundeei, elkartei, gizarte mugimenduei, etab. zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu: euskaltegi, euskara hutsezko komunikabide, hizkuntza politika erakundeak (hizkuntza politika erakunde publikoak salbu, zeinek herri administrazio kodearen barnean kodetuko diren), kultura elkarteak, etab.

*15.kodea: Erakundeak*

Erakunde, elkarte, enpresa, etabarretan barrura begira proposatutako ekintzak edota egindako adierazpen ideologikoak kodifikatu. Ekintza ala adierazpen ideologikoa barrura begira egoteaz gainera kanpora begira be badago (herritarrei, adibidez), kanpora begira onuradun dauanaren kodea lehenestuko da. Modu esplizituan langileria bada hizpide *langileria* kodea lehenestuko da *erakundeen* aurretik.

Herri administrazio kodearen azpian kodetu bako erakundeak, hau da, pribatuak direnak ala publiko edo pribatu diren zehaztu ezin daitezkanak hemen kodetuko dira, besteak beste: hezkuntza erakundeak (eskola, unibertsitate, ikerketa zentru, etab.), komunikabideak, etab.

*16.kodea: Herri administrazioa*

Herri administrazioan orokorrean, epaitegietan, ertzaintzan, osasun sisteman, udal administrazioan, Foru Aldundietan, Estatuko administrazioan, hizkuntza politika erakunde publikoetan (Hizkuntza Politika Sailburuordetza, Euskararen Aholku Batzordea), EiTBn barrura begira burututako ekintzak edota egindako adierazpen ideologikoak kodifikatu. Ekintza ala adierazpen ideologikoa barrura begira egoteaz gain, kanpora begira be badago (herritarrei, adibidez), kanpora begira onuradun dauanaren kodea lehenestuko da. Modu esplizituan langileria bada hizpide *langileria* kodea lehenestuko da erakundeen aurretik.

*17.kodea: Diaspora*

Diasporaren parte diren pertsonen zuzendutako esaldi-muinak kodifikatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eztabaida eta jardun politikoan euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzaren linguistikoaren auzia bizi-bizirik dago, alderdi politikoen artean jarrera eta ikuspegi politiko-ideologiko ezberdinak agerian utziz. Eztabaida-gune zentralak bi dira: batetik, hizkuntzok gizarte mailan izan beharreko tokia eta, bestetik, berau egikaritzeko modua. Azkenaldian gainera, historikoki lurraldeotan berba egin diren mintzairaz aparte eta herrialdeen arteko hartu-emanak ugaritu ahala, atzerriko hizkuntzek eurak ere goranzko presentzia bereganatu dute politikoen saio eta mintzoan; bereziki ingelesarenak, bere *lingua franca* estatusak bultzatuta, baina baita etorkin komunitateek ekarritako aniztasun linguistikoak ere.

Plangintza linguistikoa zehaztu edota bertan eragiteko ahalmena duten eragile politikoen leku-hartze linguistikoak ezagutzeak berebiziko interesa dauka egungo eta etorkizuneko elkarbizitza linguistikoaren nondik norakoak ezagutu eta, ahal den neurrian, aurreikusteko. Ikerketa lan honetan leku-hartze horien gainean galdetu gura da; itaun zentralak honakoak izanik: zelako hizkuntza politikak hobesten dituzte EAeko alderdi politikoen? Zeintzuk ikuspuntu ideologiko agertzen dituzte hizkuntzen aurrean? Zelako lotura dago hobesten dituzten hizkuntza politika eta agertzen dituzten hizkuntza ideologiaren artean?

Horretarako, EAeko plangintza linguistikoa zehaztu edo bertan eragiteko ahalmena duten bost eragile politiko aztertu dira: Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ), Ezker Abertzalea, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSE-EE), Partido Popularra (PP) eta Ezker Anitza. Hauen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak diskurtso mailan aztertu dira, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetara 1980-2012 aldian aurkeztutako programen eduki azterketa burutuz.

**Jone Goirigolzarri Garaizar** Soziologian eta Antropologian lizentziatua da eta Gizarte Zientzietan doktorea. Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean dihardu irakasle 2009az geroztik. Bere ikerketa-ildo nagusia euskal soziolinguistika da. Hainbat argitalpenen egilea da. Berriki *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* liburuan eta “Euskareren biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen” ikastaroan parte hartu du. Eskuarlean duzun lana bere doktorego tesiaren moldaketa bat da.